

Contrapas

Berceac oroc iřan đira

Hegats

Bart goihen gradora

Heufcara ialgui adi capora

Oray hura iganenda

LITERATUR ALDIZKARIA. 4. ZENBAKIA. EKAINA. 1991

Berce ororen gaynera.

Garacico herria

4

Benedica dadia

XX. MENDEKO EUSKAL LITERATURA

Heufcara

Heufcarari emandio

Behardu yen thornuya

Bascoac oroc preciatzē

ara ez iaquin harrē

Heufcara

Ialgui adiy

ffiren dute

en heufcara.

Berce gendede

ufcara

Ecin scriba çayto

Oray dute phorog

dano egon bahiz

Euganatu cirela.

primitu bagueric

Hi engoitic e biliren

Mundu gucietaric.

Heufcara

Ialgui adi mundura

Donostian, 1990. Azaroaren 12tik 16ra

Heufcara

JEAN HARITSCHELHAR / ANA TOLEDO / PIARRES XARRITON

JUAN KRUIZ IGARABIDE / PAULO IZTUETA / JON KORTAZAR

PATRIURKIZU / JOAN MARI TORREALDAI / MARTIN UGALDE

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL / EDUARDO GIL BERA

AURELIA ARKOTXA / ELIXABETE PEREZ / SANTI ONAINDIA

JOXE AZURMENDI / BITORIANO GANDIAGA / BERNARDO

ATXAGA / ITXARO BORDA / JOAN MARI IRIGOIEN

Lengoagera

Estimatze gu

Oray aldiz hi

Ohoria orotan.

lengoageric

La fucela ez berceric

Oray ezta erideyten

Heufcararen pareric.

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA. 4. ZENBAKIA. EKAINA. 1991

4

A U R K I B I D E A

MENDE HASIERA

PATRI URKIZU
Aurkezpena 7

JEAN HARITSCHELHAR
Literatura ikerketak mende hasieran 9

ANA TOLEDO
Euskal Elaberriaren sorrera 17

PIARRES XARRITON
Jean Etchepareren euskal lanak 21

MAHAI INGURUA 45

ERREPUBLIKA GARAI

JUAN KRUIZ IGARABIDE
Lizardi Vobiscum 59

PAULO IZTUETA
Orixeren estetika 71

JON KORTAZAR
Lauaxeta eta Europako poesia 85

PATRI URKIZU
Antonio Maria Labaien
eta Euskal Antzertia 91

MAHAI INGURUA 99

ERBESTEA

JOAN MARI TORREALDAI
Aurkezpena 107

MARTIN UGALDE
Erbestea (1936-1956) 109

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
Jokin Zaitegi: Zertzelada batzu 117

EDUARDO GIL BERA
Mirande, arrotzaren arima 127

MAHAI INGURUA 135

BIDE BERRIAK

AURELIA ARKOTXA
Maldan-Beheraren irakurketa
baten inguruan 145

ELIXABETE PEREZ GAZTELU
Mitxelena: euskara noranahikotuz 155

SANTI ONAINDIA
Euskal literaturaren pusketak,
Bizkaian batez ere 167

JOXE AZURMENDI
Euskarazko saioa XX. mendean 177

MAHAI INGURUA 201

GAURKO LITERATURA

BITORIANO GANDIAGA
Nere obraz 207

BERNARDO ATXAGA
Gogoetak Euskal Literaturaz 219

ITXARO BORDA
Autojustifikazio erreza 229

JOAN MARI IRIGOIEN
Nire idatz-esperientziatik 239

MAHAI INGURUA 257



Hegats
Literatur aldizkaria
4. zenb. 1991

ARGITARATZAILEA:
EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

ALE HONETAKO KOORDINATZAILEAK:
PATRI URKIZU / MAITE GONZALEZ ESNAL

ERREDAKZIO BATZORDEA:
MIKEL FERNANDEZ ABAITUA, XABIER AZURMENDI, RAMÓN
ETXEZARRETA, MAITE GONZALEZ, KOLDO IZAGIRRE,
MARIASUN LANDA, JOXAN MUÑOZ, PATRI URKIZU.

PARTE HARTZAILEAK:
Jean Haritschelhar, Ana Toledo, Piarres Xarriton,
Juan Kruz Iragabide, Paulo Iztueta, Jon Kortazar,
Joan Mari Torrealdai, Martin Ugalde,
Josemari Velez de Mendizabal, Eduardo Gil Bera,
Aurelia Arkotxa, Elixabete Perez, Santi Onaindia,
Joxe Azurmendi, Bitiriano Gandiaga, Bernardo Atxaga,
Itxaro Borda, Joan Mari Irigoien

MAKETAGILEA:
Lamia

Plazuela del Consejo, 3-4º
31001 Iruñea

SUSKRIPZIOA:
BEGOÑA ANDONEGI
Euskal Idazleen Elkarte
Etxague Jeneralaren kalea, 6-behea-eskubia
20003 DONOSTIA
Tf.: (943) 420010
ISSN: 1130-2445
L.G.: SS- 359/90

ALDIZKARI HONEK
EUSKO JAURLARITZAREN
LAGUNTZA JASO DU

XX. MENDEKO EUSKAL LITERATURA

Donostian, 1990. Azaroaren 12tik 16ra



MENDE HASIERA

3

HITZALDI
ETA MAHAI INGURUA



PATRI URKIZU

Aurkezpena

JEAN
HARITSCHELHAR


*Literatura
ikerketak mende
hasiera*

ANA
TOLEDO

*Euskal
Elaberriaren
sorrera*

PIARRES
XARRITON

*Jean
Etchepareren
euskal lanak*



JEAN HARITSCHELAR
(Baigorri, 1929)

Bordeleko
Unibertsitateko
katedratiko emerittoa eta
Euskaltzaindiako
Lehendakaria.

**Le poète souletin Pierre
Topet Etxahun.**

**Contribution à l'étude
de la poésie populaire
basque du XIX^e siècle**

(1969)

eta

**L'oeuvre poétique de
Pierre Topet Etxahun**

(1970)

...

ANA TOLEDO
(Antzuola, 1954)

Deustuko Unibertsitateko
irakaslea Donostiako
EUTG-ko egoitzan.

**Domingo Agirre: Euskal
eleberraren sorrera**

(1989)

eta

**Euskal nobelagintzaren
lehen zutabeak (1990)**

...

PIARRES XARRITON
(Hazparne, 1921)

EHU-ko Irakasle ohia.

Euskaldunak (1943)

eta

**J. Etchepare mirikuaren
obra (1985,87,89)**

...

PATRI URKIZU



Aurkezpena

EUSKALTZAINDIKO lehendakari jaun agurgarria, idazle eta hizlari, ikasle eta irakasle, entzule jaun-andreok, egunon denoi:

XX. mendeko euskal literaturaren gainean hitzegiteko parada antolatu du Euskal Idazleen Elkarteak. Bost egun gaur azaroaren 12a astelehenetik hasi eta ostirala 16a artio. Hogei hitzaldik, eta bost mahai inguruk osatzen dute egitaraua, ahalik eta ikuspegi zabalena eta sakonena ematen saiatuko direnak. Gogoeta zahar eta berrien, eztabaiden plazaratzeko une egokia izanen dugulakoan gaude.

Azterketa egunok denoi idekiak daude, baina nork ez daki gure bizitzan euskal kulturaren esparru garrantzitsuenetakoa den euskal literaturgintzaz arduratu eta kezkatuak daudenen mundua urria eta ttipia denik? Literatur zale ororentzat asmatu izan dira solasaldiok, bai ikasle, bai maisu, bai idazle, bai interesatu edonorentzat, uste dugularik hitzaldi eta iritzi trukeen ondorioan, aste honen buruan, gure mendeaz eta gure literaturaz genuen ikuspegia osatua, zuzendua eta beteagoa izango dugula.

Hainbat eta hainbat neke eta buruhauste ondoren, euskal idaztiak egin zituzten gizonak merezi dute gure bizitza presatian atsedenditoxoa har dezagun, arreta ipin diezaiegun eta izkribitu zutenaren ausnarketa egin dezagun, beraietxek baitira, ikusiko dugun bezala, mende honen une latz eta ilunetan argi eta kriseilu ditzizari, etengabe bideak zabaldu eta iparra erakutsi digutenak.

Ikerketa hauekin hasteko, beraz, nor egokiagorik Jean Haritschelhar Duhalde, baigorriarra, Euskaltzaindiko lehendakaria dena baino, euskararen erakunde zaindaria nagusia eta zabalena, eta Euskal Idazleen Elkarte bera bere aginte eztiptean denez gero?

Badakit ez gurean, ez eta beste hedadura zabalagoko erresumatan ez duela aurkezpen beharrik, baina euskaldunok maiz hain baikara hitzez labur eta motz, zilegi dakidala diodan begiruneagatik presentazio umil hau egitea. Utziezadazue, bada, ahalik eta laburren bere zenbait lan nagusienak aipa eta orotarazten.

...

Jean, esan dugunez, baigorriarra da, beraz, euskalduna eta nafarra, eta dituen tituluen artean ez du tipientzat jotzen, bere jaioterriko auzapez izana, alegia, alkate makila zuzen erabilia.

Parisen, Saint Cloud-eko L'Ens-en ikasi zuen, CNRS-en zenbait urtez lan eginga eta baita ere Bordeleko Unibertsitatean. Hemen, ikerketa luzeen ondorioan René Lafonen zuzendaritzapean lortu zuen doktoradutza, Pierre Topet Etchahun eta XIX. mendeko herri poesiaz egin den ikerketa lanik osatu eta sakonenarekin.

Euskal Herriko poesiagintza sakondu nahi duten guztiek behar-beharrezko, derrigorrezko dute liburu honen irakurketa, hots, *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862). Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIXe siècle*, (Bayonne, 1969), delakoarena.

Euskera aldizkarian 1970. urtean argitaratu zituen Etxahunen poema guztiak, itzulpen, aldaera eta ohar benetan interesgarriz ornitutako liburu mardula, ere.

Urte askotan Baionako Euskal Museoko zuzendari izana dugu ere, eta bertako *Bulletin*-az arduratu izan da jakituri handiz, eta erakustegiko

liburu multzoa hala nola beste ongiak aberastuz joan da urtez-urte.

Bere idazlanak aldizkari hanitzetan barrena sakabanatuak dituzu, esandako Boletinean, *Gure Herrian*, *Euskeran*, *Herrian* eta beste hainbat lekutan, eta hemen denak aipatzea luzexko joko bailiguke batzu besterik ez ditut aipatuko:

"Baigorriko zombait kantu" (*GH*, 1963, 243-356)

"Oxobi olerkaria" (*Euskera*, 1988, 243-356)

"Louis Dassance euskaltzain zenaren oroitzapenetan" (*Euskera*, 1989, 361-365)

"Bereterretxenkantoria-Commentaire littéraire" (Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae. Vitoria 1985, 1063-1074)

"Kontrapas" (*Patxi Altunari omenaldia*, Mundaiz, 1990, 159-169)

"Euskal Herria Oihenarten atsotitz eta erretrauetan" (*Euskera*, 1989, 549-563)

"*La pastorale*", (*La pastorale, Théâtre populaire basque en Soule*, Baiona, 1987, 11-54)

"En torno a la balada" (II Congreso Mundial Vasco, Castalia, 1989, 461-495)

"Pierre Lafitte, critique littéraire", *Hommage à Pierre Lafitte*, Baiona, 1986, 177-188)

...

Etabar.

Hiru hizkuntzatan, beraz, iaioa dugu Jean, eta nolazpait bere lana definitu nahiko bagenu, esango genuke euskal literaturaren azterketa munduan estilistikaren bideak ideki eta jorratu dituela, eta gonbarazio bat egitekotan, adibidez, Koldo Mitxelenarekin, hau esan behar dugu, alegia, honen lanetan zorrotz-zehaztasunak nabari badira, Haritschelhar baitan argitasuna, eta dotoretasuna nabarmentzen eta gailletzen direla.

Eta ene hitzok luzets ez ditzazuen, uzten zaituet berarekin. Bere gaurko hitzaldiaren gaia hau izango duzue: Mende hasierako literatur ikerketak.

Beraz, Jean, berorrek du hitza.

JEAN HARITSCHELHAR



Literatura ikerketak

Nere lehenbiziko galdera zer den literatura ikerketa izanen da. Nere ustez literaturaren azterketa da, sakona dudarik gabe, jujamendu pertsonal bat idazki bati buruz, idazle bati buruz edo berdin literatura bati buruz.

Kritika hitza hartu behar da bere erran nahi zabalean, adimenduak eman dezakeen jujamendua, aztertuz obra batean alde onak eta txarrak, deus ahantzi gabe, obra osoa besarkatuz, ikusiz zer emaiten duen aditzera, eta nola adierazten duen. *Zer eta nola* horietan datza kritikoaren edo azterlariaren zeregina.

Hasi behar da buruz buruka batekin. Bi pertsona dira aurrez aurre emanak, idazlea alde batetik azterlaria bertzetik. Bien artean idazkia, izan dadien olerki, antzerki, elaberri edo bertze, lehenak zer erran nahi duen, bertzeak zer ulertzen duen. Azkenean, komunikabide berezi bat da literatura eta bakoitzak berea emaiten du idazlearen eta irakurlearen arteko elkarrizketan.

Badakit literatura kritikan eskola edo teoria bat baino gehiago badela, neurtzeko kriterio desberdinak izan daitezkeela, psikologiak, soziologiak, linguistikak badutela zer erranik, ez baita idazlea bizi izan den edo bizi den mundutik kanpo jarria eta baduela bere pentsamoldearen zabaltzeko hizkuntza bat, moldatu behar dituen hitzekin eta noiztenka sortu behar dituenekin.

“La Palissade” edo “Perogrullada” batekin hasiko naiz erranez ez dela literatura kritikarik literaturarik gabe. Halere erran nezake aski goiz hasi dela literatura kritika Euskal Herrian.

Dakidanez Oihenart izan da lehena sail horretan sartu dena. *L'Art poétique basque indiquée dans une lettre écrite à un Curé du pays de Labourd au mois de mai 1665* delakoan, bere teoriak azaltzen eta eskaintzen dizkigu eta lehenbiziko Euskal literaturaren historia egiten aipatzen dituelarik Etxepare, Haranburu, Jean d'Etxegaray, Arnaud de Logras, Etxeberri Ziburukoa.

Geroxago XVIII. mendean nola ez aipa Etxeberri Sarakoa Axularri eskaintzen diolarik kapitulu oso bat, gidari eta maisu gisa hartzen duelarik.

“Egun beraz arrazoin gehiagorekin katolikoen artean Axularri zor zaio hil ondoan bederen, eman dezagun merezimenduen aitorra eta ohorea.”

“Zuk ere kontsidera bazeneza, Axular Euskal Herriko Esdras handi haren hezurak tonba horren azpian dauntzala eta hortik ere mintzo direla, agian hobekiago orhoit zindezke errespeturekin zor zaioen ohorearen emaitera.”

Apologia, dudarik gabe, bainan denbora berean lekukotasuna erakusten baitu zer toki berezia hartzen zuen Axularrek euskal idazleen artean.

XIX. mendean, erromantizismoaren ondorioak direla, hasten da kantuen bilketa, nahiz jadanik hasiak ziren XVIII. bukaeran Baionako euskal erakustokian dagoen lehen bildumarekin, 1798.koa, Patri Urkizu-k argitaratua. Hor daude ere, oraindik publikatu gabeak Chahorena eta Duvoisin-ena. Nahiz ez den egiazko literatura kritika, badago halere hautaketa bat.

Francisque Michel-ek bere liburuan *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique* bere iritzia emaiten digu diolarik:

“Maintenant, quels avantages peut présenter la publication de ces chansons basques? Loin de moi l'idée de bien vouloir les mettre en parallèle avec les *piesme* serbes, si pleines de sève et d'originalité. J'avouerai qu'en général elles me paraissent inférieures à celles de la Bretagne que nous a fait connaître M. de la Villemarque et je crains que le siècle actuel, habitué aux artifices de notre poésie et aux éclats de la musique moderne, ne trouve fade les naïfs accents de la muse des montagnes et les accords sans art de son pipeau rustique. Toutefois, au milieu des pensées communes, je dirai même triviales, il n'est pas rare de rencontrer des inspirations heureuses, des élans vraiment poétiques qui, pour la hardiesse, la vigueur, la richesse ou la grâce, peuvent soutenir la comparaison avec ce que la littérature grecque et latine nous ont laissé de plus parfait en son genre.” (221. or.)

Orotarat, XI. kapituluhan, “Poésies populaires des Basques” deritzanean, emaiten ditu hanbat eta hanbat kantu, 70 bat bederen, ondo sailkatuak “Chants historiques, chansons politiques, légendes poétiques, chants funèbres, romances, chansons morales, satires, chansons diverses” sailetan.

Ez ditu bakarrik kantuak emaiten. Eskaintzen dizkigu ere hiru euskaldun idazleen presentapenak, Etxepare, Oihenart eta Axular eta bururatzen du liburua bibliografia batekin, honi osatzen duela XIX. mendearen erdia artino daukagun Euskal literaturaren historia.

Liburu aberatsa beraz, interesgarria. Lehen aldikotz Unibersitatea sartzten da euskal kulturari eta zaukan talenduarekin Francisque-Michel-ek eskaintzen die, ez bakarrik euskaldunei, bainan erdaldunei ere liburu eder bat. Villasanterekin ados naiz idazten duelarik liburu horrentzat “que marca un hito en la historia de los estudios sobre el País Vasco, su lengua y su literatura”.

Kantuen bilketa ez da bururatzen Francisque-

Michelekin. Hor dira J.D.J. Sallaberry-ren liburua *Chants populaires du Pays Basque*, Mme. de la Villehelio-ren bilduma ttipia *Souvenirs des Pyrénées. Douze airs basques* eta ez dezakegu ahantz José Manterola-ren *Cancionero vasco*, egiazko antologia, euskalki guzietako kantuak biltzen dituen behar diren nota ugariekin eta datu bibliografikoekin.

Emeki emeki literatura kritika sartzen ari da euskaldunen artean. Euskal estudioak aurrera doatzi eta mendearen azken urteetan, 1897an hain zuzen biltzen da Donibane Lohitzunen “Le congrès de la tradition basque” deritzana. Kongresu horretan parte hartuko dute, ez bakarrik euskaldunek, nahiz hegoaldekoek, nahiz iparraldekoek, baina bai ere erdaldun jakintsun askok. Literaturak bere tokia dauka parte hartzen dutela Webster, Jaurgain, J.D.J. Sallaberry, Charles Bordes eta bertze batzuk. Oroitarazi beharra da Jaurgain-en “Quelques légendes poétiques du Pays de Soule”, estudio sakona, historiaren aldetik argitzen dituela kantu batzuen azpian dautzan gertakariak.

Denbora berean, zonbat urte lehenago Vinson-ek agertzen zituen bere lanak. Izpiritu zorrotza, mokokaria ere —halakoak ziren orduan (ikus Bonapartek ukan zituen eztabaidak Van Eys eta bertze batzuekin)— zor diogu *Le folklore du Pays Basque* eta artikulu mordoxka bat d’Abbadie-ren olerki edo kantu sariei buruz. Zor diogu ere bibliografia aberats bat, beharrezkoa ikertzailearentzat Jon Bilbao-rena agertu baino lehen.

Ez dezaket bazter XIX. mendean Duvoisin Kapitaina. D’Abbadie-ren adixkideetarik zen (Bonaparte printzearena ere). Hemen interesatzen zaiguna ez da idazlea, ez eta ere itzultzailea, aitzitik kantu biltzailea—jadanik aipatua dugu— eta bereziki d’Abbadie-ren sarietako epaileetarik bat. *Le Courrier de Bayonne* egunkarian, urtero agertzen zituen sarituak izan ziren kantuak eta kantu horiei buruz zituen iritziak. Behar litezke bildu artikulu horiek interesgarriak direlako euskal literaturarentzat. Pariseko liburutegi nazionalan d’Abbadie-ren gutundegia hiru liburukitan jarria

N. AF 21746/747/748 ikertzekoa da, hor baitago bildua altxor interesgarrienetarik bat XIX. mendeko euskal literaturaren hobeki ezagutzeko.

Onartu behar da XIX. mendearen eragina literatura ikerketetan. Hizkuntzari bereziki ohartu balinbazaio mendearen hasieratik Humboldt-ekin eta segitu mende guzian, literaturak eta literatura ikerketek hartzen dute, denbora berean, behar duten tokia. Hor daude lekuko bilketak eta Donibane Lohitzuneko kongresua.

Mende hastetik gerletara (1900-1936)

Nehork ez dezake uka mende honen hasieran euskal estudioak aurrera joan direla. Hil dira XIX. mendeko ikerlari haundienak: adibidez, Duvoisin (1891), Bonaparte printzea (urte berean), d’Abbadie euskal letren mezenasa (1897). Baina gazte batzu agertzen dira, Azkue, Urkijo, Arana Goiri... “Le Congrès de la tradition basque” delakoaren ondotik denek senditzen dute batasunaren bidea hartu behar duela euskarak eta euskal estudioak behar direla gorpuztu, behar zaiela eman bizi berri bat.

1901. Biltzen dira Hendaian euskaltzaleak, Hegoaldekoak eta Iparraldekoak. Orduan sortzen da Euskaltzaleen Biltzarra euskal elkarteetarik zaharrena. Berriz biltzen da Hondarribian 1902an eta dakigunez ortografiaren bateratzeko urratsen eztaibaidatzean sortu ziren ikaragarriko istiluak. Halere oldar berria aurrera doa.

Hiru pondu nahi nituzke azpimarratu, garrantzi haundikoak direlakoan.

1. Aldizkarien sortzea

Aldizkarietan haundiena da, dudarik gabe, Julio de Urquijo-k sortu zuena 1907an: *Revista Internacional de Estudios Vascos* deritzana. Aski da irakurtzea aldizkari horretan idatzi duten jendeen zerrenda ikusteko zinez nazio artekoa zela eta nahi zituela aldizkari horretan bildu munduan zehar euskal kulturaz kezkatuak ziren euskalarien lanak. Baina ez zezakeen nornahik idatz aldizkari horretan. Fausto Arocena-k zion bezala: “Una sola

condición era precisa para figurar como colaborador de la R.I.E.V.: la solvencia científica. En esto la aduana establecida por Don Julio era insobornable. Para hacer figurar trabajos en su Revista era imprescindible tener a la mano una patente de riguroso cientifismo y a su vez, por una especie de círculo vicioso que en este caso sería virtuoso, el hecho de ser colaborador de la Revista confería también patente de hombre de letras”.

Julio de Urkijori zor diogu testu zaharren berargitalpena: haietan *Linguae Vasconum primitiae* Detxeparena, fac simile gisa. Erran dezakegu Julio de Urkijok salbatu duela Detxepare eta hari esker barreiatu direla euskaldunen artean gure idazle haundien obrak: Axularren *Geroa*, Tartasen *Onsa hiltzeko bidia* eta abar...

Kontutan hartu behar ditugu ere Julio Urkijok berak egin dituen azterketak. Publikatu du Etxeberri Sarakoaren obra *Zarautzen* aurkitu zuen eskuizkribuari esker. Maisu gisa agertzen zaiku paremiologian; Garibay-en errefrauak, Zalgiz-enak eta Oihenart-enak ikertu eta argitaratu ditu, metodologia on baten bitartez. Bultzada haundi bat hartu dute euskal ikerketek R.I.E.V.-ren azalean. Lema ederra, ongi zaindua 30 urtez.

Bertze aldizkari batzu behar ditut aipatu hala nola *Euskal Esnalea*. Hamar urte bakarrik iraun du, bainan euskaraz agertzen zen. Irakurtzen ahal ditugu Euskal Jaietan saristatuak izanak ziren olerkiak eta halaber *Euskal Esnalearen* itzalean emaiten ziren hitzaldiak.

Gure Herria aldizkaria sortu zen Baionan 1914eko gerlatik landa, 1921ean hain zuzen. Gazte batzu izan ziren aldizkari horren sortzaileak. Bi hizkuntzak erabiltzen ziren, euskara eta frantsesa, euskaraz ipui, olerki eta bertze, frantsesez literatura kritikak hala nola Lhandek Etxahuni buruz egin zuen lehenbiziko hurbilketa. Halaber bertze idazle batzuen bizitza eta obra aztertu dira, Becas apezarena, Barbierena.

2. Kantu bilketa


Azkuek eginikako bilketa aberenetsetarik bat da. *Cancionero popular vasco* bere mila kantuekin gainditzen ditu XIX. mendeko kantu bildumak. Geroxago agertua izan arren haren *Euskalerrriaren yakintzan* ere aurki daitezke literatura testoak, kantu ipui eta bertze. Azkuek utzi digun ondarea balia dezake ikertzaleak, hala nola balia dezakeen ere Aita Donostiaren *Euskal eres sorta* deritzana. Behar bada Aita Donostiaren hautaketa zehatzagoa da. Hirugarren kantua bilketa Iparraldean egin da Nehor eta Dufau-rena, Nehor-en izen orde pean datza Barbier, Senpereko erretora. *Gure Herria* agertzen ziren kantuak eta orotara bilduma pollita da, Barbier hil ondoan Aita Donostiak hartu zuela haren segida.

3. Ikerketak

Ikerketa horietan lehena izan da Albert Leonena. Tesia gisa eman zuen 525 orrialdeko liburu gotor bat: *Une pastorale basque Hélène de Constantinople. Étude historique et critique d'après des documents inédits avec texte et traduction*. Etsenpluzat hartzen dut Albert Leon-en kasua lehen aldikotz agertzen baita euskal literaturari buruz eginikako tesia bat frantses Unibertsitatean eta behar bada edozein erresumatako Unibertsitatean.

Sakonki aztertu du *Hélène de Constantinople* pastorala, konparatuz ezagutzen diren bortz esku izkribuak, Pariseko liburutegi nazionalakoa, Baionako liburutegikoa, Urđiñarbeko esku izkribua, eta Bordeleko liburutegiko biak. Bainan lehenik eskaintzen digu pastoralaren historia eta *Hélène de Constantinople*-n iturriak XV. mendeko kronika batetik hasirik eta XVI. mendeko elaberri bat aurkiturik hau baita dudarik gabe pastoral egileak irakurtu duena “Bibliothèque bleue” edo liburutegi urdinaren baitan argitaratu dena aldi bat baino gehiagotan. Eredutzat har dezakegu Albert Leonen tesia. Haren ondotik ez dezagun ahantz Saroihandy-ren lana Roland pastoralaz.

Bertze erakasle bat garai berean pastoralaren ikertzaile fina izan zen. Georges Herelle Baionako



lizeoko erakasle zen. Jakintsun handia zen eta maite zituen elaberriak. D'Annunzio-ren eta Blasco Ibáñez-en eleberriez amiraturik, egin zituen itzulpenak eta ezagutarazi zituen bi idazle horiek Frantzian. Baionara etorri zelarik jakin zuen Ziberotar antzerki berezi bat jokatzeko zela. 1899-tik eta 1914 artio segitu zituen eman ziren pastoral guziak. Euskara ez jakinez, aurkitu zuen Ziberotar bat eta laguntzaitzat hartu zuen. Artikulu asko idatzi du pastoralari buruz bereziki *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* deritzan aldizkarian. Artikulu horiekin Pariseko

Champion irarkolak agertu zituen lau liburu:

- *La représentation des Pastorales à sujets tragiques*
- *Le théâtre comique des Basques*
- *Les pastorales à sujets tragiques. Techniques des pièces. Histoire du repertoire*
- *Le repertoire du théâtre tragique. Catalogue analytique.*

Orotarata 700 bat orrialde. Sekulan ez zen holakorik agertu Euskal Herrian. Eman digu 1914-eko gerlaren aintzineko pastoralaren teknika,

etnografiaren aldetik interesgarria, egiazko pastoralaren estudio sinkronikoa delakotz. Eskaini digu ere pastoralaren historia eta pastoralen katalogoa. Erran nezake Hérelle izan dela pastoralarentzat Bonaparte printzea izan dena euskal dialektologiarentzat. Nahi ala ez, ikertzaile batek Hérelle-n lanak beharrezkoak ditu nahi badu zerbait aztertu pastoraletan.

1920-tik eta 1936 artio Gasteiz-ko seminario nagusian bi erakasle abertzalek nahi dituzte haien ikasleen gogoak argitu. Haietarik bat Jose Migel Barandiaran-ek erakasten du aurre historia eta antropologia pentsatzen duelakotz beharrezkoa dela apezentzat jakitea zer izan diren gure arbasoak, nola bizi izan den euskaldun jendea, nola bizi den, zer diren haren sineste zaharrak.

Bigarrenak, Manuel Lekuonak aztertuko du herri literatura eta bere *Literatura orale euskerika-n* lotzen ditu kantu zaharrak eta bertsoaritza, sakonki ikertuz teknika, irudiak, metrika. Aurrerapen haundi bat egiten dute literatura ikerketek Manuel Lekuonaren lanarekin.

Bertze ikertzaile bat agertzen da munduko bi gerlen arte horretan. Nahiz gaztea zen orduan, erakutsi zuen zein maite zuen euskal literatura. Lafitte apezaz mintzo naiz eta nahi nituzke aipatu idatzi dituen bi obra.

Lehena da *Eskualdunen loretegia (XVI. mendetik hunateko liburuetarik bildua. Lehen zathia* (1545-1800). Liburu horretan egin duen hautaketa oso ona da eta bere iritzia azaltzen du, kritika zorrotzak eginez noiztenka. Ez da Lafitte apologista horietarik. Neurtzen du behar den bezala euskal literatura. Hona adibide bat. “Vous devinez que notre micro-culture basque, sans université propre, sans large public local vraiment cultivé est nécessairement tributaire des grands mouvements d’idées du monde qui nous entoure et que son originalité réside surtout dans ses options, beaucoup moins dans ses inventions”.

Eta urrunago zion: “Nos livres sont presque toujours l’expression euskarienne, l’adaptation, la transposition peu audacieuse d’idées universelles,

surtout d’idées chrétiennes: les prêtres sont, en effet en majorité parmi les auteurs qui se sont fait imprimer”.

Bigarrena da: *Le basque et la littérature d’expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule* Baionan eman zuen hitzaldi baten agerpena. Nahiz iparraldeari mugatua, bainan erraiten du badela literatura bat hegoaldean, liburuxka hori da gure lehen euskal literaturaren historia eta badu merezimendu erakusten baitu zein kritikalaria fina zen Lafitte.

Zonbait adibide nahi nituzke eman erakusteko ez zela bertzeen iritzien errepikatzailea bainan bere iritzi pertsonalak emaiten zituela.

Axularrez: “Gure gorespen guziek baino hobeki, haren irakurtzeak erakutsiko dautzue nolako mintzaira bizi, samur, nasai, gozo, xoragarria zerabilan”.

Gasteluzarrez: “Axular bezain miresgarria zaiku, non ezten gorago ere ezarri behar, hain baitu eskuara laño, bakun, bero, jori eta gurbil”.

Bertze batzuentzat aldiz laudorio guti hala nola Arambillagarentzat: “Arambillaga deitu apez batek 1684.ean Imitazione bat egin zuen eskuaraz. “Egin” erran baitugu, “hutsegin” erran beharko ginuen”.

Garai hartan moralista agertzen da Lafitte. Huna zer dion pastoralaz Jean Etchepare bezala satanerien kontra baita.

“Labur bide bat litekela sataneria guziaren edekitzea, hori bai. Satanek denbora sobera baderamate jauzika eta ditxoka, dabilzan gertakariekin deus egitekorik ez duten dantza eta tortiko batzutan. Ara berez, ezin aipatuzko harrokeria eta lizunkeria moltzo liteke gehiago. Ezen satanek darabilzkiten solasak ardura izigarriak dira likitsak.”

Utziko du bazterrerat kriterio moral hori bainan orduko giroa halakoa zen. Hor ditugu lekuko Aitzolen, Julio de Urkijoren, Van Eys-en eta Lafitte beraren iritziak Detxeparen obraz:

“Esta primicia literaria es obra de un navarro, de un sacerdote y de un vasco que ama su lengua y su tierra. *Choca pronto a los de nuestro tiempo habituados a otra sensibilidad, que un sacerdote se exprese con tan crudo realismo al tratar poéticamente un tema como el amor.*”

B.E.L.
Literatura I, 81. or.

“Ni la inspiración, ni el ropaje de las poesías son dignas del ideal que canta. Aquélla pobre, éste tosco. Pero late el alma de un enamorado en esas humildes composiciones. Es por eso, precisamente, por lo que apreciamos los sencillos versos de Echepare.”

JOSÉ DE ARIZTIMUÑO
Literatura I, 133. or.

“Las poesías contenidas en *Linguae vasconum primitiae* son de dos clases: religiosas unas y amorosas otras. En éstas hay algunos versos excesivamente libres que difícilmente se comprende aparecieran bajo el nombre de un sacerdote; mucho menos, de un sacerdote que ejercía autoridad eclesiástica.”

J. DE URQUIJO
Literatura I, 134. or.

“Todos convienen en que Dechepare no fue un gran poeta, aun cuando no falta belleza en algunos de sus versos. El interés que encierra el primer libro impreso en vascuence es sobre todo lingüístico y bibliográfico.”

J. DE URQUIJO
Literatura I, 134. or.

“Por lo que se refiere al valor poético de las poesías de Dechepare, lo dejaremos a la apreciación de los mismos vascos, sin embargo creemos que se deberá admitir que hay muchas de esas poesías que ni son elevadas como pensamiento, ni gramaticalmente correctas.”

VAN EYS
Literatura I, 135. or.

—“Melange étonnant de piété et d'impudeur, pauvreté du vocabulaire, longueurs, souffle un peu court, tels sont les défauts de Dechepare. Louons par contre son esprit d'initiative, sa facilité, son patriotisme.

—Oro neurthitz egina da. Zathi ederrak baditu; — bainan egiari zor— aphez batek segurik egin behar ez bezalako hetarik ere parrasta bat.

P. LAFITTE
Literatura I, 135. or.

Gerlarik honara

Hain zuzen, Detxepari buruz eginikako iritziak osoki aldatu dira bigarren munduko gerlatik landa. Gil Reicher eta Lafonek erakutsi dute olerkari ona zela gure lehen olerkaria.

“Ces poésies sont empreintes d'un lyrisme, d'une passion, d'une force que l'euskara retrouvera rarement. Et je ne crois pas que ce soit un paradoxe de dire que notre poète basque est peut-être le plus grand.”

Lafonek, Unibertsitateko irakasle izanez, aztertzen du Detxepareren obra bereziki *Boletín de la Sociedad Vascongada de los Amigos del País* delakoan, “La langue de Bernard Dechepare” eta “Notes pour une édition critique et une traduction française des *Linguae Vasconum Primitiae*”, bi artikuletan. Bidea idekia da bertze estudioentzat.

Garai berean 1950.eko hamarkadan José María Leizaolak argitaratzen du *Estudios sobre la poesía popular vasca* eta geroxago *La crónica en la poesía popular vasca* (1961), *1808-1810 en la poesía popular vasca* (1965), *Romances vascos y literatura prehistórica* (1969), *Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la poesía vasca* (1974). Bortz liburu horietan bada zer ikas eta Leizaolak merezi du toki berezi bat literatura ikertzaleen artean.

Gero etortzen da euskal literaturaren historiaren garaia, 1960.eko hamarkadakoa. Lehena da Mitxelenarena: *Historia crítica de la literatura vasca*, berak eman zion “crítica” adjektiboa, alta hain zuzena. Gero heldu da Villasanterena, lan aberatsa, xehetasunez betea. Ibon Sarasolak bertze

ikuspegi batetik jukatzen du euskal literatura. Aita Onaindiak euskaraz emaiten ditu bere iritzi orokorrak eta ez ditugu ahantziko *Mila euskal olerki eder* deitutako bilduma ez eta ere Aita Riezuren kantu hautaketa.

Nola ez aipa Luis Mari Mujikaren *Historia de la literatura euskérica* eta *Euskal lirika tradizionalaren* lau liburuki aberatsak (1985). Beharrezkoak ziren ikuspegi orokor horiek haien artean sartzen dudala Juan Mari Lekuonaren *Ahozko euskal literatura* bere osabari jarraikiz eta gai berean Antonio Zavalak egin duen lan ikaragarria Auspoa editorialean agertuz hanbat eta hanbat bertsolarien kantuak eta bertsolaritzaaren historialari gisa agertuz. Halaber Patri Urkizurenak: *Euskal antzertia, Astolasterrak*.

Beharrezkoak ziren estudio horiek bainan beharrezkoak dira ere idazle bakoitzak merezi dituen azterketak. Azken hogoi urte hauen berezitasuna literatura ikerketetan da Unibertsitatean irakurto diren tesiak.

Barkatuko didazue agertzen balinbanaiz lehen. Adinari zor diot ohore delako hori. Etxahun izan da gaia, haren bizitza, haren olerkigintza eta nere bigarren tesian egin dut Etxahunen kantuen edizio kritikoa. Aintzin solasean hauxe nion:

“Notre étude est essentiellement une monographie et nous l’avons limitée à cela, persuadé que nous sommes que l’on ne peut faire oeuvre de recherche utile en mettant la charrue devant les boeufs. L’ensemble de nos travaux —thèse principale et thèse complémentaire— permet de situer un auteur et une oeuvre poétique que nous nous sommes acharné à dater. Ce n’est qu’à partir de contributions de ce genre que l’on parviendra à une connaissance plus exacte de la littérature populaire basque.”

Ez ezar golde nabarra idien aintzinean. Hori da errepikatzen dudana. Zorionez ikusten dut ikerketa bide hori hartu dutela Unibertsitateek. Detxepareren bertze ikuspegi bat daukagu Patxi Altunaren liburuekin; aztertu duelakotz Detxeparen metrika, eman Detxepareren hiztegia, eskaini ere *Linguae*

Vasconum Primitiae delakoaren edizio kritikoa, Euskaltzaindiaren Euskararen lekukoetan sartzen dena, bertze hamasei edizio kritikoekin.

Berrikitan bi tesi Domingo Aguirreri buruz irakurtuak izan dira, Donostian Ana Toledorena, Gasteizen bertzea, Gasteizen ere Xabier Altzibarena *Mogeldarrak, Astarloarrak Prai Bartolome* deritzana. Badakit Lizardiri buruz irakurtuko dela bertze tesia bat eta Bordelen Aurelia Arcochak presentatuko duela Arestiz egin duen azterketa.

Horrek ederki erakusten du aro berri batean sartuak direla literatura ikerketak Euskal Herrian ditugun unibertsitateeri esker. Zorionez ikus daiteke ere euskal filologia sailak ez dutela bakarrik filologia eta linguistika erakasten. Literaturak ere badu bere tokia Deustun, Donostian eta Gazteizen, Bordelen, Pauen eta Baionan bezala.

Erakaskuntza eta ikerketa horiei esker erreberrituko da euskal literaturaren ikuspegia. Beti bezala, kontutan hartuz monografiak ekarriko dituzten berritasunak, beharko dira aldatu eta hobetu Euskal literaturaren historiak. Ez beza pentsa nehork ere gaizki jukatzen ditudala orai artio eginak direnak. Beharrezkoak ziren, garai batekoak eta edozein gaietan egiten den lana ez da sekulan exhaustiboa. Gure ondotik etorriko direnak ez dira lan eskasean egonen. Kritikak dituzte egin ditugun lanak. Hori da nere itzaropena.

ANA TOLEDO



*Testu-tipo berria,
harrera-modu berrirako*

Euskal fikziozko prosaren sorreraz ari gara. Horra hor testu-tipo berria euskal mundu idatzian. Beronek eragiten duen harrera-modu berria: bakarkako irakurketa literarioa, alegia, bakarkako irakurketaren bidez bideratzen den harrera-modu literarioa.

Ez halabeharrez, baina bai berez, zenbait gorabehera bitarteko, fikziozko prosa eraldaketa jakin baten eragile bihurtu zen, nahiz eta bere indar soilari leporatu gabe, testuinguru zabalago batean atzeman beharra somatzen den harrera-modu berriaren itxuratzea.

Ondoko lerroetan uste horren oinarriak azaltzen saiatuko gara. Horretarako, lehen-lehenik gertaera hori ezagutu arte euskal literaturak erakutsi duen funtzionamendu-moduaren lerro nagusiak bilduko ditugu hona, jarraian sorrera honen inguruan funtzionamendu-modu horrek jasaten dituen aldaketak mintzagai hartzeko.

1. Euskal literaturaren ibilbidea: fikziozko prosaren berankortasuna

Euskal literatura inguratzen duten literaturekiko erkaketa orokor batek zenbait berdintasun eta desberdintasun uzten ditu agerian.

Inguruko literaturen ibilbidearen argitan, euskal fikziozko prosaren sorrera berankorra da. Inguruko literatura horietan ere, fikziozko prosa izan da berankorrena jaiotzen, beste literatur genero batzuen hastapenek aurrea hartu bait diote. Euskarazkoan, baina, horietan ez bezala, mendeen jauzia dago batzuen eta bestearen artean.

Eskuartearen dugun gaiari lotzen zaion alderaketa eginaz hasiko gara; euskarazkoa inguratzen duten literaturak Erdi Aroan jaiotzen ziren komentu-bizitzaren gurgpilean eta orohar elizgizonen sustaturik. Lekugune horretan aurkitu zuen babesa kulturak, hor zeuden kultura greko-latinora heltzeko nahitaezko zen tresna ezagutzen zuten gehienak: hizkuntza. Eta hizkuntzaren ezaguera honi esker, iturri horietan edandakoa abiapuntu, hizkuntza arruntak lantzeari ekin eta arrunt izaeraz desjabetze-bidean jarriaz, hizkuntza landuen mailara igo zituzten. Euskarazkoan antzerako zerbait gertatuko da, mende batzuk beranduago, ordea: iturri greko-latinoak ezagutu dituzten haiengandik hasiko da euskara mundu idatzira jaiotzen, elizgizonen eskutik helduko dira lehen idazlanak, batasun baten azpian ehotako lehen tramankuluak. Hala ere, atzerapenak ez-ezik —atzerapena, jakina, erkaketa-gaitzat inguruko literatura horiek hartzen diren neurrian— beste zenbait berezitasunek ere markatuko dute euskal literaturaren garapena. Laburtuz, eta asko laburtuz, testu-mailan eta honi hertsiki loturik testu-harrera-moduan lekutuko genituzke aipatu berezitasunak.

Berezitasunetariko bat testu-mailan kokatzerakoan, bi alderdi ditugu gogoan: bata, testua taxutzeko modua; bestea, testu-tipoa; alegia, testuaren eraketa-modua eta lantzen diren generoak.

Testuaren harrerari dagokionez, eta aurrekoari oso lotuta, halaber, bi alderdi ditugu gogoan: bata, harrera-modu literarioa ala ez literarioa izan,

jasotzeko modua; alegia, behar literarioei ala ez literarioei erantzuteko erabiltzen den eta bestea, kanala, hartzailearengana heltzeko erabiltzen den bidea.

Gure ustez, bi elementu hauek —testuaren taxutze-modua eta harrera-modua— euskal literaturan erakusten dituzten konbinazio-moduek bihurtzen dute berezi berau inguruko literatura horiekiko. Gatozen xehetzera.

1.1. Fikzioa, batipat ahozko munduaren esparru

Zinez, elizgizon baten eskutik datorren idazlan liriko batek jarriko ditu lehen oinarriak euskal literaturan. Irudimen-munduak sortu du. Zeregin desinteresatu legez kaleratzen du eta zeregin desinteresatu moduan dastatzen da. Harrera-modu literarioari zuzentzen zaio eta konbentzio hauen barnean jasotzen da, behar literarioak asetzeko, hain zuzen ere.

Etxeparerena ez da azalpen isolatua. Hitz-neurtuak aurkituko du jarraipenik.

Etxeparek edo Teologian Doktore izan zen Ziburuko Etxeberri latina eta hizkuntza horretan landutako kultura, zehazkiago, hizkuntza landu horretan aditzera emandako erretorika eta poetikak ezagutzen zituzten; prezeptiba hauetan azalduriko baliabideak erabili zituzten behintzat, eta nolabait, arrunta zen hizkuntza hizkuntza landuen bideetan zehar abiatu zuten. Alegia, ahozko mundutik mundu idatzirako iraganbidea hasi zuten eta kultura mundu idatzi honekin identifikatzen den heinean, hizkuntza landuen bidean jarri.

Ez dirudi, ordea, nolana egingako iraganbidea. Horren lekuko Arnaut Oihenartek XVII. mendean bere *L'Art Poétique Basquen* egingako adierazpenek, besterik gabe ere, egiten duten salaketa.

Arnaut Oihenartek ez du gogoko bera baino lehenagoko euskal bertsozintza. Ez omen dituzte betetzen hizkuntza landutako poetek betetzen dituzten legeak. Oihenartek euskal bertsozintza eraso ez-ezik, bere proposamenak ere egin zituen

euskal hitz-neurtuak izan beharko lukeenaz. Ikusi besterik ez dago bere *L' Art Poétique Basquen* nola aldarrikatzen duen beste neurri, kontzeptu eta erreferentzi batzuk lituzkeen hitz-neurtua¹.

Oihenartek, azken batez, bertso landuagoak nahi lituzke, hizkuntza landuetakoan gisakoak, landutako kulturaz jantziagoak; ez bertsolari trebe hutsak, ez mundu idatzira jaio gabekoek ere dasta ditzaketen bertsoak.

Etxeparek kantarazi egiten omen zituen bere bertsoak, baita Ziburuko Etxeberriek ere².

Etxepareren eta Ziburuko Etxeberriren poemak idazle ikasienak dira, kultura greko-latindar horretan jantzienak, baina egitez, edo asmoz eta egitez, gehiengoei, edo publiko zabalari behintzat, zuzentzea erabaki zutenenak. Irakurtzen ez zekiten haiek ere beren bertsogintza dastatzea nahi zuten, irakurlegoa hain urria zen garai haietan, hesi hau igarotzea erabaki, eta ondorioetariko bat, hemen hartu dugun ikusgunetik begiratuta behintzat, zain herritarrez beterik beren poemak paratzea izan zen.

Izan ere, bada idazlana-publikoa harremana, ez harreman simetriko eta zehatz-mehatza, baina, azken batez, idazlanean barrena eratzen doan hartzaile inplizituak kidetasun hari bat aurkitzen du errealitate soziologikoko hartzaile batzuekin eta ez guztiekin. Irakurle inplizitu horrek, nolabait, murriztu egiten du errealitate soziologikoko hartzailea.

Jakina, garai hauetan irakurlegoa oso da urria, gutxiengoak bakarrik duelako aukera mundu idatziko kulturaz jabetzeko, eta gainera, publiko uniforme eta homogeno samarra da, bai ikasketamailan dagoen homogenotasunagatik, bai geruza sozial gutxi direlako aukera horretaz balia daitezkeenak.

Oihenartek poema landuak nahi lituzke, inguruko hizkuntzetakoak bezalakoak, *irakurtzeko* diren poemak, eta Etxeparerenak eta Ziburuko Etxeberrirenak ez dira horrelakoak.

Arestian genionez, euskal ahozko mundua utzi eta euskal mundu idatzira egin duten jauzia ez da nolana hikoia. "Ezagueraren iturrietan" edan dute,

latindar munduaren irakatsiak jaso dituzte, baina zain herritarrari uko egin gabe adierazi dute beren mundua eta beren poemetako zain herritar hau leporatzen die Oihenartek. Azken batez, Oihenartek idatziaren mundua mundu ikasiarekin lotzen zuen, mundu landuarekin, bere joko-arauak zituen mundu batekin, bere kontzeptu, neurri, aipamen... hitz batean, bere konbentzioak zituenarekin, mundu herritarrarenak ez bezalakoak.

Oihenartek hitz-neurtuak paratzeko proposaturiko bideak, hau da, edozein hizkuntza landutako poetek betetzen dituzten legeak betetzeak, ez zuen oihartzunik erdietsi eta euskal hitz-neurtuarentzat ildorik egokiena izan ala ez —hartu dugun ikuspegitik kanpo gelditzen da auzi horretan sartzea— Oihenarten nahien azpian honako hau uler daitekeelakoan gaude: poesia landu baten aldarrikapena, garai horietan behintzat, elite batentzat zatekeen poesiagintzaren hobespena, ez entzuteko, baizik eta irakurtzeko egindako poesi moduaren proposamena.

Entzuteko egindako bertsoak baditu muga batzuk irakurtzeko egindakoak ez dauzkanak, edo beste modu batera esanda, kanalizazio-moduak baldintzatu egiten du testuaren itxuratze-modua. Azken batez, testuaren eraketa, maila haundi batean behintzat, ezartzen doa hartzeko modurik egokiena eta gero hartzeko modu horren konbentziotatik at jasotzen bada, hartzailea ase gabe utz dezake, hartzailea zenbait identifikaziotara eginda egon bait daiteke, alegia, ahoz entzuten duen hartan konbentzio batzuei egokitzen zaion komunikazioa itxaroten du eta irakurritakoan, berriz, beste konbentzio batzuei egokitzen zaion komunikazioa.

Baldin eta komunikazioak porrot egingo ez badu, entzun ahala ulertu beharrak, baliabide erretoriko batzuen erabilera eskatzen du eta beste zenbaitena eragozten. Esaterako, metafora pribatuak, egilearena eta egilearena bakarrik den simbologia, ez-usteko adjetibazioa. Aldiz, testua den euskarri iraunkor horrek ez du horrelako mugarik: irakurlea behin eta berriz itzul daiteke testura, nahi adina denbora du komunikazio horren harian aritzeko, behin eta berriz

atzeman dezake testuak eskaintzen diona. Igorpen-modua, igortzeko erabiltzen den kanala, ez zaio arrotza berbaldi literarioari. Azken finean, ahozko mundua eta idatzia bi mundu desberdin dira, bakoitzak bere ezaugarri bereizleak ditu.

Etxeparek eta Ziburuko Etxeberrik idatzi egin zituzten beren sortze-lanak eta liburua bide ezagutzera eman, baina nahiz batak, nahiz besteak kantura jotzen zuten zabalkunderako. Testua euskarri izan gabe kantua bidez zabaltzen ziren bertsoetatik liburua euskarri duten hauetara dagoen aldea ez da hutsala. Jakina, ez gaude ahozkoasunean. Besteak beste, egile ezaguna dugu, bere horretan gordetzen den eta bere horretan gordetzea bilatzen den mezua, aldaerarik ez duena, batasun baten azpian ehotako poema-sorta... baina, bestalde, ez gaude, ezta ere, garbi-garbi mundu idatziaren konbentziotan, besterik ez bada ere, mundu honen konbentzioen barnean irakurtzera zuzendua egotea onartzen delako.

Testua euskarri duela ala euskarri horretara jo gabe —nahiz eta alde hori ez den nolana hiko, jadanik azaldu dugunez— euskal hitz-neurtua historikoki bereziki *entzumenera* zuzendu da eta zuzentze-modu hau egilearen asmo izateak testua (euskarri hau ez duen berbaldiarekin kidetasun maila bat gordeaz) jasotzeko modu horri egokitzea ekarri du, eta horrenbestez, hartzeko modu horrek funtziona dezan beharrezko diren baldintzen barnean taxutu behar berbaldia.

Euskal hitz-neurtuak bereziki bide hauek landu ditu, historikoki behintzat. Ez dira euskal hitz-neurtuak bakarrik landu dituenak, baina, bere ingurunean ez bezala, badira ia-ia soil-soilik landutakoak. Bestela esanda, ingurune horrekiko alderaketak zera erakusten digu: inguruko literatura hauetan garapena duen banakako irakurketara bideratutako testuaren gabezia edo erabateko urritasuna euskal literaturan.

Arnaut Oihenartek proposaturiko bideak eta berak *O. ten gastaroa neurthizetan* zabaldu nahi izan zuen ildoak porrot egin zuen, honako zentzu honetan behintzat: bere prezeptiba euskal bertsoak behar

zuen izan ala ez, paratu zituen poemak goimailakoak izan ala ez, azpi-azpian banakako irakurketara zuzenduriko hitz-neurtua aldarrikatu eta paratu nahi izan zuen Oihenartek eta jasotzeko modu horretara bideratutako hitz-neurtua ez zen landu ia euskaraz bi mende luzeren buruan.

“Fikzioa: batipat ahozko munduaren esparru” izenburupean irekitzen genuen atala, honako hau adierazi nahian: irudimen munduak sortutako tramankuluetan testua/banakako irakurketa harremana falta dela euskal literaturaren sisteman. Hutsune honek markatzen du gure sistema bere ingurukoekin alderatzean.

Mundu idatziko gure kontaketa erkaketa-mailan berankor moduan itxuratzen zaigu. Hitz-neurtuak deskribaturiko egoera erakusten du. Antzerkia antzezpenari eta ikuskizunari lotua dago, ez banakako irakurketari; baina, dena den, antzerki hau ere ez da praktikan herri-antzerki izatetik igarotzen. Honenbestez, azalduko ikuspegiaren barnean, euskal fikzioaren esparrua ahozko munduari lot dakiokelakoan gaude.

1.2. *Jakintza-alorra, batipat mundu idatziaren esparru*

Hainbat eta haibat literaturatan bezala fikziozkoa ez den testu batez eman zitzaion hasiera euskal prosari. Erkaketa gaitzat hartu ditugun inguruko literaturek, nola esparru erromanikoan, hala anglogermanikoan ere, hala erakusten dute.

Albreteko Joana Erregiaren eskariz Joannes Leizarragak eginiko Bibliaren itzulpenak jarriko ditu hastapenak. Euskal literatura inguratzen duten beste literaturek denbora labur baten harian prosazko eskaintzaren esparrua zabaltzera jo zuten. Euskarazkoak, aitzitik, luzaroan jarraituko du horiek hautsitako zenbait hesi hautsi gabe.

Alderaketak agerian uzten duena zera da: inguratzen gaituzten hizkuntzetako literaturek ere egia eta irakatsiaren kategoriei lotutako testuez jaio zirela prosara, baina handik lasterrera, fikzioari tartea egin ziotela, batak eta besteak prosaren alor



hori beteaz. Euskarazkoak ez zion, ordea, tarterik ireki XIX. menderarte. Mende honetan bertan, gainera, nekez eta urri. Bienbitartean euskal prosa filologi eta erlijio-gaiak irakasteko landu da, jakintzaren esparru bihurtuz bereziki alor hau.

Elizgizonak dira prosa honen egile eta sustatzaile. Euskal hartzailea hezitzea eta ezagueraz jaztea dute helburu. Euskal prosa tramankulu landua, kultura izango da; egileek beste hizkuntza bat (zu)etako mundu idatzian ikasi dituzten gai haiek beren galbahetik igaro eta euskaraz irakatsiko dizkiote euskaldunari. Zeregin interesatua ez-ezik, denborapasa arin batetik urrun gelditzen den komunikazioa da.

Hala ere, bada multzo zabal honetan desberdintasunik egon daitekeela pentsatzeko moduko zantzurik. Bada ezaugarri amankomunik: "jakintzaren iturrietan" edan ondoren, tramankulu horiek sortu eta euskal hartzailea jakintza-alorrean jaztea bilatzea. Ez dugu uste, ordea, sustrai eta helburu horiek patroiz berberaren azpian josi direnik, erizpidetzat testua-jasotzeko modua harremana hartzen bada behintzat.

J.M. Lekuonak XVI-XVII. mendeetan argitaraturiko liburuez diharduela, liburuon helburu pastoralara aitortu ondoren, eliz batzarretan ahoz gora, ozenki, irakurri ohi zirela dio, oin-ohar mailan, honako argitasun hauek eskainiaz:

“Bestalde, gure iduriko, gauza jakina da ahoz-ahoz ematekoak direla liturgi testuak, ospakizunetan eman ere; eta berdin ematekoak katekismoak eta kantutegi erlijiosoak. Aszetiko liburuak ere, nahiz eta printzipioz irakurle pribatua suposatu, ez da baztertzekoa testu horien erabilkera publikoa, batez ere kofradietako bilguretan”³.

Liburu aszetikoei beraiei ere ez die ukatzen erabilera publikorik. Dena den, gure ustez, erabileraren alor honetan testuen azterketa xehe batek, beharbada, bereizkuntzaren bat egitera eramán gaitzake. Alegia, erabilera publiko eta pribatuaren arteko bereizkuntzara, ez zehatz-mehatz eta lerro zuzena ezarriaz batzuen eta besteen artean, hurbilpenez baizik. Eta alderantziz, erabilera-moduaren ezaguera testu-azterketarako lagungarri bihur daiteke.

Filologiari eskainitako liburuak irakurketa pribatuz dastatuko zirela pentsatzea eskatzen du zentzu komunak berak, baina liburu erlijioso guztiak erabilera publikora eramán ote ziren? Ez ote dago liburu erlijioso horien artean nolabaiteko mailakatzea? Eta mailakatze hau bitarteko, ez ote daude batzuk bereziki erabilera publikora zuzenduak eta besteren batzuk pribatura?

Gure ustez egon da nolabaiteko mailakatzea euskal liburu erlijiosotan. Hitz berberekin ez bada ere, goian transkribaturiko pasarte horretan horrelako zerbait irakurri daitekeelakoan gaude: liturgi testuak, katekismoak, eta kantutegi erlijiosoak tratatzen direnean batetik eta liburu aszetikoak bestetik.

Haril honetan hauxe da aditzera eman nahi genukeena: gaiak, gaiak jasotzen duen tratamenduak, testua itxuratzeko moduak, hasi perpausatik eta gaia taxutzeko modura... mailakatze eraren bat ezarten dutela eta mailakatze era honi ez zaiola arrotza jasotzeko modua, publikoa ala pribatua. Alegia, “jakintzaren iturrietan” edan ondoren datozen testuak badira ere, batzuk gai herritarragoak, modu herritarrago batez, eta *entzunaz* jasotzeko moduan egituratu dituztela, eta beste batzuk, ez hainbeste. Ez gaia, ez gaia lantzeko modua, (lantze-modu hau zentzurik zabalenean

hartuz, hasi perpausa-maila eta bertan erabiltzen den joskera-modu, hiztegi, kontzeptu, aipamen etab. etatik perpausaz harantza dagoen egituratze-moduaren lerro nagusietara) eraikitzen dira patroï berberaren azpian eta elementu hauek, azken batez, mailakatze-iturri bihurtzen dira jasotzeko modu eta hartzailegoaren mugaketan. Ez modu itxi eta hesi finkoak ezarriaz, gorago genionez, baina bai modu zabal batean.

Euskal liburu erlijioso XVI. -XVII.-XVIII. mendeetan behintzat irakurketa publikoz dastatu da, nahiz eta guztiak beti, ez ziren erabilera honen barnean, seguruaski, dastatuko.

Azterketa xehe batek batzuen eta besteen artean nolabaiteko mugak jarri bitartean, gorago adierazitako erizpideak bide testua/testua jasotzeko modua harremanak ezarri bitartean, mintzagai dugun gaiaren garapenari begira, bi puntu azpimarkatu nahi genituzke:

—mundu idatzitik, “ezagueraren iturrietatik” beraietatik edandako gaiek, irakurketa pribatuz jasotako gaiek, euskal prosagilearen galbahea igarotzen dutenean, sarritan irakurketa publikoz dastatzeko moduan itxuratzen ditu.

—euskal fikzioaren munduak bereziki *entzuleak* baditu, jakintza alorrari ere ez zaio entzuleria arrotz.

Garai-modu hauetan, ez gure muga geografikoen barnean, ez muga hauek gaindi, ez dago literaturarik, ezta literatur genero konkreturik ere, irakurle go sendoa euskarri duenik. Mundu idatzia eta bertara daraman bidea, hain da gutxiengo batena, nekez egon daitekeela irakurle go zabalik, baina gurean, errealitate estraliterarioak ez-zez, literarioak berak ere, irakurle go horren ahulezia eta ia gabezia erakusten du elizgizonetatik harantza.

Euskal fikzioaren munduak *entzuleak* ditu bereziki, eta baita jakintza-alorrak berak ere nagusiki, euskal egileak fikziozko mundua eraikitzean, nola zenbait ezaguera heleraztea bilatu duenean *egokitu* egin ditu testuak entzumenera zuzentzeko, entzulegoak dastatzeko moduan

itxuratu ditu, hartarako egokiak ziren baliabideak erabiliz. Euskal idazleak, orohar, gehiengoarengana heltzea bilatu du, herritarra izatea, hala fikzioan, nola esparru honetatik at, ahalik eta euskaldungo zabalaren arreta erakartzea helmuga. Euskal testuak igorpen-modu horretan funtzionatzeko moduan taxutu ditu; euskal hartzaileak ez zeukan zertan letraduna izan beharrik. Jakina, liburu erlijiosoen hartzailegoaz ari gara, nekez onar daitekeelako planteamendu-modu hau gai filologikoak zerabiltzaten haientzat, besterik ez bada ere, gehiengoarengandik urrun zegoen lehengaiz hornitzen zirelako.

Irakurketa publikoaren aukera egin ez zuena, salbuespena izateaz gain, oso-oso urria zen irakurlearengana zuzendu zen. Fikzioaren alorra izan, nahiz jakintzarena, euskal irakurleak ez die babes handirik ematen.

Gauza jakina da debeku eta eragozpen ugari jarri zaiola historikoki euskarari mundu idatziko komunikazio-tresna izan zedin: eskola, administrazio, etab. etatik kanpo bizi izan da eta beste hizkuntza batean mundu idatzira jaiotako euskaldunak ez du gerora, gehienetan, interesik erakutsi lanketa edo irakurketa orduan bere ama-hizkuntzara itzultzeko. Ez interesik erakutsi, ez beharrik somatu, ezta premiarik izan ere.

Historian barrena bada hizkuntzari prestigioa ematea bilatu duenik: hasi Etxeparearengandik eta XVIII.-XIX. mendeetako apologistengana. Etengabeko aldarrikapena da. Alai ala negar-zotinka, burumuin hotzaren ala bihotzaren aginduei jarraiki, gehienetan modu horiek konbinatuz, maiz jarri zuten luma ia gaurregunera arte dirauen eginkizun honen zerbitzuan. Historian barrena bada euskararen egoera soziolinguistikoa iraultzea bilatu duenik, esatez eta egitez, bada lantegi honi lotu zaionik, baina borondate, adierazpen eta ekintza guzti hauek ez ziren nahiko izan aurrez aurre zeuden trabak gainditzeko. Gutxiago edo gehiago, euskaldunak euskaraz idatzi du, bere hizkuntzaren alde azaldu da euskaraz ala erdaraz, proposatu ditu aldaketa-bideak. Beste hizkuntza batean eskolaratutako euskalduna,

ordea, nekez eta urri itzuli da euskarara, bere mota desberdinetako beharrak asetzeko orduan euskaraz idatziz edo irakurriz. Euskaldun ikasi gutxi ase ditu bere behar erlijioso, jakintzazko edo literarioak euskara bide, aitzitik, joera orokor moduan, euskaratik at lekutu ditu mundu idatziarekiko harremanak, erdaraz ase du mundu idatzitik jaso nahi zuena eta mundu idatziari eskaini nahi ziona.

Jakina denez, literatura-gizartea harremanak zeresan franko sortu du eta ikuspegi arras desberdinak aurki daitezke literaturaren teorigile eta kritikoen artean. Bada alderik Arteagatikoa Arte defendatzen zutenengandik, literatura azpiegitura ekonomikoaren isladapen jotzen zuten marxista mekanizistengana. Tarte hamaika planteamendu-moduz beteta dago.

Kausa-efektu harreman mekaniko bat ezarri gabe, uste dugu literaturari ez zaiola zeharo arrotza sortzen eta esanahidun bihurtzen deneko gizartea. Ikuspegi hau euskal literaturara ekarriaz, zera esango genuke: euskal gizartearen ezaugarriek eragin dutela gure literaturaren garapenean. Beharbada ez zuten halabeharrez eta nahitanahiez eragin behar, baina azkenean, faktore eragile bihurtu ziren.

Euskal gizarteak ez du piramide-egiturarik hartzen, oinarritik gora dagoena hutsa ez bada, hari bat baino gehiago ez da. Euskal literatura gizarte-egituraketa hau jasatera heltzen da.

Ez modu zehatzez eta konpartimendu itxiak eratuaz, baina gizarte-estratifikazioa eta literatur gertaera ez dira loturarik gabekoak. Gure inguruko literaturaren funtzionamenduak berak zera erakusten du: egon dela ahozko tradizio bat, ez letrarik gabeko dastagai soila izan dena, baina bai bereziki; aldiz, idatzia letradunei zuzendu zaie, banaka irakurtzeko gaitasuna ez-ezik, mundu landu hori ulertzeko eta mundu horretaz jabetzeko beharrezko ziren oinarri eta ezaguera zituztenei.

Euskal literaturak bigarren tradizio honetan erakusten ditu ahuleziak. Testu gutxi idatzi da, nahiz fikzioaren alorrean nahiz esparru honetatik kanpo, banakako irakurketari soilik zuzendua.

Piramidearen goi aldeak huts egin duela esango genuke, letradunak zehazki, mundu idatzi landua ezagutu eta mundu hori lantzen eta dastatzen zuten haiek, eta nolabait, literatura landua, kultura/banakako irakurketa bikotea hutsune baten lekuko izan ez bada ere, oso harreman gutxikoa bai behintzat. Hainbat bikotek funtzionatu du, hala nola: testua den euskarri hori gabe ahoz igorri diren eta entzule bati zuzendu zaizkion komunikazioak —formaren aldetik itxiak nahiz eta aldaera ugari ametitu—, testua euskarri izanda irakurketa publikoz jaso direnak edo oinarrian eta zabalpen-abiapuntu testua izanik ahozko igorpen eta hartzailetza hutsera igaro zitezkeenak, ... Azken batez, ahozkotasanaren eta erdi-ahozkotasanaren munduak funtzionatu du eta “idazkerarenak”, maila handi batean, porrot egin du⁴.

Euskal idazleak ikasiak dira, mundu landua ezagutzen dutenak, baina euskal irakurlegorik ez delako, beste hizkuntza batean letradun egindako euskal irakurlea bakana delako eta ahalik eta hartzailegorik zabalenera heldu nahi dutelako, —harrigarria ez den gertaera, bestalde, sinismen baten hedapena eta sinismen horretan tinkoago bizi izatea bilatzen zuten liburu haietan— edo testu herritarrak egin nahi dituztelako, edo beste asmoren batzuegatik... gauzatu zituzten testuak ikasia ez zen hartzailegora heltzeko modukoak izan ziren gehienak.

Euskal piramidearen goi alde hori oso bakanka besterik ez da izan euskaldun eta ez da euskal mundu idatzian bizi izan. Literatura-mailan bikoterik ahulena literatura landu/irakurketa pribatuak osatu dutena izan da.

2. Fikziozko prosa: eraldaketa-iturri

Fikziozko prosaren sorrerak ez zeukan zertan eraldaketa-iturri bihurtu behar, baina beste zenbait zirkunstantziren laguntzarekin, oso modu apalean bada ere, aurreko egoera iraultzen hasi zen.

Beste zenbait faktore estraliterarioren artean, irakurle goaren hedapena ez zaio arrotza izango

literatur gertaeraren sustapenari eta, bereziki, literatur generoren bati, eleberriari, hain zuzen ere. Erdi mailako klase profesionalen gorakada eta erdi-mailako irakurle goaren azaleratzeari lotu izan zaio genero horren gorakada. XVII. mendearen bukaera aldean kokatuko litzatekeen gizarte-gertaera da⁵. Beranduago helduko zaie ordua behezagoko geruzei: aski gertaera ezaguna da, XIX. mendearen inguruan zabaltzen zaiela gonbita gehiengoei kulturaren esparruan parte har dezaten, nahiz eta, azkenean, gonbitea idazten eta irakurtzen ikastera mugatuko den⁶.

Gizarte-gertaera hauen eragina nabarmenduko da euskal literaturan. Ez da, seguruaski, eragile bakarra, baina bada XIX. mendean gure literaturan somatzen diren zenbait aldaketen sustatzailea.

Mugimendu erromantikoaren garaia da. Euskaldunak ez zion entzungor egin Europa osoa zeharkatzen zuen izpiritu honi. Besteak beste, izpiritu honetatik jalgitzen den herri-hizkuntzen balioztatze eta gorakadak, Erdi Aroan hegalak erabat altxatzea lortu ez zuten hizkuntza haien zat edo hegalak altxa bazituzten ere, gerora airoso ez zebiltzan haien zat, bigarren paradaren itxura hartzen du. Testuingurua arras desberdina da, gizartea antolamendu-moduz, aurrerapenez... asko aldatu da, baina marko berri horretan bigarren aukera iritxi dela dirudi.

Euskalduna, ordurarte bezala, beste hizkuntza batean jaiotzen da letraren mundura⁷, baina lehen baino ugariago, eta ordurarte ez bezalako neurrian, euskarara itzultzen da, tresna honen bidez bere idatziak adierazteko. Eta, jadanik, ez da elizgizona bakarrik bidaia hau egiten duena, ordurarte salbuespena izana zen sekularra protagonismoa hartzen hasten da. Hitz-neurtua asko hedatuko da, nola produkzio-mailan hala kontsumo-mailan. Horrekin batera hizlaua ordurarteko hesiak hausten hasiko da eta bide berriak eraikitzen: autua, leienda, eleberria...

Gertaera berri honen inguruan begi bistakoa da arestian aipatutako faktoreek eragiten dutela: irakurtzen eta idazten ikastearen zabalpena, orohar,



mundu idatzira hurbiltzeko eskaintzen den aukera handiagoa, funtsean, kulturaren eta irakurlegoaren hedapena, inprimategira heltzeko erraztasun handiagoak, izpiritu erromantikoaren bultzada etab.ek gure literaturaren bizimodu desberdin hau eratzen laguntzen dute.

Antoine d'Abbadieren mezenazgopean hasten diren Lore-Jokoak, bere baitan efektu biderkatzailea eramango balute bezala, han-hemenka hedatuko diren Euskal Festa eta Lore-Jokoen aitzindari besterik ez dira: Donostiak, Bilbok, Iruñeak... bakoitzak bere "itz-jostaldiak" antolatu eta garatuko ditu, euskal idazlanari erabatekoa den tartea emanaz

edo txikiagoa, batzorde antolatzaile, ospa-leku etab.en arabera.

Euskal Festetako "itz-jostaldiek" batipat suspertu zutena bertsoa izan zen. Bertsoaren aldamenean hizlaria lantzeko aukera eman bazuten ere, emaitzak, orohar, urriagoak izan ziren esparru honetan, eta bereziki, ez hain erakargarriak. Lehiaketa hauen barnean, eta lehiaketa hauetatik kanpo hitz-neurtua da hedapenik handiena hartzen duena, arrakastarik handiena duen adierazpen idatzia, berriz, bertso-papera.

Paper solteak, aldizkariak edo liburuak euskarri, euskal letrak ordurarte ez bezalako zabalkundea

ezagutuko du. Letraren hedapen orokorraren barnean, euskaldunak ere atxikimendu handiagoa erakutsi zuen, baina, oraingo egoera honetan ere, gure literatura inguratzen duten haietan bezala, mailak berezi behar direlakoan gaude.

Euskal letra hedatu egiten da, baina hedapen honek oso neurri apalean besterik ez ditu aldatzen lehengo testua/jasotzeko modua harremanak. Edo beste modu batera esanda: letra ugaltzen den neurri berean ez da ugaltzen irakurketa, aitzitik, lehen gertatzen zenaren antzera, idazkeraren sail handi bat entzupen publikora eramaten da. Azken finean, letren hedapen honekin euskal hartzailearen jasotzeko modua eta euskal egileak adierazteko zeukan mundua baino gehiago aldatzen dena lehenek jasotzen dituzten eta bigarrenek egiten dituzten tramankuluak euskarria da. Hau da, euskarri berria dute tramankulu horiek, baina, askotan, euskarri-modu berri horrek ez ditu gehiegi aldatu, ez jasotzeko moduak, ez egileen baliabide erretorikoen erabilerak, ez adierazteko moduak, ez sortzen dituzten munduak. Bestela esanda, ez bakarrik, baina, bai nagusiki, letren herritartzearen aurrean gaude eta ildo honck ez zuen ekarri euskal literaturara berebiziko aldaketarik igorle/hartzaileen harreman-modutan, ez testuen itxuratzeko-modutan.

Gatozen xehetasun handiagotara eta XIX. mendean gure literaturak jasandako aldaketen argitan ikustera egindako baieztapena.

Euskal XIX. mendeak dakarren hainbat berrikuntza, (elizgizonak ez diren idazleak hartzen doazen tokia, hitz-neurtuaren ugaltzea, hizlaren hesiak haustea, hitz-neurtua dastatzeko zaletasunaren zabalpena...), lehenaldiari so eta lehenaldiaren argitan honela planteatuko genuke: orduan bezala ahozko munduak fikziozko tramankuluak sortzen, igortzen eta jasotzen jarraitzen du, baina banaketa-modu orokor honetan, geroz eta gehiago ari da letra ahozko munduaren zerbitzutan jartzen eta mundu idatzia beste alor batzuei atek irekitzen, eta mundu honetan jakintzaren esparruaren nagusitasuna nabaria bada ere, lekugune hori banatzen hasten da poliki-poliki.

Letra ahozko munduaren zerbitzutan jartzea ez da zentzu absolutuan guztiz berria euskal literaturan, jadanik azaldu dugunez. Etxeparek, Ziburuko Etxeberrik... hori egin zuten gure ustez, baldin eta sortu zituzten idazlanak zuzentzeko hobetsi zuten jasotzeko modua —kantuaren bidez— erreferentzi puntutzat hartzen bada. Baina, orain, mugaz haranzko eta honanzko Lore-Joko et Euskal Festekin, sariketa literario hauetatik at geroz eta indar handiagoa hartzen doan bertso-paperekin... areagotu egiten da. Lehiaketa literariotan saritutako bertsoak kantatu edo errexitatu egiten dira, bertso-paperak kantatu... Letra ahozko mundua igortzeko tresna berri bihurtu da.

Jakin badakigu, Etxeparek edo Ziburuko Etxeberrik paratutako hitz-neurtu eta aipagai ditugun hauen artean badela alderik, lehenak gehienetan landuagoak direla bigarren hauek baino. Lehenbizikotan poema-sortak aurkitzen ditugu, bigarrenak ez dira igarotzen banakako bertsoak, ez dago sortarik, multzorik. Lehenak egile ikasiengandik datoz, ez horrela bigarrenak. Izan ere, salbuespenen bat ez bada, oso eskola gutxikoak bati dira... baina jasotzeko modu amankomun bati zuzenduak egoteak ezartzen du batzuen eta besteen arteko kidesun-haria. Bada mailakatze bat, baina letra ahozko munduaren zerbitzutan jartzeak lotzen ditu: neurri tradizionalerik, prozedura narratiboz, jakinekoak diren metaforaz... ehotako bertsoak dira.

Orain, XIX. mende honetan, eta bereziki, bere bigarren erdian ugaltu egiten da bertsoa, maila handi batean Lore-joko eta Euskal Festak eskainitako babesari esker. Ugaltze honekin batera bertsoarekiko zaletasuna zabaldu egiten da eta hedapen-testuinguru honek emandako emaitzak ez dira uniformeak: bada alderik Karmelo Etxegaraik arbuatzen dituen bertso-paper eta Jean Baptiste Elissanburu edo Antonio Arzaken hitz-neurtuen artean. Bertsoaren loraldi honek ez zuen ekarri poema-libururik, batasun baten azpian paratutako poema-sailik, ez zen egon gairik poema luzeren batez harantzako irudimenik sortu zuenik⁸, baina,

hala ere, zenbait emaitzek goian aipatutako muga horiek hautsi egingo dituzte.

Lore-Joko eta Euskal Festa hauek bertsoa ez-ezik, prosa ere bultzatuko dute eta testuinguru honetan hasiko da lehen urratsak ematen fikziozko prosa.

Euskal prosaren zenbait adierazpenek, mendearen hastapenetatik beraietatik erakutsia zuten prosa honen hesiak hautsi eta zabaldu nahia — elkarrizketa, alegi itzulpena—. Prozesu luze eta motela baitlitzan, mendearen azken aldera arte kontaketa, ordea, ez da itxura hartzen hasten.

Donostiako Euskal Festak izango dira tarte bat egingo diotenak “irakurgaiari”, leiendari, eta hazi hau zabalduz eta fruitu gehiago ematen joango da: eleberri labur, beste Euskal Festa batzutan saritutako leienda, eleberri, etab. lekuko.

Hastapen hauek ez dira ikusgarriak eta apaltasuna areagotu egiten da hartzailegoaren jarrera neurtzerakoan. Fikziozko prosa hau, bere lehen urratsetan, nekez eta uzta urria emanaz hasten bada, hartzailegoak erakutsitako zaletasunak behintzat ezin izan zuen bizkortu: gutxi idatzi eta gutxi irakurri⁹. Baina, seguruaski, ez da harrizkeoa. Izan ere, euskal prosaren hesiak zabaldu ez-ezik, euskal prosara ohizkoak ez ziren elementuak ekarri ez-ezik, ordurarteko ahozko munduarekin ere hausten bait zuen. Eta honenbestez, hartu dugun ikuspuntuari jarraiki, eskakizun berriak zekartzan testu-tipo berria zen: irakurketa pribatua.

Ez zegoen jasotzerik Etxepareren, Ziburuko Etxeberriren... Bilintxen, Oxalderen, edo Elissanbururen bertsorik gehienak bezala, ez zen hartu behintzat, prosa erlijioso gehienaren antzera. Jasotzeko moduak, irakurketaren bidez, urruntzen du fikzioaren ildotik eta behar literarioak asetzeko erabiltzeagatik, harrera-modu literario batez hartzeagatik, kidetasun-haria gordetzen zuen haiengandik; testu-tipoak eta harrera-moduak urruntzen du ordurarteko prosa erlijioso gehientsuarengandik: fikzioaren ildotik behar literarioak asetzeko idatzia, harrera-modu literarioa eskatzen du, irakurketa pribatuz kanalizatua.

Euskal fikziozko prosaren sorrera, testu-tipo berri baten sorrera, harrera eta jarrera-modu berri baterako bide suertatu zen: harreman-modu literarioak ezartzea eskatzen du eta irakurketa pribatuz kanalizatuz: ordurarte erabilitako patroiak hautsita gelditzen dira.

Goian aipaturiko bertsogintzaren suspertzean partaidetza handia eskola handirik gabeko bertsogileek izan bazuten, ez da beste hainbeste gertatzen kontaketaekin: han eskoladuna ia salbuespena da, hemen kontaketa gile guztien ikasketak lehen mailakoez harantzakoak dira, erdi-mailakoak edo goi-mailakoak gehienetan. Eta ikasketen mailan hasten diren desberdintasunak aurkituko dute nolabaiteko isla testu-mailan eta areago kanalizazio-moduan.

Arestian bertsogintza herritarra nagusitzen zela XIX. mendean genion. Herritarrak izan daitezke, baita ere, zenbait kontaketa, baina, bertsogintza herritarrak bide herritarretatik funtzionatu bazuen ere, ez zen beste horrenbeste gertatu kontaketaekin: landua, kultura, izan ala ez, landuaren bideetatik kanalizatu zen.

Soma daiteke alderik testu batzutatik bestetara, batzuk ahozko munduaren oihartzun handiagoa dakarte besteak baino. Bada desberdintasunik hiztegi-mailan etab., baina, azkenean, testu-mailako bereizkuntzak ez ziren bihurtu funtzionamendu-mailako elementu bereizle. Eta elementu bereizle ez bihurtze honetan, baluke zer-ikusirik igorpen-lekuak, zenbait kasutan behintzat, igorpen-lekua baterakuntza-indar handiagoa bihurtu zelako testu-mailako desberdintasuna baino.

Hastapenetako euskal fikziozko prosa honek *aldizkaria* du igorpen-leku garrantzitsuen, kultur aldizkaria. Mota desberdinetako kultura gaiez inguratutik *Euskal-Erriari*, edo *Revista Euskaran*, edo *La Abejan*, edo *Revue des Basses Pyrénées et des Landes*, edo *Le Réveil Basquen*, edo *Euskalzalen*... aurkitzen dira kontaketa.

Ez ziren aldizkari bidez bakarrik kaleratu. Donostiako Euskal Festetan saritutako leiendek batzorde antolatzaileak urtero argitaratzen zituen

Oroimengarriak ere izan zituzten argitalpen-leku. Garai beretsuan eleberri labur eta eleberriak —gehienak behintzat— liburu gisa ere argitaratu ziren, baina aldizkaria izan zen, orohar, zabalkunderik handiena eman ziena.

Mintzagai dugun prosa bere orrietan jaso zuten aldizkari guztiak ez dira berdinak, baina, azken batez, kultura gaiez arduraturik zegoen irakurle pribatua eskatzen zuten eta ez zukeen inongo zentzurik, kontaketa konkreturen bat ahots goraz jasotzeko modukoa izanda ere, horrelako etena egiteak testuinguru horretan.

Arimak, lamiak, deabruak eta, orohar, naturaz gaindiko indarrek —ahozko kontaketen munduan sustraituak zeuden lehengaiak, hain zuzen ere— eskaini zion langairik kontaketa mundu idatzira igarotzen den une hauetan. Eta ez hori bakarrik, beste zenbait ezaugarri ez aipatze arren, pisu handiago edo txikiagoarekin, elementu egituratzailetzat hain ugari darabilten markodun kontaketek ere, ahozko munduaren oihartzuna dakarkigute, baina ahozkotatasunaren oihartzuna dakarten elementuak beste sistema batera igarotzean, beste sistema bateko partaide egitean, beste modu batez funtzionatzera igarotzen dira, eta beren iturriekin zer-ikusirik ez balute bezala funtzionatzen dute.

Azken batez, oinarriak ahozkotatasunean zituzten lehengaiak abiapuntu hartu, edo liburuetan ikasitakoak izan —euskal historiak edo beren ustez euskal historia zenak, kasu—, hiztegi herritarra erabili edo hain herritarra ez zen Larramendiren hiztegiaren erabilerara jo, erudizio-azalpenak egin ala ez, hitz batean, mundu idatzitik jasotako elementuen erabilera oparoagoa egin ala ez, ez zen elementu desberdintzaile bihurtu.

Fikziozko prosa honen sorrerak erantzun eskasa jaso zuen euskal hartzailearengandik, baina ez zen izan euskaldunak ez zuelako erakutsi inolako interesik kontaketaarengatik. Aipagai ditugunengatik ez, baina besteren batzuegatik bai: mintzagai dugunak ez bezala, hagiografia eta historia sakratua lehengaitzat hartu eta liburu gisa argitaratu ziren

haiek beste erakarmen-maila bat erakutsi zuten, Gregorio Arrueren *Brabanteko Jenobeba* (itzulpena) eta Lardizabalen *Kondaira* lekuko, nola bata eta hala bestea, aurreko mendean ez-ezik, gure mendean ere, irakurketa publikoz jaso direnak.

Gure ustez, aurreko garaietatik XIX. mendearen bigarren erdi-ingurura dagoen aldea honako honetara laburtuko litzateke: aurreko garaietan euskaldunak ia bakarrik ahozkotatasunaren munduarekin ezarri baditu harreman literarioak, orain erdi-ahozkotatasuna hasten da zabaltzen, hedatze honekin ez dator lehenaren amaiera, baizik eta elkar irensten ez duten bi jasotzeko modu dira.

Aurreko mendeak dakarren kulturaren hedapenak, irakurtzen eta idazten ikastea zilegiztatzen duela genion atzerago. Ikasketa hau erabat jeneralizatzen ez bada ere, lehenago, halabeharrez, ahozko mundura bere iharduerak mugatu behar zituen hainbati, tresna hauetaz baliatzeko aukera eman dio eta aukera honekin batera dator erdi-ahozkotatasuna harrera-modu literarioan zabaltzea.


Herritarra zen ahozkotatasuna eta herritarra da erdi-ahozkotatasuna eta XIX. mendean, maila testimonialaz harantza lekutzen diren harrera-modu literarioek hor aurkitu zuten altxorra. Lehen, halabeharrez, ahozkotatasunean bizi zen geruza soziologikoaren sail bati erdi-ahozkotatasunera igarotzeko aukera eman zaio eta sail horrekin sintonizatzen duen bertsoa, edo kontaketa da bakarrik bizitza literario nabarmena duen bakarra. Mintzagai izan dugun fikziozko prosa, agian, horiei zuzentzeko asmoz idatziko zen, baina ez egileak lekutzen ziren hor, ez hauen idazlanak erakarri zituzten, ez idazlan hauek kanalizatu ziren berek jasotzen zituzten bideetatik: kultur aldizkari gehienak arrotz zitzaizkien.

Ahozkotatasunaren eta erdi-ahozkotatasunaren munduan bizi da euskaldungoaren gehiengoa. Mundu idatzia historikoki urria izan da eta orain kulturaren hedapen honen barnean euskarara itzultzen den euskaldun ikasia gehitzen hasten bada ere, ez du hartzen hastapen hauetan aski gorputz

produkzio literario indartsua sortzeko. Ezta ere, ez dago, produkzio horrekin harreman literarioak ezarriko dituen hartzailego sendorik.

Testu-tipo baten sorreran ez-ezik, testuinguru horretan mundu idatziarekiko harrera-modu berri

baten sorreran ez, baina harrera-modu horren itxuratzean gaude. Ez zeukan zertan izan horrela derrigorrez, baina fikziozko prosarekin batera mundu idatziarekiko harrera-modu literarioa finkatzen hasten da behin betikoz.



OHARRAK

1. Azken batez, Oihenarten proposamenaren ikuspegi orokorrak Aita Lafittek adierazi zuen hura aldarrikatzera garamatza: “dans l'ensemble il est évident qu'il est allé à contre-courant des tendances populaires en voulant fonder le vers basque sur le quantité et l'accent”. Ik. *L'Art Poétique Basque d'Arnaud d'Oyhénarti* P. Lafittek eginiko hitzaurrea, Edition Gure Herria, 1967, 14. or.

2. Oihenartek Etxeparez dioenez, “il faisait Chanter ses Vers”; zehaztasun gehiago eskaintzen du Ziburuko Etxeberriz: “le lui ay ouy dire au temps qu'il composoit ses Vers qu'il travaillait principalement pour les mariniers Lesquels les Chantoint sur la mer”. Ik. *L'Art Poétique Basque d'Arnaud d'Oyhénart*, aip. arg., 37. or. eta 39. or.

3. Lekuona, J.M.: “Bi literatur Estilo Gurean” in *Mundaiz*, Uztaila-Abendua, 30 zka., 1985, 61. or.

4. Geroz eta irakurle goaren hedapen handiagoa ezagutu duen XX. mende honetan bertan, bada adierazpenik euskal literatura landua/banakako irakurketa bikotearen ahultasuna erakusten duenik. Honela mintzo zen Aitzol 1934.ean: “Aun los libros literarios más valiosos, con las poesías seleccionadas

anualmente, apenas llegan a ser vendidos en el mercado unos trescientos ejemplares. No pasan de ese número, si es que llegan, los que espontáneamente, sin ser coaccionados, adquieren un libro en euskera. A esa conclusión nos ha llevado un atento estudio de varios años”. *Euzkadi*, 18 de diciembre, 1934.

5. Ik. Souvage, J.: *Introducción al estudio de la novela*, Editorial Laia, Barcelona, 1982.


6. Ik. Bruun, G.: *La Europa del siglo XIX (1815-1914)*, Fondo de Cultura Económica, México, 1979, 3. berrinprimaketa.

7. Xehetasun gehiagotarako, ik. Lasa, J.I. y Colab.: *Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco*, Editorial Auñamendi, San Sebastián, 1968.

8. Hiribarrenen *Eskaldunac* poema luzeaz harantza, (ik. Hiribarren, J.M.: *Eskaldunac*, Foré eta Lasserrereren Imprimerian, Bayonan, 1853) nekez aurkituko dugu XIX. mendean batasun baten azpian ehotako poema-multzorik.

9. Gai honi buruzko zehaztasun gehiago nahi lezanak honako liburu honetara jo dezake: *Domingo Agirre: Euskal eleberraren sorrera*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1989.

PIARRES XARRITON



*Jean Etxepareren
euskal lanak*

I. J. Etxepare idazlea (1877-1935)

Jean Etxepareren obrak hitzegin aintzin, egileaz beraz behar ditugu bi xehetasun eman, zeren Etxepare asko baitugu euskal literaturan eta maiz nahasketa asko agertzen baita aipaldietan bezala idazkietan. Gure Etxepare hau bada, Joanes Etxepare eta Graxiana Bidegorry, Nafarroa Behereko Donaisti Etxeparetik Argentinara joanak ziren senar-emazten seme lehena zen. Buenos-Aires-etik bizpalau ehun kilometrotan dagon Marchiquita deitu herrian jaio zen, 1877 ko urriaren 31 an, eta Juan edo Joanes edo Jean eman zioten izena.

Sei urte doi-doi zituen Jean Etcheparek Europara etorri zelarik, 1883 an, burasok etxalde bat erosirik Lekornen, *Erlandenea* —Joanes Etxepare aitaren bi anaiek herri berean beste bi etxe, *Idiartea* eta *Blanchar*-enea erosi zituzten bezala— han kokatu baitzen familia. Bai finkatu eta hazi ere, Joanes eta Graxiana Erlandenekoen familia, hiru seme eta lau alaba hazi zituztenaz geroz: Gure *Joanes* premuaren ondotik bazeuden alabaina *Piarres*, Donamartiriko apez hil behar zena 1932 ean, *Graxiana*, *Marie*, *Josefina* eta azken biak biritxiak, *Emil* eta *Juli*, hau Uztaritzeko seroretan duela bizpalau urte itzalia.

Lekornetik Larresoroko ikastegirat bidali zuten Joanes tipia, bigarren mailako ikasketak egitera, 1889 ko urrian, hor ezagutu eta prezatu baitzituen Abbadi buruzagia, Hiriart-Urruty irakaslea eta beste euskalzale ta irakasle asko. Larresorotik landa batxilergoa iragan ondoan, Bordelen hasi zituen Etxeparek mediku ikasketak, 1894 ean, eta, zazpi urteen buruko amaitu, “Pilotarien zenbait gaitzei buruzko” tesiarekin, 1901 ean.

Bere mediku diploma sakelan, lanik gabe gelditu zen Jean Etchepare, Lekorneko etxondoan, bizpalau urtez. Orduan hasi baitzen artikulu xorrotx batzuen argitaratzen, haren irakasle ohi Manex Hiriart-Urrutyk bere esku zeukan astekarian, *Eskualduna* izenekoa. 1905 ean, azkenean, Elosu mediku gazteak lekua utzi zion Alduden, eta hango mediku bilakatu zen Jean Etchepare, hogeita-bost urteentzat.

Alduden zelarik argitaratu zuen Jean Etcheparek *Buruchkak* deitu bere lehen liburua, 1910 ean. Handik joan zen 1914 ean, gerlara, lau urte luzeentzat eta gero hara itzuli ere 1919 ko urtarrilean. Herriko kontseiluan sartu zuten Aldudarrek, auzapez-lagun karguarekin eta laster *Euskaltzaleen Biltzarrak* hura bera hautatu zuen, buru-lehen bezala, Mauleko bilkuran, 1922 an, lau urteentzat.

1923 an, otsailean, Jean Etchepare ezkondu zen Fernande Camino, Kanboko Camino mediku ezagunaren arrebarekin, ez zuten haurrik izan. 1929 an ordea bihotzeko eritasun gaizto batek behartu zuen aldudeko medikua behin lana uztera eta ondoko

urtean, bere koinataren ondora Kanborat joaitera. Kanbon halere berriz lanari lotu ahal izan zen. Orduan zuen *Gure Herria*-ren ardura, Piarres Lafitte apezarekin hartu, orduan *Beribilez* liburua argitaratu (1931). Zorigaitzez, 1935 eko urtarrilaren 9 an, Kanboko eri baten ohe aintzinean erori zen, bapatean hilik. Kanboko hilerrietan ehortzi zuten.

Horra beraz nor zen, guk hemen aipatu nahi dugun euskal idazlea, XX. mede honen lehen herenean bere obra osoa idatzi duena, eta ez—erran gabe doa—XVI. mendeko *Bernat Etxepareko* apez hura, bainan ez eta ere, nihonek ongi ezagutu dudana *Jean Etchepare Landerretche*, 1937 ko urriaren 31 an Nafarroa Behereko Jatsun jaioa. 1961 eko abendoaren 10 ean, Lapurdiko Hazparden, gaztegi itzali zitzaikun ezen “*Mendekoste Gereziak*” eta beste hameka ipuin zoragarriren kondalaria. Zer erran bada Jean Etchepare medikuaren idazlanez? Egilea bera laburzki aipatu ondoan, zehaztuko dugu orai idazlan horiek zer diren.

II. J. Etchepareren idazlanak

Bera bizi zeno, bi liburu baizik ez zituen argitaratu Etcheparek, ja erran dugunaren arabera: *Buruchkak* 1910 ean eta *Beribilez* 1931 an; biak ere berenaz aparteko lekua emaiten diotenak egileari gure literaturaren historia apurrean. Zer da bada liburu horien funtsa? Artikulu bilketa batez besterik? Izaitekotz ere *Beribilez*-eko artikuluek badute lokailu jarraiki bat: Kanbotik Kanbora, eguna barne, beribilez egin itzuliaren haria. Bainan orohar, bi liburu horietan agertzen diren 38 artikulu edo kapituluak deus guti dira, Jean Etchepare medikuak, 1902 tik 1935 raino, hots hogoi-ta-hamahiru urtez, bereziki *Eskualduna* astekarian, kasik aste oroz, eta gero *Gure Herria* hilabetekarian, argitaratu zituen artikulu guziak ikusi-ta. Aitortzen dut lanak eman dizkidala horien guzien biltzeak behin, eta gero horien berrargitaratzeko doi bat ordenan jartzeak. Dena dela gaurregun, honelatsu agertzen dira delako artikulua.

Lehenik bi liburukitan sartu ditugu *Euskal-Gaiak*

eta *Mediku-Solasak*, 350 bat orrialde betetzen dituela gai bakoitzak.

I. Euskal Gaiak

Euskal-Gaiak lau zati dauzka: Lehen zatiak biltzen ditu, 1903 an Donapaulen izan ziren *Euskal Besten berriak*; 1911 tik 1914 arte, Baionan, hilabetero elgarretaritzen ziren hamabi lagunek osatzen zuten *Cercle d'Etudes Euskariennes* bilku ixilaren zenbait xehetasun; 1902 an, Hondarribiako lehen biltzar hartan hasi-ta, 1929 an Baionako *Euskaltzaleen Biltzarraren* bulegoko bilkuraraino, eta arte horretan Donibane Lohizunen (1921), Maulen (1922), Baigorri (1923), Hazparnen (1924), Saran (1925), Atharratzen (1926) Etxeparek ikusi ta entzunak, berak egin mintzaldiak eta berak banatu sariak; eta ere 1922 an, Gernikan, *Euzko-Ikaskuntzak* ospatu zuen bere III. biltzar nagusiaren albiste eta irazkin asko.

II. zatian aurkitzen dugu, nere ustez, gure *literaturaren historiari* Etxeparek egin dion ekarpen aberatsena, alde batetik luzaz aipatzen baititu hor bere eredu dauzkan klasikoak, *J.B. Duvoisin* kapitaina eta bereziki *Axular* handia eta bestaldetik berak ongi ezagutu dituen idazle garaikide asko ezagutarazten eta maitarazten baitizkigu, hala nola *Arnaud Abbadie*, *Manex Hiriart-Urruty* eta *Blaise Adéma* Larresoroko bere irakasleak, Broussain, Azkue, Lacombe, Altube ta Intza adiskideak.

III. zatia *euskarari berari*, haren hiztegiari, haren gramatikari, haren erakasteari, bai eta haren batasunari eskainia zaio. Ez da hau Etxepare-ren gaia eta batzutan abusagailu bezala hartzen du, baina erakusten digu tarteka gure jaun medikuak, bazuela, berez, erakustun bikaina izaiteko dohaina eta goinoa.

IV. zatia azkenik, aintzinekoari loturik lihoake: *Eritzi eta Kitzika* eman diogu izenburutzat, egileak berak *Gure Herria*-ko artikulu sail bati eman zion bezala 1929 an. Hor sar daitezke lapurtar idazleak zeuzkan aburuak, xuriak ala beltzak, edozein euskarazko liburu, idazki edo obrari buruz. Hala

nola gure herri-literaturako *toberak* eta *pastoralak* aipatu eta epaitu ondoan, gain gainerik gorensten duen Duvoisin-en *Ebangelioa* edo Oxobi-ren *Alegiak*. Baina Barbier-en *Piarres* elaberria zorrozki kritikatzan du, elaberri bezala, nahiz aitortzen duen euskara ederrean idatzia dela. Hain zuzen, eritzi horrek sortuko duen eztabaidaren karietara, bere euskara propiari buruzko aitormen hau itzuriko zaio:

“Badu hogoi-ta-hamar bat urte hasi nintzela euskaraz idazten, ene sorherriko mintzaiari han-hemenka eratzikiz Gipuzkoako, Bizkaiko, Ziberoko, Garaziko eta bertze zenbait tokitako hizkuntza bakar batzu. Zer erran nahi zuten hok, ahal bezain xeheki adirazten nuen ene mintzaldietan, ardura frantsesari berari galdatuz laguntza. Gei askoz nerabilan solas; laborantzako eta hazkuntzako zeretan gutisko sartuz bizkitartean. Elheka artzen nintzelarik, askotan ara berari banindarraikion. Lapurtarraren ondotik, Gipuzkoako euskalkirat zohan gehienik ene ixuria. Ez batere beharriarentzat goxoagoa zitzaitalakoan, ziberotarra edo garaztarra baino; apur bat aberatsago iduri baitzaizaitan eta ikusten bainuen eskualde hartako ahalduak ez zirela, hemengo zenbait bezala, ahalge edo herabe beren mintzaiaren aberatsagotzeko oraino, ederragotzeko, zabaltzeko bere laietarik. Zer gibelondo ene lanak? Frantsesez aitortuko dut lañoki: *résultat nul, fiasco complet*. Aztura zaharrak ezin garaituz, urrats berari narraikio halere gaur den egunean, norbaitentzat noizbait ukanen duelakoan erakaspen zerbaitño.” (*Gure Herria*, 1929, 505. orr.)

2. Mediku-Solas

Mediku-Solas izenburuak dioen bezala, medikuntza gaiak biltzen ditu Jean Etxepare-ren idazlanen bigarren liburukiak. Bost zatitan banatu dira artikulu guztiak. Lehen zatia, *Gure Gorputza* deitua, erran genezake anatomia liburuxka bat besterik ez dela, menturaz euskaraz idatzi den lehena eta hoberena: Sudurra, Eztarria, Kokorra, Zintzurra, Giranoia zer diren adiarazten digu argi eta garbi Aldudeko medikuak, bai eta ere zer diren Zelulak

eta nola alha den gure Bihotza, nola itzulikatzen zainetan Odola.

II. eta III. zatietan aurki ditzakegu mediku batek artatu behar dituen gaitz, zauri, min, helde, eritasun eta izurrite asko, hala nola suge ausikiak, haurren paralesi, hetika, zerrena, min gaixtoa, errabia, eri burukoa, bai eta ere medikuak darabiltzan arta, tresna, sendagailu aurkiberriak, Itzal garbia deitzen duen *Rayons X* delakoa adibidez.

IV. zatia, *Medikuntza Euskal Herrian* deitzen dena, XX. mende honen hastapeneko etnografia lan bat bezala har genezake. Eta ez batere hala holako lana; lan aberatsa gure ustez. Hor daude *Elosu* mediku gaztearen deskribapena eta *Larru* basamarexalaren historia zoragarria, hor ere *Doux* prefetaren solasak euskaldun mutil gazteen itxuraz eta *Etxepare* medikuaren beraren eritziak bere ofizioaz, bere lan-sariaz, bere eriez, bere merkatu egunetako kontsultez, bazterretan zebiltzen baratxuri, medaila edo tisana saltzaile sorginez.

V. zatian azkenekotz sartzendira artikulu arinago zenbait, urte guziz agertzen zen *Almanakan* argitaratu zirenak, medikuaren ohar edo aholku gisa, min gaixtoaz eta haren kontrako *radium* edo gatz miresgarriaz, lotura heze ta idorrez, tuberkulosaren kutsuaz, eta *bixkaurra* deitzen den prostataz.

Euskal-Gaiak eta *Mediku-Solas*-en ondotik, beste lauhuna orrialdeko bi liburukien gaia badugu Jean Etchepare-ren kazetari lanekin: Lehen liburukiak *Kazetaritza (A)* biltzen ditu 1903-tik 1915-arteako artikuluak; bigarrenak aldiz *Kazetaritza (B)*, 1916-etik 1935-artinokoak.

3. *Kazetaritza (A)*

Lehen liburukia bi zati nagusitan banatzen dugu, Berriak bilduz lehen zatian eta erran genezake Orotarik, Buruxkak II deitzen dugun saila bigarren zatian.


Lehen berriak, 1903-1904 ekoak, *Lekornetik* heldu dira eta bos-pa-sei izenorde badakartzate,

“Nor-eta nor”, “Egiazail”, “Irrithotz”, “Zorrohandi” eta beste Aipu diren gaiak dira “seroren kentzea”, “eskoletxe berri hutsa”, “eskola nahasteka”, “Luhusoko treina”, “Makeako bidea”, “Pesta Berri” edo “Camille gaztearen heriotza”. Artikulu horiek elizari eta erligioneari buruz adiarazten duten ikuspegia ez da oraino hanbat Etxeparen etxeokoe eta irakasle ohiek zuketenez bestelakoa:

“Arbasoen urratsei jarraikiz, aintzinekoez oroituko gireno baitugu atxikiko gure burua zerbait, ez bakarrik guhauren begietan, bainan bertzeek ere goresten gaituztela”, bere burua euskaldun eta fededun aitortzen du. Bizkitartean han edo hemen nabari zaio *“erlisionerik batere ez duten, bainan jende onak diren”*-en arregura edo *“bererlisionerik ez izana gatik, hango musika entzuteko elizetan dabiltzan griña”*. Halere, lanik gabe dagon Lekorneko mediku gaztea agertzen zaie bai Manex Hiriart-Urruty bere irakasle ohiari, bai zirikatzen dituen eta *“Eskual Herria”* astekari gorrian ihardesten dioten errientei, *“ezin-egona”*.

1905-tik 1914-rat, astean asteko berriak igortzen dizkio Aldudeko medikuak *“Eskualduna”*-ri bainan jakin behar da ez dela Etxepare Aldudeko euskal idazle bakarra. Gertatuko zaio bere joaren errefera ukaitea *Aldudetik* beretik, eta ere beste lerro zenbait igortzea nor edo nork, bazterretik.

Dena den urtez urte errepikatzen diren hiltze, sortze, bozkatzeko, bide berritze, egurraren edo esnearen kariotze, ezkontze, Ameriketara joaite, udatiarren etortze, lapurren iragaite, besta antolatze eta purruska horien inguruan sor daitezken eztabaidañoen ginetik aurkitzen ditugu orrialde asko hartzen dituzten gai nagusi zenbait, hala nola muga horretan Frantziaren eta Espainiaren artean beti ezin trenkatuz dirauen *Kintoaren auzia*; edo berrikeriariak berak Aldudeko ibarrean sortu duen suaren kontrako seguru lagungoa edo *“mutuelle”* delakoa, edo politika sukarrak daramalarik berrikeriari bere gaztaroko *“kixkileria”* batzuetara, Urepeleko *“Porru lilia”*-ri, Bankako *“Pepe”* auzapez berriari edo Pradet jaun deputatuari egiten dizkien ximiko eta ausikiak; edo azkenean 1913ko *uhaldeak*,



Baigorriko erreka guzian eta Baztangoan dakartzan desmasia izigarriak.

Bainan hor dugu 1914 eko gerla, Etxeparek buruan buru mediku bezala eginen duena eta gerla *tokitik* igortzen dituen lehen artikuluek berek, “Alemanak hurbiletik” deituak, adiaratzen digute gerla hortarik beste idazle bat, beste gizon bat, mundu zabaleko politika orokorrari eta bereziki politika ekonomikoari ixuriago bat aterako zaikula. Anartean hona nola mintzo zen gure gerlari berria gerlaz:

“Gerla ez da bertzerik, baizen egun guzietako gudua, zorrotzago, saminduago, basatua, odol ixurtzearen ariaz hezi behar dena.

Dezagun asma Jaungoiko bat, gizaldeak egin

dituena desbardin eta elgarri aiher, edo bere oldez edo jauspen ekarri ez dakotelakotz gure lehen arbasoek...

Aitzitik, dezagun uste ukan, halako nausirik gabe, bera bere baitarik eta betitik, gu barne, egiten eta desegiten ari dela mundua, ezin geldituzko itzulika batean, osatzen duten izpi eta inar guziak kaskaka bat bertzeari...

Batetara doa huntan: gutarik neholere urrunt ez dezakegun gaitz bat dela gerla. Bizitzekotz, bizia bere balioan jasta edo gozatzekotz, baitezpadakoa orobat. Zernahi izanik, gizaldeen erne eta xut atxikitze ararik hoberena, zer ondorio ere baiterakarkote.”

Harrigarria, ez, horrelako filosofia? Eta lerro

horiek irakurtzen zituelarik Manex Hiriart-Urruty apezak, zer heldu zitzaion burura, gaude guhaur gogoeta. Aspaldiko ezaguna zuelakotz idazlea eta beste behin edo berritan: ikus Eskualduna 1903-X-16 eta 1910-V-5, 13 (“J. Etchepare mirikuaren idazlanak”, I. 20. orr. eta III. 121 orr.) eta *Maiatz-en* 2. zenbakian 1982 an argitaratu *Manex Hiriart-Urruty*-ren 1903 ko hazilaren 5 eko gutuna, *Piarres Broussain-i* idatzia.

Dena den gerla horren iraupenaz mintzo delarik gure berrikeraria, hona zer dioen:

“Noiz den baratuko gerla ez da beraz neholere ezagun. Are gutiago nola den baratuko... Gure aitzindariak xuhurki erabiliz gure gizonak, ihardokiko dugu errexki eta luzaz. Kaskatuaren ariaz, ehoko ere bai, emeki emeki, den bezalako basurdea...”

Guk badakigu izaitzez hilabeteak eta urtean iraun zuela 14 an hasi gerla horrek eta liburu berri baten gaia izanen zuela Jean Etcheparek gerla tokitik bidali artikuluekin, baina bitartean kazetari liburu honen beraren bigarren zati nagusia hor dugu aipagarri: *“Buruxkak” II* deitu duguna.

“Buruchkak” berez, Jean Etchepare gazteak, 1909an, Aldudetik argitaratu zuen lehen liburuaren izena da. Liburu eskura errex da, hirugarren argitalpen bat egin baitzuen, 1980 an, ELKAR argitaletxeak, jatorrizko edizioari eratzikiz Piarres Lafittek bigarren argitalpen *“irenduarentzat”* prestatu zuen aintzin-solasa. Ezen jakina da lehen argitalpenak asaldatu zituela bazterrak, hainbestetaraino non Etxepare idazleak, aita zaharrak larderiaturik, berreskuratu baitzuen edizio osoa. Zer zen bada hor harritzekorik? Liburuak biltzen zituen kapitulu gehienak, hogoi bat bederen, ja argitaratuak ziren, askotan hitzez hitz *Eskualduna* asterkarian, eta bere aintzin-solas laburrean egileak eskerrak bihurtzen zizkion kazeta horren *“egileetarik bati”* zeren xuxendu baitzizkon *“berrikarian sartu aitzinetik, bere nahitara eta oneziaz, atzartasun eskasak bezenbat euskararen ez ontsa jakinak makur utzaraziak zizkion hitz zenbait”*. Ez denak haatik, ezen kapitulu horien

aldean bazeuden beste lau zapabost egundaino argitaratzekoak eta biga bereziki: *“Nor eskola emaile. Zer irakats”* eta *“Amodioa”*, orduko inguramenarentzat ezin jasanak. Egia erran, sudur on batek soma zezakeen bai beste kapitulu zenbaitetan ere, *“Sainduaren errangurak”*, *“Mediku xaharraren solasak”*, *“Misionestaren ezteiak”* edo *“Egiaren hiru itxurak”* bezalakoetan adibidez, bazeudela zenbait ohar ausart edo perpaus lerrakor, baina beste bi artikuluetan argi eta garbi mintzo zen gure filosofo berria, hala nola idazten zuelarik:

“Zenbat nahi bihozmin dakargun guharen eskolemaile ohier laido hunen egiteak, azken hitz ezarriko dugu, baizik eta apezak ez ditugula erakustuntzat onesten, non ez den beren adimendu osoan apezteko xedea hartu dutenen alderat.”

Eta oraino Nietzsche-ren eritzi batzu Jon Mirande-ren eskutik Euskal Literaturara berrogoita-hamar urte geroago sartu arte entzunen ez genituen solas hauek aurki zitezkeen *“Buruxkak”*-etako Potikario delakoaren aho-mihitan:

“Euskara hoin uzkur balin bada eta kilika, amodiozko zerez mintzatzeko”,

“apezek dute hortaratua; ez noa aski barna: hortaratua dute, Galileako zurgin seme pedoilaren irakaspenek.”

Ez dagokigu hemen eztabaida horren xuritzea, bakarrik aitortuko dugu Piarres Lafittek uste zuen bezala, bi kapitulu horiek ez balitu ere, *“Buruxkak”* legokeela gure literaturako liburu nagusietarik bat. Dela Ameriketako oroitzapen dela etxe barneko berri, dela pilota plazako giro, dela igande arratsaldetko abusagailu, dela erien arta, dela euskararen erabilpen, dela edozein motako aurkiberri, gai guzietara egokitzen du Etxeparek, nehork ez bezala, bere hizkuntza garbi, zehatz eta aberatsa.

1909 ko liburuaren egileak bada, bazter utzi zituen berak *Eskualduna* kazetan argitaratu artikulua frango, gure ustez hautatu zituenen bete bazirenak. Haiek ditugu bildu, eta haiek iduri batzu, 1910-tik 1924-rateko arte horretan igorri zituenak: Hogoi-ta-hamar bat orotara. Batzuk aipu dituzte Argenti-

na, Chile, Kalifornia eta Euskaldunen *koloniak*, Afrikako, Asiako, Ameriketako, Frantziaren koloniak, baieta ere bereziki Kanada. Beste batzuk bagaramatzate Japoniara, Italiara edo Alemaniara. Hurbilago ditu ordea hartzen maiz bere gaiak, hala nola “Laborarien zergak, mozkinak eta gora-beherak”. “*Buruxkak II*” deitu dugun loretegi honetan ere nabari da egile beraren eskuairia, umorea, mundu ikuspegia, hots antze paregabea. Jostagura bazara, irarkur-azu bada edo *Martin Tipula*-ren ipuia edo *Don Martin*, “*El Gran Bazko*”-ren historia; ez diote nehongoei zorrik.

4. Kazetaritza (B)

Jean Etchepare mirikuaren idazlanen IV. liburukia izanen da eta ja erran dugun bezala 1915-tik 1935-rainoko kazetari lanak bilduko ditu, *Kazetaritza (B)* izenburupean. Hiru zati nagusi dauzka liburuak eta menturaz eranskin bat.

I. zatia osatzen osatzen dute, *1915-tik 1919-arte* agertu *gerlako artikuluek*. Hauetako esker, frantses eta aleman gerlari osten harat-honat eta gora-behera guziak, hurbiletik eta zehazki, jarraitzen ditugu. *Marne* ibaiondoko lehen batailatik hasi-ta bigarren eta azkenerraino, *Champagne*-ko, *Somme*-ko, *Verdun*-eko eskualdetan 1915, 1916, 1917, 1918 an izan ziren zalaparta lazgarriak ere argituz.

Eta horiek oro igortzen ditu gure berrikeriak bere betiko umore eta “irrihotz” harekin, lehenagoko gerlarien elefantek gogoratzen dizkiotelarik angelesk asmatu berri dituzten “tankek”, adibidez. Bestalde Alduden bizi zelarik baino askoz sartuago agertzen zaiku gure idazlea, politika orokorraren eremu zabaletan, eta politikaren oinarri ekonomietan. Gero ta garbiago azaltzen ditu ere liberalismo osoenaren aldeko aburuak: Laborarien batasunen alde da errotik —laborantza baitu bestenaz ere bere kezka nagusia— eta laborarien arteko lagungo, elkarte, “*bilku-salgi*” edo “*erosle kooperatifik*” guziak sustatzen eta sustatuko ditu Etxeparek geroaren ere, bainan lehenago errientak bezala, orai estatuaren enpleatu guziak gehiegi zaizkio eta “*sozialismo*” hitza ez du entzun ere

nahi. Ez baita harritzeko ikus-eta nola mintzarazten duen laborantzaz gerla bururatzean aurkitzen duen sozialista apostolu bat:

“Ikusten ditut ja laborarien oraiko etxe tzar eta aterbe irringarri hoik guziak dinamitaz aurdikiak; hesiak errotik ateraiak; inginadore agronomo bat herri bakoitxeko laborantza osoaren buru ezarria. Ikusten ditut zelaiaren hegieta etxe batzu gaitzak, hamar bat estaiekin bakoitxa, bospasei-mila laboraritaraino harat bil bailitazke; aberetegiak eta behar diren zerbitzu guzien aterbeak, mekanikenak barne. Laborantzako mozkinen industria ere han berean litake abia, hirietan bururatua izaiteko, ahalaz portuetan... Oro langile; manazaleak langile hoiberena artetik gobernamentuak berak bereziak...”

1918 ko azaroan aurkitzen ziren *Eskualdunan* lerro horiek. Ondoko hilabeteen agertu ziren gerlatik bidali azken artikuluek, eta hauetarik bat idazten du Etxeparek, Liburu zenbait aipatu nahiz: Berak irakurri berri duen liburu gogoetarri bat goren du honela:

“Erakusten dauku guziz liburu egileak, zerbait nahi balin badugu izan gure auzoekilako guduaren, orai eta gero, zenbat behar dugun ttipidanik maitatu, eta begien aintzinean iduki beti, gure arbasoen herria, frantsesek *la patrie* deitzen dutena eta euskaldun zaharrek (?) *aberria*. Egia dio ez zela eskoletan haurer aski erakusten amodio hori.

Bizkitartean iduri zaku berte zerbait ere behar litakela haurer erakatsi, eta lehenago: *fede bat*. Eginbideari hertsikiago eta kar gehiagorekin badarraiko gizona, itsutuki eta zinez, badagolarik bizi hunen ondolikako berte bizi bati.

Eskolemailer bezenbat aitamer lagoke, haurraren baitan piztu ta azkartzea fedezko jaidura, egunetik egunera. Gehienek ahanztera zeramaten.”

Horra beraz labur bildu-ta zer sentimendutan zagon Jean Etchepare, 14 eko “gerla handia” amaitu zenean, eta erran genezake ez dela geroztik hanbat kantituren. Han edo hemen aurki ditzakegu bai munduari buruz bai gizarteari buruz bere kolkoan zeukan sinetsgaizkeriaren zeinu ixil zenbait, hala

nola idazten zuelarik:

“Bizia itzulika bat da: egun hola, bihar hala, etzi orobat egun bezala”

edo

“Deusek ez du nola ezin ditakenaren lanbroak lilluratzen gizona” (Eskualduna, 1918-VIII-9; I-4),

bainan ez dio sekulan beste herritarren sinesteari kalterik egin nahi eta honela komentatuko digu fededun zaharren ohizko agur hau:

“Jainkoak dizula egunon! Onartzen dugu egia baita. Zoin gizonki eta zer goxotasun maitagarriarekin erraiten zituzten ere, guziz laborarien artean, hitz horiek, ez dezakegu ahantz.”

Eta jarraian ohar hau itzuri zaio halere idazlearen lumari:

“Edozein moldez dezan gizonaren gogoak asma Jainkoaren izaitea, daukagu agur orozbat ederragorik eta hunkigarriagorik ez dezaketela gizonaren beharriek adi.” (1926-I-8)

Liburukiaren *II. zatiaz* eremaiten gaitu *1919-tik 1930-rat*. Hor sartzan dir, gerla ondoan Jean Etchepare medikuak, Alduden iragan zituen hamar urtetan handik igorri berriak. Zati hau askoz ere arinago dugu aintzinekoa baino zeren, alde batetik, urte haietan idatzi ta argitaratu baitzituen guk lehen bi liburukietan bilduak ditugun “euskal gaiak” eta “mediku solasak” —artikulu bat edo beste ahantzi badugu ere, eranskin moduan IV. liburuki honek hartuko duena— eta bestaldetik, herriko berri zurruburu gehienak beste norbaiten gain uzten baitzituen Etxeparek. Aurki daiteke halere hor pasarte pollitik, bazka-lekuez, lurraren zergaz, esnearen prezioaz, Ameriketara joaiteaz, elektrika argiaz, biziaren garestitzeaz, segurantzez, soldado hilen oroit-harriaz, pilota plaza berriaz eta oroz gainetik *bi hitzaldi*, Aldudeko auzapez-lagun bezala egin zituenak jaun mendikuak, bat gerlari ohien ohoretan *1919 ko aboztuaren 2 an* Alduden egin zen besta handian eta bestea *1923 ko maiatzaren 13 an*, han berean, gerlako oroitmenaren estreina egunean. Azken hitzaldi hontako azken lerroak irakurtzea

aski dugu ohartzeko zer zen Iparraldeko giroa urte haietan: Aldudeko haurrei mintzo zaie, beren euskalkian, jaun medikua:

“Haur maitiak...

Ziin eskolemaile kartsiek, ziin ama onek, batzuk beren nigarren artetik, erakasten dautziete, egun guzietan, zer den Frantzia, eta nola dugun orok behar ordian zerbitzatu. Maitatuko duzie harri hau. Oroituko ziezte dakarzan erakaspenez.

Izan zitezte haurride on elgarrentzat, euskaldun garbi, zinezko frantses eta ziin aitzinekoak bezala, Aldudeko herri maitiaren ohore!”

Ez du erraite beharrik ez zirela mintzaldi horretan aipatu, ez oroit —harriak sortu zituen eztabaidak— hilerrietan ala plaza-ondoan non ezar, kurutzearekin ala kurutzerik gabe ezar, horiek oro lehenagotik aipatuak baitzituen hizlariak berak euskal astekarian —are gutiago gerlari ihesi egina zion Aldudarren gehiengo gehien hura, bainan ez ote dute frantsesek erraiten “*toute vérité n'est pas bonne à dire*”, hots “*egia osoa ez dela sekula errankizun*”. Euskaldunek ordea badakigu “*egia beti badoala bere bide*” eta beraz “*egiari, egia zor*” diogula.

Dena den, Etchepare-ren idazlanen IV. liburukiaren *III. zatian* aurki ditzakegu *Kanbon* iragan zituen bere azken lau urteetan jaun medikuak argitaratu zituen artikulu gehienak. Badira hor bizpalau idazki berezi, galdu berri zituen lagun batzuei, hala nola *Martin Larroulet* (1856-1930) Orzaizeko apez adixkideari, *Pierre Juanchuto* (1854-1930) Kanboko mediku lagunari eta *Pierre Etchepare* (1880-1932) anaia apezari, bihotzez eskainiak. Bainan jakin behar da, “*Gure Herria*” aldizkaria, Clément Mathieu Uztaritzeko seminarioko buruzagiaren, Jean Etchepare-ren eta Piarres Lafitte apezaren esku gelditu zela 1930 ean. Behin “*Beribilez*”-en kapituluak “*Gure Herrian*” argitaratuak baitzituen, haien ondotik, Jean Etchepare hasi zen, 1932 an, artikulu sail berri bat argitaratzen Baionako hilabetekarian, “*Euskalerriko Bizia*” titulupean.

Etxeparek aipu duen Euskal Herri hori aski



berezia da, erran genezake *Eskualduna* astekariaren eremu bertsua duela hartzen, guti gora behera. Guhaur orduan Kanbo-tik hamar bat kilometrotan, Hazparne ta Uztaritzeko barnetegietan haurtzarotik ilkitzen ari baiginen, ongi ezagutu dugu mugaz honaindiaz beste Euskal Herririk, laborarien, apezten eta seroren Euskal-Herriaz beste Euskal Herririk ezagutzen ez zuen *Euskal Herria*, mundu zabaleko gora beheren eta politikaren berriak, beti Parisen irazkindurik ukaiten zituena. Mundu ta mende horren oihartzun ozena dugu entzuten, Kanboko berriketaria mintzo zaikularik, ez bakarrik egiten duen bustite edo idorteak edozein uztaren gain duen eraginaz; *Dongaitz*-ek edo *Urrutyk* irabazi pilota partidez; Euskaltzaleek Donibane Garazin,

Luhusoan edo Donibane Lohizunen egin biltzarrez; kristauek ospatu *Mixel Garikoitzen* Ibarlako beilaz, *Jeanne d' Arc* edo *André Hubert Fournet* saildunen bestez, bainan ere bai *Garat*, *Ybarnegaray*, *Barthou* eta *Bérard* gure eskualdeko politikariez eta *Stavisky*-ren jukutria famatuaz Austriako Dollfus kantzilerraren edo Yugoslabiako erregearen erailtzeaz. Oroz gainerik miresten dugu zein zuzen ikusi zuen —zinez orduko behari gutik bezala— Jean Etcheparek 1933 ko ekaineko “marraza luzeen gauaren” ondotik Alemanen buruzagi izaitera heldu berri zen *Adolf Hitler* delako hura jadaneko “*lohiz eta odolez estalia*” zela,, eta zorigaitzen, Aleman populua ez zela tuntik higitzen eta zorigaitzez ere, inguruetakoko beste nazionek, Frantzia barne, ez

dakitela bat egiten, elhez baizik. Urte haietan bizkitartean Euskal Herriko Hegoaldean gertatzen diren politika gertakariez xehetasun guti artikulua horietan: Etchepare ez zen Broussain ez Lafitte.

Ezin erran bada, horrelako lanak erabili dituen gizona ez dela euskal idazle handienetarik bat. Bizkitartean idazle horien artean zuzen non kokatzen den ikusteko, behar genuke hurbilagotik ikertu haren obra zabal hori, bai eta ere menturaz, jakin, zer zioten horretaz, berak, eta bestek. Ikerketa hori nahi genuke orai egin, labur bada labur, azken orrialde hauetan.

III. Jean Etchepare kazetaria

Ororen buru haren obra osoa ikuskatzen, eskuztatzen eta apur bat haztatzen duenak aitortzen du Jean Etchepare medikua “kazetari” bat dela: ez nola nahiko kazetaria, bainan Larresoroko Abbadie eta Hiriart-Urruty-ren ikasle hautua, nahiz bihurria, bere garaikide Saint-Pierre-Anxuberro, Elissalde-Zerbitzari, Moulier-Oxobi, Irigaray-Larreko-rekin lan harrigarria egin zuena. Hegoaldeko Bustintza “Kirikiño”-rekin edo Agirre Lizardirekin behar genuke erkatu eta uste dugu gure irakasle izan dugun Piarres Lafittek bezala, eredutzat har dezakegula haren kazetari lana.

Hainitz kazetari mota bada ordea: Baionako moldiztegietan bizi guzia iragan duen xahar batek erraiten zidan, bi kazetari mota ezagutu dituela: batzu badira han, mahainaren gainean, bapatean, pertsulari batek bezala, beren artikulua botako dizutenak —Saint-Pierre eta Narbaitz horrelakoak omen ziren— besteak aldiz beren lana luzazki landu, jorratu, xedarratu eta orraztatu behar zutenak ziren —Hiriart-Urruty xaharra, eta Lafitte ere, horrela ari ziren. Azken hauetarik zitekeela Etxepare, uste dugu. Idazlearen lan dorpe ta eskergaitza askotan aipatu baitu.

1. Polemikaria

Badirudi bizkitartean, jostatzeko bezala hasi zela Lekorneko mediku gaztea, artikulua idazten.

Batzuen eta besteen zirikatzea, dudarik gabe atsegin zuen. Errient-errientsak, eta gobernuko enpleatuak orokorki, zituen haste hartan partida eta hauek, beren aldetik, gogor ihardesten zioten “*Eskual Herria*” izeneko beren astekarian:

“Señor Juan Irrihotz, gure medikua, ez dago aise bere larruaren barnean. Bazterrak kexarazi nahi lituzte. Gizagaizoa! Ez da ohartzen orok irri egiten dutela ikusiz haren manera bitxiak eta adituz haren erasiak...” (*Eskual Herria*, 14-XI-1903).

Geroxago ere badakigu maiteko duela, beste jende mota bati, notari, apez, mediku, marexal, basa, sorgin, edo... emaztei sistako batzuen emaita: Ikus zer dioen jende horien Jakitateaz (*Eskualdun Ona*, 6-X-1904 eta 15-II-1907 eta *Eskualduna* 15-VII-1909):

Ezagutu duzieia *Larru*? Larru, Itsasuko marexal zena? Euskal Herria guti sortu da halako gizonik... adibidez irakur niezazueke, luzeegi ez balitz.

Lafitte apezari idatzi zion letra batean, 1931-ko urriaren 27 an —artetik erraiteko, Etxeparen obra ez bada ere gizona bera ongi ezagutzekotz bederen, haren gutunak, Broussain-i, Lacombe-ri, Lafitte-ri idatziak ez ditugu ahortzi behar —aitortzen zion:

“Gertatu zait ba ene denboran, nahiz bakan, erlijioneko sinesteer sista batzuen emaita. Aithor dut ahulezia bat izan dela ene aldetik. Erakus ezadazu ordean gizon bat, bat bakarra, zuhau barne, berak ez bezalako sinesleer sistarik eman ez duenik. Gaur den egunean urriki dut halere ozarki bihurtu izanik batzutan, ahoz ala lumaz. Ixiltasuna hanitez ederrago da; eta ixiltasuna bera baino sinesteen araberalat zuhurtzian bizitzea.”

Sista horiek bada, gatz eta biper emaiten zioten egilearen idazkiari eta irakurkearen baitan sortzen, kazetaritza polemiko ongi paratuaren irakurtzeko lehia. Hiriart-Urruty zuzendariak berak ximiko horiek altxatzen ohi zituen eta emaiten zioten bere aldetik, hartze zuten errefera, Gogoan dugu adibidez, Lekuineko “*Sainduaren errangurak*”, “*Munduan lehenago ez nintzen apez*” bururaten baitzen (Ikus “*Buruxkak*”, 81. orr.) 1903 ko ekainaren 12 ko

Eskualdunan, lehenik argitaratua eta zenbaki berean, zuzendariaren erantzuna izan zuena,

“Badut beti esperantza, ene potretaren aitzinean ezko argirik, ez bertzerik, nehongo elizetan ez balin bada ere, bederenzeru xokoño batean sarturen ahal naizela, zeren ez bainiz mundu huntan... mediku,”

eta sinatzen zuen apezak: “*Kito*.”

Kiretsago kausitu zituzkeen ordea Hiriart-Urrutyk, 1910 eko botzaldi denboran, Etcheparek, Pradet deputatuaren “*saindutasun eta erlijione berriaz*” bota zituen hitz xorrotxak, eta bizi-bizia ihardetsi zioten:

“Pradet jaun deputatuaz, gutarik bakotxak daukala gogoan, eta erran ere dezala, nahi duena edo ahal duena, egiari berea doakono. Bainan jaun hori, gure ganat, den bezala itzulia ikusteak, ez dauka guri horren saindutasunaz irri egiteko demendren gutziarik emaiten. Ez dire solasak, are gutiago egunak irri egitekoak... Gauden hortan” (*Eskualduna*, 1910-V-13).

2. Kondalaria

Eztabaida eta kazetari odola duen idazle orok guti edo aski, goiz edo berant, hunki duen polemika, ez da sekulan izan kazetariaren alor bakarra. Polemikak artetan purgatzen dizu odola, eta Aldudeko medikuak hori bazekikeen bainan, berez, komunikabide dela hizkuntza, ikasia dugu eta horren gatik, hizkuntzaren zerbitzari den bezenbatean, berrikerari da, kondalari da, kazetaria, oroz lehen, *reporter* diote naski ingelesek. Kondalari paregabea agertzen zaiku Etchepare. Hori bera zaitan erraiten berrikitan, haurrean Lekornen ezagutu duen andere batek: “*A! Zer kondalaria!*”

Ikus ditzagun “*Buruxkak*” edo “*Beribilez*” -en kapituluak: Ameriketako oroitzapenak, Lekorneko pilota partida, Iturri lekua, Itze egilearen zakurra, Misionestaren ezteiak, edo Iruñako katedralaren deskribapena, badaki beti gure kondalariak ikusgaiari buruz neurri oneko tartea hartzen. Ez baitu behar ez hurbiltasunak gehiegi berotu eta lausotu, ez urruntasunak sobera hoztu eta arrotzu. Umore apur batekin ongi uztartzen den interes doi

hura eta bera. Horra gure ustez zertan kausitzen zuen, beste hainitzek ez bezala, gure literaturan. Diogunaren berme, hona bi adibide. Ez daiteke erran zenbat miresten zuen Etcheparek *Arnaud Abbadie*, Larresoron buruzagi eta filosofia irakasle ezagutua zuena, bainan

“Hari dakogu zor Euskal Herrian zer bait giren gehienez, gure adimenduko indarrrik hoberena...”

aitortu ondoan, hona non idazten duen:

“Erran behar dugu bizkitartean, erakaspen horrek bere erroa, bere finka, erlijioneko sinestean zuela. Ez zitaken bertzela apez baten ganik. Sinestean diogu, bai eta geronez guhauk daukagun ezagutzan. Gauzer behatzen ote zen aski, gaude. Uste dugu ere, aitzinekoen erakaspenak bigarren eskutik zauzkan ardura: ez onez onean, agertuak izan ziren liburu ber beretarik” (*Eskualduna*, 1916-IV-6).

Beste norbait ere izan da Etcheparek asko maitatu eta prezatu duena: *Piarres Broussain*, Hazparneko mediku eta auzapez euskaltzaina:

“Euskaldunak, Euskal Herria eta Broussain oro bat zitzaikoten gutarik zenbaiti...”

idazten du hura hil eta. Gero jarraian:

“Euskal Herria eta Euskaldunak nahi zituzten beren gain ikusi, bere zuzenen jabe. Zazpiak-bat eta libro bizi zeno eta beti fede berarekin hitz horiek zituen irakurtzen bere baitan... Aspalditik gogoan zaukan Euskal Herriaren kariatat lur huntako populu ttipi guzien berez bere jartzea. Badakizue azken gerlan nolako solasak ibili diren hortaz munduan. Guk uste obrak ez diren izanen solasen araberako. Azpitik atxikitzea ez askiz, handiek tipiak zapatuko dituztela eta lehertzerainokoa hertsatuko gu beldur. Ohore hargatik bertzela gauzen ezartzeari lehiatzen diren Broussain iduriko gizoner (*Eskualduna*, 1920-V-14).

Bere kondalari talendu paregabeari esker bere garaiko euskaldunen historiaren lekuko baitezpadakoa bilakatu zaigu *Eskualduna* eta *Gure Herria*-ko kazetaria, eta ez gara bakarrik mintzo 14 eko gerlaz, edo euskal literaturaren edo euskararen beraren historiaz, Iparraldean, orai berean gogoratzen zait Hegoaldeko historiarentzat halako

garrantzia izan zuen 1922 ko *Eusko-Ikaskuntza*-ren Biltzar Nagusia,

“Burua hazka atera omen baitzen Gernikatik, arratsalde apalean Alfontso erregea”,

J.E.-ren arabera (*Euskalduna*, 1922-IX-22, 29; X-6).

3. Maisua

Bestalde, eta azkenekotz, iduritzen zaigu Jean Etchepare kazetariaren beste berezitasun bat behar dugula azpimarratu, haren... ez dakit nola erran, *zientzia-zaletasuna* ala *zientzia-zalekeria*, edo hobeki erran haren “*maisutasuna*”.

Saia gaitzen honen argitzera: Bere garaiko gizon argitu askok bezala Etxeparek sinesten zuen *Jakitatean*, *Jakintzan* edo *Zientzian* —hitz horiek oro hemen batera doazenak, letra larritan idatzi behar genituzke, Jainkoaren berarentzat fededunek egin ohi duten bezala. Min emaiten zion mediku gazteari ikusteak zein urrun zeuden haren herritarrak, bere laborari maiteak, eta bereziki haien gidariak berak, zientzia horretarik. Horra zergatik, berak zeukan zinezko irakasle talenduarekin, saiatu zen, haste hastetik, zientzia, ekonomia, geografia, anatomia, euskara, medikuntza erakaspenak emaiten, eta ere sendagile edo sendagailu aurkiberrien ezagutarazten. Irakurgarri dira bereziki, alde horretatik, “*Mediku-Solas*” liburukian bildu ditugun artikulak; ongi ikusteko zer “*zientziazole*” kartsua zen haien egilea.

Zientzia-zaletasun hori ordea, Bordeleko eskoletan zuen gure ustez bildua, ez Larresoron. Larresoroko bere aholkulari Larralde apezaren ganik eskuratu zuen liburua, “*Jesu Kristoren Imitazionea*” omen zen eta, geroan ere, Duvoisin *Ebangelioaren* itzulpena mahain gainean zeukan bezala, sakelan zeraman Larraldek eman liburua. Liburu hau, hain zuzen, *Leon Leon* apezak euskaralatu zuelarik, Etxeparek berak berrikusi omen zuen buruan buru, inprimitu aintzin, 1929 an. Bordeleko medikuntza eskoletan, urte haietan, *Claude Bernard* (1813-1878) mediku jakintsuak idatzitako “*Introduction à l'étude*

de la médecine expérimentale” liburu famatuaren filosofiatik hazten ohi ziren mediku gai gehienak. Hots aipu zen *Zientzia esperimental*a besterik ez zen. Horren gatik zien menturaz Aldudeko medikuak maiz kontrajartzen liburuen erakaspenei, “*gauzen beren*” edo “*biziaren eta bizitzearen*”, hots esperientziaren erakaspena. Zientzia horri itsutuki fidatzea, horren esku gure burua osoki ezartzea, hori gaur, ikusiak ikusi, deit genezake zientziazolekeria. Eta gaitz horrek ez ote zuen apur bat joa gure “*Maisua*”, galdatzen zion naski Lafitte apezak bere buruari; galdatzen ere Maisuari berari.

Hor dugu ezen azken urteetan Etxeparek idatzi “*Beribilez*” liburu aberatsa, gaurregun oraino irakurle askok batere ulertzen ez duena. Alta hor dago Loiolako ate gibeletik ilkitzen zaigun *jesuita gaztearen itzala*; haren abotsak adiarazten baitigu, Etxeparek berak, bere bizi guzian, gaintitu ahal izan ez duen fedearen eta zientziaren arteko arazo konponezina: Alegia harrituarena egiten du alabaina, maltzur maltzurra, idazleak berak, kondatzen duelarik nola erran dion delako jesuitak, ez duela mirakuilu handirik egiten San Inazioaren iturriak:

“Guti arras guti, zaundan hotz-hotza erantzun...”


Harritu bainintzen behin, haren ateraldi axolagutikoaz.”

Eta geroxago, idorkiago oraino, izaitekotz:

“Inazio ez zen jakintsua. Nekez mintzo zen, hurriki zitzaion ateratzen elhea; haren idatzietan halaber ez da ezagun idazlearen antzerik... Inazio baitan izan den handia da bakarrik bertutea.”

Hitz horiek irakurtzean zuen Lafittek ezagutu, egileak berak igorria zion liburu horrek, bere jauntzi ederraren gibelean, “*zaku handia*” bazeukala, eta geroztik, egileari berari edeki zion bere ikuspegia, liburuaren funtsaz ala azalaz, Kanbotik bidali zizkion eta Uztaritzen berak artoski begiratu zituen bizpahiru gutunetan.

Damurik eskas ditugu *Lafittek* berak idatzi “*letra luze, euskara ederrekoak*”. Menturaz galdu dira betikotz, bainan haren ikasle izan garenek, asma dezakegu aski aise, gogorazi ziola bere



solaskideari, biek adiskide min zuten *Georges Lacomben* bitartez, bazuela eiki *Henri Bergson* delako jakintzun baten entzutea. *Henri Bergson* hau (1859-1941) presizki, gaurregun berriz gorai patzen ari dena, Etxepare-ren abiapuntu beretik abiaturik, "*Kontzientziaren berezko emaitzetarik*" (1889) heltzera zoon laster, bainan bide luze ta dorpea kurriturik, "*Erligioaren eta Moralaren bi iturburuetara*" (1932). Bainan "*Beribilez*"-en orduan ez zen Etxepare oraino hein hortaratua: Hor ditugu haren letrak lekuko, *A.S.J.U.k* argitaratzeko, inprimatzailearen esku direnak.

Bizpalau gutun horiei esker argi eta garbi badakigu zer zioen Etxeparek berak bere obraz, eta horren gatik, amaitzeko berari utziko diogu hitza:

Lehenik berak konparatzen ditu *formaren aldetik* "*Buruxkak*" eta "*Beribilez*":

"Antzez nausi da Buruxker, (Beribilez): Eskuara berdina goa du, mami gehiagorekilakoa, bai eta eztiagoa du bere argia. Hitz gordinak ez ditut metatu

Beribilez-ean, hango kapitulu batean egiaren amodio bizi egiz behartu zitzaitan bezala. Ez dut ere uste atera zaitan bihirik, aldi huntan. Hortarik bederen ez zait samurtuko nehor; gizon zuzenik samur baditake gordinkeria batzuez, gauzen arabera direnean.

Buruxkak badaude halere, lumaz egin izan dutan lanik goresgarriena. Liburu hortako orrialde batzuek badute, bere garbitasun, zain, argi eta su bereziaren gainera, bururako usain on bat, ezin galduzkoa... Orduko nere ideez bezen batean halaber, nizan adinean ere liburu hartan ez dut aurkitzen bat, higuindu zaitanik" (12-X-31)

Kantu bera, gai beraz zenbait egunen buruan:

"Esker mila, (*Beribilez*) ene liburuñoaz igorri dauzkidazun laudorioez. Berdinkiago lantua balin bada, eztiagoa, *Buruxkak* baino; hizkuntzaz aberatsagoa ere ba, ez zait bizkitartean iduritzen nihauri hobea dela. Eskas du gaztetasuneko sua; ez haatik, uste zinuken bezala, egiaren alderako amodio bizia, nahiz ez dutan lehen bezain argi agertzen

axalerat, ohartua bainiz ez duela hanbat balio agertzeak.” (27-X-31)

Eta horretan hasten du Lafitte-kilako *eztabadaño funtsezkoa*, Kanbotik ondoko hazilaren 7an igorriko duen gutunean finkatu nahiko duena. Hitzez hitz irakurri behar dizuedan eskutitz hau:

“Jaun apeza,

Bi hitz oraino, azkenak, ene aldetik, gure eztabadaño huntan, zure letra luze eskuara ederrekoari.

Ene ustea da jakintza gehienetan apezak baino hamar edo ehun aldiz gehiago atzeman, aurkitu edo ediren dutela apez ez zirenek. Agertu diren obrak bederen hor dira lekuko.

Ikasteko berdin on direla apezak edo hobe, onesten dauzute. Erakasteko ordean ez da aski. Erakasteko zuzenki eta zuhurki, erakaslearen adimenduak eta bihotzak behar lukete doi bat askatasun, apezek —bakar batzuek salbu— ez dutena.

Gainera, liburuetan aurkitzen diren jakintzetako erakaspenak behar litazke orhatu —egokizko neurrian— munduan bizitzeak gizonari emaiten daizkon erakaspenekin: apez gutik dezaketen zera.

Ikusiak ditut hurbilik, eta haztatuak, apez eta fraideen eskuetarik —Jesuistak barne— atera gizon gazteak. Etxean edo herrian leunduak edo apainduak izan ez zirenean, gutiz gehienak harrigarriak ziren eta harrigarri egoitekoak, ez balituzte berriz xederratu izan, emeki-emeki, bertze esku batzuek.

Adiarazten dautazu *philosophia communis* delako zer bat. Eskualdun andana bat badarraizko, Aleman andana bat bezala. Ez da nereaa.

Guhau barne, beti egiten eta desegiten ari den Izaite bat ikusten dut nik, bertzerik deus ez. Hogoi-ta-hamazazpi urte badu, bermatzen nizala, eskualde guzietarik, nahiz jakin Izaite hori zer den bere baitan. Eta... lehenbiziko egunean bezain zozo niz.

Izaite haren mamiaz argi gehiago badutela uste dutenak, hala nola bigarren Izaite bat gainera ikusten dutenak, hunen mamirat bertzearenerat baino gehiago adimenduz sartu gabe, batzu ala bertzeak

uzten ohi ditut bere alde, inguruka, azpiz edo oldarrez lotzen ez zaizkitanean. Sineste guzietan, zinezkoak direlarik, begitarte on egiten dut.

Elizako buruzagi politikero batzuek ezin gaizkiago erabilia iduri bazait ere ardurasko, Galilean sortu hura bezain bihotz-altxagarririk ez dut haatik ezagutzen.

Zurekin beti, eta bihotzez, elgar adi gitazkenetan.

DR. J. ETCHEPARE


IV. Solas ondo

Bi ohar labur badituzte egiteko ikerlan horren ondotik:

1.ik Asko errepikatu da gure literaturaren historiak eskatzen dituela gaurregun gure idazle buruzko *monografiak*, bai nahi dut, bainan nago hori baino lehen ez ote dugun egin-gei beste lan bat, hots *testu bilketa*. Nik Etxepare-rentzat egin dudana bezala haren artikulu sakabanatuak bilduz eta Kirikiño-rentzat Xabier Perek egin duen bezala egin behar genuke nere gaiaren inguruan ikusten dudanez *Arnaud Abbadie* eta *Hiriart-Urruty*-rentzat, *Jean Baptiste Constantin*, *Jean Saint-Pierre* eta *Jules Moulier*-entzat gutienez.

2.tik Kazeta irakurle goaren auzia heldu zait gogora: Etxeparek idazten zituen artikulu horiek sartzen ziren, eta irakurtzen une batean Iparraldeko 7.000 etxetan, erran nahi baita Euskal Herri osoko irakurle goa hunki baleza gaur egunkari euskara batek, guti gora behera 70.000 etxetan sar laitekela. Horretaratzeko ordea, oroit gaitzen *talde lan* harrigarria egin zutela Etxepare, Hiriart-Urruty, Abbadie, Adéma, Saint-Pierre, Moulier, Barbier, Constantin, Irigaray, Broussain, Elissalde ta beste hainitzek. Ez ziren bada denak filosofia ez adin bereko, bainan bazekiten elkar-lanean aritzen. *Jakin* aldizkariaren bigarren aroan guhaurk ezagutu dugun bezalako zer bait zitekeela asmatzen dugu Galde hau egin nezake orai: Horrelako lan-talderik agertuko ote zaigu gaurregun Euskal-Herrian?

“Mende Hasiera”




Patri Urkizu

Dakizuen bezala lau hitzaldi izan ditugu egunean zehar, beraz bazkalondoan egon ez direnentzat bakoitzari laburpen bat eskatuko diogu.

Jean Haritschelhar

Gauza gutxi erranen dut, ez dut, ez dut errepikatuko goiz honetan esan dudana. Juan Marik behar den bezala erakutsi du zer aurrerapen izan den 1900etik 1931 arte. Nik uste dut interesgarria dela aipatzea azaldu dituen hiru puntu. Bat zen agerkariena: *Euskal Erria*, *Euskal Etnalea* eta *Gure Herria*. Horiek hirurak aipatu ditut, aipatu da ere *Eusko Folklorea*-n agertu direnak. Eta hirugarren puntu batean aztertu ditut piska bat ikertzaileak. Ikertzaile horietan bereziki pastorgintzan, eta hor nik pentsatzen dut sekula literaturaz agertu baldin bada tesirik, Albert Leonena izan dela lehena. 1909an Albert Leonek,



orduan bere "Thèse complémentaire" delako horretan (525 orrialde dituela) Hélène de Constantinople-ren edizio kritikoa egin zuen. Ondo aztertua, bost eskuizkributatik aterata, bat Pariseko "Biblioteca Nazional"ekoa, bestea Baionako liburutegikoa, etabar. Neretzat interesgarria da tesi hori, zeren eta lehen aldiz agertzen bait a tesi bat unibertsitatean eta hor ikusten dugu zein den unibertsitatearen eragina, nahiz eta lehenbiziko pausua den, gero Hérelle-ren lanak izaten bait ziren tesi bat ere, 700 orrialde badira lau liburukitan eta literaturaren aldetik ere, katalogoa emanez eta hori guztia. Azpimarratu dut ere Juan Mari Lekuonaren lana, Lafitteren kritika ere, e.a., baina nik azpimarratu nahi nukeena da, eta azkenean egin dut oraingo giroa hartu dudalarik: 1960tik hona eta piska bat lehenago ezartzen ditut Leizaolaren lanak. Bi garai badira hor: bat euskal literaturaren historiaren, Mitxelena, Villasante, Onaindia, Sarasola, Luis Mari Mujika. Eta hain zuzen ere, hamarkada horretan agertzen dira horiek:

Mitxelenarena 1960an, Villasanterena 61ean, Sarasolarena 70ean... Hor badago beraz zerbait. Baina euskal filologian ez da linguistika eta hizkuntza bakarrik aztertzen. Literatura ere aztertzen da eta tesien bitartez monografiak beharrezkoak direla pentsatzen dut. Nere lana monografia izana da. Lan xumea, nahi baldin baduzue, baina denbora berean sakonki aztertzen da autore bat. Ana Toledorena Txomin Agirri buruz, Lizardiri buruz Carlos Otaegirena beste bat, eta Arestiri buruz abenduaren 17an irakurriko du Bordelen Aurelia Arcochak, beste aro batean sartu garela esan nahi dut, eta nere ustez hor ezagun daiteke unibertsitatearen eragina. Unibertsitateak hori behar du bete. Horiek beharrezkoak dira. Gero berriz etorriko dira beste Euskal Literaturaren Historia batzuk, monografia horiek kontutan hartuz. Horrela egiten da aurrerapena. Bukatzen nuen esanez kritikagarriak direla, noski, egin ditugun lanak, eta badela lan datozen urteetarako.

Ana Toledo

Oso laburra izango naiz, eta nola goizean eztabaida sortu dudana, ba orain ere sortzen badut agian arinagoa izan daiteke bide horretatik eramatea gaia. Gutxi gora behera, bi hitzetan esanda, goizean honako hau esan dut: Euskal literaturaren historian, fikzioaren alorra batipat, ahozkoaren esparrua izan dela. Bai, testuak baditugu, Etxeparek idazten zuen edo Ziburuko Etxeberri ere bere bertsoak idatzi zituen. Baina bai bata eta bai besteak, kantarazi egiten omen zituzten bere bertsoak. Beraz, azken finean igorpen modua, kanala, kantuararen bidez zen. Bai, euskarria testua, baina kantuararen bidez. Jarraitzen nuen esanez Oihenartek bide hori arbuiatu zuela, "vulgares versificadores" deitu zituela-ta; azken finean horren azpian beste bide bat proposatzen zuen, landuagoa, kultuagoa, inguruko hizkuntz erromanikoetan egiten zena bezalakoa. Beraz, horretan oinarritzen naiz, Oihenarteren bide honek ez zuela arrakastarik izan. Ahozkoa eta erdi ahozkoa izan da batipat fikzioaren esparrua historikoki euskal literaturan. XIX. mendean ikaragarri ugalduko da bertso gintza lore-jokoen inguruan, bertso paperak, e.a., baina azken finean harrera modu literarioa, kanalizazio



horren barnean jarraitzen du. Abbadie-ren mezenasgopean antolatutako Lore-Jokoetako bertsoak festa egunetan kantatzen ziren. Hegoaldean Donostian ospatzen zirenetan, errexitatu egiten ziren bertsopaperak. Papera bazuten euskarri bezala, letra bazuten, baina gero buruz ikasi eta kantatu egiten ziren. Beraz, fikzioa batipat ahozko munduaren esparru izan dela historikoki euskal literaturan esaten nuen.


Jakintza alorra mundu idatziaren esparru izan da batipat. Eta esaten nuen liburu erlijioso hauek sarri askotan irakurketa publikoz dastatu zirela. Dena den, esaten nuen mailakatze batera jo beharko dugula, eta azterketa xeheago batzu egin beharko direla. Agerian utziko dute nola guztiak ez baina batzuk bai, irakurketa publikoz dastatu ziren bereziki. Nik aipagai nuen fikziozko prosa hau, hain zuzen ere, Donostiako Euskal Festen inguruan hasten dena, eta Azkueren “Behin eta betiko”, “Piarres Adame” eta “Añamendiko Lorea”, eta abarrek oso irakurle gutxi izan zituela esaten nuen.

Esaten nuen era berean, honek ez duela esan nahi kontaktak inolako erakarmenik sortu ez zuenik euskaldunengan, baina hain zuzen ere, erdi ahozkotasunaren bidetik bideratu zen kontaketa hura. “Bravanteko Genoveva”, Arruerena, Lardizabalen “Kondaira”, “Bi saindu euskaldun” etab. Gutxi gora behera hori izan da gaur goizeko azalpena.

Piarres Xarriton

Gauzak desberdinak direla horiek oro iruditzen zaizu? Baina nik ere aldetik, bi konklusio atera beharko nituela nere lanetik iruditzen zait: lehenik, Haritschelharrek esan du tesi batzuen beharra dagoela eta gazte horiek egingo dituztela, baina lana errezteko nolabait, beste lan bat egin dadin nahi nuke. Etxeparentzat egin dudana: Sakabanatuak dauden artikulua horiek oro, horiek liburutan bildu. Gero beste batzuk egingo dituzte tesiak horren gain eta hori bera egin behar litzatekeela, Etxeparentzat egin dena, eta Kirikiñorentzat Labairu egiten ari dena, hori bera egin behar genukeela beste obra batzuentzat. Abbadie-ren lanak bildu. Iriart- Urrutirenak berdin. Lafittek bildutako bi tomotan ez daude denak eta batzuetan interesgarrienak ere ez. Denak bildu behar dira, diren bezala —historia ez da egiten aukera batzuekin. Bildu Iriart-Urruti, bildu Saint Pierre, guztiz inportantea nere ustez, bildu autore horiek. Etxeparentzen obra ez da bakarrik “Beribilez”, badira ere beste lau liburu horiek, inportantzia badute nere ustez. Hori egin beharreko lana da, biltzea, gero eginen dira analisiak.

Bigarren puntua, kazetaritzarena gaur. Saiatu naiz esaten zertan zen kazetari, zer kazetaritza mota eta nola sartzan zen talde batean. Hortik ateratzen dudana da, hain zuzen, ez dela kazetaritzarik talde lanik gabe, eta kazeta bat ez du egiten gizon batek bakarrik. Idazleak eta irakurleak behar ditu, badirelarik idazleak eta badirelarik irakurleak, orduan “Euskalduna” 7.000 etxetan sartzan zen, ifarraldean bakarrik saltzen zelarik. Une honetan ari bagina, 10 aldiz gehiago saldu beharko litzateke, 350.000 aletan, zeren Euskal Herriaren hamarretik bat



bakarrik gara euskaldunak ifarraldean une honetan, bai populazio osoan, bai euskaldunen kopuruari buruz. Beraz, egizue kontu, 70.000 ale behar lituzke saldu kazeta horrek egunero Euskal Herri osoan orain aterako balitz. Badago talderik euskal kazetaritzan? Badira hemen Hiriart-Urruti, Etxepare, Otxobi, Elissalde, Saint Pierre, Constantin-ik? Horrelako talderik ba al dago?

Patri Urkizu

Gogoeta zenbait eginerazi diezaguketen galdera sakonak dira horiek. Eskerrik asko batez ere lotura hori egiteagatik, garai bateko idazle multzoaren lana eta gaurko egunean ere burutzeke ditugun hainbeste egitasmoen artean. Orduko astekaria eta egungo egunkaria. Zer nolako eredu izan ziren haiek, zer nolako estilista fina zen Etxepare eta nola gaurko kazetarietzat ere eredugarri izan dakigukeen, eta baliogarria, dudarik gabe.

Juan Mari Lekuona

Euskal Herrian asko aldatzen dira gauzak, bai bizitzko eran eta baita gauzak aztertzekeo eran edo sakontzekeo eran. Aldaketa handiak daude eta nik aipatu dudan garai horretan hasitako zenbait lan eta joera gero oraindik mamitzen ari gara gure egunotan. Ahozko literatura bizitzeko baldintzak aldatu egiten dira. Soziokulturako baldintzak aldatzen dira eta orduan zenbait gauza ezkutatu, galdu egiten dira. Ez koplak, ez erromantzeak, ez bakarrik testuak galdu ditugulako. Bertsolari batek ez daki koplak bat egiten, eta are gutxiago daki kontapoesia. Jakin nahi nuke idazleok ere zenbateraino gai garen, kontapoesia bat egiteko. Bizitza forma bat galdu da, erabat.

Bestalde, alderdi horretatik literaturak mesede handia izan du ikerketa aldetik. Gero eta unibertsalagoak gara, beharbada gero eta zientifikoagoak. Orduan, hortan ere aldaketa handia daukagu. Garai bateko pedagogia, garai bateko testu iraupena, aldatzen doa. Aldaketa honetan bertso-papera aipatu dizuet: bertso-papera sinplea da, arrunta, merkea, baina baldintza ekonomikoak indartzen doazen eran, ez bakarrik baldintza ekonomikoak, liburuak sortzen hasten dira XIX. gizaldian edo XX. gizaldian liburuak agintzen du gero eta gehiago bertsolari baten aurkezpenean. Horrek erabat aldatzen du bertsolariaren ikuspegia. Baina kontapoesia galtzen da, literatura bera indartzen da, batez ere bertsolaritza, e.a. Alegia, ez dira bizitzen tradiziozko medio etnikoan, baizik medio etnikoa honetatik, gaurko pastoralak eta batez ere gaurko bertsolaritza erabat mass-media zabaleko ekintzak dira. Gure ahozkotetasuna —nahiz eta Anak esan duenarekin ados nagoen— hori tamiz bat da, beti hortik pasatzen da gauza asko eta asko gure bizitzan. Dena den, garaian batzuk idazkerara jo nahi dute gehiago eta besteek ahozkotetasunari eutsi. Bi gauza oso diferenteak dira, idazkera eta ahozkotetasuna, bi mundu diferente dira. Idazkerara pasatzeko beldurrik ez dugu izan behar, baina era berean ez diogu beldurrik izan behar ahozkotetasunari ere, bere baldintzak baditu, har ditzagun. Mementu honetan




hemen sortzen ari da bigarren mailako ahozkotasan bat. Orain arte idatzia eta ahozkoa edo erdi-ahozkoa izan ditugu, eta hor ibili gara, baina momentu honetan bada bigarren mailako ahozkotasuna eta da: irrastian eta telebistan mintzatuz esaten da idatzitako testua. Funtsean, aurretik idatzitako testua da. Horrek aldatu egiten du asko. Ahozkotasanak hartuko du berriz bere egitekoa baina agian ez da izango garai batekoa, baizik izango da bigarren mailako ahozkotasan bat. Funtsean idatzitakoa da ahoz esaten dena, batez ere irudien bidez, ahozko literatura asko bereziko duena irudien mundu honetan. Garai batean Lizardik eta horiek errealitate bat kontatzen zuten eta errealitatea metaforizatuta egiten zuten bere poesia. Gaur hori nahiko zaila iruditzen zait, gaurko hizkera kondizioetan, iruditik gehiago bizi gara errealitatetik baino, askotan. Pelikulatik, bideotik, e.a. Egin behar den literatura ez da lehengo literatura, metaliteratura bat baizik. Non gelditzen da guzti honetan ahozkotasuna? Badu bere egitekoa, oso inportantea da, erabili beharra dago, gauza askoren giltza da, baina beste aldetik aztertzen eta sakontzen joan beharko dugu mende honen haseran egin den bezala. Auziak baditugu, nola erabili, zertan urrundu, zertan hurbildu, eta oraingo metaliteratura honetan eta oraingo bideo inguruko mundu honetan, alegia, ahozkotasuna erabili bai, baina nola erabili, aztertu beharra dago.

Jean Haritschelhar

Ostean aipatu duzu 10 mila, 11 mila pertsona biltzen zirela Anoetan bertsolariak entzuteko. Eta pastoral ere. Pastoral bai idatzia eta bai ahoz emana da eta iaz lan bat egin nuen, Italian aipatzen baitzuten tradizioa eta modernismoa, eta pastoralaren exemplua hartu nuen. Zuberotarrek behar den bezala jokatu dutela uste dut. Euskalki berezi bat daukate, eta ez da berehalakoan ulertzen. Alde batetik ahotsak handitzeko mikroak ezarri dituzte. Hobeki entzuten da erreminta horrekin, modernismoa sartzen dela. Testua zuberotarrez, frantsesez, euskara batuan eta gazteleraz ezarri dute. Euskara dakielarik edo ez dakielarik ere, behar den bezala segitzen ahal du. Hor modernismoa sartu dute eta horregatik dira nere ustez lau mila edo bost mila pertsona etortzen. Lehen mugatua zen, ahots ikaragarriak behar zituzten heltzeko.

Ana Toledo

Harrera modu literarioak ezarri ditugu ahozko munduaren bidez, edo erdi-ahozkotasuna. Testu euskarri(arekin) edo gabe. Baina kanalizazio modua kantuaren bidez egiten zen. Horrek testuan eragiten du eta honenbestez hor aurkituko ditugu neurri tradizionalak, jakinekoak diren metaforak, sinbologia bakarrik erabili, ezusteko adjetibazioak, e.a. Zeren entzun ahala ez legoke ulertzerik eta horrenbeste porrot egingo luke. Juan Marik esaten zuen bezala, mundu idatziak bere konbentzioak ditu eta ahozko munduak bereak. Eta Etxeparek idatzi egin zuen eta Ziburuko Etxeberrik ere bai, baina azken finean




nolabait egokitu egin behar izan zuten. Besterik da, gaur egun zein jarrerarekin hurbil gaitezkeen Axularren “Gero”ra. Nere gaia narratibaren sorrera zen ezta? XIX. mendean gehiengoak gonbidatzen dira kulturaren tarta horretan parte hartzera eta honekin irakurlea gehitu egiten da, idazlea ere bai, baina bereziki justu justu letra urrikoa da gehien gehitzen dena, alegia, ozta ozta irakurtzen eta idazten ikasi duen hori. Nik uste dut hortik datorrela Lore Jokoetako bertso asko ta asko, eta bertsopaperak, e.a. Letra tresna bihurtze horretatik. Horrekin batera ematen da fikzioko prosa horren sorrera XIX. mendearen bukaeran —leiendak, elaberriak, e.a. Nik uste dut hau beste mundu bat dela. Hau argitara eman zen aldizkari kulturaletan. Aldizkari horiek nortzuk irakurtzen zituzten? Ez letra urriko horiek. Ametitzen dut aldizkari guztiak (*Euskal Erria, Euskaltzale, Baserritarra*) ez zirela berdinak, baina orohar erdimailako irakurlegoa zuten. Azken finean, benetako bizitza literarioa izan zuena ahoz izan zuen, kantuaren bidez, testu euskarri ala gabe. XIX. mendearen bukaeran harrera modu literarioa itxura hartzea banakako irakurketa baten bidez ematen da, irakurle pribatu baten bidez. Ez zeukan zertan horrela izan, gerta zitekeen poesiarekin ere, —berez aldizkari horietan badira poemak nahitaez irakurri behar direnak. Badago Arzaken poema bat, “Uhina” izeneko, irudia egiten duena, hori kantatzeak ez du zentzurik, zertarako jartzen da grafikoki uhin bat? Hori irakurri egin behar da. Banaka bai, baina ez dago poema libururik.

Jean Haritschelhar

Nik uste dut halako mespretxu bat bazuela Oihenartek. Baina hor zer gertatzen da? Poesia edo olerkia kantura pasatu dela. Ez dezagun ahantz inork ez zuela ezagutuko Francis Jean-en olerki bat ez balu Brassens-ek ezarri musikan, zeren... batek idatzi baitu musikara joateko, zeren eta baitzekien musikarekin aise entzule gehiago izanen zuela. Hori da orain gertatzen dena. Eta Oihenarten mespretxu hori ez dago gehiago, eta Brassens bat eta Edit Piaff bat —hartzen ditut hango esenpluak— zinez olerkariak dira. Testuak badu mamia eta denbora berean ezartzen dizkiote notak. Hor aldaketa ikaragarria izana da gerra ondotik hona.

Ana Toledo

Azken finean poeta horiek gehiengoei zuzentzea erabaki zuten. Non da gehiengo? Letraduna ez da gehiengo eta gehiengoari zuzendua dago. Beste literaturatan badira poetak esaten dutenak “nik gutxiengoarekin hitzegingo dut” eta mailakatze hori ez ote da falta dena? Bai, bada, baina banakako irakurketa, testu landua, harreman hori ez ote da gelditu historikoki oso ahul? Musikatzen den poema beti askoz ezagunagoa izango da. Baina guztiak musikaren bidez aditzera eman ote daitezke? Komunikazioak porrot egiteko arriskua ez al du?



Juan Mari Lekuona

Euskal Literatura, batez ere poesian, askoz gehiago ezagutzen dira Lizardi, Lauaxeta, ez liburuetatik, baizik Anton Valverdek edo Letek kantatu zituztelako. Horregatik esan nahi dizuet, nik uste dut zorionez dela, poesia asko ezagutzen dela norbaitek kantatu duelako. Hor filtro bat dago, eta hortik sartzen dira gauza asko, idatzietik, ez, baizik ahozkotasanaren munduan hitz bizitik sartzen direla gehiago, hitz idatzitik baino.

Ana Toledo

Antzerkia antzezteko egina dagoenez, ikuskizunari lotua dago, behin eta berriz gauza bat azpimarratu nahian nabil: banakako irakurketaren ekintza hori. Antzerkiak bere errealizaziorik gorenena antzezpenean lortzen du, horretarako zuzendua dagoenez. Eta “porrot” esaten dudanean, ados, azterketa xeheagoak egin behar ditugu, eta beharbada hitza gogorregia izan da. Baina azken finean, bizitza literario ahulena, langidoena, ez al du eraman historikoki poesia idatzi horrek.

Patri Urkizu

Dena dela, euskal elaberriaren sorrera aipatzen denean nere ustez, gaurko egunean modan eta gailen dagoen jenero bati buruzko apologia ematen da, eta beste lehenagoko zenbait jeneroren mespretxua. Eta pentsatuz gainera, apaizek egiten zuten euskal literatura ez zela benetazko literatura, apaizek egina zelako. Eta nere ustez ez da horrelakorik. Poeta handiak ziren eta dira, eta oraindik eredugarri XVII. mendeko idazle eta prosista asko. Baina, nere ustez, agian oker nabil, baina horrelako zenbait baloraziotan, hor atzean, oinarri sendorik gabeko mespretxua soma daitekeela.

Ana Toledo

Nik uste dut nahi eta nahi ez abiapuntu batzu behar direla. Eta nik ez dut esaten abiapuntu horiek egiaren kategorian daudenik, ez, gehienez baliagarriak, eta puntu. Nik uste dut gure kulturaren —eta gure kultura esaten dudanean mendebaldeko kultura esaten ari naiz— nolabaiteko identifikazio batera iritsi dela mundu idatzia, fikzio idatzia eta literaturan. Nik esaten dudana da identifikazio horrek funtzionatu egin duela. Hala behar du izan? Baina funtzionatu egin du.

Patri Urkizu

Noski, eta aldameneko herriak, erresumak hartzen direnean, ba bai, baina mundua askoz ere zabalagoa nola den ikusiz gero... Non bizi garen. Baina gauzak ezin dira erreduzitu, hertsu, baizik eta ahal bada, egin behar dira kontestu zabalago batzuetan, eta horrela agian epaia askoz ere baikorragoa izango litzateke.

Jean Haritschelhar

Beno, atzerakada ere hartzen baldin badugu, barkatu baina erromantizismoa Alemanian sortu da, eta gero pasatu da Frantziara eta Ingalaterrarat eta gero pasatu da Italiarat eta gero Espainiarat. Beraz, Frantzia atzeratua zen.

Ana Toledo

Eta beharbada absurdoa ere bada, segun zein ikuspegitatik begiratzen den atzerapena, e.a. Baina hitzegin ere egin behar dugu, eta goizean atzerapenaren kontzeptua ere erlatibizatu dugu. Eta azken finean, nik uste dut kritikaren alorrek jo duela fikzio idatzia eta mundu landua identifikatzera. Horri entzungor egiterik ez dut uste dagoenik, nahiz eta ez dagoen esaterik Jaungoikoaren hitza adoratzeko zaitugu, jauna. Ba ez, hori ere ez.

Jean Haritschelhar

Ni ez naiz konforme zurekin. Orokorki erraitea gure herria analfabetoa zela. Euskaraz alfabetatzen zen eta irakur ezazu Leizarragaren ABC-n lehen hitzak hauetxek dira. Zertarako idatzi du Leizarragak ABC? Zuzen bait da beste nazioek bezala euskaldunak ere bere mintzairaz irakurtzen jakin dezan. Horretarako idatzia du 1571.ean Leizarragak. Gero erranen didazu Leizarragak ez zuela lortu protestantea zelako, e.a. Baina nere ustez, Leizarragaren eta protestantismoaren kontra jaurti zena zen Etxauzeko jauna eta Etxauzeko jaunaren semea zen, hain zuzen, etortzen dena Baionarat obispo, eta Baionako apezpikuak, Etxauzek du bultzatzen ifarraldeko literatura sortze guztia. Ziburuko Etxeberri eta Axular bera, horiek oro lotuak dira Etxauzekin, mugimendu hori dena eta Etxauzek idatzi zuen, aintzinsolasean, ez zuela idazten ezer ez dakitenentzat, ez ere jakintsuentzat, baina zerbait dakitenentzat. Beraz, zenbait horiek Axularren liburua irakurtzen zuten, bazekiten irakurtzen, bazekiten idazten eta lehenago oraindik Etxauzeri, bere anaiak, euskaraz idazten zion. Badugu hor karta. Eta hegoaldeaz mintzo bagara, Zumarragak bere arrebari Mexikotik euskaraz idazten zion ere. Beraz, euskaraz irakurtzen bazekien.



Ana Toledo

Bai, baina badaude irakurtze eta idazte mailak.

Jean Haritschelmar

Baina frantsesez ere bai eta espainolez ere.

Ana Toledo

Orduan, hemen badago jende asko gaztelaniaz minimoki idazten eta irakurtzen dakiena, baina hala ere oraingo zenbait literatura kultura ez da jende



horrentzat, hau da, zerbait dakitenentzat, baina ez asko dakitenentzat. Orduan, ez dakit nik, ifarraldeko egoera ez dut ezagutzen, baina ifarraldeko herrietan, herrixketan eta baserrietan jendeak bazekien minimoki idazten eta irakurtzen? Ba seguruaski, minimoki ere. Beste alde batetik badakigu biblia eta gai erlijiozkoak irakurri egiten zirela jende artean, baina ahoz, jendeak entzuteko. Orduan, ez zirela banakakoak. Nik jakin nahi nuke zuk esaten duzun guzti hori zer mendetan, nola izan den benetan, posible balitz orain, hara joan eta bertan ikusi noraino den hori egia eta gainera idazketa eta irakurketa maila horiek nolakoak diren. Nik uste dut geldituko liratekeela oso maila bajaran.

Piarrres Xarriton

Ez, eskolan sartua zen jada. Euskaraz baliatzen ziren latina ikasteko. Etxeberrik nahi zuen latina ikasteko gramatika bat euskaraz idatzi. Baitzekien jendeak bazekiela irakurtzen, (jendeak, ez denek, Haristchelharrek erran duen bezala, askok ez zekiten idazten ere) baina bazen Espainian eta Frantzian bezainbat, proportzionalki; Euskal Herrian bazen jendea bazekienik bere mintzairaz idazten eta irakurtzen. Hori daukat nik tesia. Eta horren froga eman dizut XIX. gizaldian frantses eskola sartzen delarik ifarraldean, eta frantses alfabetatu nahi direlarik euskaldunak, zer gertatzen da? Ifarraldeko irakasleen artean, eta hegoaldekoetan ere bada horrelako zerbait, Iturriaga eta horrelakoak nahi nituzke ikusi, ifarraldean hauxe da hasteko gertatzen dena: ifarraldeko irakasleak, bai Xuberoan Arxü 1850ean eta bai Baionan, Lapurdin, Iriart, 1840ean, ari direla idazten liburuak bi mintzairetan alfabetuak izan daitezen euskaldunak.

Ana Toledo

Diotenez, Europako ifarraldekoak dira neurririk handienak hartzen dituztenak alfabetatzeko, eta orduan mediterraneorantz gatozen neurrian txikiagoak dira. Goizean aipatzen nuen Gipuzkoan 1868an erdaraz jakina, ehuneko zortzi koma zerbait ziren, edo 11, hor nonbait, eskolara joaten zirenak. Gipuzkoa estatu espainolean zortzigarrena edo da. Aurretik Nafarroa dago, gainontzekoak... Lasak ematen du kopuru hori. Arestian aipatu duzu Iturriaga, ezta? Seguruaski ifarraldekoa eta hegoaldekoa bi historia dira. Iturriagak arrazoi pedogogikotan oinarritzen zuen euskara eskolara eraman beharra. Berak defendatzen zuena honako hau zen: etortzen dira umeak eskolara eta tutik ere ez dakite erdaraz. Orduan, jartzen zaie kartilla eta ez dute ezer ulertzen. Euskara ahazten dute, erdara ez dute ikasten. Eta hori dela eta, proposatzen du pedagogo bezala euskara eskolara eramatea. Arrasaten Batzar Orokorrak biltzen zirela, batzorde bat antolatzen da eta batzorde horretako partaide da eta memoria bat egiten du, baina guzti horrek ez zuen aurrera jo. Beraz, hegoaldean behintzat, mendearen bukaeran katedra batzu sortzen dira institutoetan baina gau-eskolak besterik ez dira: libre, nahi duena joan, e.a. Makina bat ahalegin eta proposamen ba dago.



Bizkaiko Batzar Orokorretako aktak itzultzekoa, Ulibarrik egiten duena. Ulibarrik elebitasuna eskolara eramatea proposatzen du. e.a. Baina guzti horretarik, ezer gutxi lortu zen...

Patri Urkizu

Ezer gutxi, baina izan zirela ahalegin batzuk ere garbi dago. Xabier Alzibarrek egin ditu zenbait azterketa eta, esate baterako Mitxelena-ren omenaldirako idatzi zuen artikuluan, irakur dezakegu Bergarako seminarioan ikasten zituztela latina, gaztelania, italianoa, frantsesa, ingelesa, eta beste hizkuntzen artean euskara ere. Eta liburua dutela ere euskara ikastekoa, eta han Ramonek, Peñaflorida-ren kondearen semeak, egiten ditu ariketa batzuk, eta Ramonekin batera beste batzuek ere, eta han daude frogak. Orduan, azterketa bat ere egin beharko litzateke eskola guztietan zer nolako lanak egiten ziren, e.a., baina hori behinik behin, hortxe dugu. Bergarako adibidean, non ematen zituzten poesiak, errezitalak, eta ez hori bakarrik, euskarazko antzerkitxoak ere bai, jaialdiak zirela eta. Beraz, XVIII. mendean ez da bakarrik Barrutia, ez dago bakarrik Peñaflorida, jarraipen bat ere badago euskal antzerkigintzan.

Piarres Xarriton

Beste froga bat. Frantziako iraultza etortzen delarik, zertarako uste duzu, testu guztiak euskarara aldatzen direla? Zeren Euskal Herrian frantsesa oso mintzaira arrotza baita, eta izanen ere luzaro. Ez baitute ikasi frantsesik euskaldunek, XIX. mende honetan ez baitzekiten...

Ana Toledo

Hitzegiten, ordea, bai.

Piarres Xarriton


Hitzegiten are gutxiago, bai, hitzegiten zuten euskaraz eta zekitenek irakurtzen, euskaraz egiten zuten.

Ana Toledo

Zuk esaten duzu Trentoko kontziliotik aurrera euskara sartzen dela eskoletara eta frantsesaren parean edo. Beno, eta aipatu dituzu testu batzuk, eta denak ziren erlijiozkoak. Ez al dago beste arrastorik? Hau da, pentsatzen dut mende guzti horietan zehar egongo direla beste testu batzuk erlijiozkoak ez direnak, frantsesez, eskolatzeko. Eta euskaraz?

Piarres Xarriton

Bai, erlijiozko testuetan ikasten baitzen irakurtzen frantsesez ere. Hori da,



eta hori ez dugu kontutan hartzen, eta iruditzen zaigu gaurko ikuspegitik ba direla liburu bereziak horretarako. Dotrina liburutan ikasten zuten irakurtzen.

Patri Urkizu

Iraultza garaian Beaumont batek idazten du liburuxka bat, non “Instruzioneak gaztediarentzat” deitzen den eta hor Adrian, Marguerite Yourcenar-en Adrian horrek, enperadoreak, egiten dizkion galdera zenbait sei urtetako haur bati, eta hori euskaratu egin da. Zeren, bazuten iraultza garaikoek ideia jendea alfabetizatzekoa, ez dotrinen bitartez, baizik eta beste liburuen medioz. Dena dela, laburbilduz, XX. mende hasierako literatura eta gero gaurko egunekoa ere, dudarik gabe, irakurlegoaren azaroarekin loturik dago. Eta orain, eskerrak ikastolari, pentsatzen dut badagoela irakurlego bat eta hemendik aurrera ere telebistaren bitartez eta beste komunikabideen bitartez euskal irakurle eta entzule gehiago izanen direla euskal literaturaren onerako.

ERREPUBLIKA GARAIA

4

HITZALDI
ETA MAHAI INGURUA



JUAN KRUZ
IGARABIDE

Lizardi Vobiscum

PAULO
IZTUETA


Orixeren estetika

JON
KORTAZAR

*Lauaxeta eta
Europako poesia*

PATRI
URKIZU

*Antonio Maria
Labaien eta
Euskal Antzertia*



JUAN KRUIZ IGARABIDE
(Aduna, 1956)

Euskal Filologiako doktore
"Herri poesia eta gerrau-
rreko lirika: Lizardi-
Lauaxeta-Orixe (oralita-
tearen erabilpenari
buruzko poetika eta
praktika)" (Gasteiz, 1990)

Nôtre-Dameko Oihartzu-
nak (Elkar 1984)
eta
Bizitzarekin solasean
(Elkar, 1989)

...

PAULO IZTUETA
(Berastegi, 1941)

Zabal, Jakin eta beste
aldizkari askotan partaide.

Herbestean,
Irungo Poesia Saria (1978)
Quiton arrebarekin
irakurriz (Etor 1988)

J. Apalategi: **Marxismoa
eta Nazional arazoa**
Euskal Herrian (1974)
Sei idazle plazara (1974)

...

JON KORTAZAR
(Mundaka, 1955)

1985.ean Gasteizen
Euskal Filologian doktore
"Lauaxeta, euskal
poetaren teoria eta
praktika poetikoa" tesiaz.

Mikel Zarateren prosa
(1981)
Poesia vasca contempo-
ránea (1984)

Lauaxeta: Olerki lana
(1985)

Laberintoaren oroimena.
Gure garaiko olerkigin-
tzaz (1989)

Literatura vasca.
Siglo XX (1990)

...


PATRI URKIZU
(Lezo, 1946)

Euskal Filologia Doktore
Gasteizen (1986) "**Pierre
D'Urteren Hiztegia.**
Londres 1715".

Euskal Antzertia (1984)
Dorrejilko kanta (1977)
Zeren azken finean (1983)
Etsipenez, Jon Txahoren
memorioizunak (1984)
Nola Kursaal berria
suntsitu zen (1984)

...

JUAN KRUZ IGARABIDE



Lizardiren Vobiscum
(Lizarra eta sasiaren arteko tenka)

0. Sarrera

Aitorren hizkuntz zaharra, txukun eta garbia, gerraurre garaian kriterio filologiko serioxeagoz aztertua izan bazen ere, garbikeriak eta aingerukeriak oso bizirik diraute garai horretako euskal letretan. Lizarra, tradizioaren sinboloa, garbitasunarena (hots, jatortasunarena) eta babesarena ere bada. Baina, ez da lizar tradizionala huts hutsean. Lizar hori ongi bedeinkatua dago, behin eta berriz; ez da lizar paganoa, behar bezala kristautua baizik. Beraz, aingeruen erreinuan hazitako lizarra dugu eta goietan egingo du hegan. Mendian gora doa lizarra, han pakean lizarkumeak erditzera, indar berezi batek heldurik, Donibane Gurutzekoaren garraio mistikoak gogoan. Bide batez esanda. Orixek ere jokabide horiek hartu nahi ditu barne muinetatik, eta Lizardik baino hobeto ezagutzen du bidearen mapa; baina ez daki honek bezala hegan egiten.

Lizardik, sasi guztien gainerik, lizarra mendian gora darama. Esan nahi da, euskal tradizio herrikoia goimailako poesiaren eremuetara daramala. Sasi guztien gainerik eta hodei guztien azpitik.

Baina, hori ez da tradizio osoa, eta mendigain hoiek ez dira alturarik haundienak, sasia falta da. Badago sasi guztien azpitik doan euskal tradizioa: arramazkaz betea, lohitua, ez batere aingeruzkoa. Horrekin ez du Lizardik ezer jakin nahi. eta Orixek fuerte tirako dio belarrietatik, baldin eta beheruntz begiratzeko keinuren bat eginez gero.

Sasi guztien azpitik... eta laino guztien gainerik. Lizardi lainopean gelditzen da, sasitan ez zikintzearren.

1. Umezurtz bat eta paralelo okertuak

1.1. Lagun zaharrak

Tolosan gaude sanjuanetan, 1986garren urtean. Kanpoan luzaroan ibili eta lagun zaharrek aspaldiko kontuak gogoratzen ari naiz. Bilduta gaudenon harremanak borroka politikoan sortuak dira eta gaur oso arraro egiten zaigu beste edozertaz hitzegitea: poesia, adibidez.

Aspaldiko lagun hauen artean agure bat dago, "Xaxi" zaharra. Osaba zahar bati bezala, beti arretaz entzuten genion lehen; itzal haundia izan zuen guregan, gerra gorriekin egin eta errusiara aldegin ibilia zen borrokalari hari errespeto haundia bait genion.

Baina gaur gehiena harritu nauena, poesia kontua atera denean. Xaxik egindako zenbait komentario izan da. Motzak izan dira haren hitzak, baina bai zorrotzak eta jakinduriak beterikoak! Orain arte ezagutzen ez nuen pertsonai bat sortu zait lagunartean. Lizardiren izena atera da, ez dakit nola. Xaxi, "hoiek denak apezak hituen" esan, eta isilik geratu da. "Ezagutu al zenuen ba?" hasi natzaio mingainerik tiraka. Noski ezagutu zuela! Eta bai gau osorako farrandagaia atera ere. Lagunek ordulaurren bat edo iraun dute eta bakarrik utzi gaituzte. Esan dizkidanekin Xaxiren bizitzako alderdi ezkutua, hain harrigarria niretzat, ezagutu ahal izan dut.

1.2. Umezurtz baten bizitza

Joxemari Arregi du izena, "Sasidi" gaitzizenez, eta "Xaxi" lagunontzat. Zarautzen nolabait jaio eta Tolosan ahal zuen moduan hazia. Ez dut aurkitu haren jaiotza agiririk, lantegi honetan hain finak diren apezan laguntza jaso badut ere. Gutxi gora behera Lehenengo Gerrate Mundialean ereindako hazia omen da berea, eta horregatik harrapatzen omen ditu egundoko zepelinak.

Oso umea zela hasi omen zen fabrika bateko enkarguak egiten, bera baino bizikleta haundiagoarekin; fabrika horretako gerentea izan zen Lizardi.

Irakurtzen oso era bitxi batean ikasi zuen. Kanean, narrats narrats, beste ume batzuekin jolasean zebilen batean, gizon batek, begira begira jarrita, hau komentatu omen zion berarekin zihuan lagunari: "Ikusi al duk nola hitzegiten duen ume horrek? Leitzen ikasiko balu... Begira zein begi argiak dituen!". Deitu eta ea leitzen ikasi nahi zuen galdetu omen zion, eta Xaxik baietz, eta baita azkar asko ikasi ere; geroztik euskerazko liburu asko utzi omen zizkion. Gizon hura Emeterio Arrese zen.

Xaxik kaleko jolasak utzi eta leitzeari ekin zion; baina ez bakarrik Arresek utzitako liburuak, lantokiko gazte batek pasatzen zizkion paperak ere bai. Errepublikari etorri eta laister komunistekin zebilen Sasidi gaztea. "Beasaingo bat genian buru; mutil argia huen hura, Ruiz uste diat zuela apellidua. Honengandik ezagutu nizkian nik garaiko poeta erdalduak; haietaz hitzegiterakoan izenak aldatzeko mania genian: Alberdi edo Garcia la Loca esaten genian, adibidez".

Sasidiren lehen poemak komunisten propaganda orrietan agertu ziren, euskeraz, itzulpena alboan zeramatelarik. Behin, fabrikako jereentari, orri haietako bat irakurriz, hau aditu omen zion: "Son mera copia cubista, sin originalidad; ripios obsoletos, fuera de nuestro contexto euskeldún. Ez daukate euskal zera hori".

Min hartu omen zuen hitz hoiekin, eta poema bat egin ere bai "Urtaro gorria" izenekoa. Baina,

berehala sortu zen gerra zibila eta Sasidik, tiro eta tiro ibili ondoren, Errusiara aldegin zuen. Gero Europa erraustuan barrena ibili zen erromes gorri eta atzerriko literatura zabalki ezagutu ahal izan zuen.

Exiliotik dokumentu falsuekin etorri zen berriro Tolosara, eta orduan ezagutu genuen.

Bere poemak argitaratzeko ardurarik eta asmorik ez du inoiz hartu: “Umezurtz baten poemak dituk, isiletik sortuak; eta isilean eraman nahi dizkiat nirekin”. Hala ere, erakutsi dizkit, eta irakurtzeko utzi ere bai, eskuz egindako liburu batean bilduriko poema hoiek. Titulu hau emana zien: *Erraietan: sardea eta otearen poemak*. Prosazko entseiu txiki bat ere badauka, erderaz, tituluan izenak okertzeko gaztedenborako ohitura hari eusten diolarik: *Del fresno al baserri: la contaminación de Gabino Sardanay el tufo a incensario en la poesía euzkeldún (sic)*.

Sasidi orain patxaran bizi da, erretiraturik, eta lagun ditu mendiak, basoa eta perretxikuak. Ardoa ere lagun du, Lehenengo Gerrate Mundialari esker. Horretan bakarrik egiten dit errieta: “Ardoak eman dizkit munduko poemari ederrenak, zer uste duk bada!; hi ez haiz inoiz nire diszipulua izatera helduko”.

2. Lizardi poesia modernoaren ibaian

2.0. Sasidiren omenez

Gaur hemen esango dudana Sasidik, aipaturiko entseiuan, Lizardiri eskeitzen dion tratamenduan oinarriturik egongo da, haren eritziak zabalduz, kontra eginez, eta abar. Bihoakio Sasidi ezezagunari ene eskerra eta begiramena.

Sasidik poesia moderna adierazteko hain maneiatura izan den ibaiaren irudia erabiltzen du; ibai hori ez da ur zabal eta paketsuak dituen ibai klasikoa, bitarte oso desberdinetatik igarotzen den ibai baizik, hala pasabide estuetan zehar, nola haran zabaletan; edo burrundana, edo mantxo mantxo. Ibai horretan sartzen du Lizardi txalupa xume batekin, txalupa horrek euskal poesia edo euskara bera irudikatzen duelarik.

Herrikoitasuna ere aztertzen du Lizardigan, eta bi ikuspegi bereizten ditu atal horretan:

a) Iturri herrikoiak: Lizardik poesia herrikoia ezagutzen ote zuen eta bere poesia egiteko aintzakotzat hartzen ote zuen aztertzen du; horretarako gurdia irudia hartzen du, neska ezkongaiak eraman ohi zuen ezkonsari-gurdiarena. “Lizardi, un poeta que, a pesar de todo, se alimenta en las entrañas más recónditas del pueblo vasco”, dio.

b) Poesiaren herriaganako eginkizuna; eginkizun sozialtzat edo har genezakeena. Lizardik poesia herriari nola itzultzen dion eta itzuli nahi dion aztertzen du hemen; oraingo aukeratzeko duen irudia inudearena da. Lehengo gurdi hura ekarri duen neskekagaztea inude bihurtu da oraingoan. Puntu honetan esaldi bitxi bat botatzen du Sasidik: “Lizardi, un reaccionario pro-sotana con sensibilidad popular”.

Azter ditzagun, beraz, puntu hauek Lizardiren poesigintzan.

2.1. Lizardi poesia modernoaren ibaian

“Considero ridículo pretender decir que Lizardi era un poeta moderno, si nos atenemos al contexto histórico general que se vivía en las décadas posteriores a la Primera Guerra Mundial; a lo más, fue un poeta modernista”. Honela mintzo da Sasidi. Eta gero, txaluparen metaforarekin segitzen du. Nola euskal poesiaren txalupa ahulegia eta meharregia zen poesia modernoaren ibaian sartzeko; nola ez zeukan behar haineko gidaririk ur haundietan barneratzeke, eta abar.

Sasidiren metaforari jarraiki, esango nuke, Lizardik eta bere kideek txalupa konpontzen nahiko lan izan zutela; ordurarte bide motzetan ohituriko txalupa hura ezin zezaketen uraunditan sar bere hartan. Motor txiki samarra jarri ziotela ere egia da, baina txalupa hark zegoen moduan, nahikoa egin zuen ez hondoratzearekin.

Esan nahi da euskal poesiak, zegoen moduan egonda, bi betebeharrak garrantzitsu zeuzkala: bata, mintzaira poetikoa eraberritzea, edo txalupa, eta

bestea, pentsakizun berriez kutsatzea, edo motorra. Gerraurreko euskal poesiaren egoera mugimendu abertzalearen eta katolikotasunaren baitan ikusi behar da, garaiko idazle eta irakurleak bi adar horietan kokatzen bait ziren. “El que lee vasco en nuestro País peninsular es sacerdote, religioso, se-
glar de alguna ilustración” dio Orixek¹.

Euskal literaturak ez zuen ordurarte benetako iraultza idealistatik ezagutu; hemengo erromantizismoa “erromantizismo belaxka” izan da²; ez dago Alemanian ezagutu zen indar gogor hura bezalako-rik, batez ere klasizismotik eta elizpetik indarrez aldegiten jakin ez dutelako. Txahoren kasuan, ideologikoi bazegoen hor idealismo gogorrik, bai-na ez euskal literatura eraberritzeko indarrik.

Lizardi eta Lauaxeta, batez ere, eta gero Orixe, eta hauen kideak kapaz izan ziren ordea ordurarte euskal poesiak ezagutu ez zuen eraberritze sakonari ekiteko. Eta ez zuten mintzaira poetikoa bakarrik berritu; poesian joku metaforiko berriak, poesia egiteko modu berriak sartzen hasi ziren. Modu hoiek Lizardik Modernismo nahiz Sinbolismo ondorenetik hartu zituen, eta Lauaxetak ere bai.

Eta zergatik ez zuen Lizardik zuzen zuzenean garaiko abangoardietara jo?

a) Alde batetik, ideologikoki ezin zuelako, euskal poesiaren errealitatean murgildurik behintzat.

b) Bestetik, euskal poesia horretarako trebaturik ez zegoelako. Iraultza idealistaren ezaugarrietariko bat, poesia etengabeko aldaketan murgilaraztea da, hots, mugimendu bat bestea ezeztatuz sortzen da, berritzearen ideia hau abangoardiekin azken muturretaraino eraman nahi izan delarik. Beraz, Lizardi eta, ezin ziren azken muturretik abiatu; eta inguruan zeuzkaten eredurik ezagun, indartsu eta gertukoena, Frantziako sinbolismoa eta Espainiako modernismoaren ondorengo bideak ziren. Abangoardiek erabilitako zenbait prozedura hartuta ere (Lauaxetak, adibidez, Bizkaiko mehatzariei eskeinitako poemari García Lorca-rekin egin zuen antzera), etengabeko aldaketa horren zentzu abangoardista ezin zuten aplikatu. Lehenik,

eraberritzearen pozoineraz kutsatu beharra zegoen euskal poesia guztia.

Beraz, Sasidik Lizardiren modernotasuna ukatzen badu, testuinguru orokorra argudiatuz, pentsa al zitekeen, ordea, euskal testuinguruan, euskal poesiari aurrera pauso bat emanarazteko beste biderik? Sasidi berak, hain abangoardista izanik, zer nolako eragina izan zuen bada euskal poesian? Zerbaitengatik esan zuen Lizardik “fuera de nuestro contexto euzkeldún” Sasidiren poemei buruz.

2.2. *Modernismoa eta sinbolismoa*

Sasidik Lizardi atzerakoitzat jotzen du, batez ere ideologikoki, baina:

“Sin embargo, hay que reconocer que la manera de abordar los temas, y los procedimientos poéticos que utiliza, junto con la depuración del lenguaje, hacen de Lizardi un renovador, incluso un revolucionario si nos atenemos al estado en que se encontraba la poesía vasca anterior a su generación. Quiso dar unos aires de modernidad y universalidad a la poesía vasca, como nunca antes ningún poeta vasco lo había hecho.

Eritzi hori, hein haundi batean, bat dator Aitzolek bere garaian eman zuenarekin: “...debe ser considerado Lizardi como el renovador y más afortunado adaptador del euskera a la corriente del pensamiento moderno”³. Hala ere badago desberdintasun bat: Sasidi batez ere prozedura poetikoez ari da, eta Aitzol, berriz, pentsakera korronteei buruz.

Orokorki adosago nengoke Sasidirekin. Hala ere, “pentsamolde moderno” kontzeptua irristakorregia da. Lizardik idealismoaren planteamoldeak erabiltzen ditu, hark bultzaturiko gerraurreko Pizkundea mugimendua postsinbolismo euskalduntzat jo dezakegularik⁴.

Ez dira prozedura poetikoak bakarrik; pentsatzeko modu batek ere aurrera egin du gerraurreko euskal poeten artean. Gainera Sasidik berak, beste puntu batean oso datu interesgarriak eskeintzen dizkigu:



“Lizardi y sus secuaces estaban muy preocupados por extender a nivel popular las ideas nacionalistas. Para ello otorgaban un papel importante a la poesía; además existía un afán cultural de índole vasquista, concediendo gran importancia a la educación infantil. Tengo la impresión de que querían emular de alguna manera la estrategia burguesa krausista de corte liberal, pero manteniendo la impronta vasquista y curil que les caracterizaba.”

Sasidik puntu garrantzitsuak ukitu ditu aipamen horretan. Esan nahi bait du badagoela nolabaiteko pentsakera idealista bat, krausismotik ez hain urrun, simbolismo poetikoaren ondotik. Lizardik bazeuzkan bai heziketari buruzko kezak eta poesiak horretan jokatu behar zuen paperari buruzkoak: “...la

vulgarización de la literatura naciente, su puesta de moda entre la indiferente masa debe en gran parte, y con doble fruto, ser perseguida a base de actuaciones infantiles”⁵.

Hala ere, krausismoarekin parekotasuna erakuts dezakeen jarrera hezitzaile hori, krausismo horrek bere barnean zeraman indar ideologikotik nahiko aldentuta geratzen da, ez bait dago oinarrian honek zeukan indar berritzailerik, alde batetik elizaren eraginagatik, eta bestetik, ideologia nazionalistaren tradiziozaletasunagatik^{5bis}. Beraz, Lizardi nolabait poeta hautsi bat da; bere ingurugiroan irauteko ideia nahiko kontserbatzaileetan oinarritu behar du; bestalde, poesia berpizteko ahaire modernoak sartu behar ditu horren baitan.

2.3. Txalupa ibaian

Sasidiren metaforari jarraiki, Lizardi txalupan sartzen ikusten dugu, eta lemari heltzen. Lauaxeta ere ondoan darama, azkarrago joateko, uraundietan beldurrik gabe sartzeko esanez. Orixek, ordea, haruntzaxeagotik, nahiko abantara badaramatela eta hortik barrena ez dela joaten gainera, ur hoiek itxura asko eta sustantzi gutxi daukatela, milinga eta itxuranahiekoentzat direla... Lauaxetak, suturik erantzunez, ur hoiek mugitu egiten direla, bizirik daudela, Orixek joan nahi duen lekuan ur geldiak, betikoak, daudela, bere garaian sustantzia asko zeukatenak; baina orain kiratsa omen dariela... Lizardik, isilik, irrifar bati, irrifar besteari, berea egiten du. Eta badoaz aurrera.

2.3.1. Lehenengo geldialdia

Gau ilunean, kriseilu motel baten argi bakarrarekin doazela, Lizardik lema mugitzen du. Aurrean barkutzar haundi bat begiztatu du, argi asko daramana. Letra haundiz. "Barco de Castilla" dauka idatzirik. Txalupa gelditu eta apurtu egiten ditu barkukoak. Agurra itzultzen diote, baina ez gora igotzen uzten. Han begiztatzen ditu Machado-tarrak, Unamuno, Juan Ramón Jiménez eta abar. Rubén Darío eta beste batzuk atzerago daude.

"En Lizardi se observa una fuerte inclinación al canto del paisaje de su tierra y a la utilización de fuentes populares para sus composiciones poéticas. El paralelismo con los hermanos Machado me parece bastante evidente, pero tampoco debemos olvidar al cascarrabias bilbaíno, rector en Salamanca. Este tipo envenenó a toda la intelectualidad del país, incluso a sus enemigos; su obra *En torno al casticismo* explica en gran medida muchas actitudes de los poetas vascos de preguerra que, paradójicamente, tanto le rechazaban."

Sasidiren hitz hauek merezi dute zenbait kontsideraen:

a) Egia da Machadotarren joera poetikoak nolabait islada daitezkeela Lizardirengan. Baina zuzen zuzen etorriak ote dira? Tradizio hori, Rubén Darío-ren modernismoarekin batera, ez ote da beste

poetika batek bideratua izan Lizardigana iritsi baino lehen?

b) Unamunoren eragina giro orokor bati lotu behar zaio. Unamunok poetika eta pentsakera mailan ezinukatuzko zantzu orokorra uzten du, beste batzuk ere ondotik datozkiola ahantzi gabe, Ortega y Gasset adibidez.

d) Baina nork eraman du poetika mailan bultzada guzti hori gerraurreko mugimenduetaraino, hots, 27ko belaunaldiraino? Juan Ramón Jiménez izan dela batez ere esan beharra dago hemen. Abangoardiak Juan Ramón-engandik abiatzen dira eta gerraurreko azken urteetan Juan Ramón-engana itzultzen. Unamunoren ondo ondotik.

e) Egoera orokor horretaz aparte, kontutan izan behar da, Euskalerraren eredu bihur zitekeen mugimendu idealista horren barnean Gaztelarekiko atxekimendu haundia zegoela. Juan Ramón, ordea, aldendu egiten da eta andaluzismora jotzen du. Aldi berean, Catalunya aldean ere, ildo beretsutik, indartsu agertzen da Maragall. Beraz, bideak gauzatzerakoan, eta besteen eragina gutxietsi gabe, Juan Ramón eta Maragall-en ereduak lehen mailakotzat jo ditzakegu.

"Juan Ramón tenía conciencia de que era andaluz, no castellano, y consideraba un diletantismo inconcebible la exaltación de Castilla."⁶

Maragall, berriz, Lizardigandik nahiko gertu legoke, izadiaren berrinterpretazio panteista mailan, Novalis-en itzala ikusi beharko genukelarik sakonean⁷.

Itzul gaitezen, ordea, txalupara. Lizardik, izarren argitan, bi itzal ikusten ditu barku haundi horretarik jeisten eta txalupa banatan aldentzen. Bata ez doa urrunegi, bestea bai. Juan Ramón eta Maragall dira.

2.3.2. Bigarren geldialdia

Lizardik aurrera egiten du barkuak erakutsi dion arrastotik. Ez da bide luzean joaten, eta beste argi batzuk begiztatzen ditu. Gerturatuz, untzi bat baino gehiago direla ikusten du, zein baino zein ederragoak: badaude zaharrak, badaude berriak,

baita tarteakoak ere. “Deusche poesie” jartzen duen barku zaharra ikaragarri atsegina egiten zaio. “Symbolisme français” izena daraman untzi bat ere badago, altzairu finez osatua.

Horrela doazela, untzietatik lurrunezko irudi koloretsuak irtetzen hasten dira, dantzasoka osatuz. Aurrekuan Novalis-en irudia doa, eta ondotik hor daramatza Keats, Leopardi, Maeterlinck, Samain, Francis James, Paul Valéry, Verlaine, Baudelaire, eta horrelako kate luze bat. Atzeskua eskeintzen diote Lizardiri, honela kantatuz: “Hau poeta idealisten katea da”.

Puntu honetan ongi letorkiguke Sasidiren aipamen hau sartzea:

“Lizardi no podía, ni por chiripa, superar la poética idealista que había heredado del modernismo y del simbolismo. Por un lado, por su panteísmo de carácter cristiano, que no concuerda con aquel panteísmo gnosticista de los poetas idealistas. Por otro lado, por su posicionamiento nacionalista burgués, que le impide superar la visión idealista mediante el materialismo dialéctico.”

Aipamen honetan azterketa linealistegia ikus dezakegu. Esan nahi da, poetikaren bilakaera eta ideologia orokorraren bilakaera ez doazela linealki eta zuzenki loturik. Beraz, adieraz dezakegu Lizardiren izadiarekiko joera panteista horrek idealismoarekiko lotura nabaria erakusten digula, eta poetikoki erabilitako ideia horrek ez duela bere ideologia orokorrean lotura zuzenik behar.

Zer esan nahi du honek, ordea: Lizardik itxurak bakarrik hartu zituela idealismo poetikotik? Gure ustetan, Lizardi, euskal giro poetikoak permiti zezakeen abentura modernoan murgildu zen. Euskeraz aurrerago jotzeak, malgutu gabeko mintzaira erabiltzea eskatuko zukeen, giro kulturaletik kanpo geratzea, bere buruak eta pentsamenduak egin ez zezakeena egitea. Hauxe pasa zitzaion Sasidiri; Sasidi berehala konturatu zen euskal letreran zereginik ez zeukala, eta bere idatziak berarekin ezkatutzea erabali zuen. Garai hartan Pizkundera mugimenduaren bidez gauzatu zen euskal poesiak har zezakeen bide modernoan.

Noski bada, garaiko euskal letrak apezen eta nazionalisten esku zeuden eta.

“Lizardiren belaunaldia, dakigunez, belaunaldi politizatua izan zen. Euskal abertzaletasunaren mugimenduak kultur bizitzan eragin handia ukan zuen (...) denek helburu nagusi bat bazuten: euskal herriaren eta euskal kulturaren aitzinatze bat lortzea...”⁸

“Aitzol, principal mentor (aunque no único, La figura del P. Estefanía no es desdeñable (...) de la renovada poesía vasca, cambió la forma de concebir la poesía vasca.”⁹

Beraz, ideologia orokor nazionalista, eta elizaren eragin zuzena, gerraurreko euskal poesiaren bi zutabe ahaztezinak ditugu. Laburbiltze modura, aipamen hau erabil dezakegu:

“Octavio Paz (...) sostiene que el romanticismo —versión literaria del idealismo alemán— es la cuna de la poesía moderna y que esa ideología se expande por Europa con diversos nombres. Al llegar a Francia se llama Simbolismo, en España modernismo. Y nosotros debemos añadir que en Euskalerrria tal movimiento adquiere el nombre de Pizkundera.”¹⁰

3. Iturri herrikoiak

Eta berriro Sasidigana goaz:

“Lizardi estaba dotado de una gran sensibilidad hacia lo popular. En sus poemas existe por doquier eso que él llamaría ‘alma popular’. Ahora bien, ese alma está ahogada por un sentimiento burgués de distinción y de porte poético, que es la trampa en la que caen la mayoría de los poetas simbolistas y muchos vanguardistas. Lizardi abandona el “gurdi” del arreo para montarse en un carruaje engalanado de metáforas.”

Gure ustez, hemen Sasidi ez da zuzen ibili. Herriaganako joera idealista hori idealismo poetikoa osatu duten mugimendu poetikoen barruan orokorki ematen dela esan genezake, abangoardisten baitan ere oso zabaldua dagoelarik. Baina, bigarren arazo bat ere badago, eta da gero osatzen den eraikuntza poetikoa. Eta bigarren eginkizun honek ez du

definitzen poetika baten izaera burgesa ala alderantzizkoa. Lizardigan, herrikoitasunak berak lagunduta, nolabaiteko antiindustria, antiburgesia ikus dezakegu, izadiruntz ematen den itzulketarekin batera. Hor burgesia baino gehiago, lurrari loturiko aristokrazia modu bat ikus dezakegu, Juan Ramón Jiménez-ek adierazten zuen “aristocracia de la in-temperie” hura. Eta herritik abiatu eta gora jotze hori abangoardietaraino iristen da. Beraz, hor, ideologiaz aparte, guztiengan dago aristokrazia izpiritual edo dirijentea osatzeko asmoa.

Lizardik ez du inoiz abandonatzen haseran hartzen duen gurdi hori. Gurdi hori edertu eta lehengoa ematen ez duelarik jartzea izan da bere lana. Hori garbi ikus daiteke izadiaren elementuak tratatzeko orduan.

“Maitale bat bezain meeki Lizardi izadiaganatzen zan (...) Italiar asko zan artzai bizikera kantatzen zutenak, baña axuri bat iñoiz ikusi gabe (...) Agirretar Joseba Mirena beste zan. Onen antzeko dan olerkari bat Catalunya dute. Maragall (...) izadiaren gurzale.”¹¹

Lizardik, iturri herrikoiak erabiliz, euskal estetika propioa osatu nahi du (eta gogora dezagun hemen Juan Ramón-en estetika andaluzia, edo Maragall-ena, Catalunya aldetik), horren elementurik garrantzitsuenak hizkuntza eta tradizio herrikoitik datorren euskal estilo berezia direlarik.

“Pero de cuantos recursos usa Lizardi para adornar y embellecer sus poesías no encuentro ni uno solo que no sea algo que deje de ser familiar al euskaldun.”

Lizardik berak, euskal etikari buruz hauxe diosku: “un sentimiento viril, ese sentimiento que podríamos llamar de estilo vasco”¹³. Eta beste leku batean: “Leengo errotiko muskillez bear baitu erri bakoitzak bere ertia berritu”¹⁴; eta baita ere: “euskera da gure bereiz-alderik (...) nabariena”¹⁵.

Mintzairaren arazo hau sinbolisten obsesio ere bazen. Mallarmé-k “les paroles de la tribu” edo Baudelairek “sa douce langue natale” esan ohi zuten¹⁶.

Goazen berriro, ordea, Sasidik asmatu-irudietan murgiltzera. Lizardik uraundietan egin du sarrera, ezagutu ditu hango untiak, eta esku sendoz lurreratu berriz txalupa. Badoa orain etxera, hartzen du orga zaharra eta hura apindu eta berritze-ari ekiten dio. Eta badoa bidean zehar, gauza bitxiak kargatzeko tarteka geratuz.

3.1. Hirugarren geldialdia

Amona dago bide bazterrean eta, besarkatuz, gurdira igoarazten du amoltsurik. Altzoan kontu eta kanta zaharrak daramatza, eta belarriak eta ahoa ditu horien iturrien joanetorri: gainera sutondoko usaina darama gorputz osoan. Lizardiri gogoa pitzen dio eta kantari hasten da:

“Amonaren alxia
ago sutondoan
aren ipuirik al dek
ik jaso gogoan?
Ik ez? daratzak? Ez ta!...
Ez uste gozoan geuden. ta gure poza
betiko da joan”

(Liz. 317).17

“Ipui zaarrak, atozte gogora!
Atozte errengai begizkoak zora!
(Liz, 209)

Amonaren sinboloa herri tradizioaren sinboloa da, berreskuratu behar den zerbait. Hala ere, Sasidiren ustetan:

“La abuela de Lizardi es uno de los elementos que le mantiene anclado en el antiprogreso y en la religiosidad anacrónica. Es curioso que su compinche Orixe utilice el mismo símbolo para su retrógrada actividad poética.”

Gure ustez, ordea, amona hori batez ere tradizioaren eredu da, eta baita ere antiindustriaren eredu; emakumea etxean ez da gizonezkoa bezainbat kutsatu, eta beraz, bere atzerakoitasun eta guzti, altxor zaharraren gordailu bihurtu da. Lizardiren jarrera antiindustrial hori poeta idealisten artean ematen den joera modernoa da, batez ere Lizardiren



poetika orokorraren testuinguru simbolista kontutan hartzen bada.

Amonaren berreskurapena, ingurugiro tradizionalaren berreskurapenarekin batera dator; ohitura zaharrak, langintza zaharrak, gai etnologiko bihurtu diren lanabes eta objektuak...

“Matazak arildu
txirikak bete
Moxorkak aifnezka
ernal bezate
(...)
zuta ta zearra
lotuz elkarri
eunduko sarri
eundegi-ardatzak
bilduan ari”

(Liz. 269).

Amonak simbolizaturiko giro tradizionalaren ekarpena Lizardigan iturri zabaletatik dator. Bere garaian herri literaturaren bilketak indar ikaragarria hartua zuen, eta kriterio filologiko batzuren pean egiten zen, bere akats eta guzti. Ordurarte eginiko bilketen eta materialen tratamenduen aurrean, gerraurre giroan pauso kualitatiboa eman zela esan genezake. Eta Lizardik giro horretan edan zuen. Poeta guztiek egin zuten, gutxiago edo gehixeago, etnologo papera: adierazgarria da Orixeren lan haundia, edo Lauaxetak eginiko saioa¹⁷.

Hala ere, Sasidik akats nabarmenak aurkitzen ditu Lizardiren joera tradizionalan:

“Hay que reconocer que, en comparación con los literatos fueristas, estos poetas vascos de preguerra muestran una fidelidad casi científica con respecto a la tradición. Sin embargo, no consi-

guen desembarazarse de su ceguera curil. Me desesperan. Todo aquello tradicional que se refiera sobre todo a actitudes sexuales o paganas será cuidadosamente evitado o manipulado, que es más grave. Lizardi lo hizo con bastante cuidado; Orixe, a lo bestia. Algo se salva Lauaxeta, al que veo más sano a este nivel.”

Puntu honetan arrazoia emango nioke Sasidiri. Lizardik “Gazte” bere pertsonaia eta honen maitearen arteko erlazioei “Maitearen apurñoak” poema zikloan (Liz, 215) ematen dien tratamendua ez da platonikoa bakarrik; aingeruen artekoa edo horrela ematen du, sentsualitate zipitzik gabekoa. Eta Orixe Euskaldunak-eko bere bi ezkongaeikin gauza bera egiten du. Pertsonai erromantiko batek, adibidez Werther batek, erakusten duen platonismoa sentsualitate bortitzez beterik egon ohi da. Lizardik tradizioan bazeukan nahiko adibide, esate baterako zuberotarren maite kantetan, Peru Gurea-n eta abar; gai gordinagoak, gai sentsualagoak, aukeran. Lauaxeta honetan aurreratua agertzen da.

Hirugarren geldialdi honi amaiera emateko hauxe adierazi nahi nuke: Lizardik hartzen duen tradizio hori, egitura poetiko konplexu batean txertatzen duela, elementu herrikoiei aldaketa haundia emanez, funtzioak aldaeraziz eta bere goimailako poetikaren zerbitzari bihurtuz. Horregatik, iturri herrikoiak estaliak egongo dira eta prozedura poetiko kultuen azpian gorderik agertuko zaizkigu, material papera betez.

3.2. *Laugarren geldialdia*

Lizardik, amonaren kriseiluaren argitan, gurdian daramana ikusi nahi du. Arakutzen du alde bat eto ipotx ttiki ttikiak eta gorri gorriak agertzen zaizkio: “Baladak eta eresi zaharrak gara —esaten dute—, gutako bakoitzaren jatorria oso zaharra da”. Eta Lizardiri esku emanda, korruan hasten dira, kantatuz:

Ipotxek:

“Zer ete da andra erdiaren zauria?
sagar errea ta ardao gorria.”¹⁸

Lizardik:

“Ozkarbi zen gaua
bitxiz joria
zillarpil larria
ta diru xeea.”

(Liz. 255)

Ipotxek:

“Abadia urrun dago
eleixea urrunago.”¹⁹

Lizardik:

“Urrun duk, sagasti herri, lorea
Ariziti, urrunago elurtea.”

(Liz. 155)

Zaratarekin gurdian beste inotx batzuk agertzen dira, urdinak hauek: “Kopla zaharrak eta maite kantak gara, eta haize finak banatzen ditugu bazterretan”. Eta hauek ere jokuan sartzen dira:

Ipotxek:

“Usoa eder aidean
ederrago mahainean.”²⁰

Lizardik:

“Aidean eder usoa
mendi-mendian pagoa
Etxe gaingorriak emana
keea dun ederragoa.”

(Liz. 295)

Ipotxek:

“Itsasoa laino dago
Baionako barraraino.”²¹

Lizardik:

“Dabesadan ibarrak
laiñotan daudeño.”

(Liz. 203)

Festa haundiagotzen doa eta kolore guztietako ipotxak ateratzen dira bazter orotatik, denak kantari, eta Lizardi erantzule, azkenean honen ahotsak ipotx guztiak lokartzen dituen arte:

“Ipui zaarrak, atozte gogora;
atozte, erregingai begizkoak zora!”
(Liz. 209)

“Bai-bainun amona zaar bat
zazpi begiko baratzazai.”
(Liz. 185)

“Gauaren azkengabea”
(Liz. 55)

“Non gerezi eta non baxaran.”
(Liz. 305)

Azkenean loak hartzen du Lizardi bera, eta amona geratzen da guztien begirale.

4. Gurdiarekin menditik behera

Badator Lizardi, goi haizetan hegan eginda gero, bere mendietatik behera, lehengo gurdiarekin. Baina, zer ote dakar, eta norentzat, zama haundi horretan? Urrundik entzuten da frenuaren hots sarkorra.

Gurdiak garraio dakarrenak igoerakoan zeramanaren antzik ez daukala dirudi. Hainbeste itxuraldatu dira ipotx haiek; orain soineko haundikiz jantziriko erregeren (poesiaren) zerbitzariak dirudite.

Zama eder hori etxeratzea nahi du eta edertze eta itxuraldaketa hori denei erakutsi nahi die. Baina inork gutxik begiratzen dio gurdiari.

“Fáltales lo esencial: la frescura, la naturalidad de un euskera fluido, fácil, inteligible.”²²

Lagun batek bere alde gogor ekiten du:

“Euskerazko olerkiak gaitz bat edo akats bat dute: erreztasunaren kaltea.”²³

“Lizardi jaunak goietaz egaz dagi. Orain arteko bertsogille askoren antzik ez dauko.”²⁴

Lizardi, haseran zurturik geratu da; gero, pixkanaka zuhaitz pertxenta baten gainera igo eta honela hasten da mintzatzen:

“Olerkari deritzan gizatxoro ori gabetanik, ezta ezagun izan ez erri-pizkunderik, ez-ta erri-elerti betetasunik (...) olerkari guren oiek eztira bakar

soillean azten (...) beti ditute olerkari zeeagoak aitzindari...”²⁵

Hitza eten, zuhaitzetik jetsi eta, eskuak patrikan, mendiruntz abiatzen da, amonari besoa emanda.

Sasidiren zenbait poema, Lizardi gogoan

UDARA

Parisen txolarreak
—eriyo salda beltza—
gozo ari dira
—ezpata lurrin lakarra—
ari dira gozo
izerdi gorriyen uzta emaroa
zurruputzen
—aizeak kirats atzean—
Bapo daude Paris’ko txolarreak
Parisen edo Bilbon edo Donostiyan.
Eta eskumontza kitarra jotzen
besa-ezur kirtenarekin
—eguzki— salda irakiña.

UDAZKENA

Sagasti berriyak
eztu sagarrrik guretzako.
Antzarok aspaldiyan
goserik gabiltza
eta ez digute uzten
kozliñari tipuka egiten ere.
Eta emarrari negan diogu;
begiyak erreta, erretratuan
goibel atera gera,
gibela atera digute ta.

NEGUA

Udazkeneko oskorriyak
gorri gorriyak izaten dira.
Hala zan nere lagunaren odola ere.
Negua sartu da oskorriyaren ondoren
Asturias’ko miatzetan
eta illun eta izozturik daude orain
Bizkaiko miatze gorriyak bezela.


UDABERRIYA

Nik ere banuan amona bat
 ezagutu gabea.
 Aren sutondoa
 bolkanen batetik beera joan zan
 inpernuraifio.
 Nik ere banuan amona bat
 ezezaguna,
 amonik gabe jayo
 geran guztiyok bezela.
 Gure sutondoak
 forjariyen labe gorriyak dira,
 nun kixhaltzen baikaituzte.
 Baiña guk ere izango degu
 udaberri garayian
 sagasti zuri eta berririk,
 sagarrak usteltzen uzten
 dituztenai kenduta.

OHARRAK

1. Orixe: "Comentarios a un artículo de 'Gernika'". *Gernika*, 14garrena. 1951. 19. orrialdea.
2. Erromantizismo belaxkari eta idealismo gogorari buruz, ikus, Paz. O.: *Los hijos del limo*. Seix Barral, Barcelona, 1981, 3. edizioa.
3. Aitzol: "El poeta José María de Agirre. Xabier Lizardi", in literatura inguruan, Erein, Donostia, 1986.
4. Ikus honi buruz, Kortazar, J.: *Teoría y práctica de Lauaxeta*. Col. Magisterio Derio, Bilbo, 1986, 82. orrialdea.
5. Lizardi, X.: "Organización literaria", *El Día*, 1930. 06. 24, in *Kazetari lanak*. Erein, 1987, 308. orrialdea.
- 5bis. Tradizionalismoari buruz, begira. Juaristi, J.: *El linaje de Aitor*. Taurus, Madrid, 1987.
6. Blasco, J.: *La poética de Juan Ramón Jiménez. Desarrollo, contexto, sistema*. Univ. Salamanca, 1981, 138. orrialdea.
7. Kortazar, J.: "Ohar pareta Lizardiren iturriez", in *Jakin* 29. 1983. 104-106. orrialdeak.
8. Lete, X., in Lete, Lezaeta, Lertxundi: *Xabier Lizardi, Olerkari eta prosista*. *Jakin*. Arantzazu, 1974, 40. orrialdea.
9. Kortazar, J.: *Teoría y...*, ed. cit. 10. orrialdea.
10. Kortazar, J.: Op. cit. 82 orrialdea.
11. Lauaxeta: *Azalpenak*. Labayru, 1982. 151 orrialdea.
12. Aitzol: *Literatura inguruan*. Erein, Donostia, 1986, 144. orrialdea.
13. 14. 15) Lizardi, X.: *Kazetari lanak*. ed. cit. 313, 197. eta 282. orrialdeak.
16. Lertxundi, A.: "Ai Marlowe, Marlowe!", in *Jakin* 29, 1983, 114. orrialdea.
17. Lizardi, X.: *Olerkiak*. Erein, 1983. Liburu honi Liz deituko diogu, eta ondoren poema dagoen orrialdea ipiniko.
17. Kortazar, J.: "Lauaxeta y la oralidad". Seminario de Filología Vasca, Julio de Urkijo. Anuario XIX-2, 1985.
18. Juaristi, J.: *Flor de baladas vascas*. Ed. Visor, 1989, 30 orrialdea.
19. Juaristi, J.: Op. cit. 108. orrialdea.
20. "Uso xuria errazu", in Arratia, J.A.: *Cancionero popular del País Vasco*. Ed. Auñamendi, Donostia, 1971, 1. tomoa, 115. orrialdea.
21. Donostia, J.A.: *Euskal Eres-sorta (Canciones vascas)*. Unión musical española editores, 1921, 1. orrialdea.
22. Aitzol: "Balance literario euzkeldun de 1934". *Euzkadi*, 35.01.06.
23. Lauaxeta: *Azalpenak*, ed. cit., 156. orrialdea.
24. Lauaxeta: Op. cit., 126. orrialdea.
25. Lizardi, X.: *Kazetari lanak*, ed. cit., 310. orrialdea.

PAULO IZTUETA



*Orixeren
estetika-ulerpenerako hurbilketa*

Orixez mintzatzeko epealdi jakina eman zait: II. Errepublika garaia, 1931tik 1936 bitartekoa. Diktaduratik atera bezain laster, optimismo handiz ekin zitzaion euskal gizartearen eraikuntza nazionalari. Politikan, Euskal Autonomi Estatutuaren lorpenean finkatu ziren indar gehienak. Kulturen plataforma sendoak zeuden botata: Eusko Ikaskuntza eta, batipat, “Euskaltzaleak” elkarteak. Horietatik bideratu ziren hainbat ekintza: irakaskuntzan, Ikastolen mugimendua; literaturan, poesi, bertsolari — eta antzerki-lehiaketak eta, herrira begira, haur— eta emakume-egunak. Orduan loratu zen, ez gutxi Aitzolen eraginari esker, poeta-andana ederra, Lauaxeta, Lizardi, Loramendi, Jakakortajarena, Tapia-Perurena, Zaitegi, Etxeberriak eta, osatu zutena. Orixe ere, horiek baino lehenagokoa den arren, zerrenda horretan kokatzen da. Askoren ustez, orduan jo zuen Eusko Pizkundeak bere gailurra. *De facto*, lehendik zetorren gorakada hori bukatu zen. Euskal Herriaren egiazko nazio-eraikuntzarako orduko planteamendu politiko eta kulturalak murritzeak zirela iruditzen zaidan arren, nik lehenago esango nuke Eusko Pizkundeak, zegoen bezala hain sasoi ederrean egonda, seguraski oraindik goragoko gailurrik joko zuela baldin gerrate zitalak hegoak moztu izan ez balizkio.

Orixe, Bilbo hiria utzi eta Orixako bakardadean ezkututzen da 1931ko azaroan. Beraz, 1936ko udan atxilotu eta San Kristobalen sartuko duten arte, bere sorterrian biziko da. Hemen bi galdera dauzkagu egiteko. Lehendabizi: zertara eramán zuten hara? Bigarren zer egin zuen han?

Lehenengoari labur erantzungo diot. Esaten da Orixeri poema nazionala egiteko enkargua eman ziotela eta horretarako bere sorterrira erretiratu zela. Enkarguak oro ez bait dira beti gogokoak izaten, gaineratzen da enkargua ez zuela uste zen bezain ondo bete. Ondorioz, poema nazionalak, orduko amets handiak, porrot egin zuen¹. Hau horrela esanda, larregi esatea da. Bai, egia da, Bilboko egonaldian nahikoa gogaitua egon zela bertsoarako. “Zuetan bakarren batzuk ba dakite, joan daneko alditxo batean bertsoekin asarre-samar ibilia naizela, ta ez naizela oraindio osotara adiskidetu” esanez, hasi zuen bere hitzaldia Donostian 1928ko azaroaren 25ean². Justo Maria Mokoroari samintasunez idazten dio 1929ko abuztuan, esanez *Aberri*-koek “euskalerrriako” deitzen dutela eta *Euzkadi*-koek, berriz, lanak saskira botatzen dizkiotela eta euskaratik erdaratzen ihardun erazten diotela³. Hurrengo urtean, 1930eko otsailean, *Aberri*-koen sektakeriarekin eta *Euzkadi* egunkariko jauntxoekin nazka-nazka eginda dago eta, testamentutzat euskarari bertso batsu utzi eta, euskal arlotik hanka egiteko gogoak erakusten dizkio Lizardiri⁴. Horregatik, Errenteriako Poesi Sariketarako bizpahiru poema bidal ditzala eskatzen dionean Lizardik, tenplatu edo giroan sartu gabe egin dituela eta, haritz-arbasta irabazteko berotasun handirik gabe igortzen dizkio⁵.

Orixek Bilbon krisialdi hori bizi duen une berean, 1930ean Mistral-en mendeurrena ospatzen dela eta, poema nazional baten ideia haragitzen da euskaltzaleen artean. Planteamendua da mugimendu nazionalen hastapenean literaturak, eta hemen bereziki poema nazional batek, garrantzi erabakiorra jokatu izan duela beste herrialdeetan hizkuntzaren inguruan nazio-batasuna sinbolizatzeke eta, ondorioz, Euskal Herria ere horren beharrean

dagoela. Aitzol-ek Mistral-i lau artikulu eskaintzen dizkio *Euzkadi*-n⁶, hiru 1930eko apirilean eta bat 1931ko urtarrilean, eta horietako batean idazten du hau: “Es un fenómeno general que se observa en el renacimiento literario de todas las lenguas. En la vanguardia figuran los poetas”⁷. Poema honek nolakoa izan behar duen ere zehazten du: epikoa, lokalista, folklorikoa, Mistral-en *Mireio*-ren antzekoa. Geroagokoa da, 1933ko urrikoa hain zuzen, Lonrot-en *Kalevala* poema nazionalaz egiten duen artikulua. Hemen ere lehengo gauza bera errepikatzen du: “...que la poesía es uno de los factores más importantes del resurgimiento nacional de un pueblo oprimido y el elemento esencial para la vigorización de los idiomas y literaturas que reviven”⁸. Lauaxetak, honek ere 1930eko maiatzean, Aitzolen antzeko asmoa agertzen du “Federico Mistral” artikuluan⁹. Areago: *Mireio* liburua hartu eta mahai gainean jartzen dio itzul dezan.

Badirudi euskaltzaleak nahikoa konbentziturik daudela poema nazionalaren beharraz. Baina nork egingo du? Poeta nagusi hori Errenteriako Poemi Sariketan agertuko delakoan dago Lauaxeta¹⁰. Luis Jauregi eta Pierre Lafitte izena ematera ere ausartzen dira¹¹. Orixe duzue hori. *Mireio* itzulpenaren ederrak txunditurik utzi ditu biak. Baina poema egitera bultzatu, Lizardik bultzatu zuen, bera izan bait zen Aitzoli proposamena egin ziona, dirudienez, Orixeren beraren eskabidez¹². “Euskaltzaleak” elkartearen enkarguz egin zuen, “besteek agindurik” esango digu berak “Orixe” poesian¹³; baina ez horregatik, uste izan den bezala, gogoz kontra. Bilbon ez zeukan amorrazio handirik bertsoegintzarako, baina pozik erretiratzen da bere herrira eman zaion eginkizuna betetzera.

Orixeren poemak ez zituela bete orduko euskaltzaleen desirak? Aitzolek, poema nazionalen ezarriak zeuzkan esperantzak galdu zituelako, indarberitu nahi izan zuela bertsoalaritza? Orixe Euskaldunak poemari egiten dion Hitzaurrean esaten digunez, hiru aholkulari izan zituen¹⁴. Hor izenik ez digu ematen, baina seguruenik, gutunetatik atera daitekeenez, Aita Estefania, J.M. Mokoroa eta

Markiegi (agian Lizardi?) dituzu horiek. Hauek genituen Orixeren poema zehazki ezagutu eta ederra atzeman zutenak. “Euskaltzaleak” elkarteari 1935eko otsailean egin zion entrega¹⁵. Nola esan daiteke, bada, Aitzoli poema ez zitzaiola laket izan, baldin honek 1935. urtea arte eskuratzerik izan ez bazuen? Ezin. Hemen ez naiz hasiko orduan poema nazionala egitea komeni zen ala ez, epikoa behar zuen ala bestelakoa, egindakoa ona ez ala ez, eta horrelako galderak egiten. Hauek beste kontu batzu dira, geroko eztabaida baterako uzten ditudanak.

Hasieran egin dudan galdera horri erantzun ondoren, zuzenean bigarrenari helduko diot: zernolako emaitza utzi digu Orixek gerraurrean Orexan egindako egonaldian? Hau izango da nire azalpenaren ardatza.

Orexako bakardade handian, Bilbon ez bezalako patxada aurkitzen du lanerako eta barne-bizitzarako. Wilham Viennot adiskide itsuari, bere frantses irakasle izandakoari (?), 1941. urte-hasieran egiten dion gutunean irakurtzen da oso pozik bizi izan zela bere sorterrian, Pentsamenduarekin hizketan¹⁶. Han onduak ditu, aipagarrienetatik hasita, *Euskaldunak* eta *Barne Muinetan* poemak, Estetikari buruzko saiakera eta literaturari buruzko artikuluak. Bi poesi liburu horiez aparte, zortziren bat poema solte ere baditu, urri samar, baina horiek ere adierazgarriak, batez ere “Arraunketa” saritua eta Lizardiri eskaintzen dizkion hiruok: “Lizardi gurean”, “Beti lagun” eta “Gure zizak”.

Epealdi honetako sorkuntza guztia ordutxo batean besarkatzea zaila bait da, *Euskaldunak* poemara mugatuko naiz, hizpidetzat egilearen horko Hitzaurrea hartuz.

1. Eritzi kritikoak *Euskaldunak* poemaz

Poema honi buru asko idatzi da eta garai desberdinetan. Patuak ere, egia esan, ez zion mesede handirik egin liburu honi, egileak 1935ean entregatua 1950ean argitaratu bait zen, euskal pentsakera aski bestelakoa zen garaian. Hemendik etorri zen, ez gutxi, kritikarien desbideraketa. Datuen

ikuspegi historikoa aurrean edukitzeak askotan asko laguntzen du eta kasu honetan, uste dudanez, areago, gerrateak egiazko etendura suposatu bait zuen euskal gizartearen hezurduran. Horregatik, argitasun eta zehaztasunaren amoretan, erizpide kronologikoaren arabera josiko ditut neure gogoetak.

Bidezkoak denez, hasi, Orixek berak bere obraz egiten duen aurkezpenarekin hasiko naiz.

Lehenik, gaia mugatzean, garbiki adierazten digu ez duela drama bat egin nahi izan, epopeia bat baizik: “folklore edo erriakintzazko poema egitea gogoak eman dit, folklore au baitago gaur aiptutan”¹⁷. Eta ez edozein epopei mota. Espreski antzinako gerra-kontuetan edo antzekoetan oinarritutakoari uko egiten dio, kantagaitzat euskal folklorea kutxa biziari dariona hartzeko. Beraz, ohitura-poema hautatzen du iturburutzat, herri-bizitza bere ohizko ihardunbide ziklikoan gogoemanda: “Erri bat ere oiko lanbidetan, jolasetan, ipuietan, sukaldean, bizian, eriotzean agertu nai nizuke, gauzak eskuarki edo komunzki gerta oi diranez”¹⁸. Ez du egin nahi euskal gertakari gogoangarri baten deskribapen historikorik, geroago Salvatore Mitxelenak Arantzazu poemarekin egingo duenaren antzeko zerbait. Folklorea ekarria gaurkotasunez hornitua egoteaz gainera, hautaketa honek abantaila aski erabakiorra zekarkion Orixeri, bizi izan zen lekuan eta garaian bizi izanda, herri-altxor aberats horren lekuko zuzen izatea tokatu bait zitzaion. Horregatik dio: “Egun, ordea, erri batean agerikoak oro sartzen ditugu istorian. Baita nik ere poema deritzadan ontan; istori zearo baitut egin, guzia toki batean eta mende batean, egina litzan gisan. Mende zarririk ere asmatu-bearrik ez; bizimodu zar onen geienaren lekuko nerau izan bainaiz”¹⁹. Euskal folklorea ondo ezagutzen zuela, ezin da zalantzan jarri. Jesuitetan zegoela, inoiz kontsultatu izan zion Joan Karlos Gerrak. Bilboko *Euzkadi*-n kazetari-lanetan aritu zenean, Diktaturak ere ez bait zuen ezer gehiagorako lekurik ematen, ia kasik folklore-gaiak harrotu zituen: dantzak, musika, kirolak, herri-festak eta usarioak, euskal bizimodua (lihogintza, ikazkintza, gaztainaroa, etab.). Berea da, halaber, euskal

literaturari buruzko lehen saiakera saritua, *Euskal-Literatura'ren atze edo edesti laburra* izenekoa. Lehen lan handia egina zeukan, beraz, alde aurretik.

Bigarren zehaztapen bat ere egin beharrekoa da: alegia, hautaketa “Europa’ko poema garaienak irauli ta aztertu” ondoren egin zuela. Eskema ondo egina zeukan jadanik 1931ko urtebukaeran, poema nolakoa izango zen galdezka zeukan hainbat adiskideri “Temor y aliento” artikulua bidez erantzuten bait die, zehaztuz hura: a) euskalduna izango dela, euskal folklorean oinarritua; b) unibertsa, hots, Euskal Herri osoari dagokiona, Camoens-en Os Lusíadas-en antzera; c) herritarra, baserritarren bizimodua jasoko duena eta d) bertsolarien hizkuntzan idatzia eta kantu bakoitzak eskatzen duen metrikari erantzia²⁰. Alde handirik gabe, poemari ezarritako Hitzaurrean dakarrena aurreraturik dator artikulua honetan. Hemen kritikak egingo duen galdera zorrotza hau izango da: Orixek poeman Euskal Herri osoa jartzen ote du kantari, ala haren zati bat bakarrik?


Hirugarren oharra sorkuntzari dagokiona da. Poema epiko bat ez bait da diskurtso historiko bat, eskuartearen pilatu duen material horri bizia ematera mugatzen da bere sorkuntza lana. Aurrean datzan errelitateari berari ematen dio hitza, bere kabuz mintza dadin: “Ez dut lan ontan deusik asmatu. Erria dan bezala azaltzen saiatu naiz: *res ipsa loquatur*; gauza bera mintza bedi. Zertako ni asmaketan asi? Ba liteke neure burua gogo nuen bezala ez osotara gorde izatea, erria jatorrago ager zedin; baina Europa’n ifion poema errikorik egin bada, au dedin nai nuke. EUNETIK larogeita amabost, gutxienik, neure begiz ikusiak, neure belarriz entzunak ditut; nik josi ta moldatuak orde, batasuna ar dezaten”²¹. Hemen kritikak poemaren originaltasuna jarriko du zalantzan, egiazki museum folkloriko hutsa ala sorkuntza den galdetuz. Funtsean, objektibotasunaren eta subjektibotasunaren arteko arazoa planteatuko da.

Orixeren poema nagusi honi buruz egindako kritikahurbilketan, lau aro bereiz daitezkeela uste dut. Lehenengo biak bere bizialdiari dagozkionak

dituzue; azken biak, hura hilez geroztikoak.

1.1. Ibar-en apologia: Euskaldunak poema, euskal naziotasunaren sinbolo eta zibilizazioaren gordailu (1936)

Gerraurrean, artean *Euskaldunak* poema argitaratzeke zegoela, Ibar izan genuen berori aztertu zuen bakarra bere *Genio y Lengua* saiakeran²². Liburu hau, jatorriz, Aitzolek “Balance literario euskeldun 1934” artikuluan²³ eta Altubek *La vida del euskera* saiakeran²⁴ sostengatzen zituzten tesiak ezeztatzen zetozen. Herriaren deseuskalduntze-arazoak dihardutela, autore horiek uste dute, beste zenbait kausaren artean, herriak euskaraz irakurtzen ez duelako gertatzen dela fenomeno hori eta ez duela irakurtzen, hain zuzen, idazleek euskara landuegia (Aitzol) eta garbiegia (Altube) erabiltzen dutelako. Ibar-en erantzuna beste hau da: euskara atzerabidean baldin badago, da, batetik, arrozkeriak (irakur inmigrazia, inmoralitatea, erlijiorik ez, hots, modernismoa) euskal izakera arriskuan jarri duelako eta bestetik, euskarazko prentsarik ez dagoelako eta egiazko euskal mezurik gabeko literatura egiten delako. Aterabideak proposatzerakoan, hain zuzen, Orixeren poema dakar literatur eredutzat, hor kausitzen bait du gauzatua euskarak bere pizkunderako behar duen tresna egokia, hor eredu, hor sinbolizatua euskal naziotasunaren etorkizuna. Orixek jakin du herri-bizitza barru-barrutik ukitzen eta senti erazten. Zergatik? Besteak beste, poemari egozten dizkion hiru kualitate hauengatik: lehenik, edukinaren aldetik, obrak herritarren bizimodu ziklikoa eta egunerokoa plastikotasun eta bizitasun handiz jasotzen duelako²⁵ edo, zehazkiago esanda, bera isildu eta herria bera hizketan jartzen duelako²⁶; bigarrenik, formaren aldetik, literatur baliabideak eta hizkuntza maisutasunez darabiltzalako²⁷; hirugarrenik, poema euskal estetikaren arabera lantzen asmatu duelako edota, bestela esanda, pertsonaiak euskal psikologiaz dotore jantzi dituelako²⁸. Arrazoi guzti hauengatik esango du Ibar-ek, kritikaren azkenaldera, poema honetan dagoela hezuramaturik gure idiosinkrasia etnikoa



eta berak markatuko duela etorkizunean euskal berrikuntzaren eta abertzaletasunaren norabidea²⁹.

Ibar-ek Euskaldunak poemaz egiten duen irakurketa pausatu eta gogartu honek, ordea, apenas duen eraginik, gerrateak hauts tartean gordeta egotera kondentzen bait du.

1.2. Bipolarizazioaren hasiera: klasizismoa auzitan (1950-1954)

Argitaratzen den urtean, 1950ean, bihurtuko da kritikagai poema. Asko dira beren eritziak aldizkari deberdinetan ematen dituztenak: Salvatore Mitxelenak *Aranzazu* hilabetekarian, Manuel Lekuonak *Erri-zaleen* aldizkarian, Telesforo Monzonek *Alderdi*-n, Antonio Maria Labaienek *Gernika*-n, Gabino Garriak *VIAE*ven, Jokin Zaitetik *Euzko-Gogoa*-n, Pierre Lafitte-k *Eusko-*

Jakintza-n. *Egan* aldizkaria da ausente nabaria. Aipamen gehienak, oro har, laudoriozkoak dira. Baina nik Zaitegi eta Lafitte-ren eritziak bakarrik ekarriko ditut. Zergatik hauenak? Batetik, epealdi honetako kritikarik landuena Zaitegik dakarrelako eta, bestetik, peomarekiko ez-adostasuna nabarien erakusten duena Lafitte-rena delako. Hauen aburu kontrajarrietan isladatzen da garbienik bipolarizazioa. Ez da ahaztu behar bestalde, Euskaltzaindiaren berritzea dela eta, hiru horronte bederen ematen direla euskara-ereduari dagokionez euskaltzaleen artean une honetan: a) kultur hizkuntza unibertsala edo mordoiloa deitua (Krutwig, Villasante); b) euskal harrobiko kultur hizkuntza edo purista deitua (*Euzko-Gogoa*, Orixe); c) euskara populista (Lafitte). Nahiz eta hizkuntz arazo hau orduan oso pil-pilean egon, ez dut uste koiuntura

horrek zuzeneko eraginik izan zuenik bi autore hauek poemaz agertutako eritzietan.

Jokin Zaitegik hiru artikulu eskaintzen dizkio bere aldizkarian. Nolako ondorioak ateratzen dituen? Hara laburki esan:

Lehenengoa, poema horretan Euskal Herri osoa aurkitzen dela. Herri hau, testuan zehazki datorrenez, artzainak, aizkolariak, arrantzaleak, nekazariak, bertsolariak eta herriko gizon-emakumeak dituzue³⁰. Beraz, Zaitegiren aburuz, Orixek bere Hitzaurrean dakarren hau ederki betetzen du: “Euskal Herri osoa dut kanta-gai, ez biko bat edo beste, gure gauzeri lokarri bat ezartzeko asmatu ba dut ere”³¹.

Bigarrena, poemako gizakume izengabeak izakeraz nahiz mintzamoldez osoki euskaldunak direla, euskaldunak jokabide onean nahiz makurrean³². Puntu honetan batera datoz Ibar eta Zaitegi. Orixe bera ere ados dator Zaitegiren interpretazio honekin, gutun batean Ibar-i adierazten dioen bezala³³. Garazi eta Mikel protagonistak, Lizardi eta Antonio Maria Labaienen eskabidez, ez bere gogoz, sartzan ditu, berak arestian Hitzaurrean esan bezala, kontakizunari batasuna emateko, hain zuzen.

Hirugarrena, euskarak bere gailurra jotzen duela *Euskaldunak* poemaren argitalpenarekin eta nonahiko poema bezain bikain dela eta, zenbait aldertitatik begiratuz, are bikainago eta herritarragoa³⁴. Baieztapen honekin, bai, Ibar baino dexentez harago doa. Nire ustez, urrutiegi. Dena dela, Zaitegik ondo kunplituau kausitzen du Orixeren desira, hau ere Hitzaurrean adierazia: “...baina Europa'n iñon poema errikorik egin bada, au dedin nai nuke”³⁵.

Lafitte-k orrialde-pare batean, hori bai trinko eta zehatz, adierazten du bere eritzi kritikoa. Bistan da ez zaiola sobera gustatu. Poemari gabezia gehiegi ikusten dizkio, berori osotara ederrets dezan. Larrienak bi dituzu.

Hasteko, Zaitegik eta beste hainbatek uste dutenaren kontra, ez du betetzen egileak bere lanari ezarri zion helburu nagusia. Euskal Herriaren poema nazionala izatea nahi zuen, baina ez du lortu. Ideia

hau adierazteko, Lafitte-k “a voulu” esaera darabil³⁶.

Bigarren, akatsen kutxatilan, batasunik eza, prosaismoa, idortasuna eta hieratismoa sartzan ditu. Lhande-ren *Mirentxu*-k, Txomin Agirrerren *Garoa*-k edota Mistral-en *Mireio*-k duten berotasun eta gozotasunaren bila joan zen Orixeren poemara, baina hor bihotzik gabeko folklore-pieza hotz batekin aurkitu zen. Museo batekin. Gauzak ondo sailkatuak daude, baina ikuslea, irakurlea, ez du erakartzen. Ez dramarik ez emoziorik dauka. Mikel eta Garazi hain dira aingeruak, ez dirudite mundu honetakoak, hezur-haragizkoak³⁷.

Hala ere, poema hain arkitektoniko eta zerebralaren orde besta bat bihoztarragoa pozikago hartuko zukeen arren, zintzoki aitortzen du ez duela berak ezagutzen beste poema bat hobeagorik euskaraz³⁸.

Hemen auzitan jartzen dena, batipat, Orixeren trebezia baino gehiago berak poemari eman dion edo, agian zehatzago, eman nahi izan dion literatur trataera da. Lafitte-ren gusto estetikoa, ez da zalantzarik, klasizismoz baino erromantizismoz hutsatuago agertzen zaigu eta alde horretatik dator, etorri, Orixeren poemarekiko erreserba hori.

1.3. Bipolarizazioaren areagotzea: *Orixetasuna eta Orixekeria (1966-1970)*

Hirugarren aroa Joan San Martin eta Antonio Maria Labaienen arteko eztabaidak irekitzen du, 1966an hain zuzen. Orixe hil eta gero, beraz. Baina Orixeren gainbehera lehenagotik zetorren. Amerikatik etxeratu eta nahikoa laster, 1959. urtealdera, idazlego gaztea Euskaltzaindiak proposaturiko arauetara makurtzen da eta olde honek bizkar ematen dio Orixeri, beronek batasunaren bidea gaitzesten duen neurrian eman ere. Orixeren alde eta kontrako arteko etendura gehiago areagotzen da Euskaltzaindiaren ardurapena, 1965ean, Orixe. Omenaldi bilduma argitaratu ondotik. Batzu, zehazki Lafitte eta Joan San Martin, lankide-talde horretatik alboratuak sentitu ziren eta, hain zuzen ere, orduan planteatu zuen Lafitte-k Orixeren obran “Orixekeria” eta “Orixetasuna”

bereizi beharra³⁹, San Martinek ere bere egiten duena. Testuinguru honen barruan ulertu behar dugu Joan San Martinek Euskaldunak poemari egiten dion kritika, jarraiko lau puntu hauetara laburbil daitekeena: a) poemako pertsonaiak “paketsua, apalak eta motelak” dira eta, oro har, poema “aspergarria” egiten da⁴⁰; b) poema nazionala egiteko, askoz egokiagoa zen eredutzat Walt Whitman hartzea eta ez Virgilio zaharra⁴¹; c) Euskal Herriaren errepresentazio idealizatu eta faltsua ematen da, funtsean nekazal gizartean oinarritua⁴²; d) egitura arkitektonikoa du, teknikoa⁴³. Hitz batean esanda: poema honi modernotasuna falta zaio. Berari atseginago zaizkio Salvatore Mitxelenaren “Bizi nai” eta Mikel Lasaren poesiak. Kritika hau, Lafittek 1950ean egin zuenaren kopia ez bada, ezingo da ukatu funtsean haren odolekoa ez denik. A.M. Labaieni, noski, azkenean klasizismoa onartu ala ez bait dago jokuan, ez zaizkio baliagarriak iruditzen arrazoi horiek. Horregatik esango dio, joeraz klasikozale den bati eredutzat Walt Whitman-en eredia proposatzea, aholku arras desegokia ematea dela⁴⁴.

Ez bakarrik Joan San Martini, Joxe Azurmendiri ere, *Jakin*-ek 1970ean Salvatore Mitxelenari eskaintzen dion zenbaki monografikoan, erabat arrotz egiten zaio poemari deskribatzen den euskal mundu folklorikoa: ahari-talka, eultzia, ihauteriak, etab. Txinako kontuak bezain urrutikoak zaizkio guzti horiek⁴⁵.

Zer gertatzen ote da hirugarren aro honetan *Euskaldunak* poemak kritikaren aldetik horrelako jipoi kupidagabea har dezan? Seguraski faktore bat baino gehiago gurutatzatuko dira hor tartean, literarioak eta ez-literarioak nahasian. Baina nik, guztien gainetik, azalpen soziologikoa aurreratuko nuke, ustez nahikoa begi-bistan dagoena. Eta da perspektiba historikoa arras aldatzen dela. Gerraurreko euskal gizartea, artean nekazal giro indartsukoa, eta 1960ko hamarkadakoa, arras industrializatu eta hiritartua, ez direla batere berdinak. Eta honi eransten bazaio beste bigarren elementu bat, gerratea ezagutu ez duen gazteriarena

alegia, dena esanda geratzen da. Ez da harritzekoa gizarte-aldaketarekin batera dastamen estetikoak ere aldatzea. Desbideraketa eman, honetan ematen da: 1935eko literatur obra, 1960 edo 1970eko begiekin irakurtzean, alegia. Astakeria handia esango al nuke baldin esan baneza gerraurreko euskaltzaleen mundua, gehiengoak, kontserbadorea, teokratikoa eta klasikoa zela? Zergatik eskatu behar zaio orduan Orixeri salbuespen izatea? Egia esan, ez dut arrazoirik ikusten.

1.4. Berreskurapen-printzak (1976-1988)

Badirudi azken aro honek, denboraurruntasunaren gerizpe baketsuan, Koldo Mitxelenak 1965ean Orixez egindako profetia honen oihartzuna bereganatzen duela, hauxe bait zioen: “Gure ondorengoek, orain pixkaren bat ahazturik badaukate ere, aurkituko dute berriz egunen batean ‘Orixer’, arrimenez eta espantuz”⁴⁶.

Orixeren herentzia berreskuratzera aurreratzen lehena, aro honetan, Joxe Azumendi da, zazpi urte lehenago lehen poema esaldi baten bidez baliogabetu zuen bera. Oraingoan ordea, *Zer dugu Orixeren kontra* eta *Zer dugu Orixeren alde* bikoteaz osaturiko saiakera sortzean⁴⁷, Ibar-ez geroztik nahikoa axaetik aztertua izan den poemaren mihaztadura ideologiko-estetikoa berrinterpretatzeko giltza interesgarriak eskuratzen dizkigu, zenbait aurreritzi aienatzen asko lagunduko dutenak. Batzu bakarrik ekarriko ditut orain.

Bat. *Euskaldunak* poema, egin zen garaian eginda, ezinbestekoa zen baserri-girokoa izatea, eta horren arrazoia da —arestian nik neuk aurreratu dudana— XIX. mendean zehar eta are gerraurrean, euskal literaturak kausa politiko berean identifikatzen zituela baserria eta aberria. Orobat, tradizio karlistaz geroztik bederen, fedea eta euskaldundua erabat berdindurik datoz. Beste hainbat autoreren antzera, Salvatore Mitxelenaren abertzaletasunak ere hor du bere funtsea. Hori horrela, aurretik emanik datorkion ideologiak baldintzatzen zuen poemaren ikusmoldea⁴⁸.

Bi. Poemak euskal gizartearen arazoak eta kezak

jasotzen ez dituelako, ez dela errealista diotenen kontra, sortua izan zen garaian titulu hori ezin zaiola ukatu esango digu. Hemen “errealismo” hitza zentzu soziologikoan darabil. Kritika horrek ahaztu egiten du edo, agian zuzenago, nahastu gerraurreko gizarte-egoera eta orduko kezka eta gerraondoko belaunaldi berriak bizi dituenak⁴⁹. Ezin da esan, ezta ere, Orixeren poeman baserriaren islada erromantikoa sumatzen denik. Orixek ondo zekien, poeman bertan dakarren bezala, gizarte-klase “guzietan azkena” nekazariena zela. Horregatik borrokatu zen Bilbon Bizkaiko baserriarren alde, instituzioen aurrean aurpegi emanaz. Baserri idealizatuaren irudia, batipat, erdiko klase hiritar nazionalistari dagokio⁵⁰, ez nekazari-klaseari.

Hiru. Ez du uste, oraingoan Ibar-ek poemari aitortzen dion objetibotasunaren kontra, herria bera zuzenean bere ahoz mintzatzen denik, egilearen bitartekorik gabe, alegia. Mezua ez da objetiboa, hots, herri-ahotsa. Kantu batzu aztertuz frogatzen du egilea nola sartzan den poemaren barruan, bere irudipen eta oroitzapen pertsonalak historian tartekatuz. Epikan hori gertatze, hots, poetak bere burua eskutatzea, normala da⁵¹. *Res ipsa loquatur*, dio Orixek Hitzaurrean. Bai, folklore-erlikia bila doan etnologoak material pila aurkituko du bertan eta bistan da, zentzu horretan, herri-artxiboari dagokion gauza objektibo asko dagoela poeman. Baina kontakizuna, oso-osorik, asmatua da, berak ikusi, sentitu eta bizi bezala azaltzen du. Bere erara. Honetan datza, hain zuzen, egile baten sorkuntz indarra⁵². Hitzaurrean dioen bezala, “Euskalerrria nire agoz mintzatu izatea nai nuke”. Garbi dago, beraz, “gauza bera mintza bedi” eta “nire agoz mintzatu izatea ni nuke” esanen arteko kontraposizioa.

Berrikitan, Orixeren mendeurrena (1988) ospatzearen kariaz, hurbilketa berriak egin dira Orixeren inguruan, honen lanak alderdi askotatik arakatuz. Iruzkintzen ari naizen poema honi buruz, laubost bat ekarpen aipatu nahi nituzke.

Joan San Martinek, poema ideologizatua zegoela frogatzeko, argudio gisa, zioen Orixek bere poeman

ez zituela aipatzen gaizkigileak, gizartetik baztertuak eta horrelakoak. Orduan A.M. Labaienek Imotz-ko apaizgaiaren kasua gorarazi zion. Joan Maria Lekuonak ordea, izaera eta ofizio bereziko pertsonaieri buruz egiten duen azterketan, gizarte-maila beheenetan kokatzen dituen gizon-emakume asko eta asko kontatzen ditu poeman zehar. Denetarik eskaleak, ijitoak, ikazkinak eta mantentrukeko langileak, danbolinteroak eta bertsolariak, kirolariak eta apostulariak, ardosaltzaileak eta harakinak, garbariak eta sorginak, talogileak eta zamarginak, mozkorrak, etab. Honelakoak, hots, Caro Baroja-k laugarren gizarte-mailan ezartzen dituenak, 70 kontatzen ditu. Hala ere, dakartzan gehienak hirugarren mailakoak dira, herritar langile xumeak. Orixek jende sotil hauen ahoan jarri nahi izan ditu esaldi eta bertsorik finenak⁵³.

Oroituko zarete nola Jokin Zaitetik deitzen zituen “gizakume izengabeak” poemako protagonistak eta nola, anonimatuan uzten dituen arren, antzematen zaien ederki asko beren euskal izakera berezia. Honek esan nahi du, bai Ibar bai Zaitegi baitan, kontalaria herria bera dela eta ez egilea. Orixek berak, arestian ikusi denez, interpretazio hori zuzenetsi zuen. Errelismoaren barruan, hor nolabait poemaren objektibotasuna azpimarratu nahi izan da, nire ustez. Baina Joxe Azurmendik irekitako kritikabidetik joanda, Joxe Mari Aranaldek, anonimatuaren gordelekuan ezkutatuta, Orixe bera ezagutu du kantu bat baino gehiagotan, adibidez “Denok bat”, “Pestaburu”, “Letari”, “Olentzero” eta “Eztaiondo” kantuetan⁵⁴. Guztiotan egiaztatu besterik ez da egiten Joxe Azurmendik poemaren atal autobiografikoaz aurreratzen zuen tesia⁵⁵. Egilearen protagonismo honek, ezer frogatzekotan, poemaren alderdi subjektiboa frogatuko luke, sortzailearen bizipen pertsonala, berak bizi edo asmatu izandakoaren arabera kontatua. Gauza jakina da kontalari bakoitzak bere modura deskribatzen eta berregiten duela gauza objektibuki berbera, demagun zerri-hiltzea, edo artazuriketa, edo ahari-talka, edo sega-apustua, edo beste edozein gertaraki.

Bestaldetik ordea, poemaren edukina zentzu



etnologikoan ulertuta, ezin da ukatu objektiboa dela maila handi batean, poemako giza estampa gehienak (Orixek dionenez, “eunetatik larogei ta amabost, gutxienik”) berak bere begiz ikusiak eta bere belarriz entzunak dituela. Honetan haren esana zertan sinetsi ezinik ez dago. Juan Garmendia Larrañagak, hain zuzen, bere oraingo etnologi ikerketen argitan iruzkindu eta aztertzen ditu poemak datozen folklore-paisaiak, “Pestaburu” (Dantza, Aharitalka), “Artazuriketa”, “Gaztaiñaro”, “Iruleak”, “Olentzaro” (Txerri-hiltzea), “Iñauteri” (Azari-dantza, antzara-jokua), “Axurtaro” (Lasterketa-apustua), “Belarrekoan”, “Eultzia”, “Amonaren illetak” kantuetan datozenak zehazki, eta ondorioz ateratzen duena da Orixek, egiazki, berak umetan eta gaztetan ikusi eta bizi izandako ohitura eta usuarioak dakartzala bere poemak,

horietako gehientsuenak gaur egin ia ahaztu edo lurperatuta dauzkagunak⁵⁶. Beraz, ezin da zalantzan jarri poemaren alderki objektibo hori. Poemak duen folklore-karga horren eta fikzio-alderdiaren arteko harremana zein neurritan den orekatua eta harmoniatsua esatera ez naiz ausartzen. Kritika batek, —eta orain Lafitte-rena datorkit gogora—, poemari darion gehiegizko folklore-bilketa saltu zuen, museo batekin konparatzeraino, Juan Garmendiak aldiz, poemaren ekarria etnologiaren aldetik begiratuta, garrantzi handiagoa ematen dio edukinari formari baino, barruko sakontasunari azaleko zabaltasunari baino. Etnologo batentzat poema honek badu erakarpenik, bizitasunik, ederrik. Soilki esteta denarentzat, maila bereko erakarpena sorteraizten ote du?

Joan Otaegik, Wolfgang Kayser-ek bere *Inter-*

pretación y análisis de la obra literaria lanean⁵⁷ dakarren bi mailen eskeman oinarrituz, epikaren egituran hiru osagai bereizten ditu: a) kontatzailea, b) entzulegoa edo irakurlea eta c) gertakizuna edo kontatzailea. Hiru mailok egileak fikzio bidez sorturiko izatea dute. Hori horrela, poema epiko batean, kontatzailearen baitan ni poetikoa eta ni enpirikoa bereizi behar dira; era berean, entzulegoari dagokionez, irakurlea ez da norbait enpirikoa edo soziologikoa, obrari berari darion norbait asmatua baizik; azkenik, gertakizunari dagokionez, obraren barruan datorren mundua beti ere asmatua da, sortua, ez historikoa. Joan Otaegik ni enpiriko eta ni poetikoaren eskema bikoitz hau aplikatzen du *Euskaldunak* poemako lehen zazpi kantuetan eta bere azterketa aski eshaustibotik ateratzen duen ondorio nagusia da Orixeren poema bi planotan idatzia dagoela⁵⁸. Lehen mailan gertakizunak ematen zaizkigu, kontakizuna egiten da; poema, Uitziko giza paisaiak eskaintzen dira “Pestaburu”, “Artazuriketa” eta beste kantuetan. Lehen ikuskeran ageri den kontaketa hori da ni enpirikoak jasotzen duena, kasu honetan Uitziko ingurune soziologikoa, eta lehen plano horrek bereganatzen du irakurlearen arreta. Bigarren mailan, ordea, kontakizun horrek berak eremu edo errepresentazio-mundu zabalago batean hartuko du bere egiazko esanahia. Maila honetan eraikitzen du poetak, hain zuzen, fikziozko bere mundua. Orixek, bada, ondo bereizi zituen bi mailok bere poeman. Lehen planoan Uitziko gizartea ematen du, bigarren planoan, hango girotik abiatuta, Euskal Herri osoa errepresentatzen eta interpretatzen duen bitartean. Hitzaurrean dakarren “nik josi ta moldatuak” delako hura bigarren plano honetan gauzatzen da. Azterketa honetan, nolabait esateko, Joxe Azurmendik poemaren errealdismo-barrutian ezartzen duen objektibismoaren eta subjektibismoaren arteko hesia egiazkoa dela berresten da. Honez gero onartu beharrekoa dela uste dut ni enpirikoaren eta ni poetikoaren arteko bereizketa, hainbat autorek aipatua, nahiz eta askotan ez izan batere erraza bakoitzaren mugak zehaztea⁵⁹. Kritika literarioa, noski, ez da zientzia matematikoa.

2. Azken consideranda

2.1. Nolahani ere, nire azalpenaren mendi-kaskora iritsita, daturik bildu dudala uste dut esateko gaur-egun, bereziki azken garaiko azterketak lekuko, hobeto lekutuak gaudela Orixeren poema nagusia interpretatzeko eta baloratzeko. Kritika-gurpilaren ingurumari egindako errebaso historiko honetan, gauza bat bederen ondo sartuta geratu zaigu kaskoan: alegia, kritika batek ezin dituela ahaztu ez obra baten testuinguru soziologikoa, ez egilearen estetika-eskola, ez literatur sorkuntza jakin batean egileak hautatzen duen adierazpidea. Orixek klasikoze baldin bada, —ni bederen haren obra orokorraren zoruan nagusitzen den Orixek esteta halaxe delakoan naukazu—, etiketa hori, gustagarri izan ala ez, onartu beharra dago eta kito.

2.2. Orixeren aukera klasikoa aipatu bait dut, esan dezadan, bidenabar, pixka bat harritu egiten nauela Jon Kortazarrek, Orixeren literatur sorkuntza orotara hartuta, egiten duen bost arotako sailkapenak:

- 1912-1916: Hautzaroaren eskurapena.
- 1916-1919: Gaztaroaren liraina. Begirada liluratu.
- 1930-1935: Adiskidearen partiera. Begirada lurrindua.
- 1930-1955: Jainkoaren bila. Barne-begia.
- 1961: Zahartzaro mikatza. Begirada itsua.

Epealdi horietako bakoitzean, bizitzaroz aldatzean, bost mundu-ikuspegi, bost estetika agertzen dira Orixek baitan. Honela, hasieran (1912-1930), ohitura-poemak idazten ditu. Gerora, hirugarren aroan (1930-35), nouzentismotik hurbil dabil; laugarrenean (1930-1955), oihartzun post-sinbolistak nagusitzen dira, metrika klasikoarekin; bostgarrenean, klasizismoa indartzen da⁶⁰. Sailketa honek gaiari erantzuten badio, esan behar dut Orixek beti landu izan dituela, bizitzaro guztietan, gai folklorikoak eta erlijiosoak. Hirugarren aroari dagokiona, hain zuzen, *Euskaldunak* poema, bete-betean ohitura-poema da. Azkenaldera, batez ere Amerikako egonaldiaz geroztik, nagusiki gai mistikoetan murgildua ibili zen. Hau ere egia da. Joan San Martinek, lehenago, Orixek epikoa eta

Orixe lirikoa bereizi zituen, azken honi aberatsago eritiziz⁶¹. *Barne Muinetan* horregatik zaio *Euskaldunak* baino laketago, lirismoaren larrean epikaren itxituran baino libreago darabiltzalako bere barne-sentimenduak eta bizipenak. Banago, Aita Estefania eta Joxe Azurmendirekin batera diot hau⁶², Orixe poetaren sorkuntza osoan zehar Orixe epikoa nagusitzen dela, baita gai mistikoetan ere.

Zergatik nagoen tesi honen alde esango dizuet. Hasieran esan dut nola gerraurrean, 1934ean hasita, landu zuen Estetikari buruzko saiakera bat, gero *Euzko-Gogoa*-n argitaratu zena. Beno ba, saiakera horretan garbi ageri da nola egituratua daukan bere estetika osoki arkitektura platonikoaren arabera. Estetika honen eraikinak jarraiko lau oin ditu, piramide baten antzera azpitik gora honela banatuak: lehenengoan, abiapuntu gisa, edertasun korporala edo gauza fisikoa kokatzen da, hots, ni enpirikoaren ingurunea; bigarrenean, edertasun morala, hemen harreman hertsian daudelarik ederra eta ona, ederra eta maitasuna, morala eta hezkuntza; hirugarrenean, edertasun intelektuala dago, hots, ni poetikoaren

adierazpen unibertsala; azkenenekoan, izpiritu-munduan, edertasun absolutua. Edertasun hau Orixerentzat Jainkoa da. Orixeren eraikuntza poetikoan, bada, lau mailok datoz, modu batera edo bestera, batzuetan argiago eta besteetan ilunago. Nire ustez, oro har diot, platondar piramide hau izango litzateke Orixeren poesi arkitekturara hurbiltzeko marko teorikorik egokiena.

Eskema platonikoan adimena nagusitzen zaiola bihotzari? Orixeren kasura etorrita, baietz uste du Jon Kortazarrek. Ondorio hau ateratzen du Orixek Lizardiri eskaintzen dizkion poesiak aztertzerakoan, dioenean gauzen mundua eta izpiritu-munduaren arteko lotura, ez biotzaren, baizik adimenaren bidez egiten duela, azkenean Jainkoagan urtzeko⁶³. Halaxe da. Piramide gainean Jainkoa dago, mistika, adimenez eta bihotzez baino gehiago, fedez aurkituko duena. Inor izatekotan, Orixe dugu fedearen poeta.


Orixeren poesia idorra dela, trinkoa, hierarkikoa, zerebrala, kontzeptuala, analitikoa, bai, ados. Baina bihotzik ez duela? Nahiago dut zuek erantzutea.

OHARRAK

1. Larrañaga, Iñaki, "Aitzol euskal soziolinguistikaren aintzindari? in: Aitzol, *Idazlan guztiak*, Erein, Donostia, 1988, 264 or.
2. "Oraindañako euskal-neurtitzak", *Itzaldiak*, 1930, VI, 126 or.
3. Gutuna Orixek J.M. Mokoroari, Bilbotik, 1929-VIII-22.
4. Gutuna Orixek Lizardiri, Bilbotik Tolosara, 1930-II-19.
5. Gutuna Orixek Lizardiri, Bilbotik Tolosara, 1930-V-2.
6. "El cantor de un pueblo (Frederi Mistral)" (Euzkadi, 13-IV-1930), in: Aitzol, *Idazlan guztiak*, V, op. cit., 11-13 orr.; "Mistral y los poetas vascos" (Euzkadi, 16-IV-1930), ibid., 13-15 orr.; "Mireio y las leyendas vascas" (Euzkadi, 22-IV-1930), ibid., 15-17 orr.; "Mistral restaura un pueblo. Mireio y el euskera" (El Día, 25-I-1931), ibid., 102-105 orr.).

7. "Mistral y los poetas vascos", op. cit., 13 or.
8. "El poema Kalevala y la resurrección nacional de Finlandia" (Euzkadi, 5-X-1933), ibid., 523 or.
9. "Aberrija maite dabenaren ikur ezaugarrijena elia ondo jakitia da. Olerkarijak zer ikasi eta zer ikusi badauke idazlari onen ingijetan. Orrek jarraitu eban bidetik ibiltzen badira laster geure ele onetan idazti gurenak agertuko dira" ("Federico Mistral", in: Euzkerea, XVII, 1930, 363-365 orr.).
10. Ibid.
11. Lehenengoak hauxe dio: "... el predestinado por la Providencia para cantar el gran poema de la raza es, a nuestro juicio, en la pléyade actual de esforzados poetas renacentistas vascos, el afortunado traductor e intérprete del poema Mireio" ("Mireio, de Orixe, juzgado en Donostia", in: Euzkadi, 10-I-

- 1931). Bigarrena ez da atzerago geratzen laudorioetan: "Ai gure eskuarak ere baluke Mistral horri eman othe lezoke, deus onik egiteko baitezpadako den gai hura? Askok ezetz diote. Egiaz bertzalde mintzo dira, gure ustez. Huna frogarik hoberena: Ormaetxea jaun onak eskuaralat itzuli berria du Mireio, eta berak diona: etzaio 'beste munduko lana izan'" ("Mistral' en Mireio eskuaraz", in: *Gure Herria*, XI, 1931, 29 or.).
12. "Zure asmoa oso bidezko dirudida... Zurea artu ta bereala Ariztimuño' rengana jo nun, ark nola artzen zuen ikusi naiez. Badakizu gure lanak orrek darabiltzala: gañera nik badakit euskal-poema ori zenbaterano dun gogoko. Oso ongi artu zizun" (Gutuna Lizardik Orixeri, Tolosatik Bilbora, 1930-X-19).
13. *Euskaldunak poema eta Olerki guziak*, Auñamendi, Donostia, 1972, 585 or.
14. "Iru adierazle izan ditut egin bitartean, eta iruren aburuz gauza ederra atera zait. Geroak ere berdin esan beza" (*Euskaldunak poema eta Olerki guziak*, op. cit., XLIII or.).
15. Gutuna R.M. Azkuek Orixeri, Bilbotik Orixera, 1935-II-20.
16. Gutuna Orixek Wilham Viennot-i, 1-I-1941.
17. Hitzaurrea, *Euskaldunak poema eta Olerki guziak*, op. cit., XXXIX or.
18. Ibid.
19. Ibid.
20. *Euzkadi*, 6-XI-1931.
21. Hitzaurrea, *Euskaldunak poema eta Olerki guziak*, op. cit., XLI or.
22. Librería Moco-roa Hermanos, Tolosa, 1936.
23. (*Euzkadi*, 6-I-1935), in: Aitzol, *Obras completas*, VI, op. cit., 141-143 orr.
24. Editorial Vasca, Bilbao, 1934.
25. "En cuanto a la gente que se ve actuar en el escenario, es idéntica, en su profusa diversidad, a la que puebla las zonas vírgenes, —'invioladas'—, de nuestra tierra. Las mismas facciones, el mismo andar, las mismas posturas y gestos... Una multitud innumerable de hombres y mujeres; niños, jóvenes y ancianos, cada cual con los hábitos y lenguaje, preocupaciones y tendencias, debilidades y flacos inherentes a la condición, al sexo, a la edad, a la fisiología...; con sus notas individuales bien marcadas; pero también con su mentalidad y semblante moral, razones y ocurrencias, de inconfundible traza o tipo vasco. A la mayor parte de ellos, aseguraríamos haberlos visto y tratado ya de cerca" (*Genio y Lengua*, op. cit., 196-197 orr.).
26. "El mérito del poeta resplandece en la maestría con que sustrae su propia persona a nuestra atención hasta eclipsarnos por completo, mientras nos hace tangible el relieve y diáfana el alma de sus personajes" (Ibid., 197-198 orr.).
27. "No sólo hay percepción y comprensión de la realidad, sino también estricta correspondencia entre la palabra y el concepto. Asombran la justeza del vocabulario, la expresividad del giro, el movimiento y la vida de la descripción..." (Ibid., 217 or.).
- Geroago: "En toda la obra no se tropieza con un solo neologismo de forja, ni con una sola frase impopular. Una sabia armonía preside la ordenación de la sintaxis, conciliando el máximo de densidad con el máximo de fluidez y soltura" (Ibid., 219-220 orr.).
28. "El carácter vasco de una producción literaria no depende del asunto, ni tan sólo del idioma: es fruto de la psicología racial del autor... Lo que hace vasca la obra literaria es la manera habitual de 'situarse' y de 'reaccionar' el autor frente a los hechos que registra..." (Ibid. 220 or.).
29. "A partir de aquí, el ascencimiento del Poema en las inteligencias y voluntades se irá haciendo irresistible; y su influjo restaurador se dejará sentir, cada vez más eficaz, en todos los órdenes de la actividad renacentista, emancipando el arte del mito retórico y del exotismo, levantando la moral, orientando el rumbo del patriotismo" (Ibid., 228 or.).
30. "Orixe' ren Euskaldunak", in: *Euzko-Gogoa*, 9-10 zk., 1950, 13 or.
31. "*Euskaldunak poema eta Olerki guziak*", op. cit., XLI or.
32. "Orixe' ren gizakume izengabeak", in: *Euzko-Gogoa*, 9-10 zk., 1950, 13 or.
33. "Zaitetik ba du artikulua polita 'Personajes innominados del Poema', ez dakit nola esaten dun euskeraz. Orrek asmatu du! Erri osoa ari da izketan; erria da ango gizuren edo héroe (Gutuna Orixek Ibar-i, 1951-II-9).
34. "Zuziatzeko beldurrik gabe aitortu dezakegu: badugu gure poema nagusia. Areago oraindik; non-naiko ta noiz-naiko poema bikaiñenak bezin bikaiña. Ta zenbait saietsei begiratu-ezkeru, gurea bikaiñagoa ta erritarragoa alegia" ("Orixe' ren Euskaldunak", op. cit., 8 or.).
36. "L'auteur de ce livre, en 15 chants et 12.000 vers, a voulu écrire le maître-poème de la Terre Basque" ("Nicolas Ormaechea (Orixe)". *Euskaldunak*, in: *Eusko-Jakintza*, 1-2-3 zk., 1950, 251 or.).
37. "Euskaldunak est très différent de notre rêve: c'est un gigantesque album folklorique, artistiquement rédigé, développant dans l'ordre des saisons génial, dressé par un ami d'Hésiode et de Virgile, mais imprégné jusqu'aux moëles des réalités du Pays Basque. Nous aurions souhaité un vivant récit, une marche ou même une course haletante des événements vers un terme, la mise sur pied de vrais caractères humains avec le tableau dramatique de leurs luttes inévitables. Il y a bien Garazi et Mikel: mais, mon Dieu! comme ces enfants sages sont noyés dans leur milieu!" (Ibid., 251-252 orr.).
38. "C'est le poème le plus considérable qu'un basque ait jamais osé concevoir et réaliser" (Ibid., 252 or.).
39. "Orixe", in: *Herria*, 802 zk., 1965, abenduak 16.
40. "Aurretiko iru itzak kostatuko zaizu desegitea *Euskaldunak* oifarrari artzen baduzu" ("Orixe' ren poemari buruz, Labayen jaunari karta idikia", in: *Jakin*, 21 zk., *Arantzazu*, 1966, 69 or.).
41. "Orixeren errazoi bakarra izan zan euskaldunori poema



nagusi bat egitea. Eta ez zan konturatu, bestelako erriak, bestelako errazoiak bultzatuta egin zutela. Ori jakin izan balu, ta bere burua olerkaritzat eduki, Walt Whitman-i jarraituko zion eta ez Virjiliori" (Ibid.).

42. "Gure errian aspaldiko mendeetan loratu zen nekazaritzaren garaikoa. Ta ordurako ere idealizazio faltsuz beterik. Zergaitik, gure errian ere izan bai dira lapurrak, eraileak, gaizkilleak eta gaiñerako giza-txar mota guziak (gure ustez beste erri batzuetan baiño gutxiago izan ba dira ere), baiña Orixek bere poeman, bere denborako Euskalerriko beste zenbait bizi-bide asko ta garrantzitsuri bezala, ez dizkie tokirik eman" (Ibid., 71 or.).

43. "Euskaldunak poema, arkitektu batek etxe jasotzen duan bezela egiña da, itzak, lerroak eta bertsuak pillatuz, bertszubertsu bere gorputza muntatuz; silabak eta bertsuak ondo kontatuaz, puntuetan ere bere alegiña emanaz" (Ibid., 70 or.).

44. "Euskaldunak Orixe-ren poema dala-ta, San Martin Juan jaunari erantzupena", in: *Jakin*, 22 zk., 1966, *Arantzazu*, 87-92 orr.

45. "Eta guk, bakan ezagutu eta sekula bizi ez dugun Euskal Herri bukolikoa (maliziarik gabe esanda) nekez konpreni genezake. *Euskaldunak* poema, esate baterako, geure zoritxarrerako izango da, baina egia aitortuko badugu beharko dugu esan —bere goitasunak deman jartzeke— kasi Txina bezain urruti egiten zaigula askori. Gehienoi, nik uste" ("Mitxelenaren poesiako tematika ezpalak", in: *Jakin sorta*, 2 zk., *Arantzazu*, 1970, 37 or.).

46. "Atarikoa", in: Orixe, Omenaldi, *Euskaltzaindia*, Donostia, 1965, 8 or.

47. *Jakin*, Oñati, 1976-1977.

48. "Orixek ezin zezakeen baserrian bestetan lekuratu bere poema. Orixerenaz beste ideologiak ezin zuen *Euskaldunak* poemarik sortu ordukoz" (*Zer dugu Orixeren alde*, op. cit., 24 or.).

49. "Hazaldi honi *Euskaldunak* poema ezin irudi zekiokkeen oso errealista, jendeok arras bestelako kezak eta ikuspidez zebiltzen eta, geroz eta gehiago eta larriago. Orixeren poema ez zen joera berrien artean egokitzen. Galduz zihuan mundu batetik zetorren. Eta, are, borrokatzen zen mundu batetik" (Ibid., 96 or.).

50. "Beraz, baserriaren ohorezko Orixeren poeman, baserria gutiesten dutenen aurka, baserria goretzi nahi zaigu; eta baserria goratzen, baina baserri kultura euskaldun autentikoa faltseatzen dutenen aurka, benetako baserri autentikoa eta honen kultura azaldu nahi zaizkigu orobat" (Ibid., 71 or.).

51. "Homerok eta, horixe egin dute beti. Epikaren ezaugarri jakin bat horixe dela, entzun dugu beti: poeta epikoak bere eta kontakizunaren artean tarte haundi bat hartzen duela, eta ez dela inoiz —lirikoak egiten duen moduan— bere gaian murgiltzen eta urtzen" (Ibid., 76 or.).

52. "Poemak ikuspide sozial, erlijioso, moral, ekonomiko, eta nolanahiko jakin batzu agiri ditu. Eta baserri bizitza beste ikuspide arras diferentez ere ikus daitekeena, garbi dago" (Ibid., 84 or.).

53. "Txistulariek, bertsolariak, ikazkinek, artazuritzailak, iruleak, mutikoak, artajorrazailak, langile xaharrek jalkitzen dituzte hainbat bertso. Eta hautetan izaera eta ofizio berezikoak dira kantaririk aipagarrienak" ("Izaera eta ofizio bereziko pertsonaien erretaula *Euskaldunak* poeman", in: *Euskera*, XXXIV (1989, 1), 34, Bilbo, 149 or.).

54. "Bera dugun bezala Orixe, txerria hiltzerakoan

hiltzailearen hankapetik ateratzen ez dena, eta gero amonaren esanera eta arrebarekin sesioan odolkiak partitzera doana. Zeinek bestek, protagonista izan gabe, jaso eta gorde zitzakeen detaile horiek guztiak? Eta bera ere da, tximista hasten duenean, bere ondoan daraman nexkak bezala aitaren egiten ez duena, gizonago agertu beharrez. Eta non ez da Orixe bera protagonista *Euskaldunak* poeman? (“Euskaldunak: Orixe bere berri ematen, edo egilea protagonista”, *ibid.*, 128 or.).

55. “Ezin duda, beste atal autobiografiko edo pertsonal asko dagoenik (II, 409-412), poeman sakabanaturik, kasu bakoitzean halakoak seinatzea beti erraza ez izan arren” (*Zer dugu Orixeren alde*, op. cit., 75 or.).

56. “Oar gaitzen ere, Orixe-k idatzi zizkigun etnografi gaiak kondaira direla, geienbat. Igaro eta ia ia aaztu eta ildako mundu baten ingurun bizi izan ziren oiturak, egin lurperatuak, geientxoena” (“Orixe eta etnologia”, *Hitzaldia*, EUTG, 1988).

57. Gredos, Madrid, 5. arg., 1976.

58. “Uitzin kokatua, hango giroan humotua den kolektibitatea, Euskal Herriaren errepresentazio eta interpretazio gisa ematen zaigu. Lehenengo zazpi kantuei eman diedan begiratu honek (eta hirugarren kantuen aipamena bostgarrenaren barruan egin dudala) hori sumatu ahal izateko hainakoa izan nahi du. Esaterako, txundigarria da ‘Artazuriketa’ kantuan, langintza horren deskizio eta gorabehera zehatzez baino gehiago, herri kontalariaren inguru-giroen berri eta ele moldez arduratzea. Gainera hor dugu zazpigarren kantua, aurreko guztiak baino kutsatuagoa ideologiaz, baina poemaren lehen kantu sail honi —bai eta poema guztiari ere— ikuskera orokorra eman nahi diona, hedaduran beren-beregi sartuaz, eta sarrerako ‘deiarekin’ bat eginez. Poemaren bigarren esanahi mailaz hornitua beraz” (“Orixeren epika mundua”, *Hitzaldia*, Donostia, 1988-XII-31n).

59. Spitzer, Leo, “Sobre el Libro del Buen Amor. Nota sobre el ‘yo’ poético y el ‘yo’ empírico en los autores medievales”, in: *Estilo y estructura en la literatura española*, Crítica,

Barcelona, 1980, 103-118 orr. Theodor W. Adorno ere luze mintzatzen da subjektu/objektu bikoteari buruzko ikuspegi ekibokoaz (*Teoría estética*, Taurus, 1980, 216-232 orr.). Stefan Morawski-k, ikuspegi historikoaz baliatuz, estetika-lanak baloratzeko orduan erabiltzen diren erizpide desberdinak aztertzen ditu, horien artean: subjektibistak, objektibistak, erlazionalistak eta soziologikoak (*Fundamentos de Estética*, Península, Barcelona, 1977, 19-107 orr.).

60. Kortazar, Jon: “Orixeren begiradak”, *Hitzaldia*, EUTG, 1988.

61. “Orixeren poemari buruz, Labaien jaunari karta idikia”, op. cit., 70 or.

62. Hala dio Aita Estefaniak *Barne Muinetan*-i egiten dion Hitzaurrean: “En el fondo de la poesía de *Barne-muinetan*, como en toda la lírica de ‘Orixe’ de los últimos años, creo yo notar un remansamiento y quietud de ideas y afectos, que sin desvirtuar su indiscutible lirismo, le comunican una serenidad algo solemne, de sabor, más que otra, épico” (*Euskaldunak poema eta Olerki guztiak*, op. cit., XLVI or.). Aita jesuitaren testu horretan oinarrituta, Joxe Azurmendik Orixe funtsean esteta epikoaren tesia defendatzen du: “Orixek bere liriko ondo ezkutatu du. Baina ez ezkutatu bakarrik; epikoarekin bateratu du. Epikoaren eta lirikoaren bategintza horrexek egiten du Orixeren nortasuna.

Lirikoak azal epiko lehorra hartzen badu, esan den moduan, hori ez da aski Orixe ulertzeko: azalpeko lirikoak berak ere, barrurago, epikoaren hezurra gordetzen du. Orixeren arima epikoa da. Epiko bezala ikusi du mundua. Epiko bezala tratatu Jaikoa. Epiko gisa egin du lirika, paradoxa bada ere. Halaxe azaldu du beti bere burua” (*Zer dugu Orixeren alde*, op. cit., 78 or.).

63. “Errealitatea, beraz, ez da bihotz-begietan agertzen, buru-begietan baino. Orixeren poesiak errealitatetik harago jotzen du, Platonek eta honen jarraitzaileek eraikitako mundu bikoitzaren ikuspegia Jaungoikoarengan bilduz” (“Orixeren begiradak”, op. cit.).

JON KORTAZAR



Lauaxeta eta Europako poesia

1. Lauaxetaren poetika

Benetan eskertzen dudala Euskal Idazleen Elkarteak luzatu didan gonbidapena Lauaxetari buruz hitz egiteko. Egia esan behar badizuet, pixka bat nekatua nago Lauaxetari buruz hitz egin beharrez. Baina, beste aldetik, ez da okerregi gertatzen zaidan eginbeharra, beti bait da atsegina Lauaxetari buruz hitz egitea. Baina, hasi baino lehenago garbi gera bedi, dokumentazio berria agertu arte, edo aldizkarietan agerturiko bigarren mailako artikuluak aztertu arte, datu berriak, edo datu zaharren irakurketa berriak izan arte, saiatuko naitzuela, Ihardunaldi hauen helburua Lauaxetaren irakurketa orokor bat eskeintzea denez gero, helburu hori ahal dudan duintasunez betetzen.

Gaurko honetan, gai abstraktu bat ukitu nahi nuke, besteetan ez bezala. Lauaxetaren poetika: nola ulertzen duen poesia, nola kokatzen den Europako poesien barnean, nondik hasi zen bere poesia aurrera eramaten. Gai haukeratu badut ez da kapritxo bategatik izan, bere garrantzian sinesturik baino, eta bertatik euskal poesian gertatzen zena adierazteko modua dugulako.

Ezaguna da Lauaxetak gerra aurrean ezagutzen den estetika tratatu luzeena idatzi eta argitaratu zuela *Erantzuna* izenburupean. Baina Lauaxetak beste poesiaren definizio batzuk utzi zizkigun bere lanetan zehar barreiatuak.

Guk ezagutzen ditugunak hauek dira:

1) Lizardiren *Biotz begietan* liburuari eginiko iruzkin batean Lauaxetak poesiaren definizio duen lehendabiziko definizio irakur dezakegu:

“La poesía es un género de literatura que basa su mérito en cierto misterio muy grato, que nos traslada a un mundo de irrealidades irreales que inyectan salud moral al despertar.”

2) Bigarren *Arrats Beheran* liburuaren hasieran irakur dezakegu:

“Ludi onen bestaldez lortzen diran landaraen usañak gosalde bakotzak dakarkidaz. Auxe da nire sakona! Bestiak entzuten eztaben egal-otsoa nere gelara yatorr eta barneko zugatz oneitatik txotijak aidatu ziran arren, abar-dardarea ezta amattu.”

3) Novalis-en esaldi bat errepikatuz, Lauaxetak poesia “benetazko errealtasun bakarra zela” baieztatzen zuen.

Hiru definiziotan ezaugarri berdina aukitzen ditugu, Lauaxeta hitz desberdinez gauza bera esaten ari delako. Baina dudarik ez, lehena da osatuena. Hirugarrenak ezaugarri bakar bat adierazten du, bigarrenak bi, eta lehenak hiru, eta hiru horietan aurkitzen ditugu Lauaxetaren poesiaren oinarriak.

a) Poesia idealista bat da. Neoplatonikoa. Mundu bi direla adierazten du, bata mundu honetakoa, egizkotzat edo benetakotzat jotzen ez dena, antzaikotzat hartu bai, baina antzeenkoena dena, eta idealen mundua, benetakoa, eta Lauaxetaren hitzetan esateko “mundo de realidades irreales” dena edo “ludi onen bestaldez” dagoena.

Poesia idaztea burgesiaren osatu duen mundu materialen aurka joatekoa modu bat da eta Poesiaren eginbeharra pertsonak burgesiaren eratu duen mundu materiala eta diruko sinismenetik atara eta idealen mundura eramatea litzateke, mundo bien arteko zubiarena egitea. Eta zubiarena egiteko hizkera

poetikoan metafora aurkituko dute ezaugarri nagusizat, zeren metafora berez zubia bait da: izen ideal baten bidez errealtate arrunt bat izendatzea.

b) Poesiak “misteriosa”, edo Lauaxetak hainbestetan aipatzen duen “zadorra” argitzen du. Hitz honek zentzu bi ditu gure idazlearen poetikan. Batetik, eta azalean, “zadorrak” poesiak azaldu behar duen idealaren mundu horren berri ematen du. Baina ez da hori bakarrik. “Zador” hitzaren bigarren zentzuak idealtasunaren izaeraz galdetzen du: zerk ematen dio idealtasunari bere ezaera? iraunkortasunak, ezilkortasunak. Lauaxetak zadorraren bidez azaltzen duena, ezilkorra izateko gogo da. Nahia eta ezina. Unamunorengandik ikasi zuen existentzialismoaren berri ematen digu Lauaxetak. Badakit ez dela benetako existentzialismoa hemen agertzen dena, zeren ezinezkoa baita da kristau existentzialista izatea. Halabaina, interesgarri da Lauaxetaren lanaren modernotasuna ikusteko, heriotzari buruzko galderaren agerpen goizetierra.

Existentzialismoarekin loturik agertzen da Lauaxetaren poetikan beste ezaugarri bat: kanpo munduaren eta barne munduaren banaketa. XIX. mendeko literaturan eta filosofian konpon ezinak ziren objetibismoaren eta subjektibismoaren arteko banaketak. Lauaxetari entzun diogu: “Ludi onen bestaldez loratzen diren usañak dira nire sakona”: barne mundua lotuta dago idealen munduarekin eta kanpo-mundua guztiz aparte agertzen da, barne mundutik banandua. Subjektibismoaren nagusitasunean sinestuko dute olerkariok, eta horretarako arrazoirik ez badute ere, sinesmen bezala agertuko dute bere ustea: barne mundua idealen munduaren ispilua da, eta hori horrela da, “besteek” pertsona arruntek horretaz konturatzen ez direlako, edo bestela esateko, poeta pertsona berezia delako. Subjektibitatearen nagusitasuna frogatzeko olerkariok erromantizismoaren sinesmen nagusia aipatzen dute: poeta profetaren irudira.

c) Krausismoa. Poesia ametsen eta nahikundeen munduarekin loturik dago. Baina poeta mundu honetan esnatzen denean, zer geratzen zaio? “Proyecta salud moral al despertar”. Bizibidea eta

gizabidea erakusten du esnatzerakoan.

Poesia bada edertasuna, baina Platonen jarratzaleek dakitenez, eta neoplatoniko baten lana eta pentsakizuna aztertzen gaituzue, edertasuna eta egia batera agertzen dira, estetika eta etika batera doaz. Poesiak, bada, pentsamolde hau jarraituz gero, pertsoneri bizitzen erakutsi behar die, "moral" bateri utsita bizitzen erakutsi.

Olerkariok ez ziren krausistak baina krausismotik ikasi zuten poesiaren balio hezitzailea. Eta heziketa etikan egin behar zela proposatzen zuten. Baliobide hezitzaile hau ez zen azalezko irakasbideen bidez egiten, zentzu sakonagoa zuen eta eritzi hauen azpian XIX. mendean gertatu zen banaketa da azalbidea. Europako gizartea bitan bananduta zegoen: batetik ideologia burgesa zegoen: materialista, objetibista, diruan sinesten zuena, eta, ondorioz, industria sortu eta hiri itsusiak eraiki zituen. Bestetik, hauen kontra eta mugetan —askotan madarikatu famarekin—poeten ideologia dago: idealista, subjektibitatearen alde, sinismena iraunkortasunean jarrita, eta ondorioz, hirietatik ihes dabiltzanak.

Poesiaren indar hezitzaile puntu honetan ikusten zuten: pertsona arruntek bizibide burges zeramaten, eta horiei mundu ikuskera horretarik irtenarazi eta idealen munduan sartu nahi zuten. Poesiarerri indar hezitzailea, beraz, idealismoaren baieztapena baino ez zen.

Bigarren aldean poesia hau nola kokatzen den Europako giroan aztertuko du, zein den Lauaxetaren modernitatea.

2. Lauaxeta eta modernitatea

Lauaxetak dituen ideia poetikoek bera eta bere lana garaiko inguru giroan kokatzen dituzte. Bere lana ez da guztiz orijinala, baina poesia pentsatzeko berak duen era garaian gertatzen ziren arazo historiko, zein poetikoei erantzuteko modu bat bezala ulertu beharko genuke poesiaz Lauaxetak dioena.

Europako poesia modernoa, Octavio Pazek

defendatzen duenez bat eta bakarra da. Erromantizismoan sortu eta izen desberdinekin Europa osoan zabaldu da. Ingalaterran eta Alemanian Erromantizismoa deitu zen, Frantzia Sinbolismoa eta Espainian, Modernismoa.

Euskal Herrian Europarekin bat egiteko ahalegin horrek izen desberdinak hartu ditu: Aitzolen belaunaldia, Gerra aurreko olerkia, eta, niri atsegin zaidana, Postsinbolismoa: European Lehen Gerrate Mundiala baino lehenago —eta guztietara banguardiak sortu baino lehenago— zabaldu zen mogimendu poetikoari erantzunez sortu zen Euskal Herrikoa.

Ahalegin honetan, Euskal Herriko poesia eta Europakoa lotu eta batzeko ahaleginean Lauaxetaren teoria eta praktika poetikoak toki berezia du, berak Euskal Herrian inork ez bezala poesia horren norabideak ikusi zituelako, berak adierazi zuelako nola jokatu behar zen, zein zen poesia horren erantzunkizuna, eta zeri erantzungo zion.

Lauaxetak izan zuten, Aitzol salbu, kritikorik osoenak, "Erletxube" ezizenez sinatzen zuten Juan de Abandok garbi utzi zuten hau, 1936. urtean argitaraturiko artikulu batean, Lauaxeta: "Vasco y cosmopolita" zela esaten zuenean, berea zela Euskal Herriko poesiari "modernoa" azpimarratzen zuenean.

Poesia honen modernotasuna nondik norakoa zen azaldu nahi genuke orrialde hauetan, Lauaxetaren irakurketan irakurketa izan nahi duen honetan.

Lauaxetaren olerkigintzak muga garbi bi ditu:

Alemania eta Ingalaterrako erromantizismoan aurkitzen du bere poesiaren sorrera tokia, eta surrealismoraino heltzen da. Muga bion artean, Lauaxetaren estetikak asko zor dio Espainian 1914. belaunaldiaren inguruan, lehendabiziko Juan Ramón Jiménez-en estetikaren inguruan egiten den modernitatearen sintesiari. Berea, Aitzolena, eta neurri handi batean Lizardirena, Espainian egiten den erreflexioaren oihartzuna da, oihartzuna eta Euskal Herrirako egiten den modernizazio

ahalegina, noski. Baina guztia, eta hau ezin da ahaztu, Eusko Alderdi Jeltzalearen izaera kristauaren arauetara bihurtua.

Hemen Lauaxetaren estetikaren lau alderdi ikutuko ditugu: poesiaren definizioa, herri poesia eta modernitatea, izadia eta hiria, txikitasunaren poesia. Lau alderdiotan Lauaxetaren estetika non kokatzen eta lekutzen den defintizera helduko garela uste dut.

1. Herrikoitasuna eta Europa

Europako neurriak lortzen izan zen gerra aurreko euskal poeten anbiziorik maiteena. Batzutan, Nobela Saria irabazteko asmoa agertzen zuten, beste batzuetan, ordea, European egiten zuten poesia jarraituz. European egiten zuten poesia hau, baina, ez da European egiten zen poesia guztia, bere gusto poetiko, pentsakizun estetiko eta aurre eritzi ideologikoen arauera ondo zetorren poesia baino.

Garbi dagoenez, Lauaxetak, eta Lauaxeta zen euskal poeten artean modernitatea ondoen ulertzen zuena, ez zuen surrealismorik egin, eta ez zuen egin surrealismoak berez internazionalismoa —komunismoa— suposatzen zuelako, eta bera abertzalea zen, beretzat poesia, eta hau askotan esanda dago, abertzaletasunaren menpean dago. Edo, ez dakit nik horrenbesterako den, behinzat poesiak Euskal herriko sena europartzeko tresna da. Euskal Herria modernizatzeko tresna.

Lauaxetak, eta era berean orduko euskal poetek, ez zuten beren poesia desherriratu, deserroitua ikusten. Europarrak izan nahi zuten, baina euskaldunak izateari utzi gabe. Nazionalismoak, bada, euren poesia mugatu zuen, edo, hitza gogorregi gertatuz gero, bideratu.

Poesia honek herri poesia ez du ahaztuko, herri poesiaren zentzu aristokratikoa europartu nahi zuten, eta agian, ez Aitzolek nahi zuen eran. Aitzolek epika bidea aukeratu zuen Euskal Herria Europako bideetan sartzeko. Lauaxetak, eta Lizardik, Bide Barriak aukeratu zituzten. Esan nahi da herri poesian zegoen lirika nahi zutela erabili poesia jakintsua egiteko.

Formula hori baina, modernismoaren (postsinbolismoaren) formula da. Geroago ikusiko dugunez, Lauaxetaren herrikoitasunak baditu ereduak Europa osoan: Maeterlinck, Maragall, eta Juan Ramónek gauza bera egin nahi izan zuten: “exaltar su pueblo a dimensión universal” (García de la Concha, 1983).

Euskal arimaren sustraien bila ari zenean Lauaxeta, orduan eta hurbilago zen joera modernistetatik.

2. Izadia eta hiria

Novalisengandik ikasi zuen Lauaxetak izadia Jaungoikoaren egon lekua zela, eta izadira hurbilduz, Jainkoarengana hurbiltzea zela. Baina, modu desberdinez, panteismoaren joera den hori ez zen gertatzen bakarrik Schelling-ek esaten zuen bezala, “izadia izpiritu ikusgarria da, eta izpiritua izadi ikustezina” zelako —bidenabar izadiaren pertsonifikazioa bultzatuz—, baizik eta poeta modernistek hiria gorrotatzen zutelako.

Askotan defenditu da modernismoa burgesiaren aurkako mogimendu bezala. Eta horrelaxe zen izan ere, zeren burgesiak mundua banandua zegoen mundu bietatik materialena aukeratu bait zuen, poeten aurka, izpirituaren alde batera utziz. Hiria burgesiaren sorkuntza zen, itsuskeriaren erreinu bihurtua zen. Hirian ez zegoen poetentzat tokirik, burgesiak, bestealde materiaren iraunkortasunik ezean sinesten zuen, poetek izpirituaren ezilkortasuna bilatzen zuten artean.

Arrazoi bilduma ederra da, burgesiaren aurka agertzeko, eta hiririk ez maitatzeko.

Idealismoaren aurkakoa delako, materiaren aldekoa delako, burgesiaren aurka agertuko dira poetak, eta era berean, burgesiak sortu duenaren aurka: hiriaren aurka. Izadian nahi zuten guztia aurki lezateke: iraunkortasuna, garbitasuna, Jainkoaren irudia.

Baina giro honetan, hiriaren aurkako joerak, eta iraunkortasun nahiak izaditik kanpo beste bide bat aurkituko du: erotismoarena. Burgesiak, eta burgesiaren estetika naturalistak agertzen zuen



andreamen irudiari emakumearen irudi izpirituala kontrajarri behar zitzaion: “Al Eros que rebaja debía oponerse triunfante el que eleva a la esfera de los sublimes” (Hinterhauser, 1980, 119).

Giro honetan birbaloratzen da Ama Birjinaren irudia, eta, beste kontestu normalago batean, emakume prerrafaelisten irudia. Zeren modernistentzat erotismoa, “zadorra” bizitzaren misterioa ulertzeko bidea zen. Giro honetan ulertu beharko genituzke Lauaxetaren emakume irudiak eta Lizardiren “Urdinez jantzitako neskata”. Haren “neskutzak” (birjinak) eta honen “neskatzak” erotismoa izpiritualizatzeko ahaleginak Europa osoan ezagutzen zirenak— baino ez bait dira.

3. Txikitasunaren poesia

Lauaxetaren testuak irakurriz gero, bera modernista ez dela—edo Lizardi modernista ez dela, ia berdina bait da— ziurtatzen duten esaldiekin egingo dugu topo. Badirudi honek gure hipotesi nagusia deuseztatzen duela.

Baina Lauaxetari ere, beste guztioi bezala, ulertu behar zaio zer dioen. Modernista ez dela baieztatzen duenean, zera esaten ari da: bera ez dela Darío zalea, modernismoaren *exotismoa* ukatzen duela, eta berak—Lizardi bezala—, modernismoak eskatzen dituen sinboloak norberaren herrian—Euskal Herrian— aurkitzen dituela. Herrixkaren poesia deitu izan zena egiten ari dela, zuzenago esateko.


Norberaren herrian, norberaren ondoan aurki ditzakegun objetuez beteriko poesia egiten ari dela, zuzenago. Horregatik, behin eta berriro errepikatzen du Lizardiren poemetan agertzen den paisaia hemengoa dela, hurbila, gure errealitateari atxikia.

Baina herrixkarekin egiten den poesia horrek modernismoaren formak hartzen ditu. Eta zentzu honetan modernismoaren —edo postsinbolismoaren— jarraitzaile dira bai Lizardi eta bai Lauaxeta, kontrakoa diotela iruditu arren.


Hurbiltasunaren balorazio honek beste ertz bat bilatzen du objektu txikien balorazioan. Lauaxetaren

olerkigintza, Juan Ramón-ena izan zen bezala, objektu txikiz beterik dago. Joera honetan txikitasunaren mistika ikusten bada ere, bada burgesiaren egindako industrializazioaren aurkako joera bat. Industriarentzat objektuak seriez egiten dira, denak berdinak, eta denak aura bakoak; horixe da objektu industrialia.

Honen aurka ekiteko, objektu “txiki, politen” berbalorazioa egiten da. Eskuz landurikako “arima” bait daukate. Eta Juan Ramón-ek eta Lauaxetak honetan maisu berdinak izan zituzten: Francis Jammes eta Samain.



PATRI URKIZU



Antonio Maria Labaien eta Euskal Antzertia

Antonio Maria Labaienek¹ *Teatro Euskaro, Notas para una historia del arte dramático vasco* (T.I), eta *Teatro Euskaro, Entrevistas, Reseñas, Crónica, Catálogo de obras dramáticas* (T.II)² liburu bikoitz eta mugarrira argitaratu zuenez geroztik hogeitabost urte bete direlarik aurtan, saio gogoangarri honen zilar eztaiak ospatzen ditugu. Beraz, ba ote egokiera ederragorik, egun apalki bada ere, eskain diezaigon egileari, Tolosako seme jakintsuari, hainbat lanen ondoren hain ongi merezitako omenaldia?

Idazle³ zintzo eta nekaezinaren izkribuek tesi batentzat baino gehiagorentzat ematen dute gaia eta aukera, baina eman diguten luzelaburraren ondorioz estu eta motz gelditu beharko. Bere euskal idazlanak izango ditugu soilik aurkeztu, eta hauetatik ez denak, antzertiari eskainitakoak bakarrik. Beste lanez jakin-gura denak jo beza ezinbesteko eta behar-beharrezko gertatu zaizkigun Jon Bilbaoren Bibliografietara.

*Domenjon de Andia-ren*⁴ sarrera eskaintzan egileak esaten digunez, Orkaiztegi'tar Patrizio Antoniok⁵ bataiatu eta euskalzaletu zuen. Jakina da, mende bukaeraldean sortu zitzaigula Antonio Maria Labaien, 1898.ean hain zuzen, Ander Arzelusen jaioturte berean, Manu Sota baino urte bat beranduago, Nemesio Etxaniz baino urte bat lehenago, eta Zarautzen jaio baina Tolosan hil zen Lizardi baino bi urte geroago. Bostak antzertizale amorratuak, hitzaz eta edertiaz maiteminduak, garaiko beste euskaldun anitz bezalaxe.

Bere bataiatzaileak ere ez zion muzin egiten antzertiari eta politika-matematikek uzten zioten txolarteetan aurkitu zuen betarik antzerkiak idazteko, hala nola: *Txardin berriak* (1899), *Sardin Saltzailea eta Euskal Dantzak* (1921).

Antza denez Tolosako eskolapioetan lehen ikasketak emanez teatrozaletu zitzaigula. Bestalde, bazuen Tolosan bertan teatro aitzindaririk. Bat, Ramos Azkarate Otegi⁶, zapatagina, Ihautegi guztietako burruntzalia, eta gaur egun abesten diren kantez aparte bi antzerkiren egilea: *Ijituen kontratuba eta ezkontza* (1885), eta *Beotibar'ko jatzarraren oroipena* (1886). Bestea, Baleriano Mokoroa, *Ibaizabal* aldizkarian 1902. urtean zatika *Aitortu egin bear edo guraso baten estuasunak*⁷ plazaratu zuena. Komeriak, eta kondaira dramakizunak. Bi antzerki mota nagusienetakoak, bai garai hartako antzerkigintzan, eta bai Labaienenean.

XIX. mendearen azken laurdenean Marzelino Soroak, Serafin Barojak, Biktoriano Iraolak eta Toribio Alzagak besteen artean ipini zuten martxan Teatro Berria. Tespis-en gurdi zaharra eraberrituz Donostian, eta hau gero eta arinago, gero eta biziago, gero eta oparoago zabaltzen joan zen probintzia osoan ez ezik, Bizkaia aldean eta Euskal Herri osoan, eta, nola ez, Tolosara iritsirik eta bertan txertaturik, eman zuen fruitu eder eta ikusgarriak.

Parisen eta Donostian 1907. urtean Julio de Urquijok bere *Revista Internacional de Estudios Vascos*, atzerriko eta barrengo ikerketak bildu nahiz sortzen zuen urte berean, Tolosan ere, apalago

noski, erabakitzen dute *Euskal Esnalea* aldizkaritxoia euskaraz argitaratzea, eta honen ondorio izango da 1911. urtean *Euskalerrriaren Alde*, Gregorio Mujikaren zuzendaritzapean sortzen den aldizkaria.

*Berrizalek*⁸, Serapioren seme zintzoaren lemapean abiatuko da Aldizkariaren ontzia eta bere orrialdeen itsasoan antzerkiari portutxoko zabalik eskainiko dio. Garaiko Antzerki eragile, bultzatzaile eta sortzaile handienetako beraxe izango dugu, antzerki komentarioak eginez, komeriak idatziz eta Antzerki sail berezia, *Izarra* sortuz. Hemen, hogeitahiru antzerkitxo plazaratu zituen, Zabala, Amundarain, Larrea, Iruetagoiena, Rekondo, Telleria, Alzaga eta beste zenbait antzerkigileren xeblekeria eta umore biziz ondatutakoak, irakurlegoaren atsegina eta irrieragingarri. Dudarik gabe ondo irakurriak zituen Labaienek bai horiek, bai erdarazko komeriak lehen antzerkia idatzi eta saria irabazi zuenerako, alegia, 1920. urtean antolatutako nor-lehenkan *Txinparta Buruzagi edo Irugarren karlatar-gudate*⁹ deitu zuena, eta 1921. urtean *Kaiku, Asteroko Ingi Abertzale ta irritsu*an ageri zena.

Euskal Esnalea-n¹⁰ eman zigan Labaienek Antzertiari buruzko bere lehen saioa, *Euskal Antzerti' tzaz* izenburuarekin eta bertan jada beti izan ohi den ikerle jantzi, jakintsu eta ongi landuaren lana nabarmentzen zen, etorkizunaren aurrean itxaropentsu somatzen zitzaizolarik, azken partean haxe baitzioen: *Antzerti' ak diraun artean erria bizirik dago*.

Labaienek berak azken lanetako batean aitortzen digunez¹¹, 1920-1930 hamar urteko bitarte hortan indartu eta zabaldu zen gehien, behinere iritsi ez zen lekuetara helduz, adibidez, Donostian Gran Casino, Teatro Victoria Eugenia eta Gran Kursaal-en euskal ahotsa entzun zen eta euskal antzertiak lehen aldiz antzoki eder horietan entzuteko aukera eta parada izan zuen.

1931. urtean, uztailaren 22an hil zen Gregorio Mujika, eta berekin eramanez hogen urte luzez biziarazi zuen *Euskalerrriaren Alde*, euskal antzertiaren oihartzun ongarrira. Baina utzi zuen

lekukorik, esan baitezakegu erreleboa Labaienek hartu zuela. Honek, dagoeneko idatzirik zituen zenbait antzerki eta Donostiako *Novedades* antzokian 1931. abenduraren hogeita-batean irakurria zuen hitzaldi eder bat, *Euskal Antzertia' ren Edestirako Apur Batzuek*¹², Euskal teatroaren lehen historiatzat jo dezakeguna. Honekin ase ez zelarik, gerra piztu arteraino iraun zuen *Antzerti* hileroko aldizkaria sortu zuen 1932. urtean, asmo hauek agertzen zituela aurkezpenean:

Gaur lenengoz, irakurle maitea, Antzerti azaltzen zaigu. Antzerti bai, au da: Euskal-Antzertiaren aldizkingia. Txiki ta apal datorkizula egia da; baita ere ordea, asmo aundi ta uste onez ornitua. Guziak, euskera ta gure Erria, antzertiaren bidez, suspertzearren.

Asmo oiek bete al izango ditugun ala ez gure adiskiden eskuetan dago. Ez ba' diguzute laguntzarik ukatzen ez degu utsegingo ta gero ta geiago gaur sortu dan aldizkintxo auxe sendotzen ta edertzen aleginduko gera.

Bete zuen, bai, alajaina! Eta nola gainera! Gerraurreko antzerti aldizkari honetan era guztietako antzertiari buruzko albiste eta berriak agertuko zaizkigu. Errusian, Flandesen, Britaina Handian, Frantzia, Espainian eta Euskal Herrian egiten ari zen antzertiari buruzko notiziak. Hileko gorabeherak, etxeko zurrumurrak, antzetzaldean asmoak, arazoak eta hauenat aholku jakingarriak. Ipar-ekialde eta hego-mendebaldean euskal antzertizaleak antolatzen ari zirena. Irrati bidez ere, nola euskal antzerkiak hedatzen ziren Beorlegi eta Egilegorren ahotsen medioz asteazken gauean zortziterdietatik bederatzia bitartean, etabar, etabar...

Baina ez zen albistelegu edo teoria soileko aldizkaria, bertan lau urte t'erdiren buruan, 54 aletan hain zuzen, 46 antzerki irakur baitzakegu. Horietatik zenbait gaztelaniatik, frantsesetik, alemanetik edo grekeratik itzuliak. Alzaga, Lizardi, Nazabal, Orkaiztegi, Arostegi, Lopez Mendizabal, Lafitte, Amonarriz, Markiegi, Zaitegi, Arotzena, Karraskedo, Urkia, Arzelus, Zubimendi, Tene

Mujika, Barriola, Lekuona anaiak, Gorostidi, Erkiaga, Leunda eta Labaienen luma zorrotz eta izpirituz ornituetatik jalgitako antzerkiak.

Errepublika garaiko Antzerti Kronika egin nahi duenari ezinbestekoa izango zaio aurrerantzean *Antzertigana* jotzea.

Pizkunde hark, tamalez, etenaldia ezagutu zuen anaien arteko gerrarekin, eta beste hainbestek bezala Labaienek, Tolosako alkate abertzale zenak, erbesteko bidea hartu beharrean suertatu zen, baina han anai euskaldunen babes eta laguntza topatu zuen Sarako herrixkan. Honelaxe dio *Muga*¹³ antzerkiaren aintzin-solasean:

Mme Dutournier'i

Egun batez Mugatik igesi nentorrela ezagutu nuen Seroraenea'ko Etchekandre bihotz zabalari, gaur esker on eta adiskidetasunez opa diot ene baitako "puska" chume hau,

Ez ahal dute mugazainek atzemainen.

Nere baitarako ere, ez zuela luma kamusten utzi gerra garaian, A.M.L. letrekin estaltzen den antzerki itzultzailea beraxe baita, alegia, *Gachucha*¹⁴, *Gure Herriak* 1938. urtean argiratzen hasi zenaren egilea.

Zortzi urte luze desterruan iragan ondoren itzultitakoan, berriro Tolosan, hasi zitzaigun baratxe-baratxe teatro berriak emanez. Hasiera batean gaztelaniaz, noski, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*¹⁵ delakoan, eta geroxeago, Egan-en 1953. urteaz geroztik, eta Xabier Lizardiren *Ezkundu ezin ziteken mutilla-ren Itzaurrea*¹⁶ emandakoan, euskaraz.

Poliki-poliki, baina etengabe, urte haietako kronista dugu Labaien, eta gogoeta-komentarioak bilduz iritsiko zaigu, hasieran aipatu dugun lan mugarri eta nagusia den *Teatro Euskaro* bi liburukitan, 1965. urtean burutu eta eskaintzera. Han-hemenka sakabanaturik zituen ideiak, oharrak, azterketak, elkarrizketak, liburu zerrendak, eta aldizkari artikuluak bildu zituen. Halaber Antzerti Poetika bat ere eraiki zigun. Egungo antzezlariek irakurriko balute! Dena den, barreiaturik euskarazko

artikuluetan utzi zizkigun zenbait perla ekarriko ditugu honaxe:

—(Arestiri “pormalidade” pixkat gehiago eta hiperbole gutxiago eskatutakoan)... *beraz, gure Barrutia' k, nere ustez, ez zuan gauza berri aundirik sortu baizik erdal literaturan eta antziñatik prantsez “moralités” eta antzerko liturji-teatorik zetorrenaz baliatu*¹⁷.

—*Gure txikian aiek bezin aundi izan gaitzke ondo ikusten gure inguruko gizadiaren sakona; eta itzez eta egitez neurritz tajutzen badakigu: Irria luze, nigarra labur*¹⁸.

—*Teatro' ren egitez, bizitzaren ispillu ta antz-bide bait-da, euskaltasuna ere in daiteke eta oraingo lur elkorra ongarritu gerora gure erriaren onerako zitu mardulak ekarri ditzan*¹⁹.

—*Nik uste antzerki laburrak dirala egokienak umeak ikasi eta ikus ditzaten. Ordu laurden bat baño geiago luzatuko ez direnak*²⁰.

—*Teatroa berriku bear omen! Ondo dago asmoa, bañan Katua zinkezko tellatu gañean ta antzeko berrikeri ezerezak egitekoan obe da Klasikotan gelditu*²¹.

—*Bego Japon bere Kabuti delakoarekin. Elkarrengandik beti zerikasida degu, ori bai, baiñan ni ez nazute besteen gauzak oso-osorik euskeratzeko zale. Geienaz gaiak artu ditezke gero berriz gure erara egosteko*²².

—*Eta oraingo teatrozale berriok Troyar emakumeak ikasten lehertu dira. Ene iritzian bide honetatik euskal teatroak indar gutxi burutuko du eta erakar ahalmen eskasa Aristofanes bere Lysistrata eta nabarmenkeriaz josia etorriagatik. Hortxe nonbait Plauto eta gainerako kaikukeria eta lapikokeriez alaitzera ba letorkigu ere*²³.

Helburu eta ideia ardatz nagusi hauekin, bere kabuz sortuaz, beste hizkuntzetatik moldatuaz eta zuzenki itzuliaz Bibliografian aitatzen ditugun hogeitamaika antzerki idatzi edo argitaratu zituen bederen²⁴.


Interesgarri deritzogu alemaneratik haurrentzat ondu zuen antzerkitxoaz zioena errepikatzeari: *Onelako bat “Don Bosco Verlang” (Munich 1966)*

*liburutik artuta euskeratu ta nere gisara antolatu dut: Perretxiko-Jatea izenez bataiatu rik. Bateonbateg sukalde-teatroztat jo lezake. (Brecht'en kulinari sch, alegia). Eta zer? Gauza txarra alda sukaldea?*²⁵

Labaien gure teatro murrizta aberastearren frantses itzulpenekin²⁶ hasi zitzaigun gerraurrean, baina 60. hamarte erditsutan eutsiko dio berriz itzulpenari, antzetzalde berrien (Jarrai...) joera ikusirik. Hala Europan zehar diren antzerti gizon hoberentsuenen obrak opariko dizkigu. Adibidez: Brecht-en²⁷ *Bai esalea, ez esalea* (1963); Dürremant-en²⁸ *Gizona eta kidea* (1963); Ionesco-ren²⁹ *Neskatila ezkongai* (1964); Frisch-en³⁰ *Su emailleak* (1966); Plauto-ren³¹ *Lapikoa* (1969); ...eta azkenez, Antzertiren bigarren aroan Castelao-ren³² *Agureok maitemindu bear ez* (1984).

Kontaezinak dira hemen Labaienen merituak euskal antzertiarekiko, eta, beraz,, ez natzaizuelarik gai sentitzen bere hainbat eta hainbat obra eder hemen hoberenesteko, bera oso ongi ezagutu duten lau idazle ezin hobeen iritzia ekarriko dugu hona, alegia, Lizardik, Mitxelenak, Lafittek, eta Barriolak ziotena. Neri ez dagokit bi eskaera aurkeztea baizik. Bata, Labaien beraren gehiegizko apaltasunak eraginikako iritzia aurrera bere Antzerti Osoa, benetan osoa, zor zaizkion ikerketa eta ohar ornigarri guztiekin argitaratua izan dadila. Bestea, antzetzaldeek joka dezatela lehen-bai-lehen goza dezagun haren antzerkiei darian negar labur eta irri luze paragabeez, edota bestela bere azken obra, Muñagorriren, trajeriaz, gogoeta sakonik egin baitezakegu guztiok Joakinaren mindurak sorrazitako hitz lazgarri haietan pentsatuz:

—*“Betelu”, deabru guztien ikullu! I ere noizpait erailko aute.*



Lau iritzi Antonio Maria Labaienen Antzertiaz

Esku antzetsuz tajututako lana da. Egintzean banaketa txit egoki: badute zeñek-bere nortasuna, gaiez, garaiez ta notifiz ez ere. Ikaslearen gogoa tenka dagoke, aspertzeka.

Elkar-izketa, jario errezekoa ta ateraldi gazi ugariez maniatua. Irria noiz-nai datortza ezpañetara, ustegabea.

Ene adiskide onek badu zinez (ongi ezagutzen baitet) urkoa ta urkoarena begi jostalariz ikusketo aalmena. Eusko-aldarte jatorrekoa da. Sagardo bikañak ere bear izaten ditu alako bunbulo bakan "ttipitto" batzu, beetik gora ta ontzi garbiari itsatsiak.

Bizitzearen gozoa, munduaren alaia, ongi sumatzen ta ematen daki gure gizonak. Barka dezaidala, baña, ikusi batean, zalantza naiz ez aldigun euskal-egun irrikoitxogia eman...

AGIRRE, J.M. "Lizardi'tar Xabier", "Atari-Jarduna", *Euskal-Eguna*, Tolosa, López Mendizabal, 1931, 4.

Labayen jauna eraberritzeko gogoz euskal teatroan agertu zenez gero —eta aspalditxo agertu zen, hemen bere lanen berri laburrean ikus daitekeenez—, ez du hutsik utzi aurreneko hartan hartu zuen leku jaso. Patxadan, itobeharrezko presarik gabe, aurrera darama hasieran hartu zuen asmoa, gero eta trebeago, gero eta maixuago. Ez die berritasunei ez berrikeriei muzin egiten, baina ez du uste haize berriei atea zabal-zabalik irekitzeaz gehiegizko irabazirik izango genukeenik. Leialki dabilkio ondotik atzoko teatroari, atzokoa ez ezik, gaurkoa eta betikoa ere delakoan. Ez dabil oker, noski.

MITXELENA, K., "Antonio Maria Labayen, Malentxo alargun! Komeria iru ekitalditan", *Egan*, 1962, 4-6, 303.

Antonio Maria Labayen da teatro-gaietan Euskal-Herriko gizonik adituena. Ez du bakarrik izkiriatu hainitz obra, molde guzietakoak, baina beti danik ari izana da teatro-larien berotzen eta akulatzen. Bertzalde, ez nahiz bere xokoan mutxitu, urrungo airea ere hartu du arrotz herrietako teatroaren herri bilatuz...

Orai dugun aitor teatroari buruz ez daudela teatrolari guzi-guziak Labayen jaunarekin adox, xehetasun guzietan. Batzuek hetxiagi aurkitzen badute, zeren den lege zaharren frango atxikia eta bereziki errespetuari, askok ez ote dute zabalegi kausituko, zeren lirikari edo dantzari leku emaiten baitiote komedian?

LAFFITE P., "Teatro euskaro", *Herria*, 1965, 17-24, VI.

Orduko egileen artean eta antzerki-gaietan idazle bezala, Andoni Labaienek denon aurrea hartu zuen, idatziz, hitzaldiz eta ekintzaz.

Honi zor zaio sortu, lau urtetan argitaratu eta bere gain hartu zuen *Antzerti* aldizkaria, antzerkiak zabaldu, berriak eman eta eritziak agertzeko egina, eta bere egitekoa hain ondo bete zuena. Bestalde, *Teatro Euskaroren* bi liburukietan jaso zituen gure antzerkiaren kondaira, gorabeherak, berriak eta hainbat idazlan berezi. Lehenengo antzerki *Txinparta* buruzagi, 1920an sariturik hasi eta, oker ez banago, *Pestaburu* arte, 30 bat gehiago idatziak ditu; bereak gehienak, euskaratuak bestak. Andoniren alde esan daitekeen guztia beti gutxi dateke, euskal antzerkiaren alde egin dituen lanak behar bezala aipatzeko.

BARRIOLA I., "Gerraurreko Teatroa", *Euskal Antzerkia* (1876-1985), *Jakin* 37, Donostia, 1985, 40.

OHARRAK

1. Antonio Maria Labaien Toledo, Tolosan jaioa 1898. urteko urtarrilaren 12an.
2. Bibliografian (aurrerantzean B), 23 eta 24.
3. Idazle bezala bere izenaz aparte erabili zituen zenbait ezizenen artean hauek aurki daitezke: Aspaldiko, L. Ayanbe, Ibalan, Ibargi, Fernando Etxekorena, Matxingorri...
4. B 52.
5. Patrizio Antonio Orkaiztegi (1840-1924), Santa Kruz apaizaren aholkuemailea, euskal idazle bezala *Euskalzale*, *Ibaizabal*, *Euskal Esnalea* (bertako lehendakari-orde izan zen) eta *Gipuzkoarra* aldizkarietan idazten zuen.
6. Ramos Azkarate Otegi (1847-1904). Ikus A. Zavalak ateraberrri duen liburua honen obraz: Auspoa, 197, Etor, Donostia, 1988.
7. Baleriano Mokoroa (1871-1941), *Ibaizabal*, 9. zenbakia, 1902.
8. Gregorio Mujika (1882-1931), *Jeme*, *Berrizale*, *Zarzale*, *Deñoka' tar Goserio...* ezizenez.
9. B 31.
10. B 1.
11. B 30.
12. B 4.
13. B 42..
14. B 41.
15. B 9, 10, 11.
16. B 12.
17. B 21.
18. B 17.
19. B 15.
20. B 27.
21. B 19.
22. B 17.
23. B 30.
24. Neronek sortuak eta erdal izkuntzetatik itzuliaz 40/50 antzerki-lanak bururatuak ditut naiz batzuek ez egundano argitaratuak izan (B 60).
25. B 27.
26. B 37, 38.
27. Bertolt Brecht (1898-1956), alemaniar antzerki gizona, teatro epikoaren sortzailea eta *Berliner Ensemble*-ren zuzendaria, XX. mendeko antzerki gizonik handienetakoa. Daniel Landartek Pierre Lafitteren laguntzaz itzulirik du *Amaren armak* (Egan, 1984, 1-2, 143-173).
28. Friedrich Dürrematt (1921), Brecht eta Alemaniako espresionismoaren eskolakoak. Bere burua Aristofanesen

jarraitzaile-tzat jotzen du. Bere lan anitzen artean aipagarriak dira *Die Physiker* (1962), eta Frank V, eresantzerkia, banka pribatu baten opera, Brecht-en *Dreigrsochenoper*-en ildotik.

29. Eugène Ionesco (1912), Dada eta surrealismoaren ondoren Absurdoaren Antzerkia sortu zutenetarik bat hau da, Samuel Beckett eta Fernando Arrabalaren eskolakoak. Gizonen arteko komunikazio ezintasunaz eta gizonaren desegiteaz mintzatzen zaigu.

30. Max Frisch (1911), Piscator-en eskolakoak eta nazioartearen antzerki baliorik tinkoenetakoa. Bere antzekien artean ezagunenak: *Die chinesische Mauer* (1946) eta *Andorra* (1961).

31. Plauto (254-184 K.a.), Komedia Berriaren moldatzailea latinez. Komediagilerik indartsuenetakoa, lizunkerietara irristatzea gogoko duena, eta Errenazimendutik egundaino antzerki-gilerik moldaberrituena.

32. Alfonso Castelao (1886-1950), Buenos Airesen 1941. urtean jokatu zuten estrainaldiz bere fartsa, esperpentoaz eta Galiziako herri teatroaz eraikitako antzerki espresionista.

BIBLIOGRAFIA

1. Antonio Maria Labaienen liburu eta artikulua Antzerkiari buruz

1. "Euskal-Antzerki'tzaz, *Euskal Esnalea*, 1923, XIII, 101-104, 121-123.
2. "Itzaurrea", Toribio Alzaga, *Bost urtian*. Tolosa, Euskaltzaleak, 1929.
3. "Gregorio de Mújica, propulsor del teatro vasco", *Euskalerrriaren Alde*, 1931, XXI, 303-307.
4. *Euskal antzerkia' ren edestirako apur batzuek*. Tolosa, López Mendizabal, 1933, 18 or.
5. "Zumalacárregui" o la "Muerte del Héroe". Drama alemán en cinco actos, por Friedrich Seybold. *Yakintza*, 1933, I, 29-37.
6. "Euskal antzerki' runtza. Gure teatro errikoia nolako", *Yakintza*, 1935, III, 243-256.
7. "Teatro bretón", *Yakintza*, 1936, IV, 99-104.
8. *Antzerki, euskal antzerkiaren ilerokoa*. 153-54. Tolosa, López Mendizabal, 1932-1936. (Zuzendari eta bertako artikulua gehienengileak).
- "Azkie teatrolari. Lekeitio, 1936 (galdua).
9. "Embajada artística. Duguna". *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1951, VII, 461-463.

10. "Reposición de Amaya (de Guridi)", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1951, 604-606.

11. "Temporada invernal 1952-53 de teatro lírico (vasco)", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1953, IX, 131-135.

12. "Itz-aurrea", Lizardi'tar Xabier, *Ezkondu ezin ziteken mutila*. Egan, 1953, 1-4, 25-27.

13. "Euskal-teatro dala-ta". Egan, 1956, I, 32-33.

14. "Oleskari zarra (ópera de J.M. de Olaizola)". *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1956, XII, 98-99.

15. "Gure teatroaren inguruan", Egan, 1957, X, 358-360.

16. "Euskal-teatroa", Egan, 1958, XI, 229-231.

17. "Gure teatroa ta beste", Egan, 1959, XII, 159-161.

18. "Etxaniz, N., *Euskal-Antzerkiak*", Egan, 1959, XII, 95-99.

19. "Erri-teatroa", Egan, 1960, XIII, 73-75.

20. "1960'ko teatro-sariak" Egan, 1960, XIII, 207-209.

21. "Pedro Barrutia Mondragoiko Eskribauaren Gabonetako Ikuskizuna (Acto para la Nochebuena)", Egan, 1961, 4-6, 249-252.

22. "Atzoko ta gaurko teatroaz esamesak", Egan, 1962, XX, 172-179.

23. *Teatro éuskaro. Notas para una historia del arte dramático vasco. Tomo I*. San Sebastián, Auñamendi, 1965, 151 or.

24. *Teatro euskaro. Entrevistas, reseñas, crónica, Catálogo de obras dramáticas. Tomo II*. San Sebastián, Auñamendi, 1965, 180 or.

25. "Zigor", Egan, 1965, XXIV, 150-152.

26. "Aspaldiko teatro-zale bat oraingo teatroaren aurrean", Egan, 1966, XXV, 3-19.

27. "Aur-teatroa edo antzerkiak umeentzat", Egan, 1967, XXVI, 177-179.

28. "El misterio de San Gillén y Santa Felicia en Obanos". *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1971, XXVII, 380-385.

29. *Teatrogintza eta yakintza*. Zarautz, Itxaropena, 1973, 144 or.

30. "Euskal Teatrogintza", *Revista Internacional de Estudios Vascos*, XXIX-2, 1984, 247-260.

II. Antonio Maria Labaien Antzerkiak

31. *Txinparta Buruzagi edo Irugarren karlatar-gudatea*. 1920. urteko indarneurteetan saritua, *Kaiku, Abertzale ta irrirtsua*. Donostia, 1921-1922, I, 13-14; II, 9-10; III, 13-15;; VI, 9-15; (60. zkia, 35-55).

32. *Ostegun-Gizena*. Tolosa, Navarro, Del Teso y Cía., 1930, 16 or.

33. *Euskal-Eguna. Iru ekitalditan antzerkia*. Tolosa. López Mendizabal, 1931, 62 or.

34. *Maya (apunte escénico) (Ballet)*. *Andre Maya Erregiña*. Tolosa, López Mendizabal, 1932, 4 or. (Antzerki, 2-3).

35. *Mateo Txistu*. Tolosa, López Mendizabal, 1932, 26 or. (Antzerki, 4).

36. *Iparragirre. Bi ekitalde ta azken-zati bat dun antzerki lana*. Tolosa, Lopez Mendizabal, 1933. (Antzerki, 17-18).

37. *Berezi*. Henriette Charasson'en "Separation" prantzezez idatzitako antzerkitik euskeraz, ekitaldi batean antzerkitxoa. Tolosa, López Mendizabal, 1934. (Antzerki, 31).

38. *Irri-itzaldia. (Eztaietarako). antziñako "Joyeux Sermon de Mariage" batetik euskerara itzulia*. Tolosa, López Mendizabal, 1934. (Antzerki, 31).

39. *Gizon Bizarpeituti eta Emazte Bizartsuti...*, Tolosa, López Mendizabal, 1935. (Antzerki, 43).

40. *Iruñxeme. Iru ekitaldiko antzerki*. Tolosa, López Mendizabal, 1936. (Antzerki, 53-54).

41. "*Gachucha, "Bécassine" de Leone Calvez et Henri Caoussin, adaptée à la scène basque*". *Gure Herria*, Bayonne, 1938, 106-113.

42. "*Muga. Irri-antzerkia ekitaldi bitan*", *Euzko Jakintza*, 1951, V, 293-308, 1952; VI, 194-206.

43. "Lurrikara. Lau ekitalditan", *Euzko Gogoa*, 1955, VI, 115-138.

44. "Jostuna. Bi ekitalditan antzerkia neskatxa bakarrentzat", *Euzko Gogoa*, 1956, (Iraila-Urrila), VII, 20-40; (Azila-Gabonila), VII, 20-27; (Ibeltza-Otsaila), VII, 12-28.

45. "*Petrikillo (irri antzerkitxoa)*", Egan, 1956, 3-4, 112-127.

46. *Jokua ez da errenta. Komeria iru ekitalditan*. Zarautz, Itxaropena, 1960, 159 or.

47. "Galtzaundi", Egan, 1961, 4-6, 290-306.

48. *Malentxo, alargun! Komeria iru ekitalditan*. Zarautz, Itxaropena, 1962, 128 or.

49. "Baiesalea, Ezesalea", Bertolt Brecht-en itzulpena. *Oleriti*, 1963.

50. "Gizona ta kidea", Friedrich Dürremantt-en itzulpena. *Egan*, 1963, 1-3, 154-179.

51. "Neskatilla ezkongai", Eugène Ionesco-ren itzulpena. *Egan*, 1964, 1-6, 123-128.

52. *Domenjon de Andia, Gipuzkoa'ko erregia. Kondaira-dramakizuna. Iru ekitaldi (Lau gerta-leku ta azken zati batean)*. Zarautz, Ixaropena, 1975, 124 or.

53. "Su ta gar", prantsesetik antolatua. Irri antzerkitxo bi ataletan. *Egan*, 1966, 1-6, 155-164.

54. "Su emailleak". Max Frisch-en itzulpena. *Egan*, 1966, 1-6, 165-215.

55. "Perretxiko-jatea", Irri-komeritxo alemanetik antolatua, *Egan*, 1967, 1-6, 180-189.

56. "Pestaburu (Erriko jaiak). Escenificación a modo de ballet del Canto II de *Euskaldunak*. Orixe'ren *Euskaldunak* poema'tik antolatutako antzerki-jolasa". *La Gran Enciclopedia Vasca*, 1967, II, 593-598.

57. *Lapikoa*. Plautoren itzulpena. *Oleriti*, 1969.

58. *California... Ku-Ku! Drama iru ekitalditan*. Zarautz, Ixaropena, 1969, 176 or.

59. "Agar'enseme... Ismael", *Teatrogintza eta Yakintza*. Zarautz, Ixaropena, 1973, 13-65.

60. *Teatro osoa euzkeraz (Obras completas de teatro vasco). I-III Tomo*. Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1977. (Ez da osoa).

61. *Muñagorri*. Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1978.

62. *Agureok maitemindu bear ez*. Alfonso Castelaoren itzulpena, *Antzeriti*, 70, Donostia, 1984.

III. Antonio Maria Labaienen antzerkiari buruzko idazlanak

1. Agirre, J.M. "Lizardi'tar Xabier", "Atari-Jarduna", *Euskal-Eguna*, Tolosa, López Mendizabal, 1931, 3-5.

2. Anasagasti, P., "Teatro vasco. (Entrevista con Antonio M. de Labayen)". *Aránzazu*, 1967, XLVI, 232-237.

3. Antza M., Landa, J., "Antonio Maria Labayen, Euskal Antzerkiaren giltzarri", *Argia*, 994. zkia, 27-XI-1983, 34-37.

4. Arocena, F., "Domenjon de Andia"-ren komentario, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1966, XXII, 515-516.

5. Arteche, J., "Malentxo, alargun!"-en komentarioa, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1963, XIX, 110.

6. Garriga, G., "Petrikillo"-ren komentarioa, *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, Buenos Aires, 1957, VIII, 86.

7. Ibiñagabeitia, A., "Muga"-ren komentarioa, *Euzko Gogoa*, 1954, V, 161.

8. Izagirre, K., "Os vellos non deben namorarse inda que sexan de Tolosa", *Senez, Itzulpen eta terminologiazko aldizkaria*, 2, 1985, 83-91.

9. Lafitte, P., "Teatro euskaro", *Herria*, 1965, 17-VI-24-VI.

10. Lasa, J., "Itzaurrea", *Teatro osoa euzkeraz. (Obras completas de teatro vasco). Tomo I*, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1977, 9-11.

11. Michelena, L., "Malentxo, alargun!"-en komentarioa, *Egan*, 1952, 4-6, 308-309.

12. Michelena, L., "Teatro euskaro"-ren komentarioa, *Egan*, 1985, 1-6, 125-176.

13. Zeleta, "Jokua ez da errenta", *Aránzazu*, 1962, XLIII, 87-88.

14. Zeleta, "Antonio Maria Labayen", *Aránzazu*, 1963, XLIII, 190-191.

“Errepublika garaia”



Juan Mari Lekuona

Elkarrizketa honetan bakoitzari galdera bat egingo diot. Erantzun dezala bi, hiru minututan eta gero hortik ikusiko dugu zer galdera edo zer su piztu dezakegun gure artean. Hasteko nik lehenengo galdera egingo nioke Paulo Iztuetari. Alegia, berak nola ikusten duen gerra aurreko literatura. Zerorrek ikusi zer metodoz ikusiko duzun edo zer ikuspegitik gauzak eskainiko dizkiguzun.

Paulo Iztueta

Mahaikideen artean ni izango naiz arrotz bakarra ofizioan literaturaz hitzegiten, baina nolabait zilegi bekit zerbait esatea. Hain zuzen ere, goizeko ildo beretik joanez, esango nuke gerrate aurreko literatura ulertzea zail samarra dela, baldin ez bada ezagutzen, maila batean bederen, gerra aurreko euskal gizartea. Euskal gizarte hori, areago diot, euskal zentzu etnikoan, zerbait




berezia da eta zerbait mugatua da. Mende honen hasieratik, Euskal Herria, bereziki Bizkaia eta Gipuzkoa, labe gori bat izan da, mila kontraesanez josia, eta ezkerre etorri da atzeritik, ez da sortu hemen Euskal Herrian bertan, eta horren kontra sortu da nazionalismoa. Beraz, nere ustez tartean egon dira jarrera neoforalistak eta guzti, baina nolabait euskal kultura eta euskal politika eta ekonomia esango nuke kontradizio handiz jositako gizarte batean mamitu direla. Bestalde, ez Espainian, ez eta Euskal Herrian ez dugu ezagutu liberalismoaren tradizioa deitu dutena. Beraz, modernismoa Europan sortu zenean, hitz horrek, esanahi desberdinak zituen Europan eta modu desberdinetan gauzatu zen; batez ere, protestantismoa bideratu den herrialdeetan. Goyaldean Alemanian, Holandan, etab. era batean, eta beste modu batez Frantzian, esaterako. Eta horrekin batera kontatu behar da Espainiako estatuen inguruan eratu den gizarte modu hori nondik jaso duen honek, eta esango nuke ia zuzenean Frantziatik jaso duela. Beraz, baldin gizarte honek ez badu ezagutu eta ez badu bizi izan liberalismoaren esperientzia hori, gerrate aurreko euskal gizartean, nere ustez, nahiko zaila da hitzaren zentzu hertsian modernismoaz hitzegitea. Eta diodanean modernismoa, iraultza burgesak errejimene zaharrarekin hausten duenean sortzen den gizarte berria eta bereziki ideologi mailan ematen den aldaketa errotikoa dut gogoan, eskolastikarekin eta logikarekin, kultura logikoarekin hausten duen mundu hori. Orduan modernismo honek, baditu bere berezitasunak, hain zuzen ere gizonaren naturarekiko harremanetan. Nolabait, bizipen erlijioso (hemen kokatu nahi nuke neri dagokidana, beharbada oraindik Euskal Herria gerrate aurrean bizipen erlijioso hori oso barruan daukalako), ematen dena da, bizipen erlijioso hori modu batean protestante herrialdeetan eta bestetan berriz, sakonean dagoena da jesuiten eskola eta pedagogia, eta hortik etorri den, baita ere, katolizismoa. Beraz, honekin esan nahi dut, nolabait, hemen girotzen den katolizismoa nahiko integrista dela, baita ere euskalduna, kontserbadorea, eta maila horretan, nere ustez, gerrate aurrean oraindik ere nolabaiteko gizarte teokratiko batean gaude. Beraz, pentsatzen dut eta sinistu nahi dut, garai hartako euskaltzaleak eta literatur egile gehienak, nolabait, oraindik modernotasun horren aurrean pauso hori emateko zeudela.

Juan Mari Lekuona

Juan Kruzi, nola berak Lizardi eta herri poesiaz duen tesi doktora, nik galdetuko nioke: nola jotzen du Lizardik herri poesiara? Eta zer aukeratzen du, zer uzten du, zer sentiberatasun du herri poesiari buruz?

Juan Cruz Igarabide

Lizardik herri poesiari ekiten dionean, bere jokabidea da herri poesia horren



sustrai lirikoenetatik abiatuz, material guzti hori berak egin nahi duen goi mailako poesiaren zerbitzuan edo jartzea. Beraz, hor Lizardik herri poesiara abiatzerakoan, alde batetik aukeraketa bat egingo du eta beste alde batetik material horren tratamendu berezi bat. Zer aukeratzen du Lizardik? Konkretuki, aukeratzen ditu, baladak. Gero, baita ere koplak zaharren zantzuak nahiko nabariak dira, eta gero, herri poesian oso hedaturik dauden zenbait prozedura Lizardigan behin eta berriz agertzen dira kontestu kultu batean. Adibide batzu jar ditzakegu, zenbakien erabilera, esate baterako: hiru zatitan banatzea. Zenbakien erabilketa sinbolikoa, bostarena, “horrek bost balio du” eta horrelakoak. Gero, seriazioak. Prozedura sintaktikoak, esate baterako, nola esango nuke, “usoa ederra da airean, ederrago mahaiari”, horrelako prozedura sintaktikoak. Hor aztertzen bada Lizardiren poesia, ia poema gehienetan ikusiko ditugu horrelako elementuak, gehienetan agertzen zaigu bat edo beste. Paralelismoak ere. Ruben Darioren modernismoaren zantzuak badirela, baina herri poesian ere, esate baterako pieza oso ezagun baten egitura paralelistiko osoa, “Bereterretxen Kanthoria”. Esan dezakegu beraz, nahiz goi mailako poesia eta itxura hain zaila eman, barren barrenean material gisa, izugarriko material zabala dagoela herri tradizioetik hartuta. Gero, bigarrena da hori zertarako erabiltzen duen eta esan dugu goi mailako lirika egiteko. Beraz, ez du aukeratuko, adibidez, bertsolaritzan hain erabilia den kontapoesia moduko hori, eta estrofagintza aztertzen badugu ere, bertsolaritzaren sortziko handia eta hori oso gutxi agertzen da. Herrikoitasunari dagokionez ere beste arazo bat badago: materiala hartu, erabili, poesia egin du, eta hori nola itzultzen da publikoagana edo herriagana berriz. Hor badago asmo bat, goi mailako poesia egin nahi, baina baita ere herriagana nolabait txertatu nahi, eta haurren aurrean zenbait ekitaldi bultzatu nahi du. Beraz, badago kezka bat hori zabaltzekoa eta beno, horren inguruan sortuko da Aitzolek egiten duen kritika: minoria batek irakurtzen duela, poesia minoritarioa dela, etab.

Juan Mari Lekuona

Hurrengo galdera Patriri egingo nioke. Teatroaz gauza jakingarriak esan dizkigu. Teatro mugimendua, ordukoa eta oraingoa, gerra aurreko teatroak oraingoarekin zer lotura duen ikusi nahi genuke piska bat. Badagoen lehendabizi, eta bigarren galdera zertan legokeen lotura hori.

Patri Urkizu

Lehen aipatu da hemen jenero batek berriki arrakasta handia izan duena: “Ama Begira Zazu”. Baina, esan dugu teatro gehiena gerra aurrean ere batzokietan egiten zela, herrietan, eta noski EAJren ideien eta programaren barruan. Hori bai. Baina horrek ez du esan nahi Donostian indar gehiena izan duen antzertia



Euzko Iztundearena izan ez denik. Toribio Alzagak, 1913 urtean salatu zuela zertxobait hori esanez, “es hora de que en las obras vascas no se ffe al patriotismo del público el éxito de aquellos, sino que se procure obtenerlo mediante el concurso de cuantos medios ofrece el arte para el mayor esplendor de las representaciones dramáticas.” Beno, gutxi gora behera idea hori da. 1912. urtean Toribio Alzagak eskatzen zuena teatroaren autonomia zen. Orain, gaur egun noski, zer gertatzen da? Garai batean, gerra aurrean hainbeste antzerti egiten zen garaian, helburu nagusi batzuen bidetik egiten zen, euskal literatura numerotan eta zenbakitan hartzen baldin badugu, literatur moeta nagusiena eta ugariena teatroa da. 500 obra baino gehiago badira euskaraz idatziak gerra aurrean. Nobelak, 15, ez dira 18ra iristen, konparazioa hartuta. Gaur zer gertatzen da? Alderantziz, gaurko egunean zein da idaz moeta nagusiena eta ugariena eta oparoena? Eta badirudi gainera hau normalizazioaren seinalea dela, hau da, European zehar gehien erabiltzen den eta gehien idazten den jeneroa narraziogintza dela, eta literatura dela gauza bat entretenitzeko, kontu kontari ibiltzeko eta istorioak kontatzeko. Orduan, teatroak zer helburu du marko honetan, eta gauzak hainbat eta hainbat aldatu direlarik? Betikoa, nik uste dut helburua izan daitekeela jendea dibetiaraztekoa, baina, antzertin agertzen zen hura, euskararena, antzerkiari bere autonomia emanez, ez nuke sekulan ahaztuko. Eta zer egiten den orain, konparatuz garai hartakoarekin? Bide honetatik egiten dira gauzak, eta hor dago esate baterako, abenduan Azpeitiko Topaketak. Eta Hazparnekoak ifarraldean. Santurtzikoak Bizkaian. Dena dela, konparatuta orduko produkzioa eta oraingoa, esan dezakegu argi eta garbi beherakada handia eman dela. Eta seguruena kalitate mailan, batipat libretoen kalitatean ere bai. Horregatik jo dute asko eta askok itzulpenetara.

Juan Mari Lekuona

Eta azkenik Jon Kortazarri bere lanaren aurkezpena egin dezan, Lauaxetaren irakurkeraz. Lauaxetak badu berritasunik? Edo lehenengo galdetuko dizut: asko irakurtzen al zuen? Badirudi gizon irakurria zela.

Jon Kortazar

Lauaxetak asko irakurtzen zuen eta ez bakarrik euskaraz eta erdaraz, alemanez, italieraz, ingelesez, frantsesez, batez ere frantsesez ere bai, katalaneraz ere bai. Zerrenda, dakizuen bezala, oso luzea da eta klasikoak hor dagoz, errenazimendu osoa hor dago. Beno, Goetheren jarraitzaile porrokatu bat zen. Eta gero modernoan artean irakurketa oso zabalak eukazan, Inglaterratik, Alemaniatik, eta hainbat eta hainbat poeta ezagutzen zituen. Kontua ez dut uste hori denik, hau da, zerrenda egitea, baizik eta zerrenda horren erabilera.



Jesuitetan ikasia zenez, berak tradizio erretoriko bat oso ondo errotua zeukan. Zuek dakizuen bezala poesia egiteko baziren repertorio batzuk, baziren izenak, izenondokoak, emanak, eta poemak egiten ziren puzzleak egingo balira bezala, repertorio horren bidez. Beno, Lauaxetak bere irakurketak, egia esan, horrela erabiltzen ditu, repertorio bezala, eta Lauaxetaren lanean aurkitzen dira hainbat eta hainbat idazleen esaldiak euskeratuak eta itzuliak. Cocteau-ren ipuin bat dago, gertatzen dena da, beharbada, Cocteau harritu egingo zela poema hori irakurrita, Cocteau-ren, Rimbaud-en. Baudelaire-ren hainbat esaldi, Garcia Lorca zer esanik ez, Alberti, Valery, hainbat eta hainbat idazlerenak. Uste dut, guzti hori bere poesiaren ikuskeran integratu zuela, eta poesiaren ikuskera horrek zerikusi handia daukala heriotzaren aurreko larridurarekin, eternitate nahi batekin. Ziurasko, baita ere, eta ez nuke diskusioa berriro piztu nahi, baina bai gogoratu nahi nuke Espainian jesuitekin batera XIX eta XX. mendean egon zela baita ere Institución Libre de Enseñanza eliteak sortzen, eta Lauaxetaren kasuan, nik uste, elite izan nahi duen pertsona baten aurrean gaudela. Horregatik esaten nuen zerrenda bera ere interesgarria dela, zeren, berak repertorio bezala erabiltzen dituen poeten zerrenda hori ez da jesuitetan ikasitakoa. Horrek erakusten du Lauaxetak beharbada hasierak ez zituela ahaztuak baina bazuela projektu bat eta Kraussismoarekin lotuta zegoela “Residencia de Estudiantes”eko jendearekin.

Juan Mari Lekuona

Galdera bat gelditu zait neri Joni egiteko. Orijinaltasunari buruz beti esan izan da, nik ez dakit egia den, ez da nere gaia baina, Lizardiren iturriak ez direla garbi agerian gelditzen eta Lauaxetarenak eginez, zuretzat orijinaltasunaren aldetik, horrek ematen al dio puntu bat gehiago Lizardiri edo bata bezain orijinala al da bestea?

Jon Kortazar

Ez, nik uste dut planteamendu desberdinak direla: Lizardik barrurantz pentsatzen zuen bere poesia, hizkuntzarekiko erreflexio handia izan zuen, eta Lauaxetak berriz kanporantz pentsatu zuen. Uste dut Lizardiren orijinaltasuna hor dagoela, berak erabiltzen duen hizkuntzarekin egiten duen erreflexioan, hor oso orijinala da, hizkuntzari dana ateratzen dio. Eta pentsatzen dut Lauaxeta Euskal Herrirako (zeren hor ere mailak dira, ezta?), Lauaxetaren orijinaltasuna nik uste dut gehiago teoriarik, kanpoaldetik hausnarketa horretan dagoela. Eta baita ere berak egiten duen projektu horretan. Lauaxetarentzat poesia, lehenago esan dudana bezala, eternidadea begiratzeko bide bat da, eta Lauaxetak, uste dut, heterodoxiaren bidea ere zabalik ikusten duela. Nolabait esateko gauzak



garbiago ditu, logika aldetik begiratuta, garbiago dauka zer den teoria, zer egin behar den ere bai, zer egiten ari den ere bai, baina beharbada oso poesia logikoa da hizkuntza aldetik. Azaleko joko asko daude, metaforak oso politak dira, baina, nik ez dakit, Lauaxetaren testuak uste dut bertsoz bertso oso politak direla, ordea dana batera ikusita..., ez dakit. Eta Lizardirenak badauka osotasun bat lehenagotik, ez?

Juan Mari Lekuona

Bai, poesian arazo hori edukitzan dugu denok, iruditzen zait iturriak denak ditugula poesian. Gero daude tranpak, zeinek hobeto azaltzen dituen, bere kartak nork agertzen dituen eta nork ez dituen agertzen. Eta orijinaltasuna ez dagoela testuetan baizik eta filosofia batean, estetikaren planteamenduan.

Juan Kruz Igarabide

Piska bat erantsiz... Nik uste dut, euskal poesia unibertsal hori egitea bien helburu estetikoa izan zela. Orduan, hor behar dira bi elementu: bata da poetikari buruzko planteamentu berriak, hortan Lauaxeta dudarik gabe, aberatsagoa agertzen da; baina hori ere mintzaira poetiko baten bidez gauzatu behar da, eta gainera, tradizio poetikoarekin lotura bat egin behar zaio, horri irauliz, hautsiz, edo... josi egin behar da. Eta hori Lizardik egiten du. Nik konplementariedade edo osatze lan bat ikusten dut bien artean.

ERBESTEA

3

HITZALDI
ETA MAHAI INGURUA



JOAN MARI
TORREALDAI

Aurkezpena

MARTIN
UGALDE

Erbestea
(1936-1956)

JOSEMARI VELEZ
DE MENDIZABAL

Jokin Zaitegi
Zertzelada batzu

EDUARDO GIL
BERA

Mirande,
arrotzaren arima



MARTIN UGALDE
(Andoain, 1921)

Idazlea.

Bihotza golkoan (1990)
eta
Itzulera baten historia
(1990)

...

**JOSE MARI VELEZ DE
MENDIZABAL**
(Aramaio, 1949)

Idazleen Elkarteko
Lehendakari ohia.
Enpresa eta Ekonomi
zientzietan Lizentziatua.

Sixties (1990) eta
Amuarrantza (1988)

...

EDUARDO GIL BERA
(Tutera, 1957)

Idazlea.

Poesia:
Hortus Botanicus (1988).

Saioa:

**Atea bere erroetan
bezala** (1987),
O Tempora! O Mores!
(1989),
Fisikaz honatago (1990)

...

JOAN MARI TORREALDAI



Aurkezpena

ERBESTEA: 1936-1956

OHAR GISAKO SARRERATXOA

-Erbeste bat baino gehiago du euskal literaturak. Erbeste politikoaz ari garenez, bi aipatuko ditugu: bat, orain aztertzeraz goazen hau. Eta bestea, 1960-1970 bitartekoa. Bigarren honetako izen batzu aipatzearren: Paulo Iztueta, Joxe Azurmendi, Jokin Apalategi, Txillardegia, Beltza, Ortzi, etc.

- Gaurko aztergaiari berari begira, hiruzpalau ohar:

. Aztergai ditugun autoreon kasua ez da berdina: desterru politikoaren barruan koka ditzakegu Zaitegi eta Monzon. Baina ez Mirande. Erbeste ekonomikoaren ondorioetan akaso Mirande?

. Zenbait azterketetan «erbestetzat» hartu ohi da Ipar Euskal Herria. Erbetea ez baino babesleku edo aterpe gisa kontsideratu behar da.

Desterruaren zikloa: 1936-1956. Zikloaren hasierak ez du dudarik: Franco-ren altxamendua. Bukaera bezala 1955 nahiago dut nik. 1956 urteak epe berri bat abiatzen bait du. Hiru gertakari garrantzizko eta esanguratsu:

- Bat, Parisen ospaturiko Euskal Mundu-Kongresua
- Bi, Euskaltzaindiak Arantzazun egindako gerraosteko lehen bilkura nagusia.
- Eta hiru, *Jakin* aldizkariaren sorrera, hots, belaunaldi berriaren plazaratzearen abiapuntua.

- Euskal kulturaren erbestea bikoitza da: barrukoa eta kanpokoa. (Literatura espainolean eta, «exilio interior» eta «exilio exterior» bereizten dira. Eta arrazoiz).

Barne-erbeste honekin zer adierazi nahi dugun? Hego Euskal Herriko «desgiroa» (J. Etxaideren hitza erabiliz). Alegia, kartzela, desterruak, kultur eta kazetel enpresen eskualdaketa eta konfiskazioen ondorioz, euskal kulturaren azpiegiturarik eza, euskarari gerra (hedadura eta garapen kulturala euskarari arras moztuz), garbiketa edo depurazioak (adibidez, irakaskuntzan eta funtzionaritzan), erabateko kontrol soziokulturala eta politikoa. Eta liburu eta aldizkariaren zentsura.

- Bi erbestean harremanak?

. Harremanik eza da nagusi. Instituzionalki eta organikoki barruaren eta kanpoaren artean ez da elkarriketarik izan. Izan den txoa, klandestino eta kontrabandokoa izan da. Jon Etxaide bat kartzelan egona da *Gernika* eta *Euzko Gogoa* zabaltzeagatik.

. Martin Ugaldek deskribatuko digu kanpoko erbestea. Barrukoaz zer esan, osagarri gisa? Bizpahiru datu hemen ere:

. Oposiziotik ez dago deus egiterik barruan, bistan da.

. Euskal kulturarekiko lehen ekintzak inguru ofizial edo paraofizialetatik datoz. Eta zehazki, «Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País» elkartean inguruan biltzen dira Jon Etxaidek «Franco´tar euskaltzaleak» izendatzen dituenak, hau da, tradizionalistak, karlistak, integristak, ACNPko katolikoak, monarkikoak, eta falangista bat edo beste. *Boletin-a* (1945), *Egan* elebiduna (1948), *Munibe* (1949), *Biblioteca Vascongada*

editoriala (1951) sortzen dituzte Donostian. Aparte euskal jai eta bertsolari-festak eta.

• Baina zer bilatzen zuten «Franco´tar euskaltzale» horiek ekintza hauekin? Hona, adibidez, Egan argitara emateko eskabidean nola justifikatzen duten aldizkariaren «finalidad espiritual» delakoa:

«Habremos de publicar en él, estudios literarios y poesía y cuentos en castellano y en vascuence, tanto para combatir el vascuence de laboratorio que hicieron en su día los separatistas vascos como para no dejarles esta lengua como bandera política pues tal es el uso que quieren hacer de ella, en sus publicaciones, los emigrados políticos que viven al otro lado del Pirineo.

• Posibilismoaren beste bide bat ere urratzen da, gomendiozkoa. Adbide bat: Jose Artetxek eta Patxi Unzurrunzagak «Delegación Nacional de Propaganda»ko Zuzendaria zen (eta Zarautzen oporrak igarotzen zituen) Pedro Rocamoraren bidez lortu zituzten S. Mitxelenaren «Arantzazu» poema, Orixeren «Euskaldunak» eta Bera-Mendizabalen *Hiztegia* liburuen baimenak.

Kanpoko erbesteak ez zuen begi onez ikusten bide hau. Radio Euskaditik eta, saldukeriaz eta kolaborazionismoaz mintzo ziren desterruko ahotsak.


- Azken puntutxo bat: liburu-produkzioa.

• Bi aldi nagusi bereiztu behar dira: 1948 bitartekoa eta gerokoa (1955 artekoa).

• Lehen aldian, barruko liburuek produkzioaren %21,5 suposatzen dute. Eta kanpokoek, %78,5.

• Bigarren aldian, oster, barruak indar handia hartzen du, eta kanpoko produkzioak lehen tamaina berean jarraitzen badu ere, jaitsi egiten da bere pisua erlatibuki. Barruak %62 du eta kanpoak %38. 1949tik aurrera barne-produkzioa da nagusi.

MARTIN UGALDE



Erbestea (1936-56)

Erbestaldi hau sortu zuen 1936ko gerra zibila aipa behar dut hemengo "Erbestea"z zer ulertzen dugun aldierazteko.

Hiru multsotan irten ziren ihesi gerrak bultzata Hegoaldeko euskaldunak:

1) Lehenengoan, Gipuzkoan, Irundik eta Nafarroa arteko Bidasoa zubiz edo oinez ibietatik eta igeri ere bai; hasieratik errebelatuen alderdian kokatuta suertatu zen Nafarroatik ere, eta bide zail eta arriskugarriak tarteko, askok eman zioten ihesari; hauen artean Pio Baroja: "Itzea" etxetik irten eta Ibardinetik jo zuen. Lehen olatuko aldi honek, uztailaren bigarren hamabostaldian hasi eta irailaren 4 arte iraun zuen, egun honetan jausi baitzen Irungo hiria Francoren tropen mende, eta hiria berarekin mugako zubiak, noski. Besteak beste, 3.000 bat emakume et haur pasa ziren zubi hauetatik.

2) Bigarren multsoa, hau handiena eta dramatikoa, Bizkaia, Santander eta Asturiaseko kostaldetik, itsasoz, noski, haurrak eta adinekoak ontzi handietan, hauetako batzu ingelesak; haurrak, Bilbo jausi aurretik hasiak ziren irteten portu honetatik 1937go maiatzaren 5ean lehenengo untzia, (Gernika kixkali —apirilak 26— eta 9 egun gero!) eta guztira 25.918 irten ziren; milaka batzu gehiago ekainaren 16an Eusko Jaurlaritzak Bilbo ebakuatzeko agindua eman zuen arte, eta gainontzekoak, mundua! irten zen Santanderuntz trenez, kamioi gainean, oinez asko, gau eta egun; azken bataloia, “Itxarkundia” ekainaren 19an irten zen arte, Santanderetik untzi ingeles eta bestetan, Frantziarako bidean gehienak; gero, Asturiaseko portuetatik, Musel eta abar, gizonak gehienbat, eta hauek Frantziatik Catalunyaaraino merkantzi tren itxietan ganadua bezala eramana izan ziren.

3) Eta hirugarren hau, Catalunya galdu zenean, 1939ko hasieran, sortu zen euskaldunen hirugarren ihesaldia, beste guziekin batera: batzu merkataluntziz Afrikararantz eta Frantziarantz, besteak mendiz, oinez, Agirre Lehendakaria bera Companys Presidentearekin batera, honi hitz eman bezala, 1939go otsailak 4.

Hiru olatu horiek zenbat gizon, emakume eta haur euskaldun erbesterazi zituzten jakiteko ba da datu fidagarri bat: Eusko Jaurlaritzak ofizialki emana: 150.000 inguru izan ziren euskaldunak une batean edo bestean Frantzian babesa aurkitu zutenak.

Handia, izugarria, kontuan harturik gehienbat afektatu zituen Gipuzkoa eta Bizkaiak garai hartan guztira 850.000 bizanle besterik ez zutela jakinik.

Erbesteratuen beste norabideak

Espainiako gerra zibila 1939go apirilaren lehenengoan amaitu ondoren besterik sortu ez bazen, erbestearen norabidea orain artekoan amaituko zen agian; baina justu bost hilabete geroago, 1939go irailaren batean eraso zion Alemaniak Poloniari, bigarren mundu gerra sortuaz. Egia da ordurako Ameriketarako bidean irtenak zirela euskaldunak zeramazkiten ontzi batzu (abuztuan), baina hauek

ez ziren seguraski Amerikaratuko, eta Francoren egoera bera ez zen berdina izango, gerra honen iragarpen gisa Alemaniak ez bazituen dagoeneko Austria anexio edo “Anschluss” bidez bereganatu (1938), Checoslovaquiaren inbasioa (1938), eta Bohemia eta Moravia-ren protekturatua dagoeneko burutu.

Garbi ikusten zen lehen antzara-pauso ikaragarri hauek norantz zeramazten alemanak; Espainiako gerran bertan ere, handiago zen zerbait prestatzen aritu ziren, eta Europa guztia zegoen dardaraz.

Ez da, beraz, harrizkoa ekaitz handiaren beldur euskaldunak Ameriketarantz ihes egiteko izan zuten joera hau. Ez ziren denak irten, ezina zelako. Alemanak Frantzia hartu zutenean, 1940. ekaina, batzu Francopera etxeratuak ziren, beharko!, baina “etxea” zera izan zen abiatutako batzuentzat... Espainiako konzentrazio-zelaia edo espetxea, hauetatik pasa behar izan zuten, eta honen ordezkera, Frantziako legioa izan zen, eta izan ziren bertan geratu eta alemanen edo antzeko ziren Vichy-ko frantsesen mende lanean geratu zirenak.

Itxaropenik gabeko munduan aurkitu ginen non nahi euskaldunak une larri eta luze honetan; nolabait asmatu edo zutenak, Ameriketara zeuden dagoeneko: Venezuela, Uruguay, Argentina, Mexico, Santo Domingo, Chile, Colombia eta abarretan.

Hara, bada, nola sakabanatu ginen euskaldunak munduan zehar.

Erbestearen muga zabal-sakonak

Gure azterketarako, erbestea ez da Frantzia eta Amerika bakarrik; sinplekeria izango litzateke axial horretan geratzea.

Beraz, zehaztu dezagun apur bat:

Herrian bizi ziren eta erbesteratu ziren euskaldunen arteko literaturak nondik nora elkarriketan jarri ginduzen bidetxurrak nolakoak izan ziren ikusteko, Erbeste honen muga zabal-sakonak aipatu behar ditugu lehen; diktaduraren eragin makurrak dira hauek dibujarazten dituztenak:

1) Badira hemen gerrondoan erbesteratuak

pentasa-idatziak izan eta erbestean bertan argitaratuak izan diren liburuak.

2) "Orixe"ren *Euskaldunak* poemaren kasua, bestea da, berriz: gudaurretik idatzia egon eta erbestean zegoela argitaratu zioten 1950an Hego-Euskalerra barruan (Itxaropena, Zarautz).

3) Francopean bizi ziren egile frankok bidali behar izan zituen idazlanak erbestera hemen argitaratuak izan zitezten.

4) Erbestean bizi ziren idazle euskaldunak hogeitaka urte pasa eta gero, eta orain politikoki kutsadura gabe, bere sasoiaren esaten zutena esateko indargabeturik geratu zirelako, eta, beraz, bidean hil zituztelako edo, eta, hala ere, oraindik haien obrak eroslerik izatekotan, herrian, eta ez erbestean, argitaratzeko norbait aurki zezaketelako, Vicente Amezaga bat, adibidez.

5) Ipar-Euskalerrian argitaratuak izan ziren liburuak: bai Hegoaldetik botetak izan ziren idazleak eginak zirelako, edota Francopean zegoen idazleak Hegoan argitaratzeko eskubiderik lor ezin zuelako.

6) Azkenik, eta xehetasun gehiegi bilatzea badirudi ere, Ipar-Euskalerrian jaiotako egileak izanik, hegoko anaien egoerak eraginda, Euskal literaturak deituta, Euskal literaturan sartu eta exilio ekonomikoak bultzara, Parisen edo, hara Jon Miranderen kasua, exilioko argitaletxe eta zabalkunde bideetatik ibili zirenak.

Eta hau ez dagokio euskal liburuen idazleei bakarrik, gauza bera gertatzen zitzaizen aldizkarietako idazleei ere.

Gainera, mugak ez daude euskararen bakarrik: lanak erdaraz idatzita egon arren euskal gaiak senaz eta ideologia abertzalez mamituak ere eragozpen berekin egiten zuten topo.

Aurretikoak

Guda 1936an bizkarrean lehertu zigutenean baziren gutxienez hiru gizon euskal literaturaren birjaiotzea markatzen zutenak: Txomin Agirre (1864-1920), Jose Maria Agirre, "Lizardi" (1896-1933) eta Esteban Urkiaga, "Lauaxeta" (1905-

1937an frankistek fusilatua hau); hildako hiru hauek eta bizirik zeuden beste batzuen artean Labayen (1898) eta batez ere Orixe" (1888-1961), izan ziren exilioaldi honetako ardatz euskal literaturan, batez ere: berritzaileak. "Lizardi"k idatzirik azken obra antzerki bat izan zen: "Ezkondutako ezin zitekeen mutilla", barruan argitaratzen hasia zen *Egan* aldizkarian 1953an agertu zenean, euskal literaturaren sasoi berri bati eman zion hasiera; "Lauaxeta"k, 1931an argitaratua zuen dagoeneko *Bide barriak*.

Hildakoek ere eragin berria zekarten, beraz.

Eskola egin zuen eta herriarekin elkarrizketa bidea izatera heldu zen *Euzko-Gogoa* aldizkaria, Jokin Zaitetik sortu zuen. Ez zen Guatemalan ezezaguna bezala agertu: "Lauaxeta" eta "Lizardi"ekin batera Euskalerrian urtero, eta batez ere Jose Ariztimuño "Aitzol"en eraginez ematen zen poesia sariaren irabazle izan zen 1934an, "Tori nire edontzia" poemarekin.. Euskal literaturan aldi honetan hainbesteko eragina sortu zuten hauek elkar lotzen zituena Sabino Arana zen; honek eragindako kultur-bideak batez ere honen hizkuntza-arauak: ortografia eta neologismoaren joera, bereziki.

Aipa berri dugun "Aitzol" izan zen heredentzi hau berritzeko lan handiak egin zituena: Beste nonbaite esan dudana bezala ("Aitzolen biografia", *Bere Idazlan guztiak*, 6 ale, Erein, 1988) berritzea beti da zaila, gure herrian, eta hizkuntza gai badugu, oraindik gehiago. Gauzak berez oso zailak etorri zaizkigulako. Aitzolek uste zuen euskara, euskal literatura aurreratu, berritu eta ausarta batek salbatuko zuela, eta berau moldeak puskatuz, Europako beste herriek halaxe jokatu eta irabazi zituzten. Honetarako, lehiaketak eratu zituen, eta sarituek eragindako obrak berritzaileak izan zirenez, pentsatzen zuen aurrera goazela. Baina sortu zituen istiluak: obra berri hauek ez zituen herriak ulertzen, eta ez irakurtzen, noski!

Hara zergatik ematen hasi zen gero bertsolaritzari laguntza berezia.

Gaur bertan ere gertatzen zaigu horrelako zerbait,

baina hizkuntza eskolatua asko igo denez gero, badoa aurrera.

“Aitzol”ek aurrera, eta urrun, begiratzen zuen. Hara nola dagoeneko egunkari bat sortzeko lanetan diru laguntza faltaz, gaur bezala!, itota ibili zen: “Inork ez du diru laguntzarik eman nahi. Nola bilduko genuke horretarako behar dugun milioi erdi bat pezeta?”

Hizkuntzaren beharrak, batetik, eta ulermen eta diru falta, bestetik, eta pertsonalkeria ugari era bai! izan dira beti oztopo.

Baina goazen orain gerra ondoren egin ziren urratsetara.

Euskal literatura

Alde batetik, Euskalerriaren zorigaitzak berekin dakarren kitagarri bezala izan dugu kasu askotan, eta Francok sortutako gerrapean ere bai, Ipar-Euskadiko estalpea; hemen ari dira lanean Lafitte, “Oxobi”, Soubelet, Leon, “Zerbitzari” (Elissalde), Iratzeder eta Lertxundi; eta, lanean, ez gutxi, asko baino.

Euskaraz idatzitako literaturak berezko zituen gabeziaz gainera, Francoren altxamenduaren suak amaitu eta berehala piztu zen bigarren mundu gerrak sortu zituen hondamen handiak; laguntza bat jaso ahal izan zuen, hala ere: Buenos Airesen 1940an bertan, exilatuak Amerikatara heldu bezain laster, Isaak López Mendizabal eta Andres María Irujok sortu zuten, “Ekin” argitaletxea.

Laster, 1943an, inprimatu zen hemen erbesteko lehen euskal liburua, haurren klasiko baten berrargitarapena, hain xuxen: López Mendizabalen *Xabiartxo*; geure haurtzaroko liburua zen, eta geure semetxoen eskuetan berrikusteak poztu gintuen.

Francopean, ezer ez.

Madriko Espasa Calpen aspaldi argitaratzen hasi ziren Azkueren *Euskalerriaren Yakintza*, II, irten zen halere.

Ez da, erlijiozko liburuak geure honetan alde batera uzten ditugunez, beste literaturako libururik agertzen 1945 arte, Ameriketara berriz, baina orain


Guatemalan, Jokin Zaitegiri esker: H. Wadsworth Longfellow-ren *Evangeline*; urte berean argitaratzen da, hau Mexicon, Telesforo Monzon-Olasoren *Urrundik*. 1946an, hiru izan ziren Ameriketara argitara eman ziren literatur-liburuak: Jokin Zaitegiren bi itzulpen Mexicon: *Sopokel'en antzerkiak* eta *Goldaketan*, eta Juan Antonio Irazustaren *Joañixio*, nobela, Argentinako Ekin-en. Ipuinak dira, berriz, 1947an argitaratzen direnak: Pedro Ormaetxea Aldama (“Lontzi Aba”, Ameriketara; eta Alemanak menderatuak izan ondoren Ipar-Euskadiko lehen exilioko liburua: Telesforo Monzon-Olasoren: *Gudarien egiñak*, Miarritzen.

Liburu hauen ale batzu ezkutuan pasatzen dira Hegoaldeko ixilpe ilun eta antzura. Herbestearen eta herriaren bitarteko elkarrizketa bide ederra irekitzen hasi ziren lehen euskal literaturaren liburu hauek, eta azken aipatu dugun Monzonen lana gudarien ekintzei eskainia zegoenez, gero, sua bera izan zen Iparraldetik Hegora iragan zena.

Tarte honetan, 1944-47 artekoan, irten zen: *Euskalerriaren Yakintza III* bieleiduna Madrilan (Azkue).

Bost izan ziren 1948an erbestean argitaratuak izan ziren liburuak: *Bigarren ipuintxoak*, lehen bezala Chilen “Lontzi Abak” idatziak; Jose Eizagirreraren *Ekaitzpean*, elaberria, Ekin-ek argitaratua (guda hasierako oihartzunetan oinarritua); Roman Bera eta I. López Mendizabalek osatutako hiztegitxo bat, garai hartarako gauz egokia, batez ere Zarautzen bertan Patxi Unzurrunzagak argitara ahal izan zuelako; laugarrena, Jorge de Riezu jasotako abesti herrikoi batzuekin osatutako sorta, gaztelarazko itzulpenarekin: *Flor de canciones populares vascas*; bostgarrena, berriz, Parisen inprimatutako “Orixe”ren *Leio-kumea* izan zen, honoko hau ere hegoaldean haurrentzako irakurgai bezala asko zabaldu zen.

1949 Ipar-Euskalerrian, eta Francopean oraindik oso estu bizi ziren garai honetan, erlijioa gai zuten liburuak bakarrik argitaratu ziren. Hauetatik hemen aipagarria dena, literatura mailan dagoelako:



Arantzazu, Salvatore Mitxelenaren Euskal Poema; I. Eizmendi "Basarri"ren, Atano III., bere edestia bertsoan, Zarautzeko "Itxaropenan"; Torrealdaren zerrendan, non argitaratu zen esaten ez duen: Nork nori ziria sartu? J.A. Arkotxak idatzia, eta "Oxobi"ren Oxalde (1814-1870), biografia dirudien lana, Euskaltzaindiak Baionan argitaratua, agertzen dira.

Eta 1950an hiru aleko sorta ederra: "Orixe"ren bi liburu: batek erlijioa gai duela: *Urte guztiko Meza-bezperak*, eta Iparraldean, Askainen, argitaratua izan bazen ere, erraz aurkitu zuen Ameriketarako eta hegoalderako bidea, eta bai izpirituaren aldetik eta baita euskararenetik ere laguntza ederra eman zion erbestearen eta herriaren arteko elkarriketari; beste hainbeste esan dezakegu urte berean "Orixe"ri, eta Hego-Euskalerrian, Antonio Labayen lagun zuela, Patxi Unzurrunzagak, argitaratu zion *Euskaldunak* liburu bikaina eta oso apain, merezi bezala, inprimatua. Hirugarrena, Ekinen argitaratzen duen elebarria da: Juan Antonio Irazustak idazten

zuen bigarrena, eta gaia, Ameriketarako euskaldunak duen esperientziari dagokio: *Bizia garratza da*.

Bestalde, Mirritzen saritzen da Agustin Zubikarainen *Itsasora*, arrantzale bizitzako irudia, gero 1960an *Egan*-en argitaratuko diotena.

Ikusi dugunez, ez da guda ondorengo hamairu urtean Francopean bizi den Euskalerrian argitaratua izan oraindik euskarazko literatur liburu bakar bat ere, 1950 honetan "Orixe"rena eta beste batzu argitaratu berri diren arte. Pentsa ezina zen giro beldurgarri eta ilun hartan, eta zentsura ofiziala bera nahikoa ez bazen, honen fruitua, bakoitzak bere buruari jartzen ziona zen ikaragarriena.

Bestalde, norentzatidatzi, zabaltzerik ez bazegoen eta Euskara bera ere, inon ez ageri eta entzuten ere ez bazen?

Eta erbestean idazten zena ere, molde zaharretan egina, noski.

Landarearen hazi berria, lur berriaren zai.

1950ko ardatza

Bistan da, urte hauetako giro antzu hau 1950an aldatzen dela; batetik, Ameriketa aldetik jotzen du haize berriak, Guatemalatik, Hain xuxen; han sortzen baitu Jokin Zaitegi aipatu dugun gerrondoko lehen euskal aldizkari euskalduna.

Hor idazten dute, Zaitegiz gainera, Andima Ibiñagabeitia eta "Orixe"k; biak joaten zaizkio, alditxo bana, bertara, laguntzera. Hirurak ematen diote aldizkariari, bakoitzak berea zuen duintasun eta estilo ezberdinarekin, behar zuen lehen prestigioa. Eta Ameriketara sortutako hizketak laister sortzen du Euskalerrian hitzegin zai, esperu gorrian, dauden idazleena; hor hasten dira idazten besoak zabalik jarri dizkien aldizkarian, lehengo batzuekin batera: Policarpo de Irazoiz ("Urtsuia", "Irisarri"), Valentin Aurre-Aspiz ("Aurraitz", "Mendi-Bide", "Agorreko Balendin") eta Caracasetik Bingen Amezaga eta Toribio Echevarria ("Nafarroako Margaritaren Ipuñiak"), beste berri-gazteak diren batzu: Salvatore Mitxelena (1918-1965), Juan San Martin (1922), Gabriel Aresti (1933-1975), Domingo Peillen (1932), Jon Mirande (1925-1972), Jon Echaide (1920) eta Jose Luis Alvarez Emparantza "Txillardegia" (1929), beste batzuen artean.

Hasiera eman zion, beraz, Ameriketako eta Ipar eta Hego-Euskalerriko euskaldunen arteko elkarrizketari, hain beharrezko zen komunikazioari, eta hemendik laster, baita ere berrikuntzaren seilua duen higadura literarioari ere.

Euzko-Gogoak sorrarazten du, bada, 1950an, berrikuntza hau.

Aldizkari honetan idazle berriak eta Euskadi guztikoak idazten jarriaz gainera, hasten baitira lanean giro honen inguruan hain itxia eta mutua zegoen Hego-Euskadin bertan liburugintzan: Jon Etxaide (*Alos-torrea*), Agustin Zubikarai, Nemesio Etxaniz (*Nola idatzi euskaraz*), Anton Sorarrain (*Santa Maria Goretti*); eta beste batzuk ere: Iratzeder, Krutwig, Salvatore Mitxelena, Mirande, Peillen eta Kerexeta.

Eta laster, atzerrian, *Zaitegi-Euzko-Gogoak* sortu duten Amerikako ardatza Euskal Herrira doa.

Hala ere geure literaturaren bideak aurrerantz erbestean eta herrian abiatu badira ere, oraindik, Joan Mari Torrealdai dion bezala, egiten den literaturarik konprometituena eta errealitateari lotuena, eta batzutan Hego-Euskadin egiten dena, oraindik *erbestean argitaratzen da*.

Zentsuraren seinale garbia da hau.

Gizaldiaren erdia dugu, beraz, euskararentzako garrantzi handia duten bi gertakizunen unea; eta honek oraindik beste azpimarraren bat behar balu, 1950an eta Zarautzen ikusten du argia *Euskaldunak*-en lehen argitalpenak, esan dugun modura.

Aldizkariak

XX. mendearen erdirako, egia da, sortuak ziren aldizkari batzu: Anayak (1938-39), apaiz erbesterratuak sortu zuten hilean birritakoa, Juan Thalamas, Alberto Onaindia eta Rafael Pikabeak argitaratu zuten Parisen; urtebete iraun zuen. Beste aldetik, garrantzi handia izango zuen *Egan* sortu zen hurrengo urtean, esan bezala, Donostian, elebiduna hasieran. Hara hemen erbestearen eta herriaren arteko diferentzia nagusi bat: askatasuna, bai gaiei dagokionez, eta baita, batez ere, hizkuntza berari dagokionean ere! Hemen esan behar dugu azken aipaturiko aldizkari hau, Antonio Arrue karlistari esker (honez gainera euskaltzale baigenuen) eta batez ere honen babesean, aritu zirela hemen Angel Irigaray eta, nagusiki, Koldo Mitxelena bera lan zail eta neketsuan; ezin izan baitzuen bertan idazten zutenak bere lanak nahi bezala gaiez eta mamiz osatu.

Esan dezakegu, baita ere, Alemaniak piztutako gerrak 1940an hil zuen *Gure Herria*, mendearen erdi hau hobeto markatzeko, 1950an berpiztu zuela Saint Pierre Apezpikuak.

Kontuan hartzeko euskal aldizkariak ari garen honetan, gerrondoan erbestean sortu edo jarraitu zuenak, Jon Oñatibiak Caracasen eta gero New Yorken berpizten duen Donostiako *Argia*.

Bestalde, Koldo Mitxelena burubelarri jarria den *Egan*, euskara hutsean irteten hasten da 1953 urtetik aurrera; pizkortzen da, bestalde, *Euskera* aldizkaria ere Euskaltzaindiaren eraginez, eta jaiotzen da hiru urte geroago, 1956an, *Jakin*, Arantzazun.

Pauso handiak ematen ari gara, beraz.

Euzko-Gogoak agertu zuen belaunaldi arteko zubi izateko bokazioa, bai 1950an, eta baita, eta batez ere, azken aroan ere. Gauza bera gertatu zen *Eganen*, eta baita gero *Jakin-en* ere.

Eta garai honetako euskal literaturak eskainitako zubiez ari garenez gero, ezin dugu Barandiaranen lan berezia goraiatu gabe utzi. Ez dut don Joxe Migelez gauza berri handirik esateko, dena esana baitago gure gizon handi honetaz. Hala ere, hemen ezin ahaztu urte zail haietan ere euskara alorrean ari zela. *Ikuskan* gehienbat euskal aho literaturaz ari baitzen; baita lexikografia, etnografia, aurrehistoria eta toponimiak ere, baina aho literatura oso du gogoko ataundarrak. Lapurdiko Saran irten zen 1946an, eta Ikerketarako Euskal Institutoaren aldizkari gisa (Antropologia Saila). *Eusko Jakintza*, 1947 sortu zen “Gernika Bazkuna”ren aldizkari bezala (gero Isidoro Fagoaga, Beratar gogoangarriak jarraitu zuen); Saran eta Jose Migel Barandiaranen zuzendaritzapean hau ere, eta nazioarteko ikuspegi zabal batek eraginda, dagoeneko “Membre du Conseil Permanent du Congrès International des Sciences Anthropologiques et Ethnologiques” izendatua izan baitzen, eta Basses Pyrénées eskualdeko “Delegué de la Société Préhistorique Française” izentapenarekin.

Hizkuntza askotako lanak agertzen dira hemen.

Lehenengo alean (1947ko urtarril-otsaila) hiru hizkuntzetako lanak ageri dira: euskara, frantsesa eta gaztelera; baina alemaniera ere sartzen da 1948an (Karl Bouda, G. Bähr: *Baskisch und Iberisch*), eta ingelesa. Eta bereziki aipatzen dut: *Eusko-Jakintza*, hau baita herria eta erbestearen arteko harremanetatik at, *beste herriekin* ere harremanak,

eta gure historiako garai ilun hauetan, sortu zituena.

Zeruko Argia (gaur *Argia*) izan zen aurreraxeago erbestearen eta herrien arteko lokarri estu bat.

Baina goazen orain 1950-1956 bitarteko liburueta.

Hau da, eta, nire muga.

Liburuak berriz

Loidiren 1955ko elaberria aipatu dugu giro berri baten seinale bezala.

Dagoeneko, Etxaideren *Alos-torreak* izan zuen halako muga-seinale bat garai hartako idazle gazte askorentzat; obra hau izan zen Hego-Euskalerrian argitaratua izan zen lehen literatur obra nagusia.

I. Eizmendiren bigarren bertso-liburua ere irten zen urte honetan erlijiozko beste batzuekin; urte honetako beste literatur-liburua, J.A. Irazustaren *Bizia garratza da*, nobela, Ekin-ek argitaratu zuen Buenos Airesen. Hurrengo urtean ere, 1951, libre den erlijio gaia da nagusi, hamabi obrarekin, eta Nemesio Etxaniz ausartzen da *Kanta-Kantari* argitaratzera Bilbon; abesti klasikoetan eta lirikan babesten da garai hartako lana, eta aipagarri dira alor honetan Iratzederrek argitara ematen dituen bi lan Ipar-Euskadin: *Ezkilo eta Tirola* eta *Herri-mina*. Iparralden, berriz, 1952an *Basabûrian* (J. Jauregiberri) eta *Battitte eta Marianno* (“Haurrak ikhas eskuaren irakurtzen”) Baionan; Bingen Amezagak burututako itzulpen bat Ekinek Ameriketara; *Hamlet* eta *Noni eta Mani*, Plazido Mujikaren itzulpena Zarautzen. “Nor bait” izenordearekin Andima Ibiñagabeitiak argitaratzen du *Euskera irudi bidez* Parisen, Pako Miangolarraren eraginez, 1953an; urte berean agertzen dira Jautarkol-en ipuiak eta Etxaide-ren *Purra-purra* Zarautzen; Iratzeder-en *Mortuan oihu*, Beloken, eta Bingen Amezagaren itzulpen bat Buenos Aireseko Ekinen: *Platero ta biok*.

Hasia da, oraindik oso apal bada ere, Hegoaldean zerbait mugitzen: Axular-en *Gero* eta Txomin Agirrerren *Kresala* argitaratzen ditu Patxi Unzurrunzagak 1954an; *Milla euskal olerki eder*,

Santi Onaindiak Larrean; *Santxo Azkarra*, Petri Marka-k Ipar-Euskadin. Hemen dator J.A. Loidiren *Amabost egun Urgainen* 1955an Zarautzen argitaratua; Zarautzen bertan, Unzurrunzagak berriz, argitara ematen dio Jokin Zaitegiri bere *Bidalien egiñak*, eta Etxaideri, *Joanak joan*.

Badirudi euskaragan sentitzen den larrialdi handia piska bat lasaitzen hasia dela.

Hara hemen, Umandi-ren *Bizkaierazko aditz erak* eta *Gramática Vasca*; J. Garmendiaren *Euskeraren iraupena*, Donostian agertu (Gráficas Iarra). Bestalde, Ifarraldean argitaratzen da: *Lexique francais-basque* (A. Tournier, P. Lafitte; bada besterik oraindik aurten: J. Gorostiaga-ren *Antologia de poesia popular vasca*, Donostian. *Elezarrak. Arraun eta Amets* (A. Sorarrain, J. Galarraga, J.M. Garaialde eta S. Mitxelenak, Zarautzen); *Erri abesti sorta* (Donostiako Apaiztegiak; *Ikasgaiak baserrietako neskatzentat* (A. Zugasti, N. Etaniz, Gráficas Izarra); Etxaniz-ek Parisen itzulpen bat: *Itun Zarreko kondaira I*; eta oraindik beste bat Arantzazun: *Paradigmas de la Conjugación Vasca* (L. Villasante, K. Iturria, A. Zabalgoeaskoa).

Lehen aldiz, erlijio gaieko liburuak eta *euskara* gai dela argitaratzen direnak parekatzen dira.

Hemen goraipamen bat merezi du Patxi Unzurrunzagak hau, eta bere "Itzaropena", baitira, Ekin-ekin eta *Euzko-Gogoa*, Herriaren eta Erbestearen arteko harremanen oinarriak.

Aurrera doa aldakuntza 1956an, eta, bestetik, Iparraldean eta Hegoan euskal literatura birrargiltapena liburu gehiago argitaratzen hasiak dira. Hegoan: Buztintzaren *Abarrak*, Hugo Westen *Bide ezkutua* (berrargitalpenak eta bieleguna); Villasanteren: *Euskal Gramatika labur* eta *Idazleen Pusketa autatuak*; Txomin Agirreren *Garoa*; S. Barandiaranen *Iliasena* (itzulpena) Gazteisen; J.A. Mogelen *Peru Abarka* (berrargitalpena). Urte honetan eta hemen, sortzen dira, baita ere, eta arnas berri baten adierazpen bezala: *Jakin* eta *Karmel*, oraindik tinko dirauten bi aldizkari. Iparraldean: *Harrapallu*, Iratzederrek idatzia. Kontuan eduki behar da, noski, itzulpenak eta berrargitalpenak.

Eta hemen amaitzen da nire lana: 1936-1956 bitarteko Erbestea.

Hemendik aurrera, eta bakarka, aztertuko dituzte hamar urte hauetako hiru idazle: Zaitegi, Mirande, eta Monzon.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL



*Iokin Zaitegi
Zertzelada batzu*

Euskaltzaindiaren bilera batetan honela zioen Iokin Zaitegik, bere jaioterriko zenbait gertaera gogoratu nahian:

“...Orrez gainera, zoritxarrez, erabat ez-ezagun egokitzen natzaie erriko geientsuei. Buru-langile edo izan arren erbesteko txangolariren (turistaren) bat bezala artzen naute nere errian.”

Eta egiari atxikirik, Iokin Zaitegi euskaldun haundia, nahiko ezezagun dugu oraindik, bere herkideen artean ez ezik baita euskal inguru zabalean ere. Ez da berdina, noski, Iokin bizi zeneko garaia eta oraingoa eta zertxobait aurreratu ahal izan da, behintzat euskal literaturaren mugarren kokapenari dagokionez. Zaitegiren kasuan ere, hobeagotu den arren, asko geratzen zaigu bere merituak behar bezala goratuta izan daitezen.

Gure literaturaren landa maixuki jorratu duten pertsonaien gaineko errebeindikapena zeharokoa bihurtu beharko genukeela uste dut. Euskal kontzientzia herpizteko bitarteko zalantzarri asko erabiltzen ari den une hauetan, literaturak eskain dezakeen arloaz ongi baino hobeto balia gintezke haien lanari “etxeko” marka ipiniz.

Zaitegik euskaldun haundi baina ezezagunen pelotoia osatzen du beste askorekin batera. Arriskua eta apostua aukeratu zituen bidailagun. Arriskua, diot, bertan ikusten baitzuen garaipena. Eta apostua, berriz, beti etorkizun urdinago baten aldeko postura egin baizuen. Papeleta pila bat bilduta utzi gintuen, bere obra arriskutsuaren aldeko papeletak, hain zuzen. Hortxe dagoz, partidua noiz eta nola amaituko den zain.

Bizitzan zehar jaso ez zuen eskerrona hilda gero eskuratuko balu, gaitzerdi.

Erdi mailako sendi batetan jaio zen, 1906ko Uztailaren 26an, Arrasateko Txomin Txiki izeneko etxean. Iokinen amaren ama arabarra zen, Gasteiz ondoko Mendibil herrixkakoa. Aitaren aldetik, berriz, aiton bat Bizkaiko Ixurtatik zetorkion. Hortik, beraz, zaitegitarrak Arrasaten “Ixurtza” izengoitiz ezagutzea. Iokinek behin baino gehiagotan erabiliko du gaitzizen hori “Euzko Gogoan”n.

“Ez ginen aberatsak” dio Zaitegik sarri, bere sendiaren egoera ekonomikoaz mintzatzean. Nolanahi ere, ez zen familia hestutasunean bizi eta lau anaietatik bat bakarrik geratu zen goi mailako ikasketarik gabe. Adierazgarri xamar, beraz.

Iokinen lehen maixua D. Elias Azpiazu izan zen, klaseak Arrasateko Udaletxean bertan egokituriko areto batetan izaten zirelarik. Gero D. Francisco Urrutiak zuzendu zituen ume koxkor haren urratsak.

Zaitegik, elizmutiko bezala aritua zen eta herriko parrokira iritsitako sermolariak utzi zuen haziak erne omen zuelarik, Jesusen Lagundia aukeratu zuen bide. Bere ospea mundu osoan hedaturik duen Konpainian goi mailako irakasle asko aurkitu zuen.

Errandonea, Estefania, Goikoetxea, Agirrezezia-ga... eredu batzu dira zerrenda luzean. Baina arrasatearraren gogoan era bereziz grabatuta gelditu ziren haurtzaroko bi maixu haien irudiak, aukera izan zuen guztietan begirunea erakutsi zielarik.

1956ko Uztailaren 26an, esaterako Guatemalatik lehen aldiz itzultzen dela, bere senide eta lagunak bildu zituen bazkari batetara. Eskuin ezkerretara, ama eta D. Nemesio Etxaniz esererazi zituelarik, presidentziako mahaian bere maixu ahaztezin haiek ere jarri zituen.

Josulagungai guztiek bezala, ohizko ikastaroa Durangoko komentuan eman ondoren Loiolara joan zen Iokin, hamabost urte zituelarik. 1926arte nobiziagoa eta giza elertia edo humanidades ikasten saiatu zen.

Eta Loiolan gertatu zen gertatu behar zena. Iokinek —etxeko giroa galduta eta hestuki araturiko mundu hartara iritsita— hutsunea nabaritu zuen bere baitan. Ezin zezakeen esan zer zen baina ez zuen bere barnean lasaitasuna sentitzen.

Bapatean, Aita Ibero kaputxinoaren “Ami Vasco” liburuxka irakurtzen du eta bere artegatasunaren zergatikoaz ohartzen da. Nahiz eta artean ideiak pixkat nahasturik zituen, gauza batez gutxienez jabeterazi zuen liburu harek: euskalduna zen eta euskaldun izaten jarraitu behar zuen. Lagundiako araudia kontutan izanik, ausarta azaltzen zen Iokin.

Baina bere bultzadari esker —Loiolako Saindutegiaren horma garai bezain hotzak lekuko direlarik— lehen saiakerak egiten ditu, bertan aurkitzen diren euskaldunen arima elbarrituari harnas berria emanaz Loiolako gazte multzo hartatik euskal idazle lore sorta ederra jaio zen. Begira, bestela, izen batzu; Andima Ibiñagabeitia, Lauaxeta, Plazido Muxika, Iñaki Goenaga, Argarate, Korta anaiak...

Giro eskolastiko hartan Zaitegiren joera ez zen ontzat hartua izan Lagundiaren arduradunen aldetik. Hala ere, bost axola zion arrasatearri! Berak bazekien zein zen bere helburua...

Josulagunagai gazteak bere mugak ezagutzen zituen. Eta hestutasunetik irten nahian ihardun zuen. Bere Herria zen jokoan zegoena: Herriaren nortasuna, izakera bera. Eta txiki ikusi zuen bere burua, Herriak eskatzen zuen laguntza behar bezala eskaintzeko. Lasterketa hasia zen. Hamaika eragoxpenetako lasterketa. Gogorra.

Euskaldun gazte haiek, erdi izkutuan, klasikoak euskaratzeari ekin zioten. Hastapen haietako geroko fruituak ditugu Iokinek —urteak pasata— argitaratuko zituen *Sopokelen antzerkiak* eta *Andimak*—Aita Onaindiarekin batera—itzulikako *Bergileren Eneida* eta *Unai eta Larre kantak*. Zaitegiren bizitzan beste josulagun batek eragin haundia izango zuen: berarekin Loiolan bizi izandako Aita Olabide gasteiztarra. Arabarrak euskararekiko zuen begirunearen arrastoa ikus daiteke arrasatearrarengan. 1958ko Iraila-Gabonilaren “Euzko Gogoa” ale osoa Olabideri eskaini zion Iokinek eta honela irakur daiteke beran idatzitako “Atarikoa”n:

“Olabide’k eta beste euskaldun iator ainitzek bezala, egungo egunean gure aspaldiko zina berrizten dugu gure erritar guzien aurrean: ezkutan nahiz agerian, ixilan nahiz gorarik euskera besterik ez tugula erabiliko, gure Euskalerrriaren ezagungaririk nabarmena bait-da.”

“Gure aspaldiko zina” horrek Loiolak egunak ekarri nahi ditu gogora. “Bidalien Eginak” liburuari “Orixe”k egindako hitzaurrean honela irakur daiteke: “Olabide’renean ikasi du geienik”

1933an “*Révue Internationale des Etudes Basques*”en “Kizkiña” titulatu zuen lan bat argitaratu zuen Jokinek. Bukaeran, eranskin gisa, Aita Olabideri jarraiki erabilitako hitz sorta bat aurkezten du egileak.

Loiolako egonaldia gainditu ondoren, Burgosko Oñako Ikastetxera joan zen Zaitegi Filosofia ikastera. Euskaltzaletasunaren zuziz ez zitzaion — ezta urrik ere! — itxungia izan eta bere joera horrek lehen atzerriratzea suposatu zion. Konpainiak Venezuelako Meridara bialdu zuen, hiri hartan Aita

Luis Zumalabe donostiarrak sortutako Ikastetxean irakasle bezala hiru urtetan zehar aritzeko.

Eta hantxe, Andesetako Bolibar erraldoi zuriaren magalean, eguneroko lan gogorrak uzten dion aisitarte apurrean, olerkigintzari ekin zion Zaitegik, gartsuki. Erlojuaren kontrako lasterketa ixilean ari zen, gogotsu.

1932ko Udan Belgikako Marneffera heldu zen, Venezuelatik, hezkuntz oinarri sendoa amerikar esperientziaren altxor preziatua izanik. Eladera eta laterazko klasikoak guztiz menderatzen ditu eta, bestalde, munduko literaturaren argi berezizko idazleak zituen ezagun: Prudhomme, Musset, Longfellow, Goethe, Mistral...

1936rarte Teologia egiten ihardun zuen Marneffeko Teologiategian. Lan makinatzat zeukaten bere ikaskideek.

Edozein olerkari euskaldunek hel zezakeen saririk baliotsuena bereganatu zuen Zaitegik 1934an: “Aitzol” zenak sorturiko “Olerti Eguna” saria, hain zuzen. “Tori nire edontzia” zuen titulua sariketara aurkezturiko poemak.

Badaukagu Jokinen izena “Lauaxeta”, “Lizardi”, “Loramendi”, “Orixe”, Patxi Etxeberria eta beste olerkari haundien artean. Sari harek positiboki eragin zuen Iokinengan.

1935eko Uztailaren 31an Lehen Meza esan zuen Zaitegik Marneffeko Ikastetxearen elizan.

Hala ere, ez pentsa Zaitegiren ibilaldia gozoa izan zenik. Marneffen eta urtebete batez Morialmen bizi izandako giro antieuskaldunak larriki mintzen du bere bihotza. Ondoko “harribitxi”ren moduko asko entzun behar izan zuen Iokinek bere nagusiengandik:

“Nazionalitateek ez dute inolako eskubiderik izango; osterantzean munduan izango lirakeen kalteek ez lukete haiei egindako justizia kitatuko, ordainduko.”

Etikako klaseak ziren.

Edozein Estatuk hizkuntza bat jazartea —areago, hiltzea— (hori bai, diskretasun eta sotiltasunez)

gizarteari egindako mesedetzat hartzen zen, Arestian Adolfo Carleaga bilbotararrak eritzi berbera azaldu du, josulagun nagusien eritzi hizkuntza bikoiztasunak hiritarren arteko zatikeria baitakar, Estatuaren martxa triumfala geldiraziz.

Euzkadin borroka latza nagusi zela, bigarren aldiz igortzen du Lagundiak Zaitegi Ameriketara, aldi honetako jomuga San Salvadorreko Apaizgaitegia delarik. San Salvadorren borobiltzen ditu lokinek “Bidalien Eginak” deritzan lana eta inglesetik euskaratutako Longfellowen “Ebangeline”.

Eta 1944an, lehen aipatutako giro garratz harek leher zorian jarri duelarik Lagundiak ateratzen da eta Guatemalara doa. Hamaika aldiz galdetu nion lokini irtetearen arrazoiak baina bere erantzunak ez zuen gunera jotzen. Adarretatik ibili nahi izan balu bezala “nere arrazoiak banituen” erantzuten zuen. Hitz horietatik atera zitekeenez, lokinek ez zuen Konpainia uztearen zioa azaldu nahi... nondik nora joan zitekeen asma genezakeen arren.

Iokinen zenbait laguni ere galdera berbera luzatu nien; kasu batzuetan ixilpena jaso nuen; beste batzuetan, berriz, gure susmoak baieztatzen zituzten hitzak:

“Ez dakit ezer horretaz... baina ziurtasun osoz zera esan dezaket: Zaitegik beti gizonki jokatu zuen. Erlijioso eta langile izan zen. Problemaren erroa, ordea, Nagusigoa osatzen zuten zenbait pertsonaiarengan bilatu beharko genuke.”

Adierazpen hori, egn haietan lokinekin bizi zen Aita Arriolarena da.

Lagundia ala Herria. Eta Zaitegik herrigintzan ziharduen (nahi zuen ihardun) su eta gar.

Guatemalako Arellano artzapezpikuak beso zabalik hartu zuen, sakelean Euskadiko pasaportearen zeraman arrasatear harroa.

Gertaera adierazgarri bat ematen da Iokin Guatemalara ailegatzean: 1944an heltzen da eta pasaportearen euskaraz idatzita dago. Atzerriko

Harremanetarako Ministeritzan nahaspila sortzen da, han ez baitago inor pasaporte haren dioena ulertzeko. Sartzen uzten dute baina pasaportearen lehen baitlehen alda dezala erregutzen diote, espainiarra hartu behar zuela gomendioaz. Behin eta berriz deitzen dute Ministeritzara bere egoera erregularizatu ote duen ala ez jakiteko. Baina lokinek ezetz, berak ez zuen Aberria salgai.

Azkenik, Guatemalako Lehendakariak —Jorge Ubico general diktadorea— bere bulegora deitu zuen Zaitegi. Eta bien arteko elkarrizketa hartatik lokinen jarrera garaile irten zen, edozein Zaldun Ibiltariri dagokion zintzotasun eta bitxitasunari esker. Euskadiko pasaporteak, beraz, indarrean jarraituko zuen.

Aurrerantzean Guatemalara heltzen zen edozein euskaldunek —baldin eta lan, etxe edota beste edozer arazo bazuen— Zaitegirengana jotzen zuen. Zaitegi “ahaltsuak”, Presidentziako jauregira berezko eskubidez sartzen zena, guztien problemak konpontzen saiatzen zen.

Guatemalara ailegatu eta berehala, mundu osoan ospetsu egin den San Karlos Unibertsitatean hasi zen heladera eta latera ematen. 1976an, Platonen elkarrizketa batzu argitaratu berriak zituela, filosofo horren lana euskaratzeko zergatikakoa eskatu nion lokini. Hauxe bere erantzuna:

“San Karlos Unibertsitatean klasikoak ematen aritu nintzen eta Homero, Pindar, Sopokel, Platon eta besteren gorabeherak irakasteko aukera ukan nuen. Eta gauza batez konturatu nintzen: heladerazko idazleen artean ere alde handia dago, bata bestearengandik. Orduan planteatu nuen handik aurrera izango zen nire bidea: Platonekin hasiko naiz.

Horrela, Parisa eskatu nituen heladerazko testuak eta zehatz mehatz aztertu nituen. Eta era horretaz etorri zitzaidan euskaraz lanean hasteko egokiera, berriro euskaraz idazteko”. Nolanahi ere, erabaki hori hartu aurretik argitaratuta zeuzkan euskaraturiko Longfellowen “Ebangeline” (Guatemala, 1945), “Sopokelen antzerkiak” (Mexiko,



1946) eta Zaitetik sortu eta itzulitako olerki bilduma bat, *"Goldaketan"* (Mexico, 1945).

Unibertsitatea uzten du "Instituto América" izeneko zuzentzeko eta 1950ean "Liceo Landibar" bataitzen duena eraikitzen du Zaitetik Guatemalako hiriburuan.

Liceoaren izena dela eta nahiko eztabaida sorterazten ditu Iokinek. Dirudienez, Rafael Landibar Guatemalako Pindarotzat daukate bertakoek, Landibar V-z idazten dutelarik. Iokinek, Landibarren aurrekoak nondik zetozen ikertu eta haien jaiotzeko eskutuan abizena B-z idatzita dagoela ikusi omen zuen. Beraz, bere ikastetxe berriari eman zion izenak B zeraman V-ren orde.

Aurreko gertaera horrek ere ongi mugatzen digu Zaitegiren izakera berezia. Arrasateko bere lagunek,

betidanik "terko xamarra" izan zela esaten dute, "horretan amaren antza" zuela erantsiz.

1950ean eman zion hasiera Iokinek, beharbada sekula esku artean izan zuen ekintzarik garrantzitsuenari. *"Euzko Gogoa"*-ren sorkundeari nagokio, noski.

Gerrak lur jota utzia zuen euskal literaturgintza eta arrisku bizian aurki zitekeela konturatu zen Zaitegi. Aupada ikaragarria eskaini behar zitzaion hilgo ez bazen. Gerra aurreko idazleek moztuta zeukaten euren ibilbidea; etena soka. Berriek, ordea, ez zuten ezer argitaratzeko aukerarik. Eta etenak, Iokinen ustez, antzutasuna ekar zezakeen. Zerbait egin behar zen.

“Zer izan da “*Euzko Gogoa*” zure bizitzan?” galdetu nion Iokini behin:

“*Euzko Gogoa*” 1950ean sortu nuen Guatemalan. Ez zegoen ezertxo ere aldizkaririk euskaraz. Ni aspertuta nengoen, egia esateko, erderazko aldizkariak irakurtzeaz. Hasi nintzen, beraz, deadarka handik eta idazle askok erantzun zuen. Gutxi gora behera ba dira ehun eta hogeit, mundu guziko euskaldunak erantzun zutenak. Olerkari, idazle... eta ez zedukan inork ere eragozpenik. Ni horretan oso bekoki zabaleko gizona izan naiz. Neri inork, ez dut uste, esan ahal izango didanik bekoki estuko gizona izan naizenik.

Euzko Gogoa-tik igaro diren idazleen numeroa haundia da: Andima, “Orixe”, Nemesio Etxaniz, Urruzola, Onaindia... Krutwig, Jon Mirande, Aresti, San Martin... Hau da, idazle berri asko sortu zuen aldizkari harek.”

“Jakin” aldizkarian, 1980ko Urtarrila-Martxoaren 13an zenbakian, artikulu interesgarri bat azaldu zuen Joseba Intxaustik, “Hamar urteko lana” titulupean. Handik atera ditut ondoko datu hauek:

Euzko Gogoa urtez urte

Urtea	Inprima-unea	Non	Emanaldiak	Orrialdeak
1950	-	Guatemala	7	332
1951	Atzeratuz	«	6	324
1952	Urtebeteko atze.	«	6	252
1953	-	«	-	-
1954	Garaiz	«	5	210
1955	Atzeratuz	«	3	144
1956	Lau ale 1957ko			
	Martxoaz geroztik	Miarritze	6	720
1957	Atzeratuz	«	5	672
1958	Eguneratuz	«	4	708
1959	Atzeratuz: 1960ko			
	Uztailean hil zen	«	2	296
OROTARA				
	Guatemala	5 urtealdi		
	Miarritze	4 «	9	44
			44	3658

Gaien Portzentaiak

Sailak	%
Atarikoak	1'03
Aldizkarikoak	4'68
Literatura	57'48
<i>Olerkia</i>	10'70
<i>Kontakizunak</i>	12'02
<i>Antzerkia</i>	19'50
<i>Kritika</i>	15'26
Linguistika	14'43
Soziologia	4'15
Historia	5'86
Erlijioa	4'71
Arte Ederrak	1'59
Filosofia	3'35
Etnologia	1'47
Natur Zientziak	0'94
Psikologia	0'26
Beste	0'05

Azpimarratzekoa da nola *Euzko Gogoa* Literaturaren hildotik bideratu zen eta baita aldizkaria erlijio gaietatik nola aldendu zen. Alde horretatik, dudarik gabe, euskal kulturaren sekularizazioari ateak ideki zizkion *Euzko Gogoak*.

1950eko Ekainean “Orixe” iritsi zen Guatemalara, Zaitegiri laguntzeko asmotan. Dena den, Zaitegik bazuen “Orixe” hara eramateko beste helburu konkretuago bat: *Iliada* eta *Odisea* euskararazi nahi izan zizkion; “bazterrak arritu eta arrotu bear ditugu oraingoan” ziotsan Iokinek Andima Ibiñagabeitiari, asmo hura zela eta. Baina ez zen proiektua gauzatu. Bai, ordea, Zaitegiren lagun batzuen etxean—Finca Miramar—“Orixe”k *Agustin Gurenaren aitorkizunak* titulatu zuena.

Zaitegik berriz hartu behar izan zuen bere gain aldizkariaren zama guztia, 1954ko Apirilararte, orduan iritsi baitzizaion Zaitegik gehien estimatzen zuen adiskidea: Andima Ibiñagabeitia.

Zaitegiren paper artean aurkitu nuen zirriborro batetan honela irakurtzen da, ene ustez teoria oso

baten mugabetarik adirazgarrienetakoa dena:

“Boskarren urtean sartuko da E.G. Boskarren urtean lurbira zabalean daukagun euskerazko aldizkari bakarra. Aldizkari au sortu ta zuzendu duenak soilik dakizki zer nolako lan nekeak izan dituen ateratzeko. Ala ere, neke ta eragozpen guztiak bakarrik gainditu ditu, bakarrik, irakurle, euskaldun eta euskotar guztiak izotza baño otzago aren dei gartsuari erantzuteke zirautekarik.

Euskaldunak, ezin dezakegun luzaroago izozkeri ortan iraun. Zaitegik egin dei gartsuari erantzuteko ordu dugu. Garaia da, bai, aren inguruan gure Aberria maite dugun guztiok biltzeko. Ez dugu gure euskeraren eriotzaren laidoa burugainera nai, euskeraren eriotzak Aberriarena ere berakin batera ekarriko luke ta!

Euskera dugu gure izkera, euskera dugu Aberriaren urrezko giltza, euskerak gure erriaren kateak ere autsiko ditu. Ez dago beste biderik. Norbaitek auxe zion: “Tkurrin gabe, ereserki (himnu) gabe aberri antola diteke, ez ordea izkera gabe” Izkera da erriaren arima, izkera odola! Eta Euskadiren arima, Euskadiren odola euskera da, gure aberri-izkera.

Atzerritar iakintsu bat aurkitu genuen bein gure bidean. Gure izketa Euskadi'ren inguruko gertatu zen. Ez zuen ark geiegi ezagutzen gure aberria. Alako batean galdetu zidan: “eta nola ari dire euskaldunak beren izkerakiko? Alper xamar, yardetsi nion. Ark orduan: “zuek ez zerate erri osoa, erri ertuna baizik. Bere izkera yatorra lantzen ez duen erriak, ez du bizitzarik ere merezi”.

Euskaldunak: guk bizi nai dugu, erri oso ta bakar bat izan nai dugu. Ortarako euskera xuspertu, pizkortu nai dugu, eta alegin guztiak egiten ari da E.G. elburu ori iristeko. Aurrerantzean are lan garaigoak egin nahi lituzke gure aberri-izkera yasotzeko, goi mailalara eraikitzeko.

Aldizkariaren inguruan liburuak ere argitara nahi lituzke “E.G.-ren idaztiak”, alegia. Urtero bost edo sei idazti, gutxienez, burulan eta euskeraren aurrerapenari dagozkion gaietaz.

E.G.-k idazlerik bikañerak bere inguruan bildu ditu, euskal arloa lantzeko laguntasuna bear du bere

asmoak aurrera ateratzeko. Orra gure deiaren zergatia, ots, ortarako zuei laguntasun eske gatozkizue, bakoitzak aal dezakezuten neurrian.

Ukatuko ote diguzu euskotar maitea? Euskaldunok lurbira zabaleko erri guztiak baino kaxkarrago agertuko ote gera aberriaren gaizkabiderako darabilgun burruka gorri ontan? Guztion bearrizanean arkitzen da E.G, euskera eta Euskadiri berean eusteko. Beraz, ez du uste zuen laguntasuna ukatuko diozutenik.

Izkera baztertzen duen erria, ez da erria, eta euskera ukatzen duen abertzalea, ez da abertzale, Euskalerrriaren ondotzalea, baizik.

1955ean honako bidea hartzen du Iokinek. Liceo Landibar saldu eta aldizkariak ekarritako gastu guztiak ordaindu ondoren, 60.000 dolar zekartzan sakelean. Orain dela 35 urteko dolarrak!

“Las américas” eginda zetorren Zaitegi Guatemalatik. Baina bera ez zen ohiturazko indiano arrunt horietakoa. Poltsikoak beteta, zer hobeto Ertameriketean hasitako ekintzari jarraipena ematea baino?

Dena den, Zaitegiren erabakiaren atzetik beste arrazoi batzu ere bazirela uste dut. EAJ-k deituta ez ote zen etorriko pentsatzeko datu bat baino gehiago dago. Kontutan izan, urtebete beranduago Pariseko Euskal Kongresua dela eta bertan Iokinen irudia berrindartu egiten da. Bestalde, Euskadiko Gobernuak, Jose Antonio Agirre lehendakariaren proposamenez, aldizkariaren banako oso baten kosta bere gain hartzen du. Bestalde, Iokinen buruan aspalditik zebilen “euskal idazleen etxea”-ren asmoa aurrera atera ahal izateko Jaurlaritzak etxearen alogera ordaintzeko beste diru eskaini omen zion Zaitegiri. Baina usteak erdi ustel gertatu ei ziren oraingoan ere. Irakur, Zaitegik Andimari bialdutako eskutitzean zioena:

“Ezina danik oraindiño enizuke esan nai, baiña bai Guatemala'n argitaratzea eun bidar errezago zitzaigula emen baiño ta emengo ainitz ta agitz okerrean zirala gure lanari buruz. Oien esanetara makurtuaz etorri nintzan: zer egiteko? Eztakit,

naiz ta inor baiño zoliago ari izan bai elizagintariekin bai erriko nagusiekin.”

Hego Euskal Herrian berrargitaratzea ezina zaiola ikusirik, Miarrizera aldatu zuen egoitza. Lau urte iraun zuen Miarritzen, aldizkariak eta—noski—Zaitegiaren ondasunak porrot egin arte. Betiko leloa: dirulaguntzarik eza. Gaurregun euskal prentsa eta, orohar, argitalpenak nola dabilizan ikusita, atera kontua nola ibiliko zen orain dela hogetamar urte... hego Euskadin aldizkaria debekatuta zegoela kontutan hartzen badugu. “Gaueko lanez” edo kontrabandoz baliatzen zen Iokin, aldizkaria hegoko irakurleei iristerazteko. Antonio Maria Labayen, Yon Etxaide, Jaime Kerexeta... ziren sare sekretuko kide batzu.

Baina, noski, horrela ez zegoen aurrera ateratzerik. 1960ko Uztailean, 1959ko data zeraman aleaz erditzeaz hil zen E.G. Lau urte eman ditu “etxean” Zaitegik eta zorrak janda aurkitzen da. Euskal Kixoteak bere “Rocinante” bera ere galdu du.

Egoera larri horretaz jabeturik, Guatemalaiko zenbait lagunek 2000 dolar bialtzen dizkiote Iokini, hemengo zorrak eta harako bidai-txartela ordaintzeko. 1961eko hasieran gaude.

Aldegin aurretik, beste liburu pare bat utzi zuen argitaratuta. Lehen aipatutako “*Bidalien Eginak*” (Zarautz, 1955) eta “*Sopokelen antzerkiak*” Igin zatia (Baiona, 1958). Irakorlan beste bat dauka, azken urteetan gogoz borobildua: “*Platon-eneko atarian*”; Aita Lafittek hitzaurre dotorea egiten dio, lehen lerroaldian honela irakurtzen dugularik:

“Zaitegi adixkide jaun apezaren liburuari aintzin-solasa emaitokotan, batere gezurrik gabe erran nezakeen zehar-nabar, zenbatetaraino miresten dutan lan ospetsu hori: gorets nezakeen haren jakitate zabal-sakona, haren eskuara jori, nasai, ederra, haren ausartze harrigarria holako sail berri bati lotzeko: aitor nezakeen eskuarak ez duela behin ere erabili orai artean hain ekai gora eta zailik, eta gutik uste izan dutela gure mintzaira on zitakeela kukulu hortarat, eta hedadura hortarat

heltzeko: nola ez erakuts sort-herriak Zaitegi jaunari dion zor handia eta zertarako ez errepika: Gora zu, adixkide, eta denon partez, eskerrak milaka.”

Heldu da ostera Zaitegi Guatemala. Zergaitik joan zaigu hain urrun, bere lagunak, sendia (ama zaharra) hemen utzirik?

“Nere bizibidea Guatemalan neukan” erantzun zion Iokinek nere galdera horri. Ez dugu lehen esan baina komenigarri da jakitea guatemaltar hiritarra zenik. Guatemalaiko lehen egonaldian nazionalitate hori eskuratua baitzeukan.

Hala eta guztiz ere, erantzun horren atzetik bazegoen beste zio pisutsuagorik. Zaitegi, bizitza osoan, euskera eta euskal kulturaren aldeko ihardunketan aritua zen. Berak uste zuen—Jainkoak nahi ta— bere bizitzaren helburua euskararen alde lan egitea zela. Horretan, josulagunen banderetan aurkitzen den oihu-hots-bizi hura “Ad Maiorem Dei Gloriam” bere eslogana bihurtua, euskalgintzan arituko zen: bere kemena, bere ardura iraunkorra, bere jasan-behar izugarriak, guztiak, ontzat zituen tontor hartara heltzeko.


Baina gizarteak, euskal gizarteak, ez zion berak itxaroten zuen bezala erantzun. Eta, nolabait, bere Herriarenganako fedea galdu zuen.

Eta han, Guatemalaiko inditarren artean, aurkitu zuen bere gogoak behar zuen atsedena. Hango jende xehearekin, nekazariekin, lan egin zuen gogoz. San Martin de Jilotepeque herrixkan esker oneko omenaldi bero bero egin zitzaion behin betiko honako bidea berhartu zuenean.

Eta inditarren artean bereskuratutako orekaz lagundurik eta hango gotzai aren eskariari jaramonik eginez, gelditzen zaizkion urteetan esku artean izango duen lanari berekiten dio: San Karlos Unibertsitatean hasitako Platonen elkarhizketak euskaratzeari.

1976an kaleratuko duen “Platon I” liburuan, bere buruari galdetzen dio Iokinek: “Norentzat ari ote naiz idazten?”, ihardespina honako hau izanik:

“Ikastola nagusirako liburuak” du izentzat sail honek. Filosofia eta Letrak deritzan ikaskizunetan



Platon ere azterten dute euskal ikasleek: orain arte, berriz, erderaz eta frantsesez. Noizbait ikasleak euskeraz ere aztertzen hasiko dira.”

1973ko Abenduaren 28an Euskaltzaindiak Donostian izandako batzarrera azaldu zen, Platonen elkarrizketei buruzko planteamendu luze bat egiteko. Egun hartan Zaitetik irakurritako txostenetik atera ditut ondoko zatiak:

“Zer dela-ta aukeratu dudan Platon galdetuko balit norbaitek, auxe erantzungo niok: bearrak ortaratu ninduela, alegia. Guatemalako San Karlos Ikastola Nagusiak eladera irakasteko dei egin zidanean, eladerarik etzekitenei irakasteko zein idazle aukeratu? Gaztetan guk Esofo-ren alegiak itzultzen asi ginen. Etzitzaidan eder irizten Ikastola Nagusian Esofogandik asterik. Gogoan nituen

Xenofonte eta Platon, Loiolan erabili nituen eladerazko idazleak. Unibertsidade bertan Filosofi-saila ere zenez gero. Platon egokiagotzat io nuen.

...Platon euskeratzeko eladera eta euskera iakin bear ditugu, nolabaiteko neurrian beinik-bein. Menendez Pelayok dioenez, urte handitan eta oraindik ere erri askotan beinik-bein, erderaz irakurtzen diren Platonen itzulpenak eladerarik etzekien Azkaratek eginak izan ziren, frantsesetik itzuli eta kitto.

... Eladerazkoa (testua) Frantziako Ikastola Nagusiak onartu eta Guillaume Budé elkarteak argitarazia erabiltzen dut.

...Ta zer-nolako euskera ote darabilt Platon euskeratzekoan? Neuk dakidantxoa ta kito. Ezpaitaukagu oraindik guztiontzat euskera batua

daitekenik: ekinaren ekinez zerbaitetara el gaitzke, ori geure aukeran dago-ta.

...Teknikazko itz gutxi darabil Platon-ek alabearrik: orrelakoetan daudenen daudenean uzten ditut geien bat eta orretan adierazi oi dut aien esan-naia.

Esanaldi laburra dadinetan erraz ematen da euskeraz, ez baina esanaldia luzetan dabilenetan. Alare, egin-aalak egiten ditut esanaldi luzea ere dagoenez ematen, euskera geiegi biurritu gabe aal dadinean. Besterik ezinean, orrelakoetan bi, naiz iru esanalditan, naiz geiagotan eman bearra izaten dut. Platon-i aalik eta zeatzenik lotuta”.

“Platon VI” liburuari Juan San Martinek egin zion hitzaurrea eta bertan honela dio, Zaitegiren lanari buruz:

“Zaitegi zenak, antzinako greziarren era-ra gauzak zehatz aztertze-ko ikertzaile grina zeraman bere baitan, fantasiari leku guti emanaz. Horregatik, bere itzulpenok berebiziko zehaztasunez ematen ditu. Euskera edukinez hornitzea nahiago zuen, hizkuntzaren jatorriaz ametsezko bitxikerietan murgiltzea baino.”

Ondoko laukian, Platonen elkarrizketez osaturiko liburuen aipamena egiten dut:

Titulua	Elkarrizketak	Urtea
Platon I	Oturuntza-Protagora-Menon	1975
Platon II	Gorgia	1977
Platon III	Eutifron eta Sokrateren apologia	1978
Platon IV	Kriton-Faidon	1978
Platon V	Ipia Txikia-Alkibiada	1979
Platon VI	Karmina-Ipia Nagusia-Laka-Lisi (azken hau Euskaltzaindiaren gidaritzapean)	1989

1962an “*Berriz ere Goldaketan*” izeneko bigarren olerki-liburua argitaratzen du Guatemalan, denetarik eritziak jasotzen dituelarik.

1972an behin betiko etxeratzen da. Eta Arrasateko bere etxean Platonen itzulpenei eskaini zien bere denbora osoa. Ama hil zaio eta

bakardaderik gorrienean ematen ditu zenbait urte, Oinatiko Zaharren Egoitzara doan arte.

1976ko Abenduaren 19an seme kuttuna izendatzen dute Arrasaten eta 1977ko Otsailean Euskaltzaindiak, berriz, euskaltzain ohorezko (urgazle 1950tik zen).

1979ko Abuztuaren 17an, Donostiako ospitalean hil zen.

Zaitegik andregaitzat euskara hartu zuela dio “Orixe”k. Horrela baldin bada —eta egia delakoan naukazue— Zaitegik ez zuela zintzo jokatu pentsatu behar dut, nik beste andregai bat ere ezagutu bainion: Aberria.


Gazteen amodioz maite izan zuen Iokinek beti bere Aberria. Eta, maitaleekin gertatu ohi den bezala, berari ere maitasuna negarra bihurtu zitzaion.

Euskara-andregai-az baliatu zen Aberri-andregaiarengana hurbiltze-ko. Baina azken horrek ez zion neurri berdinez ordaindu, sarri erarik itzelean mespretxatu zuen baizik.

Nolanahi ere, Zaitegik bazekien nondik nora joan nahi zuen. Eta bazekien bere Aberria, diruginerako aurreratua izan arren ikas-gaietarako atzeratua zena. Bazekien, mailaz maila oinarrizko ikastolatik Ikastola Nagusiraino iristen dela eta Euskadi umezurtz aurkitzen zela, inongo laguntzarik iristen ez zitzaiolarik. Eta bazekien belaunaldi berriak etorriko zirena, agian bere garaikoe-
k lortu ez zutenaz jabetuko zirenak: euskararekiko maitasunaren bidez Aberriarena ere loratzea. Zaitegik berak zioen legez:

“Herri bezala nahi baldin badugu iraun, euskara garbia nahiz euskara jatorra, nahiz euskara zatarra... nahi duzuna, baina euskaraz”

EDUARDO GIL BERA



*Mirande,
arrotzaren arima*

Orain denbora asko ez dela, Parisen, eta Miranderi buruzko lekukotasun berrin bila nintzelarik, hango lagun batek, jakinki zeintzuen artean egiten nuen nere ikerketa, arras txunditua galdegin zidan: «Baina, ba ote dira euskaldun atzerakoirik? Nik uste nian ezker muturrekoak zirela denak...» Aspaldixko dela baina, bereziki, joan den mendetik eta berriki arte arrontik kontrarioa genuen topikoa: euskaldun = fededun = erraktzionario = katoliku hertsia. Eta hori baino lehenagoko mendeetan, kontrarioa berriz ere: erlijiorik gabea, basa eta iluna. Areago ere, topiko haietariko batzu garaikideak izan dira prolema handirik gabe: Villalobosek euskal mendietan batere erlijiorik gabe bizitzen zela zioenean, Loiolako Iñaziok fundatzen zuen bere Konpainia.

Tikiak izan eta ere, sonatuxeak izandu gara; izan ere, euskal herriak eta euskal izakerak definizio ausarki izan dute; eta, ilaje askotakoak bagara ere, badirudi itxura berekoak ikusi eta ikusten gaituztela, planta bakarrekoa.

Alabainan, definitzaile guzien kontra, salbuespenen herria gara gu. Eta azken hondarraraino ere: ez bide da izan euskaldun nabarmenik bere antipoda izandu ez duenik: Loiolako Inazio, katolizismo agonizantea berpiztu eta birrasmatu zuena euskalduna bazen, euskal odolekoa zen ere Alejandro VI.a, inoiz izan den paparik jentilena, bere buruaz kristaua ez zela aitortzera ailegatu zen papa bakarra, egiazko katolizismo hura bere gailurrera eraman zuen aita saildua. Eta euskaldunak baziren ere Fernando Katoliku eta bere giputxei kontra egin zieten erronkariarrak, haiek bezainbat zen Pedro Gardekoa, 1512an, Nafarroa konkistatzen zen urtean berean, Italian eta Afrikan, Fernando Katolikuaren alde borrokatzen zuen *condottiero* famatua.

Egiazki, munduan ez dugu parerik. Salbuespena izatea normala izan beharko zen herri honetan, deusen eskasean ere ez egoteagatik, inon baino puskaz ere salbuespen akatzaile sutsu gehiago badugu. Miranderen salbuespenari bagagozkio behinik behin aski nabarmena izanen zaigu.

«Erbestea» epigrafepean aritzen gara gaur eta epigrafe hori inor gutiri dagokio Miranderi bezain ongi, inor guti izandu baita hemen hura bezain arrotz eta kanpotar. Haren arrotzasuna ez datza bere ideologian; azkeneko hau, preseski, eskaparateko Mirande arruntatuaren etiketan irakurtzen ahal dena baita. Lotpide ederra izan da «ideologia» bakarren batek espantutan bere mandarrarekin tarrat egiteko eta behar den gisan Mirande normaltzeko eta kondenatzeko. Zertan arrotz, orduan? Ba omen zen, zernahiren gainetik, gauza bat Miranderen arrebak inola ere konprenitzen ezta onartzen ahal ez zuena: zertako idazten zuen. Hori ez omen zitzaion inondik ere kaskoan sartzen; ez ote da funtzionarioa? ez ote du ofizio plantakorik? Orduan, arren, zertako egiten du hori? Hondarrean pentsatu bide zuen idaztearena

bizio itsusi inpresentableren bat zela. Etiketa moldariak arrebarekin daude ados, arrontik; salbu eta polikiago baitakite gauzak esplikatzen, horretarako dira letratuak gero. Gauza ezaguna da hemen ezen berez bere eta motibu zehatzik gabe ez dela idazten, hori ez da posible, sekula ikusi ez dena da hori; horregatik bada, kausitu egin da bizio horren nondik-norakoa, erran nahi baita: idaztea ez dela berezko bizioa, sintoma eta ondorioa baizik. Eta halaxe da kontua: nola hemendik urrun sortu eta ibiltzen baitzen, jendaje eta izkirio bitxi, gaizto, zikin batzuekin topo egin zen; eta hortxe kutsatu zen itsuski.

Nola konpreni Mirandek ibilitako terrenua, ez baita konprenitu behar den zerik? Baina hemen gauza guziak egin behar dira konprenitu. Hortxe aritzen da hemen, bulka eta tira, dena eta ez dena konprenitu eta esplikatzen nahiean. Eta hori da, juxtuki ere, orduko eta oraingo euskal letratuak Mirandegandik urruntzen dituen. Hark, ordea, nahiago zuen gauzen senditzea: *Adimena baino gorago ezartzen dut ametsa* —zioen—, *arimaren errainu eta deia baita*. Harentzat adimenak moteltzen zituen bizi sendimenduak. Hemengo akademikeria agorrak, aldiz, badu ausartzia eta jakinezik aski eta abasto poeta mistiko baten sortze eta moldaketa esplikatzen. Bego hor.

Bada bideaz landan eta amildegi bazterrean inorena ez den tarterik franko; normala da hor kuraje eskas izatea. Baina badira, horregatik ere, aurrera jotzen duten lagunik; ez dute, hala ere, ilusio berezirik halako pausoetan. Justuki zentzumenaren alditxartze horretan sortzen ahal da tentsio poetikoaren zentzumen; esperorik ezean, hartzerik ez dagoenean hartu nahiean, hortxe.

Arestik zerbait handi, zerbait goien ikusten du poesian: harentzat poetak mandatu bat ba omen du, jendeari esan beharr. Niretzat, berriz, poesia joku bat da, hitz joku bat: ez da serioskiegi hartu behar. Ez serioskiegi eta ez seriooki ere. Nondik heldu da poesia gauza serioa delako sinesmena? Poesia zerbaiterako ona eta probetxosua dela pentsatzen dutenek asmatu eta predikatu hori, hauetariko askok

ere beren buruari poetaren izenarekin berorrika agurtzen diote. Gizartearen interesaren aldetik erabat soberan da poesia, hura baino altaboz hobeak baitira. Poeta memoriaren erreinuko mezulari da, baina erreinu horren luze-zabala ez da bere burua bainoagoa; edozein ekintza klasek, bizitza praktikaren hobekitzearekin lotua bada, ez du harekin ikuskizunik batere. Eta ez da aski arte hori errespetatu beharretik libratzea, zernahi baino lehen poetak berak ikasi behar du bere burua ezinbertzean ikusten, ez harako ez honako, hor,

*Ikusten duzu goizean
argia hasten denean,
menditto baten gainean...*

«Menditto» hori kontsideratzen duen bezal-bezalaxe bere burua kontsideratzen dakien kantariak izanen du edozertara otzeko kurajea, zernahi errateko ausartzia; kantua bera izanen da gauza natural bat, alegia, neurri guzietatik landan. Ez du batere inportik kantua konprenigarria den, eta are axola gutiago haren gain mandeuli esplikalariek eginiko asotsak.

Miranderen baitan, igual da baldin eta ixtanteren batez berak uste izandu bazuen bere buruaz kanpoko zerbaiten mezularia zela, inork baino hobeki bazekin amtes urdin ñabar horien predikatzeak ez zuela bere barne joerarekiko ikuskizunik. Euskal letretan agertzeko manera hori ezin arraroagoa izan behar zen. Orain berean, ez litzateke normalagoa izanen.

Eta gero denbora; ez dago, haren baitan, hori baino ezaugarri nabarmenagorik. Denbora mirandiarra espeziala da, hagitz. Azken zerean, Mirande epigono bat genuen, baina zeinen edota zeren epigonoa? Zer bindikatzen zuen? Zeini nahi zion mendekatu? Iduri du aspaldi atzendutako laidoren bat desehortzi nahi zigula. Zein zen haren iragan kuttun eta mingarria? Erdi Aroa? Prinioak gainditu eta Garonaraino konkistatu eta xehatu genuen denbora? Gutitasun konplexurik gabe ginen denbora? Jende plantako eta gogorra, kristaukeri pikorrik gabe ginenekoa? Ez, ez. Alferrik eta debalde genuke iragan mirandiar horren planta eta itxura zehaztu nahi izatea; iragan-min horren markarik

ageriena bere konkreziorik eza da, hain juxtuki ere. Miranderen iragana ez zen iragan, ez dago atzean, gibeléan, lehenean, ez da pasatu, ez da pasako; inguruz inguru dago, aldi guziak tapatzen eta haiekin nahastekatzen. Sortu, itxuratu, senditu eta luzatu egiten baita gogo bakar baten barrenean; ez dago inora begira bertze gisatako begiak baititu, barne begiak, arimarenak. Eta arima, Mirandek errana, ez dugu mundu honetakoa, ez da hemengo.

*Gelatxo zuri garbian
neska dago
ilhe gorriak orrazten,
ilheok ilhun-nabarrez
gorriago.*

Hori, non? Noiz? Agertzen da, itxuraren itxuraz, zaldizko bat,

*Ni naun zaldiz ethorririk
amore-zun
hurrundikan, hain hurrundik...!*

Horrek iduri du behialako eszena izaten ahal dela. Eta, zer gehiago? Antsia eta segurtasunik eza, laino xerrenda geldia iduri,

*Gau bethearen erdian
bera dago,
gau-itzalaren bildurrez
haren begi zabal biok
zabalago...*

Hondarreko batez, betian betiko, gauzatu ezta ixuratu ez den iragana, beti gertakizun borrotsutik zintzilik, beti hemen eta inon ez.

Denbora mirandiarra ez doa, ez dator, ez dago; inguratzen gaituelarik, ez gaitu sostengatzen; hura geldi dagoelarik, ez gara hartatik pasatzen. Halako maneran, Mirandek zernahi gisatako minak itxuratu zizkigun: *herri-min, elur-min, ezin-min, ilargi-min*. Mina minkorra eta minbera, bai alafede, berea, inondik inon ezin pausaturikoa; inola ezta inora ere inoratu ezinean.

Bere lehenetariko poema batez galdegin zuen ea

Eguberri On izatea posible zen norbaitentzat baldin eta harendako «minutu batek hirurogei segundu eta segundu batek askoz ere gehiago badiraute». «Haur besoetako»aren protagonistak bertze horrenbertze espero egin behar du Theresarengana joateko: *Minuta bakoitzeko irur-ogei sekonta iguriki behar, sekonta bakoitzeko, ordea, askoz luzarago!*

Inoratu ezinean, denbora sakontzen eta hondoratzen da gogoaren beraren barrenean. eta luzadura izigarri horrek erran nahi du denborarik eza; eternitatea desirio eta irrika berean iraunez. Halako trantze hartan, esperantza deusik pozointsuena da, engainu latza:

*Ai! goragotik etorri haizeek
ailezate jo ene landetan
et' eiharraraz «itxaropena»
izena duen zital-lili haur!*

Horretaz bada, Gazteen Lurra, «Haur Besoetakoa»n agerturiko mitoa, atsedeen-leku loreduna da, ugarte dohatsua, kristalezko sagarrondoetako zelaia, lur prometatua eta etorkizun desiratua, baina halaber ere herri-min guzien jaioterria, egiazko iragan bakarra, arimaren sorleku goxoa. Halaxe baita ere memoriaren hastapen eta amaiera.


Euskal psikearen arketipoa, euskal sinesmen zaharretan erroztatzen dena, ez zigun ere xuxen-xuxen pintatu. Figura hori, egiazko euskal psikearena, alegia, senditzeko manera aski berexi bati dagokio, ez da, beraz, «figura», baizik eta nor bakoitzak duen bere burua ikusteko manera. Herri batek izanen ditu bere jainkoak bere kera eta planta hartan dirauen artean; gogo nortasun kolektiboa eta beronen sinesmenak elkarri atxikiak ari dira. Lehengo jainkoenganako sinesmenik eza bere buruarenganako sinesmenik eza ber-bera da herri batendako. Izaten ahal da herri horrek bere burua bertze modu batez ikustea eta, hori dela bide, bere jainkeria aldatzea; baina izaten ahal da herri horrek ez dezala bere burua inola ikusi nahi ez baitu haintzakotzat hartzen; zertaz, haren iduriko, nortasuna norberia bilakatu baitzaio. Herri horrek

utzi egin dio bere buruaren bertsioaren etengabeko modaketari; bertze arrotz batzuegan abandonatu du eginbehar hori; gaugero, beraz, bere buruari arrotzu zaio; desegin da, arrotzekin nahastekaturik.

Aldiz aldi, Mirandek senditu zuen aldiko euskaldunek eta berak zuten elkarrenganako distantzia, euskaldunek nahiago zutela beren buruan interpretazioa erdal gogo eta ahoen bidez egitea, orduan erraten zuen herri honek ez zuela bizitzea merezi, eta arrazoia zuen osoki; soilik merezi du bizitzea edo, hobeki eta zehazkiago errateko, soilik bizi da bere buruaren bertsioa egiteko eta mantentzeko gauza dena. Gainerakoak ordezka bizi dira, hil egin dira berenak egin baino lehen.

Arimaren baitako sineslea izanki, haren tragedia izan zen ez zuela herri arimaren baitan inola ere sinesten ahal; herri arima baten sostengua desegin eta porroskatua baitzen arrontik. Sostengu hori izaten ahal zen, itxuraz behinik behin, lehengo sinesmenak, gaugero galduriko euskal mitologia, baina, gisa guziz, egiazko sostengua senditzeko manera zen, hor zen harendako euskal zera bera. Horretaz ere, senditzen zuen bere zorigaitzik larriena: euskaldun sortu izatea euskaldun izaten segitzen nahi ez dutenen artean. Eskolarik gabekoek beren gutigotasun konplexuagatik eta letratuek, gauza berorrexegatik hondarrean, denek nahigo dute diferentziatik aldegitia. Eginen nuke behin baino gehiagotan pentsatu zuela arrebak, euskarari utzi egitearekin, arrazoia zeukala. Euskal zeretan esperantza izateari dagokionez, baxterrez baxter ibili zen; itxaropen horrek, *zital lili* horrek, segi arazten zion euskal zerekiko atxikimenduan behin eta berriz pozoina eta gezurra zela ohartu eta ere: 1954an pentsatua zuen euskal letrei uztea, 1969an idazten zuen politikero frantses eta espainolekin erlazio frustratuei buruz: *Nik uste nuen adiskidearen izena merezi zutela. Zahartu eta ilusione-gabetu arren, beti tronpatzen gara...*

Hil ezkilak jo zizkigun maizki, eta ozenki ere. *Hiltzera doa gure herritasuna, eta ez gudukarien herio ohoragarriaz, endakatzeko herioaz baizik— ahalke izangarriagorik ez baita.*



Nola behar da hil?

*Ai neza gal bizia goiz batez
iskiludun, ixil eta zutik
guduan lurr zaharr honen maitez
mendietan etsaien eskutik
Ai nendi hil gazterikan, nihaur
ikurrinik et' ikurrik gabe
ezpainetan othoitzik ez, burhau
itzalik ez, baikorr ez herabe.
Ai nitza gal hats, arima, odol,
hiretako ene jainko eidol
zaharra lurr! mendi gudu baten
iguzkiek inguruz inguru,
nire soin haur, berriz sor haiduru
hiretan lo, garrez jo lezaten.*

Bere lehendabiziko poeman, 1947an eginiko
«Soneto»an, zioen bere kontsolamendurako:

Oetzat izango det biar buztin otza

Bere azkenekoan, «Sanguis Mrtyrum»ean,
hildakoekin ari da solasean, baina haiek ez diote
erantzuten:

*Zinez alpherrik hil zaretea?
Galdu zarete orozbat?
Ezin da... ezen zuen odola
date pagano hazi bat.*

Herio mirandiarra, zer gisatako herioa da?
Karantza aunitz baditu: aldiz nihilista, zenbaitetan

irrigarria, bertzetan engainosua, euforikoa, izigarria... baina, oroz gainetik, mistika.

Nork zezakeen idurika, asma ala sospetxa, alajainkoak, mistiko bat sortuko zitzaigula, zeini eta guri, noiz eta mende honetan? Adimena baino puskaz ere gehiago ametsa preziatzen duen laguna, arimaren baitako sineslea; gauza segurua da Mirandek ez zuela irri ezta negar egiten bertze euskaldunen maneran, arrotza moduan ibiltzen zen. Gauza bitxi eta arraroak erraten, adibidez, *Euskaltasun erromantiko baten alde* idazten zuenean: *Bada ordu gure ideologiaren iturburuak arrazionalismo hestu hortatik kanpoan bila ditzagun, gure Herriari buruz amets haundiak egitera ausart gaitezen, hitz batez, bada ordu arrazionalista adiemntzale izateko orde erromantiko izan gaitezen... Gogo arrazionalista mitozale bada, erromantikoa mistikazale da: mistikaren bidez heltzen da mundu irudiko honen atzean den egiazko Izateraino, hots, Arimaraino, eta hartan indar harturik; berriz ere inguratzen da munduari buruz, bainan ez gehiago haren jopu, baizik haren nagusi bezala, eta mundua moldaberritzen du bere ametsaren arabera. Geu euskal mistikoak izan gaitezen beraz, abertzale errealistek gure lepotik iseka egirik ere amets-egileak garelakoan.*

Mistika mirandiarrean, honako bizitza hau arimaren gaua baizik ez da, ametsa da hemengo baxter krudelak argitzen ahal dituen su bakarra, eta adimen errealistak —inoiz baino erralistagoak gara gaur, inoiz baino pobreagoak— itzaltzen du ametsaren su dudakorra.

Endakatzearen heriotza aztiatu zigun; eta endakatze horren markak aski ageriak zitzaizkion: *Alde batetik politikariaren legalismuak, bestetik euskaltzaleen folklorismuak, euskaltasun berri bat sortu digute azkenengo mende-erdi hontan (...)* Nork ez dakus, nork ez du somatzen hori gure endaren inākin edo karikatura bat baizik ez dela, eta eredutzat aurkezten diguten euskaldun gorputz sendo ta bihotz eztiā gure beherapenaren igali ustela dela?

Sekula erran zuen hemengo idazleen artean soilik

Barojarekin senditzen zuela gogo kidetasunaren bat. Barojak ere —bere moduz, hain segur— hatzemen zituen endakatze ezaugarri igualtsuak: «Altzateko Jaun» dramān, Urtzi-Thor adiokan ari da hasieratik akitu artio, gutaz despeditzen, halako jainko batendako hemen, gaurgero, ez bide dago bizitzerik. Euskal Herrian egon zen azkeneko aldiz, hil baino hilabete bat lehenago, Mirandek aurkitu zuen Sohūtako eliza gose greban zeuden kristaumarxistez betea, eta pentsatu bide zuen beretako hemen, gaurgero ere, ez zegoela bizitzerik: *Asperturik nago, zinez aldi huntan, Euskal Herriaz*. Hori etxek ziren euskaraz idatzirik azken hitzak. Eta, halako gisan, arrotza lekutu zitzaigun.

Senditzen zuen ezen demokrata bat prest egon behar dela bere memoria birmoldatzera aldiko manamenduen arabera —nortasun ezaugarria da memoria, nor bakoitzaren kera, eta gainera, bera bezalako mistiko batendako, arima-mina eta deia—. Mirandek parabolān ezarriko zorioneko herri saindu eta demokratikoak hondarrean desterratzen ditu libre pentsatzaileak eta bertze pentsatzaile guziak, horrela, libertatean eta birtutean ere bizi ziren euskaldunak, harik eta gau batez, gudari mugazainak hil eta guziek Ameriketarat ihes egin arte... Usnkatzen zuen, apika, demokraziaren lelopean fundamentalismo estultokratikoaren urrina: *Nere ametsa hauxe da: egun batez Euzkadi izan dadin lurreko herrialde argituenetarik bat Iphar Europako erresuma zenbait diren bezala (gogoan ditut Holanda, Dinamarka, Finlandia).*

Oroz gain, idazle izatera deliberatu zen eta, horretaz beraz, beti eginahalean aritzen zen bere idazkerari planta ematen, bere mintzaira partikularra berezitzuz; ongi idazteak eskatzen duen senezko tentsioari eusten zion finki. Horregatik ere, ez zait iduritzen hirugarren bide bat zabaldu zuenik, edo ez, bederen, Arestik zioen moduan. Oinak frinkatu zituen bere nahikeria eta ibilerari komeni tokietan, eta ez zuen biderik markatu edota eskolarik egin; inoren bideari ez baitzen lotu ez dezagun pentsa bertze bat asmatu nahi zuenik. Bere usadiorako euskalkiā itxuratu zuen —euskalkia literatur

zentzuan ez bertzerik— baita benazko idazlearen zera printzipala. Halako lanean gogoratzen zaidan aintzindaririk garbiena Oihenarte da. Mirande egiazko ibiltaria genuen, halakoek berdin jotzen dute landaz landa edo eseri egiten dira hiriko izkinetan; abiatzen dira abiatze hutsagatik, abiapuntua edota norabidea ez zaie oztipoa iduritzen; bereizten dute beren destinua eta horrek ematen die ibilera bakar eta diferente hori, eskola edo jarraitunen baitan ez dute batere pentsatzen.

Hondarrekoan, behar bada, salbuespenen herria izatetik kulpableen herria izatera pasa egin gara. «Culpa per capita» altu xamarra dugu hemen, altuegia ere, ene iduriko. Gratuitatea ez da, inondik inora, onartzen eta, inon baino gutiago, literaturan. Horretan ere, diferentziak lastratzen gaitu pisu ahalkegarri batek bezala. Bada hemen halako lehia bat dena esplikatzeko, horren arraroak ez garela frogatzeko. Gure artean, gratuitatek den xokorik ttikiena ere ez du izan behar. Konpainia txarrak eta irakurpen txarragoak aipatuz, aski agudo ximpletu da Miranderen ideia makurren prolema: kulpableak agertu dira.

Poemak biltzen zituen lehendabiziko liburuaren sarreran honako euskal perla hau irakur zitekeen: *bizio bat omen zedukan «neskagaztezaletasuna»*. Halakorik edozein erdaraz ikusi izan banu, neurehala harrapatuko nukeen ironiaren keinua; ez nukeen pentsatuko bertzela idatz zitekeenik. Baina, ez. Euskaraz egonki, orobat da diferent. Delako «bizioa» hagitx zaharra da, denik zaharrena bezainbat; Joseba Sarrionaindiak eginiko *Haur Besoetakoa eta beste ninfula batzu* artikulua honenbat aldiz luzeago egin liteke ezin konta ahala adibidez horniturik. Baina afera da orain arte ez dela inon, non ez den kulpableen herri honetan, horrenbertze justifikaziorik izan behar. Eta justifikazioak kondena behar du, hortik sortzen da eta bere horretan elikatzen da. Azkeneko bolada honetan, metabolismoa aldaturik, kondenan bazkatzen da hemen; eginen nuke kondena beharrezko gauza bilakatu dela, horrela justifikatzen eta ederresten ahal du norberak bere burua.

Ez dut erran nahi Theresa hamaika urtetako

neskatiko izateak bere intentziorik eta motiburik ez duenik, badiot, aldiz, kulparen itzalak estaltzen eta desitxuratzen digula puntu hori, gehien-gehienak bezalaxe. Mirande bera ez zen horretatik eskapo. *Haur Besoetakoa* akitu berria zenean, honelaxe idazten zion Peilleni: *Aitzin-solas bat hasi dut, paidophiliaren edertarizona Euskaldun jendeari aurkheztekotz...* Beharrik ez baitzuen egin; baina bistan da kondena usnakatzen zuela, izan ere, aspaldiko partez, horixe da arnasten den hemengo aire honetan deusik nabarmena.

Alabainan, Miranderen iduriko, emazteki heldu baten mainak oraindik ez dakizkien neskatiokoak itxuratzen du errugabetasunik hunkigarriena. Horrek oroitarazten dio arimaren sorlekua, kulpak kutsatzen ez duen atsedean lekua. Psikologiazko obra bat, fede mistika baten garapena azaltzen duena. Egiazko mistikan, fedea ez da frogatzen; fede mistikoak eskatzen baitu itu-itsuan egin beharreko saltua, norberaren bulkada motibu esplikagarririk gabe. Ohargarria da ezen obraren barrena ez dela inolako frogarik agertzen; protagonistak badiu zernahi beldur, alegrantzia, euforia eta arregura ezin finkiagoa figuratuak, gure letretan inoiz ez bezala; baina, hondarrekoan, irakurleak, gelditu den pintore lekukoak bezalaxe, ez du izanen hasieran baino frogarik gehiago arimaren fedea besarkatzeko. Horregatik Mirandek idurikatzen duena fedea da, eta berorrexegatik ere mistika da.

Amaitzeko, aipatuko dizuet René de Clerq-en «Ez diteke normahi izan pagano» poemaren bukaera, Mirandek euskaraturik:

*Beste zeru denak gezur dira,
Beste zeru denak dira lilura;
Izartegi goi hau bakarrikan,
Baitakarzki izar aspaldikoak,
Loratzen da, ederrik, ni baitan.*

“Erbestea”



Martin Ugalde

Exilio hau 20 urtekoa da, 36ean hasi eta 56 arte. Noski, exilioa esateko aurrena esan behar da gerra bat sortu zela. Sortu zen, eta hiru olatu nagusietan atera zen herriatik kanpora. Lehenengoa Irundik izan zen. Irun irailaren 4ean uste dut erori zela eta bitarte horretan, bi edo hiru hilabete horietan zubitik hiru bat mila pertsona atera zen. Hori izan zen lehenengo olatua. Gero Donostia hartu eta Bilbo, hurrengo urtean, 1937an, ekainean, sartu zirenean frankistak 17an, gu (ni ere han nintzen eta) tartean atera ginen trenez, kamioiez, oinez, ahal genuen bezala Santanderrera. Hori izan zen berebizikoa. Denak ailegatu nahi nolabait ailegatu ginen hurrengo egunean Santanderko portura. Han zeuden ingeles barku batzu, han sartu eta egon ginen bi edo hiru egun. Bonbardeoak



etortzen ziren, eta mehatxuak. Berrogei edo berrogeitamar mila izan ginen handik atera ginenak, horrelako zer bait. Gero jendeak jarraitu zuen eta Asturiasetik atera zen beste hainbeste eta (ahaztu egin zait esatea Bilbo erori aurretik 24 mila haur atera zirela ontziz Europako herrietara). Martxoaren haseran beste olatua. Euskaldunak eta beste gainontzeko guztiekin atera ziren Pirineoetatik Frantziara. Ez dakit fidagarria edo ez baina, Eusko Jaurlaritzak esaten du berak dituen numeroekin 150.000 pertsona sartu edo atera egin zirela mugatik bi edo hiru urte horietan osorik. 150.000 pertsona euskaldun. Horrek esan nahi du jende asko zela irten zena, zeren eta Gipuzkoak eta Bizkaiak garai hartan zituen 850.000 biztanle. Proporzioa berebizikoa da. Hori bukatu eta batzuk abiatu ziren Amerika aldera. Barkuetan Burdeostik eta beste batzuk Marsellatik. Zergatik horrela? Ikusten zelako alemanak bazetoztela. Eta egia, bukatu zen Espainiako gerra, 39an martxoan, eta urte horretan bertan, irailaren lehenengoan, Alemaniak inbaditzen du Polonia eta sortzen da mundu gerra. Bukatu ziren ontziak eta bukatu ziren denak. Orduan, hor gertatzen dena da Alemania egon zela Espainiako bukatu zai beste golpea emateko. Eta batzuk suertea izan zuten eta Amerikaruntz atera ziren, baina beste batzuk geratu ziren han. Gauzak horrela, zer esango genuke dela exilioa literaturarentzat? Exilio asko daude. Bat, kanpora atera eta kanpoan pentsatuko gauza bat idatzi eta argitaratzen duena. Hori exilioko lana da, baina beste bat da, esate baterako, Orixerena. Orixek bukatua zuen bere “Euskaldunak” gerra aurretik. Bera ez zegoen seguru zer lan egiten ari zen eta sakabanatua zeukan lana. Eta hau gertatu zenean irten zen eta lanik gabe irten zen.

Eduardo Gil Bera

Beno, nik zeremonia ez dut sobera luzatuko. Nik erraten nuen Miranderen agerpena aski singularra izan dela, esan nahi dut antezedente gabea, literako hutsa bezala agertu baitzen, eta arrotz bezala ere bai. Haren manerak aski diferenteak direla, hemen nahiago ditugu gauzak konprenitu, harek berriz, nahiago zuen gauzak sentitu, eta gauza askotan ere horren arrotz suertatzen zaigu. Erraten nuen ere, nola salbuespenen herria izatetik kulpableen herria izatera pasa garen, nire idurirako, beno, hilaje askotako jendea izan dugu betiuanik baina azken bolada honetan kulpableen herria garelako uste dut, kulparen itzalak desitxuratzen baitigu gauza aunitz, eta bereziki Miranderen obra adibidez, aipatzen baita hitz bat, bizioa, Mirandek zuela bizio bat eta orduan esplikatzeko ohi da bizio hori zaharra den edo ez den, nondik heldu den, eta nola hori desitxuratzen digun, eta nola han gelditzen diren gauzak konprenitu beharrean eta kulpableak sentitzen garen eta hortik ez garelako pasatzen. Mirandek, berriz, egin zuen saltoa, literato oso bat bezala ikusten dut nik, bera ere kulparen itzalen azpian noizbait gelditu bazen ere.



Koldo Izagirre

Beno, nik ere esan dudana Martinen haritik dator, Telesforo Monzonen prosa lanak. Telesforo Monzonen lanak aunitzak dira, alegia, bariatuak, eta luze joko liguke dana zehazteak. Hala ere, uste dut literato bezala eta XX. mendeko literaturari horrelako astindu bat ez, baina behintzat begiratu ohartu bat eman nahi badiogu, uste dut ezinezkoa dela Telesforo Monzonek Eusko Alderdi Jeltzaileak zuen barne boletinean, klandestino beraz Estatu espainolean, argitaratu zituen lanak aztertzea. 1948an publikatzen du lehenen, beraz, *Euzko Gogoa* sortu baino urte bete eskasa lehenago, abenduan izan baitzen, eta muga jarriko genuke auzi monarkikoa, eztabaida gogor hura PNVren barruan pasa ondoren arte, 1960ean jarriko genuke nolabait. Hamaika urte horietan 40 bat argitaratu zituen euskaraz. Gero artikulu horietako batzu, *Euzko Gogoa* hasi zenean, kopiatzen ziren Telesfororen artikuluak. Horrek maila bat ematen digu. Alegia, *Euzko Gogoa* partiduko jendeak argitaratua zen baina literatura egin asmoz. Eta *Euzko Gogoa*, Martinek ondo dakien bezala eta adierazi duen bezala, gaur egun ezinezkoak diruditen kritikak azaltzen dira. Esate baterako, Orixe Krutwig-en kontra, eta Krutwig ere bertan. Gero beste puntu bat, Martinen haritik, harrigarria bada ere, *Euzko Gogoan* bertan, nik ez dakit ez den helbide faltsua izango, uste dut edo susmoa dut Zaitegiren arrebarena izango zela, Arrasateko helbide bat dator. *Euzko Gogoaren* aleetan bertan harpidedun izan nahi baduzu, halako eta halako tokian. Ifarraldean, Guatemalan, Argentinan eta gero Arrasateko helbide bat dator, Zaitegiren arrebarena izango zela pentsatzen dut. Telesfororen artikuluak direnez, hainbat gai aipatzen ditu eta luze joko luke danak aipatzeak, baina alde batetik euskara, euskal literatura, halako dibagazio sasifilosofiko batzu, autobiografia zati txikiak, alegia, memoria moduko pasarte batzu ere azpimarratzekoak dira, tipoak erretratatzeko eta anekdotak kontatzeko trebetasun handia du, alegia, baduela literatur sena eta narratzaile sena. Eta hori beti izan zuen eta bere oratorian ere, liriko hobeagoa eta finagoa agertzen digula, prosan libreagoa baita poesian baino. Eta beste alde batetik, literatur lanetaz ari garenez, azpimarratzekoa da bera Bergarakoa dela, beraz, gipuzkoar, baina hizkeraz bizkaitar; euskaldun berria, beraz, berritua, euskara txikitatik hartu eta kalean etab. bizkaiera hartu duena, Gipuzkoan euskaldundua eta gero betidanik etxean ifarraldean; ez herbesteratua, baizik errefuxiatua. Orduan, bere euskara sintesi bat da, lapurtera, gipuzkera eta Bergarako bizkaieraren halako sintesi elegante eta, esan genezake, bera zen bezalako aristokrata ere dela bere prosa. Baina ez inola ere kultista edo intelektualizantea. Bere postura anti-intelektuala da, ez irrazionala, eta berak “kultura media”-ko irakurle bati idazten dio. Nik uste dut Lizardik irakurle kultoago bati idazten diola, euskararen beraren zailtasunagatik. Lauxetak gauza berdina, ez horregatik, baizik eta sabinismoagatik, purismoagatik; eta aldiz,



Telesforok purismoa erabat erretxazatzen du eta beste euskara bat proposatzen digu. Nolabait esaldi borobil bat botatzearren, nik esango nuke Lizardi bizi izan balitz idatziko zituzkeen artikuluak utzi zizkigula Telesforok. Nahi baduzue, hiru adibide aipa genitzake bere prosaren ederra dastatzearren. Berriak, ez lehen aipatutakoak. Euskararen egoeraz, 1952an:

“Noski, Iholdi edo Armendarizeko baserritar batentzat ez da euskararen eguna sortzen ibili beharrik, urte osoan euskaraz pentsa, euskaraz senti, euskaraz bizi eta hiltzen dakitenez ez dute halako egunen beharrik (Gaia gaurkotasun handikoa da gure artean gaur egun ere). Baina Euskal Herri osoa ez baita Iholdi edo Armendariz, gure herriko seme guztiak ere ez laborari. Eta gure buruak alferrik gezurtatzen ez ibiltzekotan, hauxe aitortu beharra dugu: makilakada onak hartuak dituen zakur zapuztuak bezalaxe dihoakigula gure euskara gaixoa ere, gugandik ihesi. Bi egi ditugu honetaz aitortu beharrak eta hauxe da bat: behin ere ez dela gaur euskaraz egiten den bezain ongi mintza eta idatzi. Gaur bezalako bertsoak ez direla inoiz egin izan, ezta orain ikutu litezkeen gaiak, orain arte euskaraz erabil ahal izan ere. Irakurriak ditut egun hauetan antzerki berri bi, Sota Oxobik egina bat, Larzabalek bestea. Orain arte ez da euskaraz halako antzerkirik agertu. Santo Tomasetan Donostian eraturako sariketara heldu diren euskal lanek ere orainarteko muga guztiak hautsiak omen dituzte diotenez, eta idazle gazte gazteak nagusi irten. Beti gorakoan gaude beraz, baina baita behetik gorako negargarrienean ere, egunetik egunerat ari baitzaio gure herriari erdalkeria sartzan, eta ez dizkizuet Araba eta Nafarroan aspalditik gertatuak aipatuko. Hendaiatik hasi eta Getarirainoko itsas ertze honetan gertatuari so egitea aski duzue. Hola jarraitzekotan, laister duzue erdera Ezpeletako haurren haurrak hasiak zaizkigu mendi goienetan ere, euskara baztertu eta poliki poliki erdarara jotzen. Ba ote da gureherrian hau entzutez zainetaraino ikaratu eta goibelduko ez denik?”

Euskararen egoerari buruz ezezkor. Orduan, literaturzale eta halako saioak egiteaz gain, garaiko literatura ere aztertzen zuen eta oso jakinaren gainean zegoen. Arantzazuko Aita Mitxelenaren poema, non ikusiko duzuen Telesfororen umorearen adibide bat:

“Izigarria da gure, aspaldi honetako behintzat, harrokeria. Joan den igandean ere, euskaldun praile batek Lapurdiko eliza baten, erderaz egin zun hitzaldi hura entzun izan bazuten, eliza osoa kanpotiarrez bete zegolarik, gainera. Uda betean bait gaude, ajola gutxi hari. Zernahi esan zigun. Guk euskaldunok behar omen diogu munduari erakutsi “Le tipe d’homme parfait, de la femme parfaite”. Hartu usain ona eliza osoan, eta noski, andra gazte kanpotiar polit bati entzun behar izan nion elizatik irtetzean irrifarrez: “En tout cas, mes enfants, il ne faudra pas venir au Pays Basque cueillir de violets”. Hola jarraitzekotan irri araziko diogu azkenean auzoko astoari ere.”



Ironia eta kritika, eta gero, bai familiz, bai ordurarte —nahiz bizitzaren erdian egon—, halako bizimodu abenturero xamarra tokatu zitzaion bizitzea, bazuen anekdotario luze eta aberats bat, eta hartaz asko baliatzen zen, bazekien haiei literatur forma ematen anekdota hutsetatik adibide unibertsalak egiteko. Azken anekdota bat, nahi baduzue, eta bere aitona kontakutzen zion gauza bat Elissanbururi buruz:

“Elissanburu zena ehiztari amorratua omen zen, bai eta gure aita zena ere, biak ibiltzen zitzaizkizun beti, noiznahi, elkarrekin ehizian. Egun batez, goizean goizik Sarako beste lagun batzuekin atera ziran biok erbitara ta aintzinetik hauta lekurat heldu ziralarik, zakurrak askatu eta jarri zen ehiztari bakoitza bere tokian. Elissanburu eta gure aita etziran elkarrengandik urrundu, bakotxa isil isilik bere bide gurutzian so. Halako batez, urrun, hasi ziran zakurrak saingaka, eta zaunka, haiek erreka bidea hartu zutelarik, ehiztariak ari omen ziren beren baitan. To! Oraingo Elissanbururi datorkio erbia. Esan eta izan. Zakurrak amorru bizian karraxika zituela, ondotik, hurbil hurbiletik igaro omen zitzaion Elissanbururi erbia, baina tirorik ez. Non zen ba Elissanburu? Zerbait gerta ote zitzaion beldur, hurbildu omen zintzaizkion lagun guziak laisterka eta belarrean etzanda atxeman omen zuten gure Elissanburu paper puntta batean zerbait idazten ari zela. Nun hintzen gizona? Erbia ez duk ikusi? Eta Elissanburuk: Erbia? Bazen erbirik? Ez naiz ohartu ere. Eta xutiturik eman omen zien kantuz orduantxe sortua zuen olerkia, “Ikusten duzu goizean, eguna argitzen danean”. Olerkiaren adituz xoraturik, barkatu ere egin omen zioten Elissanbururi bere Sarako lagunek erbi ederraren ihesia”.

Eta horrelako hornidura apain eta historikoz azaltzen zaigu bere prosa guztia.

Patri Urkizu

Puntu bat argitu nahi nuke. Nik uste dut gaur badagoela ohitura bat, edo joera bat edo jaidura nagusi bat literaturaren autonomiaz hitzegiteko. Nik uste, ez Mirandek bakarrik, beste guztiek ere literatura egiten dutenean, badakitela zer egiten ari diren eta bereizten dituztela zenbait idaz mota, zenbait egiteko era, etab. Beraz, ez nuke esango, ez nintzateke ausartuko esatera bera dela lehenbizikoa literatura horrela sentitzen zuena. Eta areago esango nuke, beste gauza bat: bere abertzaletasunak, bere Euskal Herriarekiko maitasuna, sua, itzaltzen denean, piztua duen su hori, eta Andima Ibinagabeitiak piztu zion su hori itzaltzen zaionean, idazteari utzi egiten diola.

Eduardo Gil Bera

Aski da Norbert Tauer-i 54ean bidalitako kartak leitzea, 54ean erraten du



lehendabiziko aldiz Euzkadi, aberri eta hitz horiek artifizialak direla eta artifizialkeriak aipatzen dituztela. Eta pentsatzen du lehendabiziko aldiz euskaraz idazteari uztea, eta nik arestian esan dut pentsatzen nuela arrebari ere arrazoia ematen ziola euskarari utzi zuelakoz, ez?. Hori, 54ean, baina 59an egin zigan *Haur Besoetakoa*. Horrek erran nahi du segitu zuela.

Patri Urkizu

56an idazten hasten da *Haur Besoetakoa*. Gutun batean dio. Jon Mirandek Txomin Peillen-i. Baina etsituta dagoenean, fedea galtzen duenean, uzten dio idazteari, nik uste dut idaztea eta fedea idaztea eta abertzaletasuna loturik doazela...

Eduardo Gil Bera

Nik funtsean erran nahi nuen haren fedea mistikako fedea zela, bera mistikoa baitzen. Fede horri beti eusten zion eta eusten zion tensio berezi bati, eta ongi idazteak duen senezko tensio espezial bati. Nik ez dut ukatuko abertzale sentitzeak ikusterik ez zuenik, bistan da. Baina bai literato izateko manera horrek ez duela antezedenterik gure artean, hori bai, nik hala ikusten dut. Goizean erran dugu nola Arestik “Mirandek hirugarren bide bat zabaldu zigan”, edo horrelako zerbait erran zuen. Nik erran nahi dut haren idazteko manera zela ondorio bat, eta nahiz eta kezkatua zegoen bai batuari buruz, etab., haren estiloa zela ondorio bat, ez helburu bat. Eta berri bat urratu bazigun, hori “a posteriori” eginiko azterketa bat dela, eta ondorio bat, eta ez haren helburu bat. Hori da niretzat egiazko literato bat izatea. Gure artean bederen nik ez dut ezagutzen horrelakorik.

Entzule batek

Beharbada ez nago oso ados Patrik orain esan duenarekin, zeren nire ustez hemen hitzegiten ari da, bere idazteko senaz. Orduan, nahiz eta euskara utzi idazteko (Mirandek hizkuntza askotan idazten zuen), idazteko perezena beste hizkuntza batzutan jarraitu zitekeen berdin berdin. Eta hain zuzen ere, berak aipatzen du euskaldunekin nazkatuta dagoela eta, *Haur Besoetakoa* berridatziko duela ingelesezko background batekin. Orduan, nire ustez Jon Miranderen idazteko sen hori espresatzen zen hizkuntza desberdinetan, eta orduan zuk esaten duzu abertzaletasun hori itzaltzen denean, itzaltzen dela bestea, baina bestea ez da itzaltzen, baditu beste hizkuntza batzuk bere barrutik ateratzen. Eta beste alde batetik, kuriosidadeagatik, aipatuko zenituzke Mirande baino lehenagoko beste adibide horiek, ez dakit dauden ala ez dauden...



Patri Urkizu

Zergatik izan zen aparta Jon Mirande euskal literatur eta idazleen artean? Nik uste dut euskaldun fededun binomio hori puskatu zuelako, ordurarte bizirik eta tinko zegoen euskaldun fededun binomioa alegia. Baina bera baino lehenago, edo bere garaikide bezala, hor dugu Krutwig, eta lehenago ere badira beste zenbait Chaho, Baroja...

Eduardo Gil Bera

Nik gogoan nuen Etxaideri bidalitako gutunean nola erraten duen Arestik poesiari buruz erraten duena, eta berak pentsatzen duena, eta nola bereizten dituen bi joerak. Nola Arestik ikusten duen poesian zerbait handi, mezu bat, jendeari erran beharra etab. Eta nola berak erraten duen poesia hitz joku bat dela, ez dela serio skiegi hartu behar. hau sakonago egin liteke, baina nik uste dut literatura zer den eta ez den orain hasten bagara...

Patri Urkizu

Sakonki irakurri behar da behin eta berriro Andima Ibinagabeitiarekin *Olerkariarenean* deitu elkarrizketa. Hor uste dut aski garbi ikusten dela bere poetika literatura egiterakoan.

BIDE BERRIAK

4

HITZALDI
ETA MAHAI INGURUA



AURELIA
ARKOTXA

*Maldan-Beheraren
irakurketa baten
inguruan*

ELIXABETE PEREZ
GAZTELU


*Mitxelena:
euskara
noranahikotuz*

SANTI
ONAINDIA

*Euskal
literaturaren
pusketak, Bizkaian
batez ere*

JOSE
AZURMENDI

*Euskarazko saioa
XX. mendean*



AURELIA ARKOTXA
(Baigorri, 1953)

Bordeleko
Unibertsitateko irakaslea.

Arestiren poesiaz
doktoradutzako tesia
egina du eta **Maiatz-en**
idazten du.

...

ELIXABETE PEREZ
GAZTELU
(Erreñderia, 1961)

Deustuko Unibertsitateko
Irakaslea Donostiako
EUTG-ko egoitzan.

Luis Martin Santos-en
irakurketa (1990)
Erreñderia eta Kantua
(1990)

...

SANTI ONAINDIA
(Amoroto, 1909)

Larreako karmeldarren
komentuan bizi da.

Milla euskal olerki eder
(1945)
Olerki guztien bilduma
(1989)

...


JOXE AZURMENDI
(Zegama, 1941)

E.H.U.-ko irakaslea
Zorroagako egoitzan.

Manifestu atzeratua
eta
Schopenhauer,
Nietzsche, Spengler
Miranderen
pentsamenduan (1989)

...

AURELIA ARKOTXA



“Maldan behera” ren irakurketa baten inguruan

Arestik 1959ean Loramendi txapelketarako presentatu zuen *Maldan behera*, abantxu bi mila neurtitz dituen poema luzea. Poesian lehen saria Arestirentzat izanen zen eta bigarrena B. Gandiagarentzat, *Lelo xamurrak*-entzat.

Hastapenetik, liburuaren erranahi ugariak azpimarratu izan ziren eta ere zeukan aberastasuna. Denek dakiten bezalá, lehen ikerketa I. Sarasolari zor diogu *G. Arestiren Obra Guztiak, Poemak* liburuaren lehen tomoaren hitzaurrean irakur daitekeena. Lan kritiko horrekin Sarasolak lehenbiziko aldiz erakusten zuen *Maldan behera*-ren egitura formala eta bereziki poemaren mamian agertzen zen erritmo bikoitza B eta C, D eta E egituretako poemari artean. Baina maleruski, edizio horretan dugun *Maldan behera* hutsik beterik eta erdal itzulpen dudazkoarekin zagon.

Handik hiru urtetara, 1979-an beraz, J. Atienzak agertu zigun bere ikuspegia, *G. Aresti, Maldan behera, Harri eta Herri, edicion bilingüe* liburua delakoan, Madrilgo argitaletxe ezagun batean ateraia¹. Bigarren argitaldi honetan jatorrizko idatzkia hutsez beteak zegoen ere eta gainera erdal itzulpena J. Juaristiren abainak ere txarragoa zen. Bertzalde, jakina, J. Atienzak kritika literario zehatz batekin ez, ikuskerik duten ohar batzu ezartzen zituen bere "Chitzaurre" gisako presentaketan. Bere merezimendu bakarra izan zen azpimarratzea (batere frogarik ekarri gabe) *Maldan behera*-k bere barne-eremuan duen batasuna³. Gainerakoan, morfologia eta alfabetik, Sarasolaren ikerketa hartzen du puntu-puntu, deus berririk ekarri gabe. Azterketa seriotasun berriz, azalezkoa, seriotasun guttikoa eta alfabetikoa, jadanik erran dugunez.

Azpimarratzekoa liteke zen mugagarri den Aresti maite duten guztientzat, ikustea euskara ez dakitenek eta bereziki kanpoan bizi direnek, edizio kondenagarri hori dutela bakarrik liburategietan, beste hauturik gabe. Eta, egia erran, nor oroitzen ote da, erdaldunen artean, duela hamaika urte edizio horren inguruan hemen altxatu ziren polemiketaz? Erantzun genezake, nehor gutti.

Euskera-n, 1960ean agertu zen *Maldan behera*-z ari garenez geroz, erran behar da *Susa* argitaletxeak 1986-ean plazaratu zuen edizioan⁴, obraren bigarren poeman, *Hariztia*-n lau bertsu zuzenkontrako tokietan agertzen direla.

Arestiren gazte denborakoan eder horretaz gauza ainitz balitezke erraten eta bereziki daukan polisemiaz. Arestik berak azpigituluan⁵ eta argudioetan pista garrantzitsuak eman zizkigun, azterketa serio batzuek (J. Sarasola, J. Azurmendi) argitasunak ere ekarri, baina egia erran, textua ainitz alderdietarik har daiteke eta gehienetan, iritzi ezberdinek berek aberasten dute.

Kontextu horretan, guri lehenik interesatu izan zaiguna izan da perspektiba kritikoa bat hautatu eta ikuspuntu horretatik egitea ikerketa; hau da: aztertu nola mugitzen diren sinboloak, nola diren

konstelatzen, zein ote den *Maldan behera*-n agertzen den mundua, zein ote diren mundu horretako berezitasun eta koloreak...

I. Maldan behera-ren egitura

I-1: Egitura morfologikoa

*Maldan behera*n 222 bertso baditugu, hogeitabat poemetan banatuak. Erran dugun bezala, Sarasola jadanik konturatu zen poema horien egitura bereziaz eta partikulazki, presentatzen zituzten alternantzieta. Kritiko honen ikuspundua arras interesgarria izan zen. Egitura bereko bertsoak alfabetoko letra batekin izendatzen zituen A egiturakoak, B egiturakoak e.a. Guk izendatzeko modu berdina hartu dugu, azken poemari, hogeitabar garrenari, ere osatuz F letra emanez.

Begirada orokor batek erakusten digu bertso motetan herriaren eragina dela nabariena: bertso eta kantu zaharretan agertzen diren teknikak, Arestik ohi zuen bezala, bere modura plantatuak.

Hogeitabat poema horiek, ondotik erakusten dugun oreka handiko egitura orokorrean bilduak dira:

A 1
B 2 C 3 B 4 C 5 B 6 C 7 B 8 C 9 B 10
A 11
D 12 E 13 D 14 E 15 D 16 E 17 D 18 E 19 D 20
F 21

Ikus daiteke A egiturako poemak (*Untergang, Requiem*) eta F egiturakoaren (*Maldan goran eginiko gogoeta eroak*) berezitasuna. Erraten ahal da *Maldan behera*-ren lehen mugimendua A1-ean hasten dela eta A11-ean bukatzen, bigarrena A11 horretan berean hasten delarik eta F21-ean bukatzen.

Bi mugimendu nagusi horiek bost zatitan banatzen den azpiegitura bat isladatzen dute:

1/ A 1

2/ Lehendabiziko bederatzi poemek eginiko multzoa, B eta C egiturakoak.

3/ A 11

4/ Bigarren bederatzi poemek eginiko multzoa, D eta E egiturakoak

5/ F 21.

Oro har, badirudi *Maldan behera*-k musika konposaketa baten itxura daukala nonbait eta irakurtu behar dela geldirik, lerro bakoitza aztertuz, “dezifratuz”, sekulan ahaztu gabe mugimendu orokorraren dinamikak sor arazten duen soinua.

Beraz, egitura morfologikoak erakusten digu argiki Arestik *Maldan behera* bere *orokortasunean*⁶ zuela pentsatua eta beraz, bigarren mugimenduak lehendabizikoak bezein garrantzi handia daukala.

Eta, bixtan dena, batasun hori egitura semantikoan ere nabarmen izanen da.

1-2: Egitura semantikoa:

Zati honetan puntu frango aipa behar litezke, hala nola *Maldan behera*-z egin izan diren interpretazioak, itzulpenak, *Zuzenbide debakatuarekin* dituen harremanak e.a.⁷.

Hemen bakarrik bi puntu aipatuko ditugu: tituluak daukaten erranahia eta zenbakien sinbolika, puntu hauek azpimarratzen baitute gehienbat obraren barneko batasuna.

1-2a: Tituluaren hizkuntza

Hastapenetik, obraren tituluak berak gogo arazten dizkigu infernetaruntz Orfeo eta Dionisos bezalako heroe mitologikoek egindako bidaiak. Maldan behera baitzoazen haiek ere. Testament Zaharreko profetak ere maldan-behera doaz Jainkoaren erreinua anuntziatzeko eta Jesus bera Infernetara jaitsi izan da. Literaturan ere gai hori nonahi eta noiznahi atxeman daiteke, hor ditugu, bixtan dena San Juan de La Cruz-en idatzkiak eta ere Arestik arras ongi ezagutzen zituen bi obra nagusi: Dante-ren *Komedia dibinoa*⁸ eta Nietzsche-n *Horrela zioen Zarathustrak*.

Beraz, gizonaren urratsaren arabera egiten den bidaia da hemen gai nagusia, kanpoko bidai, baita ere barneko...

Sarasolak azpimarratu zuen nola lehendabiziko mugimenduan dauden zenbait poema pareek euskal idazleen erreferentziak zauzkaten (Harizti = Aresti, Lizardia = Lizardi, Iratze-ederra = Iratzeder e.a.). Dударik gabe baietz, baina iduritu zaigu ere irudiak beren hizkuntza ximplean mintzatzeraz utzi behar zirela eta beraz, adibidez, inportante zela *oihana* aipatzea, *iratzea*, *mendia* e.a.

Bigarren irakurtzeko modu horrek ber-denboran hurbil arazten gaitu mito eta ipuin mundura eta gogo arazten nolaz ez! Dante-k *Infernua*-ren hastapenean idatzi zituen lehen bi bertso famatu hauek:

“Nel mezzo del cammin di nostra vita
mi ritrovai per una *selva oscura*”

Horrela, irudien dinamikari oinarritzko izanen den *Maldan behera*-ko paisai imaginario bat marrazki daiteke.

Lehendabiziko mugimenduan, pare ez diren poemek berriz, (C egiturakoek) zabaltzen doan bidea erakusten dute, mundu ezberdinak elgarri lotuko dituzten bideak, autorearen pentsamenduek (“gogoeta eroek”) ilustratuko duten heriotzari buruz fatalitatez daraman bidea.

Bederatzi poemetak eginak diren bi multzoak (B/C eta D/E egiturakoak) aparte utzirik, bakarrik titulu nagusia *Maldan behera* eta jadanik aipatutako hiru poema bereziak, *Untergang* (A1), *Requiem* (A11) eta *Malda goran...* (F21) harturik, ohartzen gara beheraldiak, *Heriotzak* eta *Berpizkundea* formatzen duten ziklo unibertsalaren eskema aurki dezakegula hor. Ziklo ezagun hori gainerako bederatzi poemek eginiko multzoetan eta bereziki bigarren mugimendukoetan (ikus bereziki *Deskantsuaren bitartez* eta *Partiera*) aurkituko da.

Gainera, tituluaren ageri izanen dena, poemetan beretan nabarmen izanen da eta edozein bertsu edo neurtitz multzoetan ere: bidai inizatikoaren eskema agertuko da gai oinarritzko bezala eta bidai horren dinamika bereziak halaber mugi araziko ditu sinboloen konstelazioak kontraesanezko itxurak har

araziz batzuetan (arrano ilun/arrano argi, odol = heriotz, odol = bizitza e.a.).

Oharpen bezala, erran behar da bigarren bederlatzi poemeko multzoan ez dela lehenean bezenbat ezberdintasun semantiko izanen. Bigarren multzo honetan (D/E egituretakoetan) poema *guztiek* (eta ez bakarrik pareak direnek) heroearen ibilbidearen berri emanen dute.

I-2b: Zenbaki sinbolikoak

Badirudi *Maldan behera*-n diren zenbaki batzuk erranahi berezi batekin erabiliak izan dituela Arestik. Hemen ondoko hiru zenbaki hauei bakarrik so egingen diegu: 1, 9, 21.

** Untergang, Requiem eta 1 zenbakia:*

Bi poema horiek ziklo bat hasi eta bukatzen dute. Matematiketan zenbakien zerrenda ez da hutsarekin (0) hasten, baizik eta, 1-ekin eta alde horretatik zenbaki honen lekua arras berezia agertzen zaigu: Orokortasuna, Dena sinbolizatzen baldin badu alde batetik, beste aldetik, jakinez zenbakiak ez dakigula non bukatzen diren, erran dezakegu 1 sekulakotasunarekin harreman zuzenean sartua dela eta beraz, zikloaren eskema borobilarekin.

Orduan, ia Denborarekin problematika bat agertzen hasten da: *Untergang*-en preseski heroeak ez du bakarrik mugimendu *fisiko* bat egiten (“Maldan behera doa ene gorputz biluzia”), baizik eta *buruzko* bat ere, *gogoratz*en baitzaizkio iraganeko bere bizitzaren zenbait pasarte (“Honera etorri baino leen ongi/...), eta bereziki gogoratz

zaio gizon “doilorrek” jasan arazi zizkioten zuzengabekeriak. Beraz, haraneruntz, *Herri bitarteruntz*, joanez, *berriz* bizi baharko ditu jadanik jasaneko sofrikarioak, betiereko itzultze batean⁹...

Bertzalde, 11 zenbakia bi ikuspunduetatik begira daiteke. Bata, azpimarratuz 10-en osotasun eta betetasuna bukatzen direlarik, desoreka haste dela 1 gehitzen zaion bezein laster eta egia da, A11 poematik landa beste ziklo arras ezberdin batean sartzen garela; bestea berriz, A11-ren leku garrantzitsua kontutan hartuz: lehen zikloaren eta

bigarrenaren artean dago. Beraz, puntu horretatik, 10+1 baino, 1-en bikoiztasuna (1 1) liteke kasu honetan aipagaiena.

**Bi multzoak eta 9 zenbakia:*

Lehendabiziko multzoa *Haritzia*-rekin (B2) hasten zaigu eta erran dugunez *Requiem*-ekin (A11) bukatzen. Lehen ziklo honetan *Haritzia* poemaren berezitasuna eta garrantzia handiak izanen dira berezi ondoko lau gertakizun hauek poema horretan gertatuko direlako:

1/ heroearen lehen *lana* edo prueba.

2/ geroko gertaera batzuen aipamena bertso soil eta oinarrizko batetan (“Hermita eroria, hobietako laua, /eta maitalearen gorputz usteldua”).

3/ zuhaitz mitikoaren kreazioa.

4/ zuhaitz-arbasoaren diskurtsoa.

Lehen multzo horretan heroeak bere bizilaguna aurkituko du, Miren izenekoa (B8) eta ere kurutzifikatua izanen da *Herri bitartea*-n (B10), bera, gurutzearen alde batetik eta bere andrea beste aldetik.

B/C eta D/E erritmo ezberdinek heroearen urratsa eta bere bihotz panpaden asotsa gogo arazten digute.

D/E multzoan bakarrik zaigu emana izanen heroearen izena: Joane, honen berpiztea erakutsia, mendekantza eta azkenik zerura igotzea. Argi dago 9 zenbakia ez dela erranahi gabekoa eta baduela sinbolismo berezi bat, kultura aintzetako ikonografia, ipui, mito eta literatur kreazioetan duen bezala: 9 dira zeruetako eta infernuetako esferak. Dante-ren *Komedia dibinoa*-n 9 ez da bakarrik Zeruaren zenbakia, baizik eta Beatrice, bere maite inspiratzailearena ere.

**Azken poema eta 21 zenbakia:*

Zenbaki hau F21-ean agertzen zaigu eta hemen ere dudarik gabe, Arestik nahiez eta jakinez erabiltzen du. Zenbaki hori, gainera ez da bakarrik poema horri lotua baizik eta 21 poemetan zatikatua den obra osoari.

Bertzalde, 22 baldin badira Tarot-ean agertzen

diren karta nagusiak, azkena 21 garrena da (Eroaren kartaren zenbakia 0 baita). Karta honetan ikus ditzakegu landareez ingurinatutako dagon andre (*anima mundi?*) bat eta haren itzulian dauden lau ebangelisten itxura enblematikoak¹⁰; 21 garren karta horri Mundua deritzaio. Bertzalde, euskal mitologian Mari-k 7 urte pasatuz 3 mendi berezi batzutan, azkenean beti 21 urtetako ziklo berezia betetzen du¹¹.

Zenbaki horrek huts gabetasun dibinoa sinbolizatzen du gehienbat, betetasun osoa. Arestiren heroearen "jainkotasunarekin", trazendentziarik gabe bizi den gizon oso eta betearekin, nietzschearen gizonarekin, zerbait ikustekorik baduela iduri luke.

II Bidaia inizatiko bat:

Jadanik aipatu dugunez, *Maldan beheara*

aztertzeko iduritu zaigu *Mitokritika* edo *Critique de l'Imaginaire* delakoa zela metodologi egokiena.

Guk egin dugun irakurketa oso pertsonala izan da, irakurle batek beretako egin dezakeenaren gisakoa. Textua, kalean den bezain laster, autoreari eskapatzen baitzaio nahi ta ez eta nehor ez baidaiteke sar irakurleak bere liburuarekin segitzen duen elgarrizketa hestu eta ixilaren artean.

Ez gara, hemen xehetasunetan sartuko, bakarrik eskema orokor bat dugu emanen, gure "irakurketa inizatiboa"¹² hiru zatitan banatuz:

1/ Beheraldia (A1, B2, B4, B6, B8)


2/ Harana (B10, A11, D12-etik D18 arte)

3/ Goraldia (E19, D20)

Irukurketa hori, Joaneke bere bidaiari ematen dituen urratsak pausoz pauso segituz egina izana da (ikus 1. Eskema).

1. Eskema

* Joaneren ibilbidea



Ikusten dugunez, *Beheraldia* oso luzea eta zaila da, denetara hamar poema. Joanek oztopo zail eta gogor frango gainditu beharko ditu aintzinzatzeko. Kontura gaitzen ere ez duela sekulan aurretik bidea ezagutzen eta bakarrik nekeak gainditu *eta gero* dela ilunpetik argira agertzen, eguzkia, goizeko argi tirrintaren freskotasunean, lurpetik jalgitzen den bezalaxe.

Beheraldi horretan halere badago ugarte bat, maitasunezko eta bakezko oasis bat: *Lore mendia* (B8), Mirenen eremu eder eta sentzuala. Poema horrek haustura handia ekarriko du, hortik aintzina Joane ez baita gehiago “bakarrik” izanen¹³.

Harana deitu dugu bidaiaren bigarren zati inportantea, mundua bere lohi eta sofrikarioekin sinbolizatzen duen irudi ezagun bat hautatuz¹⁴. Hemen ere azpimarratzekoa da *Haranak* daukan inportantzia (bederatzi poema). Ez gara beraz batere J. Juaristirekin ados baiezpetzen duelarik *Maldan behera*-n, Aresti ez dela oraino osoki munduaren problematikan sartzen¹⁵.

Gure ustez eta gero aipatuko dugunaren arabera, liburu honetan agertzen da tinko eta klarki, *Harri eta Herri*-n Arestik zabalduko zuen kezka nagusia: gizonaren aldeko borroka.

Bigarren zati honetan da, adibidez, Bestia apokaliptikoa jalgiko. Itxura horrek badu, gure ustez, zer ikusirik totalitarismoaren salaketarekin, erran nahi da Franco-ren gobernuaren salaketarekin: Joanek berak dion bezala, Bestia hori da “gizasemearen etsaia”, “infernu berria”-ren antolatzailea:

Eta ikusten dute han goian bestia,
lengo gizon hutsek hamorruz jarria,
oraingo gizon hutsek bera jaurtikia,
hamiltegi batean azkar eroria,
lepo ebakia,
buru itzulia
hatzamar gabea,
agin aterea,
antolatzen duela infernu berria.
Ahora dator barrea,
ezpainetan irria.

Errez izan da higuinduen
harmak lurrera jotea.
Ehortz dezagun bein ta betiko
gizasemearen etsaia.

Eta heroeak erahil beharko du, ikusten dugun bezala etsaia, gizona salbatzeko. Ezagutzen dugu hor Herensugearen erahilketaren gaia, gure sinbologian, kanpokoetan bezala agertzen dena eta girixtino irudimenean osoki integratu dena (ikus Migel arkangelua eta Gorka sainduaren hixtorioak).

Haranean gertaera latz eta ilun asko ikusiko dira: Joane eta Mirenen jujamendua, haien “Pasioa” eta gurutzifikazioa, ehortzeta, Joaneren berpiztea, honen mendekantza...

Goraldia E19-ean hasiko da eta ohartzten gara *Beheraldia* baino askoz ere lasterrago pasatuko dela. Joanek laster eta agudo egingen du goiti doan bidai hau. Lehenik, hilarrietara doa, Miren ehortzia dagon tokira eta han konturatzen da harriturik, hilobia hutsik dagoela. Iferzinaz egin beharko du bidai, hilarrietatik *Harizti*-raino, Mirenen xeka:

Hariztiraino heltzekotz
urteak dira hamabost.
Harantza noa, zerren Mirenen
hezurrak dauden mendion,
bide bateko seinale batzuk
haratza naramatenok.

Baina aldi honetan *Hariztia* baino urrunago, gorago, beharko du igo...

D20-ean Mirenekin elgarretaritzen da zeruko paradisuko “ditxa” osoan.

Pasarte hau sikologi analitikoaren argiaren bidez irakurtzen baldin badugu, erran dezakegu Joane bere *animarekin*¹⁶ “ezkontzen” dela, bere barreneko osotasuna lortuz:

Ahaztu dugu guztia
lurrean genkiena:
Ni eta zu hitzak, eta
gurea ta zuena.

Bukatzeo, azpimarra dezagun ba D20 eta ba D8 poemen antzekotasuna. Biek Paradisuaz mintzo zaizkigu, lurreko (B8) eta zerukoaz (D20), lurreko Jerusalem eta zerukoaren gisan.

Kontutan hartzekoa da, Paradisuak, zorionak, zein toki eskas daukan obran.

Joaneren bidaia borobil baten hesten da beraz: denboraren ikuspegi zikliko horrek jadanik pasan aipatu dugun Betiereko Itzultzearen gai nagusia dakarrela. Eta ikusiko dugu arras inportante den ideia hori oraino gardentasun gehiagorekin agertuko dela F21 poeman.

III. F21 Poemaren inguruan zenbait ohar:

Hastapenetik erran behar dena da, Joaneren bidaia D20-ean dela "bukatzen" eta ez F21-ean. Poema honek beraz arras toki berezia ukanen du.

Bere sintetikotasuna tituluaren berean ikus daiteke: *Malda goran eginiko gogoeta eroak. Malda goran* izen sintagma titulu orokorraren oihartzun bezala dugu, ibilbidearen osotasunaren seinale bezala eta bestalde, *gogoeta eroak* hitzek, lehen mugimenduko C egiturako poemak gogo arazten dizkigute eta beraz autorearen pentsamendu filosofikoak. Erran ote daiteke poema horretan *Maldan behera* ulertzeko zenbait giltza badaudela?

Gure ustez bai.

Hemen ez zaigu ia Joaneren bidaiarik, ez eta izenik ere, aipatuko. Gogoeta batzu ditugu, antza asko dutenak, erran dugun bezala C egitura duten poemekin. Bi hitz bakarrik, poema honetan dirudienez agertzen diren bi gai nagusietaz.

III-1: Konpromezu mitoak

Erreferentzi ainitz aurkituko ditugu hemen eta ere, momentua baita aipatzeko, C egitura duten poemetan, bigarren erranahi batekin idatziak diren hitzak. Hona, adibidez, *Estratan eginiko gogoeta eroak* (C5) poematik hartutako bertso hau:

Babilonian katigun
baikunden euskaldunak
Idiak uztarri-pean,
ziren gure pareak,
Hantxe genbiltzen gu nola,
astoak zama pean

Argi dago Arestik hor 1950 urteetako Hego Euskal Herriko egoera sozio-politikoaren salatzen duela. Hortarako, Europako idazle gehienek mendeetan zehar egin izan duten bezala, gertaera biblikoetat baliatzen da. Modu horretan Babilonia, Prostituta Handia, Apokalipsiako Bestia¹⁷ bezala, botere totalitaristaren sinbolo bilakazen da¹⁸ eta kasu honetan frankismoaren sinbolo.

Arestik erreferentzi biblikoak "askatasun mito" bezala erabiltzen ditu beraz berziki. Hori biziki ongi ikusten da, adibidez, *Zuzenbide debekatua* obraren hastapenean, Joane Bañistaren martiriari lotuak diren argudioak irakurtuz.

Hiri etsaiaren parean altxatuko da Hiri positibo den Kartago:

Kartagoko errautsetan
etzen aurkizen urik.
Hango amen ditietan,
esnea baitzen urri.
Haur txikiak nil ziraden,
gosez ta egarriz

Kasu honetan amaren arketipoak *Ama-Ziutate* aren itxura hartuko du. Ziutate kolpatua, xehatua, bortxatua, urik gabe, bizi "iturririk" gabe, amaren diti xukatuen pare dena.

Geroko poema batzutan hiri hori izenez aldatuko da: Jeriko, Gernika... Azken finean hori baita irakurketa izkutu batek ager dezakeena: Kartago da Gernika, Kartagoko haur erahilak gerla guztietako biktimak badira, dira ere Gernikakoak.

III-2: Denboraren bi egitura

Aurreko lerroetan aipatu genuen zein garrantzitsua zen *Maldan behera*-n, egitura

ziklikoa; baina azken poema honetan ditugu atxemanen borobilari buruzko hiru erreferentzi sakonenak.

Ondoko bertsuetan azpimarratzen ditugu:

Eremuko arroketan,
armiarmak kantari.

Hare-arteko ziloan,
eztago denborarik.

Mendietako errekan,
urak daude gaur gazi.

Bide honetako amaian,
eztago mugarririk.

Etxe erdi-erori hau,
munduan den guztirik.

Atzena da aurrerantzean,
eztago ezer bizirik.

Munduaren ikuspegi nihilista horretan ikusten da armiarmak iruten duen heriotz-harjetan denbora ere ezetzua dela, uraren gatzak basamortuko lur

antzuarekin "isomorfotosun" argi bat erakusten duela.

Bestalde poetak diolarik:

"bide honetako amaian,
eztago mugarririk."


ez ote du erran nahi, preseski, Joaneren ibilaldia ez dela D20-ean gelditzen eta obraren egitura, borobila denez geroz, ibilaldi hori beti berriz egitekoa dela?

Eta irakurtzen dugularik:

"Atzena da aurrerantzean"

T.S. Eliot-en *Burnt Norton*¹⁹ gogoratu, puntu berdina azpimarratzen du.

Dena den eta xehetasun gehiagotan sartu gabe, ikusten da behin eta berriz, historiaren ikuspegi zikliko bat badela hor: Joane-Eguzkik beti behar baitu bere bidaia berriz egin Sartaldetik Ekialdera eta Ekialdetik Sartaldera, Infernuetatik Paradisura eta Paradisutik Infernuetara (ikus 2. Eskema).



2. Eskema

*Maldan beheraren egitura ziklikoa

Gogora ditzagun Nietzsche-n hitzak:

“Oro badoa, oro badator; betierean badabila izatearen zirrika. Oro hiltzen da, betierean badabila izatearen urtea.”²⁰

Baina badago bigarren egitura bat, progresista eta mesianikoa, egitura ziklotik berezi behar duguna baina azken finean zirrikaren mugimenduan koka daitekeena ere baina bakarrik Infernuetatik Paradisura doan dinamikan.

Egitura hori hirugarren eskema batekin errepresenta genezake. Mesianikoa dela diogu, Joane/Arestiren xedea gizonaren desalienatzea baita, zapalketatarik askatzea, Hitzaren, Logos askatzailearen indar bakarrarekin Testament Zaharreko profeten gisan, Jesukristoren gisan.

Negurri batean, beraz, erran genezake badela


Maldan behera-n bukaera iraultzaile baten sinistea. Halere, poemaren eta obraren azken hitza “debalde” izanen da:

entzun ditugun pronuak,
izan dira debalde.”

Baina idazlea ez da bere paradoxatik atera eta *Maldan behera*-n diren “pronuak”, nahiz eta izan “debaldezkoak”, hor ditugu irakur eta pentsagai.

Eta Arestiren nihilismoa azpimarratu baldin badugu, behar dugu erran nihilismo hori biziz bete delako, “tonikoa” eta ardura irri handi eta ikonoklasta batek laguntzen duena.

Aresti, denez gain gizonaren alde altxatzen baita fatalismo sozial eta politiko guztien kontra eta hori hemen bertan, *Maldan behera*-n.




3. Eskema

* *Maldan behera*-ren egitura mesianikoa

NOTAK:

1. Ed. Cátedra.
2. J. Juaristi-k *Obra Guztiak*... delakoan, Arestik erdarara itzuliak ez zeuzkan poemen itzulpena egin zuen.
3. Ikus J. Atienzak diona in *G. Aresti Maldan behera-Harri eta Herri-Edición bilingüe*.
4. *Gabriel Arestiren Literatur Lanak (10 tomo)*.
5. "Miren eta Joaneren historiaren bukaera".
6. Sarasolakez zuen orortasunik ikusi eta horregatik gehiago interesatu zen lehen mugimenduari.
7. Puntu horiek denak gure tesian *Imaginaire et poésie dans Maldan behera da G. Aresti*, tratatu ditugu.
8. Arestik *Infernua*-ren lehen kapitulua itzuli zuen.
9. Ikus M. Eliaderen *Betiereko Itzultzearen mitoa*.
10. Lau ebangelisten enblema hauxe ditugu: Joane (arranoa), Marko (leoia), Luka (zezena) eta Mateo (aingerua).
11. Ikus Hartsuaga in *Euskal mitologia konparatua*.
12. S. Vieme kritikariari kendu diogu terminologi hori.
13. Hortik aurrera eta Mirenen heriotza gertatu eta gero ere, Miren Joaneren ekintzen sustatzaile izanzen dugu.
14. Gogora A. Ibarrolaren grabadoa "Gizonak asko sufrizten du" titulua duena (in *Euskal Harria*).
15. Ikus J. Juaristi in *Literatura vasca*, 118 or.
16. Ikus Jung-en obrak.
17. XV. mendeko, H. Burkmair-en grabado batean Babilonia Bestiaren gainean jarria dago.
18. Ikus N. Fry *Kodigo Nagusia-Biblia eta Literatura*.
19. in *Lau Quarteto*:
 "Or say that the end precedes the beginning, /And the end and the beginning were always there/Before the beginning and after the end."
20. F. Nietzsche in *Horrela zioen Zarathustrak*.



ELIXABETE PEREZ GAZTELU



Mitxelena:
Euskara noranahikotuz

Lerrook¹ Mitxelenaren irakurle saiatu samar batek eginak direla aitortu nahi dugu lehenik eta behin; zehaztasunari iruzur egin gabe esan dezagun: egun, hizkuntzalaritzak literaturak baino begiak kutsatuxeago dituen irakurle hasi berri batek.

“Samar-berritasunak” ezinbestean lan honi ezar diezaiokeen has-errainua eta literaturaren hesiez lekorako zertzeladak barkagarri izango zaizkigulakoan esango ditugu, beraz, ondokoak.

Areriorik nagusienak (gutxi bailiran!), gure jakinbide urriak sortzen dizkigunak direla jakinik eta halaz ere, itxuraz, uxatuta, ariko gara nahiz zinez dakigun, errenteriarraz, zuzeneko harremanak eta nahiz pleguen aspaldiko irakurketa pausatu-sakonak direla medio, gu baino hamaika bat jantziago eta adituagorik badela oso urrutira gabe.

Oso luze jo ez dezakeen mintzalditxo honetan zuen aurrean paratu nahi genituzke Mitxelenaren euskal lanen irakurketetarik (zenbait erdal lanez ere baliatu gara iritzi teorikoez, nahiz egile batzuri buruzkoak osatzeko) jaso ditugun ideia xume eta seguru aski, ez oso sakon batzuk azaltzen; bestela esan, batek baino gehiagok ahotan izan duen Mitxelenaren prosa-eredua zertan mami daitekeen (hizkuntz euskarrien alderditik begiratuta batez ere) gure ustez, agertzen.

Bihoa aurretik ez garelara eztabaida teorikoetan sartuko. Ez dugu, esate baterako, saiakera eta gazeta-artikulu baten arteko desberdintasunez ihardungo, gaiak mintzagai ditugunekin zerikusia duen arren; beste gabe prosaz ariko gara, izan dezakeen adierarik zabalenean, antolatzaileek ezarri ez diguten estakururik, guk ere geure burua estuegi ikus ez dezagun, sortu asmo ez dugularik.

Ez ditugu, beraz, kontutan izango Mikelazulokoak “Espetxian” aldizkarian behiala idatzi zituen bertsoak, ezta, ez bereziki behinipehin, ihardunaldi hauetan agian egokiago leudekeen “Motivo español”, Mitxelenaren ipuintxoak, edo Txejov eta O. Wilderen ipuinen itzulpenak ere. Arrazoa², proportzio hutsekoa da: 300dik gorako artikulu etab.etan lau besterik ez dira. Zerbaitek “nortzen”, “bereizten” badu Mitxelena, ez dira, izan ere, literatur lan hauek, ez da literatur mota hau, ahotan izango ditugun bestelako artikuluak baizik, eta horiei helduko gatzazkie.

Mitxelenaren barrutira hurbildu nahirik, frankotan adierazi duen kezka sakon batek eman digu bide hasteko: gaurkoa egiteko, atzokoari begiratu behar zaio. Eta gure “atzo” ez luzeegi horretan, hiru izen ekarri behar ditugu ezinbestean hona, hirurek Mitxelena bultzatu duen asmo berak eraginik irten baitziren plazara, Mitxelenak dioenez: euskara noranahiko, eguneko premiei erantzuteko moduko tresna bilakatzea, hain zuzen ere.

LARRAMENDI, ORIXE eta LIZARDI ditugu, Mitxelenaren ameskide; lauok egingo lituzkete bere zarauztarraren hitzok:

*Baña nik, izkuntza larrekoa,
nai aumat ere noranaikoa:
Yakite-egoek igoa;
soña zaar, berri gogoa;
azal orizta, muin betirakoa*

Mitxelenaren lanetan zehar hiru egile hauei eskaintzen dizkie Lizardiren hitz neurtuak, eta guk, arestian esan bezala, Mitxelenaren hitzak izaki oinarri, hiruez zertxobait esan beharrean gaudela uste dugu, beti ere, Mitxelenaren aipamen sakabanatuak harturik iturri.

Larramendi

Ezin alboan utzi, dato zehatzik ez badugu ere, Mitxelenak euskal lanetan gehientsuenetan ahotan darabilen egile andoaindarra, aurten mendeurrena ospatzen ari garelarik gainera.

Mitxelenak Larramendigan Sarako eskolako lekukoa jaso zuen euskalduna ikusten du. Larramendik, erlijioak eraginda batipat lan egin bazuen ere (ez baitira ahanzteko modukoak predikariaren axolakabekeriak eta jokabide gaiztoez esanak), TRESNAK jarri nahi izan zituen apaizek euskara zuzenez taxu zitzaten sermoiak. Euskara garaiko eskakizunei erantzuteko hizkuntza egoki bilakatzeko xedeak bultzaturik mamitu zituen Gramatika eta Hiztegia, tartean kanpotarren iseka eta irainei behar bezalako ihardespina ematea ere zegolarik, noski.

Hitz gutxitan esateko, honela laburtuko genituzke Mitxelenak Larramendiren asmo eta mamitze bideari buruz esanak:

—Euskaldunen exolakabekeriagatik, eta ez euskararen erruz, ez da gai hizkuntza gizarteak dituen premiei erantzuteko. Hizkuntza trebatu behar da, beraz, baliagarri izan dakigun.

—Ezinbesteko baldintza da euskaldun guztiek besteen euskalkien berri izan dezaten, era honetara, euskal altxor lexikoa aberastuko bailitzateke.

—Arestikoa euskaldunen jokabideak amets bihurtzen duenez gero, eta gainera euskarak behar diren hitz guztiak beti ez dituen ez gero beste bide

batzuei ekin behar zaie hutsune horiek bete ahal izateko, hau da, euskal ondarea murriztuxe denekoetan.

—Zaharraren zaharrez zokoratuak berreskuratzea ezinezko gertatzen denean edo beste euskalkietakoak nahikoak ez direnean bi irtenbide izango genituzke; euskaraz sortzea halako kontzeptua adierazteko hitz berria nahiz hitza mailebatzea.

—Hitz berriak sor daitezke euskarak hain indarrean dituen eratorpen eta elkarketaz baliatuz, hots, euskararen legeen arabera. Honelaxe sortuko ditu, eta ez beti oker gainera Mitxelenaren ustez, Larramendik hitz asko eta asko, “voces facultativas” direlakoak batez ere, hots, testu tekniko edo zehatzetan erabili beharreko hitzak.

Ez dio eragozpenik ikusten, beraz, Larramendik beste hizkuntzetan legez, euskal ondaretikakoak asmatzeari, jakinbideek behar duten hiztegia osa dezaten. Honetan, ORIXEren jokamoldearekin berdin daiteke, ez, haatik, ez erabat behinpehin, MITXELENARENekin.

—Baina mailebatzeko ez da kupidarik izan behar, ez dio aterik hersten. Areago, euskaldunek erdaratikakoak (ez erdarazkoak) lotsaizunik gabe erabil ditzaten etimologia bitxi (eta egungo begietan farregarri)ak asmatzeari ez dio erreparorik jarriko, erdaldunak zordun bilakatuz. Era honetan, bi helburu lituzke irispidean: erdaldunen ahoak mututu eta euskaldunei bere hizkuntzarekiko harrotasuna piztu eta sendotu, erdaratikako hitz horiek erabili behar dituztenean, konplexurik gabe, nolabait esan, usa ditzaten.

Jokabide garbizale itsuak euskararen arrunteko erabilera eta garapenari debeku eta kalte larria lekarkiokeela ohartu zela LARRAMENDI pentsa daiteke.

Larramendik ikusi bide du hizkuntzen mailen eta erregistroen bereizketa? Argi ote, eremu bakoitzak bere legeak dituela eta euskara lege horietara makurtu beharrean dagoela, biziko bada?

Finkatu nahiko duen eredu horretan, Beterriko

Gipuzkeran sustraitua batez ere, txoko eta auzokeriak baztertu beharko dira, ahalik eta euskaldunik gehienek euskara hori bere eredutzat izan dezaten eta hala erabili, behar dutenetan.

Egun harrigarri irudi badakiguke ere, ortografiari ez dio jaramon handirik. Uste dugu honek nolabaiteko azalpena baduela pentsatuz gero norentzat eta zein helbururekin egin zituen Larramendik lanak: predikariek sermoiak zuzen eta txukun idatzi eta gero jendaurrean irakur zituzten. Larramendik bazekien euskaldunik gehienek ez zekitela irakurtzen, ez du, beraz, irakurlea gogoan, pulpitotik hitzegin behar duen, bestek entzun zain dituen predikaria baizik. Ahozkotasanak aginduko luke, nolabait esan, Ziburuko Etxeberrirengan (ez horrela Axularrengan) agindu zuen bezalaxe.

Bestela esan, Larramendik nahiago izan du Morfologia eta Lexiko finkatua begiz jo eta eskaini sistema ortografiko ereduemaile baten osaketan aritu baino, premiazkoagoa irudituko zitzaiolako, apika.

Hala eta guztiz ere, Larramendik garaiko giroari estuki lotu baino geroa zuela gogoan pentsa daiteke, berak hiztegi iraualiko hitz andana orduan erabiltzeko abagunerik ez bazegoen ere, beranduago, premiak hala eragin zuenean euskaldunek eskueran izan baitzituzten, eta hala erabili ere, XIX. mendea aurrera ahala euskal testuetan baieztatu daitekeenez.

Larramendik gehientsuena erdaraz idatziagatik, Mitxelenarentzat euskararen langilerik sutsuenetakoa genuke (Bonapartez, Txahoz eta bestez esaten duen bezalaxe) asmo zuzen eta premiazkoari jarraiki eskaini zizkigun lanabesengatik eta bere inguruan sortarazi zuen euskal langiro garrantzitsuagatik (Mendiburu, Kardaberaz...). Euskarari eta euskaldunei egin zizkigun mesedeek barkagarriago bihurtuko lituzkete etimologian eta bestetan esaniko izugarrikeriak.

Izugarrikeriarik ez da izango, baldinbetan, esatea, Hego aldean euskal literaturarik sortu eta garatu

baldin bada hein handian Larramendiren bultzadari, eskainiriko tresnei eskerrak egin ahal izan dela, ikusi besterik ez baitago Larramendi aurretikako Hego aldeko euskal literaturaren urria. Guztiok ginateke, beraz, andoaindarraren zordun.

Orixe

Esana doan legez, Orixe ere euskara noranahiko bilaka dadin nahi dutenen artean sartzen digu Mitxelenak. Orixe izan da, batek baino gehiagok aitortu zionez (Aita Mokoroak, esate baterako) eta jakina denez, belaunaldi bateko eredia, eta belaunaldi horretan sartu ere behar dugu behialako Mitxelena, behin baino gehiagotan aitortua gogoan badugu, aurrerago eredu hori nahiko kolokan gelditu den arren.

Mitxelenak Orixe euskal idazleagan³ honakoak goraipatzen ditu:

—Euskara gutxi bezain sakonki ezagutzea, eta honekin guztiz bat eginik euskalki guztien barnekatramila izkutu guztien jakinaren gainean egotea. Larramendigan azpimarratzen duen bera, ikus dezakegunez.

—Hitzez ez baizik eginez aritzea euskararen alde.

—Itzultzaile handia, hitz neurtuetan batipat.

—Hizkuntza aberasten langile aparta.

—Euskal literatura erraietatik ezagutzen duena.

—Garai bat arte lehengo tradizioko eta gazteagoen arteko zubia.

—Guztiaren gainetik, poeta lirikoa.

Orixek mamituriko eredia *labur-beharrean* eta *biribiltasunean* oinarritua legoke, kontzeptismoan, beste hitzetan esateko. Eredu horri, hain zuzen, heldu nahiko zaio hasieran, besteak beste, Mitxelena.

Baina, Orixek ez du, zoritxarrez, eredu finko eta erabatekorik mamituko bere bizitzan zehar; areago, urteek aurrera ahala, gero eta nahasiago eta gogorrago ariko da bat ere atsegin ez duen giro berriari kontra egin nahirik, eta honek darabilen euskararen ondorioak izango ditu.

Ez gara banan-banan arazo honen arrazoi-desarrazoiak argitzen ariko baina zertxobait esan nahi dugu Mitxelenak Orixeren eredia baztertzera zerk eraman duen argitzeko asmoz.

—Mitxelenarentzat Orixe anarkista da hizkuntza-kontutan, ez du eredu ortografiko finkaturik, esate baterako.

—Orixek edozeren gainetik “bere” euskara egin nahi du, inoren aginduetara makurtzeko prest ez dagoelarik.

—Ez ditu hizkuntz mailen arteko bereiztasunak behar bezala gordetzen. Hau dela eta, bai itzultzen ari denean bai asma-lanetan darabiltzan hitz franko ez dira testu-motak eskatzen dituen neurrikoak eta anbiguitatea, zehaztasun eza, ulerkaitz bilakatzea dakarte maiz.

—Arestiko honen ondoan, azken urteetan batez ere “garbinahiak” ere eragina izango du. Adbdez. “*Jakinzale*” ez da “*filosofo*”, “*agintari*” ez da “*enperadore*” leporatuko dio Mitxelenak.

—Tradizio idatzian erabiliak baztertu eta literaturan sekula sarrerarik izan ez dutenak idazteari ekingo dio behin baino gehiagotan, honek dakarren nahastearekin.

—Irakurleari behar ez denetan lana oztopatzen dio.

Guzti honek egiten du Orixe “*gutxi batzurenzako*”, “*nekez eta izerdiz bakarrik hurbil gakizkiokeen*” eredia izatea, ez XX. mende erdiko euskaldunek behar duten bezalako. Honi, industria, hiri etab.en giro eta ondokoei begiak herstea eransten badiogu, argi geldituko zaigu zergatik asmo zuzenez hasi zen Orixe ez litzatekeen baliagarri Mitxelenarentzat euskara, gizarte moderno honetako tresna bilakatzeko eredu izan dadin.

Lizardi

Lizardi dugu asmoa poesia-jantziz estali eta aldi berean edertu duena, hain zuzen ere.

Mitxelenak, Lizardi eta Orixe ia beti elkarrekin aipatzen dituen arren, eta bata bestea gabe ezin uler



ditzakegula esan (hain izan baitzen oparoa adiskidetasun hura), uste dugu, nolabait esan, Mitxelena Lizardizaleago⁴ dugula Orixezale baino.

Mitxelenak Lizardigan ikusten du euskaraz idatzia egote soilak justifikatzen ez duen poesia, LITERATURA handian leku ongi irabazia lukeena, erdal poeten aurrean lotsagarri uzten ez gaituen poeta, besteren parean eskubide osoz legokeena. "Esportatzeko" moduko poesia, hitz gutxitan esateko.

Poeta honek lortuko du euskara poesiaren barrutian gorengo mailetara eramatea, Mitxelenak egiazko lirikaren ezaugarritzat jotzen duen honek, euskara literatur tresna merezimendu osoz

bilakatzea. Gure hitzak baino argigarriago diren Mitxelenaren beste erdal hitz hauek ekarri nahi ditugu hona: *Lizardi para mí supuso una revelación. Trató de crear un lenguaje poético y, a menudo, resultaba difícil; incluso en prosa tenía giros de tipo poético alejados del lenguaje diario. Recuerdo un indignado artículo de Tomás Garbizu en "El Día", quejándose de esta tendencia a la concisión. Sin embargo, merecía la pena romper la dura corteza del exterior, dentro había algo que valía. No era la típica efusión lírico-sentimental de "Biozkadak", aquello era otra cosa.* IBARZABAL (1977): *Koldo Mitxelena*. 56 or.

Dirudienez, bazuen itxaropenik Mitxelenak

Lizardik egin zezakeenean; herioak, ordea uste eta nahi baino lehenago eraman zuen. Baina hatz urraezina utzia luke ordurako.

Nolanahi ere den, laburnahia, trinkotasuna, ageri zaigu berriro, eta hau azpimarratu nahi genuke gero esango ditugunekin zerikusia duelako.

Uste dugu haria nondik datorren azaltzea beharrezkoa zela, hari horren jarraitatzat jotzen baitugu hona ekarri gaituena, batetik, eta beronen asmo-mamiketaren koherentzia agerian uzten duelako bestetik.

Ikus ditzagun, bada, zein liritekeen gure iritzi errenteriarren prosa den bezalakoa izan dadin zerikusia dezaketen Mitxelenaren iritzi han-hemenka jaurtiak eta hauen ondoan, Patxi Altunaren hitzez baliatuz, *euskal letren aitagoiaren* euskal prosaren mamikera gorpuzten duten zenbait alderdi⁵.

Nonbaitetik hastekotan, Mitxelenak zuzenean nahiz lerro artean adieraziriko aburuetatik abiatzea iruditzen zaigu egokiena.

Mintzagai izan ditugun hiru egileekin batera, euskara noranahiko bihurtu nahi duen euskalduna dugu Mitxelena ezer baino lehen. Mitxelena aguro asko konturatzen da euskarak, biziko bada, eredu finko bat ezinbestekoa duela, nonahi eta noiznahi bitxitasun-harridurarik sortu gabe erabil dezakegun hizkuntza behar dugula XX. mendeko euskaldunok. Auzia hau izanik, ondoren letorke nola mamitu, nola gauzatu premiazko bilakatu nahi den komunikazio-tresna hori, hauxe baita, azken finean darabilkigun auzia.

Iraganean izan dugu antzeko saiorik, batzuk besteak baino zori hobekoak, eta saio horiei begiratu beharra dago asmatu zutenetik eta oker buruetarik ikas dezagun, hots, euskara tresnatzearen historian (adierazpidea zilegi bazaigu), zerikusi eta zerikasirik badago: atzokoari begiratu behar zaio gaurkoa behar bezala gauza dezagun.

Alabaina, asmo horrek eraginda aritu zirenek ez zuten bizi egun (1950. urtearen inguruan, abiapuntua noizbait kokatzearen) euskaldunek bizi duten egoera, gutziz bistakoa baita Industri Iraultzaren

ondotik, baina batez ere bi gerrateen ondotik, gureganatu (nozitu, behar bada, zenbaitentzat), behar izan ditugun aldaketak: Lizardiren garaiak ahituxe direnekoak, alegia⁶.

Aldaketa horien inguruan antolatzen da euskal gizarte berria eta aldaketa horiei erantzuteko gai izan behar duen euskara gorpuzteko ez dute balio lehengo irakaspide eta urratsek, ez bete-betean behinipein. Euskaldun baserritarraren irudi, ustez, aldaezinetik, euskaldunen bizimoduari buruzko ikuspegiaren hesi murriz eta topikoetatik irten beharra dago euskara kez, CHOMSKYz, ADORNOz edo MARXez goitik behera blai eginda dagoen gizartean arruntean erabil dadin.

Euskara gaurkotu beharra dago, beraz, hortxe dago auzia. Izan ere, nola lortu gizakiaren, edo munduaren historiari begira gazte baina, zibernetika, aeronautika edo hizkuntzalaritzan, esate baterako, erabiltzeko “zahar”, “herdoil” usaina harrapatzen diogun hizkuntza hau hautsa kendu eta antzu ez baina emankor bilaka dadin?

Ezin “zaharren” irtenbideak beste gabe gure egin, ezin ere ordea, hutsetik, gure hizkuntzaren historiaz atzenduz hasi. Lehenaren eta orainaren arteko uztardura egokia bilatu beharrean geundeke.

Uztardura ihar gerta ez dadin, aurrekoek bezala, euskalkiei begiramena gordeko diegu. Ez begiramen itsua, haatik, euskalkiekiko jaidura eta atxikiak galduan irten beharko baitute hil ala biziko dugun kinka honetan; erabilera-esparruak mugatu beharrean gaude.

Ahozkotasanari dagozkionak ahozko solasaldirako gorde behar ditugun bezala (artifizialtasunean ito nahi ez badugu behintzat), hizkuntza idatzian ari garenean bestela ariko gara, bide hau urratu duten beste hizkuntza guztiek aukeratu behar izan duten legez. Hau ez da, ordea, gurea ez den beste euskalkiak ez ezagutzeko aitzakia, inondik ere. Beste euskaldunen mintzaerak gure eginez, denon artean osatu behar dugun eta denontzat nahi genukeen eredu askoz ere aberatsagoa eta geureagoa genuke, dudarik gabe, gure zaharrek amestu zuten bezala.

Eredua finkatzean zenbait aukera egin beharko dira, alabeharrez. Oso bitxi eta maitagarriak izanagatik ezin aukeratuko ditugu bazterreko euskalkiak, tradizio idatzian, kasuan kasuko, txiro samar izateaz gain, egungo arrazoi demografiko edo soziolinguistiko hutsek hala agintzen dutelako. Euskaldun gehienek, ulergarritasun, ospe nahiz bestelako arrazoiengatik behaztopo larriegirik aurkituko ez dioten araberako moldeak erabaki, garatu, finkatu eta hedatu beharra dago eta horretarako, hizkuntzaren historiari, hots, literatur tradizioari begiratu beharko zaio. Honek esan nahi du txokokeriak, hots ñabardurak, lekuan lekuko ahozkotasanari dagozkion bitxikeriak alde batera utzi eta euskara idatzian izaera izan dutenak hartu beharko direla oinarri, norberaren apeta eta gogoak aginduak, guztion mesedera makurtzearren, galduan aterako direlarik ere.

Guzti hau, pauso ongi neurtu baino sendoez egin beharko da, garaiko hizkuntzalaritzaren ezagupide berrituz eta ez iritzi edo uste sustrai gabekoez baliatuz, nahiz adiskide genituenak lehia-esparrutzat hartu duten bide honetan etsai bilakatuko zaizkigun⁷.

Honela, bada, ez dizkigu lanbro artean amesten dugun gure iragan zoriotsuari begiratzeak sorturiko ase baketsu-beteginak gaurko egoeraren larria estarian gorde behar, urritasunaz eta eskaziaz jabetuz eta berauei aurre eginez, gure gabeziak begi bistan ditugula hasi beharko dugu ibiltzen.

Ibilbidean aurkituko dugun lehen oztopoa hutsuneena izango da, euskarak gaitzeko, noranahikotzeko, bete beharko baititu hamaika arlo eta sailetan dituen huts-tarteak. Mitxelenak maiz darabilen esapideaz baliatuz, esango genuke *iraultzen ondoko jakinbide eta pentsamolde berriek* ekarritako hutsuneak direla bete beharrekoak, horietan dela euskara batez ere maingu.

Mitxelenak ariketan aukeratzen duen bidea ez dago, gure ustez, lehen horretan saiatu zirenek urraturik oso urruti, hau sustraitzeko datu zehatzik oraindik eskaini ez dezakegun arren.

Saiatzen da, hiztegiari ari gara, ahal duen neurrian

euskal ondaretik berreskuratzen, ez bitxigarri gisa, ez "inork inoiz esan omen zuen halako hitz bakana" delako, altxor preziatua bailitzan; hitzak euskalki horretan oraindik ere bizirik irautea edo batez ere, tradizio idatzian jasoak izatea beharko ditu baldintza.

Azken mota honetakoak ditugu, esate baterako: *neurtitz* (Oihenartegandik hartua); *hiztegi* (Pouvreau); *aditz* (Azkue); *komuntzadura* (Etxeberri), azken honi ondoren aipatuko dugun baliapidea ezarri diolarik, hots, berez duen "conventio" esanahi-esparruaz gaineko zehaztasun teknikoa ("concordancia" adierazteko) erantsi diolarik, alegia...

Euskaldunen egunoroko hiztegiakoei ere, beste adiera berria ematen die, arlo zehatzen batean erabili ahal izateko, hots, hedapen edo zabalkuntza semantiko deituko genukeen prozeduraz baliatzen da, hitzak bi mailatan, arruntean eta zehatzean bakoitzak bere esanahia gordetzen duelarik: *larri* (cursiva); *sortzaile* (generative); *aldatzaile* (transformational); *egitura* (estrukturalisten "estructura"); *azal*, *itxura* (forma); *mami* (contenido), *multzo* (conjunto)...

Halaber, euskarak eskaintzen dizkion baliapideei etekina ateraz, eratorpen eta elkarketara jotzen du, euskal erroa duten baina gauzatze zehatz hori izan ez duten hitzak sortzeko, nahiz besterengandik hartuz bere erara moldatzeko: *hitz ziodun* (mot motivé), *doinu-gailur* (cima, cumbre de entonación), *bereizgarri eskutada* (haz de rasgos distintivos)...

Hitz-sorketa ez du hiztegi teknikoaren eremu bakarrera mugatzen, honetan nabariagoa bada ere, jokabide honi heltzen zaio bai terminologia-premiak eraginda bai adierazkortasun nahiak bultzatua. Bestela esan, eskaini ditugun adibedearen urritasuna barkagarri bazaigu, ausartuko ginatke esatera, Mitxelena ez dugula hiztegi sortzaile edo, hobeto esan, berritzaile terminologia zehatzezkoetan bakarrik, asmo edertzaileak, literarioak ere baduela eragina honetan: *armoni kolore*, *aspergarritasun* edo *musika itsaskor* adibe batzu jartzearren.

Nolanahi dela ere, azpimarratu nahi genuke, hizkuntza teknikoen barrutian, eta hizkuntzalaritzaz ari gara batez ere, iritzi sendo bati heldu nahia. Hizkuntza mota honek egunerokoak ez bezalako legeak ditu, buruen-buruenik zehaztasuna dagoelarik (gogora Orixeren makurtzat jotzen zuena), hau dela eta, euskarak aukerarik eskaintzen ez digunean edo naziortean onarturiko hitza denean, ez dugu zertan aurreiritzi ustelik izan, behar dena mailebatzeko, euskararen moldeetara egokituz, noski.

Mailebutzat ez ditu joko zenbait garbizaleren uste eta “konpontze” asmoen kontra, euskaldunek aspaldi-aspalditik bereganatu dituzten hitzak, euskaldun ezjakinak kopeta batere zimurtu gabe darabiltzan *eliza, fru(i)tu, santu* edo *lege* bezalakoak, alegia, bai, ordea, *gramatika, funtzio, filosofo, azentu, silaba, linguistika* etab., azken hauek erabiltzeko erreparorik ez duen arren. Guztiarekin ere, bere onetatik aterako du erraztasunaren aitzakian, samaldan erdarazkoak sartzen ari direnen jokabidea, lehenean ez arakatzearen ondorio bada, batez ere.

Esanagatik, agerian dago, gure ustez, Mitxelenaren ezaugarrietako bat ezagupideetako, hobeto esan, Hizkuntzalaritzako bereziki, terminologia egokitzaila ez eze, bide erakusle ere badugula, haren ondotik ibiliek darabiltzatenek erakusten duten bezala.

Hiztegiari dagozkionak garrantzitsu izanagatik, ez lirakeke gure ustez, Mitxelenaren prosaren molde eta izakera berezia agortuko luketenak. Hizkuntza osoa darabil gisa berarizkoan, testu motek literatur jantziak erabiltzeko aukera handiagoa ematen diotenean batez ere, hots, zientziaren zehaztasuna eta hoztasuna ezinbesteko ez direnetan. Baina azken hauetan ere, “bere tajukera” ematen dio hizkuntzari “artifizialtasunik” sumatzen ez zaiolarik.

Testu literarioagoetan nagusiki, arestian genioen erabilera sortzaile horren adibide genuke adibidez, sintagmaren osagaiak ez dituela itsumustuan, ez ohiturak iharturikoen arabera aukeratzen, osagai


horien arteko kontraste (axaleko eta mamiko) edo ez ohizko loturak bilaka dabilela esango genuke, sintagma berri oso horri maiz irudi estilistiko betearen izaera emanaz.

Halakoetan, ez du beti jokabide bera: beste literaturetan ere erabili izan diren irudiak euskaraz egokitzea jo ohi du, *bizitza honen ur lasterren ezin geldia, betikotasunean murgildu*; bestetan, aldiz, guk dakigula, honelako erreferentzia gerturorik ez dutenak darabiltza: *eztabaidaren haize haserreak berotu, gozo-gabeko urteak, giroari entzungor egin, gau-egunetako ametsa...*

Hizkuntzaren erabilera sortzaile honek, baliteke irakurleon lana nolabait zailtzea, gure esku gelditzen baita interpretatzea baina irakurle langileak eskatzen ditu (lanik ez zaiela gehiegi erraztu behar esaten du behin baino gehiagotan) Mitxelenak. Irakurle langileak beti, balizko irakurle bera agian izango ez duela dakielakoan, hau da, testu-motaren arabera irakurleak topa ditzakeen oztupoak desberdinak direla jakinik, Mitxelenaren idazkerari oro har egotz dakizkiokeenak alde batera utzirik.

Testu teknikoagoen irakurleei eska dakiekeena da gaian jantziak egotea, noski, gai horri buruzko beste hizkuntzetako bibliografia ezagutzea...; hau dela eta, lehen terminologiaz genioen legez, ez dago zertan nazioarteko lexikoan erabiltzen direnak itxura “euskaldunago” izan dezaten zehaztasunean galduan irten. Irakurle aditu eta heldu horrek izan behar du gauza mamiari dagozkionak ulertu ahal izateko eta trabarik aurkituz gero, batez ere mamiari dagozkion hutsuneez sortuak dira, ez (Orixe datorkigu gogora) metafora ederrez eta halako herriskan esaten omen den halako bitxikeriaz josiriko hizkuntza poetikoak edo ortografia-arau ezak sortuak.

Irakurle honek Mitxelenaren erudizioa du seguruenik etsairik indartsuena. Irakurleari ez zaio lana behar ez denetan oztopatu behar baina, irakurleak maiz ez ditu Mitxelenaren aipamen zuzen eta zeharkako guztien giltzak eta bere esku geratuko da, testua osotasunean ulertu nahi badu behintzat,



aipamen guzti horien erreferenteak zein izan daitezkeen bilatzea, irakurleari dena egina eman behar ez zaionez gero.

Galileo ondoko irakurle hiritarrarekin ari da Mitxelena, itsu mutil bere buru soila eta ez dogmen irakaspide ziurra duen XX. mendeko irakurle euskaldunarekin, horregatik ikasia, jantzia behar du, nonahi, eta ez Euskal Herrian bakarrik, gaiaren konplexutasunari aurre egin behar dion edonongo irakurlearekin, alegia.

Aipatu berri ditugun testu-moten irakurle bera ere izan daiteke, noski, bestelako testu samurragoen irakurle, alderantzizkoa, aitzitik, beti betetzen ez delarik. Nolanahi dela ere, hizkuntz ikerketan sartua nahiz inolako zerikusirik ez dutenetakoa izan, saiatu beharko du lorpenik eskuratu nahi izanez gero.

Zailtasunak oraingoan ez ditu mintza edo aztergaiaren edukiaren muga estuen barne topatuko,

ez horretan bereziki (testu-gaiaren berri izan behar badu ere, jakina) beste bide batzuetatik baizik, eta bide hauek lirateke, gure ustez, Mitxelenaren prosaren ezaugarriak nabariena.

Esan bezala, irakurle orogatik esango genuke, heldua, langilea, gaurko gizarte industriak inguratuan bizi dena, egungo gertakarien berri baduena... direla bete beharko lituzkeen eskakizun batzuk.

Mitxelenaren mezuaren hartzaile horrek aurre egin beharko dio, besteak beste, zuzenean eginak gutxi bailiran, egileak hainbat eta hainbatetan darabilen aipamen izkutuak egiteko baliapideari, nolabait esan, Mitxelenaren "izkutuko arerioari".

Egiten dituen aipamenen artean zenbait mota ekarri nahi genituzke hona, agor-asmorik gabe, argibide:

—Esaera, atsoz, errefrauak nahiko maiz

aldatzen ditu paperera. Hauetako batzuk ahozko hizkeratikakoak diren arren, bese zenbait tinta-iturria dutenak lirateke, esate baterako *Refranes y Sentencias*etik edo Garibairen bildumatik hartuak direnak. Bai zuzenean, bai moldaturik ematen dituelarik.

—Maite ere du, euskaldunen ondoan, beste hizkuntzazko esapide egin, lokuzio, *idioms* etab.ak, jatorrizko hizkuntzan nahiz euskaratuak ematea.

—Bibliako nahiz Santu edo Elizako Gurasoen aipamenik ere ez da falta.

—*Auctoritatetzat* dauzkagun egile ospetsuen aipamenak ere irakurri ahal izango ditugu, filosofo, fisiko, teologo, matematikari, literaturgile etab. luze batenak.

—Baina aipatu berrien ondo-ondoan Xenpelar, Bilintx edo Txirritaren bertsoek ere bere lekua izan ohi dute. Baita, *La manguera dónde está, dónde está la escalera* gisako adibideek ere.

Aipamen guzti hauek batzutan kokatuak dira, hau da, egilearen izen soila, egilea eta Mitxelenak begiz jotzen duen esaera (jatorrizko hizkuntzan nahiz itzulita) topa ditzakegu, bestetan aldiz, adi egon behar du irakurleak "*harako hark*" edo "*bestek*"-en atzean nor izkuta ote daitekeen jakin nahi badu. Beste batzutan azkenik, bat ere markarik gabe botako ditu beste norbaiten hitzak, eta azken hauetan, noski, zailago izango da esaera horiek Mitxelenaz beste gurasorik ote duten jakitea.

Aipamenok testuan txertaturik ditugunean betekizun bat baino gehiago izan dezakete: "exenplu" gisa, konparagai, argibide, hornibide etab... Baina guztiarekin ere, idazkerari halako aire eta tankera berezia ematen diote, Mitxelenaren erudizioa eta irakurleak testuaren gainean, baina testutik abiatuz, lan egin behar duela azpimarratzeaz gain.

Errenteriarrak txit gogoko baitu, Orixek eta bertsolariek bezala, gauzak esan baino erdiesatea⁸, alusioa; aieruka, imintzioka aritzea; ukitu arina zaplazteko zalapartatsuaoren orde. Ez du inola ere maite Unamuno baten *gogo-strip-teasik*,

horrexegatik, guk uste, ez du erlijioaz edo fedez idazten, norberari bakar-bakarrik dagozkionak direnez gero.

Irakurlea ergeltzat eta nagitzat ez izatearen ondorio ere bagenukeen erdi esanak idazkeran isla behar du ezinbestean. Azalpen ahalik eta gutxienak emateaz gain, trinkotasuna, kontzeptismoa, elipsia, labur-beharra ditugu nagusi han-hemenka, mezu-hartzailearen ardurapean utziz hutsuneak betetzea. Hau dela eta, gure ustez, irakurketa bilaketa bihurtzen zaigu eta era berean gozamen-iturri, zenbat eta gehiagotan irakurri eta kokatu izkutuko horiek orduan eta beteago, aberatsago eta biribilago begitantzen baitzaigu testua. Baina hau egin ahal izateko irakurleok euskararen sustraiak ongi ezagutu beharko ditugu, euskararen jabe izateaz gain euskara landua beharko dugu izan, ez baitigu balioko senide arteko edo lagun arteko euskara soilak.

Elipsia, labur-beharra, biribiltasun betegina ez ditu haatik Mitxelenak hutsetik sortu, bai baitituzte erroak, gure mintzalditxo honen hasera samarrean genioenez, jaidura hori bera azpimarratzen du ORIXE eta LIZARDIGAN, bigarrenaren hitz lauuko lanetan ere ikus daitekeena.

Horregatik hasieran zabaltzen hasi garen borobilaren amaia-puntura iristen ari garen honetan berriz azpimarratu nahi genuke, Mitxelena lehengo bideen jarraile dugula, bere gisako jarraile den arren, egile handiei dagokien legez. Hizkuntzazkoetan Larramendi birraipatu nahi genuke aitzindari, estilozko zenbait gauzatan Orixe eta buruen-buruenik Lizardigandik hurbil samar ibiliko litzatekeelarik, beti ere gogoan izanik euskal baranoaz kanpokoetan bilatzen ez garela aritu, noski, eta hauek ere hatza utzi ahal izan diotela.

Lau euskaldun hauek, besteren saio eta lanik ukatu nahi gabe, indarrak eta kemenak eskaini dizkiote amets berari *euskara zahar eta larrekoa betiko eta noranahiko bilakatzeari*, alegia. Hor ditugu azter ditzagun eta hauta baliagarri zaiguna, hala nahiz gero; gerokoa... geure esku dago.



OHARRAK

1. Moldezko izaera eskuratu duten arren, mintzaldi gisa irakurriak izateko bururatu genituenez gero, aldeka batean utzi nahi izan ditugu testua horni (eta behar bada, argi) zezaketen oin-ohar, aipamen, adibide eta tankerakoak, irakurte-raztasunaren mesedetan zehaztasuna galduan atera daitekeen jakinarean gainean. Baliteke, halaz ere, *aukeraren maukera*...

2. Egia esan, proportzioa ez da, axola handikoa denik inola ere ukatu gabe, arrazoi bakarra. Mamitzen ari garen tesiaren norabideak ere badu, noski, zerikusirik.

3. Ez diegu oraingo honetan Orixe euskalari zein gizon-motari Mitxelenak irizten dienei erreparatuko.

4. Areago, Orixei "barkatzen" ez dizkion zenbait Lizardigan "ulergari" bilakatzen dituela esaten ausartuko ginateke, Euskal Herriaz duten ikuspegia eta beronen literatur-isla kasurako.


5. Berresan dezagun, ez gara Mitxelenaren baliapide estilistikoan azterketan ariko; hauen hizkuntz mamiari dagozkionak ditugu batizpat begiz jo.

6. Alde honetatik 1957ko TXILLARDEGIren *Leturiari* eginiko sarrera lehengo garai-giroen heriotz-ziurtagiria ez eze berri-gaztearen aldeko apustu argi eta nabaria ere da.

7. Oroi Mitxelenak, urrutirago gabe, batasun-bidean jasanak.

8. Luze joko duen arren ezin IBARren hitz hauek papereratzeari uzkur egin. Orixeren *Euskaldunak* poemaz ari dela, honakoa irakur daiteke: "Su concisa fraseología, su caudal de modismos intraducibles, la forma habitualmente elíptica de su construcción, tan del gusto del euskaldun puro y tan corriente entre los buenos bertsolaris...(1). No faltarán quienes imaginen que "Orixe" abusa aquí arbitrariamente de la elipsis. Aconsejamos a los tales que se tomen el trabajo y el placer de hojear el curioso poema histórico-aneecdótico de Hiribarren, publicado en Bayona en 1853 bajo el mismo título "*Eskaldunak*". Salta a los ojos la semejanza de las dos obras en lo que atañe al laconismo de la frase, y concretamente a la omisión del verbo y del artículo. Pero, por un lado, la fecha del poema labortano no permite sospechar en su autor devaneos reformistas; y, por otro, nos consta positivamente que meses después de terminado su trabajo, "Orixe" no conocía aún el de Hiribarren. Esto quiere decir que también se ha de descartar la hipótesis de la imitación literaria. ¿Será muy aventurado atribuir la coincidencia de ambos poetas a la común posesión del mismo genio estético euskaldun? IBAR (1935): *Genio y Lengua*. Moco-roa, Tolosa, 224. or. (Azp. gurea).

SANTI ONAINDIA



*Euskal Literaturaren pusketak.
Bizkaian batez ere*

Atzo Santa Teresa arratsaldean (1990), geure ortu azpiko ibai ondoan nintzan eguraldi gozo bikainean. An zegoen leen eiztari bizkor izandako gizaseme bat ere, txispa belaungain zeukalarik. Eiza gure elkar-izketa luzea. Jardun eta jardun bere leen-aldietako eiza-mirariak kontatzen. Azken bota nion nik: “Eta orain, zer?” Eskuratu zuen txispa, eta *pum!* Sagar-ondo gainean kantari zegoen kardantxilea, illik lurrean. Aserre egin nion txori gaixoa eratxi zuelako: etzan kaltegarri, kantari ekion. Urbildu nintzaion, eta an bide-ertzean, azkenetan...

Beste orrenbeste ez ote zan gertatu Euskal herriarekin azken gerra sortzean? Paketsu zegon gure herria, kantari, istillurako gogorik gabe. Eta or goizetik gauera odol artean. Galdu zan gerra, andik eta emengoekin mendiak eta kaleak illez beterik. Ondoren, sekulako zigorra! Eriotzak, espetxeak, erbesteak... Gure izkuntza, epaipetua; ixil-azoa, debekatua.

I

Gerra aurrexeko egoera

Gure izkuntzak izan ditu bere makaltze ta esnatzeak. Beti izan ditu gaiñ bi etsai: euskaldunok irakutsi oi dugun geure izkuntzaganako garrrik eza, eta espaiñar gobernuak gizaldi saiatu duen zigortze fiña. Augatik, azken urteotan batez ere, nekez eta iltzear dakusgu gaixoa.

Lenengo puntuari begira panparroi samarrak gera euskaldunok; mingaiñez egia au ta beste esan oi dugu, baiña gero, egifietara jotean, urri jokatzen. Gure animaren arnasa, izkuntzarik zaarrenetariko, gozo, aberats, ederra... olakoak eta bost errez datoz gure barrutik. Eta beroni eusteko, ikasi, mintzatu, idatzi, arnas eman? Ori, zori txarrez, geiegi ez ote dugu?

Gobernauk, ordea ez dio iñoiz ere begi argirik erakutsi ez gure lurrari, ez izkuntzari. Erdikoari begira, beti astindu izan dizkigu egaletako izakuntza, Errege Katolikuetatik asi ta gaur arte atertu barik. Baita gerrateak jasan karlisten burrukak erlijio, foru ta euskara zaintzearren izan ziran; ari ortakoa zan Arana-Goiri ere: Patxi Uribarren-ek dionez, "Euzkadi euskaldunon aberria da" aitortzeak ikuspegi berri bat sortuko da Euskal Herrian zehar. Gaur egun hain garbi ageri zaigun ikuspegi politikua". (*Karmel*, 1978-1, 54 orr.)

Beronen lumak idatzia da au ere: "Une historiko hau ere kontutan hartzekoa dugu. Aurrerakada haundi bat egiten da euskara arloan. Euskal ikastolak sortzen dira, euskal aldizkariak ugaritu eta euskal komunikabide batzu ere agiriko zaizkigu. Politika mailan ber-jabetzearen ixaropena agertzen da.

Herriak askatsun haizeak somatzen ditu bazterretan eta bizitasun berri bat nabari da alde guztietan". (Ibidem)

Garai artakoa naiz ni, eliz-karrera ikasle oraindik, baiña euskal auzietan buru-belarri sartua. Egi utsa da idazleak emen diñona.

Gure izkuntza, "Orixe"-ren iritzi jatorrez, abertzale ideia politikuak bakarrik eutsi ta zainduko duen arren, emen ez diogu alderdi orri ukuturik egingo Literaturazkoa soil-soilki izango zaizu gure jarduna. Ez ditugu gainera ikuspuntu denak zeatzmeatz, garrantzitsuenak baizik, gure literatur barrutia egoki ta bipillen agertu ta erakasten dutenak noski. Idazle, liburu, aldizkari ta abar.

A) Idazleak

Idazleak dagite literatura, eta idazleak giroa, herri-giroa bear dute luma erabiltzeko. Eta idazleak berak eta herriak dituzu-idaz eta irakur-giroa sortzen dutenak, eta emendik dator ondorioz literatura. Aztertzen dugun garaian bazan arnasa artu naia. Primo de Rivera jausia zan, eta ongi zapaldua zegoen euskal herriarentzat aro berri bat zetorren garraixika.

Abandoarrak piztutako suak, naiz ixilik naiz agerian, gero ta sail aundiagoak artuz zetorren, idazleak, egunkariak eta jendeak zabalkunde giarra zegien bazterretan. Euskerazko txatalak zekazkiten erdal egunkariak, "Euzkadi" adibidez, saiets lagata ere, ona euskera utsean edo euskera-erderazko auek: *Jaungoiko Zale* (Zornotzan 1912-1932) eta gero *Ekin*, gerrararte; *Jesus'en Biotzaren Deya* (Bilbao, 1917-1936) *Euskera* (Bilbao, 1920-1936), *Euskal Esnalea* (Donosti, 1911-1933), *Argia* (Donosti, 1921-1936), *Gure Mixiolaria* (Gasteiz, 1923-1936), *Zeruko Argia* (Iruña, 1919-1936), *Euzkerea* (Bilbao, 1929-1936), *Karmengo Argia* (Zornotza, 1931-1936), *Eguna* (1937ko Urte Barri egunetik ekainaren 16 rarte, Bilbao-n egertu zan, *Yakintza* (Donosti, 1933-1936).

Guztiaz, beste pitiñago batzuk eta mugaz andiko Eskualduna leenengo ta *Gure Herria* gero, euskal

argitalpen xorta polita osatzen zuten. Eta gerra bukatzerakoan, emengo aldekoak beintzat, ixil-leizara bearra izan zuten.

Orduko idazleak bazuten non beren euskal lanak argitara eman. Eta oietan idazten zuten aspertu bage. Orduko itzalia zan arren, Txomin Agirrek (1864-1920), merezi du aipamena; izlari, idazle eta olerkari trebe, etzan aize-txibitoska ibilli, or eredu bere iru nobela, *Auñemendi'ko Lorea* (1898), *Kresala* (1906), *Garoa* (1912), sarritan argitaratuak irurak; or R. Marria Azkue (1864-1951), gai askotan erraldoi dugu lekeitiar argia; iru aldizkari auk *Euskalzale*, *Ibaizabal* eta *Euskera* berak sortu ta zuzendu zitun; bereak ditu baita bi aletako *Iztegia* (euskal-erdal-frantses), *Cancionero popular vasco* (1922), *Morfología vasca* (1923), *Euskalerraren Yakintza* (1935), lau ale, beste lan txiki askoren artean.

Garai artekoak baita: Aita Olabide gazteiztarra (1869-1942), *Itun zar eta berria*, osorik, euskera jori-sotillean ipiñi ziguna; or *Jon B. Eguzkitza* lemoarra (1875-1939), euskal lan askoren artean *Garbitokiko Arimen Illa* (1915), *Andra Mariaren Loretako Illa* (1919), *Gizarte-Auzia* (1935) eta ainbat lan *Jaungoiko-Zale-n eta Ekin-en*; “Orixe’k onela” “...nire ustez, oraiñarte izan dogun euskal idazlerik bikaiñena”; egun aietakoak Manuel Arriandiaga elantxobetarra ta Paulo Zamarripa, idazle bizi ta joriak, ainbat liburu erri pitxiz orditutako eskaiñi zizkiguna; Pierre Lhande (1877-1957), iztegille ta idazle bipil; Juan Kruz Ibargutxi (1893-1969) erlijio esparruan liburu mordoa, euskera ederrean idatzi zuena; Gabriel Manterola (1890-1987), euskaltzale jator, itz lauz ta bertsoz idazle ugaria; Biktor Garitaoanandia (1876-1929), Zaldibartar onek Donostiako Argia zuzendu zuen urteetan, bereak ditu gaiñera iru antzerkiok: *Iziartxo*, *Ongillearen saria ta Aitona ta Biloba*, sarri antzezturiko komedi atsegiñak; eta geiago ez luzatzearren Aita Gabriel Jauregi (1857-1945), karmeldarra, Aramaioko semea, liburu bi oso interesanteak, *Pisia* (1935) eta *Kimia* (1936) osatu zituna.

Euskaltzaleak

Egia esateko, ez aurretik ez gero, ifioiz somatu ez duenaiñako bultzada bizia sentidu zuen gure izkuntzak. Aize ongille orren girora euskal herria ta euskal jakitun taldeak lanerako tresnak gertatu zitun. Gizonetan bi or ziran ernai Lizardi ta Aitzol, kultura zabaleko ziranak, beren asmoa euskera bizitasun berrizi jantzi. Amets leiala benetan! Elkartu ziran eta xede berdiñez sustaturik, jai batzuk antolatzen asi ziran. Elgoibar-en ospatu zuten lendabizikoa, 1926 an ain zuzen ere. Mutriku-n urrengo urtean, eta urte ortan gaiñera Euskal Eguna ospatu zan Arrasate-n. Orduantxe jaio zan “Euskaltzaleak” elkarte, euskerearen alde ainbat lan bikain burutuko zuena.

Arrasateko itzaldian Lizardik onela: “Gau beltz artan, Elgoibar’ek eta Mutriku’k izar bana izeki zutan... Dardarraz izeki, argi emateko ere lotsaz. Baña urrena, emen, zuen erri ontan, Arrasate’n, ilbeteak (illargi beteak) illunpe ZILLARREZ YANTZI ZUN goiz berri baten itxaropena, eguzki berri baten uste gozoa biotzetara zekarkigularik... Ta orduan, Arrasate’ko euskal-egunez, orain gauden areto ontan berton, txiki ta aul, ume axialgorri, “Euskaltzaleak” deritzan elkarte sortu zan. Gaur, iru urtez-gero, Euskalerrri osora egunero bere otsa zabaltzen du; ta ez nizuke gezurrik esan nai, laister Euskalerrri’ko lagun-arterik ugarien eta indartsuena izango dela adieraziaz”. (*Itz-lauz*, 134 orr.)

Oraindik ere aintziña jarraituz, onela bukatzen digu itzaldiaren aria: “Eztet askorik geieago luzatu nai. Soil-soilki, obeto ikusi dezazuten zertzuk egiten laguntzeko zeren izenak eman bear dizkiguzuten esan dezagun laburki, “Euskeratzaleak” emen yaio-ezkeroztik egin dutenaren berri:

—“Zumarraga’ko euskal-egun oroigarria, Andoain’goa, Segura’koa, Errenderi’koa, laster Bergara’koa ere, ta Otxandio’koa: bertan gure yolas garbiak, dantza dala, pelota dala, palanka, bertsolariak, eta abar eder-agertu; bertan euskera goratu ta umeai maiterazi.

—“Euskal-Idazle-Batza deritzan euskerazko

eskribatzaleen elkartea irasi edo fundatu. Betirako sari bat asmatu ta bildu erazi, ortarako euskerazko artikulurik onena sariztatzeko edo premiatzeko.

—“Euskerazko Poesia edo Euskal-Olertiari egoak luzatu, olerkariak berotu izan baitute erria bizkunde guzietan.

—“Euskerazko Teatroa, edo Euskal-Antzertia (oraindik gitxi bederik) xuxpererazi, ta Euskal-Txontxongilloak edo “guignol”-a yarri.

—“Euskerazko liburu salketak eratu.

—“Euskerazko eguneroko periodikoa nola ta zenbatez egin ditekenez aztertu, ta asmo aundi au egin-bidean sartu.” (Ibidem, 139 orr.)

Eta zoztorrik izan etzan urteetan asmo auek nola eramane ziran aurea ikusirik, orain amar bat urte Olerti-n idätzi nuen nik, euskerazko egunerakoaz batez ere: “Nolako asmo zabalak! Egunerakoa euskeraz! Gaur, ainbat urteren ostean, ez gara gauza olako bat antolatzeko, eta Lizardi’k zeatz-meatz eman zizkigun gorabera ta zertzeladak oro. Ez dezagun esan beraz, jalgi aiek ikuspegi-motz eta xede-urri ziranik. Orduko euskeraren aldeko mogimentu osoa lau-bosten eskuetan zegoen, eta bear bada beroen arnas-emailerik bipillena Lizardi genuen, gaur ere iñork gaingidu ez duen olerkari yaunkala”. (Olerti, 1980, 7 orr.)

Gizaseme erraldoi be genitun Lizardi ta Aitzol; ark itzaldiz ta bertsoz eta onek itzaldiz eta “Yakintzaz”, dardarka jarri zuten euskal erriko idazleak eta erria bera; berak izan ziran orduko euskal —gar eta gora— nai osoa galgatu zutenak. Etzan orduan elkarri sakaka ibiltzerik; denok gogoaz batez eldu genion lanari, eta olerkariak ez zijoazten atzenengo, olerkariak bait dira pizkunde guztietan erria ta izkuntza sustatu dituztenak.

Premiñazkoak dira onakoetan zirikalariak; lo dagoana esnatu egin bear. Eta zirikalari biok, Lizardi ta Aitzol; Lizardi lenengo Eusko-Olerti egunen bidez, eta Aitzol gero “Yakintza” aldizkariaren orrien bitartez bereziki. Oien biran erneak garai artako itz-lauzko ta neurtizko idazlerik geienak.

B) Liburuak

Ausart eta errima jokatu zuten kinka artan bai laikoak eta bai eliz-gizonak euskerearen alde. Beti gertatu bai da orrela; gure literatura lekuko, apaizak beti artu izan dute lenengo zerrenda euskal izkuntzaren alor-lanean; ez leen ez orain ezin dezakegu egiaz baieztatu.

Bego emen, leen aipaturiko idazle-saillaren ostean, besteok argitara eman zituzten liburu auen aipamena ere. Inguru artan ari izan ziranenak dituzu denak.

—Seber Altube. Idazle ta izkuntzalari. Au zioan: “Euskera ez dedilla il, Euskera biziari eutsi” Asmo eder au gidari zuela zenbait lan baliotsu burutu, ez *Erderismos* bakarrik, baita ainbat euskal lan (*Izkuntz-jakintzia ta euskeriaren bizitzia, Euskerearen joskera, Euskal itz barrijak, Literatur-Euskera ta olakoak*) “Euskera”-n, “Euskal Esnalea”-n eta besteetan argitaratu ere.

—J.G. Ibargutxi. Ubidea-ko seme. Sail galanta du berea: *Jangoikoaren Legeko Aginduak* (1925), *Eleiz Ama deunaren Ikurtonak* (1932), *Edesti Deuna* (1936), *Geroko Biziza* (1953), *Otoia* (1955), *Siñiskaiak* (1959).

—Nazario Oleaga. Legegizona. Euskaltzaindiko idazkari. Bere liburuak: *Zurtasun gogoa, Esakunak* eta *Ipuñak*.

—Joseba Altuna (1888-1971). Itzulpen asko ditu: *Esopo’ren Ipuñak*, Oscar Wilde’ren *Ipuñak* (Bilbao, 1927), Afanasiev’ren *Ipuñak* (Bilbao 1930), Grimm anayak *Ipuñak* (Bilbao, 1929). Beronek euskeraztu zitun Manu Sota-ren lau antzerkiok ere: *Itxaro-ixarra* (Bilbao, 1931), *Oztin* (Bilbao, 1932), *Negarrez igaro zan atsua* (Bilbao, 1933), *Buruzagiak* (Bilbao, 1936).

—Mikel Arrutza (1890-1966). Idazle ta erakusle. Euskerazko erakusteko gramatika saio askoren artean ditu lan auek ere: *Euskeraz ikasteko bide erras, Etxe-kalte, Jo!, Irrati-saioak*, eta abar.

—Kepa Ormaetxea (1891-1949). Zornotzarra. Olerkari. Asko idatzi zuen “Karmengo Argia”-n. Txile-n zegoelarik, emengo gerra ostean, bertsozko



bi ipui-liburu argitara zizkigun: Lontzi Aba'ren *Ipuintxuak* (Santiago, 1947) eta Lontzi Aba'ren *Bigarren Ipuintxuak* (Santiago, 1948).

—Bernardo M. Garro (1891-1960). Mundakarra. Lizardik onela: "Ona ezin polikiago ari dan idazle bat. Asteazkenero, uts-egin gabe, arki dezakezute Euzkadi-ko Euzkal-Atala-n Otxolua-ren idazki mamia". Lan askoren artean, bereak ditu: *Bertolda eta Bertoldin* (Bilbao, 1932), *Abere dontsuak*, *Abere Ipuñak*, J. Barbier-en "Ixtorio-Mixerio" bizkaieraz, eta artikulo asko aldizkarietan.

—Aita Ipolito (1892-1976), karmeldarra, euskal idazle porrokatua. Liburu argitaratuak: *Grimm Anayen Ipuñak* (Bilbao, 1929) eta *Erromako Eleizearen Araudia* (Gasteiz), Kardaberaz Bazkunak argitaratua, eta Olabide-ren *Barri Ona*, bizkaieraz.

—Bedita Larrakoetxea, Ipolito-ren anaia, gerra ondoren, Salta-n irakasle zala Sakhespeare-ren dramak, komediak eta trajediak euskerara itzuli ta argitaratu ondoren, oraintsu illa. Biak euskal idazle jator-jatorrak.

—Kepa Enbeita (1878-1942). Muxika-ko Urretxindorra, oleskaria bikaiña. Kantari goxo, txukun eta zentzun aundikoa, gerra aurretik, or-emenka, etenbarik bertsolari ibillie. Bi liburu ditu: *Enbeita oleskaria*, (Zarautz, 1966) eta *Gure Urretxindorra* (Buenos Aires, 1971).

—Esteban Urkiaga (1905-1936). Poeta eta izlari. Gerratean fusilatu zuten Gasteizko obitegian. Beronen poesi-lanak: 1) *Bide barridak* (Bilbao, 1931); 2) *Arrats-beran* (Bilbao, 1935); geroago argitara emanak; 3) *Olerkiak* (Bilbao 1974); 4)

Olerki Guztiak (Bilbao, 1985). Lizardi ta Aitzol-en lenengo garaiko Lenengo Olerki Sariketan beronek jaso zuen len-saria, *Maitale* kutunarekin.

Z) Albizkariak

Egunkariz eta aldizkari ez gera gaizki gertatu euskaldunok, leengo urteetan gaur-egun baiño oparoago. Naiz eta geien bat erderaz jalgia izan, zein prosaz zein bertsoz. Lau probintziotan ez gero ortan nagi agertu. Gerra ondoren itzali ziran denak. Emen ez ditugu gaur aipatuko, egunkariak-eta alhora utzirik, aldizkari sonatuen batzuk baiño, luzeegi ez egitearren noski.

Sailkatzea eder dan ezkerero, mugaz emendikoak (angoak ez bait zuten aldatze ta zigortzerik izan), ots, lau probintzietakoak, aztertuko ditugu, labur bederen, jakin dezagun batez ere nolako galpena izan zuen euskal literaturak, garai artan artu zuen zigor-astiñaldi izugarriarekin.

1. Bizkaiko aldizkariak

Igaro mendean eta gurearen iru amarkoetan batez ere, berein egunkari ziran Bizkaian; baiña, *Aberri*-k eta *Euzkadi*-k orrialderen batzuk euskeraz azaldu arren, beste danak erdel-kutsuzkoak ziran. Auek, ostera, euskera utsezkoak:

—**Euzko-Deya.** Euskaltzale Bazkunak sortua (Bilbao, 1916). Au ere “Jel” eta “Euzkadi”-ren antzera, euskereari eusteko orduko gaztediak babestutako aldizkaria. Euskera utsean zetorren. Etzuen luzaroko bizia izan.

—**Euskaltzaindia.** Araba, Bizkaia, Gipuzkoa ta Nafarroako lau Aldundien babespean sortua, 1918-an, urrengo urtetik 1951ean il zan arte Azkue izan bere buru. Ainbat lan baliotsu egin izan du urteetan zear arrezkerero guztian.

—**Euskera.** Euskaltzaindiaren aldizkaria. 1920-7-23-ko batzarrean artu zan berau aterateko erabakia. Aita Lhande-k izan zuen leenengotik orren ardura.

—**Jesus'en Biotzaren Deya.** Aita Jesuitena.

Illerokoa. Bizkaieraz eta gipuzkeraz. Bilbao-n, 1917-garren urteko urtaillaren lenengoetan agertu zan len-zenbakia. Ainbat idazlek (Orago, Basabe, Orixe, Aita Galdos, Laskibar, Zitegi, Lauaxeta, Argarate, Felipe Zugazaga... eta beste askok).

—**Euzkerea.** Jeltzaleena. 1929-ko urtarrillean asia, illabitik beingoa. Olerkariak eta eder-zaleak zuzendutakoa; “Jaun-Goikua eta Lege-Zarra” zuen ikurratz edo elburu.

—**Jaungoiko-Zale** (1912-1932, eta gero Ekin (1937). Apaiz-alkarteak argitaratzen zuen. On Zirilo Artzubiaga zan zuzendari. 1917-an irar-tresna berriak erosi zitun elkarteak, ainbat orri eta liburu ere argitara emanik.

—**Karmen'go Argia.** Karmeldar Aitak, 1931n, illeroko aldizkari bat sortu zuten, Jaungoiko-Zalek eta Ekiñek bezela, euskal erriari mesede aundia egin ziona. Beste karmeldar asko legez, ni ere aldizkari onen bitartez egin nintzen euskal idazle.

—**Eguna.** (Bilbao, 1937); sei illabete t'erdi iraun zuen. Zuzendari, Manuel Ziarsolo, Zuzendari-orde Agustin Zubikarai eta Aolkulari Ander Artzeluz (Luzear) eta Artetxe-tar Luki. Laguntzaille ugari ta zintzoak zituen. Eta garai artan frentean genbiltzanok atsegiñez irakurria zan.

2. Gipuzkoako aldizkariak

Euskal-Erria (1880-1910), El Bidasoa (1880) ta Eusko-Iraskuntza aipatu ezik ere, ba-ditugu Gipuzkoan Poxpolin, umetxoentzakoa, Lopez-Mendizabal-ek, 1935an, Tolosa-n sortua, Igande Orria eta besteak.

—**Euskal-Esnalea.** Tolosa-n izan zuen asiera, 1908-an eta 1931-rarte, Gregorio Muxika, au zuzendu zuena, il zan arte, iraun zuena. Konta ezinala euskal-lan, itzultze, olerki-sariketa, antzerki-sariketa ta itzaldi eratu zituen.

—**Argia** 1921-1937. Asterokoa, euskera utsean. Anbrosio Zatarain-ek bultz eraginda, apaiz-talde gazte batek sortua, euskal erri osoan mesede ikaragarria egin zuena. Bitor Garitaonandia zaldibartarra zuzendari 1929-arte, ta au il zanean, P.

Etxeberria, Jose Arrue, Ambrosio Zatarain eta Luzear.

—**Bertsolaria.** Asterokoa. Errenderi-n azaldu zan 1932-ko agorrillatik aurrera; 54 zenbaki.

—**Antzerti Tolosa, 1932.** Antzerki-egunak ospatzen zirala-ta, giro bizia sortu zan bazterretan antzerkirako. Beraz, biotz azkarrak bultz eraginda A.M. Labaien eta Lopez Mendizabal-ek jaio-azi zuten.

—**Yakintza.** Donostiko Aldundegian; lenengo zenbakia, 1933-ko ilbeltz-otsailla, 80 orrialde. Euskaltzeak sortu zuen, eta asmoak? Onela dio: “1880-garrenean Euskal-Erriak eta 1911-garrenean Euskalerriaren Aldek agertutako itzak erabilli nai zituzten. J. Aitzol zan su-emale.

3. Arabako Aldizkariak

Ezta askorik, baiña Apaiztegia, Seminarioa zijoan aurrelari.

—**Eusko-Folklorez** (Gasteiz, 1921). J.M. Barandiaran-ek sortua Euskalerrian oraindik jaso gabe zeuden gaiak, kanta, esaera, oitura, tresna, biltzea zan bere lana. Bikaiña bene-benetan.

—**Gure Mixiolaria** (1923), leen aipatua. 1936-an urte zan.

—**Idearium** (1934). Eliz-barrutiko agerkaria.

4. Naparroako Aldizkaria

Napartarrak, naiz eta ingurumari jarri dizkioten etsairik asko azpiratu bearrez, beti erakutsi izan dute beren izkuntzaren alderako ardura ixilla.

Juan Iturralde Suit-ek, 1877-an, elkarte bat antolatu zuen “Asociación Euskara” zeritzona; elkarte onek, izen berberarekin bere aldizkaria zeukan, gaur interesgarria duguna. Bere saillak zeuzkan aldizkariak: 1) Euskera ta euskal literatura; 2) Etnografia, edesti, arte eta legegintza; 3) Nekazaritza, eta 4) Irakaskintza, Lagintza, Salerosketa. Ainbat idazlan dakartzi euskeraz, orduko lumarik onenak idatzia.

—**Zeruko Argia** (1919). Illerokoa. Aita

Kaputxinoena. Ementxe idatzi zuten, gerrara arte Aita Itza Buenabentura (Arbelaitz). Aita Yurre, Jautarkol, Bonifazio Ataun, Aita Errendari, Aita Maruri, 1936-rarte iraun zuen aldizkari eder onek.

—**Euskeraren Adiskideak.** 1925-an sortu zan elkarte au. Aita Intzak onela izen au eman genion Iruñian sortu zan lagun-arte, alkartasun bati. Euskeraren alde lana lasa egiteko, euskera galtzen ari zen alderdietan euskeraz irakurtzen ta idaz aurrei erakusteko”.

II

Gerra ondorengo egoera Bizkaian

Emendik atera dezakegunez, gure euskera ez zegoen, arriskuan bai, baiña bizirik eutsi nait zenbait biotz onekoz inguraturik. Edu ortan, elkar sustaturik, su ta ke zein geiagoka ekin genion lanari; ba genuen gere lanak non argitara eman ba genuen zer irakurri. Eta bizitasun aundia artuz zijoan gure izkuntza.

Baiña bat-batean gaiñeratu zitzaigun ekaitzik izugarriena, dena suntsitu ziguna. Euskal Erria odolez blei-blei, izkuntza odei beltzak justuri ta trumoi bertatik eratxi oi duen baserri-alor baten antzean, xeatu ta lurra joa gelditu zan bazter gutietan, urteetarako ondo lauskitua gelditu ere.

Idazleetatik batzuk —Aitzol, Lauaxeta, K. Onaindia ta F. Markiegi beintzat— fusilatuak izan ziran, eta beste asko munduan zear barraiatuak. Onela edo esan dezakegu, zezen errimea mailluz joaren antzera, dardarazi eta porrot egiña dugu euskal literatura, ego aldekoa beñik-bein. Ez da ezer idazten, ez libururik argitara emoten; kalean ezin daiteke euskeraz mintzatu, berdin eleizetan, auzo-ikastolak ixildu dira... Guda osteko urte mordoia (tamalez diñogu) antzuak izan zitzaizkigun bene-benetan.

Ala ere, egiazki opa dana, zoztorrak gorabera aurrera atera oi da-ta, lanari oratu zitzaion, bai karteletan eta bai erbestean. Gu Karmona-n, apaiz ta lekaide, irurogetaamar bat giñan eta batzuk izkuntzak ikasten eta beste batzuk euskal literaturari ekin genion. Espetxeratuok ainbat euskal lan ditugu

garai artan Karmona-n osatuak. Eta erbesterratuak —Zaitegi, T. Monzon, J. Irazusta, Jel-alde, J.M. Leizaola ta besteak— etziran geldi egon. Aldizkariak euskeraz Parris-en, Mexiko'n, Buenos Aires-en, Txile-n, Karakas-en... Liburuak an-emen. Ekaitza zerbait baretu zanean, baita berton, Euzkadi barruan ere.

S. Mitxelena izan zan bere *Arantzazu* poemarekin, ixilla urratu zuena. Gero etorri ziran *Egan* eta nire *Milla euskal olerki eder*; orrela, nik neuk istillu asko izan nitun arren ere, lotsea galtzen asi ta joan giñan. *Zeruko Argia* asi zan, naizta lotsaz eta izutan adarrak erakusten; baita Bilbao-n *Anaitasuna* ere.

Ni nagusi nintzalarik ere, Hoz de Aneroko karmelar komentuan nengoan 1948-tik. 1951-rarte. Euskal erritik urruti xamar nengoala ere, Karmengo Amaren Eskapularioaren zazpireungarren eunurtea zala-ta, zerbait egitea gogoratu zitzaidan eta "Karmen'go Amaren Egutegia sortu nuen. Nik Eibar-en emandako iru urtetan (1954-57) Aita Libino Dañoibeitiak zuzendu zuen; gero arek Erroma-ra joan bearra izan zuen, eta ni Larrean negolarik, 8'garren urtean, "Karmel" izenez bateaturik neuk egin nuen urteetan aldizkari orren zuzendaritza, ondoren, urte batzutan Karlo Zubizarreta-k Eibar-en eta gaur Julen Urkiza-k Larrean egiñik.

Ainbat idazle nitun etengabeko laguntzailleak, etxeokak eta kanpokoak; bazan euskaltzaletasuna ta idazteko gogo. Lengoak beti zeuden prest lanak bialtzeko eta berriak ere poliki sortuz zijoazten. Errikoi idazten zuten, erritar errebista zalako; irakurten zigun erriak, epe laburrean beifiñik-bein iru bat milla arpidedun zeuzkan, Euskalerrri osoan bilduta.

Egia esateko, kontuz ibilli bearra neukan. Etziran egun goxoak, badakite Deba ta Zarautz, itxas-aldekaok. Emengo gazteak iñoiz bear etzan pekaturen baten poliziak arrapatzen bazitun, ea "Karmel" artzen zuten galdetzen zieten. Etzan, beraz aldizkari santua. Emen lendabizi Gotzaiaren baimena bear zan, eta gero maiz etorri zizkidan

"zibilak" kontuak eskatzen. Eun bat orrialde zeuztan, argazki mordoaz.

Geroago, "Karmel"-erako olerki asko artzen nitula ikusiz, "Olerti" sortu nuen. Sarreran onan idatzi nik: "Euskal saillean berein tankerako aldizkariak doguz: Euskera, Egan, Euzko Gogoa, Zeruko Argia, Karmel, Herria, Gazte, Otoizlari, Arantzazu, Alderdi, Gure Herria, Goiz-Argi, eta abar. Guzti onek, bikoatxa bere mailla ta nuerrian ederto bete daroa euren egikizuna. Bioaz aurrera, gero ta gartsuago, geure izkuntzaren onerako.

"Biña, ba-da, nire ustez utsune bat oraindik ornidu bage; gure ele eder soillarena. Euskal idazle ta olerkaririk asko dezauguz euren gogoeta ameskoi ta irudikizun txanbeliñak nun argitarazi ez daukiela, edo argitaratzekotan, txanda luze gogorra zaindu bear dabenak, Ots, gure olerkariak eta bertsolariak ez daukie nun asazkatu, nai bestean, euren biotz-barrena. Eragozpen au adieraziz idatzi daustenak, askotxo dira.

"Zauriari osakaia ipinten. Gure gaixo orri be, osatzekoa bada beifiñik bein, egoki litzaigu, osaki aukerako bat ezartzea: Orrela egin naiean eta adiskide askoren eretxia ta izkia beterik. *OLERTI* deritxon aldizkari barria sortu gura neuke, euskal olerkari, bertsolari ta eder-zale guztien aburu, uste, gogai, irudi bikain, eta biotz-zauzkada jori gozoz asea".

Olan sortu zan *OLERTI* eta orrela jarraitzen du gaur ere. "Karmel"-en geigarri bezala zetorren leenengo, aldizkari berririk ez bait zuten lagatzen. "Zensurarako" Madrid'era bialdu bear ziran numeru guztiak, eta gero izan nitun istilluak ez gutxi; polizikuak sarri neuzkan emen kontuak eskatzen. Ala ere aurrera! Ementxe idatzi zuten eta olerkari egin ziran, gaur olerkigintzan zerbait ditugun poetak. Gaur Donostia-n "Eusko-Ikaskuntzak" ateraten dit, naiz eta, diru-urritasunagatik edo, berandu xamar.

Gaurko idazlerik irtenenak

Itz lau eta bertsoz idatzi dute bizkaitarrak. Eta bertsoz ari izanak, arto bero usai gabe esan dezakegu

“Oleriti”-n ortan jarriak izan direla. Bi liburu ditut nik gai oni buruzkoak; bata “Gaurko Olerkariaren euskal lan aukeratuak 105 orrialde ta “Bizkaiko olerkariak” bestea, 399 orrialdekoa; bigarren ontan 115 bat olerkariaren izenak datoz. Bizkiak, beraz, eman du zerbait itz neurtuz ere.

Ona bost sagar-ale eder bezela aukeratuak: Biktoriano Gandiaga, Gabriel Aresti, Santi Onaindia, Eusebio Erkiaga eta Balentin Aurre-
Apraiz. Asko ditugu auekin batera sagar-ganbarea usai gozotan jartzen dutenak, baiña, gaurkoz beude saiets utzita.

—Biktoriano Gandiaga. Mendata-n jaio zan 1928-X-8-an. Frantziskotarra. Arantzazun eta Oliten edatu zuen eliz-karrera. Arantzazun bizi da, toki olerkitsuan. “J.A. Agirre Saria” jaso zuen 1962-an. “Arantzazu”-n, “Egan”-en eta “Oleriti”-n idatzi du batez ere. “Elorri” bere lenengo poesi liburua.

—Gabriel Aresti. Bilbon sortua 1933-X-14-an. Naikoa idatzi zuen itz-lau eta olerkiz; bereak ditu, *Maldan behera*, *Harri eta Herri*, *Harrizko Herri hau*. Orixe ta Lizardi Sariak eskuratu zitun. Gazterik il zan.

—Santi Onaindia. Amoroto-n jaioa naiz ni, 1909-3, 24-an. Karmeldar, umetatik euskerari emona. Ainbat liburu dauzkat jatorrak eta itzuliak; azkenengourteotako iru: “*Oroi-Txinpartak*” (1988), Santa Teresan “*Bizitzia*”, berak idatzia (1989) “*Bizkaiko Olerkariak*” (1990) eta “*Donibane Gurutz, olerkari*” (1990). Itzulita dauzkat: Bergili’ren” Idaz-lanak osorik, “Dante-ren” *Jainko-Antzerki*, Horazio’ren “*Odak*”, eta a

—Eusebio Erkiaga. Lekeitio-n jaio zan 1812-9-4-an. Olerkari fiña. Asko idatzi du. Iru nobela ere bereak ditu: “*Arrabegi*”, “*Batetik bestera*”, “*Araibar zalduna*” Euskera garbieder, txukunean ari zaizu beti. Eder-senez oparo da.

—Balentin Aurre-
Apraiz. Ajangizko semea, an bait zan jaio 1912-11-3-an Olerkari dugu egi-egiazki. Pentsalari aundi, egunero, bere lanean murgildua ere, etengabe diardu olerkiz pentsatzen. Astia duenean idazten ditu neurtiz sakon bipillak.

Laister argitaratzko da ale mardul bat.

Ba dira oraindik beste bi ere, Sabin Muniategi ta Jon Enbeita. Sabin oraintsu illa dugu Errenderi-n, eta bere olerkiak, Julen Urkitzak prestatutako ale galant baten laster ikusiko dute argia.

Jon Enbeita, ordea, bertsolari ta poeta dugu 1950-an Muxika-n jaioa. Beronen aita, Balendin Enbeita bertsolaria, eta aitona, Muxikako Urretxindorra. Badu olerki-liburu bat, “*Inguruaren arduraz*”. Modernista bidetik dijoana.



JOXE AZURMENDI



*Euskarazko saioa
XX. mendean*

1978tik aurrera saioari buruz ihardun nuen urte batzuk eskola ematen EUTGn. Oroimenez eta orduko paper zaharren batzuek bakarrik balia nindeke orain funtsean, ikerketa handiagoetarako ez dago betarik. Izan ere, dedikazio handiagoa eskatuko lukeena, eta merezio lukeena, iruditzen zait gaia bera. 1983an utzi egin nuen zeregin hori: lan hau, hortaz, gaia definitiboki utzitakoarena izango da. “Memoria atzeratu” bat, lan postumo bat, nahi baduzue. Garbi uzten dut hasieratik.

Ez noa ikerketa berritan sartzera. Material zaharrak biltzera eta irakurketa berriago batzuekin osatzera bakarrik.

Irakurtzen, egia da, ahal dudan guztia, jarraitu dut gero ere irakurtzen. Baina, lehenengo: oraingo nire ofizioan, euskal gauzeekin ez daukat zerikusirik; beraz, ez dut sentitzen profesionalki obligaziorik ere, produzitzen denaren kontrol bat eta ezagutza justiziazko bat edukitzeko.

Gaurko nire euskal irakurketak ez dira izaten sistematikoak, nahi dudana edo halabeharrez eskuetara datorkidana irakurri ohi dut, beste gabe, eta ez azter edo ikertzaile izpirituz. Asti-pasako edo denbora libreetako irakurraldien isladarena beste baliorik ez dute izango, hemen aipatuko diren edo aipatu beharko ziren eta ez diren adibideek. Ez da izango “euskal saioaren” errepresentatiboa: gehienez ere nire irakurketena, akaso. Bigarren: behin erabaki nuen, literaturan eta literarioen gerretan ez berriro sartzea. Eta orain ere ez naiz sartuko alde espezifikoko horretatik ezertan. Alegia, saioaren azterketa formalak, estilistikoak, etab., egin zitezkeen. Koldo Mitxelena-ren saioa, Txillardegiren, Rikardo-ren, nola egoten diren eskuarki estrukturatuak. Bakoitzaren baliapideak (estilistikoak, etab.). Egin ere egin izaten nituen kontrastapen horiek lehenago, eta argigarriak izaten dira, autoreak mezua nola distribuitzen duen atzemateko, eta han-hemen azentuak non bere mezuan. Hemen holakorik ez alferrik itxaron.

Azkerketa sistematikorik ez dut egingo. Azterketa propioki literarioa, ez bakarrik ezingo da sakondu, baina espreski ez da nahi sakondu.

Aztenik: denok ados egon gindezke, zeruko izarren kontenplazioak, esaterako, leku oso txikia eta inportantzia txikiagoa duela Txillardegiren saio gintza jorian. Halere niri justu horixe interesatuko zait. Edozeinek badakiena, edozein eskuliburutan badagoena aspaldi, ez zait interesatuko. Adibidez, Hiriart Urruty edo Etxepare-ren informazio “objektiboa” bilatzen duenak, irakurtzea dauka Lafitte. Lafitte-n ezagutza suposatuz, nik, modu subjektiboan, ezezik, guziz subjektibistan nahi dut libre aritu.

Hau ez dela, alegia, euskal saioaren ikerketa bat: saio bat da euskal saioaz, ipuin bat agian.

Aurre-ohar historiko gisa

Ezkuzabaltsu jokatu gero, euskaraz beharbada gehien-gehiena saioa dago literaturan: hasi Axular-ekin, Tartas, Kardaberaz, etab. Gerriko-k “saiakera”

deritzo bere obrari. Eskrupuloso jokatu, aldiz, Montaigne-ren zentzuan, posible da oso saio gutxirekin geratzea. Historian, saiorik saioena sentido historikoan eta tradizionalan, gaien aukeran zein trataeran, zalantza gabe Jusef Egiategi da, 1785eko Filosofo Huskaldunaren Ekheia-z (konpara gaien zerrenda Montaigne beragandik hasi eta zeinahi saio gile moralista ikustraturekin). Niri zailegia egiten zait aztertzeko eta, gainera, gaurko gaiaren eremutik landa geratzen da eskerrik. XX. mendean Txillardegiren *Huntaz eta Hartaz*, Gil Bera, beste gutxiren batzuk apika. Ezustekoren bat egotea ere baliteke. “Ainsi, lecteur, je suis moy-mesmes la matiere de mon livre”, argitu du Montaigne-k bere obraren aurkezpenean. Gandiaga poetaren *Denbora galdu alde* saio bihur daiteke horrela, “un livre de bonne foy” hori ere. (Nondik atera da, saioak prosazkoa izan “behar” omen duelakoa?). “Je veus qu’on m’y voie en ma façon simple, naturelle et ordinaire, sans contantion et artifice: car c’est moy que je peins”. Larrugorritan biluztu barrendik nahi du Gandiaga-k ere. Baina, historiak historia, iluna dago saioaren kontzeptua.

Praxian ere, euskal saioa orohar deforma izan da. Nahasia (gogoeta-estudio-dibulgazio-polemika), interes diferente askotxoren korapilo-korapiloan egon da eta, rigoroski literarioak, seguru ezin zuela aurreneko xedea izan. Ez da izan aski libre. Aski subjektiboa, pertsonala. Euskal saio gileak zaila izan du bere egoeran, ‘je ne m’y suis proposé aucune fin, que domestique et privée’ deliberatu ahal izatea. Adibide on bat, obra hori saioa iruditzen bait zait, Peru Abarka izan liteke (jarraiko Duvoisin-en Laborantzako liburua-rekin, etab.). Beste edonongoa baino hagitx ere gehiago, euskal saioa jenero mixtoa izan da. Maiz ez dakigu nola klasifikatu ere.

Saioaren bizimodua, lehenik, denborak edo koiunturak egon da kondizionatua. Gerra aurrekoa eta ondokoa berezi ohi ditugu mende honetan. Denborarekin, euskararen eta euskal literaturaren momentua kondizionatzen zuen guztia uler bedi aldian-aldian. Gero, eta bortizki, publikazio medioak egon da kondizionatua: egunkari edo astekariko

artikuluia izan, aldizkarikoa, kolaborantza bat elkarlaneko liburuan ala liburu osoa, eta liburuen artean ere diferentziak daude, zein argitaletxe edo zein sailtarako idatzi, edo zein sariketatarako apailatu orriak. Izan ere, orain euskaraz problemarik ez dagoela, esaten da, idazten den gutzia publikatzeko. Egia izan liteke beste jenero batzuentzat: saioarentzat ez du balio. Are gutxiago balio zuen lehen. Idazten duenak, publikatu egin nahi izaten bait du, saioa beti asko baldintzatu du, norako idazten den. Sekula ez da berdin izan Lur Editorialaren “Hastapenak” sailerako idatzi, ala Herri Gogoa-ren “Irakur Sail / Saiakera”rako, Gero-rako, Jakin-erako, UEUrako; artikuluetan, ez da berdin idazten oraintxe bertan Jakin-erako eta Larrun-erako, adibidez, gutxiago Egin-erako eta Deia-rako. Eta honetaz ari garenez: euskal saioaren ikusmuga orokor ziur samar bat edukitzea ezintzen duen arazo bat (klasifikazioak eta ere garantia piska batekin egin ahal izateko), aldizkari askoren gure ezezagutza da. Azterketa monografiko horien faltan, ez da posible, azalpen literario-historikoa ezezik, euskal errealitateari dagokion moduko saioaren kontzeptu mugaketarik ere xedatzea, haren marku errealean, espazioaren, edukinen arabera.

Esango nuke grosso modo gerra aurreko saioan, batetik, ezaugarri tradizionalak antzematen direla; gerra ostean indartuagoko den saioaren hastapenak, bestetik. Batetik, erlijioaren pisua (K. Basabe, etab.), publiko nekazari bati begiratzko saio informatibo utilitarioa (XIX. mendetik jarraitua: Abbadie kalonjea, Kirikiño apurtxo bat, Etcheberry, Gallastegi), orduko tipikoak diren “euskal gaiak”. Baina nik neuk oso gutxi eta gaizki baino ez dut ezagutzen gerra aurreko saio hori, zentzurik materialenean ere: hainbat orduko aldizkari, liburu eta liburuska neure begiekin ikusi ahal izatera ere inoiz ez naiz iritsi eta. Halere gutxienez saio-landuketa berri batzuk seinatzea merezi luke agian, konkista nahiko interesgarriak izan direlako euskaraz:

—*Literatur kritika eta azterketa*-ko saioa: Orixe (Eusko Olerkiaz), J.K. Gerra, Labayen, etab.

—“*Eusko*” zientzia: Barandiaran (Eusko Mitologia, Lehen Gizona), Aranzadi (Euskalerriko triku-arriak), etab., edo folkloreakoak.

—*Saio periodistikoa*, agian Iparraldean hobeto landua Hegoan baino, hemen bezalaxe han ere ikerketa baten zain oraindik.

—*Bidai-saioa*: J. Etxepare, Lizardi...

Saio zientifiko edo teknikoa agian aitzindari bat Etxaide-ren “Telefonoaren sortze eta aurrerapena”n aitor lezake, berez konferentzia bat izan arren Donostia-ko Salón Novedades-en (ik. Y. Etxaide, *Etxaide Jauna*, 1986, 262-266).

Franco hil arte bereziki, gerra osteko saioak denboraldi bereko aldizkari eta liburugintzaren historia berbera egin du: haien gorak goratu du, h.d., aldizkarigintzaren historia berbera egin du: haien gorak goratu du, h.d., aldizkarigintzaren gorak 50. urteetan (*Eusko Gogoa*, Egan, *Anaitasuna*, *Zeruko Argia*, *Jakin*, etab.); liburugintzarenak 70.etan. 1970 inguruan argitaletxe mordo bat eratu bait da, jeneralean idazleek berek eraikiak lagunartean. Oker ez banago 72an iristen da euskara liburu bat asteko ekoiztera. Liburugintza honi begira esan ohi zen batez ere (liburu tipoagatik) 70 aldera saioaren *boom* bat egon zela euskaraz, gero bapatean (demokrazian!) hiltzeko. Eta egon ere ez dago oso oker esana. Demokrazia pentsamendu askatasuna baldin bada, askatasunak on haundirik ez dio egin pentsamendu saioari euskaraz.

Historiarik propioki egitera sartu gabe, ohartxo pare bat gerra ondoko saioaz orokorki. Hasteko, 1) gerra ondoko literatura guztiaren patua jasan duela: ez da kasualitatea, *Unamuno eta Abendats* edo *Huntaz eta Hartaz* erbestean agertu izatea (hein batean baita sortu ere). 2) Ez da izan kasualitatea, aurrenik aldizkarietan aurkitu badu lekurik haundiena. 3) 70 ondoko saio liburuaz badago marka pare bat seinatatzeko: a) gehienbat ideologikoa eta —zuzen ala zeharka— polemikotsua izan zen; b) “marxismo”aren ingurukoa asko; c) autore gazteek egina, askotan ikasleak zirenak, eta hein haundi batean Unibertsitate estranjeroetan zebiltzanak hain zuzen; d) saioa inoiz euskarara itzuli den aldi bakarra

izan liteke hori gure historia guzian, orduko interesaren seinale (Marx, Engels, Dobb, Fanon, Nemmi, Lévi-Strauss, Russell, etab.). Franco-ren heriotzarekin debate ideologikoa gutxitu egin da; politikoa (egunerokoa, pragmatikoa) prentsara pasa da eta, bide batez, erdarara. Saioa berriro espazio jakin bat gabe geratu da: sintoma nahiko esanahitsu bat, argialetxeek oraintxe arte saio sailik eduki ere ez egitea da, edo konjelatuta edukitzea. "Irun Sari"etatik beretatik borratu egin zen, gero sartu dute atzera urte biz baterako. Euskarazko argitalbide normaletan gaur-egun saioa ezin da publikatu.

1970-1975 artean, aldizkarietako mugimendua utzirik, honelako zerrenda kausi liteke euskarazko liburugintzan: Azurmendi, J., *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*, 1971; Kolakowski (J. Arregi-rekin), 1972; *Kultura proletarioaz*, 1973; *Iraultza sobietarra eta literatura*, 1975. DOBB, M., *Sozialismoaren frogantzak*, 1971. Fanon, F., *Afrikar iraultzaren alde*, 1970. Garate, G., *Marxen marxismoa*, 1971; *Marx eta nazioa*, 1972; *Marxen ondoko errebisionismoa: Rosa Luxemburg, Leninen bizitza*, 1974. Garate, R., *Lanaren antropologia*, 1973. Hikmet, N., *Lau gartzelak*, 1971 (poesia). Irala, A., *Bat bitan banatzen da*, 1975. Iztueta, P-Apalategi, J., *Marxismoa eta nazionalarazoa Euskal Herrian*, 1974. Lenin, *Estadia eta iraultza*, 1973. Madariaga, J., *Ekai-Arauketa dialektikorrari buruz*, 1971. Marx-Engels, *Komunista Alderdiaren Agiria*, 1971; *Lan alokatua eta kapitala*, 1971; *Sozialismoaren aurrerabidea utopiatik zientziara*, 1972; *Alderdi Komunistaren Manifestua*, 1974. Memmi, A., *Kolonizatuaren ezagugarria*, 1974. Mendiguren, X., *Europako ezker berria*, 1972. Muxika, L.M., *Gizartea eta parasozialismoa*, 1975. Pagola, M., *Marx eta erlijioa*, 1971. Torrealdai, J.M., *Iraultzaz*, 1973. Ugalde, M., *Langileria historian zehar*, 1971.

Haizeak, ikusten da, nondik ematen zuten.

Aurre-ohar metodiko gisa

Interesgarria izan liteke, XX. mendeko saio multzoaren ideia bat egiteko, UZEIn "Egungo

euskararen bilketa-lan sistematiko"rako (EEBS) egin diren sailkapenetan, saioari testu-hitz kopurutan zer parte dagokion ikustea, cfr. Jakin 54 (1989) 224. Haiek hitzak zenbatu dituzte, lexiko hustuketarako ari direnez. Handik aterea dago hemen, orria batuz beste 200 hitzekoa suposatuz, orrialdeen kopurua. UZEIkoek beren sailkapenetan hala egin dutenez gero, saio-aldizkariako testua (orriak) eta saiakerakoa berezi egiten ditugu lehenengo. Astekari edo hamaboskariako kazeta testua ez dago sail horietan barneratuta. Urtez-urte, ondoko produkzio emaitzak lortzen dira orohar XX. mendeko euskal saio gintzan:

Epeak	Saio-aldizk. N.	Saiekera N.	Guztira or.
1900-1939	8.000	4.000	12.000
1940-1968	17.000	11.000	28.000
1969-1987	40.000	87.000	127.000

Batez ere beste kontzeptuekin alderatuta, hemen egingo ez duguna, EEBSeko taulak adierazkorrik dira. Saiorik ez dagoela, entzun ohi dugu. Taulaon arabera, prosa estriktoki literarioaren alboan, saiakerazkoa litzateke bigarren gehien produzitu izan duguna mendean. Aldizkariako saioa kontatuz (kazetakoa gabe), are bera genuke gerraz gero lehena. Hura gabe ere bai 1968-1987 bitartean, literatur prosaren dexente goitik, eta aisa ikasliburuak gehi haur/gazte-literatura dena batera baino ere gehiago. Beharbada euskal saioaren azterketarako bide zabal bai hortik har liteke, inork azterketa exhaustiborik —edo, apalkiago, justiziazko samarrik bederen— nahi baleza egin. Ez da nire burujopea.

Kantitatean ez eta, ez bedi itxaron, kalitatean edo saioaren kontzeptuan nahi dudarik estriktokoago jokatu. Batere ez. Saioaren kontzeptua mugakaitza bada, sailkapen askok barregarria ematen du (ez dakigu zer arraio nahi duen sailkatu). "Hay ensayos de *exposición de ideas*, ensayos de *crítica* de cualquier aspecto de la cultura y ensayos de *creación*" (I. Martin Duque - M. Fernández Cuesta). Hobeagoxeak diruditenean ere, sailkapenok ez dirudite jeneralean probetxu haundikoak, guretzat



behintzat: John M. Berdan-ek saio aforistikoa, sistematikoa eta familiarra, berezi ditu. Sailkapen hirukoitzak maite dituzte horiek nonbait eta badago hiruzale gehiago. Edward E. Hale-k libreago jokatzea erabaki du: alde batetik prototipoak berezten ditu, historikoak, eta tipoak oraingo praxian; tipoen artean berriro azpiberezten digu mota pila bat. (“There are several types of essay: among them are *observations...*, the *familiar essay...*, the *scientific essay...*, the *philosophic or reflective essay*”, etab., ez dakit zenbat). Gero dago, saioak historia nahiko desberdina izan duela Frantzia-n eta Ingalaterra-n, esaterako (Espainia historia-rik ere ez), eta eredu diferenteak sortu dituztela toki eta garai-baldintzen arabera.

Montaigne-ren saio solte pausatuei, eruditoei, Ingalaterra-n Bacon-en gogoetazko saiotxo arinak jarraitu zaizkio (Egiategi-k, nondibait, hura gogoratzen dit), gero Locke-ren eta Hume-ren traktatu filosofiko tramankuluak; Frantzia-n Voltaire-n erudizio-entziklopedia erraldoiak lehenengo, Pascal-en saio prentsara eraman du, Pope-k bertsoetara poeman, etab. Beharbada sustrai frantseseko eta sustrai ingleseko tipoak berezi ahal izango lirake horregatik (H. Grimm, cfr. B. Berger).

Saioaren estatuto literarioa, uste dut, beti egon dela inseguru. Gertatzen dena da, inglesezi ez zaiela ezer pasatzen, Bacon literaturatik kentzen bazaie: filosofian kokatzen dute. Baina frantsesei Montaigne

bere literaturarik desterratzea ez da izango erraza. Zalantzaon islada polita Aguiar e Silva-ren esplikazioak dirudi (*Teoría de la literatura*, 1972, 34; eta ik. daitezke Kayser, etab.): “Algunas obras ocupan una posición ambigua, participando del estatuto de la existencia literaria, pero no de manera total y pura (...). Son obras que, por decirlo así, usan máscaras literarias. Están en este caso la biografía, el ensayo, las memorias, por ejemplo”... Arazo hau ateratzen denean, Goya-ren Kapritxoetako 60.az oroitzen naiz, *Ensayos*, sorginkeriako lehen ikastaldia. Marrazki eskizoa errotuloak adierazten duenez: “Ensayo de Brujas primerizas de primer abuelo y con temor se prueban para trabajar”. Irudian: Aker Haundia —“Gran Cabrón”—, bi katu, burezurra, pitxar antzeko zerbait edo, ez dut ongi ezagutzen, etab., eta bi andre biluzik, ximurra bat eta bestea gaztea, “entseiua” egiten hain zuzen sorginkeriakoak. Handik zer atera litekeen, ez da somatzen. Apenas behintzat ezer onik. Saioa erraz bihurtzen da abentura diaboliko piska bat. Arbitrariora, subjektiboa. Kontrolaezina. Dr. Johnson-en hauxe da beti aipatu ohi den saioaren definizioetako bat: “a loose sally of the mind; an irregular indigested piece”. Ez du arau finkorik. Dena dela, arazo honetan alferrik ez jarraitzeko, nahi duenak ikus bitza, orientazio gisa, euskaraz bakarrik: Txillardegi, “Saiakera eta hizkuntzen pizkundea”, in: *Jakin 2* (1970) *Salvatore Mitxelena*, 55-64. Ugalde, M., “Literatur-motak mugatu nahiaz asmo batzuk”, in: *Euskera* 19 (1974) 301-302. Zarate, M., “J. Intxausti eta saioaren espirala”, in: *Euskal literatura I*, 1977, 87 eta hur. “Saioa dela eta euskal literaturan”, *Egin* 1978, azaroak 19.

Besteak beste, euskal saioa bakarrik inguratzeko helburuz, bi sailkapen elkar-osagarri eginez, beharbada gehientzua biltzeko eta sailkatzeko moduan ibil gindezke: tipoak batetik formalki eta bestetik materialki sailkatuz alegia. Formalki diodanean, ez dut ulertzen gaia tratatzeko moldea (saio psikologikoa, poetikoa, deskribatzailea, etab.), baizik sinple-sinpleki publikazioaren forma. Mediaoa.

Euskaraz behinipehin, saioaren nolakoa izateko, bere inportantzia bait du, non izateak publikatua, eta hizkuntza guztietan nik uste, azken finean. Ez diot saioaren ongia ala gaizkia, baizik tankera elementala. Tipoa. (Ongiak eta gaizkiak tipo guztietan kabitzen dira gero). Baina egunkarian idatzi saiotxo bat (halako irakurle tipoarentzat, beraz), ala hiru-hilabetekarian, etab., ez da tipo berdineko saioa bururatzen, esan bezala. Hobeago baten zain, eskema probisorio hau proposatzen dut, erosotasunaren kariaz, guk eduki daukagun materiala sailkatzeko praktikoa izan daitekeelakoan:

Liburua: 1. Traktatua

2. Saio monografikoa

3. Saio-sorta

Bilduma: 1. Gai bakarreko saio jarraituak

2. Gai desberdinetako saio solteak

Artikulua: 1. Kazetakoa

2. Aldizkarikoa

Traktatua da, adibidez, Aita Luis Villasante-ren *Kristau Fedea*, 1986. Traktatu ia eredu zko bat edonondik: txukun planteatua, ongi eramana gaia eta zuzen arrazoitua, ongi banatuak arazoak, dokumentatua oin-oharrez, gehiegikeria gabe. Lan teorikoa, dibulgazio mailan emana (autoreak berak deritzenez: dibulgazio franko tekniko, gehituko nuke nik benetan “serioski egina, halere”. Autoreak berak adierazten du nolabait hau “Fedeari buruzko teologi-traktatua” dugula. Berdin epaituko nituzke Orixe-ren *Jainkoaren billa*, Zabaleta/Gaztañaga-ren *Jainkoaren erria edo eliz-misterioa*, L.M. Mujikaren *Sistema filosofikoak*.

Saio monografiko-tzat hainbat dibulgazio arrunteko edo ez hain arrunteko azalpen har liteke, etorkian ikerketa zorrotzen emaitzak izanik erementuraz: J.M. Barandiran-en *Euskalerriko leengizona*, 1934, adibidez, gerra aurrean; edo gero Yon Etxaide-ren *Amasei seme Euskalerriko*, 1958, guretzat inportantea izan zena sarrera bezala euskal literaturan. Nik uste dut hemen sartzen dirala I.

Sarasola-ren *Literaturaren historia*, J. Landa-ren *Gerraondoko poesiaren historia*, P. Urkizu-ren teatro azterketak, *Literatura eta kritika*, etc. M. Lasa: *Novela berria Hego Amerikan*. Al dakit zenbat.

Saio-sorta: esaterako, erakusgarri ebidente bat, *Marginalia*, 1988, Sarrionaindia. Uste dut saio-sorta (liburua) eta saio-bilduma bereztea zinez komeni dela. Saio-sorta da Txillardegiren *Huntaz eta Hartaz*, bilduma da beraren *Euskal Herritikerdal herrietara*, 1978. Izendapenak ez dakit egoki asmatuak egongo ote diren, ez dit axola ere. Sortan, liburuan argitaratzeko pentsatu diren saioak (beste planteamendu batez, hortakoz, alde zurretik) ipiniko nituzke; bilduman, berez argitalpen periodikoren baterako pentsatuak, eskuarki horietan publikatu ere eginak eta gero liburuan ezarriak. Diferentzia absoluturik ez dut markatu nahi (Etxepare-ren *Buruxkak*-etan bietarik dago), baina proiektu bera ez da berdina idazten libururako (euskaraz, gainera, jakinez, ia seguru, urte batzuen buruan bakarrik ahal izango dela liburua saio horiekin publikatu), ala aldizkarirako, kazetarako. *Huntaz eta Hartaz* 1965ean argitara da: hango azkeneko saioa "Marilyn'ek bere burua hil du" da ("berriki... horixe izan zan eguneko berria"); Marilyn-ek, ordea, 1962ko abuztuan egin zuen bere buruaz beste. Euskal idazleak ondo ezagutzen ditu miseria horiek. Esklabu da. Beraz, purismoen kontrario izango nintzateke. P. Urkizu-ri irakurtzen diot oraintxe P. Lafitte-ren saioei *Euskal literaturaz* (1990) Aitzin Solasean, egoki asko erreparatua: "Irakurlea nolako idazlana halako. Hau zen, noski, PLk ongi menderatzen zuen errefraua. Batzuetan, kazeta lanetan, esate baterako, modu erraz eta arin batean aurkeztuko digu gaia, emango liburu edo ospakizun baten berri. Bestetan irratirako prestatua izango da lana, ahozkotasanaren freskura mantentzen duelarik. Noski, holakoetan batipat entzule edo irakurle xumeak ditu gogoan. Zenbait aldiz, ordea, Donostiako entzulea, edo JAKIN, FLVeko irakurlearentzat ari denean, edota Euskaltzaindiko Arrera-solasen batean ari zaigunean, bere irkaitza, dotorea, erudizioa

nabarmenak dira. Tokian tokikoa, beraz, gaiaren eta helburuaren arabera oratzen du solasa PLk".

Bilduma-k daukana, antolijaren bigarren existentzia da, bere abantaila eta desabantailekin (inoiz ez da originala eta, beraz, rigoroski, ezin kontsideratuko litzateke propioki tipo bat). Alegia, bildumako materia, berez, hurrengo atalean aipatzen diren artikulua izaten dira: beren medio natural iheskorretik atereak, ordea, liburu iraupena, eta medio hartako ingurumari bizirik (informatiboa, ideologikoa, etab.) testuinguru propio autonomo batera. Zer nahi duzu: honetan ere gure historia errealarri obedituko nioke nik. Demagun, izan ere, saio batean esakun hauxe: "Mesfida gaitzen bere burua 'zientifikotzat' izanik, gaintzeko guziak kondentzen dituztenez". Zein datorkizue burura? Zein da, bere buruari zientifikoa eritziz, kondentzen dabilena ezker-eskuin besteak? Ez dago, Rikardo Arregi-ren esaldi hori berdina har lezakeenik, orain irakurririk eta 1968ko abuztuan; liburu batean kausiturik ala postak etxeratu dizun astekarian (aldizkari bereko beste orrietan sozialismoaren baitako katramilez informazioa dagoela), etab. Baina guk Rikardo-ren saiora liburu bidez daukagu sarbide. Eskrupulosoak izatekotan, bildumak, seguruenik, autoreak berak egin izanez gero bakarrik, legitimatuko ginduzke, hori saio tipo berezizat hartzera. Nolanahi ere eskrupuloez hementi gutxi penatzen gaituzte. Gai bakarreko ala gai desberdinetako saioen bilduma izatea bakarrik bereziko dugu.

Artikulu eta saioa, traktatulari eta kritikoki batzuek, berezi egin nahi izaten dituzte (G. Haas-ek eta B. Berger-ek, adibidez), arrazoi frankorekin, aitor daitekeenez. Hemengo praxian (gaztelaniaz ere, alegia) ez da egin ohi berezizko hori eta nik ere ez dut egingo. Halere, aitortu behar, beste xeibrekeria bat gertatu zait hemen: beti praktikotasunaren kariaz, liburuetatik hartuko ditut aipatzeko artikulua, saio bildumetatik alegia. Irakurle interesatuak errazago lokalizatuko dituelakoan.

Esandakoaren arabera, tipo bakoitzeko adibide

bana hautatuko dut komentatzeko. Hautapenak, ez historia, ez kontzeptuaren hurbilketa eta ez maisu ereduaren antologiaren bat egiteko xedeari segitzen dio. Tipoak exenplu konkretuetan erakusteari baino ez. Hona hemen eskema, tipo bakoitzeko bere adibidearekin, berehalaxe komentatzeko:

1. Saio-liburua:

Traktatua: *Lanaren antropologia*, R. Garate
 Monografikoa: *Unamuno ta Abendats*, S. Mitxelena

Sorta: *Huntaz eta Hartaz*, Txillardegia

2. Saio-bilduma:

Gai bakarrekota: *Gizarte-auzia*, J. Eguzkitza
 Gai Desberdinetakoa: *Buruxkak*, J. Etxepare

3. Artikulu-saioa:

Kazetakoa: *Mintzaira, Aurpegia: Gizon*, J. Hiriart-Urruty

Aldizkarikoa: *Rikardo Arregi*, R. Arregi

Abisatzen dut, tipologia formal hau, XX. mendeko saio produkzioaren ideia bat emateko, ezaski dela arras, saio tipoen osagarri materiala gabe. Baina hori aparte dago egin beharra. Zati bitan.

Gandor harroak piska bat beheitzeko, gure "aberastasun" handietan sartu aurretik, hona hemen Lafitte-k nola ikusten zuen euskal saioaren panorama XX. mendean, *boom* zelakoaren erdi-erdian: "Euskarazko entsegu egile guti. Aipa ditzazkegu halere Etxepare medikua, Jon Echaide, Luis Michelena, Etienne Salaberry, Txillardegia, Iñurritza [Salbatore Mitxelena], Villasante, Azurmendi, Aita Zabala, Aita Inchausti, eta *Kardaberaz, Jakin, Ipar, Etor, Gero, Auñamendi* edo *Itxaropena* bildumak hazten dituzten hainbertze idazle" ("Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak", Donostia-n 73-III-21 eman hitzaldia, in: *Kardaberaz* 3, 1974, 81).

Saio-tipoak formalki

Esan beharrik ez egon arren, azpimarratu egin nahi nuke, ez noala entseiatzera liburuaren, eta gutxiago autorearen eta haien obren, iruzkin sistematiko samar samarrenek ere. Justifikatzen ere ez naizela ibiliko, zergatik hobetsi dudan bat, ez bestea. Gai desberdinetako saio-sortan zein bilduman, saio bana hartuko dut komentatzeko, besteak utziz. Etxepare eta Txillardegia dira horiek: baten solas antiplatoniko batez amodioaz (Etxepare) eta bestearen gauaren meditazio antikantianoaz, interesatuko naiz bakarrik, ingurutik baino ez hori ere. Esan nahi dut, interes-puntu guziz partikular eta agian bigarrentiar batetik lotuko natzailea arazoei. Halere, koherentzia apur batez iharduteko solasean, autoreon arteko loturak, ez litzateke zaila, marraztea, espreski nabarmentzera eta horiek desarroilatzen ez naizen arren emango: gizatasunaren arazoa eta euskalduntasunaren arazoa (R. Garate, S. Mitxelena); lanaren eta gizartearen auziak: Marx-en alde bat, aurka bestea (R. Garate, J. Eguzkitza); kazetal saioa, eskuin bila (J. Hiriart-Urruty), ezker bila (R. Arregi), biak euskal gizarte kraskatuari atxekiak. Esan bezala, Etxepare eta Txillardegia tradizio filosofikoaren koordinadeetan kontsideratuko ditut. Sarreratxo honekin aski, nik uste, beste gabe lantzeetara goaz.

1. Traktatua

R. Garate, *Lanaren antropologia*, Gero, Bilbo 1973

Titulu osoa hobeto hau da bere azpigituluarekin: "Lanaren antropologia: Gizona lanaren aurrean, Akinoko Tomasen eta K. Marxen arabera, eta Freudena, Marcuserena, Althusserena eta besteren ikusmoldeekin gonbaratuaz".

Tamal haundia da, traktatu honen bigarren partea gero inoiz publikatu ez izana. Horregatixe ere, torso geratutako lan honek, gure desarroilo zail jarraihautsiaren sinbolo gisa gutxienez merezi du oroipen bat. Iraskasle gaian adituaren eta euskaltzale esku-eder apartaren lankidetzak egin zuen posible, niretzat adierazpen teknikorik saioan saiorik lortuenera



izan genuena. Inor gutxik atera dio zientziari euskaraz Dionisio Amundarain-ek esku gozo paregabe bezalako musikarik inoiz. Baina, saioaren porrot orokorrean, lankidetzaz saiook ere ez dute jarraipenik izan. Beste batzuk: Zabaleta/Gaztañagaren *Jainkoaren erria*, 1967, Iralaren *Bat bitan banatzen da*, 1975, etab. izan ziren, jarraipen galduko proiektuak denak.

Lanaren antropologia traktatu filosofiko bat da, giza ekintzaren eta —herstukiago lanaren sentidoa argitu nahiz. Ia gehiago kulturaren filosofia bat orokorki, lehen liburuki hau behintzat. Tituluak “antropologia” agintzen du, baina antropologia modu anitz bada jagoitik eta, honoko hau filosofikotzat jo beharko da. Parte haundia psikoanalisiak hartzen du. Zein ikusmolderekin ezbaian azalduko den liburuan autorearen pentsamolde propioa, sarreran ematen da aditzera: bada hor autore dozena bat, kolore franko

desberdinetakoak, denak halere biziki modernoak (batzuen modernotasuna bizkitartean higituxea dateke urte gutxian): “ez dugu dudarik, beraz, eskaintzen dugun azterketak gaurkotasun usainik izanen duela (...). Gaur gaurko antropologia tankeratu nahi izan dugu”. Piska bat harritzen du, orduan, azalpenean jarraituko diren bi maisu gorenak, bikote ezkongaitz samarra lirudikeela aparte, zeintzu bai eta justu San Tomas Akinokoa eta San Karlo Marx bera izango ditugula. Harrimen piska hori bapaten harrimen puska bihurtzen da: “Akinoko Tomas eta Karl Marx ahaide, eta hurbileko gainera, direlakoak lasaitzen gaitu”. Arrazoiak apika ez gaitu harrituko gutxiago: “Batak eta besteak, hain zuzen, Aristoteles-engan egin dute topo elkarrekin”. Eta zer? Liburu barruan ikusiko da.

Guzti hori, ez da hemen, eztabaidatzeko tokia. Halako bi iturri eta inspiraziotatik sintesi bat lortu nahi izateak, nahitaez eman behar du problematikoa

(gehiago 70 aldeko Euskal Herrian), zalantzarria, are bati baino gehiagori ezinezkoa eta absurdua. Neuk ez nioke asmoari bidegabekoa eritziko a priori. Eklektizismoak fama txarra zuen lehenago filosofian (“piltzarrerria”: Hegel). Sistema orohartzaileak, dogmatismoak, akabatu zirenetik, aurki bera da, geratzen den posibilitate onesto bakarra. Alegia, norbait Marx-engan inspiratzen bada, seguruenik ez da maiz gertatuko, bere pentsamenduaren osagarri bila San Toma-rengana jotzea. Baina herri honetan bada San Toma-rengan inspiratzen den zenbait jende bere filosofian eta, lanaren gogoeta bat egin nahita hain zuzen, gauzarik lauena dirudi, horiek Marx-engan osagarri eta konplementu bilatzea. R. Garate-k formulatu duen drastikotasunez, txokagarria ager liteke. Baina horixe nahi nuen birreskuratu: aparte nolakoxea lortuko zukeen Garate-k bere sintesia (nola sentitzen den bigarren liburukiaren falta!), badago tradizio bat euskal pentsamendu gero, marxismoa hein batean beregandu nahi izan duena. Ezker sozial kristau ireki bat, interesgarri askoa (Arizmendiarieta eta euskal kooperatibismo arizmenditarra, esaterako, jatorrizko bere inspirazioan behintzat. Berdin, Rikardo Arregi, etab.). Pentsamendu hau ez da izan euskal saioaren eragilerik ahulena hain zuzen joandako urteotan. Merezi luke ikerketa bat.

Hori, nolana ere, Marx-en irakurketa “humanista” batez bakarrik da posible. Gehienok hemen era humanista batean irakurri izan dugu Marx, uste dut. Ez denek. Gogoratzen bazarete, bi marxismo zebilen orduan hemen borrokan: bat humanista (mesprezuz eta tirriz deitzen zitzaion “humanista”), zientifikoa bestea (antihumanista). Komunismoaren problema frantses bat izaterik marxologiako problema orokor bat izatera etorria zen. Euskal Herria ere bazeuden joera batekoak zein bestekoak, izenak isildu egingo ditut hobe. R. Garate-k irakurketa humanista egiten digu noski. Althusser antihumanistaren hutsegite batzuk salatzen ditu (or. 119 adibidez), hau da, orriz-orri etsaia ehizatzen du eta, azkenean, bere irakurketaren zuzentasuna errotik justifikatzeko, Althusser-en interpretazioaren aurka,

begira nondik, Aristotele-rengan hartzen dizu zimentua: “Egia, hau da: Marx Aristoteles-en hildoari darraiola”. Orain badakigu non lotu diren San Toma eta Marx: humanismoan.

Tamala, humanismo tomista-marxista honen sentidoa, erdia bakarrik erakutsi zaigula. Beste erdia gustora ikusi izango genukeen bigarren partean. Akaso ez da berantegi oraindik.

2. Monografikoa

Iñurritza [Salvatore Mitxelena]. Unamuno ta Abendats, argialetxearen izen gabe, Baiona d/g. (1958).

Euskarazko gure kultur-etxeak, edo etxabolak, intelektualki badu desabantaila abantailatsu bat: eta da, gu etxe barruan bakarrik ezin kontenta gaitzkeela. Txikitxo da. Lizardirekin bakarrik ez dago geratzerik, Aleixandre behar da; edo, gazteagotan, Bécquer, deskuidatzen bazara Gabriel y Galán akaso.

Kultur-etxe denak dira munduan txikitxoak: euskarazkoa bezalaxe gaztelaniazkoa, frantses edo inglesa berak. Baina jeneralen horiek erraz egoten omen dira nasai beren luxuzko supazter elebakarretan. Ez bide dute sentitzen beren etxea ihes egin behar izateraino itogarri estua. Euskaldunok ezin dugu ez horrelaxe sentitu. Estua. Eragabekoa. Pobrea. Aspergarria. Baditu bere desabantailak (lanak eta nekeak, batez ere). Eraman lezake jatorriari zaputz egitera, zabal eta erosotasun bila. Ordea, bihoztoi hartuta, norbere buruaren etengabeko gairidipenera bortxatzen, akulatzen, kilikatzen, gozoki gomitatzen, laguntzen duen ateka pribilegiatua ere izan liteke. Kanporatzera behartzen duena. Pirata izatera (kultur itsasoetan). Hots, jabetasunaren zentzu nazionalista hori birrintzera betiko artean, ideietan, kulturalan, gizatasunean. Batez ere kulturak eta Estatuak uztartzeko, monopolizatu nahi izateko, joera estupidoaren estupidoari ohartzera: zeinek esan behar dit niri, Garcilaso de la Vega bat ezein espainolenago dela, nirea baino, nik neurea eginda badaukat? Poesia bat, musika bat

indibidualki “inorena” izatearen adiera, ez da maitatze, ezagutze, ikertze eta norberegantzearena besterik. Hau da, norbere gustuak eta aukerak oinarritzen du norentasuna. Aukera denak etxe barruan egin ditzadan artean, uste izan nezake, etxeko guztia niretzako dela. Nire kultura espainola bakarrik bada, esaterako, kultura espainola osorik nirea dela. Sofismari antzeman gabe. Kulturaren mundu natural guztia nire hauxe kontsidera nezake, besteak “arrotz” sentituz. Kultur gizon euskaldunak posibilitatea ere ukatuta dauka horretarako alde aurretik, autoengainu bakun erraz horretarako. Elebakarraren espejismoak bezala daude kulturbakarrarenak. Nire mintzairaren eta erabatean mintzairaren konfusioak. Itsutasunak. Kultur gizon euskalduna, haatik, inola ezin daiteke elebakarra izan, nahi-nahita ere, kulturbakarra eta etxebakarra: hango eta hemengo hizkuntzetan, kulturetan, hautatu beharko ditu obrak eta ereduak, dastatzeko, gozatzeko, ikasi eta beregantzeko, bere askatasuna eraikitzeko. Bada bera ere kultura batekoa (euskal kulturakoa), baina berak indibidualki anizkortasunean bakarrik izango du posible kultur gizona izatea bere baitan. Dante bezala, *nos autem cui mundus est patria*, munduko seme edozein, kulturatan ibiliko da nabigatzaile, denak bihurtuz ahal duela bere. Judu errantea izateko madarikazioa da destino libre baten bedeinkaziorik ederrena kulturaren.

Zertara dator orain hau dena? Salvatore Mitxelena-ren eta Unamuno-ren auzi horretaraxe justu.

Unamuno-k, euskalduntasunari uko eginez, uste zuen, espainolek berek baino hobeto ulertzen zuela berak Don Kixote. Kultura espainola bere baitanduz, espainolak baino —uste zuen berak— espainolago bihurtuz. Handik hara, ezagutzen dugu Salamankako Errotetaren jarrera euskarari buruz eta euskal kulturaren haren kontzeptua. Judu baldres errantea baino, *indiano* handikaria izatea hobetsi zuen. Halere Salvatore-k “euskal arima” rako errekuperatu nahiko du txit jaun espainol hori. Antzeko zerbait Koldo Mitxelena-k Pio Baroja-rekin egin nahi izan zuen,

haren “euskal balioak” aintzat hartuz (Unamuno, uste dut, ez zuen bereziki maite).

Horra: ez daukagu batere garbi gure egoera. Besteak arrazoi guziarekin itaun lezake: zergatik Unamuno “euskal arimaren” agerleago Kierkegaard baino? Zer da, ba, Unamuno-ren filosofia, kopia txar bat besterik? Eta zer da “euskal arima” hori? Koldo Mitxelena-k ere 1951n oraindik miramenduz inbokatzen zuen “eusko arima jatorra? (cfr. “Euskal literaturaren etorkizuna”). Beste batzuek ez dute problemarik izaten beren identitatearekin. Erabakita ematen zaie. Ez zaie, berek pentsatzeko, aukerarik ematen. Guretzat, guri ez bait zaigu ezer ematen erabakita, bai dena katramila-bihurrituta, izugarri konplexua da, nola definitu zer garen, zer den gure arima, geure identitatea zein erreferentzian ulertu. (Hain zuzen, ez “eskludenteak” garelako, baizik ia ezer ezin eskluditu dugulako). Makina bat saio eta gogoeta isurtarazi du arazoak! (Zer da euskal literatura, zein da abertzale, zein da euskaldun, etab.). Literatura guzti horretan, hain zuzen, ona ala txarra, historikoki eta literarioki garrantzizkoena, giltzarrizkoa beti, Salvatore-ren “enseiu edo nik al dakit ze demontre liteken zera auxe dugu, *Unamuno ta Abendats*.”

Saio honen irakurlea planteamendu zalantza gabe konplexu, nahasi batean kausituko da harrapatuta. Salvatore-k, beste batzuek Petrarca edo Marx maita lezaketen eran, Unamuno maite zuen. Harengan aurkitzen zituen adierazita bere kezka propioak, larriak, bidurrak, protestak, amorrazioak. Nola bera euskalduna zen, eta Unamuno hain “berea” zuen, Unamuno-k euskalduna behar zuen izan... (Marx-ek zergatik ez?). Bestalde, oinarri nolabait objektibo bat ere bazegoen kasu honetan, gogoeta modu hau entseiatzeko: Unamuno bilbotarra zen, euskotarra. Bere burua euskotar aitortzen setatua. (Baina sekula sortu izango ote zitzaion arazo hau Salvatore-ri, kasuan, higuin-higuin izan balio?). Barne-barnean, arrazoi subjektiboak, subjektibista gaitz eskergak eta itxuraz baino ez objektiboak, nahaspilatuta ibiliko dira denak.

Hau dena esan eta gero, esana dago, nola ez den

irakurri beharko saio hau. Alegia, kontzeptuen argitasunerako, zer den eta zer ez euskalduna, euskal kultura, Salbatore-k horixe nahi bazuen ere. Ez da saio analitiko bat. Borroka apasionatu bat da, Jakob gau osoan aingeruarekin bezala Iabbok-eko erreka-hibaian. Unamuno da Salbatore-ren aingeru borrokaria. Hustualdi grina-jario bat da eta, esango nuke, saioan gutxiena interesatzen dena, gaur bederen, Unamuno bera dela. (Badakigu orduan arrazoi apologetiko larri batzuk bazebiltzala tartean, orain bost axola zaizkigunak). Benetan artagarria, poetak saioan indarrez eta suharrez dramatizatu digun “euskal arima” hori da (Salbatore-k “Euskal Arima”, maiuskulaz eta pertsonalizatua), bere umeen gatazka artean, gerra galduaren azpian, fede arrakalatuaren oinazetan.

Denborek bezala, problemek beren historia izaten dute eta beren historiak izaten dituzte. Nolanahiko gorabeherak. Gero, problema batean, ez da alderdi teoriko intelektuala izaten beti interesanteena. Kasu honetantxe, arrazoipidearen doitasuna edo baino, niri gerra ondoaren islada iruditzen zait zinez baliotsua. Karraisia eta negarra. Urteetan Picassoren “Guernica”n ikusi duguna.


Liburuko gatazka haundia egiten duten gatazka txikietako bat, erlijioso-politiko, integrismoarekin da. Borroka hori, adaska gehiagorekin, seguruenik Salbatore-k bere buruarekin daramana (familiarekin, Elizarekin), giltzarrikoa da liburuan. Abertzaletasuna, kristautasuna, etab. ere integristak iruditzen zaizkio. Handik muskiltzen dira tema nagusiak: askatasuna eta tolerantzia, pluralismoa. Politikari edo politikero batzuek, oraintsu deskubritu bide dute beraiek hori. Euskal Herria, esaten digute, ez omen da abertzaleona bakarrik (zein inuxentek pentsatu ote du sekula hori?). Kontu egin beharra ei dago errealtateari, etab. Horiek Salbatore behintzat ez dute irakurri, inoiz euskaraz ezer irakurri baldin badute. Unamuno zergatik hautatu duen gaitzat, ari zaigu testu honetan azaltzen: “Euskal Herria abertzaleontxo ori bakarrik ez talako, gutxiago euskaltzaleontxo bakarrik, ez tate eliz gizonen ori bakarrik. Euskal Herri Egiatzkoa, egunotako ezur eta

mamizkoa, ez da zure edo nire utopiak nai lukena, baizik ezurmamizko jendeek, diran bezela dirala, osotzen dutena, guzian artean kopurutzen duguna. Ona berriro. Gaurko Euskal Herri Osoa ez tugu zuk eta nik soilki ezurmamitzen, ez, integriste jauna; baizik abertzaleek eta karlistek, liberalek naiz komunistek, España zale naiz Prantzizaleek, katolikuek naiz bestelakoek, ondrauek naiz lapur likiskume eta beste barrabasek, baita oetxek ere zoritxarrez, baita gure artean ain gutxi ez tiran pellokirtenek ere, euskera zaleek eta erderaz jarduleek, zuk bezala pentsatzen dutenek eta ez tuginok, guziok; ta beraz, guzian artean, baita Unamunok ere noski, Unamuno gizajoak ere, bere alde”.

Hori alde bat. Kontua da tolerantziaz bakarrik ez dagoela herri hau zutitzerik. Indarra eta sua ere beharko da. Zintasuna, gogoa... Hor bai, hortxe: aukera bikaina ematen zion Unamuno-k Salbatore-ri Euskal Arimaren “bizi nahi” afana espresatzeko. Hura gaitzat hautatu izateko arrazoi ona. “Euskal Arima onen gaurko edo mendeterdi ontako ezinegona, kontentagaitza, marmarra ta maxia, negarjotzea, asalda aserrea, menderakaitza, bizi naia, agoni burruka, kontragite edo antagonia, etsipena ta etsieziña ta itxaropena, askatu leia, euskal miña ta arrandia, ‘ni ta ni’ a, bakartasuna, azibearra, jaundu gogoa, ezilkor gosea, norberatasuna, langilletasuna, laztasuna, zintzotasuna, erlijiotasuna... ta beste tasun kontaezinalen ispillu ta aitzindari berdiniik gabe eskubidez Unamuno(ri) deritzaidalako, mundua beteko ospean eta diztiran”.

Tolerantzia, pluralismoa, oso gauza politak dira denak eta nik ez dut uste mundu guzti-guztia horien arras alde ez dagoela. Bakarrik, problemaren alde bat bakarrik da hori (idealekoa). Ongia pentsatzen denean, gaizkia asumitu beharra dago pentsamenduan. Bestela tranpa egiten da. Gaizkia edo negatiboa baztertu egiten bada, pentsatuko dira oso gauza politak, ez dute ezertarako balio izango, propagandarako ez bada. Baina nola jokatu, orduan, “gaizki”arekin: tolerantzia?

Hor dago koxka: tolerantzia “unibertsa” posible bihurtzeko, eliminatu beharra dago “gaizki”aren



kontzeptua eta etorri beharra dago erlatibismora: dena berdin ongi-gaizki dago, berdin-berdin, ezer ez bestea baino sikieran hobeto ere. Filosofia hori, gaur itxuraz onartuena (predikatuena batipat bera da), onartezina zitzaien Unamuno-ri (ik. *Vida de Don Quijote y Sancho*: zerk ez duen Unamuno-ren beste erlatibismo bat ukatzen arrazoizko egiarekiko). Unamunismoaren oinarri-oinarrian dago "intolerantzia" hori. Hots, egian eta gezurrean firme sinestea. Konbatitzea. Ongian eta gaizkian sinestea. Draman bai eta ez komedian.

Unamuno-k belaskeriak ez zituen batere maite, Salvatore-k ez gehiago. Gerraondoetan, hau da, triunfo ondoetan, hastapen sozial berrietan, birrajuste eta ahokapen garaietan, ez dira inoiz faltatzen irabaztunen inguruan oportunistak, txaketeroak, arrimategiak, trepadoreak eta txirindulariak (hankekin zanpa behekoari, burumakur kilimusi goikoari). Orduan eta orain.

"Situazioko" jendeak, errealistak, esan ohi da, posibilistak. Horiekin zer: tolerantzia erakutsi behar ote da? Ez, hor "zintasun aserrea" eskatzen du Salvatore-k, "aserre santua" azotea *contra esto y aquello*, Unamuno autentikorik autentikoena. "Zintasun gordina... Galtzairu zindoaren zindoduna: autsi lenago, bigundo baño". Nornahirekin eta zernahirekin eskatiman "gezur kukurruku jotzalle ta jozale guzien" aurka, martinkontra.

Zintasun hain errotikakoak Unamuno ez ote digu euskotar peto-petoa, Anti-Espainia baten sentidoan, bihurtuko? Espainola ez ote dugu beti berritsu, komediante, santu-zuritzat eduki, batetik; inkisitore beltz, dogmatikotzat bestetik? Zintasuna euskalduna da. (Geure ustez). Euskalduna gizona da. "Erdaldunari, idazten zuen Zaitegi-k, edozertan azala zaio gogoko: euskaldunari, ordea, barne-

muina. Geroztik, erdalduna axal-zale duzu; euskalduna, berriz, mami-zale”. Nolabait halaxe da, hortazi Unamuno zindoa da, ergo. Axaleko Unamuno espainolaren azpian, Salvatore-k zinezko Unamuno euskalduna argitu nahi du. Salvatore-ren interpretazioan, Unamuno-ren barne-barnean badago “isilpeko gizon” bat, barne-gizona (Unamuno-k berak aitortua poesian), axalgainekoaren sua eta indarra zena, erro-errotikako euskotar jatorra, ez espainola, ez katolikoa, ez beste ezer, euskal-agonikoa baizik. Unamuno-k berak mailegatzen zion konfirmazioa gutun-zati honetan: “Yo, lo confieso, no solo no soy latino de raza (como vasco que soy) sino que aunque con la mente procure comprender el latinismo, mi corazón lo rechaza”. Are zakarkiago beste pasarte batean: “Los vascos... sienten aversión, y también la siento yo, hacia casi todo lo que pasa en España por castizo y genuino”.

Baina, berririo itzulika: zintasunaz gain, erokeria ere behar da, denbora galduotan abertzale eta euskaltzale irauteko, ezta? Zer eroso dakarren ekarri esku-eskura pilota hor ere Salvatore-k, Unamunorekin dialektikan iharduteko (ik. 22. atala: “Arrazoi ala biotz?”): abertzaletasuna, euskaltzaletasuna ez dira Unamuno-k predikaturiko kixotetasuna besterik. “Erokeri edo erotasun orixe diagu, ain zuzen, gure aundia”.

Ez du merezi jarraitzea. Batera, bestera, gogartea zambiluka doa uholde indarrean. Saio-drama hau (hasiera batean “Aberriak min dit” izan behar zuen poema baterako pentsatua hitzaurre gisa) gerra ondoko giro lazgarri kontradiktorioaren adierazpenik zintzoena eta bortitzena iruditzen zait. Kontradiktorioa bera ere. Zaparrada batean idatzia, bihotzaldi bati erantzunez gehiago, plan bati eta arrazoiketa bati baino. “Kapituluen izenburuak eurak, testua errezkan etenik gabe asi ta bukatu ondoren, tarteka sartuak daude”. Nik ez dakit saioaren buruan zilegi ote dugun Unamuno hori euskotar kontsideratzea, are “euskotarretan euskotarrena”, eta argitu ote dugun euskotarra izatea zer den. Ebidentea zera da: Euskal Salvatore-ri.

Gerraondoa ezagutzeko, oroz gain, “agonia”ren pilpira sentitzeko, ez dago Salvatore bezalakorik beste bat. Ez dakit, zergatik ez den ikertu.

Nola zen? “Del salón en el ángulo oscuro”. Bai, euskal autore askok egiten du inpresioa, betidanik musu batek esnatu behar duen eder-eder loakartua ez bada ere, Bécquer-en arpa xaharra bezalatsu dagoela zoko-bazterrean: “cuánta nota dormía en sus cuerdas”, iratzartuko dituen elurrezko eskuaren beti igurika. Salvatore-ren kasuan osoki balio du metafora musikalak. Berak alderatu zuen saio hau sinfonia batekin.

3. Sorta

Txillardegi, *Huntaz eta Hartaz*, Goiztiri, [Baiona 1965]

(“Azken heriotza dala-ta” saioaren inguruan)

“Bi gauzak betetzen du gogo harrimen eta begiramen beti berriz eta haundiagoz, zenbat eta maizago eta pausatukiago aritu hartaz gogoeta: zeru izarra nire gainean eta lege morala nire barnean”. Txillardegi-k ezaguna zuen noski, *Arrazoimen Praktikoaren Kritika*-ko pasarte hori. Sonatua da. *Leturia*-ren hitzaurrean Mitxelena-k Txillardegi nola ezagutu zuen kontatzen du: “Sari-banaketa batean zen, eta saritutako batek etzuen oso ongi artzen norbaiten filosofia: Kant-ena ala existentzialistena zen, enaiz oroitzen”. Gero, hainbat kezka filosofiko irabiatuko duen eleberri horretan, protagonista, zeruari eta izadiari begira bakar egonzalea da (“neure buruarekiko kontuak garbitzeko”). Baina, atzera Kant-engana: bihotzidor eta sentimentu gabekotzat ikusi ohi den filosofo prusianoak, aspaldikoa zuen ideia hori, “kritikoa” bilakatu baino askoz lehenagokoa alegia. Erdaraz, baina oso politak dira-eta, mereziko du *Naturaren historia orokorra eta zeruaren teoria*-ko hasiera eta amaierako testuak aipatzea. “La fábrica del mundo —hasten da traktatu hori— nos produce un silencio asombroso por su inmensa grandeza y por la variedad y la belleza infinitas que por todas partes resplandecen en ella”. Ez da goi-behe inguratzen

gaituen maiestatezko haunditasunak, infinitotasunak, bihotzari egiten dion zauskada bakarrik: zeruaren miragarriak, golkoan emozioaren bat eragitea baino gehiago, adimena zorabiatzen du, filosofiaren hasiera eritzi ohi zaion harridura intelektualez iharrausten du izpiritua, San Agustinek esateko, Aitorkizunak-etan, “guzien gain dagon betiko iakintasuna”ren agerkunde gisa.

Hain zuzen Aitorkizunak horretan ere, Ostia-ko “elkarrizketa zerutar” famatuan, San Agustin eta Monika-ren artean, arima nola naturaren kontenplazioan eta dialogoan Jainkoaganaino igotzen den, erakusten da. Ama-semeak Ostia-ko portuan daude, Italia-tik Afrika-ra pasatzeko asmoz. Leihotik baratzerara begira, jendeengandik urrun, bi-biak solasean lotzen dira, “ema-amaro eta lengoak ântziz, geroari begira, egiaren aintzinean” (orduantxe konbertitu berria da San Agustin). Aitorkizunak-etan beste bi holako igoaldi mistiko badaude lehenago, Milano-n, guztiz halere burutzen ez direnak. Ostia-koa osoki kunplitzen da: “Mukulukiak oro maillaz mail erabilli genitun eta zerua bera ere, andik ixurten baitute beuren argia eguzki-illargi-izarrak. Gorago igotzen giñan oraiño gogorapenez eta itzez, eta Zuk egiñetaz arrituz, gure animetara iritxi giñan, eta areago (...). Zugurtasuna da ango bizia, auek oro Berak egin baititu, ziranak eta dirakenak. Bera, berriz, ez da egiten”.

Guztiaren gain eta iturri, zeruko izarrei soegileak, “betiko iakintasuna” atzematen du, “quien mira el gran concierto / de estos resplandores eternos, / su movimiento cierto, / sus pasos desiguales / y en proporción concorde tan iguales”.

Gorabide horren buruenean, ez dauka zergatik egon derrigor San Agustin-en Jainko biblikoak, sortzaileak. Egon liteke zerbait anonimoagoa, dezifraezinagoa, jainkotasun izengabea, eta halere berdin sublimea, *Judizioaren Kritika*-ko zentzuan, atziezina kontzeptuz, hunkipena ezezen, izua sortzen duena sentimenean, eta “ensanchamiento del espíritu bat, que siente capaz de saltar las barreras de la sensibilidad”, poza, beldurra, gure kaskartasunaren

mina eta haunditasunaren konfidentzia isila. Eta azkengabetasun guztiz ordenatu hori, lege-hari batetik: “Si la idea de toda esa perfección, Kantekin jarraitzeko, sólo conmueve nuestra imaginación, la inteligencia, por su parte, se deja arrastrar a otra clase de embeleso cuando contempla cómo tanta magnificencia, tanta grandeza fluyen de una sola regla general, con sujeción a un orden exacto y eterno. La fábrica planetaria del universo, en el que el sol, con su poderosa fuerza de atracción, hace que las esferas habitadas de su sistema, saliendo de los centros de sus círculos, giren en círculos eternos en torno a él, se halla formada totalmente... por la materia prima originariamente desplegada de toda la materia universal”. Izadiaren miraria.

Kant-ek, bere hazkuntza protestante pietistarekin, ezagutzen zuen, zeru izarrak salmoetan kreatzailearen ospea kantatzen omen duela. Baina irakurri diogun hori dena, Aristotele-ren obran aurkitu zuen zalantza gabe, sarrerako aipatu dugun esalditik hasita. Honen galdutako obrako Frg. 10 Raren arabera, “gizonen jainkoekiko ideiak iturri bikoitza du: arimako bizipenak eta izarren kontenplazioa” (cfr. W. Jaeger, *Perí Philosophías-en iruzkina*). Bizipenekin, trantze extatikoak eta profetikoak ulertu behar dira. Jainkoaren ideia herrietan zeru izagarren begiespenetik sortua delako usteak, Aristotele-ren gaztaroan Athenai inbaditu zuen “teologia” astral guztia dauka aurretik eta, gero, haren filosofian oinarri-oinarrizko doktrina izan da: “No es exagerado decir que la contemplación de los ‘dioses visibles’ ha representado, para Aristóteles, el papel de *cogito* de Descartes” (P. Aubenque). Luzatu gabe: hilargitik gorako zerua jainkozkoa zen harentzat, jainkozkoatasunaren azalpena eta froga. Izarrak, beraz, ustelezinezko materiaz mamituak eta arima jainkozkoak ditugu, izaki goitar bizidunak, “de êtres animés qui ont une vie, et même une activité pratique [xede, jomuga: beren adimena dute hortaz], et tellement même qu’il faut les considérer comme des êtres beaucoup plus divins que l’homme” (O. Hamelin). “Gauza jainkozkoetan, atzeman egin daitezkeenak”,

dira izarrak (*Met.* 1026 a 17). Jainkozkotasunaren errebelazioa.

“Ay, levantad los ojos
a esta celestial eterna esfera!

.....

¿Es más que un breve punto
el bajo y torpe suelo, comparado
con ese gran trasunto,
do vive mejorado
lo que es, lo que será, lo que ha pasado?

Izarrak eta kreatzailea batzea, ez da derrigor horiek frogatzea eta ondorio logiko izatea bezala, kausa eta kausatu gisa, ulertu behar. A zerbaitek beste bat idarokitzea, ekartzea burura eta bihotzera, insinuatzea, estriktoki ez da ezer frogatzea. Mezu isil bat isurtzea da izpirituetara, gogoeta geldituta, izartegiaren kontenplazioan. Mendebalearen kultur iturri bietan —filosofiko grekoan eta bibliko judutarrean— lotu dira zerua eta jainkozkotasuna. Izarretan, ordea, ez logikaren bat, ezpada armonia zerutarraren musika gozo barea da, sentitu dena, tradizio horietan. Goazan aurrera tradizio filosofikoan.

Platon-en berezilariek ez dute azpimarratu gabe pasatzen, doktrina aristoteliko aipatuen jatorri orohar plantonikoa (*Eptinomis* idazkia, bere teologia astral guztiaz, pseudoplatonikoa balitz ere). Platon baitan, izan ere “los cuerpos celestes son en todas partes los representantes naturales o símbolos de lo que Christopher llama el elemento transcendente en la realidad externa” (E.R. Dodds). Historia luzea hori ere. Batetik, izartegia gure arimen sorterrria izatea dago: “cada alma es algo individual, cada una tiene su estrella, allí en ella tiene su patria (...). La contemplación del cielo estrellado llena el ánimo del hombre de una admiración siempre nueva y le infunde un anticipo de normas supratemporales” (J. Hirschberger). Hori bait da, bigarren dagoena: zeruetan (astronomia=matematika) zientzia zehatza ikasten dugu, uste soilaren gaindipena, ziurtasuna, hots, engainatu egin ohi gaituzten zentzuen eta inpresioen gainetik, jainkozko ezagutza, jakintza

eta jakinduria. Izarren artean etxeko dagoen jakinduria.


Adimena kolpatzen du zeruaren kontenplazioak, sentimentua adina. Platon eta Aristotele-gan bezalaxe da hori horrela Kant-engan, Txillardegiren, ik. “Betikoaz agian” (*Egan* 1/2, 1958, 43-47. Artikulu horretan, Kant-en aurka, espazioaren objektibitate defendatzen da). “Gizonak ez dauka ententidzerik”, hori da zampakorra, ikaragarria, zeruaren kontenplazioan.

Zer esanik ez, Platon-ek ere aurrekoengandik edan du: pitagorikoengandik. Horientzat zerua zenbaki garbiko eta armoniazko fabrika perfektua zen: filosofoa, kosmo perfektu horren kontenplaztailea. Zeruairen kontenplazioan, filosofoak bere buruaren perfektzioa baitaratzen du, zenbakia eta armonia ezartzen du bere barnean. Gizona baitan horrela unibertsoaren ordenu fisikoak eta arimaren ordenu moralak bat egiten dute (F.M. Cornford). Mundu materialak eta izpiritualak.

Fray Luis de León-en “Noche serena” poeman mundu pitagoriko-platoniko hauxe dago espresatuta, puntuz puntu, ia kristautu ere gabe:

Morada de grandeza,
templo de claridad y hermosura,
el alma, que a tu alteza
nació, ¿qué desventura
la tiene en esta cárcel baja, oscura?

Aski. Zerua irakurri egiten da. Ikasi. Meditatu. Begiekin baino, izpirituekin. Bakoitzak bere kulturarekin eta kulturatik irakurtzen ditu izarrak. Begi grekoekin, grekoak. Erdi Aroak, begi kristau platonikoekin eta, Ernazimentua bitarteko, gure begiok eskola greko-kristau horretan eskolatu dira. Chartres-ko monje platonikoek zeruko esferen armonia jainkozkoa aditu dute gabe. Abraham Jainkoa ezagutzera nola iritsi zen izarrei begira gabe, deskubritzen du Eskoto Eriugenak, pitagorismoan eskolaturiko begiekin irakurritik Biblia. Zerua ikusiz, pozez eta sorterrri-miraz betetzen zaio bihotza Paris-en Hugo San Victor-koari. Mundua trazatu duen Arkitektoarekin lehian, haren



proporzioekin berekin eta neurriekin, eraiki dira katedraleak. “Ese orden [kreaziokoa] se halla aún de modo manifiesto en la armonía de las esferas celestiales. De ahí esa tendencia medieval, muy conocida para todo el lector de Dante, a conectar el reino de las estrellas con la morada celestial de los bienaventurados [izarrezko zerua gabea = hilondoko Jainkoaren zerua]. Esta misma tendencia explica el simbolismo aparentemente doble de la catedral, que es a la vez *modelo* del cosmos e imagen de la Ciudad Celestial. Cuando el arquitecto proyectaba su templo según las leyes de la proporción armónica, no sólo imitaba el orden del mundo visible, sino que transmitía también, en la medida en que le es posible al hombre, una indicación de la perfección del mundo venidero” (O. von Simson, *La catedral gótica*). Gabea, mundua tenplo bihurtzen da, dena ilun eta beiradura.

Ernazimentutik—Kusano, Bruno—zita klasiko

bat (Cornford, Guthrie) gogoratuko dut. Shakespeare-n *Venezia-ko Merkataria*-n Lorenzo-k esaten diona Jessica-ri:

Soft stillness and the night
 Become the touches of sweet harmony.
 Sit, Jessica: look how the floor of heaven
 Is thick inlaid with patines of bright gold:
 There's not the smallest orb which thou behold'st
 But in his motion like an angel sings,
 Still quiring to the young-eyed cherubins;
 Such harmony is in immortal souls”.

Zinez, irakurri, planteatu, gogoetatu, interpretatu egiten da zerua. Galdera infinito bat da. Kulturaz eta historiaz kargaturiko galdera. Zerua kontenplazten dugunean, hortaz, bi ganga begizatzen dugu buruaren gain altuan: bat fisikoa, izarrezkoa; bestea, kulturala.

Txillardegi-ren saioa zaila da. Itaun genezake

orain: zergatik da zaila Txillardegi-ren saioa?... Ageriko lehen arrazoi bat Txillardegi-k berak eman digu: gaiok ez dauden modan. Arrotzak dira, interes gabekoak. “Transistorerik gabe nor doa gaur mendira?”

Kultura orok sortzen du, edukitzen du barruan, bere inkultura. Oraingo gurea maiz salatu izan du Txillardegi-k saioan hala nobelan. Mendietako isiltasuna ezin duenak, nola jasango du isiltasun kosmikoa? Nola mediatu ahal izango du “azken heriotza”z?

Telebistaren eta imajinen gizartean bizi gara. Belarrikoa bezala, begietakoa dago isiltasuna. Eliza isil-isil askoetan, begietako zarata izugarriak eragin izan dit atzera: niretzat barrokoa izaten da askotan eskandaloso tarrapatari. Kaletar gizajoak “Sirio edo Arturo ikusi beharrean, farolak ikusten ditugu”. Eta adimeneko isiltasun bat dago. Sentimentuetakoa. Hau bait dago bortxatuen-bortxatuena gure kulturaren, gure intimitate guztia eta pertsona triskatuz, hustuz, alienatuz, suntsituz. Txillardegi-k egin izan duen kritikari jarraituz, egunotan Gil Bera-k sarkastikoki “kazet irakurlea”n tipifikatu du zarata-produktu moral eta intelektual modernoak. “Hau da kultura orokorraren jabe eta normaldu guzien eredu”. Ezin duena berak pentsatu. Pentsamendua eman egin behar zaio ganbelan. “Zer da, galdetzen dio Leturia-k bere buruari, bakardadetik iges-eragiten diguna? (Zer da, saldoan murgiltzera garamatzana ihesi?, galdetuko zukeen Gil Bera-k bere terminologian). Ta zer da bestetan bere billa zuzentzen gaituena? Geure baitarako mintzagaiak izatea; geure buruakin itzik gabeko jarduna izateko gogo”. Mintzagairik, esango zukeen Gil Bera-k ahapetik, ez izatea batere norberak barnean.

Badago, baina, drama bat, nik uste. “Saldo”ari uko egiten ahaleginda ere, ez da beti lortzen, presio sozial eta kultural masibotik aski liberatzea eta urruntzea. “Kazeta”tik salbatzen gara, baina liburuan amiltzeko. Kapitalismoaren aurka, lortzen dugu gizakiaren eta lan-ihardun pertsonalaren alde paratzea. Ereditu kultural kontsumisten aurka. Uniformazioaren aurka. Estatuaren eta modernia-

ren aurka. Elizaren aurka. Alderdien aurka. Eskolen eta historiaren aurka: tematzen gara diferentziaren alde. Hizkuntza herbal bat: gure diferentziatxo komunitarioa. Herri zarpil bat. Literatura ipurtargi bat. Geure kontzientzia sagarroitxoak: diferentzia pertsonala. “Ez gara zaldunak” eta ez digu inporta. Hisiatzen gara hisiatu, hatzamar guztiekin, gure diferentzia tipion alde, ez gaitzen izan hurrupatuak, berdinkatuak, xahutuak, “normalduak” hitz batean. Hau “gizon normalaren aroa dugu”, ordea, eta diferentzia, hobea, tatxa, delito, bekatu ezezen, terea gaitza da, gaitza. Pena psikologikoa baino haboro, neke moralaz eta intelektualaz ari naiz. Egun batez nekatu eta nazkatu egiten zara beti protestatzeaz ere: dena eztabaidatu eskusatu justifikatu egin behar izateaz (“zer da, ba, euskalduna izatea?”, “zeinek dauka, ba, abertzaletasunaren metroa?”), mila aldiz eta beti alferrik ilargitxo bera errebindikatzeaz, arrazoi bera eman behar izateaz, igelarena egiteaz putzuan, erridikulua egiteaz, autobideaz eta presoez eta ikastolez eta autodeterminazioaz eta Nikaraguaz eta Palestinaz urduritzeaz, isekatua edo errukitua bakarrik izateaz. Gure mundutxoan, diferentziaren defentsak, pertsonala zein komunitarioa izan diferentzia, jasan ezinezko abarrots moral eta intelektual desesperagarria izanez bukatzen du. Ezin duzu eraman. Zure barrua irauli egiten da zeure aurka. Bake piska bat nahi duzu. Normaldu egin nahi duzu...

(Gainera, momentu batean, zaratarik haundiena zeure ondo-ondoan, diferentzia errebindikatzen ari diren horietzek ateratzen dute: denak infernura bidali nahi zenituzke).

Nora alendu? Isiltasun erraz komodo bat, norbere buruari atsegin emateko, sistemaren barruko oasietan aurkitzen da. Despolitizatu, profesional ona izan, “literatura bakarrik” egin, eztabaidak espektakulo gisa siloetik dastatu, independente egon. Orduan, posibilitate bat, bibliotekan anparatzea eta geure arduratxoetan olgatzea da. Pribilegiatu batzuentzat aurrikusia dagoen asiloa, “independentziaren” truke hain zuzen. Prezioa da.

Poesia libururen batean aurki lezake horrek, onenean ere, zeru izarra diztiraz. Ia seguru, ez du zirraraziko, Kant bezala.

Ez dakit nola interpretatu behar den, baina P. Perurena-ren apoak, ez bibliotekan (munduan ez dagoen neutraltasun intelektualan batetan), baina gabeko zeruaren azpian deskubritzen du bere burua behin eta berriro. Gauak bapatean harrapatu egiten du. Bere borrokan harrapatzen du. Bere ezbai laborri guztietan. Ez ihesi. Aldiz bai, desgizonaren munduari, bere zimarkunekin, kontraste haundiagoa egiteko.

Euskal literaturan badaude beste erretiratze batzuk munduko burrunbatik bakardadera eta kontenplazioara. Orixe-rena, adibidez. Polita litzateke konparazioak egitea. Txillardegi-ren bakardadea ez da independentzian errefuxiatzea, problemak hastantzea. Miseria guztiak zinez bizkarrean kargatuz da, aitzitik, Txillardegi-k nola nahi duen zeru izarraren kontenplazioa. Baina existentziaren azken zentzuaren larriz eta laborriz nahi du izartegira begiak altxatu: guztiaren aurrean ezerezaren ideiarekin konfrontatzeko. Heriotza Osoaren ideiarekin. "Aizearen hosto segaillen erara dardaratzen gera hutsaren hutsean".

Zeruaren kontenplazioan, paradoxalki, Txillardegi-ri argitzen zaiona, ez da izango jainkotasuna, gizatasuna baizik. Progresoak, teknikak, ekonomiak, ez dute salbatzen gizona. Okerrago: ez digute erantzuten, zer den gizona. Ez dute ikusten ere. Baina, bestalde, gizonaren defentsak, diferentziaren aldepenak eta nortasunaren hazkuntzak, borroka euskaltzaleak, abertzaleak, iraultzaileak, libertariak, diren bezain garrantzizkoak izanik, sentido erlatibo bat dute, ez dira absolutuak, kanpoko eta kaleko gizonaz komunitariak ari dira, barnekoak, eta ez dute haizu itotzea gure baitako guztion arima platoniko bakar, indibidual antsiatia. Izarrei begira durduzaturik airean geratzen dena. Gizatasuna ez da ahitzen gizonaren gizarteko joanetorrietan. "Jaiak bai, borroka ere bai", esaten da: Txillardegi-k, "borroka bai, izarren kontenplazioa ere bai", gehituko luke.

Borrokak borroka eta progresoak progreso, gizonaren neurria ez bait dute ekintzaileek erakusten: kontenplatiboek. Arrazioa da, kontenplatiboa dela —Buda, Unamuno, existentzialismoa, kristautasuna— bere ezerezari begiekin begiratu eta ohartzen ausartu den gizona. Egiatzko gizona. "Teilhard-en goi-argia, Buda-rena bezala, gizon sakon guziena bezala, Ezerezaren amilburu izugarrietan sortu zan. —Heriotza Osoa, Ezereza, 'Omega': horra hor gizontasunaren neurria. Eta horra hor Teilhard, gizontasunak ematen duen izu zirraragarria guri sendiarazten. Horra hor neurria: horra hor gizon bat".

Salbatore-k, Txillardegi-k, existentzialismoaren ildoan garatu dute gerraondoko lehen gogoeta euskal saioan. (Kierkegaard, Unamuno, Sartre-ren izenak ez dira falta saio honetan). Salbatore-ren "zer da euskal arima" eta Txillardegi-ren "zer da gizona" ren artean sintonia biribila dago. Biek, eraskin oro kendu, arazoa bere izatetasun gorrian planteatu nahi lukete. Akzidental guztia soildu. Baina horrela harrapatutako pertsona, biluztua geratzen da, mehatxatua, salatua kausitzen da bere ahulerietan, zeru izarratuaren azpian esaterako, inkisizio pertsonal, existentzial baten izualduraz eta noraezean (kafka gogoratzen du). Ez ote dago kontenplazio bakezkoagorik? Txillardegi-ren saioa zaila da, exigitzen duen jarrera kontenplatiboa (kasik mistikoa) zaila delako duda gabe denboratortan. ("Gizona 'homo oeconomicus' billakatu da, eta batzuetan gure gizatasunaz lotsarazi nahi gaituela dirudi"). Baina, gehiago, kontenplazio guztiz agresiboa desarroilatzen duelako gero, konpondiorik ezertan bilatu gabe. Borroka sozialak ez ote du deus balio? Justizia pittin bat gehixeagok ez ote du merezi? Galdera horiei saioak ez die jaramonik egingo. Bere gaiarekin bakarrik dago absorbituta: "begira galaxiak, eta galaxiazko galaxiak: gizona ezer ez da, mundua ez da ezer".

Zailtasunaren beste arrazoi bat Txillardegi-ren saioan, honen planteatzeko moldea da: saio bat beste baten gainean da, hasteko. (Edo beste baten aitzakiaz: "berriz irakurri dut Teilhard de

Chardin-en *L'Esprit de la Matière* saiakera ttipi mamitsua”, dira lehen hitzak). Gero, Txillardegik muntatu duen pentsamendu desberdinen arteko elkarrizketa edo dialektika da, bera erdi-ikusle, erdi-epaile, erdi-galdu dabilela itxuraz. Aurrenik bi zientifiko: Teilhard sinestuna, Rostand sineskabea. Fedearen eta zientziaren arazoa jartzen zaigu. (1958an fedearen alde ebazten zen, hemen ez. Cfr. *Betikoaz agian*: “Jauzi egin behar, ikusi ez arren siñistu egin behar”). Zientzia filosofiarekin eztabaidatzen da hurrengo: Kierkegaard, Unamuno, etab. plazaratzen dira. Teilhard hirurak batera izaki, zientifikoa, filosofoa, fededuna, maila berri batean birgogartzen da Omega teilhardianoaren zentzua. Ordea, hipotesi edo posibilitate zientifikoa bera baino gehiago, gizonaren sentimentuak ari bait gara ulertu nahiz, horien deskribapenera itzultzen gara:

“Nork ez du gauez, noiz edo behin, izartegiko illunari so jarririk, Teilhard *olerkariak* horren egiazki azaldu digun bakardade-txorabio hori senditu? (azpim. nirea). Pilloturik gabe dirudienez, nora ari da gure Lurraren untzia? Nora ari da mendeetan zehar, oten gabe itzulika eta jiraka Lurraren egazkin borobil hau? Eguzkiaren ingurutik zertarako? Eguzkia ere jiratzen eta aldatzen da zeruan. Dana itzulikatzen da; baiña ezer ez doa iñorat. Zabalaren hestua!

Horrela gizonak zerua miresten duenean, Sartre-ren esaera gogorak larriturik begiratzen du: beharbada “zerua hutsik dago”. Eta asaldatu egiten da. Kosmoa mirestea, betidanik (ikus Pascal-en hitz ederrak, esate baterako) izialdura darraio miresteari. Izialdura datxeko, hobeki mintzatzeko. Pakea eta asaldua alkarrekin datoz Izartegiko ixiltasunetik”.


Bake-asaldu nahasketa hori behin-behinekoa da: meditazioak aurrera jarraituko du, eztabaida maila erlijioso edo mistiko batera sartuz.

Huntaz eta Hartaz-ko saio multzo baten giroa horixe da: mistiko erlijioso existentziala. Txillardegik, zeruaren kontenplazioa “arazo” intelektual bezala, tradizio barruan planteatzen du, ikusi dugunez. Ez Platon-ekin eta Aristotele-rekin,

noski: oraingo filosofiarekin ezbaian (Berdiaeff, Simone de Beauvoir, gorago izendatuak), oraingo zientziarekin (Rostand, Jeans). Ez da, ordea, planteatzen, gorabehera teoriko-espekulatibo soil gisa, existentzial-angustiazko edo, bokaziozko legez baizik: bizitzaren eta munduaren eta mendeen sentido azkenekoaren itaun larria bezala. Zer ari da mundua? Nora doa dena?

Galdera horiek bizten ditu golkoan gau izarratuak. “Zerua egunez zoragarria bada ere, are zoragarriagoa da gauez eskierki. Gizonagan gertatzen dan bezala, illunbean nabarmentzen da bereziki aren sakontasun zirrargarria. Argirik ezak sakonago biurtzen du dena”. Gaua sakontasuna da. Isiltasuna da. Txillardegik aspaldikoa du existentziaren bere meditazioan gauaren motiboa. “Atsegin zait oso zeruari so egotea”, “zoratu egiten nau gau izartsuak” (1958). Modernitatearen kritikarekin bat ohi doa joan aitortza hori. Alegia, orain jendea transistorekin doala mendira (ala eskupetarekin). Edo batere ez doa mendira: hots, naturarekin ez du harreman pertsonalik batere. “Leen, gure asabak mendi-mendian lurra goldatzen eta ardiak larratzen ari zirelarik, maiz ikusten zuten zerua. Berau beren eguneroko munduan zegoen.— Gaur, ordea, noizean bein bakarrik so-egin dezakegu goruntz, ezerk gu galerazi gabe beintzat. Onegatik, gure erri zatar auek gu illunik gabe uztean (ezpaitago kalean egiazko gaurik) illunbetik alde eragin digute, eta gauez bakarrik senti ditekean sakontasun lazgarri ori kendu. — Gure antziñekoak, Naturelezarekin bizi izan ziranak, adiskidetzat zeukaten ixiltasun osoa. Gau izartsua zan askotan beren bide-laguna, eta goietako leizea etzitzaien arrotz. — Guri, berriz, kaletar gizajooi, arrigarriegi zaigu gauaren izkuntza soñugabea”.

Txillardegik ez da bera Santimamine-ko norbait. Donostia-ko kalemuke bat da. Esan nahi dut, ez du jostatzen fikzioetara, zibilizazioaren kritiko askoren eran (“zibilizazio hau zirtzila da: besteok bezalakoa ez naizen honek, esaten dizuet”). Zerua Txillardegirentzat ere mediatizatua dago hirian, modernian. “Argatik, aal dezakedanean, astronomiari buruzko



liburuak irakurri ohi ditut, edo zeruko fotoak poliki ausnartu”. Guk engoiti ez dugu zerua begietan liburu gabe ikusi ahal. Desengainatu izan ditut Kant-en entusiasta batzuk, bapatean ohartuz —ia lirikoa dirudi, bestela, haren “bi gauzak betetzen du” horrek—, “barka, ohartuz alegia, hotz-hotz, beharbada deskortesia apur batez, Newton-en zeru infinito matematikoa da zeru hori, ez inpresio poetikoren batekoa”. Filosofo prusiar bat izan zen Kant hori: ez poeta erromantiko suabiar bat.

“Azken heriotzaz” artegatasuna, zerua liburuzko begiz meditatuz bakarrik da posible. Ez da zeru goia mugigabeki, harkor, arima isil geldiz kontenplatze natural eta primitibo baten ondorioa, baina zeruari oldartze moderno batena. Ez da, zeru haundiak esaten diola kontenplatzaileari, entropia legearen arabera unibertso guztia noizpait azkenbetiko itzalia izanen dela: baizik ideia horrekin buruan kontenplatzen duela Txillardegik zerua, bere ideia

horren berezko urragarria izartegiak urragarriago sentiarazten diola. Kosmoaren Azken Heriotza, Heriotza Osoa, materia ororen hilgortzea, Omega bezalaxe, materiaren guztizko gaindipena izpirituan, kontzeptu teorikoak dira (metaforak), esperientzia posibletik landa. Eta kontzeptu alternatibo horien arrazoizkotasunaz da, gainera, galdegiten zaiona zeruari. Hots, norbere buruari, zeruaren kontenplazioan. Arrazoizkotasun arazo bat da.

Baina azken sentidoaren azken erantzun ziurrik ez bait da. Hobe, azken erantzun desberdinak ametitzen bait dira. Bi kontrario posible fedearena (“positiboa”) eta zientziarena (negatiboa) izan litezke. Fedezko erantzun “positiboan” berean, posibilitate bi kabitzen da berriro: itxaropenezkoa ala erabateko etsipenezkoa. Itxaropenezkoa Teilhard-ena da: mendebalekoa, kristaua, mundu galkor honen haraindi soluzio galezin bat itxaro duena. Munduak badu irtenbiderik, heriotzaz

haruntz, bere bestaldean, eta da materiaren gaindipena izpirituan, Jainkoa baitan. Puntu honetantxe ekiten dio *Azken heriotza dala-ta* saioak: “Ni oso Teilhard-zale naiz: Teilhard da azken itxaropena”. Baina itxaropenik ba al da?

Problema bat bait dago (eta saioa modu benetan bihurri batean eramango da aurrera): “gizonaren egarria Absolutu egitea da” salbazio aitortza hori. Zer arrazoi dago horretarako? Nahi izatea nahi izatea nahi izatea nahi... (“quiero quererlo”). Teilhard-ek esku ematen dio Unamuno-ri. “Si del todo morimos todos, ¿para qué todo?” Unamuno-ri heriotza pertsonala zaio ezinezkoa onartu (“entonces no es nuestro trabajado linaje humano más que una fatídica procesión de fantasmas, que van de la nada a la nada”), eta hilezkortasunaren soluzioa “asmatu” du. Teilhard-ek mundu hil-beharrari Omega-ren soluzioa asmatu dio... Bion aurka, horregatino, arrazoimena dago, zientzia. “Noizpait dana egongo bide da ixillik, dana illunpetan galdurik; ikuslerik gabe dana Ezerezaren pare billakaturik”. Badirudi, beraz, mendebaleak eraiki zientziari ez zaiola egoki mendebaleak asmatu filosofia. Hau, konpentsazio bat gehiago dela, korrespondentzia baino. Ekialdeko filosofia ez ote legoke azken funtsean zientzia ilusio gabe horri ahokatuago?

Baditugu, hortaz, hiru plegu behinatz, unibertsoarekiko. Zientziarena, sentidoa bost axola zaiona, utzirik orain: zein jarreraz, barnez, kontenplatu gure kulturen oskarbia? Non gaude justu-justu? Kontsideratu ahal ote gindezke Teilhard-en kultura baikorrekoak?... Zer da, zeruak ez dakit zer esaten edo sentiarazten digulako hori? Arazo honek, Txillardegiri mendebaleko tradizio guztia auzitaratzeko balioko dio, erlijiosoa zein filosofikoa.

Zeruaren kontenplazioak Platon-entzatz sorterrimina eta urduria sortzen zituen ariman. (Fray Luis-en “cuando contemplo el cielo / de innumerables luces adornado / ... el amor y la pena / despiertan en mi pecho un ansia ardiente”). Platon-en euskarazko kristautzaile Zaitegi-ri (“Baserriko illunabarra”) berdintsu: “Nire baitan ikara goramñiak pil-pil/

oraiñaldi laburrak Ezilkorra du urbil”. Epikurorentzat zeruak “la serenidad de ánimo y la sólida certidumbre” eragin behar lituzke: larria eta antsia antifilosofikoak dira. Ez dago ezer, giza izpituaren aztoragarri, beldurgarri. Kant-entzatz, *Judizioaren Kritika*-n, gure izpitu bikaintasuna aurkiaraz diezaguke. (Honentzate ere “el sentimiento de lo sublime es un sentimiento de dolor... y es, al mismo tiempo, un placer”). Izan ere, mugagabeko zeruetan ikusi uste badugu ere (“la inmensa multitud de semejantes sistemas de la vía láctea, bajo el nombre de nebulosas, las cuales a su vez forman entre sí un sistema semejante”), ez han, egiazko sublimitatea gure izpituaren barnetasunean deskubritzen da, ongi meditatuz gero: “la verdadera sublimidad debe buscarse sólo en el espíritu”. Ezteustu eta zanpatu orde, hanpatu. Ez gure pittintasuna sentiarazi, baizik paregabeko gure duintasuna errebelatzen digu zeruaren kontenplazioak. Kant-en *Naturaren historia orokorra eta zeruaren teoria* esaldiokin amaitzen da: “Cuando nuestro ánimo se ha llenado de tales reflexiones, el espectáculo de un cielo estrellado en una noche serena nos infunde una especie de gozo que sólo las almas nobles pueden sentir (...). Y si entre las criaturas pensantes de este planeta existen seres lo suficientemente viles para encademarse a la esclavitud de la vanidad a pesar de todas las tentaciones con que un objeto tan grandioso puede llamar a su pecho, ¡cuán venturoso, por otro lado, al ver abrirse ante él, bajo las condiciones más aceptables, un camino por el que puede llegarse a una dicha y a una altura infinitamente superiores a las ventajas que en cualquier objeto del mundo pueda crear la más ventajosa organización de la naturaleza!”. Mundu bat, zeru guzti horiek baino ederragoa, beteginago eta armoniazkoagoa, eraiki lezake gizonak, bere barruko haunditasuna ezagutzen eta jarraitzen badu. Horra Kant zeru goiaren kontenplazioan: mundu materialaren armonia diztiratsuan, mundu moral hainbat armonia ederragoko baten posibilitatea deskubritzen.

Pascal-en tradizioa da, ezteusean ere

haunditasunak deskubritzea gizonari (kainabera xoil bat, baina pentsatzeko dohatua). Orixe ere, “Berraondoko Meza”n, “eginak oro” kontenplatu, haundiagotuta sentitzen da, unibertsoaren erpin eta jomuga: “ez naute zenbait bezala /lotsaz berdutzen, /andiago dut ahala”. Gaiaren ikerketan ahal litzateke jarraitu autore gehiagotan.

Aitzitik, “indutarrak gu baiño apalago dira”, murmurikatuko luke Txillardegik ahapetik.

Txillardegi-rogen tradizio mendebaldarraren haria etenda aurkitzen da. Baikortasuna ukatuta ez dago zuzenki (Schopenhauer edo Mirande-rogen dagoen moduan), baina ez du jarraipenik ere aurkitzen aurrera. Lausotu egin da, galdu, posibilitate bihurtu, ezin da positiboki aitortu. Hori da kontua hain zuzen: fedea, aitortzatik, hipotesitara dago etorrita, posibilitatetara. Fedea, fedea ez bestek berma lezake gaurko kulturean, “arrokeriak ez bestek ezin arto gaitzakeen” eran, zeru izarraren ikuskaria baitan.

Prozesuko bi momentuak polita da ohartzea. 1958: zeruaren mirabiliak nire katramila eta kezka oro itzaltzen du, “ezpaitago zerua bezelakorik gizonaren arima lasaitzeko”. Baina nola itzali kezka, nola sosegutu? Barregarria dela erakutsiz gizontxo, bere ahalegintxo eta amorrutxoekin, bere eskenategitxoan: “Zer ari gera ba emen, gizajook, kako-makoetan? Zer da munduan gure biziera? Zer ajola, irakurle, zu ta ni biok gure Galaxiari? (...). Eta, izan ere, zer da gure Galaxia ori?... Dozenaka daude gurea bezalako galaxiak, millaka obe, multzo ikaragarritan alkaturik; eta galaxia-multzo auetxek ere, berebat, multzoen multzotan”.

Izarigabeko erraldoitasun horrek barnea bakeatzen badigu, bakeatu, Txillardegi-rentzat “etsipenezko pakea da, nunbait, pake etsia, alegia, federik ez duan orrekiko: ain da mundua eskerga, larria, baztergabea eta asma-eziña. Sifistunarekiko, ordea, eusle eta pozgarri”. Sinestunaren jarrera ezagutua dago, hortakoz, posibilitate bezala. Baina “biontzako deuseztatzalle” dela kosmoaren ikuskaria, bait da hurrengo et azkeneko perpausa, fedea posibilitateak (bere euskarri eta

pozgarritasunekin), *kultura honetan*, jadanik leku zinez bizi errealik ez duela, hautematen da. Zerua ikuskaria poz eta kontsolazio edo itxaropen elementurik ez du inon erakutsiko artikulu guztian. Fedeari eusten dion gauza bakarra, mundu honen irrealtasuna eta hutsala izan liteke, izatekotan. (Hots, ez mundu honen bikainak, baizik fiskeria ematen dio bide fedeari: mundua fits eta gu fiskeria, ordea, zerk justifikatu fede horretan espresatzen den itxaropena?). Kristautasuna, kulturako elementu bizia izatek, oroipen historiko beneratu bat bilakatu da, bera onenean ere kezkarria, erantzuna baino inolako kezkena.

“Betikoaz agian” saioaren amai-aldera, “beti ixildu da Jainkoa”, esaten da: eta “beti zerua isilik dago” ulertu behar da. Erantzunik ez dago zeruan, nola bertan aurretik norberak ipini ez duen behintzat. Zerua hustu egin da.

Hurrengo urratsean, *Huntaz eta Hartaz-en*, posibilitate desberdinak analitikoki pisatu eta gero (zientziaren desinteresa, optimismo kristau, etsipen budista), azkenean erantzuna zein izan, arduragabekotsu dirudi. Tonua ere bestelakoa da. Azken heriotzaz meditazioan, zeruan ez da oinarrikoki Jainkoa bilatzen, baina zer den gizona egiaz, lasapenaren kapituluan, kristautasunaren lekuan, budismoak hartzen du interesa. Buda “ezer funtsezkorik ez dagoela jakiteak, pakez betetzen du; ez asalduz, gu bezala”. Kultur-ereduen funts-funtseko arazoa jo dugu: Europa ala Asia? Zein filosofiarekin afrontatu mundua?

Buka dezagun: planteamenduaren maratila erakutsita daude. Txillardegi-ren konklusioa antikantianoa dugu: “Entzun dezagun gau ixillaren ixilla; argi gaitzan Izartegiko illunak (...) Gizadia bakarrik dago, ondar-ale ezdeus bati heriosuhar atxikirik...” Ez goaz inora. Dena isiltasuna da, inguru azkengabea. Dena komedia, gu. Teatro txiki batean, ordu txiki batzuk, harropuztuta: besterik ez gabiltza. Urte batzueko geroago Xabier Lete-ren kanta batean kantatzen zen, Jainkoa bere zeruan isilik omen zegoela.

“Bide berriak”



Mikel Hernandez Abaitua

Mahai inguruari ekiteko gogora dezagun Bide Berriak dugula gai.

Aurelia Arkotxa

Beno, ez dakit erreusituko dudan nere ideak atxemateaz, nik egin dut “Maldan Behera”ren irakurketa bat eta hori bereziki azpimarratu dut, irakurketa bat dela, eta horrek ez dituela debekatzen beste irakurketa batzu, eta nere irakurketa horrek beste ikerketa modu batzu ere hartzen ahal dituela. Beraz, hastapenean nik nere ikuspegian neukan, obra poetiko osoa aztertzen, ez dakit, hain da obra aberatsa, non eta ez nintzen gehiago handik atera, baina orduan problema bat gertatu zait eta izan da ikuspegiaren problema. Nik egin dut bereziki irudimenaren bitartez, obra poetiko horren ikerketa.



Elixabete Perez Gaztelu

Ni saiatu naiz Mitxelenaren euskal lanak Lizardiren bertso famatuan, “bañia nik izkuntza larrekoa, nai aunat ere naranaikoa” oinarritzen. Horien ondoan Mitxelenak aipatzen dituen hiru egile asmokide bihurtuta edo, agertzen zaizkigunak. Hiru egile horiek aipatzea gainera ez da kasualitate, Mitxelenak behin eta berritan esaten duen atzokoa ez da kasualitate, Mitxelenak behin eta berritan esaten duen atzokoa begiratu beharra dagoela, atzokoa ezagutu beharra dagoela, gaurkoa eta gerokoa mamitzeko eta osatzeko. Orduan, euskara noranahiko bilakatu nahi izatea, atzokoari begiratu nahi izatea, arrazoi hauek direla medio, Larramendi, Orixe eta Lizardi aipatu behar dira. Eta Mitxelenak darabilen hiztegian nolabaiteko koherentzia dagoela esango nuke, hain zuzen ere bere joera nabarienteko bat hitz zaharrak berreskuratzea izan delako, eta era honetan, eta hitzaren esanahi arruntari beste esanahi zehatzago edo espezifikago bat erantsiz, piskanaka terminologia bat sortu duelako, batez ere hizkuntzalaritzari dagokionean. Honezaz gain, hiztegiak bakarrik ez baititu argi uzten Mitxelenaren prosaren nondik norakoak, zenbait baliapide ere aipatu ditut eta horietan agian nabarietak izango lirateke zeharkako aipamenak. Orduan, era honetan Mitxelenak irakurlea behartu egiten du esaten duena, adierazi nahi duen mezua, bere osotasunean, ulertu nahi izanez gero, irakurketa bilaketa bilakatzea. Eta horrela nolabaiteko triangelu bat edo osatua izango genuke: irakurlea, Mitxelena eta X izkutu hori. Askotan harako hark, beste hark eta halako esapideen atzean edo izkutatzen dena. Irakurlea aipatu dut eta azpimarratu dut Mitxelenak eskatzen duen irakurlea ez dela nolanaikoa, irakurle heldua dela, modernoa, nolabait esan, irakurle jantzia.

Joxe Azurmendi

Esan dudana gutxi gora behera hau izan zitekeen. Euskarazko saioaren historia da XX. mendean euskal pentsamenduren historia. Egin liteke saioaren historia pentsamenduaren historia bat bezala, hiru aro edo hiru momentu bereziz. Esate baterako, gerra aurreko bi autore hartu: Etxepare, bere saioan eskola laikoaren borroka isladatzen da. Iktuzen du etika tradizionalaren arazoa, maitasun familiarra eta hori, “Amodioa” saio famatu horretan. Eta bigarren autorea Eguskitza hartu liteke, bizkaitarra, “Gizarte Guztia” idatzi zuen, ia inork ez du ezagutzen baina gauza polit bat da. Baina euskaraz nola idatzi zuen, euskal saiogileei tokatzen zaien patua tokatu zaio, eta adibidez Antonio Elorzak, “Ideologías del Nacionalismo Vasco”, kapitulu bat dauka, “Propagandistas” izenekoa. Nik dakidala, gerra aurreko mugimendu guzti horretan idatzi zen liburu bakarra Eguskitzarena da, euskaraz da. Hain zuzen, sindikalismoaren borroka guztia Bizkaian ematen dena, eta UGTren kontra eta ELAren sorrerako borroka guzti hori kontatuz liburu oso bat dago idatzita. (...)



Gure pentsamendu tradizional liberal, ze hemengo tradizioa liberala da, baina batez ere liberal kontserbakoia, ez liberal iraultzailea. Beraz, tradizio kontserbakoi, liberal eta “bienpensante” hori gehi kristautasunari, alternatiba bat bilatzen saiatu ziren batzu.

Patri Urkizu

50. inguruan Mirandek *Euzko Gogoan* eta beste zenbait aldizkaritan idazten ditu zenbait saio. Konparatuz gero orduko saio haiek paganismoaz eta kristautasunaren kritikaz etab., eta orain zenbait saiolarik egiten duten interpretazioarekin, esate baterako Gil Berak, zer ezberdintasun ikusten dituzu?

Joxe Azurmendi

Begira, sekula ez nuen pentsatu, orduan ez dakit zer ikusten dudan ere. Orain arte behintzat gehiago eduki dut joera pentsatzekoa diferentziarik ez dagoela, alegia, modu honetara esango nuke: Mirande izan da euskal gizartearentzat,... eta beraz orain, Heidegger-en errekerktsoa erabiliz, dogmatizatu egingo dut. Zeren nik orain hemen afirmatuko dudan guztia galdera bat da, beraz orain hasiko naiz. Nik uste dut hau gertatu zela: Europa guztian... beno, urrutiagotik hasiko naiz. Egun batean nengoen libreria batean Parisen eta erosi nuen baita ere Nietzsche, eta orduan nik galdetu nion, Nietzsche asko saltzen al da? Eta, bai, bai, zortzi edo hamar urtero modan jartzen da, esan zidan. Nonbait modan jartzen da eta hori librerioek badakite. Bada, hori Parisen, Euskal Herrian ez. Eta Euskal Herrian zer gertatu zen? Mirandek eta Etxeparek, lehenengo sartu duten momentuan egon dela erreakzio bat hemen egoten dakien modukoa, eta garbitu zuten eta plantxatu zuten eta sartu zuten artxibora. Eta hori da hemen autore batzuk daukaten trajedietako bat eta Mirandek orain arte eduki duena.

Entzule batek

Galdera bat sortu baino lehen. Nietzscheren presentziak badaude beste autore batzuengan ere, esate baterako, Etxepare hainbeste aipatu dugunez, Etxepareengan agertzen da, beno berak konstruitu dituen tipo arraroen artean, badago tipo bat esaten duena... Berak zakar eta zikin hitzegin nahi du, sexoari buruz, eta tipo batek aldamenetik esaten dio: “euskaldunak ez du horrela lotsagabeki hitzegiten”. Eta erantzuten dio besteak: apaizek ematu eta gero ez, baina lehen euskalduna jatorra zenean...”. Orduan, badago, hortxe bertan dago, zita baten modura jarrita dago Nietzscheren pasarte bat. Jakina, Etxepare oso kontuz ibili da eta ez du sekula Nietzscheren izenik aipatu, bistan da, zeren Lafittek hori aipatzen duenean ere, ez dakit nola esaten duen, “irakurria zen Alemaniako filosofo kirats batzu...”.



Joxe Azurmendi

Bitartean, nik galdera bat egingo diot Aureliari. Orain dela hamaika urte agertu zen Xabier Atienza delako baten Arestiren argitalpen bat, “*Maldan Behera*” eta “*Harri eta Herri*” poema liburuena, hain zuzen ere, eta hitzaurre luze batekin. Atienzak ideia eta argudio asko botatzen ditu, eta horien artean bat zera da: (...) hizkuntza horrek traditu egin zuela Aresti eta horregatik Arestiren mezua atzerakoia gertatzen dela. Zuk zer iritzi daukazu guzti horretaz?

Aurelia Arkotxa

Beno, nik ez dakit zer erantzun horrelako ikuspegi bati eta iruditzen zait filosofo batek ere erantzun lezakeela. Nere iritziz bada nonbait ezeztatze baten borondatea Atienzaren partez, eta hitz batekin aise dela ezeztatzea idazle edo kultura bat. Niri hasteko, hain absurdoa iruditzen zait. Alde batetik konturatu naiz zer ikerketa modu egin zuen, eta ez du ikerketa izenik ere merezi. (...) Iruditzen zait, frantsesez esaten da “*la mauvaise foi*”, beraz, hor bada halako fede txar bat. Ez dakit nola erantzun nik horrelako gauzei.

Mikel Hernandez Abaitua

Gaur goizean Mitxelenaren eragina aipatu da. Izan dudana inpresioa izan da ordurarte idazten zen prosarekin eten zuela berak. Esan nahi dut, Mitxelenak bere garaian idazten zuena beste batzuek ere egiten zutela, eta antzeko eratan. Eta batueraz hitz egiterakoan Mitxelenak behin eta berriro errepikatzen du: idazleek egingo dute. Ez dakit, Aresti ere agertu da, “*Batasunaren Kutxa*” eta guzti hori...

Elixabete Perez Gaztelu

Beno, hori entenditu baduzu, beharbada oker mintzatu naizelako izan da. Ez zen nere asmoa inondik inora Mitxelena bapatean txanpinoiak bezala aterea eta bera orijinala zela esatea. Hain zuzen ere, uste dut mintzaldiaren bukaera aldean, zer edo zer lerro artean esan dudala, Lizardiren prosarekin ere zerikusia izan dezakeela, ez? Trinkotasunean eta zenbait gauzetan. Esan nahi dut ez zaidala iruditzen bapatean sortzen denik eta bera bakarra denik, ezta gutxiagorik ere. Jarraiera edo, aldamenean, beste batzuk ere daude. Lizardiren *Hitz Lauz* edo, oker ez banago, ez dut sakonki aztertu baina nere ustez Lizardiren zenbait pasarte edo zenbait joskera ia ia aurki daitezke Mitxelenaren zenbait lanetan.

GAURKO LITERATURA

4

HITZALDI
ETA MAHAI INGURUA



BITORIANO
GANDIAGA

Nere obraz

BERNARDO
ATXAGA


*Gogoetak Euskal
Literaturaz*

ITXARO
BORDA

*Autojustifikazio
erreza*

JOAN MARI
IRIGOIEN

*Nire idatz-
esperientziatik*



BITORIANO GANDIAGA
(Meata, 1928)

Leikaidea Arantzatzun.

Idatzi dituen lan
nagusietako batzuek dira:
Elorri (1962) eta
Hiru gizon bakarka
(1974)

...

BERNARDO ATXAGA
(Asteasu, 1951)

Idazlea.

Idatzi dituen lan
nagusietako batzuek dira:
Etiopia (1984) eta
Obabakoak (1988)

...

ITXARO BORDA
(Baiona, 1959)

Idazlea.

Idatzi dituen lan
nagusietako batzuek dira:
Kokodril bat daukat
bihotzaren orde (1985)
eta
Just love (1988)

...

JOAN MARI IRIGOIEN
(Altza, 1948)

Itzultzaile-egokitzaile.

Idatzi dituen lan
nagusietako batzuek dira:
Udazkenaren balkoitik
(1987) eta
Babilonia (1989)

...

BITORIANO GANDIAGA



Nere obraz

Izendatu didazuen gaia *nere obraz* mintza nakizuela da. Markatu didazuen epea, 1977-1990a artekoa. Epe horretan, *Uda batez Madrilen, Denbora galdu alde eta Gabon dut anuntzio* argitara izan ditut. Horietaz bakarrik ihardutera mugatuko banintz, niretzako oso funtsezkoa den *Elorri* eta inportantea den *Hiru gizon bakarka* beharko nituzke utzi, nere obra ez balira bezala. Nere obra espresioak zerbait handia sujeri dezake, baina hemen nere obratxoa esan nahi du, murrizta bait da gaixoa. Nerea da, ordea, eta oso urruti eta oso ezkutuan dituen sustraiak ditu.

Han, Bizkaiko Mendatan, idazten ez zekien gure ama Anastasiak berebiziko inportantzia ematen zion hizkuntzari. Pertsonak berbaldun eder eta ez-ederretan bereizten zituen, hain zen inportantea harentzat pertsonen berba egiteko modua! Eta beste bereizkuntza gutxi egiten zuen pertsonen artean. Pertsonen berba egiteko era zen harentzat aintzakotzat hartzekoena. Berbaldun ederra zen harentzat: Don Anjel, Arratzuko parrokoa, eta Forutik, Larreatik, Eubatik-eta erortzen zen fraide bat edo beste. Iluntzarbe-ko Ploontinori, Akertxu

Arrolakoari, Tomasa Iberrekoari eta ere entzutea gustatzen zitzaion. Harengandik, Seminarioan — 1940-45a bitartean—erabat baldartu genuen euskara berregokitzeko hartu nuen aholku erabakiorra.

Seminarioan nekez oharu nintzen ulertzen ez nuen hizkuntza eta hitzaren ederraz. Humanidades-etako hirugarren kurtsoan sortu zitzaidan arginabarra. Gaztelerako literatura irakasten zigun Aita Elcid maisu fraideari zor diot hizkuntza arrotzaren edertasunarentzat begiak zabaldu izana. Hark ikus erazi zidan, testuko irakurgaiak eztertu ahala, hizkuntzaren osagaien konbinaketak zuen graziaz jabetzen eta baliatzen.

Gaztelera lantzen aritu ginen gero, harik eta — filosofia ikastera joan eta— Oliten aurkitu genuen euskal girotxo erne berriaz topo egin genuen arte. Han hasi ginen euskarazko geure asteroko idazlantxoak ontzen geure kasa eta irakasleen laguntza eta onespen handirik gabe. 48-51 bitarteko urteak dira. Han ezagutu genuen Lizardiren *Bihotz-begietan*, beti ere latin eta grekozko autoreak baino ulerterrazagoa *Arratsberan*, han Orixeren *Barnemuinetan*, han Jauregiren *Biozkadak*, han Arrese-Beitiaren *Amaeuskeriaren Liburu Kantaria*, han Baserriren *Bertso Sorta* ederra, han Aita Salvatore Mitxelenaren *Arantzazu-Euskal Poema*. Ez zen gutxi. Han tartekatzen genituen oraindik gaur bertan irakurtzen ditugun zenbait erdal idazleren eta euskaldunen obrak. Baina euskarazko despentsa urria zen. Denboraldi motxean ikusi behar izan genituen goian aipatu liburuak. Ale bakarrak ziren, asko ginen irakurri nahi genituenak eta ezin gozatu izan genituen komeni eta nahi bestean.

Erdarazko liburu eder asko genuen. Gaztelerako eskolaldietan Santa Teresa Avilakoaren *Las Moradas* aztertzen genuen eta gazteleraz hamabostean behin idazlan serio bana aurkeztu behar izaten genion irakasleari. Eta urtean zehar *akademia* deitzen genion lan luze eta sakonago bat.

Arantzazura aldatu ginenean, aukera gehiago genuen euskara lantzeko. Inoiz ere ez askorik. Eta batera edo bestera, Teologiako ikasketek, “círculo de misiones”, “círculo de franciscanismo” eta bestek

irensten ziguten denborarik gehiena eta.

Lizardik, Orixek eta Lauaxetak biziki inpresionatu ninduten. Latinez eta gazteleraz irakurtzen genituen autoreen parekotsu aurkitu nituen gaiaren eta esaera ederraren erabilpenean eta, beti ere, haien dotoretasuna nuen begi-bistatik galdu behar ez nuena.

Teologia ikasten aritu ginen denboran, eta geroago ere, banituen literatura gustatzen zitzaion lagunak. Denen artean Jose Antonio Astigarraga dut aipatu beharrenekoa. Erdaraz idazten zen poesia asko inguratzen zuen, ez dakit nola eta nondik. Trapero samarra ere bazen hura. Garai hartako *Blanco y Negro* errebistak orrialde-pare bat behinzat eskaintzen zion poesiari. Bazen *Acanto* deitu poesiari osoki dedikatutako aldizkari bat ere. Carlos Bousoño-k hau zioela, Entrambasaguas-ek ez dakit zer. 27. belaunaldiko denak ezagutzen zituen gainera, eta hauen artean nire gustokoena Juan Ramon bazen ere, Antonio Machado hobesten irakatsi zidan.

Euskaraz idazten zen poesia ere inguratzen genuen nolabait: *Euzko Gogo* zela, *Euskaldunak*, *Egan*, *Milla Euskal olerki eder...*, baina erdaraz idatzitako poesia gehiago erabili genuen. Idatzi, aukeran euskaraz idazten genuen. Hark nik baino askoz hobeto idazten zuen eta maisu zorrotz izan nuen.

Garai hau 1952-57 bitartekoa edo da. Ordukoak ditut gero *Elorri*-n agertu ziren poematxo asko. Gerora ere Jose Antonioirengana jotzen nuen, nere lantxoan orrazketa egiteko. Nire lantxoan xedea, esankizunak argi eta garbi adieratzea zen. Martxa honetan idatzi nituen gaur *Elorri*-n ageri diren poematxoak eta agertu ez zirenak.

1958-1960a urteak dira, eta hemen, beste izen bat aipatu behar dut, Joxe Azurmendirena. Honen eskuetan utzi nituen *Elorri* izenpean idatzirik nituenak, eta honek bakandu, sailkatu eta sortatu zizkidan *Elorri*-n ageri diren eran. *Elorri*, bukatu zen baino urte-pare bat beranduago agertu zen. Bilboko *Gráficas Bilbao* inprentan aurkitzen zen 61ean. Han harrapatu zuen poliziak liburu gaitzoren batekin

nonbait, eta Arantzazura bueltatu zidaten, gazteleraz jar nezan aholkatuz eta hala itzuli zen. Nik ohinezko lerrotan jarri nuen eta A. Pedro Anasagastik hegazkoetan. Elorri apaiz-karrerako azken urteetan eta apaizgoko lehenetan idatzia dut. Hasiera beretik da sinbolista. Elorria da gure giza biziera batean zarpil, bestean ederraren sinbolo, bere betiko arantza eta udaberrietako loratze dena betekoan. Kantatzen duen errealtatea fedearen argiak edo ilunak matizatu dago, baina ez da erlijioaren apologia, hizkera ederraren mamitze-saio bat baino. Bakoitzean aukeratzen dudak gaitxoahalik eta hitz zehatz eta juxtunez, inongo erretorika eta erretorika gabe adierazten ahalegindu naiz beti. Hitza errealtateari egokitze-lana izan dut eginkizunik eta behinena. Plastizitatea izan dut helburu. Egia da, inoiz edo behin, beste zenbait idazleren oparotasuna imitatzeari amore eman diodana hizkuntzako ariketa bezala, baina ni hitz gutxiren eta nahitaez beharrezko diren haien zale naiz izatez.

Gure formazio-garaia —1940-55— eta ondorengo urteak ere euskaraz idazteari eta literatura eder bat sortzeari ekiteko ez ziren bat ere lagungarri. Idatzi gutxi egiten bazen, irakurri ere ez zen asko egiten, eta euskararenak egina zuelakoan geunden. Honek beronek moteltzen eta adoregabetzen ditu literaturgintzan iharduteko gogo eta erabaki guztiak. Honek ez luke gerrak eta gerra ondoak inarrosi gintuenon aldeko aitzakia bat izan nahi. Giro txar hura gainditzeko ez ginela gauza izan adierazi nahi du bakarrik. Artean ere, bada kinka hartan biziki miresten dudarik. Lehenik gerrak erbestera zituenak: Orixe, Zaitegi, Montzon; gero, berton mazpildurik utzi zituenak: Manuel Lekuona, Xanti Onaindia, Luis Jauregi; eta azkenik Mitxelena, Yon Etxaide, eta mugaz handiko Iratzeder. Gure literatura eta bereziki gure poesia eraso txar guztien kontrako bizinahiaren ageri zigortua da. Harritza jaso duen lurraldeko landare murriztuen irribarrea.

Sinbolista izatez gainera, intimista naiz nerez; badirudi ni, neure garaiko arazo politiko eta sozialei aurpeirik eman gabe aritu nintzela lahar artean

sasitxori, gizarteak orokorki eta euskal gizarteak bereziki bizi zituen estualdiz eta lorrez arduratu gabe. Badirudi, baina hori ez da horrela: politikarena gai ukiezina eta debekatua zen gure artean eta giza eskubideez aritzea politika egitea zen eta erosta jotzea politika zen eta horrela, eta orduko gauzak, orduko jokaerak, orduko giroan kokaturik ikusi eta aztertu behar dira. Gainera *Elorri-ko ni-a*, ni-neua baino zabalagoa da: gizateria izaterainokoa, baina ez abstraktuki hartua, neugan errotua eta pertsonatua baino. Eta, beraz, denbora guzti haren *ni-a*.

Hala ere, sobera bistan dago sasoi hartako eta ez hartako gizonaren pairamen-nekaldi zehatzik ez dela *Elorri-n* ageri. *Elorri-n* ez da ezbeharrak, delakoa dela eta datorren lekutik datorrela, ez dela diot, kexatzeko arrazoi, kristau eramanpen eta isiltasunez, Jainkoarren eta bakearren jasan eta garraiatu beharreko gurutzeta baino.

Baina guztiok ez genuen portaera eta hizkera-modu berez jokatu. Orduan ere baziren batzu-batzu gauzei bere izenez deitzen zietenak, bereziki kultura urbanoan jaio, formatu eta zailduak, baina gu euskaldun erruralen haurrok konformidadean eta halabeharrean bizitzen irakatsiak ginen Jaungokotik juanetara eta jaunetatik jauntxoetara eta isilean eta apaltasunez behar genuen eraman mundu triste eta erbeste honetako neke, kalamidade, lotsari eta zapalkuntza oro.

Euskara bera salbatzearen ere idazten genuen guk, euskara salbatuz, euskara baino zerbait gehiago ere salbatuko genuelako ustetan. Euskara setiatua, eraso, beldurtua eta lotsagarri jarria genuen geure begien aurrean. Gainera, guztian mendean harturik ginduzkaten, kateetan eta zigorpean, ezertariko ez ezertarako askatasunik gabe. Baina ez gintuzten zeharo arnas-hustu eta guk ahal genuen neurrian amasari eutsi nahi izan genion, gutxi eta eskasik bazen ere, euskaldungoaren birika izateari ekinez.

Bestalde, gai politiko eta sozial horiek poesian baino prosan tratatzekoagoak zirudidaten, eta, poesian izatekotan, poema epikoetan. Ez nintzen berehalakoan konturatu gai horiek lirismo handiz erabiliak zeudela, ondo aspaldian gainera,

Testamentu Zaharreko profetetan bereziki. Amos bat basoetatik lau egia aldarrikatzera jaitsi izan balitzaigu guri ere! Baina era bateko edo besteko poesia, gai horietaz bortizki jabetuz orduantxe zihloan Gabriel Celaya, Otero, Otsalar, Joxe Azurmendi, Gabriel Aresti eta besteren bidez.

Elorri 60a aurrekoa dela esan dut eta urte horretararte poesia sozial gutxi agertu zela, isilpeko paperen baten edo bestetan izan ezik. 60tik 70era kanporatu zen indarrez poesia sozial hori; baina nik ondo datik, 68-69a zen, eta erbestean, Alemanian bizi zen Joxe Azurmendiren *Hitz Berdeak* antologia ondu eta gero argitaratzeko baimen eske hasi nintzenez, zenbat poema eder kendu arazi zizkidan *Consulta Previa*-k, “que ésa es otra”, esan ohi denez. Nik *censura* hitza aipatu nuen Gobernu Zibilean eta Espainian ez zela *censura*-tik erantzun zidaten. Orduan, egiten eta galerazten zidaten guzti hari nola zeritzon galdetu nienean, hura *consulta previa* zela erantzun zidaten, eta beste. Egia esan, gurean, poesia soziala baino debekatuagoa zen beldurra galtzen edo balentria irabazten zetorrela jendea fronte askotan: politikan, arazo sozialean, poesian.

Adierazten saiatu naizen giro horretan, izurrite horretan, gerra zibilaren takarreko izugarri haren ondoren, lehen hamar uteetako kordegabeziatik irteten oraindik hasi berri samarrak ginen hartan sortzen hasiak dira *Elorri*-ko poematxoak, ez noski gero osatuko zuten libururako pentsatuak, baina bai *Elorri* izenburupean. Zer nahi duzue? Ez dut ukatzen noizbait libururen bat osatzeko nolabaiteko gogorik ez nuenik, baina lekutan nengoen. Euskara eta idazten ikasteko besterik gabe eginak dira batzuk, estiloa lantzeko, eta abar. Autore famatu batzuen imitazio obligatu bezala eginak dira beste batzuk; izan ere, garai hartan hori guztiori egin beharrekoa zen norberaren prestijiorako. “Gauza ederrok baiño” 104. orrikoa, Lauaxetaren *Bide Barrijak* liburuko “Maitale kutuna”ren imitapena da, eta 109. orriko “Jaungoiko billa nabillalako” ez dakit norena. Eguneko meditazio aurreko irakurraldietan ematen zizkiguten pentsagaiei forma ematea ere bazen “Guzurra eta engañua” 98. orrialdekoa; eta “Zure

barririk ez neukanean”, 98. orrialdekoa (beti 2. argitalpenaren arabera), hemen ideia San Agustinen da, forma nerea.

Batzuk gorapen handiak egin zizkioten poematxo honi, San Agustinen ateraldien neurrikoa zela ta, esanez. Nik esperientzia hau ez dut neurea. Nik zer ihes egin behar nion Jainkoari, gizajo honek, itxurazko bekatu bat ere egiteko gauza izan ez naizen honek! Garai hartako munduari buruzko ikuspegiei forma emate lana ere badago. Errealitatearen eta errealitatekoen esperientzia tinkik gabe, liburuek edo fraideek hala ziotena gaitzat harturik osatutakoak ere bai. Batzuk badaude etxegiroaz ari direnak, 173. orriko “Zoriontsu nazan” eta beste; eta fraide-bizitzaz beti nola modu melenge batez hitz egiten zuten erara gauzak egitea eta ni ere horretan saiatu egin nintzen. Baina inori jarraitu gabeko neurezko poemak ez ditut gutxi, ez eskasena. Orduan Amabirjina trapu artean jantzita zegoen, burua bakarrik agerian eta koroetzar zilarrezko batekin hura ere. Asko goستن zen argi eta zilar artean eta mantu handi eta perlaz jantzitako barruan ikusten genuen Arantzazuko Andre Mariaren irudia. Batzuk zerbait bizia edo zeruzkoa edo ikusi bide zuten, beren hitzen bidez adierazten zuten. Nik ostegunetan —bazterren garbiketa egin behar genuen egunetan— Amabirjinaren kamarinera osteratxoa egiten nuen, ahalik eta gertuenetik ikusteko. Hainbeste zapi artean ageri zen apurra, amaren eta semearen musu eta eskutxoak ziren, eta politikak ziren arren, nik harrizko ikusten nituen eta hala kantatu, norbaitzuen aprobazio handiagorik gabe, jakina, Andre Mari hura harrizko zela behin eta berriz errepikatuz: “Emen..., Ama Birjinaren oin arrizkoetan” (137. orrialdean); “Arriz egindako Andra Mari zaarra” (138. or.); “... Zure arri landu lakarrari” (143. or.); “Arrizkoa zara, irribarrezko arri triste eta otzezkoa” (162. or.); “... farre dagizun arri otzezko tristur” (162. or.). Gaur gezurra badirudi ere, batzuentzat eskandalosoa zen hori orduan. Nolahi ere, nahikoa berria.

Nik ez diot, hainbeste irakurri eta hainbeste

imitatu ondoren, inoren eraginik gabeko poemen egile naizenik, baina mordo bat badut neure barruaren eta gustuaren ariora egina. Uste dut, halakoxe bat, irakurtzera noakizuen “T’euria” hau izan litekeela:

...T’EURIA

T’ozkirri ta argia
itogin-zarata
saltari ta alaia,
klastroko patio
barru ta gordean,
arra t’erdi luze
edo krabeliña
zuri bat jagia.
... T’euria.

Argi ta saltari
zarata beti lez,
betiko beti lez,
ta, alaia,
kanpoan baiño be
ariman ba-litza,
arra t’erdi luze
edo krabeliña
zuri bat jagia.
... T’euria.

Kanpoan baiño be
ariman ba-litza
euria, beti lez;
ta itogin-zarata,
beti lez, alaia,
beti lez, barruan,
arra t’erdi luze
edo krabeliña
zuri bat jagia.
... T’euria
(*Elorri, 79. or.*)

Badira gehiago ere neure erara eginak, adibidez: “Ementxe dago arkaitza” (27. orrialdekoa); “Berkak begipuntetan” (33. or.); “Usain erle” (37. or.); “Bazoaz eta bazatoz” (40. or.); “Neguan besarkatu” (41. or.); “Zarpil” (47. or.); “Xirimiri txanka meia”

(69. or.); “Kantuak airean” (94. or.); “Poematxuok ba-doaz” (95. or.); “Urrundik naiatortsu” (120. or.); “Egon. Geldi t’edegi egon” (169. or.); “Lur busti au pozik” (179. or.); “Banitzan elorri” (184. or.); “Lurrezkoak gara” (185. or.); “Ardien ule-malutak” (188. or.); “Koruko gerizpe” (206. or.); “Eguter, keiari” (220. or.); “Landa orlegian” (236. or.); “Gurari itxasoko” (260. or.); “Begian jaio zan” (263. or.); eta beste asko.

Herri-kantuen estiloari jarraituz eginak ere baditut: “Egun-sentiak ekarri nindun”, 195 orrialdekoa, esate baterako. Nik ez dut uste korrientea denik, ez orduan ez orain, honelako testu bat: “Otzez minduko ditu laiñoak”, 196 orrialdekoa, esaterako.

Otzez minduko ditu laiñoak
orri ta bedar maiteak.
Etorriko da, zezen zakarren
lepo ta putzez, iparrik.
Ardiak arkaitz-zulora, musin,
aldeko dabe larretik.

Egun illunak izango dira,
busti ta tristez, luzeak.
Josiko jakez dabillanaren
oiñeri lokatz zatiak.
Sartuko dira, nire gorpua
datzan obian, ur loiak.

Ekaitzat gogor artuko ditu
zugaitzak eta leioak.
Ainbeste frutu jausiko dira,
gorrinduko da baratza
ta indiabak lez ustelduko da,
basatan, nire biotza.

Egon ta iraunez, beera bearrak,
bultza betiko aidurrez,
zapalduko deust, nik ezin ala
eutsi, aldamen astuna.
Azurrak, banan, etsiko dabe
t’emon erraien utsuna.

Aurrerantzean autsa ta lurra

bat bera biziko gara.
 Ez nauke ezagun sustraiak ta aren
 janaldi-ondar naiteke...,
 nigaz, belu ta noizbait, oroitu
 daiten artean Berpizte.
 (Elorri, 196-197. or.)

hau biziki esperimentatutako nekazal figuraz
 egina da dena.

Bada umetan sartu-sartu egin zitzaizkidan
 oroitzapenen eraginez ondutakorik ere: "Olak, ol
 barriak", 202. orrialdekoa, bat aipatzekotan. Bada
 haurtzaroko bizikizun materialik, hitzen transposizio
 hutsez arimako egoerak aiderazteko erabilirik.
 Irakurriko dudan poematxoan arima neu naiz,
 bakarrik eta ilusentiko sukalde itzaltsuan. Pentsa
 dezakezuenez, Mendatako gure Orbelaun-en argi-
 indarrak ez zegoen. Ama etxeratzen zenean, amak
 pizten zuen karburua. Umeok erdi-ilunpetan egoten
 ginen hura etorri arte:

Arima,
 bakarrik,
 soññaren barnean.

Illunabarra da.

Ta ez dago argirik
 nire biotzean.
 (Elorri, 191. or.)

Honenbestez, badela aski deritzot, *Elorri*-ri
 buruzkorik. Hurrengoetan, baina, ez dut hainbeste
 xehetuko poesi modu konkretuei buruz.

Hiru gizon bakarka

Elorri, eutsi ezinezko idatz-gura baten, idazten
 ikasigura baten, bizikizunei, oroitzapenei,
 nahikariei, irudipenei, liluramenei eta ezinari berari
 hitzezko adierazpen egoki eta eder bat emateko
 eragin etengabe eta sendo eta ia nahitaezkoen
 ondorio bada, sekula gehiago ez idazteko erabaki,

Oteitzak hautsi baten emaitza dut *Hiru gizon
 bakarka*. *Elorri* zehar jaio zela aditzera eman zidanik
 bada. Bestalde, ikusten ari nintzen poesia berriak ez
 zuela nahi nolabaiteko goxapenean amaitzen edo
 burutzen zen *hitz-joko* eta *hitz-jolas* polit gehiago
 gabekorik. Guri eredutzat eman zizkigute modelu
 haiek, guk ederresten ikasi genuen hura, guk poesia
 bezala generabilen hura, denbor galtzeko ez ezik,
 jostailu kaltegarria eta ebasio-bide hutsa zela
 botatzen hasi zitzaizkigun gizateriaren egoera
 injustiziazkoaz, sufrimenduzkoaz eta esperantza
 gabekoaz konturatu eta kanturatu ziren kontzientzia
 berriko poetek: Gabriel Celayak, Bladi Oterok,
 Otsalar-ek, Joxe Azurmendik eta Gabriel Arestik.

Nik publikorako gehiago ezer ez idaztea erabaki
 nuen, gizateriaren egoera zenbateraino
 injustiziazkoa zen ere ez nuen garbi ikusten eta
 neure begiekin. Guri geuk nozitzen genuena bera,
 geure itsutasunaren, sentikortasunaren eta
 errebeldiaren kastigu justu zela irakatsi eta irents
 erazi ziguten aginte zibilak eta aginte eklesialak, eta
 obeditzen ikasi genuen, sikan bertuteren baten
 jabe izan gintezen. Bitartean, izarrei egiten nien
 idazten nuenaren erre-oparia edo zakarrontziari
 egiten nion neure poematxoaren eskaintza. Denbora
 igaro ahala ikusten hasia nengoen, kontzientzia
 berriko poetok aldarrikatzen zutena lehendik ere
 aldarrikaturik zegoela, non eta egunero eskuartean
 nerabilen Biblian. Zer kostatzen zaigun batzuetan
 begi-bistan daukaguna ikustea! Jende arruntarekin
 harremanetan jartzeak ere mesede handia egin zidan:
 nekazariari entzuten nion, ofizinizari, obreruari,
 irakaskuntzan ari ziren maisu-maistra lan-kontratu
 ziurrago gabekoei, auzoetako apaizei, arrantzaleei,
 hango eta besteko gazte kezkatuei, H.O.A.C., J.O.C.
 eta besteri; eta jendea eta biok joan ginen gizarteari
 ukatzen zitzaizkion eskubide batzuez jabetzen:
 gizarteak pairatzen zuen egoera hartan zer sufritzen
 zuen lanetik eta menpetasun hartan bizi behar
 zuenak, eta egoera hura luze zihoala eta ez zitzaioala
 azken-modurik ikusten eta esperantzaren itogarri
 zela. Eta Biblia egunean baino egunean argiago
 ikusten nuen. San Lukasek Nazaretako Mariaren



ahoa jartzen duen *Magnificat* hura bera ez da poesia sozial makala!

Hontan, Oteitza agertu zitzaigun Arantzazu profeta aztertzaile aspergarri, Teologiako irakasleei euskaldunen eta Jainkoaren arteko erlazioaz galdezka, Moraleko irakasleei euskaldunen giza jokabideei buruzko balorapenez galdezka, musikariei euskaldunen musikarekiko berezitasunaz galdezka, eta hola, sekula inork planteatu ez zituen euskaldun jendeari buruzko beste xeblekeria asko galdetuz. Entzulegoak ez zion luzaro iraun. Han alde zion batak bestearen ondoren, halako errebeskerien ihesi. Orduan aurkitu nuen nik, bakarrik eta haserre. Ordurako elkar ezagutzen

genuen Arantzazun egin zuen lehenengo egonaldi hartatik, eta idazten jarraitzen el nuen galdetu zidan. Ezetz. Beste eginkizun batzuk nituela, eguneko eskola-ordu asko, larunbat eta igande apaiz-eginkizunetan ematen nituela, eta hola; eta ezetz, idatzi ez nuela idazten, inoiz edo behin paper-saskirako ez bazen. Hark ez zidan ez arrazoirik ez aitzakiarik entzun nahi: idatzi egin behar nuela! Nik ez nion konprenitzen zergatik eta zertarako idatzi behar nuen. Gainera, ni idazteari planto eginda nengoen, eta nik ezetz. Egunetakoa izan genuen tirabira. Gizona itzelean erakargarri zitzaidan, bestalde. Hura ez zen zoro hutsa eta astiunetan itzuli egiten nintzaion, ez nuen galdu nahi harekiko

harremana, distira-iturri bat zen; ikuspegi liluragarriak zituen, hura bazen zerbait berria eta biziki interesgarria zekarkigun eskaioz mantxaturiko profeta bat ere.

Eta noizbait, amore eman nion: Baietz, idatziko nuela. Eta han hasi nintzaion paperak eramaten euskaraz eta gazteleraz. Agintzen zidanean, irakurri egiten nion, erdaraz behin, euskaraz sarritan, hala nahi zuelako. Oharrak entzun eta jaso egiten nizekion eta paperak han utzi, haren lantegiko bazter baten. Zer idatzia barruan aurkitzen nuen eta kanpoan usmatzen. Sarasketa gartzelaratu zuteneko, Eibarko lehen manifestazioen, Txabi Etxebarrietaren eta garaia zen. Errejimenaren aurkako pitzadura guztiez behar zen baliatu, eta pitzadura haietan ziriak behar ziren sartu, garraiatu ahal zirenak, bertsoak ere bai. Esan gabe doa, nik ez nuela artean liburu berririk idazteko asmorik. Zetorkidana paperean jarri eta Oteitzari. Idazkerak ez zemaian inondiko lanik. Jabetuta nengoen ordurako, garai hartako poemetan esankizuna zela behinago esateko modua baino, eta aurrera, batean bertsolari gisara, bestean Bibliako profeten iharduerari jarraituz, gaiari zegokion jazkera taxutuz bestetan, paper asko pilatu zen Oteitzaren tailerrean.

Gero argitara behar omen zirela hark, eta orduan Zabaleta anaiengana jo nuen laguntza eske. Oteitzak berak adierazi zidan pastoral txikien moduan era nintzakeela zenbait poema, eta antzezpen gisako bi osatu nituen Pello Zabaletaren laguntzaz. Mikel Lasa ere ezagun nuen eta hari utzi nizekion paperak, eta hark bahetu eta zatikatu zizkidan, baita hitzaurre androso batez apaindu ere.

Nik neure moduko poesia soziala egin nuen, neure sustraietara itzuliz, erditu ninduen jende-jenero apal, baztertu eta bere herrian bertan guztiz kikildu, lotsati eta arbuiatua aurkitzen zenaren izenean abotsa jasoz, ezagutu nuen estamentu euskaldun urritik urriagora zihoanaren itolarria aldarrikatuz. Euskal Herri bereko jende askok beste zenbait injustizia ikusten zuen, beste zenbait giza eskubide zapalduri zerion lantua entzuten zuen, baina ez zuen ikusten, baina ez zuen entzuten Euskal

Herri bereko zenbaitek bere hizkuntza beragatik gizarte-zerbitzurako zentru guztietan jasan behar zuen destaina eta desanparo isila, beti isila... Eta hau adibide bat besterik ez da. Beste askotariko pobretasun-modu askoren artean, badu beste pobretasun berezi bat euskaldunak; gutxi eta ahul izatearena, ezen asko eta sendo bagina, beste era bateko begiramenduz tratatuko gintuzkete bai euskaldunok eta bai euskara. Euskaldun sentitzen naizen aldetik egin nuen nik neure moduko poesia soziala beraz. Espresaeran edo formalki, poesia sozialaren modu libre eta apur bat traketsen idatzia dago.

Hitz gutxitan, poema horietan adierazi dudana Euskal Herriaren nire ideia azpimarratuko nuke. Nola sentitzen dudana nik zer den nire Euskal Herria. Eta arazoa beti ere luzeagoa dela kontutan izanik, hauxe aipatuko dut orain:

1. Baskongadas deritzan eremuaren barruan, gure aita zenak esaten zuen moduan, jende baju talde batek osatzen du Euskal Herria:

Euskal Herri da.

Herri nahi eta ezina.

Nahi eta ezin honek ematen dio bizitza Euskal Herriari.

Herri aseka, mikatza.

Izan nahi larri honi barik ez dago Euskal Herri.

Suzko arima ase ezin garratza du Euskal Herriak.

Txakolina ardo da. (Euskal Herri da)

Mikatza da.

Ardo nahi ta ezina.

Nahi ta ezin hau du bere tasun bereziena. Heldueza.

Ardo asmotako ardo ezina.

Euskal Herriaren mikaztasunak arima erretzen du, txakolinak bere mikaztasunaz ahoa erretzen duen bezala. Ardo pobrea da, ardo nahi lukeena, baina beste ardoen artean ardo ez dena, baina ardo dena halaz ere. Euskal Herri da Baskongadas barruan, arima delako, kontzientzia delako, samin delako. Euskal Herriak ez du bozkariarik ematen: kixkali egiten du. Izan nahiak ematen dio izatea.

(Hiru gizon bakarka, 10. or.)

2. Euskal Herria ez dira ezta ere baju guztiak, baizik eta *heldu-nahia* minez sentitzen dutenak:

ez da pobreen
dolareko ardo
eta ez aberatsen;
baizik heltzera heldu
ez den herri baten
heldu-egarria
minez nabaitzen duten
herritar egarrien
doloreko

(*Hiru gizon bakarka*, 41. or.)

Hemen jokoa, *dolare / dolore* da.

Elorri ez zen izan liburu bat egitea: poematxoak elkarren ondoan segidan jarrita daude 8 ataletan, elkarren arteko korapilo nabariago gabe. *Hiru gizon bakarka*, nahiz eta ez liburu bezala kontzebitua egon, kondizioek berek batasun batekin sorrezari dute: kondizio horiek, Oteitzarekiko harreman hori eta momentu hartan Euskal Herria bizitzen ari zen bizitza-eztanda espresatu nahia da, besteak beste.

Uda batez Madrilen

Madrilera joan, ez nintzen Madrilegatik joan, han iragarrita zegoen 1974. udaldiko Teologi ikastaro bategatik baino. Baina Madrilen geratu, ez nintzen udaldiko Teologi ikastaroagatik geratu, Madrile beragatik baino. Ni Teologia berri baten bila joan nintzen Madriler, ikuspegi berrien bila, adiera berrien bila. Baina programak huts egin zidan. Orduan, zereginik ez, eta ingurura begira jarri nintzen. Egotez, egonda nengoen Madrilen, bi-hiru aldiz ere, baina beti eginkizunen bati lotuta, eta, ikusi-ikusi, Madrile ikusi gabe nengoen. Madrili begira jarri nintzen, beraz; eta gauza oso serioa zela ikusi nuen Madrile. Erronka dialektiko bat bezala azaldu zitzaidan. Han zegoen, han zen eta han aurkitu ginen, ni neure mentalitate erruralaz eta bera bere taxutura urbanoz eta industrializatuz.

Hiriaren hizkuntza lineal eta geometrikoa guztiz interesgarria zitzaidan, guztiz interesgarria gizonaren gaineko haren indarra eta presioa. David txiki aurkitu nintzen hiri erraldoiaren aurrean. Haren hizkuntza desafiozkoa eta erdainuzkoa nuen, haren tamaina eskerga, itzelezkoa. “Hauxe menderatu behar diat” esan nuen.

Berehala konturatu nintzen ordurarte erabilitako hizkerak ez zidala burrukarako balio, beste forma poetiko batzuk lantzera behartzen ninduen hark. Ez dago forma beretsuetan espresatzerik Arantzazuko lanbroa eta Madrileko trafikoa. Arras diferenteak dira eragin eta zentzu espazialak, arras diferenteak mintzagaiak. Espresabide berri baten beharrean aurkitu nintzen, hango errealitatea harrapatu eta menderatuko banuen. Ezin nion eraso espresionismo sozial batez, testigantza eta jarrera moral batez, protesta hautsi eta gogor batez, Goliat gerrari trebearen kontrako hartan Saul erregeak David artzainari jantzi nahi izan zizkion arma eta armadura sofistikatuez. Nik mundu arrunteko harrikoxkor biribilez eraso nion, egunero erabiltzen ditugun gauzak: kaleetako anuntzioz, arkitekturaz, espaloiz, metroz, eskailera automatikoz, periodikoz, eskabadoraz, gruaz, palaz, gizon anonimoz, jendez, hiriko konplexutasunez.

Liburua espreski konstruitua da. Elementu asko dago, sentimendua utzi eta deskribapen hutsaren bidez eraikia. Sentimenduak ez dira ezkututzen, baina *Elorri*-n deskribatzen diren natur fenomenoak sentimenduen zerbitzuan dauden bitartean, Madrileko deskribapenak ez daude ezeren zerbitzuan. *Hiru gizon bakarka*-ko forma popularretik forma landuetara buelta ageri da hemen, forma artifiziosoetara.

Hau, poesia baino, erreportari pobre baten saioa da. Neure Madrilen argazkitxoak, esan bezala, beti hizkuntzarekin borrokan egina. Bi adibide aipatuko dut, edo nahi baduzue bat bi eratan. Da, nola esan mugimendua: 1) jende arteko mugimendu fluidoak, eta 2) kaleen eta hormen arteko zurruna. Lehenengo adibidea irakurriko dizuet:

Aurrez aurre dator
 —koadru marroidun jaka—
 eskuinetik igaro natzaio,
 —alkandora horia ta korbata nabarra—.
 Eskuinetik igaro zait
 —jertse krema argia, fraka grisaskak,
 pauso azkarra—,
 aurreko gizataldea barna
 galdu du bizkarra.
 Edotariko aurpegi, janzkera,
 tamaina eta adinekoen erdiz igaroz noa;
 zenbaitek pasatu egiten nau,
 nik ere pasatzen ditut batzu,
 beti ere pasatzen nau bat edo bestek,
 nik ere pasatzen dut inor.
 Trikitx egin duguneko galdu zait,
 aurrera hartu didana ere galdu zait
 —jaseko soin eta berna—;
 askotariko aurpegi, janzkera,
 tamaina eta adinekoen artean galdu zait;
 zenbaitek pasatu egiten nau,
 nik ere pasatzen ditut batzu.
 beti ere pasatzen nau bat edo batek.
 Eskuinetik igaro natzaio
 —butano koloreko nikia, gerriko beltza
 eta fraka lilak—,
 eskuinetik igaro zait
 —bakeruak eta ile luzea solte—.
 Edotariko aurpegi, janzkera,
 tamaina eta adinekoen erdiz aurrera,
 aurrez aurre datorren askotariko jende tartzet;
 zenbaitek pasatu egiten nau,
 nik ere pasatzen ditut batzu,
 beti ere pasatzen nau bat edo batek,
 nik ere pasatzen dut inor.
 —pieza bateko gona beltza gorputz lodi baldarrean—;
 beti ere aurrez aurre datorren
 askotariko aurpegi, janzkera
 tamaina eta adinekoen erdiz aurrera ta aurrera,
 batabestea pasatuz,
 askotariko jende tartzet,
 Lagranbiaz, Alkalaz, arratsaldeko lana
 utzi osteko ordu lasai eta koloretsuz.

(*Uda batez Madrilén, 82-83. or.*)

Banoa kalez eta mugimendua bere erritmoan eta
 pertsonak nahi ditut, hitz soilaren medioz, pintzel
 edo zizel ordeztu, pintatu. Nere inpresioak pintatu,
 hau da, kaptazio-momentua inmediateki espresatu,
 elaborazioa baino lehen, diseinu bat egin, murriztu,
 behin-behineko berrakortze bat, xehetasunetan geratu
 gabe. Dibujoa soil-soil emango duten hitzak bakarrik
 marraztu.

Orain, ez jende artean, kalez kale noa:
 Begiak zabalik begiratzen dut kalea.
 Etxe ertz zurrinak argia ebakiz bakoitzak
 alboko ormaria;
 ormak aurpegi kolore askotarikoz
 argiaren bila.
 (Ez dute gizamusu bat ere leihoez ageri)
 Begiak zabalik

begiratzen dut.
 Ormen burruka ormaz orma doa,
 zeinek zein azpitan hartu,
 zeinek zeini ihesi
 kale luzea zehar,
 elkarren ondoren ezpata bertikalez
 nahiz horizontalez.
 Begiak zabalik begiratzen dut IBERIA
 dioen anuntzio tzarra
 etxediz gorako dorre koadratu baten
 goreneko puntan
 dirdari

(*Uda batez Madrilén, 28 or.*)

Denbora galdu alde eta Gabon dut anuntzio

Hau literatura bada, liburu hauek zein literatur
 jenerotan sartu asmatzea kostako zaio kritikoari.
 Literatura baino, beste militantzia batzuk ere
 badauzkagu. Horrela sortu dira *Denbora galdu alde*
 (1985) eta *Gabon dut anuntzio* (1986). Liburuok
 seguruenik ez dira literarioak, ez dira behintzat
 literatura egiteko asmotan eginak.

Denbora galdu alde psikiatraren agindu baten
 ondorioa da. Denbora galtzen ikasi behar nuela
 preskribatu zidan, eta niretzat denbora galtzeko
 modurik atseginena idaztea denez, ba, horrelaxe
 egin dut. Ez idaztera jarritz, baina denbora galduz,

introspekzioz, bestela sekula esango ez nituen barneko gauzatxo eta ipuintxoak aitortu ditut hor.

Eta orain Gabon dut anuntzio. Gabon niretzat eta askorentzat, konnotazio oso tradizionalz eta hunkigarriz beterikoa da. Kristoren jaiotza Gabonez gertatu ote zenez ala ez ote zenez gaindi, ospatu, Gabonez ospatzen dugu haren jaiotza eta ez elizkizunen bidez bakarrik, baita familian ezagutu izan ditugun ohiturez eta aparteko giro samur et beremoduko gozoz. Nik Gabon baserrian ezagutu nuen, baso arteko Orbelaun alde guztietatik urrun hartan. Gurean oso goiz hasten ziren Gabon prestakuntzak, bazterrik-bazterriko karakolak bildu, Gabon-sutarako haritz-mukurrak eta inguratu, eta hola. Sinesmenez, Gabonez jai o zela eta jaiotzen dela Kristo sinesten genuen, eta gurasoen Gabonetarako prestakuntzak ikusiz, oso gertuko bezala hartzen genuen Gabon.

Zenbait zuhaitzek, bere osasunean ebakitzen bada, aldaskak, puja berriak botatzen ditu; liburu bi hauetan horrelako zerbait nabaritzen da. Berrindartze bat, edo nahiago bada, *Elorri* eta *Uda batez Madriken* ondoren, itzulika bat haurtzaro linguistikora, mitikora, haurtzaroko kontzientziara,


memoriara. Formalki ere, batean zein bestean, askorariako moduak entseiatzen dira, baina badago bietan zerbait berdina: forma sinple, espontaneoak bilatzea. Herri-literaturan murgildu eta hor egin igeri. *Gabon dut Anuntzio*-n, batzutan herri-poesia nolabait kultua landu da (inoiz ez kultuegia), musikatzeko zen testu bat, Gabona fraide eta estudiante artean bizitzeko. Badira ikasleekin komentatzeko sorturiko asmaketak ere, Gabona girotu alde. Beste batzuk auzoan etxez etxe kantatzeko eginak dira eta atmosfera horrixe erantzuten diote. Beti ere lagunarteari eta festari gehiago begiratu zaio, literaturari baino.

Denbora galdu alde-n autoanalisisa den lan konplexu, artifiziosoa, ahalik modu ximpleenera ekarri nahi izan da. Formetan nahaste-borraste bat dago. Apropos. Libertate bila. Baina hitzetan, esaeretan, zentzu komunaren jakindurian, berriro Orbelaunekiko lotura estua dago: etxeko ipuingiroa, aitaren erako "parekoak" (gure aitarentzat *parekoa*, bertsotako puntu irregular samar bat zen), inguruko esamoldeen erabilpena eta abar.

Eta bukatu dut.



BERNARDO ATXAGA



Gogoetak Euskal Literaturaz

Egunon guztioi. Ni aspaldi honetan hitzaldi emanka nabil batetik eta bestetik, eta normalean ez naiz urduri jartzen, piska bat ikasia daukat lan hau. Baina zenbaitetan, gaur bezala, oker etortzen zaizkit gauzak eta beharbada antzeman ere egiten zaidan urduritasun batekin igotzen naiz mahaira. Are eta gehiago ikusiz gaur hemen zenbat jende bildu den.

Esango dizuet hitz gutxitan zer gertatu zen. Gauza asko gertatu dira tartean, baina banaka batzuk behintzat esan egingo dizkizuet. Aurrena, nik uste izan nuen gaurko hitzaldia obrari buruz edo nire idazteko moduari buruz izango zela, hori izango zela gaia; eta prestatu ere prestatu nituen orrialde batzuk gai horren gainean. Baina hor non, bidaia batera abiatu aurretik, gutun bat iristen zaidan hitzaldiak euskal literaturari eutsi behar ziola esanez. Gauzak hola, utzi nuen nire lehen koadernoan, eta hala ibili naiz bidaia osoan, Euskal literatura delako gai horrekin bueltaka, gogoetak zirriborratzen, oso letra txarrez, gainera, trenek balantza egiten baitzuten. Azkenean, iritsi naiz gaur goizean bidaia horretatik,

hartu dut estazioan egunkaria, eta, falta zena, nire obrari buruz hitzegi behar dudala dio egunkari horrek, ez du ezer ere aipatzen beste kontua, euskal literaturarena. Gainera, ahulak ahulgarria berarekin izaten du beti eta, lekuz nahastu naiz, uste nuen Gipuzkoako Kutxa han San Martin kale ingurutakoa zela, eta orduerdia galdu dut. Den dena kontrako bidetik.

Nolanahi ere, nik bidaia horretan egindako gogoetak uste dut garrantzizko arazo batzuren inguruan eginak daudela, eta beharbada interesgarriak izango zaizkizuela. Orduan, esperantza horrekin, hasi egingo naiz, eta gero betarik bada eta inork nahi badu zer edo zer komentatu, edo galderaren bat egin edo, dela obrari buruz dela nik hemen gaur esango dudanari buruz, ni prest nago erantzuteko. Ba noa, orduan, azkar, korrika eta presaka, euskal literaturaren gaia aintzat harturik.

Alferrikakoa litzateke gai honi buruz mintzatzea, hau da, euskal literaturaz mintzatzea, baldin eta —gehientsuenetan gertatzen den bezala, gainera—, baldin eta idazle euskaldun batek idatzi beharko lukeenez, hau da, euskal idazle batek egin beharko lukeen nobela edo poesia motaz, edo euskaldun idazle horrek aintzat hartu beharko lituzkeen gaietaz, gai zuzenki literarioetaz, noski, galdera egingo bagenu. Nik uste orduan erantzuna alferrikakoa litzatekeela, zeren inork ez dauka halako nobela mota bat, halako gai jakin bat, halako forma bat eskatzeko autoritaterik. Eta hainbat arlotan hain desatseginak diren Big Brother delakoak, behatz luzeko anai nagusi eta agintari horiek, nire ustez are eta desatseginagoak egiten dira literatura bezalako arloan, non askatasuna oinarrizko baldintza den. Idazle batek gogoak ematen dion hura idatziko du, eta berak aukeratutako moduan eta berak aintzat hartu nahi dituen arrazoiengatik: ez dio zertan entzunik teoriko baten esanari delako teoriko horrek, eman dezagun, gure gaurko errealitatearen errepresentazio izango den liburua idazteko esaten dionean. Eta ez dio zertan entzunik, are eta gutxiago, talde politiko bati, honek bere programatzaile

kulturalen bitartez literatura konprometitua, edo kontrakoa, literatura arin eta entretenigarria, sortzeko eskatu gogo dionean. Ostera esanda, askatasuna da idazle batek duen ondasun haundiena, eta, paradojaz, erabili dezake askatasun hori aipatutako kateak onartzeko ere. Azken batean, hala erakutsi dit esperientziak, idazle batek, idazle horren abiapunduak hobeto esanda, idazle baten aurre teoriak, bere dotrinak, ez du axola haundirik. Batzuk, Bertold Brecht edo beharbada Jim Thompson batek bezala, abiatu teoria komunista batetik eta literatura ona egiten dute. Beste batzuk, berriz, Arconada izeneko idazle palentziar batek bezala, hartzen du halaber aintzat teoria edo dotrina komunista hori, eta nobela txarrak egiten ditu. Eta gauza bera gertatzen da gainerako teoria guztietan.

Honi buruz ari naizela, eta gehigarri bezala, Carlos Barral-i irakurri nion obserbazio baten berri eman dezaket. Berak zioen, Barralek esaten zuen, idazle guztiak, hala onak nola txarrak, berdin berdina zirela asmo eta desioei buruz hitzegiten zutenean, eta, beraz, literaturaren kalitatea ez zegoela asmoen edo abiapunduko teorien esku; kalitate horren garantia beste nonbait zegoela. Nik esango nuke pertsona batek duen idazteko premia, edo zaletasuna, edo talentoa, edo duen suertea, hori guztia dela erabakior, horrek erabakitzen duela obra baten indarra, baina horretaz hitzegiteak agian metafisikara eramango ninduke eta nahiago dut alde batera uztea. Horren ordez, hasierako puntuari helduko diot berriro.

Euskal literatura gaiaren inguruan arazo zuzenki literarioez hitzegiteak ez badu merezi, orduan beste zerbaiten gainean hitzegitera behartua nago. Nire ustez, hartu beharko nuke euskal literatura gai hori ahalik eta zentzurik zabalenean. Literatura erakunde zentzuan hartu beharko nuke. Izan ere, literatura ez da idazlearekin bakarrik osatzen. Osatzen da, halaber, irakurlearekin; eta osatzen da kritikarekin eta eskolarekin, eta baita hizkuntzaren inguruan gertatzen diren gora-beherekin ere. Hori guztia da literatura, zentzu zabalean hartuta. Eta horretaz hitzegingo dizuet, literaturaren ingurukoaz.

Baina, zer gertatzen da? Bada inguruko guzti horri buruz, ni, zuek bezalaxe, lekuko huts bat besterik ez naizela. Izango naiz beharbada —20 urte horietan hortxe nabil eta—, izango naiz beharbada lekuko informatuxeagoa, zuek baino. Baina, azken batean, lekuko soil bat besterik ez.

Has gaitzen, orduan, inguru edo multzo zabal horretan dauden gai askoren artean zabalena aukeratuz, eta hori da hizkuntzaren gaia. Edo, zehatzago esanez, euskararena.

Fernando Amezketarraren egia da gure literatura, gure kultura eta —oraindik zabalago— gure bake politikoa eta gure beste zenbait bake, euskararekin lotuta daudela, guzti horrek euskarari buruz jirutzen duela. Gure bizikletaren gurpileko erradio guztiak Euskara izeneko ardatz horretatik pasatzen dira. Eta hauxe da, hain zuzen ere, niri idazle bezala min gehiena ematen didan errealitatea, badakidala nik idatzitakoaren fortuna ona edo txarra idazle erdaldun batek ezagutu ere egiten ez duen menpekotasun bati atxikia dagoela. Idazle poloniarrek, idazle frantsesak, arjentinarrak, greziarrak, horrek badaki bere obra garaiko gustuaren mende dagoela, edo berak idazterakoan eduki duen talentu haundiaren edo tikiaren mende, baiua bere obraren oraina eta etorkizuna hizkuntzaren orainari eta etorkizunari lotua egon daitekeenik burutik pasa ere ez zaio egiten. Oraina eta etorkizuna, diot orainean ere arazoak ba direla azpimarratu nahiz. Alegia, ez dela bakarrik etorkizuna kontutan hartu eta usu egiten dugun berdintasun aritmetikoa: *euskara biziko da*, (*beraz*) *euskal literatura biziko da*; *euskara galdu da*, (*beraz*, *berdin*) *euskal literatura ere galdu da*. Ez, ez da hori hori bakarrik. Euskararen egoera eta gorabeherak badute eragina oraintxe bertan idazten ari den harengan ere. Eta hori nola gertatzen den adierazteko, exenpluetara jotzea izango da hoberena.

Eman dezagun idazle batek poema bat egin nahi duela jokoa eta jostaketa hitzak bereiziz. Bada idazle horrek problema bat dauka, zeren, aspaldi honetan ikusten dudanez, Euskal Telebistak ez baitu bereizketa hori egiten. Euskal Telebistarentzat berdin berdinak dira, eta hala ulertzen da, kasu,

gangster batek “heriotza jostaketa duk. Batzuetan irabazi eta bestetan galdu egiten duk” bezalako ganbelukeriak esatea pantailan. Gauzak hola, norma —hizkuntzan eta gainerako arloetan— beti indartsuenak jartzen duenez, kasu honetan telebista eta antzeko mass media delakoek, idazleak bi aldiz pentsatu beharko du folioan jokoa eta jostaketa hitzak jartzerakoan: poemaren ulermen zuzena dago jokoan —ez jostaketan—, telebista eta abarrek zabaltzen duten hizkuntza ereduaren hezitako irakurlearen nahasmena. Euskararen egoerak, beraz, eragina izan dezake poetaren lexikoan. Eta eragin apur bat borta, borta eta bortxatzaile. Ezjakintasuna, nagusi.

Edo, esate baterako, beste kasu bat jartzearen, euskal prentsan, telebistan edo irakaskuntzan lan egiten duten neska eta mutil finek hitzetik hortzera erabiltzen duten porrot delako hitz hori. Gaur egun, zeinnahi egoeratan, zeinnahi errejistrotan, lasai lasai erabiltzen da porrot. Niretzako, oso hitz itxusia eta gordina da, hitz baldarra alde guztietatik, gainera onomatopeikoa eta, ondorioz, oso balio gutxikoa literaturarako; baina, jakina, jende den denak, bereak egin du edo kiebra jo du edo antzekoak erabili beharrean, porrot delakoa bereganatzen badu, nik ez daukat hitz higuigarri hori erabiltzea beste erremediorik. Zeren, Auden-ek ere esan zuen bezala, idazleak ez baitu berarena bakarrik den materiale batekin lan egiten, baizik eta guztiona den horrekin, hizkuntzarekin.

Gauzak hola, ez da harritzekoa idazlea beti erne egotea euskararen egoerarekiko. Eta erne, esango nuke, lurrikarak izan dituzten zenbait hiritako sismografoak bezala, dardar labur eta arinenak ere jasoz. Gainera, erne egote hori eta ondorengo kezka ez da hainbeste estatistikei begira dagoenaren kontua, nola —zientziaren terminologia erabiliz—, hizkuntzaren posibilitetasun baldintzak aztertzen dituenarena. Esan nahi dut niri, zifrak eta inkestak baino gehiago, orientazioari buruzko xehetasunak didatela axola. Hauxe da neure buruari egiten diodan galdera: euskara egiten ari den bidai luze eta neketsu honek norabide zuzena ote dauka?

Egia esateko, orientazio arazoak aspalditik kezkatzen naute, hala uste dut, eta barkatu nire obra aipatzen baina kezka hori Etiopia nire poema liburuan ere azaldu egiten zen, dortoka batzuk aintzat hartzen nituen testu batean, hain zuzen ere. Nire liburu hartako dortokak, Galapago irletan bizi zirenak, galdu egiten zuten bere orientazio sena leherketa atomiko bat zela eta. Nola sena hori galdua baitzeukaten, itsasora joan beharrean, ustez itsasora zihoazela, deserturantz egiten zuten korri, kontrako alderantz. Zenbat eta ur premia gehiago izan, hainbat eta korri gehiago egiten zuten deserturantz, hori da, heriotzerantz.

Bada askotan, ikusirik nola egiten den lan euskararen inguruan, nola ematen zaion indarra edo nola eman nahi zaion, zein bultzada motarekin, bada askotan pentsatzen dut ahalegin horiek, on beharrez, asmo on eta hobeez, euskara desertura eramango dutela, ez itsarora. Orduan, galdera litzateke: gure dortoka ondo al dihoa? Behar den bidean al dago?

Bada, ez dakit. Nik badaukat bertsio bat egunekoa, eta bertsio hori nahiko baikorra izaten da. Baina gero, gauez bakarrik gelditzen naizenean, edo lo egin ezinik nagoenean, bertsio hori erabat ezezkorra bihurtzen zait: ondo al dihoa nire dortoka? Galdera horri ondo erantzuten ez dakit. Orain segidan emango ditudanak ere noraino ondo pentsatuak diren ez dakit. Hori bai, gauez eta tren balantzatsuetan sortuak dira eta inpresio apur bat ezezkorrak horregatik.

Aurreneko inpresioa euskararen gainean: nik uste dut oraindik ere euskara bera hartzen dugula aintzat, eta ez euskararekin egin daitekeena. Euskara maite dugu, baina ez hizkuntza horren bitartez sor daitekeen bizitza. Eta gainera, ez al da hori kontraesan bat? Hizkuntzak bitarteko dira beti. Berarekin, bera baliabide bezala harturik, komunitate batek antolatu egiten du bere bizimodua eta aurre egiten die bere premia guztiei. Hizkuntzaren aurrean, beraz, oso ikuspundu pragmatikoa eduki beharra dago. Pentsatu behar da hizkuntza izaki bizi bat dela —eta halaxe da, zeren bizirik dagoena

bakarrik hiltzen baita, besterik ez da hiltzen—, eta izaki horri, euskaldun gehienoi bezala, asko gustatzen zaiola mugitzea eta lan egitea. Gauzak hola, hizkuntza mugimenduan eta lanean jartzea beste erremediorik ez daukagu. Baina, hori al da gure artean gertatzen dena? Ez zait iruditzen. Iruditzen zait euskarari, gure herri honetan, gurdi gurpila askori gertatua gertatzen zaiola. Zuek badakizue, ikusi dituzue noski, gurdi gurpil horiek errestauranteetan paretan zintzilik jartzen direnak, eta niri gurpil horiek pena haundia ematen didate, zeren ibiltzeko, jiratzeko jaiok izanik, pareta bati josiak eta geldi geldi pasatzen baitituzte egunak eta urteak. Bada nik gero eta gurdi gurpil antza gehiago hartzen diot euskarari.

Eman dezagun adibide bat: ba zoaz Gasteiztik Bilbora, eta peajera iritsitakoan, ordaindu ondoren, txartel bat ematen dizute. Eta txartelak dio: **Compruebe su cambio / Egiazta ezazu zure ganbioa**. Bistakoa da bigarren esaldiak ez duela inolako helburu pragmatikorik, ez dela bizitzarako. Duen forma, **egiazta ezazu zure ganbioa delakoa**, forma barbaroa da, dudarik gabe, eta ezin zaio inori baliatu, ez da izan “bizidunei premiazko zerbait ematearren”, ez da jokaera pragmatiko baten ondorio. Jarriko balute begiratu bueltak, edo kontuz diruarekin, edo antzeko zerbait, hainbestean, edukiko genuke duda ttiki bat, baina dagoen horretan, ezta batere. Erredaktatua dagoen bezala, esaldi hori parasittoa da, parasittoa bat besterik ez. Enbarazu egiten du, kargantea egiten da funtziorik ez duten gauza guztiak karganteak izaten diren neurri berean. Baina joan gaitezen bigarren enenpluarekin.

Gizon bat, euskalduna, ETB ematen ari den pelikula bat ikusten ari da. Zenbait pasartetan, azpilituluak (eta nik uste dut kasi honetan oso ondo jarria dagoela hitza, zeren benetan azpilana egiten baitute), azpilitulu horiek, diot, aurreratu egiten dira eta alde zuzenetik jakiten du pertsonaiek esaten dutena. Horretarako, gainera, itzulpena egin beharra dauka bere buruan, nahi gabe, zeren zuk alde zuzenetik ikusten badituzu azpilituluak gaztelera eta gero euskarazkoa entzuten baduzu, zure buruak,



gogoz bestera ere, biak gonparatu egiten ditu, eta ondorioz itzuli, eta ondorioz bizpairu neurona galdu alfer alferrik. Horretaz gainera, eragin estetikoa zapuztu egiten dute maiz. Jakina, garrantzizkoa, pragmatikoa gauden kasu honetan, pelikulari jarraitzea litzateke, pelikularekin disfrutatzea, eta ez desorduko itzulpen saio hori egitea.

Azpitituluaren kontu honekin segitzeko, zera gertatzen da beste pasarteetan, gidoia gaizki itzulia dagoela —itzultzaileak ez dituela jokua eta jostaketa hitzak bereizi, adibidez —eta orduan gizonak, telebista ikusten ari den gizon horrek, harri harriturik noski, azpitiitulueta jo beharra daukala. Oraingo honetan bai, oraingo honetan

eskertu egiten du azpitiituluak egotea. Eta ETBrako lan egin duen itzultzaile horrek ere berdin, asko eskertzen ditu, zeren bestela nabarmen geldituko baitzen, eta agerian bere lanaren kalitate negargarria. Eta zer esan ETBko korrektoreaz edo ETB berataz... denak libre zorioneko azpitiituluak direla eta. Horri esaten zaio sarearekin lan egitea. Aspaldi honetan, urrea baino, gehiago dugu papela.

Gerta daiteke, halaber, azpitiituluak pelikularen plano onen bat hondatzea, zeren, jakina, letrak lekua behar dute, tapatu egiten dute pantailaren alde bat, oso alde garrantzitsua beharbada... baina zertarako segi ezbeharen zerrenda honekin. Kontua da gure gizona, ETB ederki kostata ikusten ari den

gizon hori, baju xamar dagoela konzentrazioz eta buruko min piska bat ere badaukala, eta azkenean asper asper egin eta katez aldatzea erabakitzen duela, edo lotara joatea. Eta bitartean, pentsatzen du: Zergatik sufritu beharra daukat hau? Zergatik ordaindu behar dugu euskaldunok azpitoluen zerga hori? Hori, kasu batzuetan. Bestetan, berriz, holako zerbait pentsatzen du: Ezin izan dut pelikula hau ikusi, eta dena euskaragatik. Euskaraz izan ez balitz, ondo ikusiko nuen.

Autobideko txartelarekin gertatzen zen bezala, telebistako jokaera horretan ez dago pragmatismoaren zantzurik ere. Erabilia den bezala, euskarak ez du traba eta enbarazua besterik ekartzen, eta, beharko hala izan, askok eta askok —ohartzeko edo oharraren gainean— mania antzeko zerbait hartzen diote. Eta etzazuela, gero, aipatutako fenomeno horien alde psikologikoa baztertu, zeren nik antzeman dut, hemen, Donostia eta holako lekuetan batez ere, antzeman diot hemengo zenbait jenderi halako neke bat euskarari buruz. Gure garaian, berriz, ba zegoen harrotasun bat, oso garrantzi haundikoa baldin eta Levi Straussei sinesten badiogu; Levi Straussek esaten zuen mitoaren eginkizunetako bat herriari harrotasun bat ematea zela, herri batek mito bat kontatzen duenean oso leku onean uzten duela bere burua, superioritate konplexu bat errotu nahi balu bezala, eta jokaera hori oso zuhurra zela, oso lotua herri horren bizi iraupenarekin. Bada gure garaian eta euskaldun izatearen inguruan, ba ziren halako mitoak, Oteizaren bitartez etorritakoak esate baterako, edo “Ez dok amairu”-ren bitartez... baina, gaur egun, errealitate gordin hori dela eta, harrotasun hori galduz dihoa, eta maitasuna era bai agian. Eta ez naiz ari jende odolkoiaz, jende bizkorraz ari naiz. Pentsatu egin beharko genuke guzti honen gainean.

Jarrai dezagun, halere, euskararen inguruan ikusten den pragmatismo gutxiaren beste adibide batekin. Eman dezagun idazle bat hitzaldia prestatzen ari dela, eta *La Divina Comedia*-ko pasarte bat hitzez hitz aipatu nahi duela. Zer gertatzen da, orduan? Bada Danteren liburua ez dagoela

euskaraz aurkitzerik, ez dagoela itzulita, eta ondorioz bitako bat, edo saiatsen dela pasarteasi itzultzen, galtzen duela denbora lan txar hori egiten, edo uzten duela testua bere hartan eta erdaraz luzatzen diola hitzaldiko jendeari. Eta nik badakit, euskaldunok arazo asko izan ditugu, ez dugu bururik altxa izan denbora askoan, eta ez da harritzekoa Danteren maisulana itzuli gabe egotea. Baina, zera da harrigarria, ez dudala ikusten hori eta horren antzeko beste liburu asko itzultzeko batera asmorik. Egongo da, beharbada, baina asmo oso zabaldua behintzat ez dirudi. Sekula ez diot, eman dezagun, alkate bati, afalosteko deklarazio batzuk direla eta, “itzuli egin beharko genuke Danteren obra” bezalako zerbait entzun. Beste gauza asko entzuten dizkiegu alkate eta abarrei, baina holakorik ez. Dudarik ez holako lanak oso zailak direla eta jende oso ondo prestatua eskatzen dutela. Baina, ba al dago arazo honen kontzientziarik? Egin nahi al da biderik? Ez dakit bada. Bidea egitea litzateke, kasu —behin Euskal Idazleen Elkarteak proposatu zuen bezala—, itzultzaile berezi batzuk formatzea, zenbait jenderi eman bekak eta bidali Alemaniara, Italiara eta ez dakit nora, joan daitezela hango kultura zupatzera, gero batean itzulpen onak egin ditzaten. Baina holako planak ez dira aintzat hartzen. Elkarteak, esate baterako, ez zuen bere proposamenaren erantzunik ere jaso Diputaziotik. Eta Jaurlearitak ere ez zuen txintik ere esan. Bitartean, hortxe gastatzen dira 300 miloi edo “Letrakik” delakoan, zer den ere ez dakigun “Letrakit” horretan. Ikuspuntu pragmatiko batetik ikusita, diru horrekin hamar itzultzaile on lortuko ziratekeen.

Baina idazleak ez ditu hitzaldi guztiak bere herrian ematen, baizik eta bidaiatu eta beste lekuetan ere ematen ditu. Eta, zer gertatzen zaio kanpora joaten denean? Ez dut esaten Ozeaniara, esaten dut Edinburgo edo holako leku nahiko hurbilera... bada hara iritsi eta hasi Basque Country delakoarekin, eta segituan konturatzen da han inork ez duela Country horren berririk. Zaila da, gainera, berri hori izatea, zeren kuriositatea eduki lezakeenak ere ezin baitu hango datu-bankuetan ezer aurkitu, ez euskal

egilerik, ez euskal historiarik, ez ezer. Ez da azaltzen, ez dago han guri buruzko ezer. Gauzak hola, zergatik ez da diru pittin bat “kanpo arazoetan” gastatzen? Zergatik ez da Eusko Bibliografia behar bezala ornitzen? Edo, beste arazo bat aipatzearen, hemendik kanporako itzulpena, zergatik ez da euskal obren itzulpena aintzat hartzen eta diruz laguntzen? Hori egiten du Barcelonako Generalitat delakoak katalaneraz idatzitako obrekin, hori egiten du Madrilako Kultura Ministeritzak gazteleraz idatzitakoekin... eta, nire kasuan behintzat, obra euskaldunekin, zeren Obabakoak alemanerara etab. itzultzeko languntzak Madriletik etorri baitira, zeren gure herrian, holako laguntzarik —barkatu berriro esatea—, ez baita ematen, ez baitago zantzurik ere. “Eman eta zabal ezazu munduan frutua” esaten du kantak. Leku ederrean gaude. Gehiagao dago dirua Idahora dantzariak eta harrijasotzaileak eramateko idazle eta abarrei irteera bat eskaintzeko baino. Batak ez du bestea kentzen, noski, eta ondo dago kirola eta ondo dago folklorea. Baina nik neure leloarekin segitzen dut: beti beti, aukera pragmatikoa kanpoan gelditzen da. Eta Idaho aipatu dudanez gero, zergatik ez da ahalegin bat egiten diasporarekin? Gure diasporak, dagoenean, ez digu guri hemengo euskaldunoi, guk hemen daramakigun euskararen aldeko borrokan eta, ezer ere laguntzen. Baina, agian, horrek horrela beharko du, oso herri ttikia gara diaspora sendo eta eragile bat edukitzeko.

Jarri ditut hiru kasu, hiru adibide, eta beste hamaika ere jar nitzakeen. Izan ere, idazleok izugarri nozitzen dugu euskarari buruzko pragmatismo eza hori, eta disimulatzeak ez digu konturik (kalean sahiestu dugun problemak gure laneko mahaiain itxoiten digu). Orain artekoak, gainera, galdera bat ekartzen du ezpainetara: euskara bizitarako behar ez duten horiek (pragmatikoki jokatzeko ez duten guztiek), zertarako behar dute? Zertarako baliatzen zaie euskara? Hortxe gelditzen da galdera, jaso dezala nahi duenak.

Ikusi duzueenez, aipatutako exenpluak Jaurlaritzaren esku dauden arlokoak dira. Nire orain arteko hitzak, beraz, Jaurlaritzaren aurkako kritika

bat bezala ulertu behar dira; eta baita oposizioari buruzko kritika bat bezala ere, zeren ez dirudi arazo horietaz asko arduratzen direnik. Sar gaitezen, honenbestez, hitzaldiaren bigarren partera.

Ondo al dihoa gure dortoka?, horrekin ari nintzen. Euskararekin eta bere egoerarekin, noski. Bada, esandako guztiaz gainera, zera iruditzen zait, zenbaitek pegatina bat eransten diotela dortokari, edo kolore batekin edo bestearrekin pintatzen dutela, edo bestela dortoka horren gainean jarri eta, dortoka gerrarako zaldi batekin nahastuz, berak nahi duen lekurantz eraman nahi dutela, auskalo zein bataila jotzeko.

Bistakoa denez, ni ez naiz orain ari nazionalista espainolei buruz, zeren nazionalista horiek dortokari buruz daukaten joera bakarra zera da, dortoka diseinatu eta bitrinan sartzea, eta hori kasurik hoberenean. Eta ez naiz ari, are eta gutxiago, zinikoetaz. Euskal Herrian gaur egun ziniko asko daude, eta ziniko horiek zopa egiteko nahi dute dortoka, gure euskara; horretarako bakar bakarrik, zuku ateratzeko, subentzioak eta abar. Esate baterako, nik ezagutzen dut editore bat, ziniko hutsa, alde batetik egundoko subentzioak jasotzen dituena eta bestetik, bazkalondoetan etab., euskarari buruz oso eritzi tamalgarriak azaltzen dituena... halakoak dira gero bere liburuak, jakina. Lotsagarriak. Baina aitzeki horrekin, zopa etxerako. Baina, arestian adierazi bezala, orain ez naiz ziniko horietaz arituko. Beste batean, datuak ondo bildu eta gero, datu horiek, subentzioenak eta beste, eskura dauzkan jendearen laguntzarekin, holakorik posible bada behintzat. Gaurko honetan, euskal nazionalistez arituko naiz.

Batzuetan iruditzen zait euskal nazionalistek bere tanpoi, pegatina edota koloreak jarri nahi izaten dizkiotela dortokari. Bere marka ideologikoa jarri nahi dioela, alegia. Euskara beren programetako puntu bihurtzen dute, puntu bat beste puntu askoren artean; puntu bat —hori da okerrera— beste puntu askoren mende. Zeren, jakina, gaitzerdi litzateke euskal nazionalistek euskara, dortoka hau, bere programen ardatz eta oinarrian jarriko balute, eta

gainerako puntuak puntu nagusi horren arabera antolatu. Baina hori ameskeria da, holakorik ezin du sinestu azken hogeitun urteotan esna egon denak. Ikustea besterik ez dago zer gertatu den egunkariekin. Denok dakigu, alde pragmatikoak kontutan hartuta, egunkari bat euskaraz ateratzea zein zaila den gutxieneko kalitate bat lortzea. Baina, nahiz eta hori den denok jakin, nahiz eta hemen jokuan ari diren bizpauru taldeek beren programetan euskara eduki, aitortuz gainera (izan ere, hain da erraza deklarazioak egitea!) euskararen inguruan dagoela beren programa kulturala antolatua, bada azkenean ikusi duzue zer gertatu den, ez dagoela akordiorik, bi egunkari aterako direla. Euskara hainbeste maite badute, orduan zergatik euskararen kalterako izango den bikoiztasun hori? Bada talde nazionalista horiek beste maitasun batzuk ere badituztelako, eta haundiak gainera. Beraz, nondik—inongo taldeak— euskarari bere marka jartzeko eskubidea? Inondik ez, inork ez dauka horren eskubiderik. Bakea behar du euskarak, eta bakea eman behar zaio. Eduki bezate beren programetan, baina bueltan ezer espero gabe. Maitasun epel edo interesatuek ez dute saririk merezi.

Euskaldunen gaitz endemikoa dirudi euskarari tanpoi edo marka bat jarri nahi izatearena, hori erakusten du historiak. Garai batean, esate baterako, fede kristauarena jartzen zitzaion, eta euskaldun fededun esaten zen. Gaur egun argi ikusten dugu, batak ez dauka bestearekin zerikusirik, hor daude bestela euskaldun fedegabeak, mahometarrak, protestanteak eta auskalo zein gehiago. Baina urte askotan, biak lotu lotuta joan ziren. Ideologia gailendu egiten zitzaion zentzuari. Orain oraintxe bezala, noski. Gaur tanpoia edo pegatina beste bat edo beste batzuk izatea.

Non ikusten dudan nik holakorik? Bada, adibidez, euskara irakasten den tokietan. Nire inpresioa da leku horietan ez dela bakarrik euskara irakasten, baizik eta euskararekin batera ideologia bat zabaltzen dela, edo subideologia bat beharbada; euskalduntasunari buruzko ideia edo definizio jakin eta partziala eman nahi izaten dela. Euskara ikasten

ari diren zenbait nafar erriberako lagun batzuk esaten duten bezala, eskola horietan euskalduntasun goierritar baten erdua zabaltzen da, ez dakit beti, baina bai behintzat askotan. Baina jende guztia ez da goierritarra, bertsotan ikasi beharrik; bertsogintza edo bertso zaletasuna ez baita euskalduntasunaren *conditione sine qua non* bat. Zuek beharbada esango didazue baietz, horixe dela euskalduntasuna, hori eta trikitrixa eta auskalo zer gehiago, eta nik berriro esaten dizuet, hori guztia ez dela euskalduntasunaren seinale, agian euskalduntasun goierritarren seinale dela, eta hori bakarrik. Eta, kontuz, Nafarroan jende askok egin du euskaraz, eta jende askok egin du lan euskararen alde, Erronkari edo Tuteran, eta beren eskubidea daukate, ezin dira euskara ikastera joan handik Amezketa seme bihurturik ateratzeko. Bakoitzari berea eman behar zaio, eta—orain arteko adibidearekin jarraitzeko— Mahatsari (mahatsarekin sortzen den kulturari, ezta?) mahatsarena dagokio, eta ez Sagarrarena.

Gainera, euskalduntasunari buruzko definizio itxi horiek subkulturalak izaten dira beti, eta kitsch deitzen diren jokaeraren ondorio. Euskalduntasuna oso fenomeno konplexua da, ezin da bospasei xehetasunetan erabaki, eta are eta gutxiago auzokoarengandik bereizteko gogo borta batekin. Zeren kultura, herrien bizitzeko modua, mila nahasketaren ondorio baita beti, eta nahasmen hortik etortzen baitira aberastasun guztiak. Bereizteko, nahikoa dugu euskararekin berarekin. Eta berau erakusterakoan, ene usiez, ahalik eta modu neutroenean erakutsi beharko litzateke, soilik berarekiko maitasuna transmitituz (oso lan zaila, bestalde, kultura maila haundia eta lan asko eskatzen duena).

Baina ideologiaren gehiegikeria hori ez da soilik eskoletan ematen. Ematen da, halaber, egunkarietan eta talde politikoen programetan. Herri batasuna oraintsu prestatzen ari den horretan, duela gutxi kaleratu den programa probisional horretan alegia, zera dirudi, euskararen salbamendua gaztelearen aurka egin nahi dela, hots, jarri nahi dela alde batean euskara (hizkuntza bakartzat), eta bestean, gurekin

zerikusirik ez balu bezala, gaztelera (programa horretan, idioma extranjeru deitzen diote gaztelarari, nahiz eta —paradoxaz?— programa goitik behera idioma extranjeru delako horretan egina egon; gaztelera egina eta gero euskarara itzulia). Horregatik, guzti hau gogoan nuelako, esaten nizuen batzuk, iduriz, dortokaren gainera igo eta gerrarako zalditzat erabili nahi zutela, eta planteamendua, nire ustez, ezin daiteke absurdoagoa izan. Delirio batean sortutako planteamendu bat ere iruditzen zait. Zeren, aurrena, ez baita aitortzeko moduko gauza bat, pentsatuta ere ez bailitzateke holakorik esan behar; arrazoi estrategikoengatik, besterik ez bada ere. Izan ere, dortokak ez luke gaztelararen kontrako bataila batean zer eginik. Galdu egingo luke hamarretatik hamarretan. Beraz, sekretuan eraman beharko lirake borroka plan horiek, behintzat abantaila hori eduki. Eta bigarren —hauxe da gaztelarari idioma extranjeru deitzen dioten guztiek kontutan eduki beharko luketen gauzarik printzipalena —gaztelera ezin da alde batera utzi sarraski kultural bat galdu gabe. Zer gertatuko litzateke, kasu, Araba edo Nafarroako Erriberan? Eta nola konponduko lirake hizkuntzaren inguruan sortutako gorabehera sozialak? Nola egingo lioteke aurre programagile horiek euskarari buruz sortuko litzatekeen grina txar orokorrari?

Holako planteamenduak aurrera joanez gero, euskararen heriotza aurreratzea besterik ez lukete lortuko, eta uste dut norbaitek esan egin behar ziela Herri Batasunekoei, ber begiratzeko probisionala omen den programa hori. Aurrerago, pragmatismorik gabe jokatzeko zutenei, hauxe galdetzen genien: Zertarako behar duzue orduan euskara? Zertarako baliatzen zaizue hizkuntza bene benetan? Orain, horren antzeko beste galdera bat egin nahi nieke programagileak bezala pentsatzen dutenei: Zertarako lotu nahi duzue euskara halako ideia ezinezko eta sozialki arriskuetsuekin? Zertarako behar duzue benetan euskara?

Nire eritzirako, ahalik eta ideologia gutxiena erantsi beharko genioke hizkuntzari, Badakit

derrigorrezkoa dela eranstea, beti eransten diegu ideologia, hautsa bailitz, ukitzen ditugun gauzei, esate baterako hitzaldi honi, baina ahal den gutxiena, zenbat eta gutxiago hobea: ez dezala ideologia batek edo besteak jendearen euskarari buruzko bidea galerazi. Horrek ez du esan nahi, noski, orain puntuan egin beharreko erreibindikazio gogorrek baztertu behar direnik, beharbada beharrezkoak izando dira eta. Esan nahi dut joera zabal hori hartu behar dela etorkizunari buruz, euskara, salbatzekotan (gazteleraekin batera, esan dudanez), 200 edo 300 urtetan salbatuko baita.



ITXARO BORDA



Autojustifikazio erreza

Autojustifikazio erreza
Susana A. oroituz.
Karrasi bat...
1990

Oso gaizki dakit, nere idazkera aipatzen. Alde batetik, estakuru guti dudalako, zergatik, noiz, nola, idazten dudan aitortzeko, orobat, nere buruaren justifikatzeko, eta bestetik, iduritzen zaidalako, nekez duela idazleak bere idazkera teorizatzen ahal, garaian garaiko minekin topo eginik tematsuki borroka aurretik galduetan higitzen denean. Kasu honetan distantzia, edo muga izpirik ez dago, teoriaren eta praktikaren artean: bizi arau idazten dut... idatz arau bizitzen naiz.

Agian, bizitzen naizela erraitean, harrituko zarete, gaur bizitzeak signifikatzen duelarik, mundu kapitalisteko aurkikuntza ederretan kokatzea, erresponsabilitatez, rentabilitatez, larderiaz, autoritatez, boterez eta aberastasun ekonomiko haztea. Idazleek zertako nahi dute ba, erabat profesional bihurtu? Arrazoina ximple da: euskaraz idazterakoan, performenteak izan gogo dutelako, sozial mailan talde performente eta ontasun ekonomiko sortzale/jasotzale iraungo dutelako. Sinespen hori, nere ustez, ilusioa da, idazlearen lekuak jendatean ez duelakoan, laborariaren, langilearen (baldin badira oraino xomageak ez hunkiak), eskalearen, kartzelatuaren edo Irunberrin bi tiroz erahil dutenaren lekua baino balorizatuagoa izan behar. Etika kuestione. Idaztea ez baita, edozein hizkuntzatan, oinarrizkoa, ez baita gerorako ohoreen helburua, presentean barna hedatzen den ekintza bizigarri xoil delako idaztea.

Batzutan, iparreko bizpahiru adiskideekin hitzegiten dugunean, ari garela honetaz eta hartaz, hurbiltzen gara, bizitzaren koropilioa bakoitzarentzat, zenbat harik osatzen duen eskatzera. Kolegak, harritzen ditut salatzean, hiru helmuga arraro dauzkadala buruan dantzan, obzezione gisara, ondar urte hauetan zehar:

—Idaztea, idaztea, idaztea, azken hatsaren dudak lotsak, zorionak, desirak esprimitu arte.

—bizirik ihardokitzeko desira osorik edo, behintzat, guduka etsituetan gutien galtzen saiatuz, desira begiratzea, zaintzea, gerizatzea. Metafora komuna hartuz, euria gatik, su bilaka ditekeen garraren gorria edozein moduz, mantentzea.

(... pretenzios beterik nator... eta honek, ez du halako inportantzi handirik, alta esperantz horrek gaitu irauan erazten...).

Hori dena esprimitzeko, egiten ari garen, ikasten dugun asma dezakegun hizkuntza bat badugu, ontasun kolektiboa, urgulurik edo debekurik onhartu behar ez lukeen hizkuntza bat, eman/irakatsi digutena, ahoan hotsez horniturik erabiltzen duguna, edo mentalki, nonahi, munduko gauetako bakardade

ordueta, gertakariak aztertzeko jujatzeko, aurka zein alde borrokatzeko, geroa planteatzeko, gure txandan, erakats dezakeguna kidei nahiz haurrei, katea ez baita dagoeneko hautsia, ihardok sentimendu gozagarri batekin, itxaropen mugatuz, pesimismo latz katastrofisten xantaiei tokirik utzi gabe. Hizkuntza hori, euskara dugu, euri uharrez kanturik datorkigun mintzaira. Hizkuntza, sinestearen, fedearen, humilitatearen oinarri/oinaze, hizkuntza zeruekin eta lurrekoekin baketzeko medio bezala maitatua.

Azkenik gaiak. Mendeetan zehar baztertu, marginalizatu, mintzaira horrek balio du/luke, eskubide unibertsalik, salbu agian, botua emateko eskubidea, sekulan erdietsi ez duen herri baten minak, heriotz susmoak, zauriak, paperrean etzanez, konjuratzeko. Idaztea mirail bezala kontzebitzen dut, bekatu ahalgegarrienak, nahiz zorionik eskasena isladatzeko, estereotipo ugarienatarik urrunduz, errealitatearen zati bat harrapatzeko, Botswanako diament bilatzalearen gisara, mina, minaren inguruko diskurtso morphinatsu eta lokar erazleatarik isolatzeko, min uhargituan bizitzeko aitzakiak bermatzeko.

Uste baitut, jendea dela unibertsala, mina delakoan berdenboran unibertsala eta hain pertsonalki sekretua, non gainera egin extrapolazio faltsuki intelektualizatuak diren bekaiztiak, askotan haurkeriak, dirua, ohorea, momentuko ezagupena lortzearen medio errezak. Horregatik, nahiz eta irakurtzen ditudan, lasaiunetan edo treinetako ibilaldietan, ez zaizkit hainbeste laketa idaztea funts bakar duten idazkiak, idazleak, idazten, idazle agertzen zaigularik, idazten, New Yorken gauza bera egin dezakeelarik Pulitzer Price irabazteko izkribatzen ari denak.

Ez dakit, arras atzerakoia, nonbait masokista edo agian, lehenagoko mistiko mortifikatu paranoikoaren antzekoa eman dezaket, eta anestesia da menturaz, literaturaren baliorik premiatsuena, anestesia, kondizionamendu ideologiko kolektiboa, egoera larrienen jutifikazioa, harmen indarrak bizkarrak plega erazten dizkigutenean eskumakil,

behar bada, literatura kontsumo produkto xoil dugu, ez batere oldarraren laguntzale, sustengatzale, injustizien kontra karriketan ibiltzale.

Literatura, literatura baizik ez da.

Hitza.

Hitza, edertasuna, estetika hutsa.

Literaturari, garrantzi gehiegi eskaintzen diogu.

“Esploradore nekatuak” gara...

I. Bizitzaren hurrupa

1. *Fikzioa versus errealitatea*

Askotan, leporatzen didate, nere idazkiak, ipuinak, poemak edo nobelak, autobiografikoegiak direla, mexprexu piskatekin noski eta ez dut argumento segurti horien aurka nerezko argumenturik. Gaizki defendatzen naiz, berdin zait, behin MAIATZEN publikatu genuen “Klara eta biok” kontakizunaren sarreran, modestiarik gabe, aitor dut, nere idazletasuna/keria bigarren mailako idazleen kategorian, nihaurek, ironiaz asmatu/amestu kategorian sartu nintzenetik.

Eta, bizitzan joan arau, euskal idazle lagunek idazten dutena irakurtzen dudanean, ohitu naiz, termino horietan, eta bistan dena, idazten ditudan orrialdeetan, elementu kategorian sartu nintzenetik.

Eta, bizitzan joan arau, euskal idazle lagunek idazten dutena irakurtzen dudanean, ohitu naiz, termino horietan, eta bistan dena, idazten ditudan orrialdeetan, elementu autobiografikoak kokatzeaz kulpable sentitzen naiz.

Kulpable neurri frangotan:

—autobiografia modan ez delako, euskal letren mundu sasi kristauean, non ere norberak derrigorez bere izatea ezabatu behar duen, munduaren azaletik kanporatu gai unibertsalekin nonbait, amnesiaren globoan topo egiteko

—kulpable, ene bizia, ene bizi moldea arras pobrea delako ez dudalako Amazonia korritu, ez naizelako Ameriketako eremu desertikoetan heriotzarekin ur faltaz kasik zen bihurtu, ez dudalako nehor hil, eta nehork kurutzefikatu ez nauelako oraingo.

—kulpable azkenik, idazkiak, autobiografia puntuz jostean hezi nauen gizartearekiko libertate gehiegi hartzen delako, eta libertatea, boteretsuen artean baizik ez delakoan partekatzen, libertatea diruz eta indarrez ardieste justu dela uste dutenentzat zikoitzaren itxura ematen dutalakoan.

Hortaz aparte, nere kulpabilitate sensazioa gaintzen dudanean, libertate merke bezain osoaz betetzen naizenean, gueko ibilaldi berantiarretan, edozein kanalen ertzeetan, iduritzen zait, bidegabekoa litekeela, begiek, zentsuek, haragiak bizitu ez duen inguruko jendeen errealitateaz jabetzea. Lapurketa. Horregatik, agian, nere idazkian mugatuak, hersiak, ttipiak dira, mundua ez bait dut konprenitzen ahal, ez baldin badut nihaurek munduaren malura edo zoriona jasan edo jastatu, batera.

Baina, autobiografikokeriaren arrazoa, errealitatea eta fikzioaren arteko debatea bezain faltsua da, antzua. Nere ipuinetan nobeletan ere, historia orokor baten barnean, demagun historiaren haria lineala dela (“Basilika”), edo berdin, egunerokotasun bahitu honen gisara, hautsia, apurtua, nahasia, bai denboretan eta bai ekintzetan (“Udaran betaurreko beltzekin”, “Urtemuga lehorraren kronika”), zergatik ez ere lekuen aldetik, fikzioa dela, maiz orduan pertsonaiak errealak eta desplazatuak dira; gerta diteke noski, pertsonaia dela fiktiboa, eta historiaren haria, bere elementu guziekin erreala. Azken finean, irakurgarria den zerbait idatzi behar baita, aldi berean, erreferentzia onhartuatarik haraindiko idazlearen askatasunaren froga izango den zerbait. Zentsuarekin. Emozioea, irria, negarra, haserrea sor dezakeen lan bat eskaintzea komeni baitzaigu. Eta, emozione zerrendak bizi direnen tartean partekatzen ditugu. Uste dut, fikzio xoileko pertsonaiek (ez da existitzen, edo kopiaren kopia da) admirazionea probokatzen duten unean, are zabalagotzen dutela irakurlearen eta idazlearen erdian, dagoen elitismoaren leizea. Idazleak, edozein “gizarteetan” bere marginalizazio erlatiboaren bidez, imitatzaile eta amnesiko bihurtzen

den heinean, du profesionaltasunerako deretxo ekonomikoa lortzen. Profesionaltzea, ukazio konziente edo menturaz inkonziente delakoen ondorioa dela erran dezakegu.

2. Pasatzen baitira urteak...

Hasiera batean, fikzio hutsa idazten artzeak eman dezakeen atseginetik urrunduz, deusik ez da gure nahikunde bakar bakarraz gertatzen, bizitzak baitu agintzen, bizitzak baititu bide guziak ixten edo irekitzen, konturatzen gara egoerarekiko harremanak pertsonalak, erabakikorak, ebakikorak, eta arras intimistak direla, eta oinarrizko min unibertsalez makurtuak diren jendez moldatua dela, hain koherente agertu nahi duen euskaldunen komunikate hau.

Slogan errezen atzean, bere boterera heltzeko anbizio erraldoia gordetzen dutenek munduaren betikotasuna beren baloreez hantzen dute, gure bizitza arruntak zentsuz hustuz. Boterea bera bilatzen ez baldin badugu, sistema finko larderiatsu batean, gure buruak kokatzeko indarrrik ez badugu egiten, justu, bozkatzeko, manifen lerroak loditzeko, eta estado zentraletan nola, kanoi ekai gara. Nahiz eta "kausaren" alde jarri, eskuz-esku, ez dugu deretxorik ahanzteko, ahantz arazteko, bizi garenak garela, guk ere gure mailan munduaren aldatzeko gogoia dugula, eta kemen hori idatz dezakegu utopia eta erresponsabilitate indibidualaren izenean.

Beti oroituko baikara, ikurrina hilkutxaren gainean hedaturik ehorzten direnetaz, baina ez da segur adibidez, isiltasun hartako larderia orokorraren menpea jasanik hil den emazte lanez konkortuaz gogoratuko garela. Alta honek ere, amodioa merezi du, edo estimua katalanek lerraketeneran, amodioa eta literaturan sartzea. Adibide gisara.

Pasatzen baitira urteak.

Idazten dudanean, horregatik nere idazkiek ez dute handitasunik, ordea epelkeria asko, aipatzen ditut superihardokitze primalen higadurak, edozein egoeratan, gaurko garaiean, ene imaginazio ezak zilegitzen didan garaia hedaduran. "Basilika" nobelaren harrerak, hainbat hari izan ziren orduan

moztuak, eta hariak baino gehiago ere, nobela euro-peo-amerikarrak duen handitasun-performantzia nahitik urrundu ninduen: "Basilika" ez baitzen debaldetan jende batzutaz trufatzeko kontakizuna, metafora bat baitzen, dozilitatearen eta jendeak zanpaturik atxikitze erabil ditezkeen medio kulturalen inguruan. Estado zentralarekiko hautetsi eta kulturkraten dozilitatea zuen gaitzak "Basilika" k. Eta oraina bilakatu den gero hark arrazoin eman du, ikuziz ze lelokeriak ateratzen diren EKEaz, Réussir en Pays Basque kanpainaz edozein modutako negoziaketetaz.

Harez geroztik, libertatea eta nere aldian isiltasunaren premia zer zen ikasten aritu nintzen. Ikasi dut ondorioz, pasatzen den denborak bere balio bakuna duela, bederatzi hilabete behar direla haurra sortzeko, sasoin bat osorik artoak huntzeko, eta hogeita hamar urtetan ez naizela hilgo, bizitza osorik bizitzea komeni zaigula, inpazientzia ikaragarria izan arren, eta idaztea ardura, bizitzeko zurkaitz izan ditekela.

Hitzak, noski, hitzak dira. Hiztegieta metatuak dira. Ez dira ordea, inozenteak. Hitz bakoitzak, egoera batean, erran nahiaren podere larrutzalea duela. Eta egun batez, isiltasunarekin bezala, heriotzarekin topo eginen dugu, liburuetarik kanpo dauden gehienen gisara, heriotzaren mututasun biluziarekin. Lehen hatsetik azkenerainoko bidai hori dugu kontatu behar, indibidualki, nonahi jasan dezakegun errepresio sistema salatuz, eta ahal bada idazki pertsonaletan nola, bizia esperimentatzeko bideak irekiz, dakigula jakintsunengoan ahotik, dena izkribitua dela, dena errana eta konplutua dela jadanik, eguzki pean.

II. Hizkuntzaren desira

1. Hizkuntza, esprimitzeko tresna

Azken urte hauetan, salbuespen zenbait aparte, ematen du euskal literarioek, hizkuntzari krixton garrantzia eskaintzen dutela, hizkuntzari eta gorago aipatu dugunez, imaginazioak moldatu gaien erabilketan, idazleak agertzen duen trebetasunari.



Halatan, gure nahitara, ari gara hitza bere estetika-musika xoilarentzat miresten, erran nahiaz husten, eta badirudi oraindik, bi lekutan aurki ditekeela hemen hitz signifkatiboa:

—diskurtso politikoetan (alta badakigu...).

—mundu ruralean.

Mundu rurala, betidanik, asmatu/amestu da, hiriko mundutik bereiz, autartziko, bere lege krudel, eta bistakoa denez, bere tradizio folklorizatuekin, eta ikuspegiaren ilusioneaz konturatzen gara, gu laborari munduan heziak/haziak izan ginelako. Mundu rurala fantasmazen segitzen dute, iragan

mendean bezala, nekazariak industriaren kontsumo sisteman derrigorrez sartzeko xedea hedatua zegoelarik. Fantasma horien beren bidez, literaturalat pasatzen da, gaurko euskal literaturan, mundu rurala, ruralismo morbidoa eginez. Ainitz estimatua da, baina moda horrek aspertzen gaitu.

Ulegarria da, beste aldetik. Ruralismoaren bidez nahi dira, euskararen erroak, egiazko erroak, barbarismoetarik garbi geratu diren hitzen erroak berraurkitu. XIX.eneko folklorismoaren kontserbatismoaren begi bat, jendeak, eta partikulazki, elite kulturalak erro finkorik ez baldin

badu, boterea galtzeko beldur bailitzan. Boterea, guziek susmatzen dugunez, kanibalea delakoan, parasitismoz hazten, aberasten, atzoko “etsaien baloreak (alabaina 1970ko hamarkadeko idazleen diskurtsoa zen, euskara hiritartu behar zela, kaleko hizkuntza baten eredu literarioak sortzeko), oro integratuz handitzen baita.

Literaturaz literatura aipatzen-gauzatzen duen eran, hizkuntzak, ondarren, ez du hizkuntza gauzatzeaz beste helbururik. Gainera, hizkuntzaren inguruko mintzamen barnerakoi horrek, desbideratzeen aurkako medioak planifikatzen ditu:

- erderakadak zerrendatzen dituzten obrak,
- astekarietan “garbiki” solastatzena gomendatzen diguten artikulua,
- kritika literario ordezko, argitaratu obren kritika osoki filologikoa.

Zergatik, ez dugu onhartuko, literaturan direla isladatzen, euskara “garbia”, aberatsa, zaintzeko elitarik ustez kultoenak, egiten dituen indarrak. Guk, laburki ari nahiz, galdera moduan, bideratuko dugun problema bat azaltzen digu, debate honek: hainbeste urteetako borroketan, ez ote du euskal literaturak, hizkuntza propiorik aurkitu, zer ari dira idazleak, hemengoak eta hangoak, aldizka kopiatzen, gertakariei itsu, mintzairaren auhenei elkor, ala gorago menzionatu dugun “hainbeste urteetako borroka” izan da xoilik jende zapalduak klase borroka esprimitzeko zuen ildo bat?

Baina hizkuntza tresna bat bezala kontsideratzen baldin bada, hizkuntza airatzen da, desiraren hegalez, erran ditekeen bizi guzia aiosten du, euriak busti eleekin. Metafora bat gehiago: eman dezagun laborariaren aitzurra; aitzurrak berenaz ez du burdinezko eta egurrezko izateaz beste baliorik. Ordea, baratze ezkinako arrosak lurreztatzeke erabiltzen baldin bada, bere burdinezkotasan ximplea, tranzendatzen du, eta arrosen mundu sinbolikoan kokatzen da aitzurra. Hizkuntzarekin berdin. Hizkuntza, tranzendatzen du eguneroko ihardokitze oldarren esprimitatzeak, ez hiztegi karioetan “garbi”ki atxikia izateak.

2. Hizkuntzak askatasuna eskatzen du

Momentuan badakigu, indartsuenak diren hizkuntza guziek dantzatu dutela, bekoz beko, botereekin, eta halatan, bi elementu lortuz, zapaltzale bihurtu direla:

—ahozkoa eta idatzizkoa separatuz, idatziakoa hiperbaloratuz,

—ahozkoaren erabilpen kasik bakarra zutenak (nekezal munduko herrestak) gizarte erabakitzaletik kanporatuz, folklorizatuz, trufatuz, gerlen bidez globoaren azaletik ezabatuz.

Ez dugu guk, gure artean, horrelakorik gertatzera utzi behar *sous prétexte de réussir en pays basque*, bereizketa injustoa onhartzen hasiz, “euskara ederra” eta “euskara txarra” badela sinetsiz, sinets araziz berdinki, ez dakigu zuen balore/botere kulturalen izenean. Hizkuntza ororen aberastasun kulturala da, ororen biziak kanta arazteko gai. Nola erran? Bertsolaritzaz, pastoraletaz, edo antzerkietaz gain, jendea xehearen neke-minak literatura iragan behar dira, marginalizazioa ez baitugu jasaiten estado zentralen eskutik bakarrik, baina ere, herriko krata “diplomatuen” eskutik. Larriagoa dena.

Ez dugu, alderantziz, legerik gabeko hizkuntzarik hazi gogo. Kultura bakoitzak, eta Jainkoak daki gureak zenbatetarainokoa duen, bere morala badu. Morala aipatzen denean, noski baieztatzen da, moralaren erakaspenen traspasatzeko dretxo zain dezakegula. Hor dago, jostan ari, gure idazle libertatea, eta gure idazle utopiko erresponsabilitate indibiduala.

Hortan dugu ozka. Izkribatzaleak, denetan, eta bereziki gure herrian, sartu behar du, jendatzen arruntaren bizimoduan, haien/gure minak, zorionak, dudak, ikarak, ahalgeak literaturalat iragateko lotsarik gabe, hizkuntzarik libreenean, hizkuntzarekiko beldurrak eat atseginak oro bilduz.

Garaia delakoan, engaiamendu sinpleenaren haraindian, engaiamendu politiko sinplisten eta ezaxolaren artean bide bat baitago, nehor gutik esploratzen duena, interesik, ohorerik ez baita

admirazio iturri imediatorik ez, dirudik, saririk ardiesteko segurtasun izpirik gabekoa, hizkuntza errealitatearekin, edo literatura baita ondarrean, fikziora pasatu errealitate horrekin uztartzeko. Bide zaila da, epelkeria lepora diezakegute, erreferentzia hurbilik gabe aritzen garelako, eremu ezezagunetan galdurik, sentimenduen, autobiografia kurutzatuen hildoan, euskara dagolarik utopia horren zerbitzuko.

Agian, euskararen ganako egiten dudan amodioaren justifikazioak piskak terzermundista ematen du. Ez uste izan, kanpoko idazlerik ez dudala irakurtzen, aztertzen, maitatzen. Ordea, errealista naiz, pesimistegia nerekin, euskal literatura ez dugu aberastuko, bakarrik atzerrietan moldatzen diren gauzak, euskaraz, kopiatuz, gurea ukatuz, deslokalizatuz, atemporalak diren idazkiak plazaratuz; iduritzen zait, humilki, literaturak hemengo kezka planteatu behar dituela, botere guzien aurkako ideologia azalduz.

Libertateak preziorik ez baitu.

Libertatea historikoa da. Urteak, egunak, gauak, batez ere gauak, orduak, mendeak baditu, eta alderantziz, XX. mende bukaeran modan den deslokalizazio eta atemporaltasunak, biek, totalitarismo liberalarantz erematen gaituzte. Gure griñak, griña literarioak ere hemengoak, hangoak, oraingoak, biharkoak dira. Ez dukegu ere Barbier edo Etxepare zenen hizkuntzan, kontatzen ahal bi gizonen edo bi emazteen arteko amodiozko historia, eta langabezia? Atzo, euskara finkatu, zutenek, ezagutu ahal zuten xomagea? Ez, burgesak, notableak apezak, ziren.

Errebendika dezagun beraz, autonomia eta askatasunarekin batera, tenporalitatea, lekukotasuna eta erresponsabilitatea. Saia gaitzezen ere, baina hori ez da hautu kuestionea hainbat, destinu edo burugabetasun puntua da, idazteaz beste bizibide ekonomiko bat ukaitera, gure hitzek, aipatu nahi dugun errealitatea hurbiletik laztan dezaten, eta hitz berdinek, higaduraren nahiz hazten gaituen botere kulturalen makurtzearen usainik ez hartzearen. Ogia xuhur, baina libre. Hitza aske. Libertate ekonomiko horri erantsi behar zaio, Virginia

Woolfek azpimarratzen zuen "gela" famatu hura.

Orohar, idazleak, notable onhartu baino, mistiko izan beharko luke.

Gosea, herria erretzen duen gosea bera ezagutu.

Zati honekin bukatzeko, irratian gaita musika entzuten dugularik, aitor dezagun gure hizkuntza, plegatu, erahil, torturatu, nekatu, exiliatu, apurtu, haizatu, humiliatu, desiratu gogo dugula, herriko edozein pertsonaren antzera.

Honek eman dezake, sari goraiatu batek bezain, edo baino dinamika gehiago, gure literaturari.

III. Idaztearen obsesioa

Ttikitandik hasi nintzen idazten, eta idatz hizkuntza ia bakarra izan dut euskara, ikus dezakezuen eran, aspaldiko amodiozko historia da, kasik amodiozko historia normal bakarra ere nonbait, eta bizitzako garai gogorrenetan, beti ukan dut inpresioa ez nuela gehiago idazten ahal, inpresione sakona, esku eskuin madarikatuaren ezintasuna sentituz, muinetaraino; idaztezin horren gaintitzea, gertatu du frangotan, bizirik irauteko gogoaren aldeko borroka primitiboaren lagun. Krisietarik atera, izkribatu eta gero salbatua izan.

Orduan, irri egiten dut, alde batetik, entzuten ditudanean idazle batzu, harroki esplikatzen dutela, idaztea ez dela behar fisiologiko-biologiko-sikologiko bat, ez dela idaztea pixitea bezala, zerbait diferente agian?, eta maiz, idatz beharra oinarrizko gosearen asetzaren parekoa dela iduritu zait; beste aldetik, adituaren arabera, sobera idatz dezaket... Ba neki... Hor, nere ustez bakoitzak badu bere ritmoa, gosearen asetziko batek daki zenbat jatea komeni zaion. Kantitateak ez dakar beti, gutxitan askoren ahotsez, kalitaterik, (herri honetan ohituak gara, podere kulturala zaintzearen hitzak ekonomiatzen), baina nere kasuan, dudak akatsik handiena ez bide da kantitatea, baizik idazteko inpazientzia, lana hasi eta segidan bukatua dakusdala, eta inpazientiaren ondorio gisa, texto ainitz, urte batzu beranduago, behar nituzke, arindu,

zuzendu, lotura eskasak osatu. Egingo du, fitexko. Kalitate kontu, ordea, ez nuke deusik aldatuko.

1. Obsesioneak

Idazle orok, eta hortan zinez kazetaritzatik bereizten da izkribatzalea, baditu bere obsesioneak. Obra eraikitzen baldin badu, bizitza osoa idatziz, bizpahiru obsesione errepikatuegi agertuko dira orriladeetan zehar:

—Heriotzarena:

batzutan, askatzale azaltzen zaigu heriotza, besteetan lehertzale, bizitza loratu berrien hausle. Heriotzarena euskaldunen funtsezko obsesioneetan kokatzea ongi da, kolektiboki, herrialdeak emeki emeki, bai eta ezagutu ditugun jendeak, zahartasunez, ixtripuz, edo borroketan hiltzen ikusten ditugulako. Kolektiboki, heriotzaren fatalitatea, arras barneratua dugu, barneratzeak ez du erran nahi bistan dena, heriotza errez onhartzen denik. Nere aldian, eta horregatik pesimistatzat jotzen naute, ez dut testu bihi bat izkiriatzen behin bainotan, heriotza aipatuz, ene beldurraren, ene gogoko esperantzaren zutabe.

—Denbora iheslariarena:

Testu guti idatzi dut orainean, hau da presentean, iragana nahiago banu bezala, azken urten hauetan, adibidez, memoriak eta nostalgiaz hazten naizenean. Dena dela, dirudit, salbu bere buruaren justifikatzeko, orainik ez dela, eta balitz ere, neke litzaidakeela orainaren dorpearen onestea. Denbora, memoriatik nostalgiarako hari gisa, zergatik ez gehiago, desiraren bideratzale, memoriaren eta nostalgiamen erdi erdian. Batzutan beldur izuak hartzen nau, gauaren minean, gogoan ditudan guzien obratzeko denborarik ez dudala ukanen, heriotza laster etorriko dela, eta haragiak ere laster higatuko direla, eta itzultzearen zain (zainetan) nagoen bitartean, treinetan sartzen naizenetan salbu, denbora galtzen ari naizela.

—Gauarena:

Are arraroak dira, gauaren magia, gaueko

gaztigurik gabeko orduak aipatu gabe, moldatu ditudan idazkinak, eta “Basilika” egun argiz gertatzen baldin bazen, geroztik ikasi dut gaua maitatzen, kontatzen, esprimitzen; orain, gauaz beste gairik ez daukat. Zergatik gaua? Lehenik, edertasuna, eztitasuna, amodio nahia, lainotasuna, nortasun kurutzatuen eremuan, heriotza gauean kokatzen baita, argiak, zaratak, usainak, bakardadeak, ahalgeak, urratsen hotsak, gauean gauzak eta jendeak hurbilago eta libreago direlako (gauean, ez da botererako hainbeste gudurik, gehien bat gauak jadanik galtzaleak bitzen dituelako) hitzak apaingarri faltsurik gabe erran ditezkeela sinesten delako, mugetarainoko esperintziak jasaiten direlako sinesten delako, mugetarainoko esperintziak jasaiten direlako.

Gauari lotuak dira beste bi hauek ere:

-euria,

-emaztearen presentziak,

obsesiboki pertsonai femininoek zeharkatzen dituzte nere textoak oro, ipuinak batez ere, “gizartean” zapalduenen egoerari heltzeko molde bat baita, “gizartea”ren diskurtso fantasmaticoan bileku, hormatoki. “Urtemuga lehorraren kronika” delakoan, gizonezko pertsonai ugari daude, hor berdin antiheroe direlakoan, desagertzen doan herri honetan, askotan uste ez diren esperantz pindarren jabeak, pertsonai paradoxal bereziak, aberatsak, kontradikzioz beteak errealtatean.

Euria.

2. Gaiak

—egunerokotasuna:

Iparraldeko gazte jendea hunkitzen duten gaiak tratatu ditut maizenik, eta azken liburuan, gazteetaz gaineko globaltasun bat aurkitu nahi nuen, zaharrak, alargunak, mutxurdinak, karlosak, hiriko eta baserrikoak, hangoak eta hemengoak elkarren artean lotuz, globaltasuna, euriaren desira hari bezala harturik. Aipatu dut, langabezia, turistifikazioa, manifak, bakardadea, maitasun eskasak, manatzen/jukatzen gaituen gizarteko kratak inharrostea,

botereak dudak jartzea, gure biziak dudazten dakiten eran, manipulazioneak. Eta oraindik, gelditzen zaigu ahalgearen oinarrien aztertzea. Datozen liburuetan, barkatu izango dira asko dagoeneko, agian, izatearen mineral bilakatzearen prozesoz ariko naiz. Nola irauten dugun, egunerokotasunaren arkaitzetan lehertuz, higatuz, urte gutxitan bapatean zahartuz.

—*arok, paisajeak, musikak:*

idatz orduan, hiru elementu horiek oso garrantzitsuak zaizkit. Ardura, idazten dudanean, zerbait entzuten, ikusten, edo eta senditzen baldin badut, kasik automatikoki hitzetan bizihazten da betiko, ene biziaren denborako behintzat; adibidez, izkribatzen ari naizenean, leihotik, ilargiaren hari mehea dakust, eta sartzen orrialdean, memoriaren flash gisa gerorako.

Baten batek, aurki dezake, nere sinbologia, gehiegixko naturarekin josia dela, hirian egonez, bitxiki, ez diot hiriari, gauzez baino edertasunik atzemaiten, hobeki erran onhartzten. Hiria, nahiko monotonoa da, lanerako edo erakusgailuen presan ez da, sasoinen joanik susmatzen, apenas agian, hain hertsiki, murrizta baizik, eta gauak dena salbatzen, parte bat bederen.

Idazten dudanean, beraz, sukartsu, hipersensible, sentsu guziak irekian nago. Orduan dut, zinez, kontsumitzen, erretzen, aurretik bizi izana oro, orduan dut barbaria gauzatuz konjuratzen heriotz gogoa baretzen, oroitzapena xurgatzen, desira suspertzen. Orduan dut, hitz bakarrez, idazteaz gozatzen.

3. Formak

Gaiak, testuari eskaini nahi diodan giroak, agintzen dit forma, prosa, poesia, edo nobelaren ritmoa hautsiko duen forma, edo poesiari zentsurik gehiena emango diona. Uste dut, poesia batean, adibidez, forma inportantea dela, zuriak, hutsak, benetako hutsak ere sinbolizatzeke. Egiaz, denbora asko iragaiten dut, edozein testori forma egoki baten aurkitzeke. Minari doakion eraketa ahalezkoaren bila, orduak, orduak. Gaia zehaztu

ondoan, forma aukeraturik, errez zait ondorioz, materialki idaztea. Horrek, kantitatea, esplika bait dezake...

Hizkuntzaren formaz, bueno, bost axola. Zuzen idazten saiatzen naiz, moralistez gain, gramatikariak ez bizkarrean ukaiteko beti. Ahal den hizkuntzarik sinpleena erabiltzen dut, ez baitezpada "euskara erreza", baina gaiak hitz arruntak, minberak, eskatzen ditu. Ez noa urrunago. Gaiak du premia ematen.

Nik ere eduki dut garai batean, euskara ustez "aberatsa" haren erakusteko gogoa, ordea, literaturaren funtsa, ez da irakurle denaren "apatatzea", "Basilika"n esperimentatu nuen hizkuntza xumeago bat, eta darrait, ez bide dudalarik sei ehun hitz baino gehiago ibiltzen.

Ahantzera, hau da ikusi dugun eran, deslokalizazioaren eta ateporalitasunaren bidez, eramaiten gaituen sistema honetan, lehen helburua da, bizitzen dukegun egoeran, denetaz oroitzea. Oroitzea, minaren harria, bota dezagun, bidegabekeriaren arpegira. Haserrearen zaina delakoan oroitzea. Nolabait oldarraren premia pilpilean atxikitzeke mendean oroitzea, romantikoa baino askozago da, egunerokotasunari, puntualki ihardesteko modu bat.

Neretzat, idazkin bakoitzan, orohar, momentuan momentuko galdera zahatz bati eman arrapostu bat da, eta galderak izango direno, ugariak azalduko baitira oraino eskakizunak, idazkinak aterako dira. Edozein moldetako galderak: sozial mailakok, politika mailakoak, sentimentu mailakoak, jendarteko harreman mailakoak, mundua zarta araz lezakeen harristu mailakoak... Bistan dago, gaiak ez direla eskas. Hitzak plegatzeko aukera ukanen dugu, segur aski, geroan ere.

Konzepzione horrek erran nahi du, ondarrean, ezerein alor kementsuretan borroka gogorretan ari direnen erdian, lanean arizanez, dudatuz eta bermatuz, irautea komeni zaiola idazleari. Beldurrik gabe, irautea, idaztea xoilik, idazteke plazerra lumapean dastatzeko, ertaroko mistiko iluminatuen

gisara, ohoreetarik, ezagupen sozialen markei elkor egonez, zerbait nonbait salbatzen baldin bada ez baitira preseski aurretik sarituak baizikan salbatuko, baina denak, gosea zer den dakitenak ere barne, batez ere haiek sustut barne. Gertakariak, literatur orrialde bihurtzeko behar dute, idazle bakunaren kriterio eta bahe mentaletan, idazlea denaren obsesioetan zehar pasatu. Alabaina, engaiamendu politikoaz beste, idazleak badu gertakariak, edonork bezala, jujatzeko pairatzeko, justifikatzeko deretxoa. Munduaz duen ilkuspegi orokor indibidualaren idazteko eskubidea, eskubidea eta eginbeharra.

Errebeindikatzen dugu, botere publikoek halako nahikunde berezirik ez eduki arren, onartuz nola integratzen dituzten idazle asezinak, diruaz, laguntzaz, estatuko sozialez horniturik, errealitatearen aktore eta lekuko izateko ahala. Horretan ez diogu ezer errealismo literarioaz, deusez naturalismoaz, deus azken mende hauetako korrenteetaz, baina errebeindika dezakegu gainera, irria, negarra ahalgetik sortua, emozioea eta fantasia.

Ordea, nere iduriko badago denen lekua, Euskal Herriko literatur esparruan, eta ondarrean irakurlegoak manatzen du, gure ustezko demokrazietan, zerga-ordaintzaleek agintzen duten eran. Irakurleek, ihesa bilatzen dute, nobeletan, poesietan ulertezina eta ipuinetan, espektakularra, hain dira ohituak eredu modernoetan, kultura beretarik kanpo den fenomeno dela konsideratzea. Gaurko literaturak, denborak eta lekuak, hausten ditu, zinean bezalaxe, non posible den ihes bidea norberak aukeratzea, edo telebistan, memoria destruitzea, itxuren indar totalitarioaz, bost minutero katez aldatuz.

Bakoitzak bere gisara eraten duen debora honetan, utzi behar da tokia, memoriak hazteko eskatzen duen lineartasun ilusioz beteari, memoriaren minbera arra-osatzen duten liburuei, jakinez memoria intimoa dela.

Bizitzako urrats guziak, laguntzen baldin baditu idazteak, ahalezkoa da kulpabilitatearen, dependentziaren eta kontzientzi on baketzalaren

aurko guduxketan higitzen baldin bagara, hitza bera higa, agor edo indar gabeturik gera dedin. Orduan isiltasuna hedatuko da, eta galdera ezaren egoerari ihardespren mutuak ematen hasiko gara, kontenplazio xoilean, murgilduz. Mendiak, euri zaparradak, esku luzatuak, eta zeruan pasatzen diren urtxoak kontenplatuko ditugu. Idazmenak, bere zikloa bururatua ukanen duelakoan, herioa hurbilduko delakoan, eta gure baitan, bakardadean, kulpabilitatearekin, dependentziarekin, eta kontzientzi onarekin tematurik, galdurik, askataturik, mineral moduan iraungo dugu. Hitzak bata bestearen ondotik lerrokatzeko karaiarik gabe...


Anartean iraun.

Konpromis gutien eginez.

Idaztea otoiztea delarik.



JOAN MARI IRIGOIEN



Nire idatz-esperientziatik

Hitzaldi honi hasiera emateko, orain dela lau-bat hilabete Miramar Jauregian esandakoak gogoratuko dizkizuet:

“Aurtengo udaberrian Jon Kortazar etorri zitzaidan, EHUak bere urteroko Udako Ikastaroa antolatu behar zuela esanez, eta ea parte hartuko nuen mahai-inguru batean. Ezetz esan nion, mahai-ingurura joatekotan mahai-azpian egon nahiago nukeela, suerte piska batekin munduaren zentrura eraman nintzakeen izter gozo leun batzuen paisaia zoragarriarekin topa nintekeela azpi hartan, eta azken batean interesgarriagoak iruditzen zitzaizkidala haragi bizizko izter eme dardarazle batzu mahai-inguruetan sarritan esaten diren hitz antzu eta elkorrak baino. Esan nion, baita ere, ekitaldi publikoak eta jendaurreko mintzaldiak ez nituela gogoko, baina tira, nire idatz-esperientziatik eta nire gauzez mintzatzeko bazen gela batean, jende batekin tonu informalean, baietz, joango nintzatekeela, banuela Deustuko Unibertsitatean lau urte lehenago emandako hitzaldiaren laburpena, eta hura erabil nezakeela oinarri bezala. Handik gutxira Jonek berriro deitu zidan nire kontraeskaintza onartuz, eta orain hemen naukazue.

Aurrera jarraitu baino lehen utzi esaten handik hilabetera edo, gutun bat jaso nuela Euskal Idazleen Elkartetik, proposamen berdintsu batekin, azaroan hitzaldi batzu antolatu behar zituztela eta ea neure obraz hitz egingo nuen: batzuei baiezkua emanaz gero, besteei ezin ezetzik esan, eta azaroan hortxe izango nauzue berriro hor nonbait, hitzaldi honetxekin. Beraz, aurretik abisatzen dizuet, behin aspertuta gero ez bait zintuzket ostera aspertu nahi roilo berarekin”.

Puntu honetara iritsita, hauxe esan behar, geroago ohar-tu nintzela hitzaldiaren ondoren mahai-ingurua zegoela, bestela auskalo etorri nintzakeen...!

Amak kontatzen dit ni jaiotzear nintzela azpikoz gora egin nuela bere sabelean; etorri zen espezialista, aitaren lagun mina zen Arrillaga jauna, zeinek bai bait zekien gure aitaren literaturzaletasunaren berri, umontzi gozo hartan berregokitu ninduen, faja estu batekin gogor lotu eta esan zion amari: “Orain bai, zuzen etorriko da”, baina iritsi zen jaiotzeko ordua, eta orduan ere azpikoz gora egin nuen, aldrebes jaio nintzen. Aitak zangoak aurretik nekartzala ikusi zuenean, pentsatu zuen: “Futbolista”; Arrillaga jaunak ez zuen ezer pentsatu ez ezer esan, hain bait zegoen harrিতuta... baina amari oinazeak pasa zitzaizkionean, zerbait esan behar eta, esan zion aitari: “Aizak, Roman, mutil hau idazlea datorkik... baina surrealista”; amak ez zekien zer zen surrealismoa, baina beste askotan bezala, ulertzen ez zituen hitzak ulertzeko modu berezia zuen, eta aurrean zituen bi gizonei esan zien: “Behin okertutako pagoa ez da inoiz zuzentzen”. Arrazoi zuten hirurek.

Mundura aldrebes jaio nahi izateagatik hilzorian egon nintzen, arnastuka, (mesede ederra orduan hil izan banintz, irakasleek aginduta “Poliedroaren hostoak” irakurri ezinean zabilzatenontzat, ezta?), baina leihora atera nindutenean aire bila, zeru urdin mugagabea ikusi nuen goian, haize-kolpe baten fereka nabaritu masailean... eta arnasa neureganatuz, hura ez zela hiltzeko ordua erabaki nuen.

Beraz, hortxe dituzue dagoeneko nire literaturaren konstanteak izango diren bi ardatz: heriotza eta espazio infinituen beharra.

Hortik aurrera, negar eta nahigabe ooren gainetik, oso haurtzaro zorionsua oroit dezaket, neure jaioterrian, Altzan, beti korrika zelaietan, kilkerren bila edo ezkailu arrantzan, edota futbolearen edo pilotan frontoian.

Aita herriko medikua zen; Roman zuen izena —don Roman—, eta bai nire izaeraren moldaketan, bai nire literaturarako joeran, gizon erabakiorra izan zela iruditzen zait. Ia inoiz amaitzen ez zen bere lana amaitzen zuenean, une librearen bat geratzen zitzaionean, hantxe ikusiko nuen irakurtzen, liburu bat ez zenean, aldizkariren bat, edozein gauza. Espainiar klasikoen poema asko zekizkien buruz, sonetoak batez ere, Lope de Vega-renak eta... baita berak hogeit aldiz irakurri zuen “Kixote”ren zati batzu ere. Berak ere idatzi zituen poema batzu, Aita Onaindiaren “Mila olerki eder” izeneko antologian azaltzen den “Nik zer ez egin, nik zer ez eman?” poema hura lekuko. Oscar Wilde-ren fabula bat ere itzulia zuen euskarara, “Gizandi berekoia”. Euskal idazleen artean, Lizardi zuen batez ere gogoko. Aurrerago poemaren bat edo beste idazten hasi nintzenean, haren irribarre ulerkorra oroit dezaket. Irribarre ederra zuen aitak. Bizitza osoan osasunik gabe ezagutu nuen: horregatik oroitzen dut, beharbada, haren irribarrea, ez bait dago irribarre ederragorik oinazearen lurretan sortutakoa baino. Oinaze horietan asko lagundu zion aitari bere sinesmenak, katolikoa izanik beste munduan sinesten bait zuen, eternidadean.

Zer esango dizuet nik eternidadeaz? Umetango hileta haiek oroit ditzaket, organoaren notak hezurmuinetaraino sartzen zitzaizkidanean, hildakoek arnasa hartzeko pizten zituzten kandela haiek, herriko elizak garai hartan zituen beiradurak, intsentsua, aldareko arrosei zerien lurrina, ulertu ez baina zeharo liluratzen ninduten latinezko hitz haiek... denboragabetasunera nideramaten errekek eta basoak... eta ez, eternidadea ez zen une haietan amets hutsa, errealtatea baizik, errealtate bizia,

posibilitate guztien artean posibilitate bakarra ia.

Aitaren sinesmenetik eta haurtzaroan bizi izandako une haietatik etor dakidake —fisika ahaztu gabe— metafisikarekiko dudan interesa eta joera.

Haurtzaroko beste erreferentzia Biblia da. Katekesira joaten ginenean apaizak kartel handi batzu erakusten zizkigun, eta kartel haietan lur berri eta izen berri batzu ikasteko aukera izan genuen, orduan egin nituen nire lehen bidaiak Israeleko desertu haietara, neure irudimenarekin bai behintzat.

Bizi dugun aro pragmatiko honetan askok esaten didate romantikoa naizela, eta nire izaeraren zati garrantzitsu bati dagokionez, egia da: nire haurtzaroko bizipen horietan egon daiteke romantikotasun horren iturria; bestalde, nahita ere ezin bestelakoa izan, aita 'Roman' izanik: aita nolako, semea halako.

Aitaren ondoan, ama: primeran oroitzen dut nola ume nintzenean, munduko emakumerik ederrena iruditzen zitzaidan; inoiz errota izandako Elgoibarko baserri batean jaio zen, Sallobenteko auzoan, eta hamaika ipuin eta esaera zahar ikasi ditut berarekin. Buruz eta gogoz baserritarra izan arren, erruz gustatzen zitzaion aitak irakurri, eta, berak etxeko lanak egiten zituen bitartean, entzutea, nahiz eta askotan ulertu ez: berarekin ikasi nuen ez dagoela beti literatura ulertu beharrik literaturaz gozatzeko, literatura musika ere izan bait daiteke, musika eta lilura. Gaurko egunean alde batetik poza ematen badit ere nola dabilzan literaturako irakasleak testuak-eta aztertzen, espazioak eta denborak estudiantuz, ikuspuntuak eta pertsonaiak, goiak eta beheak... bestetik beldur ematen didate, aurreiritzirik gabeko irakurketa freskuak oztopa bait ditzakete. Nik behintzat neure baitan bi irakurle horiek bizi ditut: bata xehetasun guztiak miatzen dabilena, hiperkritikoa, neurotikoa, pedantea, eta bestetik irakurle primitiboago hori, zeinek, arrazonomendu eta argudio ooren gainetik, hitzak sukarrak direla sinetsi eta sukarriotatik sor daitezkeen su-pindarren atzetik dabilen. Nire amak hitzen artean sortutako su-pindar horiek ikusten zituen, eta horregatik sinesten du, beharbada, aitak

bezala, eternidadean, eta hura hil zitzaionez geroztik, hor dabil egunero berarekin hizketan, kaixo Roman, zer moduz, ondo al zaude hor ni gabe... Bere boltsan aitak irakurtzen zizkion Bécquer-en poema batzu ditu, eta behin baino gehiagotan ikus dezakegu geure baserritarra Bécquer-en poemak irakurtzen, volverán las oscuras golondrinas, qué es poesía dices mientras clavás mi pupila en tu pupila azul, otoitz bat balira bezala.

Koadro hau osatzeko, garai hartan medikua baserritarrarekin ezkontzea gaizki ikusia zegoela esan behar, baina traba guztien gainetik aurrera ekin zioten, eta urte luzetan ezkongai izan ondoren —tartean gerra eta gartzela—, 1940an ezkondu ziren: bost seme-alaba izan zituzten, ni gazteena.

Norbaitek esan diezadake zer nabilen hemen gurasoen bizitza kontatzen, baina nire obraz-edo mintzatzera etorri natzaizue, eta nire obra ez dago ulertzerik gurasoengandik jasotako mundu hori gabe: mundu sendoa izan zen, artesiari gabekoa ia, eta nahiz eta gero milaka galderaren ondorioz hantzen artekiatuz joan, nekez ahanz dezaket oraindik, ez dut gainera ahantzi nahi.

Lehen poema hamaika urterekin idatzi nuen, Mundaizko korazonisten ikastetxean nabilela, "Carta a los reyes magos": *romantze* bat zen (zer ba, bestela?), baino ez dut gehiagorik oroitzen. Han Ignazio Goikoetxea "Gaztelu" zegoen kaperau, orain dela gutxi omendutako Gazteluko semea; orduz kanpo euskarazko klase batzu antolatu zituen eta han biltzen ginen lagun batzu, berarekin ikasiko nituen bihotz-bihotzeraino sartuko zitzaizkidan euskal kantak, hator hator mutil etxera, Itsasoa laino dago Baionako barraraino...

Mundaizen hasi nintzenean, hamar urte-edo nituela, Alzako plazatik pasa eta puntu egiten ari zen neskatxa ikusi nuen eta nik ez dakit zer gertatu zitzaidan barru osoa jiratu zitzaidalda: ate berri bat ireki zitzaidan, maitasunarena, handik aurrera ez bizitzan eta ez neure obran ahantzi ezingo nuen sentimendua.

Garaitsu hartan, nire arreba bati, urtebetetze egunean, diskogailu bat erregalatu zioten eta harekin

beste ate bat zabaldu zitzaidan, musika klasikoarena, Beethoven, Mozart, Haendel, e. a., musika haietatik sortzen zirèn ustegabeko ostadarretan ikusi nituen paradisu haren hegaztiak lehen aldiz pausatzen, pausatzen eta hegan egiten, ortzearen kontra luma multikoloreen sinfonia marraztuz.

Eta Mundaizen nenbilela hitz berriak ikasi nituen, zeharo liluratuko ninduten hitzak, hizkuntza berriak ere bai —matematikaren akatsik gabeko hizkuntza azpimarratu beharko nuke hemen—... eta handik gutxira Rubén Darío ezagutu nuen, ínclitas razas ubérrimas sangre de Hispania fecunda, eta lilura hura erabatekoa egin zitzaidan, eta oroitzen dut haren antzeko poema bat egin behar nuela bururatu zitzaidala, baina ordurako banekien non bizi nintzen, eta horregatik “Oda a Euskalerría” jarri nion izenburu, eta luma hartu eta idazten hasi nintzen: “Rústico pueblo viril...”. Pentsa dezakezuen ez poema hura ez zen literaturaren historiara pasa, are gutxiago literatura feministaren urrezko orrietara, beren azkeneko kongresuan ez zuten aipatu ere egin behintzat.

Baina aurretik esandako guzti hori orain egiten ari naizen poesi liburuaren poema honetan laburbil diezazuket:

BABILONIAKO LORATEGI GALDUAK

Hautzaroa:

arrosa eta krabelinen polifonia zuri-gorria,
etemidatea, besterik gabe, eguneroko lorea zenuenean.

Hautzaroa:

amaren sutondoko ipuinak —belagileak eta belauntziak—,
aitak irakurtzen zizkizun
Cervantes edo Oscar Wilderen orri horiztatauk
—eiharak eta negu-karnabak—.

Eta hitz haiek,

hautzaroren azkenaldian
haize berrien eskutik iritsi zitzaizkizun harri-zurezko hitzak,
—koleopteroak eta lepidopteroak,
topazioak eta diamanteak,
katetoak eta hipotenusak,
zentauroak eta ninfak—,

ostarku zerutiarren giltzarri bilaka zitezkeen hitzak,
paradisu berrien ateaurre.

Eta neska haren mototsak,
zeinetan egunero bi tximeleta urdin pausatzen bait ziren,
jostalari,
bihotza jauziz-jauzi zebilkizun bitartean,
etemidade batetik bestera,
arrosetatik krabelinetara.

Oroit ditzakezu, baita ere,
lehen hilotza inguratzen zuten lau argi haiek,
beste mundura zabaldutako argiak,
hilkutxaren lau haizeak mugagabetzen zituztenak.

Eta usain haiek,
airearen zaldiek
oasi urrunetatik
bizkargainean zekartzaten usain beroak, sarkorrak, biblikoak,
sandalo eta intsentsu.

Eta uraren pentagrametan
munduaren musika gardena zekarren errekarren gurguraia...

Behin gertatutakoa birgerta daitekeelakoan,
etemidadearen lorategi horietarantz abiatuko zara berriro,
zure gaurko bihotz-taupadei
nekearen herdoila badarie ere.

Batxilerra amaitzen ari ginela, bidaia bat egin genuen Madrilera eskolakideok, eta Toledo-ra joan ginenean sor eta lor geratu nintzen El Greco-ren “El entierro del conde de Orgaz”ekin: orduan ere heriotza, eta aldamenen, grabitatearen legeak hausten zituzten irudi luze gorakari haiek. Aurrerago anaia Manuel (zuentzat Imanol) pintatzen hasiko zen, eta berari esker mundu horretan gehiago murgildu nintzen, koadroak ikusten eta begiratzen ikasi nuen. Eta anaia aipatu dudanez, esan dezadan badudala berarekin zor handiagorik, berau bertan izanik ez bait dut urrutira joan beharrik izaten, ni baino despistatuagoa den beste norbait ikusteko.

Ondoko bizpahiru urtetan mugimendu handia izan nuen: injinadoretza ikasten hasi, futboleko Sansen, euskaraz alfabetatzeari ekin nion, neure



kontura, jakina —uste dut orduan irakurri nituela Etxaideren “Joanak joan” eta Lizardiren zenbait poema—, herrian euskarazko klaseak eman nituen, gauez, Oñatibiaren metodoarekin hasieran, Patxi Altunarenarekin gero. Ekintza hauekin batera beste bi datu aipatu nahi nituzke: izan ere Franco-ren garai hartan haize berriak zetozen mundu zabaletik, zaharrak izan arren guretzat berriak ziren ideologiak —marxismoa, anarkismoa, e. a.—, eta haize berri haien eraginpean kolokan jarri ziren guk jasotako munduaren zutabeak; puntu honetan sexoaren inguruan elizatik jasotako moral estu eta itogarria aipatu nahi nuke —zeina sublimazioan oinarrituta bait zegoen—, eta sublimazioaren lorea bihotzean zimelduz zihoakigun bitartean, hitz berri bat loratuko

zitzagun ezpainetan: askatasuna; gerora askatasunak ere bere espejismoak dituela konturatuko nintzen, sublimazioak bere gauza onak izan zitzakeen bezala, baina horiek beste kontu batzu dira; bigarren datua hauxe duzue: Altzako herriaren desegintza, gero nire izkribuetan hainbat aldiz erabiliko nuen gaia: puntu honi dagokionez, Larratxoko auzotik paseiu bat egitea eskatuko nizuke, orain dorre zatar horiek dauden lekuan erreka miragarri bat bait zegoen orain dela hogeitamar urte, non nire haurtzaroaren unerik ederrenetakoak egin bait nituen.

Eta horrela, hogeitau urte nituenean, euskarazko neure lehen poemak idatziko nituen: “Hutsetik esperantzara”. Bukatu nuenean, Irun Hiriko Sarira

bidali nuen, baita ustegabeen irabazi ere. Zer esanik ez ikaragarri poztu nintzela eta nire idazten jarraitzeko asmoari eusteko lagundu zidala. Sariak direla eta, eszeptizismo handiagorekin ikusten ditut gauza horiek gaur egun, baina gezurra esango nizueke garai hartan sari hark ez zuela nigan eraginik izan esango banizue.

Poema sorta hura ulertzeko, denbora haiek eduki beharko genituzke kontutan: bihotzarekin egindako poemak dira, odol-kolpeka, preparazio handirik gabekoak —irakurri ere gutxi egiten bait nuen nik orduan, ia astirik ez eta—, tolesgabeak. Oraingo perspektibarekin begiratuta, lotsa moduko zerbaitez sentitzen dut horko zenbait poema ikusita, baina geure historia onartzen ere ikasi behar dugula iruditzen zait, eta horregatik atseginago zait lotsaren gaisetiko ironia eta xamurtasunez begiratzea, gero eta lehortzenago ari zaigun bizitzan aspaldiko odol-kolpe haiek beti ere bait dira eskergarri. Poema haietatik aitari idatzitakoak halako zirrara sorterazten dit gaur egun ere, bera bizirik zegoela ezagutu eta irakurtzeko aukera izan bait zuen; Caracas-eko damari eskainitakoa ere hunkigarria iruditzen zait oraindik.

Eta umetan amestutako desertuetara ez, baina handik gutxira Ameriketara joango nintzen, eta han Caracas-en, urte zoragarria egin nuen. Baina Amerikak nigan utzitako eragina ulertzeko, “Poliedroaren hostoak”en idatzitako eskaintza irakurtzea zenukete onena.

Handik itzulita Txillardegiren “Leturiaren egunkari ezkutua” eta Miranderen “Haur besoetakoa” irakurri nituen. Eta haiek irakurrita konbentzimendu batera irisi nintzen: zailtasunak zailtasun, euskaraz ere gauza ederrak idatz genitzakeela, munduko beste literaturetan bezala, horretarako geure buruak gero ete hobeto prestatu behar bagenituen ere.

Eta egun batean pentsatu nuen: “Zergatik ez nobela bat idatzi, euskara hobeto ikasi eta geure hizkuntzan sakontzeko?”

Amerikan egindako urte hartan asko irakurtzeko aukera izan nuen, hantxe aurkitu nuen umetako

ipuinen traslazioa baino ez zen errealismo magikoa, eta haren eraginpean neure lehen nobela idazteko erabakia hartu nuen, “Oilarraren promesa”.

Nik banekien bizitza ez zela zuria ala beltza, tartean kolore asko zegoela, baina egia da, baita ere, errealitatea sarritan gordinegia dela: gordinegia zen Franco-ren garai hura, gordinegia zen Altzan gertatzen ari zen zementuaren terrorismoa... eta nobela horrelakoxea atera zitzaidan ezinbestean, gordinegia, apokaliptikoa.

Ezin uka zementuaren terrorismoaren atzetik erabaki politiko bat zegoela, eta horregatik politika da nobela honetako ardatzetako bat. K. Otegik zioen “Oilarraren promesa-n dirudunek eta agintedunek bultzatutako etxegintza erraldoi basatiak hondatu egiten du Euskal Herri natural baten sinboloa den Azpileko paradisu berde gardena. Helburu didaktiko eta kontzientzi-sortzaileak ahuldu egiten du nolabait liburuan zehar somatzen diren magiko eta hizkera ironiko jolasgarrien bizitasuna”. Nobela ez berrirakurri arren, uste dut arrazoi osoa duela. Gaur berridatzi behar izango banu, beste motako ñabardurak sartuko nituzke, zalantzarik ez. Hala ere bada eritzi orokorrako bat zenbait literaturgileren artean, zeintzuek politika literaturarekin nahasten denean literaturaren kaltetan dela beti esaten duten, eta horregatik ez direla nahastu behar. Eta ni ez nago ados; are gutxiago gure herrian, herri honetan —onerako, nahiz txarrerako— politika izan bait da, eta da, gure amets askoren bultzagarri, gure maitasun eta gorroto askoren akuilagarri. Eta ez al dira, bada, nobelak idazten —nobela gehienak behintzat— gizonon maitasun eta gorrotoak azaltzeko, gizonon ametsak deskribatzeko? Orduan...? Nire eritziz, beraz, kontua ez da politika sartu behar den ala ez, baizik eta *nola sartzen den nobelaren testuinguru orokorrean*.

Bai, beldurra ematen dit nola gabiltzan literaturaren izenean orotako aholkuak ematen, hau egin behar da, hura egin behar da. Literaturaren bide gehienak —guztiak esango nuke— urrututa dauden une honetan, une eklektiko batean

gaudelakoan nago, eta orain arteko bideak milaka izanik, bakoitzak bere aukera egin behar duela. Bide horiei gauza bakarra erants diezaiokegu guk: geure arnasa... hala nola Artetak kubismoan oinarritutako bere koadroei erantsi zien, Picasso, Braque eta Juan Grisen kubismotik eratorritako bere koadro haiei.

Utzi orain aholku edo eritzi horietako batzu aipatzen. (Ez dut izenik aipatuko, ez bait nuke inola ere nahi akusazio bezala har daitezen)

Txomin Agirrerri buruz hauxe irakurri nuen behin batean:

“Txomin Agirrerri gauzak borobiltzea atsegin zaio, berdintasunak bata bestearen atzetik mara-mara jaulkitzea, gauzei alde guztietatik, goitik eta behetik, ezker-eskubitik begiratzea. Esaldi luzeak egingo ditu, aliterazioak, onomatopeiak, anaforak, gonbaraketak, e. a. maisuki erabiltzen ditu. Bere prosa kargatuxea da gaurko idazmoldetarako”. Eta ez, ni ez nago ados horrekin, nobela zerbait baldin bada, jenero literarioen emagaldua bait da, bere buruaz gain beste jenero literarioez elikatzen dena. Eta horregatixe mila forma har ditzake.

Horrekin ez dut esan nahi prosa funtzionala ez dudala gogoko, ezta hurrik eman ere, baina aitortu bai, aitortu nahi dut bidea ez dela bakarra, eta Txomin Agirrerren prosa oinarritzat har daitekeela prosa barroko bat eraikitzeko. Norbaitek esan lezake euskaldunen esentzia grisa dela, eta nik erantzungo diot baietz, batzurenak bakarrik ordea... eta urrutira joan gabe, gure harri-jasotzaileen gehiegikeriak eta idi-temak barrokoak iruditzen zaizkidala... eta zer esanik ez gure mutilzaharren tripa oparo gilbortsu horiek... eta barrokoa erreibindikatzen dudala, ez beste bideen gainetik, baina bai bide bat gehiago bat bezala. Nik, behintzat, euskal nobelaren esentzia aipatzekotan, bakarra aipatuko nuke: euskara. Gero, euskara dela medio —hitz bakoitza ur-tantta bat irudi—, norbaitek ur-xurrusta bat egin nahi badu, ba egin dezala; beste norbaitek ur-jauzi bat, ba egin dezala; honek aintzira, ba egin dezala; hark Sofia Loren-en gerriko kurben ispilu izan daitezkeen meandroz jositako ibaia egin nahi duela, ba egin

dezala... zeren bakoitzak bere aukera egin bait lezake eta exiji diezaiokegun gauza bakarra egiten duen hori ahalik eta hobekien egitea bait da.

Bai, egia da zero gris baten azpian probableagoa dela prosa apalago bat, eta horrek, orokorki hartuta, gizona kondiziona lezakeela maila batean, baina horrek ez du esan nahi derrigor beti horrela behar duenik, kontrarioen joko dialektikoa ere hortxe bait dago, eta desertuaren erdian oasiak aurkitzen diren lez, eman daitekeela prosa barrokoa Zumaiako komentuko isiltasunean edota Euskal Herriko zero grisaren pean (azken bolada honetan ez hain grisa gainera...)

Kargatuxegia omen da Txomin Agirre gaurko idazmoldeetarako. Orduan Lezama Lima batek —euskal jatorriko idazle horrek—, edo Alejo Carpentier-ek ez ote dute idatzi gaurko moldeetan?

Orain dela gutxi ere norbaiti irakurri nion gaurko egunean ez zegoela nobela epikorik idazterik. Baina nola ez da nobela epikorik izango gure eguneroko bizitza —*batzuen*a behintzat— epika hutsa bada, batez ere denbora eta heriotzaren kontzientzia argia eta garbia hartzen dugunean? Ez al da —bizitza horrela sentitzen dutenen kasuan— heriotzera garamatzen segundu bakoitza amildegi bat? Eta ez al da amildegiz amildegi ibili behar izatea haize-errotaren aurka borroka egitea baino askoz latzagoa eta epikoagoa? Ikuspegi horretatik, ez al dira horrela sentitzen duten pertsonak Kixote bera baino kixoteagoak? Horrezaz gain, gaurko gizarteak —eta atzokoak eta betikoak bere heroiak behar ditu: ikusi besterik ez dago Munduko Futbol Txapelketan eta Tour-ean, komunikabideetan mila bider azaldutako gure kirol-heroi berriak. Eta epika da heroien espazio naturala. Egia da, ironia medio, epika antiepika bihur dezakegula eta heroiak antiheroi, eta era horretan beste bide bat urra dezakegula, aurrekoari buelta emanaz: eta bide hau ere oso ongi ikusten dut, baina ongi ibiliz gero... inportanteena ez bait da bidea, bide hori nola ibiltzen den baizik.

Orain, berriz, modernoak izateko, nobela urbanoa idatzi behar omen dugu: baietz, hori ere ondo dagoela

eta egin ere egin beharra dagoela, baina ez gaitezen jendea alferrik nahasten eta alferrik behartzen ibil, eta geure burua enganiatzen ere ez, zeren gauza modernoek hitz egiteak ez bait du berez modernotasuna ekartzen, eta alde horretatik askoz modernoagoa izan daiteke bigarren mendean kokatutako Marguerite Yourcenar-en “Hadrianoren oroitzapenak”, plastikoa eta konputagailuez tratatzen duen gaur egungo edozein nobela baino, arazo nagusia ez bait datza gaian, gaiaren tratamenduan baizik. Horrezaz aparte, zientzia eta teknikaren eraginez kanpo-mundua zeharo aldatu dela esango nuke, baina ez hainbeste gizonaren barne-mundua, honek berdin segitzen bait du espazio eta denbora berriak amestuz, baina beti ere bere gorputz-mugen barruan iraunez, erantzunik gabeko galderetan murgilduta.

Lehengo astean, berriz, euskara herrikoian idatzi behar zela zioen norbaitek eta ez era korapilotsuan... eta nik diot “bata *eta* bestea direla beharrezko”, eta ez “hau *ala* bestea”... eta badirela hizkera korapilotsuan idatzitako nobelak, munduan onenen artean kontsideratuak daudenak, Hermann Brochen “Virgilioren heriotza” lekuko.

Baina “Oilarraren promesa” rekin ari nintzen eta itzul nadin lehen utzitako harira, politika eta konpromezuarenarena alegia. “Hutsetik esperantza” ra liburuaren poema batean esaten nuen ez nuela agintzeko balio, ez agindua izateko, eta neure bideetatik ibili beharko nuela. Baina horrek ez du esan nahi kezka sozialik ez dudarik. Are gehiago, nire kezkarik nagusia une honetan politikoa eta soziala dela esango nuke, lehen aipatu dizuedan metafisikarekiko joerak ez bait du bestea kentzen, nire inguruarekiko kezka alegia. “Oilarraren promesa” n horrela amaitzen nuen:

“Bai, bertan dugu deabrua. Ez dugu froga gehiagorik behar. Deabru horren kontrako borroka gogorra izanen da. Borroka gogorra, baina itxaropenez bete: iraultza berdearen itxaropena. Gogorra eta luzea izanen da borroka, bai, baina noizbait Pelloren oilar berdea bueltatuko da. Orduan, hirugarren aldiz kantatuko du. Azpileko

askatasunaren kukurrukua izanen da”.

Kukurruketarako gaude gaurko egoeran! Zati-zati eginik dagoen gure herrian amildegi ikaragarri bat dago euskaldunon artean, batzuek hemen, besteak han, eta horrekin amaitu beharra dugu, herri bezala aurrera egin nahi badugu behintzat. Eta amildegia handitu beharrean, zubiak eraiki beharko genituzke, zubiak eta zubiak. Nire aspaldiko ametsa, politikaren munduari dagokionez, Euskal Herrian mugimendu gandhizale independentista bat gauza zedin izan da eta da, baina gure herrian beste bide batzuek nagusitu ziren, eta ez dut uste horrek oraingoz erremediorik duenik. Bitartean, guztien artean irtenbide politiko negoziatu bat bilatzekoaren aldekoa nauczue, irudimenari leihoak zabalduz, bakea iruditzen bait zait herri honek une honetan eskura dezakeen helburu eta saririk ederrena. Baina beldur naiz politikariek ez ote dakiten zer den irudimena, gero beren politika errealean irudimenak ezin irudikatuko lituzketen gauzak egiten badituzte ere (istiluak urruti dauden lekuetarako —El Salvadorrerako eta—, hemen aplikatzen ez dituzten irtenbideak aholkatuz, adibidez).

Asko kezkatzen nauen beste gai bat kapitalismoaren ustezko garaipenarena da, Europako ekialdeko herrietan gertatutakoak ikusita, eta guzti horrekin batera etorri den desideologizazioa. Baina nik ez dut garaipen horretan sinesten. Ez dakit nola, baina ezkerrek eta mugimendu sozialek bide berriak urratu beharko lituzkete, egoera honi irtenbide bat emateko, burokrazien bidegabekeriak gogor salatuz, bai, baina baita merkatari berriek —demokraziaren izenean eta demokraziaz baliatuz— ezarri nahi diguten mundua ere, diruan, kontsumoan, individualismoan eta konpetentziarik gogorrean oinarritutako mundu ustel hori... utopiak inola ere ahantzi gabe (justizia, herrien autodeterminazio eta independentzi eskubidea, ekologia, antimilitarismoa, boterearen gehiegikerien aurkako krikтика, e. a.), ezta ekonomikoki azpigaratuta dauden eta “hirugarren” (!) munduan bizitzera kondentzen ditugun herrien egoera larria ere (une honetan ezin aipatu gabe utzi



Pertsiar Golkoko krisia: hortxe bukatzen bait da, hor nonbait, mendebaldeko demokrazia santu eta bakezaleen bake egarria, norbaitek poltsikoa ukitzen dienean...!)

Eta "Oilarraren promesa" amaituta, berriro joan nintzen Venezuelara beste urtebeterako, Maracaibora oraingoan, bertan aspalditik bizi zen Antonio Pérez Esclarín izeneko aragoar idazlearekin, eta han beste urtebete paregabea pasa nuen, klaseak emanez, gauak irentsiz, bidaiak eginez.

Eta handik itzulita, "Poliedroaren hostoak" idatzi nuen.

Barruan sumendi bat nuen, eta lehertutako sumendiaren egitura, edo desegitura nahi baduzue, eman nahi nion; egia da orekaren indarretatik gauza

ederrak sortzen direla (tenpluak, monumentuak, e. a.), baina baita desorekaren indarretatik ere, sumendi baten leherketa ikuskizun zoragarria izan bait daiteke bere ikaragarritasunean. K. Otegik zioen bezala, "Euskal Herriko funtsezko indar eragileen interpretapen sinbolikoa da ('lurra', tradizio, fede, ohitura eta mugikaiztasunaren sinboloa; 'haizea', askatasun, zientzia, asmakuntza eta mugikortasunarena), sintesi osagarri baten bila borroka dialektikoan diharduten indar hauek mamitzen dituzten azken euskal belaunaldien historia (karlismoa, liberalismoa, gerra zibila, frankismoa...) eta egileak bere izaera pertsonalaren bila burutzen duen arakatzea. Protagonista katearen azken maila da, indar dinamiko horien gurutzaketaren emaitza, 'mila pertsona desberdin

bizi ziren nigan', eta alde historiko bakoitzari dagozkion hostoek, aurpegiak, osatzen duten poliedroan bizi da."

Azken finean, nobela honetan gaurko gizonaren konplexotasuna nuen aztergai, gure ustezko nitasunaren barruan beste ehundaka nitasun erroturik baleude bezala: leherketatik sortutako puska bakoitza horietako 'ni' bakoitzari zegokiokoen; gizonaren haustura horiek adierazteko egoki iruditu zitzaidan kapituluak teknika, erregistro eta erritmo desberdinetan idaztea, espazioa eta denboraren etengabeko jauziak tartekatuz, kutsu filosofiko-metafisikoa zuten gogoetak, elkarrizketa poetikoak, anekdota fantastikoak, polizi moldeko miaketa, barne-bakarizketa nahasia, aztikeria, exotismoa, herrikoitasuna, hitz-jokoak, grafismoa, e.a.

Banekien honelako apostuak inperfekzio asko sorteraziko zizkidala, baina garai hartan maiteago nituen—eta gaur ere bai, zenbaitetan—inperfekzioz jositako obra kementsuak, bihotzik gabeko beste zenbait obra perfektu baino. (Neure preferentziez ari naiz hemen; horrekin ez dut esan nahi helburua lortu nuenik)

Oro har, idazle izan nahi duen eta maila batean hori sinesten duen norbaitek idatzia da, "Oilarraren promesa"rekin gonbaratuta, aurrerapauso nabariak azaltzen direlarik (nire ustez, bederen).

Ondotik "Udazkenaren balkoitik" idatzi nuen.

Sarritan pentsatu izan dut herri 'normal' batean bizi izan banintz ez nukeela inoiz nobela hau idatzi edo beste era batean egin nukeela; baina euskaldunok, tamalez, apenas arduratu izan garen geure historia idazteaz, azkenean kanpokoak gehiago arduratu izan direlarik, beren komenientziatzko historia idatziz, hain zuzen.

Nire aburuz, gure belaunaldian eten handiak gertatu ziren, haustura eta salto ikaragarriak, eta nola belaunaldi horri begira ezer gutxi egin zegoen, zerbait idaztea bururatu zitzaidan, guri gertatutakoak herriaren memoria kolektiboan txertatu asmoz.

Nobelarekin batera gero argitaratuko ez nuen egunkari moduko zerbait idatzi nuen: badaezpada

ere eranskin gisa utziko dizuet, azkenean, irakurleen artean masokistaren bat edo beste egon daitekeelakoan.

Nobela idatzita gero, bi lagunen kritika jaso nuen: ez zutela ulertzen nola jarri nituen senar-emazteak hika, sinesgarritasunaren kaltetan zihoala; erantzun nien, alde batetik, herria Ollaran zela, ez zela Altza edo Astigarraga, eta nik asmatutako herrian nahiago nituela harreman horiek hika jartzea, nire inguruko geografia errealean joera nagusia bestea zela jakin arren; bestetik, Euskal Telebistarako egiten ditugun itzulpenetan, batzorde batek aspaldi hartu zuen ontzat hikako tratamendu hori, eta alde horretatik ere ez nuen eragozpenik ikusi; lehengo astean, berriz, M. Matxain bertso-jartzaile eta tokalari ezagunarekin afaritan nengoela, hika eta zuka, senar-emazteak bitara ezagutu eta ezagutzen zituela esan zidan; beraz...

Oro har, idatzi ditudan nobeletatik hauxe gertatu zitzaidan zailena, hasi aurretik errazena izango zela iruditu bazitzaidan ere, giroa bertatik ezagutzen nuelako. Baina zenbat eta hurbilago, gero eta zailago batzutan gauzak...

Eta nobela honekin bukatzeko, esan dezadan oraindik ere gogoko dudan ipuin bat idatzi nuela bertan, gero bere bizi propioa hartuko zuena eta beste liburu batean argitaratuko nuen: "Bakareren gaztelua": lastima inprimaketa eta ortografi falta askorekin argitaratu zidatela!

Eta ondoren, nire azken liburua, "Babilonia".

Projektu honetan aurreko liburuetan jasotako esperientziak baliatu nahi nuen sintesi-liburu bat egiteko: "Oilarraren promesa"tik, eta batez ere "Poliedroaren hostoak"etik, hizkera poetikoan landutako mundu mitiko-magiko haiek berreskuratu nahi nituen; "Udazkenaren balkoitik"etik, tonu errealista. "Poliedroaren hostoak"en ez bezala, guztiz alderantzizko egitura eman nahi izan nion, sendoa, itxia, biribila. Horretarako hiru pertsonak tartekatzea bururatu zitzaidan, zirkunferentzia osatzen zuten 120^otako hiru arku bailiran. Lehenengo pertsonan baserriko seme batek bere abenturak eta desbenturak kontatuko zituen; Mari, euskal

mitologiaren pertsonaia ezaguna, bigarren pertsonaz baliatuko zen beste munduan sartu berriko etxekoandarearen bizitza berreraikitzeke; eta hirugarren pertsonan, idazle orojakile batek aurrekoek utzitako hutsuneak beteko zituen. Nobela hau idazteko primeran etorri zitzaidan amak kontatutako pasarte hau: bera umea zen anartean, eta ilunabar batean argi batzu azaldu zitzaizkion ustegabeen, soinu ikaragarri batekin; ama zeharo izutu zen hura 'Anbotoko señoia' zela itsu sinetsiz; gero zer izango zen hura, eta berak ikusitako lehen automobila...! Nik amaren umetango ikuspuntu hura berreskuratu behar nuen, zerbait liluragarria egitekotan: lortu nuen ala ez, zuek esan beharko zenukete.

Eta nire liburuak alde batera utzita, bai Deustuko hitzaldi hartan eta bai ALTZAKO 1.988ko urtekarian ukitutako hiru puntu ekarriko ditut hona. Urtekarian galdera-erantzun moduan azaldu ziren, eta nik ere horrelaxe ipiniko ditut:

—Non ikusten duzu zeure lekua Euskal Literaturaren barruan?

—Hasteko, gaur egun inoiz baino idazle gehiago bagara ere, oraindik gutxi gara. Hortaz, panorama honen aurrean, ez da zaila lekuren bat izatea, lekua besterik ez dagoen lekuan.

Haatik, oso zaila da nork bere burua inon finkatzea.

Ezer esatekotan, orain arte hegohaizearen eskutik joan naizela esango nuke: hegohaizeak errealitatea eta fantasiaren arteko haustura bizi du, baina era berean badaki nola teilaka daitekeen bata bestearen gainean, biak ilunsentiaren argi malenkoniatsuetan murgiltzen direnean batez ere.

Hegohaizea irekitasuna da, zabaltasuna: horregatik, literatur korrante guztietara zabalik nago.

Beraz, euskal nobelan inoiz ezaguna banintz, nire irekitasunagatik ezagutua izatea gustatuko litzaidake, nire leku hori leku guztietan bailegoan, leku guztietan eta inon ez:

—Zergatik idazten duzu?

—Arrazoiak bilatzekotan, bat baino gehiago aipatu beharko:

1) Gure iragana joana da eta iraganarekin batera bizitza doakigu ihesi. Gure bizitzaren segunduak eskuetako hatzen arteko zirrituetatik ihesi doazkigun ur-xortak dira. Baina ur-xorta horiek ontzi batean jaso eta berreskuratuak izan daitekeen lez, ez ote da gure liburu bakoitza, ihesi joan zaigun denbora hori berreskuratu nahi duen ontzia?

2) Bizitzari begira jartzen gara eta sarritan ametsa dirudi. Liburu baten bidez forma ematen diogunean, ordea, errealitatearen ilusioa ematen digu, deskribatzen ditugun une horiek egiazki gertatu balira bezala... edota une haien gainean beste une batzu sortuz, egiazkoak ziren haiek baino egiazkoagoak.

3) Egia da batzutan, idazterakoan, barregarri sentitzen naizela; egia da, baita ere, batzutan sufritu egiten dudala... baina batez ere gozatu egiten dut, eta gozatzen dudalako idazten dut (hemendik urte batzutura besterik esango dugu, beharbada, baina...): askotan hitz bat bere lekuan, metafora bat... aski dira barnelilura handi bat sentitzeko, metafora hori ni neu transzenditzen nauen zerbaiten adierazgarri bailitzan (mundu triste honetan kontsolatu egin behar eta...)

4) Baina bada beste puntu bat, ni sarritan kezkatzen nauena: banitatea. Ez ote dugu idazten banitateagatik? Nik behintzat, hori dela eta, badaukat edo bizi dut barneborroka bat. Zeren nik nahiago bait nuke idazte prozesu horretan zerbait garbiago balego. Adibidez munduan asko ikusten da, gremio berekoak izanik, batek besteak baino hobeto egitea gauzak eta azken honek inbidiaren antzeko zerbait sentitzea... "Hi, horrek hik baino hobeto idazten dik", eta beno, hor barruan zerbait, garbia ez den zerbait sentitzea. Baina nik ere zerbait esan behar dizuet, gizona bi aldetatik azter daitekeela: alde batetik, bere instintua, bere bat-bateko erreazioak, borondatearen gainetik daudenak; baina gizona egin ere egin daiteke, egiten da... eta nik, behintzat,

badaukat horren aurkako armarik: sublimazioa. Nirea baino hobea den beste idazle baten liburua irakurri... eta lehenengo bekaitzaren ondoren, barruan beste ahots bat sentitu, sublimazioaren suak ezereztatutako inbidiaren gainetik bake handiz eta pozez mintzo den ahotsa: "Hi, bihotzez, zorionak..."

—Beste elkarrizketaren batean zenbait idazle hegoamerikarrek zugan izan duen eraginaz hitz egin izan duzu...

—Hego Amerikara egin nuen bidaiak erruz suposatuz zuen niretzat.

Han beste herri bat maitatzen ikasi nuen, baina han ere ezer izatekotan euskalduna nintzela konturatu nintzen.

Han ezagutu nituen amerikar idazleak beren liburuen bidez: José María Arguedas, Scorza (eta nola sentitu nuen honen heriotza, hegazkin istripu hartan, nire bizi-puska bat harekin batera hil bailitzan!), Sábato, García Márquez, Icaza, Rómulo Gallegos, Vargas Llosa, Miguel Otero Silva, Conti, Mario Benedetti... eta beste hainbeste.

Baina batez ere, Juan Rulfo, liburu bakarreko idazle hori (Liburu gehiago ere idatzi zituen: "El gallo de oro", beste ipuin batzuek eta zenbait artikuluek aldizkarietan, baina haren obra osoa "Pedro Páramo y El llano en llamas" liburu ezagunean laburbil daiteke).

Eta gaur, irratian XIV. mendeko madrigale batzuek ematen ari diren bitartean, Rulfok maiz egiten zuen lez, nik ere begiak ixtea deliberatu dut, eta hegan utzi diot joaten neure gogoari. Eta banoa, bai, banoa, bi altzifrek mugatzen duten burnizko ate baten ondoraino. Atean jo dut, baina ez zait inor etorri. Deihadarka hasi naiz, eta alferrik. Atea nik neuk zabaltzea erabaki dudana arte. Atea irekitzerakoan, kirrink eta karrank hasi da, heriotza burniaren herdoiletik hizketan ari bailitzaidan.

Pauso bat aurrera egin dut, bi eta hiru... eta han hilobi bat: "Aquí yace Juan Rulfo".

Comala-n nagoela ulertu dut.

Eta ez dakit jadanik bizirik ala hilik nagoen.

—Juan, ¿estás ahí?

—Sí —ihardetsi dit, eta hitzik esateko betarik eman gabe, hizketan jarraitu zait:

—Ya sé a qué has venido...

—¿Sí...? ¿Cómo puede ser eso, si ni yo mismo sé...?

—Tú ya sabes lo que dijo el filósofo: "Sólo sé que nada sé", y el que nada sabe lo sabe todo.

—Entonces no es tu caso, porque al saber eso, ya sabes algo.

—Sí, tienes razón... Y porque creía que sabía algo, dejé hablar a Pedro Páramo, ¿te acuerdas?

—Sí.

—Y la gente decía por mí: "¡Ese sí que sabe!" ¿Te acuerdas también?

—¡Cómo no me voy a acordar!

Eskutik helduta bere etxeko liburutegira eraman ninduen.

—Pero lo que la gente nunca supo fue que aquel libro que resumía mi obra no era más que el preludeo de este otro que...

—¿Has escrito, pues, otro libro?

—¡Ay, tú también como ellos...! ¡Y eso que has conseguido entrar en Comala!

—No te entiendo...

—El primer libro fue como la senda que me encaminó al segundo, al definitivo, a aquél en que definitivamente lo supe todo, porque ya nada había que aprender. ¿Quieres que te lo lea?


—Sí.

Juan Rulfok apal batera eraman zuen eskua... eta orduan, orduantxe bakarrik konturatu nintzen hutsik zeudela apalak. Gero, liburu bat hartzeko keinua egin zuen.

—¿Ves este libro?

—No, yo no veo nada...

—¿Cómo vas a verlo, si todo él, si todas sus páginas están hechas de silencio...? —eta liburua ireki zuen.



Eta orduan instant bat, guztira hedatzen hasi zen isiltasun osozko instant bat, iragana, geroa eta oraina, hirurak batera harrapatu bailituan.

Instant bakar bat izan zen, bai... eta niri ere, instant hartan, guztia nekiela iruditu zitzaidan.

Eta amaitzeko nire asmoak zeintzu diren jakin nahiko duzue. Badaukat buruan nobela pare bat, baina lehen esan dizuet hegohaizea dudala gogoko, eta hegohaizea apetatsua ere badenez gero, auskalo zer gerta daitekeen. Bestalde, hainbeste hitz eta pitz egiten den garai honetan isiltasuna ere ez da tentazio makala: galdetu bestela Rulfori! Dena dela une honetan poema-liburu batekin nabil. Lehen poema

bat irakurri dizuet, eta orain beste batekin bukatu nahi nuke hitzaldia, baina utzi aurretik esplikatzeko zeintzu ziren nire asmoak lan honi ekin nionean. Oraintsu esan dizuet korrante guztietara zabalik nagoela: horregatik beharbada sintesis baten atzetik nabil. Mundu zabalera jaiotzeko, gurasoengandik jasotako munduari lotzen gintuen zilborrestea moztu behar izan genuen, mundu bero hartatik ihes egin argi berri batzutura jaiotzeko, heldutasunera(?) iristeko: heldutasun(?) honetatik mundu hura berreskuratu nahi nuke, baina bidean jasotako mundu berriak ahaztu gabe. Edo Ibn Al-Arabi poeta sufiak esan zuen bezala: "Ene bihotza forma guztietara moldatzeko gai da: gazelen larre-belarra da eta kristau monjeen komentua, idoloen tenplua eta

erromesen Kaaba, Legearen Taulak eta Koran
Liburua, maitasunaren erlijioan militatzen bait dut
nik...”

Hauxe duzue poema:

JAIOTERRI

Haizeak eraman zuen haurtzaroko jauregia
eta oroimenaren gelak ere hustutzen hasiak zaizkizu.

(Mendeen hautsa kulunka
zokoetako amaraun poligonaletan)

Bizitza airean desegiten den kea da,
udazkenaren balkoitik dakusazun desolazioaren paisaia.

Baina ametsak ezerezaren lurretan aurkitu zuen bere gorputza
eta zuk ere zerbait solidoa eraiki nahi zenuke
zeure oroit-hondakinen gainean.

Maiatzako kilkerrak
erloju bat zuen bere elitroetan
eta handik isurtzen zituen eternidadeak tantaka bere
segunduak
—basaliliak eta sekulabelarrak perfumatutakoak—
oihanaren habarrotsetan gaindi.

Enarek eta irriegoek espazioa gezikatzen zuten
argiaren galsoroetan
eta altzak zaintzen zuen erreka etxeko neskatxa zen,
uraren gorputz higaezina.

Haurtzaroaren jauregian ez zegoen ezer ulertu beharrik,
usainduz ulertzen bait zenuen mundua,
arrosak eta krabelinak.

Eta loreak zerizkion haurtzaroko udaberriari,
loreak eta loreak,
haragi errugabearen eremuetan
gladiolo gorriak dardar.

Apirilak erbesteratutako usoak
atzera ekartzen zizkizun urriak
eta haien joan-etorrietan ez zen ezer galtzen
mugimenduaren ibai guztiek
eternidadearen ozeano geldia bait zuten helmuga.

Baina iragan zibilizazioetan bezala,
haizeak eta denborak zure betiko tenpluak ezabatu ditu,
hegazti hegal-beltzek bete dute zeruaren urdina
eta bakardadeak habitatzen ditu orain arkitekturaren
eskeletoak,
hugune bat hemen, hugune bat han.

Astunak dira
aire itoaren berunaz eginak dauden hugune horiek
eta denborari espazioaren ahidura dario.

Horrelako hondamenaren aurrean
haurtzaroko begiak berreskuratu nahiko dituzu
eta begion prisma optikoez eragindako inbertsioan
haragi hilezkorrez jantziko duzu iragan errautsiaren
hezurdura,
ilunabarreko zerua kobalto-urdinez,
eternidadez mugagabetuko denboraren iheskortasuna.

Eta azkenean ez duzu jakingo
zuk mundua amestu
ala munduak berak
zu amestu eta amesten ote zaituen.

ERANSKINA

Eta amaitzeko, hementxe duzue testuan
igararitako eta erremediorik gabeko masokista
guztiei dedikatutako eranskina, zeinek
“Udazkenaren balkoitik” elaberriaren idatz-
prozesuan egindako zenbait gogoeta biltzen dituen.

1982

Maiatzak 3

Gogoan ditut oraindik iazko sanmartzialetan
entzundakoak, ‘Mallu’ tabernan kafea hartzen ari
ginela. “Sinestezina da gure herrian gertatutakoa”
zioen Kristinak, “hogeit urtetan, Erdi Arotik XXI.
mendeko atarira, bostehun urtetako saltoa egin behar
izan dugu. Eta batzuek, nik bezala, bi edo hiru
urtetan”. “Bai, gezurra dirudi nolakoa zen Ollaran,
gu haurrak ginenean. Orain, berriz...” zioen Rosak.
“Gu... Ollaran... Nobela bat idazteko gai bikaina...”
bota zuen Xalbak. Gero, aurretik ados jarri izan

balira bezala, mahaiaren inguruan zeuden guztiek batera begiratu zidaten.

Maiatzak 5

1981eko maiatzako ‘Susa’ daukat aurrean. Zenbaki horretan, J.A. Arrietari egindako elkarrizketan, hauxe irakur dezaket: “...Txuma Lasagabasterrek esaten dik (...) historiak kontatu behar ditugula. Galdós erabili behar dela, edo Balzac. Gure ikuspuntuari buruzko eskrupulo horiek, hirugarren pertsona orojakilea eta, gainditu behar ditugula, eta goitik behera pertsonajeak montatu eta pertsonaje horiek dantzan jarri beren artean. Piska bat hi benetan hire obraren jaun eta jabe izan, nika hau hemen jartzen diat nahi dudalako, eta kito”.

Aspaldi nenbilen ni ere ideia horiekin bueltaka...

Maiatzak 7

1) Agustin/Rosa,_Xalba/Kristina, Begoña/ Antton, Bixente...

2) Guk heredatutako munduari hiru zutabe nagusiok eusten zioten: Eliza (bere eragina itzalik mehenetaraino hedatzen zen); Eskola (=egurra), eta Politika (1939an Franco-ren garaipena gertatzen da, Ollaran Itzurunen menpe jartzen dutelarik).

Pertsonaiak eta situazioak nahastuz, nobela luze bat egin dezakedala konturatu naiz, C. J. Cela-ren “La colmena”ren antzera. Edota collageak-eta aprobeztatuz, J. Dos Passos-en “Paralelo 42” bezala. Edo...

Maiatzak 8

Bai: zergatik ez baliatu gure artean gertatutako maitasun istorioez? Era horretan, edonor gal daitekeen nobela erraldoi bat egin ordez, zatitan egin dezaket. Honela, zati bakoitzak —osotasun baten funtzioan ulertu behar bada ere, osotasun horri zabaldutako leiho bat bezala hain zuzen—, bere independentzia erlatiboa gorde lezake, edonori irakurterrazago gerta dakiokelarik. (“Poliedroaren hostoak”en ez bezala, kontutan hartu nahi bai nuke oraingoan irakurlea)

Maiatzak 9

Hiru maitasun istorio eta askatasun oihu bat...?

Maiatzak 10

Baina gure mundua ez zen ezerezetik sortu. Hortxe zegoen, gu jaiotakoan, gurasoen mundua: zergatik ez aprobeztatu jaiotegun horiek, amaren sabelean egindako egun haiek, gurasoen maitasun istorioak birkreatzeko? Era honetan, gurasoen istorioak finkatuta, haien bizimodua erreferentziatzen harturik, hobeto ikus daiteke gure gurasoekiko saltoa, gure haiekiko urruntze, hurbilpen edo errepikapenak (erreferentzi puntu horiekiko, beraz, espiral urrunkorrak, hurbilkorrak edo zirkulu hutsak bezala ager daitezke ondoren egin beharreko gure istorioak).

Maiatzak 11

Zazpi maitasun istorio eta askatasun oihu bat.

Ekainak 20

Gaur hasi naiz gurasoen maite-istorioekin, gu amaren sabelean geunden bitartean...

Gauza bat: ni baino zaharragoak diren pertsonaiak oroitzera, beti agertzen zaizkit pintzelada garbitan, umetan ikusten nituen bezala, bizitzan zehar nire haurtzaroko ikuspuntu hori beste guztiei gailendu bailitzaien. Handituz goazen heinean, berriz, gizona zerbait konplexuagoa dela konturatzen gara. Dena dela, zergatik ez, maila handi batean behintzat, ikuspuntu hori errespetatu? Erretratuak ez dira hain sakonak izango beharbada —gorde ditzadan sakontasunak (?) bigarren parterako—, baina bai freskoagoak, biziagoak, koloretsuagoak.

Ekainak 21

Bai, badakit xehetasun eta anekdota batzuek ezin dutela, berez, errealitatea hatzeman: baina ez da hori gauza, era batean zein bestean errealitatea beti bait da eskuragarria. Gainera errealitate hori milaka ikuspuntutatik izan daiteke aztertua, infinitu

puntutatik ia. Eta nik ez ditut infinitu begi; eta nire begiak ezin ditut infinitu puntutan jarri.

Ekainak 22

Bai, badakit idazten den edozer, guztira ere, errealitatearen deformazio bihur daitekeela. Baina sarritan 'errealitate' hitza bera ere ez al da bihurtzen beste deformazio bat? Zeren errealitateak mila alor bait ditu: batzu neurgarriak (errealitate fisikoarekin lotuta daudenak batik-bat); besteak neurtezinak (errealitate psikologikoarekin-eta lotuta daudenak, esate baterako). Eta neurtezinak diren errealitatearen alor horietan, nork finka litzake errealitatearen koordinada objektiboak? Inork ez. Dena dela gizarteak erreferentziak behar ditu, norabide batean zein bestean mugitzen ari den jakin ahal izan dezan. Horregatixe dugu hitz horren beharra, maila batean erreferentzia ideiala dela dakigun arren...

Ekainak 23

Atzo nioen bezala, idazten den edozer errealitatearen deformazio bat bilaka daiteke. Baina horrek, berez, ez du esan nahi bide hori zilegi ez denik errealitatea adierazteko. Ez al daude, bada, gizonaren barne-errealitate hurbilago Picassok deformatu zituen aurpegiak, kanpo-itxura isladatzera mugatzen den zenbait argazki ziztrin baino?

Ekainak 27

Errealitatea berriro: baina errealitateaz mintzatzerakoan beste errealitate bat eraikitzen omen dugu. Nobela bat idazterakoan, zer esanik ez. Errealitate batetik bestera zubi bakar bat: hitza. Baina hitza monolitikoa izan daitekeen bezala, guztiz aldakorra ere izan daiteke, denboraren zurrunbiloan amildurik dagoenez gero, alde askotako ispilu bihurtuz. Gero irakurlea dator, eta irakurlearen baitan hitz horrek beste hamaika interpretazio har ditzake. Beraz, ispilu bat dugu hasieran, gero irakurlearen ispiluak daude: ispiluaren ispiluak, jatorrizko errealitate ilusio huts bilaka dezaketen ispilu joko etengabeak.

Baina gizona ere hori omen da zenbaiten ustetan: ilusio hutsa...

Uztailak 1

Arrosa bat ulertzeko bi modu daude: bere errealitate fisikoa mugatu, klase guztietako neurriak hartuz, neurri horietan gure arrosarekiko ezinbesteko ulerpena bailletzan... edo begirada haren petalo usainkorren artean galdu, ezer ulertu gabe. Gero eta gehiago fidatzen naiz bigarren bideaz. Beraz, luma hartu eta zuri dagoen orri horren barnean murgil nadin, nobelaren lehen orri bihur daitekeen orri horren barnean, ezer ulertu gabe, bide hori zerbait ulertzeko bide bakarra gerta bait dakidake agian.

1983

Urtarrilak 27

Gurasoen bizitzari buruzko zatia amaitu dut. Amaitu edo... auskalo!

Otsailak 1

Orain gure, edota hobeto, zuen istorioekin hasi behar...

Maiatzak 20

Bukatuxea daukat gure haurtzaroari dagokion zatia. Atzetik datozen beste zenbait puska ere zirriborratuta ditut. Eta hasieran erabaki bezala, pertsonaia guztiei tratamendu berdintsua ematen ahalegindu naiz, horretarako—lehenengo pertsona baztertuz— hirugarrena nagusiki erabiltzen saiatu naizelarik. Haatik, istoriootan gero eta gehiago sartzen ari naizen heinean, beste behar batek bultzatu nau, situazio batzutan, oharkabean, bigarren pertsonaren ikuspuntura irristatzen bait zait luma: ustegabeko gauza da, nire hasierako asmoetatik at dagoena. Nola gertatu zaidan ere ez dakit, baina behar hori barru-barrutik sentitu dudala, hori ere ezin uka... behar horren arrazoi sakona arrazonamendu ororen aitzinean bailegoan, odolaren taupadei lotuta. Eta odolak bultzata ziurki, bat-

batean 'hika' aurkitu dut neure burua hizketan, 'hika' zuetako bakoitzarekin: instintuari zor diodan errespetu soilagatik bultzada horiek errespetatzea erabaki dut.

Maiatzak 22

Antonio Saura margolariari hor nonbait entzunda edo irakurrita: "Todo cuadro es un autorretrato". Horren arabera zuen (?) gainean eraikitako kontaketa biografiko horien atzean, nire autobiografia ote? Eta hala balitz...? Eta hala bada...?

Maiatzak 23

Hala bada, hala bedi.

1984

Urriak 21

1) Hasieran, pertsonaiak hurbiletik ukitu behar nituzenez gero, lana erraza iruditu zitzaidan. Baina aurrera noan neurrian, uste baino zailagoa egiten ari zait, askoz zailagoa. Izan ere hain da erraza neurritik kanpo ibiltzea, eta hain dira zailak xamurtasun eta kurtsileriaren arteko mugak bereiztea, batez ere lagun batzuen bizitzetan sartu eta gehiegi barneratzen zarenean, perspektiba galduz!

2) Egin eta desegin, berriro egiteko: eta hala ere ezin inoiz kontent egon...

1985

Ekainak 30

Zuzenketak bazter utzita, idatzi behar nuen guztia idatzi dut. Orain, dagokion lekuan jarri behar zati bakoitza...

Irailak 6

Irakurle: zure aurrean dago liburua.

"Gu... Ollaran...": hortxe duzu zortzi kapitulutan, Ollarani zabaldutako zortzi leiho bailiran.


Baina ez ahantz beste hamaika leiho zabal

zitekeela, zabal daitekeela. Nire aukeran, literatur munduaren inguruan dabilen (edo ibili den) jende dextente azaltzen da proportzioan: haatik, ez pentsa gero ollarandarrak oro literaturzaleak direnik.

Beste ohar bat: sarritan jendeak aise identifikatzen du gizona taldearekin, talde bereko pertsona guztiak berdintsuak bailiran: esan nahi bait da nobelan zehar norbait anarkista dela aipatzen bada, horrek ez duela esan nahi anarkista guztiak berdinak direnik, existentzialistak, marxistak... borroka armatuan dabiltzanak edo pazifistak —nor bere taldean— berdinak ez diren bezalaxe. Beraz, nire istorioak istorio konkretu batzu dira. Ez ahantz elaberri baten aurrean zaudela, ez dela entseiu bat.

Nobela leihoz leiho egituratua duzu, lau leiho lehenengo pisan, beste lau bigarreanean. Irakurle, leiho bat zabaltzerakoan, bertatik eskaintzen zaizun bista atsegin ez bazaizu, badakizu zer egin: itxi, eta ireki hurrengoa... pazientzia duzun arte behintzat.

Altzan, 1990eko abenduaren leian



“Gaurko literatura”




Txuma Lasagabaster

Mahai inguru honekin “Broche de oro” delako bat jarriko diegu gure jardunaldiei eta hemen dauzkagu gaur parte hartu duten lau idazle. Mahai inguru honen gaiak izango dira egunean zehar eztabaidatu diren hitzaldiak. Orduan, hasteko, hizlari bakoitzari aukera emango diegu laburpen txiki bat edo egiteko. Hitzza Gandiagari ematen diegu.

Bitoriano Gandiaga

Goizean *Elorri* hizpurutzat hartuta abiatu naiz, baina horren aurretik nahi izan ditut oinarri batzuk jarri. *Elorri*, esan dut, parterik nagusienean espresioa lantzeko saio bat dudala. Orduan espresioa lortzeko, lehendabizikoz berreskuratu, neuganatu egin behar izan dut nik honetan erabili izan dudana hizkuntza. Gure garaian, gure formazio denboran, hau da, 1940tik 1955era ez genuen bide handirik euskaldunen



hizkuntza berreskuratzeko, hala ere, taldetan eta lagunartean lortu genuen zerbait behintzat. Lehenengo lortu genuena da hizkuntzaren berreskurapena. Zertarako hizkuntza berreskuratu? Literaturarik ez dago hizkuntzarik gabe, hori argi dago. Orduan, hizkuntza zehatz bat lortzeko gure esankizunak, gure pentsakizunak, pentsamenduak, gure sentikizunak, bizikizunak, ikusten ditugunak, nabaritzen ditugunak, entzuten ditugunak, horiek, plastizitatez espresatzeko behar da hizkuntza eskuratu, menperatu eta gauzaren tresna bihurtu. Eta hori egiteko hasi nintzen poema txiki batzu, prosa txikiak idazten. Eta lehendabiziko poema asko dira hizkuntzaren errekupeazio eta estiloa formatu nahiaren ahaleginaren fruitu. Gero eskuak eta hankak, edo besoak eta hankak nola erabili ikasi nuenean sartu nintzen ur handiagoetan eta nere kasa egin izan dut Elorriren zatirik nagusia, nere kabuz, indarrez eta asmamenez. Baina hizkuntza berreskuratzeko ahaztu behar ez dena da autoreen irakurketa. Eta nik imitatu egin dut, luzaro eta autore asko imitatu ditut. Beste hizkuntzetakoak ere bai, jakina euskaraz, baina imitatu egin ditut. Eta gero hortik abiatu naiz nere gauzatxoak nire kasa adierazteko. Hori da Elorriri buruz labur esan nezakeena zeren, beno, gero *Elorri* bere izatez sinbolista eta intimista ere da. Eta *Elorri* bera da lehenengo sinboloa, bizitzaren sinboloa. Elorri da arbolaxka lakar, takar, zakar, nahi duzuen, paraje malkarretan hazten dena, eta nik hori nere bizitzarekin eta gehienbat giza bizitza osoarekin parekatzen dut. Denortzako delako lakarra bizitza, eta hala guk nahi ez ditugula, gure barnetik sortzen zaizkigun geure burua bera mintzen duten arantzak. Baina geure barrutik sortzen zaizkigu geure burua apaintzen duten hostoak ere eta lorak, eta fruituak. Elorria hala ikusten dugu eta hala gertatzen da. Gero, *Hiru Gizon Bakarka* aboratu dut. *Hiru gizon bakarka* batez ere da fijatzen bat euskaldungoaren kinka larria bizi garen esparruaren barruan. Eta hau ere sinbolo baten bidez, hemen ere sinbolo handi bat dago, txakolinarekin konparatzen bait dut: txakolina ardo da, baina ez da ardo bezela errekonozitua, aitortua eta hartua, baina horrek ez du esan nahi ardo ez denik. (...) *Uda batez Madril*en hizkuntzazko beste borroka bat da. Madril industrializatua, Madril tramankulu izugarria begien aurrean. Berak hitzegiten zidan bere jeometriaz, bere jendearen mugimenduz... beno, eta orduan nahi nuen hori menderatu eta nere hitzera ekarri, nere herrira, oroigarri bezala eramateko Madril en retratu bat. Eta horrelako saio bat da. "Denbora galdu alde". Ba hori. Psikiatrak eskatzen zidan denbora galtzen ikasi behar zela. Eta denbora galtzeko neretzat modurik atsegina eta gozoena da luma bat hartu, paper bat hartu eta bururakizunak isladatu, jarri, ipini. Eta hala sortu zen *Denbora galdu alde*. Eta *Gabon dut anuntzio da gabon kanten eta Gabonaren inguruan ondutako* eta adiskideen eta festaren inguruan literaturaren kezkaz baino, lagunarte eta taldeko giroa sortzeko, idatzitako liburuxka.

Bernardo Atxaga

Gandiaga gozo bezala, ni gaur goizean zakar samar aritu naiz edo esan beharko nuke, berak aipatu duen *Elorri* horren pare, aritu naizela lakar, zakar eta takar. Gaia nuen, hemengo batzuk dakizuen bezala, oso zabala, euskal literatura, eta hasieran



arrazoitu dut esanez gai horrek ez zidala biderik ematen zuzenki literarioetaz hitzegiteko, alegia, ez zegokidala niri, behar bada idazle 20 urte edo 25 urte lanean eman dituen idazle honi, idazle batek zer idatzi behar duen esatea, zer hartu behar dituen aintzat edo zer formak, edo zer liburu hartu behar dituen. Iruditzen zait, idazleak zerbait baldin badu, altxorrik baldin badu, hori askatasuna dela eta irakurleak bakarrik erabaki dezakeela berak askatasunez egindakoa. Orduan, gauzak horrela, gaia beste alde batera joan zait eta hasi naiz literatura horren barruan kabitzen den hainbat gauza aipatzen. Esan nahi dut, literaturaz hitzegiterakoan, zergatik ez, editoriale euskaldunen gainean hitzegin genezakeela, edo hitzegin genezakeela hizkuntzaz. Eta hor hasi da gaurko auzia, zeren hizkuntzaz pentsatzen hasten naizen bakoitzean kezka handiak izaten ditut, batez ere guk hizkuntzaren inguruan antolatutako biaje honetan ez dugulako oso orientazio onik ikusten, ezta? Adibide bat jarri dut, edo hobeto esanda, metafora bat, dortokarena, eta esan diet Etiopiaren irakurleei behin eztanda atomikoa zela eta, Galapago Irletan dortokek bere orientazio sena galdu zutela. Eta itsasora beharrean desertura joaten zirela, ustez itsasora zihoazela. Beraz, dortokak ura behar zuten eta ustez abiatzen ziren itsasora baina aitzitik desertura jotzen zuten hil arte eta orduan metafora honen bitartez orientazioaren garrantzia azpimarratu nahi nuen. Eta nere inpresio piska bat gautiarrak kontatzen nituen, piska bat ezezkorrek era bai, beharbada, eta kritika egiten nion, alde batetik Eusko Jaurlaritzari, gero bigarren go zatian kritikatzeko nuen oposizioa eta kritikatzeko nuen Herri Batasuna, batez ere Egin eta bere kultura informean esandako kontu batzuk, eta seguruasko konturik bai arriskutsuena eta bai zailena eta askorentzat mingarriena izan da nola nere ustez ezin den euskararen salbazioa gazteleraren errautsekin lotu, nola jartzen baldin bada dortoka hori aurrez aurre gaztelerarekin bataila jotzeko, 1) bataila galdu egingo duela, 2) irabazita ere, izango dela bai gizarte aldetik eta bai kultura aldetik benetako suntsidura bat eta azken batean jokaera absurdo bat...

Itxaro Borda

Nik bazkalondoan hitzegin behar nuen eta oso zaila egin zait. Aipatu dudana, nola erran, nahasia iruditu zait. Nere gaia, eman diodan titulua zen “Desorekaren auspez” eta nahi nuen esplikatu gure gizartea edo jende-arte oro desoreka funtsezko batzuetan oinarrituak direla. Desoreka horrek minak sortzen dituela eta adibide bezala bi min mota aipatu ditut. Hau da: ahalgea eta kulpabilitatea eta ignorantzia. Hortik urrunago joanez esplikatu dut nola neretzat oso inportanteak ziren gizartean orokorki, eta batez ere ifarraldean, agertzen diren desorekak.

Joan Mari Irigoien

Ni hasi naiz kontatzen aldrebes jaio nintzela eta aldrebesko ofizioa hartu nuela. Gero esan dut nire idatzi esperientzi honetan eragin handia izan duela ingurugiro familiarrak, batez ere aitaren aldetik, literaturzalea zelako eta beti bultzatu izan nauelako, bizi izan zen bitartean. Gero aipatu dut zabalik nagoela korrante



guztietara eta iruditzen zaidala bide guztiak onak direla, ondo ibiltzen baldin bagara, hemen sarritan ibiltzen gara bide hau ala bestea, eta ni bide hau eta hau eta bide guztiak. Baina eraginen bat azpimarratzekotan nik bi esango nituzke, bat erromantikoen eta bereziki Alemaniako erromantikoen eragina nabaritzen dudala bai nire bizitzan eta bai nire gauzak ikusteko moduan, eta bigarren, nire bizitzan erabakiorra izan den gertaera: Altza nire herriaren edo nire herria zenaren desegintza. Kontatu dizuet nola zen garai batean herri txiki horietako bat, polita, bere errekarekin eta horrela, eta gero nola ailegatu zen zementoarean terrorismoa eta nola hantxe hil zuten nere haurtzaroa eta nola orain nahi gabe askotan idealizatzen dudan paradiso hartara itzultzea.

Joseba Barriola

Poztu nau Irigoien entzuteak. Irigoienek esan duenean Altza dela bere paradisuaren ententitu diot Altza, etxeak eta hango bertsolariak, bigarren eragin handia bezala. Ez bada horrela ez du inporta. Ez duzu esan baina hala ententitu dut nik. Bernardo Atxagari entzun nion Bergaran hitzaldi batean Pello Errota izan zela funtsezkoa bere eboluzio literarioan. Eta nik dakidanez, Arestik, bertsolariengandik ikaragarri jaso zuen, eta Bitoriano Gandiagari ez diot aditu honetaz ezer. Nahi nuen jakin bertsolariek zer eragin izan duten berarengan.

Bitoriano Gandiaga

Ez dakit esan dudana ala ez dudana bertso erara atondutako zatiak badirela *Hiru Gizon Bakarkan*. Eta hala dira. Bertsolari moduan batzuetan nonbait esan dut, profeten moduan, beste batzuetan. Nik bertsolariak baino lehenago koplak ezagutu nituen, Santa Agedako koplak eta beste eske koplak, dantza esketan erabiltzen genituen eta batez ere erromerietan jende gazteak ni ume nintzela erabiltzen zituenak. Eta horiek, *Elorri* aztertzen baldin baduzue, *Elorri* daude hots horiek, koplak hotsak, eta badago bertsoena noski. Nik ezin nezake uka ez dudala zerikusirik bertsolariekin eta emango nizkizuke hiru alde Arantzazuko etxebarruko festetarko egin edo ondu izan ditudan bertsoz. Bertsolarien erara, gisara, aidera, ondutakoak. Lagunak egin dituzte ale horiek, bilduz joan dira eta hor daude.

Bernardo Atxaga

Eskatu bezala basoaz hitzegingo diat eta ea labur hitzegiten dudana. Nik alde askotatikan zerbait behar nian, baita teknikoan ere, idazterakoan beti daukaldin alderdi tekniko bat. Behar duk asmatu leku bat, non pertsonaiak alde batera eta bestera ibiliko diren eta nik behar nian leku bat buruan neuzkan historiak kontatzeko eta orduan, leku hori erdi aroari buruz idatzitako liburu bat irakurritakoan aurkitu nian. Zeren liburu hartan kontatzen zen, erdi aroko anakoretan arazo latz bat, anakoretak nahi zutela bere aurreko ekialdeko anakoretak egin zutena egin, deserturatu, hori da, urrundu kulturatik, leku landuetatik, hirietatik, lege esparrutik, eta joan desertura, non pasa behar zituzten probak, non aurre egin behar zioten



bentaldiari edo azeriari, non bere bihotzaren eta buruaren indarra erakutsi behar zuten. Baina erdi aroko Frantziako, esate baterako, anakoreta horiek ez zieten deserturik aurkitzen eta orduan halako extra-leku bat bilatzerakoan jo zieten basora, zeren basoa ere huen leku bat, landuetatikan at zegoena, legerik ez zeukana, bizitza basatia aurkitzen zen leku bat, hori huen basoa, modu sinbolikoan desertuaren pareko. Baina ez hituen baso horretara joaten bakarrik anakoretak, baizik legearekin edozein arazo zituzten guztiak basora egiten zieten ihes eta bataila jo eta galdutakoak ere, presondegitik libratzeko ere basora joaten hituen eta kortean asperturik eta ezin biziz zebiltzanak ere basora joan eta erretiratzeko hituen. Orduan, basoa bihurtu huen, gaur esango geniakek, marjinatuaren leku bat. Eta esan bezala, eta adibide asko daude literaturan, eta urrutirago joan gabe, Amandre ipuinak, Txanogorritxo, Elurra Bezain Zuri eta horiek guztiak gertatzen dituk basoan eta ez esate baterako ruralitatean edo hirian. Zeren, ruralitatea izango hukek hiriaren kontrakoa, baina basoa ez duk ruralitatea, ez duk hiria, baizik duk kulturaren aurkakoa. Hori aurkitu nuen garaian bapatean jakin izan nian gure jendearen zenbait gauza. Esate baterako, Pello Errota irakurtzen. Egin zuen, edo diktatu zuen liburu bat “Pello Errotaren bizitza” izenekoa, non nere ustez basoko pentsamendua azaltzen zen, zeren, Euskal Herria, pentsatzen jarrita, zentzu hertsian, Euskal Herria baita ere beti egon duk extra-leku batean. Eta orduan pentsatu nian bapatean banuela material pittin bat, txotx batzuk banituela su txiki bat egiteko eta lekua ere ondo egokitzen zitzaidala. Eta horregatik aurkitu nian basoa eta aurkitu nian gero Pello Errotaren alabak kontatutakoa. Bertsolaria beti ondoan eduki izan diat, gero nik ez diat jo forma aldetik bertsolarien aldetik, baizik eta beharbada beste forma kultuago batzuetatik. Oraintxe bertan hik aipatu duk Gabriel Aresti, eta nik esango dut Gabriel Arestik aipatzen zuen Txirritaren bertso bat, Arestirentzat poetaren egoera soziala ezerk baino hobeto definitzen zuena. Bertsoa huen:

*Etxe maiorazgua
nintzen tokamentuz
baldin zerbitu banu
aita pulamentuz,
ene bizimodua
beti dabil kantuz,
despatxatuko naute
ez banabil kontuz.*

Entzule batek

Itxaro Bordari. Zertan datza zure askatasunik eza hizkuntza aldetik?

Itxaro Borda

Zaila da ihardestea. Hizkuntza aldetik, ez dakit, nola erran? Beharbada gai batzu tratatzeko hizkuntza piska bat harrizkoa bezala gelditzen dela eta ezin dudala mementuan harri hori zitzelkatu edo hautsi edo... Orduan askatasunaren muga hizkuntza mailan asko dira.



Entzule batek

Bernardorentzat. Euskara erdararekin salbatuko dela esan duzu eta orduan egingo dizut galdera. Ni ados niagok hirekin gauza askotan. Seguruaski, beno, seguruaskirik gabe tamalgarria izango litzatekeela euskara salbatzea euskara inposatuz hemen erdara inposatu den bezala, basakeria guzti horrekin. Baina beste alde batetik badakigu soziolinguistikan konprobatuta dagoela ezinezkoa dela hizkuntza bat salbatzea elebakartasunik gabe. Hitzezin dezakek piska bat horretaz?

Bernardo Atxaga

Aurren aurrena esango diat nik ere entzuna diat hik aipatzen duan teoria hori, alegia, hizkuntza bat aurrera ateratzeko bi hizkuntza daudenean derrigorrezkoa dela elkarren arteko lehia eta borroka; eta hor, lehia guztietan bezala, bat ateratzen dela irabaztun eta bestea galtzaile. Neri, egia esan, hori iruditzen zaidak fantasia bat. Esan nahi diat, nik ez dut uste hori horrela denik, eta gainera nire sentimendu horretarako asko laguntzen zidak zientziari, hori da, teknologiari diodan amorrur handiak. Uste dut gaur zientzia dela erlijio berri bat eta mintzazen dela egiaz mintzatuko balitz belaza, eta hori, fisikan gezurra dena, linguistikan are eta gezurragoa da. Niri oso zaila iruditzen zaidak pentsatzen jarrita zer nahastu eta zenbat eragile dituen gizarte batek. Eta egia bada elkarren ondoan dauden bi hizkuntza elkarren mokoka hasi behar dutela, orduan horrek fatalki adierazten du ez dagoela beste erremediorik, esate baterako azken muturrean arrazista izan behar genukeela. Nire ustez hori duk esatea bi herri elkarren ondoan bizi baldin badira, eta hizkuntza ezberdinak baldin badituzte, orduan bukatuko dutela gaizki elkarren artean. Beharbada egia izango duk, hipotesi bezala ametitzen diat, baina ez diat ametitzen egia, zientzia bezala, ez dakit non probatu den hori. Gaurko gizarteari begiratuta, hemen euskaldunak ez ezik, euskaldunak erdaldunak gaituk ere, badaudela gero erdaldun gorriak, gure irtenbide bakarra duk, erdaldun horiek, gehiengoa direnak, erdaldun gorri horiek amore ematen baldin badigute eta beraiek jartzen baldin badira euskararen alde edo guk lortzen baldin badugu euskara izatea beraien arazo bat, orduan seguruasko euskara aterako duk aurrera. Zeren inori ez zaio bururatzeko gerra bat planteatzea gutxiengo bat garelarik, itxoin dezagun piska bat. Planteamendu hori aurrean jartzea, etsaia sortzea azken batean, hori batere komeni ez zaigun gauza bat duk. Nik uste dut euskaldunok saiatu behar dugula baita ere beraien ikuspuntua, hau da, erdaldun gorrien ikuspuntua ulertzen eta saiatu behar dugula gizarte bat egiten. Iruditzen zaidak hau dela bide praktikoa bat.

Entzule batek

Uste dut Jon Juaristik esan zuela sinbolismoa eta postsinbolismoa modaz paseak daudela, eta orain hasi gara hemen txakolina eta horrelako gauzak aipatzen. Nik bide horretatik segituko dut. Iruditzen zait azken diskusio horretan, hizkuntzaren kontu horretan, lehenengo nahiko sintomatikoa dela literaturaz hitzegiten hasi, edo arkitekturaz, eta hizkuntzari buruz hitzegiten bukatzen dugula. Horrek esan nahi



dik kezka bat badagoela eta hor badagoela problematika bat gutxienik. Eta iruditzen zait hemen planteatu den diskusio hori hizkuntzekiko errespetua eta eremu edo alor edo barruti elebakarrak sortzearen beharra... Esan nahi dut gauza bat dela erriberan zer egin behar lukeen, eta beste gauza bat da esatea euskarak berak bere osotasunean desarroilo bat izango badu behar duela toki minimo batzu, laboratorio minimo batzu. Lizardik esaten zuen “noranahiko”, “noranahiko” gauza guztietarako, eta barruti horiek eskatzea nik uste dut dortokaren aldetik ez dela gerrako estrategia bat. (...) Hizkuntza desarroilatu gabeko bat, eta desarroilatuko bada eta joango bada beste tokitara, hau da, lege kontutara eta instituzioetara etab., izan behar duela laboratorio guztiz elebakarretan. Niretzako hori oso garbi dago baina ez dut onartzen esaterik hori defenditzen duen guztia dela borrokalaria arin bat. Uste dut eskubide minimo bat dela eskatzea gure aldetik. Altzako terrorismo urbanistikoarekin batera bese terrorismo klase bat hizkuntzarekiko egon da. Orain nik galdetzen dut, zer egin behar du dortoka gaixoak ikusten duenean Altza horrela dagoela? Hori ere kultura bat da, hori ere kulturizatu egon da. Lehen basoa eta zelaia zena orain oso kulturizatua dago. Zein da postura demokratikoa, edo ez dakit nola esan, errespetuzkoa? Bere hartan geratu dadila, dena bota atzera et hor bizi direnak desertura bidaltzea, edo zer? Esan nahi dut ematen duen baino kontu konplikatuagoak direla.

Bernardo Atxaga

Nik nire bizitza guztia egin dut euskaraz, nik apunteak hartzen ditut euskaraz eta jeneralean gainera, zirkunstantzia batzuk direla eta, uste dut %99a nire bizitzan azkeneko bost urte hauetan, euskaraz baizik ez dudala egiten. Ez dakit, hemen nik esandakoak, gero nik esandakoari buruz hartu diren interpretazioak, piska bat kezkatzen hasia nago. Oso desberdina da esatea euskara halako egoera txar batean dago, eta gainera berak ez du inolako kulparik horrela egoteko eta orduan egin behar da plangintza bat, egin behar da zorrotz jokatu, diru batzuk jarri, erabaki politiko batzuk hartu hizkuntza hori aurrera atera dadin. Beste gauza bat da, eta oso desberdina, irakurtzea programa politiko batean edo zenbait artikulutan gaztelera dela hizkuntza arrotz hori, gure etsaiena eta hemen etorkizuna dela Euskal Herri bat, non hizkuntza bakarra izango den euskara. Hori oso planteamendu ezberdina duk, niri iruditzen zait disparate bat eta horren aurka nago. Gainerako guztiak, indar politiko bat egin behar dela, dudarik gabe. Nire ustez oso gutxi egiten da, horrekin erabat konforme nago. Orain Irigoieni utziko zioat hitza. Beste jakituria bat bazegok, beharbada Irigoienek Altzaren interpretazioan ematen duena, baina hori neretzat sare poetiko bat duk, eta berak sare poetiko horretan esaten dudana bezala arrain batzuk hartzen dizkit, baina hik esandakoa hizkuntzaren alde, zer esango diat...

Joan Mari Irigoien

Nik Altzarena bizi izan diat guztiok pentsa dezakezuen bezala, era traumatiko batean, eta egia duk hik esan dukena, hura zer zen eta orain zer den, eta hizkuntzaren



aldetik ere, nik ez zekiat, garai hartan ni gogorutzen nauk, batez ere zazpi urte nituenean edo, baina zailak hituen, badakik Francoren garaian debekatu egin ziaten gerra ondoren euskaraz egiten eta ba hituen euskaraz hitzegiten zutenak. Nik pentsatzen diat borroka guzti honetan erdarak izan duela bentaja ikaragarri handi bat, alde batetik Frankoren diktadurarekin, eta beste aldetik izan den inmigrazioarekin. Niri iruditzen zaidak jokatu behar dugula postura bat, nik beti gauza bera esaten diat, postura bikoitz bat: alde batetik ezkuzabalak eta beste alde batetik egoskorrak. Egoskorrak ez bagara alferrik gabiltza, eta eskuzabalak ez bagara, iruditzen zaidak ez gabiltzala hor gizalegez jokutzen ari. Orduan, euskararen inguruan falta zaigula oraindikan halako harrotasun bat. Harrotasuna esaten dudanean ez diat esaten harrokeria. Hori bereiztu beharra zegok. Gero konfliktoa eta hori dena ni, Atxagak esan duen bezala, nik ere erdara erruz maite diat, ez bakarrik hori, hizkuntza horren bidez nik lortu dizkiat inoiz ezagutu ez ditudan, ez pertsonalki baina beti ere nere barruan eramango ditudanak, esate baterako Hego Ameriketako idazle guzti horiek, garai hartan ere egon nintzen ni han, Hego Amerika osoa ere barruan zeramat. Hemen sei euskaldun baldin bagaude eta zazpigarrena baldin badator oraindik zazpigarrenaz ariko gaituk eta hor zegok, eta hortik zetorrek konfliktua eta nik pentsatzen diat hor aurrera pausotxo batzu egin beharko genituzkeela. Baina piskanaka erdaldun gorri jende horrek ere konturatu beharko lukeela guk ere eskubide bat badugula eta hemen ahaleginak egin behar direla mundu guztiak euskara menpera dezan. Ni behintzat oso aspertuta negok, leku batera joan eta “no entiendo”ka erantzuten didatenean, oso aspertuta negok. Nik gutxienez eskatzen diat Euskal Herriak eremu bat edukitzea eta horretan guztiok ulertzea. Gero bakoitzak zein hizkuntza erabiliko duen, bakoitzak ikusiko dik. Eta garbi esan nahi diat, nire jokaera pertsonaletan, ni dendetara joaten naizenean, nik behean portugesa bazeukeat, gizona portugesa, andrea erdalduna, ni joaten nauk hara eta esaten zioat “emaizkidazu tipulak”, “dame cebollas” eta berak bazekik ni eskuzabalki nabilela, berari ez zioat zera egiten, baina baita ere iruditzen zait egoskorra izan behar dudala eta nereari heldu behar diodala, eta niri ez zait inporta itzulpen lanetan ibiltzea, hala ibiltzen nauk askotan eta.

Entzule batek

Nik uste dut Bernardo Atxagak hizkuntzen harremani buruz esan dituela bi gauza: lehenengo bere opinioa eta gero bere praktika. Eta gaizki ulertu ez badiot, %90 euskaraz bizi zara. Nik hori nahi dut, eta euskarak hori behar duela uste dut.

Bernardo Atxaga

Datu bat bakarrik eman nahi dut oso labur. Hainbeste euskara eta erdara, basoarena... Hau da, Gasteizko instituto batean. Daude, eman dezagun, 50 irakasle. Horietatik 12 bat euskaldun berri dira. Guzti guztiak dira Euskal Herritik kanpokoak. Hau da, Zamorakoak, Burgoskoak, Zaragozakoak, eta horiek dira euskaldun berriak. Gero daude han bertan bilbotarrak eta gasteiztarrak eta



donostiarren bat ere bai, eta gainera horietako asko daude beste programa oso lehiatsuetan eta horietarik inork ez daki euskaraz. Alegia, hik aipatzen duana oso ondo iruditzen zaidak, hire planteamendua, egoskorrak baina eskuzabalak. Niri iruditzen zaidak pauso bat oso praktikoa, zeren nik Zaragozako eta Burgosko jende horrekin euskaraz hitzegiten diat. Batzutan ezin didate euskaraz hitzegin, gaia beharbada zaila zaielako, eta orduan gaztelerara pasatzen dituk, baina nik segitzen diat. Aldiz, Bilbo batean, Bilboko gure hiri nagusi horretan, nos uste diat danak atera direla abertzale, hor egoten nauk eta denekin erdaraz jardun behar diat ez dakitelako euskaraz. Orduan, begirunea eta eskuzabaltasuna eta egoskortasuna oso ondo iruditzen zaizkit.

Mikel Hernandez Abaitua

Nik literaturaz hitzegin nahi nuke orain. Orain dela ez gehiegi irakurri nuen prentsan hik emandako hitzaldi bati buruzko zerbait. Bazekiagu askotan prentsan agertzen dena eta hizlariak esandakoa ez datozela bat. Irakurri nian hik ez huela oso ondo hitzegiten hire lehenagoko literaturaz. Esplika dezakek piska bat zergatik ez duken ikusten hain atseginki hire lehenagoko obra?

Bernardo Atxaga

Nik ere burua nolabait definitu beharko banu idazle bezala, esango nitek ni naizela idazle aspertia, ez dakit baden ere horrelako hitzik baina ni naiz idazle aspertia. Esan nahi diat, halako batean nekatu egiten nauk bai nire buruaz eta bai nik idatzitakoaz, eta uste dut hau adoleszentzian askori gertatu zaiola, ezta? Irakurri aurreko urtean idatzitakoak egunkarian eta sentitzen genian, nik uste dut adolozente gutzieoi pasa zaigula halako nazka bat bazela, aurreko urtean idatzitakoaz. Nik uste diat oraindik horri eusten diodala, eta bapatean Etiopia, berriro irakurtzearekin nekatu egiten nauk hor dagoen Atxaga horretaz.

Mikel Hernandez Abaitua

Orduan, gai hau azaldu denez gero, besteei luzatu nahi nieke galdera berbera. Nola bizitzen duten beraiek bere obra idatzi ondoren.

Juan Mari Irigoien

Nik ez zekiat zer esan. Nik nire kasuan ere, pentsatzen diat hori denoi gertatzen zaigula zeozer idazten dugunean, hori duk, erdiminetan ibiltzea bezala, eta azkenean botatzen duk, emakumeek hala esaten ditek. Nik oraindik ez diat haurrik izan baina, haurra edukitzen dutenean gero halako krisisa edukitzen dutela, halako gogo gabezia, horrelako zeozer, ez? Eta niri gehienetan hori gertatu izan zaidak, ez? Zeozer egin eta gero halako urruntze nahi bat bezala.



Itxaro Borda

Uste dut nire lanetan ez dudala bazterten libururik, zeren eta liburu bakoitza lotua da bizitzako urrats preziso bati. Baina gertatu izan zait gazteago nintzelarik poema asko erretzea. Hor bai, eman dezagun adoleszentziarekin bukatu egin nuela. Eta batzutan damu dut baina beste batzuetan ez dut batere damu. Baina gero beste liburuak, publikatuak izan direnak, mementuko galdera batzuri ihardespen batzu dira, bakarrik hori, eta agian, espero dut luzaz bizitzea galdera askori arrapostua eman ahal izaiteko.

Bitoriano Gandiaga

Bukatzeko baldin bada, gustora esango dut. Nik neuk ez dut irakurtzen neuk idatzitakorik berriro, nahiago dut denbora besteek idazten dutena irakurtzen pasatu. Amen.

OHARRAK

OHARRAK

Hegats

LITERATUR ADIZKARIA. 1 ZENBAKIA. ABENDUA. 1989

1

A U R K I B I D E A

SAIOAK

INAKI ALDEKOA

- Joseba Sarrionandiaren poesia:
Itxasoa gartzelatuta 5
- LUIS MARI MUJICA
Euskal kritika literarioaren inguruan . 11

LIBURU KOMENTARIOAK

PATRI URKIZU

- Jon Juaristi: *Literatura vasca* (Taurus,
1987) 19
- AMAIA ITURBIDE
Hiru poema liburu 25
- PATZIKU PERURENA
Irudimenaren labertntoa Hutsik
daukagu oraindik 29

ELKAR-HIZKETA

- ANA TOLEDO: 33

NARRAZIOAK

OMAR NABARRO

- Geu gagoz testigu 41
- JUAN LUIS ZABALA
Ez du amaierarik 49
- XABIER MENDIGUREN
Larrutik 53

IT'ZULPENAK

KOSE LUIS MENDEZ FERRIN

- Percival 65
Itzultzailea: Andres Urrutia
- STEPHEN VINCENT BENÉT
Super Flumina Babilonis 71
Itzultzailea: Joseba Sarrionandia

POEMAK

INIGO ARANBARRI

- Piamontekoak 83
- KARLOS SANTISTEBAN
Maitasun elorria 85
- ARANTXA URRETABIZKALA
Ortzadarra autopistan 88
- FELIPE JUARISTI
Sweet surrender errendizioa 90
- JOXE ERZIBENGOA
Heiagora 93
- JOSE LUIS OTAMENDI
Lau poema 97
- AMAIA ITURBIDE
Kantu Liraina 101

IT'ZULPENAK

EDGAR ALLAN POE

- Ulalume 104
Itzultzailea: Migel Anjel Unanua

WALT WHITMAN

- Ene buruaren kantua 110
Itzultzailea: Matte Gonzalez Esnal

BOLETINA. AZKEN BERRIAK

- 2º Congreso de Escritores en Lingua
Galega 115
- Nazioarteko Literatur Topaketak
Narraziogintza & Kritika 116
- Liburuaren Europako Batzarrea 116
- Galeuska Santiagon 117

SARIAK

- Literatur Lehiaketa zerrenda 119
- Gazteentzako Literatur lehiaketak 121

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA. 2. ZENBAKIA. MAIATZA. 1990

2

A U R K I B I D E A

JOSEBA ARREGI Sarrera hitzak 5	JOHN GUSTAVSEN (NORUEGA) Laponiar literatura lehen eta orain..... 47 <i>Itzultzailea: K. Nabarro</i>
PAOLA TRAVERSO (ITALIA) Metodo freudiarra italiar literatur kritikan 7 <i>Itzultzailea: X. Mendiguren</i>	AIVO LOHMUS (ESTONIA) Postmodernismoa, mundua eta estoniar literatura. Ohar batzuk 51 <i>Itzultzailea: K. Nabarro</i>
VICENZO CONSOLO (ITALIA) Italiar elaberrietako hizkuntza 15 <i>Itzultzailea: K. Biguri</i>	SEAMAS MAC ANNAIDH (IRLANDA) Irlanderazko literatura: iragana eta oraina 57 <i>Itzultzailea: M. Gonzalez</i>
DANILO MANERA (ITALIA) Italiako gaurko literatur bizitzaren zenbait zertzelada 20 <i>Itzultzailea: k. Biguri</i>	FRANCISCO SALINAS (GALIZIA) Testua eta testuingurua egungo Galiziaren narrazio esparruan 65 <i>Itzultzailea: B. Montorio</i>
JUITA HEINRICH (ALEMANIA) Marginaliaren antzutasuna 24 <i>Itzultzailea: M. Gonzalez</i>	MARTA NADAL (KATALUNIA) Kataluniako narraziogintza: hamarkada baten balantzea 74 <i>Itzultzailea: Josu Zabaleta</i>
ANGELA PIETRZIK (ALEMANIA) Hamburgoko literatur posta: Zerorrek idatzi zeure poema 29 <i>Itzultzailea: J. Usabiaga</i>	VICENÇ VILATORO (KATALUNIA) Idazlea "balitz bezalako" kulturaren 80 <i>Itzultzailea: J. Zabaleta</i>
JARKKO LAINE (FINLANDIA) Fikzioa herriaren ispilu ala oroitzapena? 36 <i>Itzultzailea: M. Gonzalez</i>	J. M. LASAGABASTER (EUSKAL HERRIA) De Arranondo a Obaba, pasando por Madrid 85
INGMAR SVEDBERG (FINLANDIA) Literatur suediarria Finlandian 40 <i>Itzultzailea: M. Gonzalez</i>	TXOMIN PEILLEN (EUSKAL HERRIA) Eleberriaren oraingo Euskal Hizkuntza eztabaidak 93
TSJËBBE HETTINGA/WILCO BERGA (FRISIA) Gaurko Narraziogintza Frisian 43 <i>Itzultzailea: M. Gonzalez</i>	ANDU LERTXUNDI (EUSKAL HERRIA) Nire Obraz 99

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA. 3. ZENBAKIA. URRIA. 1990

3

A U R K I B I D E A

SAIOAK

- ANDOLIN EGUZKIZA**
Euskal tradizioaren asmaketa 5
- EDUARDO GIL BERA**
Montaigne,
gure brebiarioaren estiloa 9
- PATRI URKIZU**
Pierre Laffitte, Euskal Literaturaz 11

LIBURU ETA ARTIKULU KOMENTARIOAK

- BITORIANO GANDIAGA**
Ala-deltan olgetan 25
- AMAIA ITURBIDE**
Hiru poema liburu 29
- JUAN LUIS ZABALA**
Ezta nahita ere
(edota kritikaria eta idazlea) 31

NARRAZIOAK

- IÑAKI IRAZABALBETIA**
Ozeanoaren erdian 37
- JON IRIBERRI**
Adagio hautsia 43
- PAKO ARISTI**
Trinidadea 47
- XABIER MENDIGUREN**
Oporretako koadernoa 51

NARRAZIO ITZULPENAK

- ANDREI PLATONOV**
Eguzkiaren sartalderantz 61
Itzultzailea: Karlos Santisteban
- KONSTANTIN FEDIN**
Neba-arreba 69
Itzultzailea: Karlos Santisteban

POEMAK

- AMAIA ITURBIDE**
Atoz nire etxera 75
- JOSE LUIS OTAMENDI**
Lau poema 76
- JOSE ERZIBENGOA**
Bortietan 79
- KARLOS SANTISTEBAN**
Eider eijerra 83
- JUAN RAMON MADARIAGA**
Iguriaren trilogia eta bat gehiago 88

POEMA ITZULPENAK

- PAUL VALERY**
Le cimetière marin 92
Itzultzailea: Migel Angel Unanua
- CHARLES BAUDELAIRE**
L'homme et la mer 102
Itzultzailea: Iokin Zaitegi
- BOLETINA / SARIAK** 105

Hegats 4

1991ko ekainan Gráficas Lizarran inprimatu zen.
Argitalpena 800 alekoa da



Irudiak:
TREASURY OF
FANTASTIC AND
MYTHOLOGICAL CREATURES

<p style="text-align: center;">Contrapas</p> <p>Heuscara ialgui adi cãpora</p> <p style="text-align: center;">Garacico herria Benedica dadila Heuscarari emandio Beharduyen thornuya.</p> <p style="text-align: center;">Heuscara Ialgui adi plaçara</p> <p>Berce gendec vñeçuten Ecin scriba çayteyen Oray dute phorogatu Euganatu cirela.</p> <p style="text-align: center;">Heuscara Ialgui adi mundura</p> <p>Lengoagetan ohi inçan Estimarze gutitan Oray aldiz hic beharduc Ohoria orotan.</p> <p style="text-align: center;">Heuscara Habil mundu gucira</p>	<p>Berceac oroc içan ðira Bere goihen gradora Oray hura iganenda Berce ororen gaynera.</p> <p style="text-align: center;">Heuscara</p> <p>Balcoac oroc preciaztẽ Heuscara ez iaquin harrẽ Oroc iccañiren dute Oray cerden heuscara.</p> <p style="text-align: center;">Heuscara</p> <p>Oray dano egon bahiz Imprimitu bagueric Hi engoitic e biliren Mundu gucietaric.</p> <p style="text-align: center;">Heuscara</p> <p>Eceyn ere lengoageric Ez francesfa ez berçeric Oray ezta eridexten Heuscararen pareric.</p> <p style="text-align: center;">Heuscara Ialgui adi dançara.</p>
--	---



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA
Etxague jeneralaren kalea, 6, behea. Tel.: 42 00 10
20003 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN